

BERTSO BILDUMA*

* Testu aukera hau osatzeko bereziki honako iturria erabili dugu: Bibliothèque National de Paris, Fonds Celts et Basques, n° 106, n° 164 (1854-1870), n° 165 (1871-1889), n° 166 (1890-1901), n° 169 eta n° 172.

URRUÑACO HERRICO ETCHEAN.

ELICA-BESTA

LA Behaturic 1790 Agorrillaren 16--24.º/1791# hurrullaren 28f eta
arriaren 6.º/eta 1857 # uztaillaren 15.º leguier;

Halaber Murde ANTONIO-TUOMPSON D'ABBADIE, escribatu letrer, cein-
ñetan aguinteen baidiocate, sari edo precio gembait, Urruñaco plaza
berrirag hunen lehen estraiña egunean, heien disputacera ethorrico
diren pilotari hoberenex

Precio horiec dire 400 libera erreboteco partida irabacico dutener;

100 Libera pilotari hoberenari, den irabazle edo galtcale partida
hortan.

100 Libera pleicari hoberenari.

Ikusirie behar dela yakiñ-arazi aiteñetic precio horiec yocatuco
diren egunac, arren gscualdun guziac transes eta gspanolac ethor ahal-
ditecen, hortan parte hartetara, eta arren oraiño yocariec izan deca-
ten yusteriazco bahirie osoenac;

Gue PIARRRES ETCHEVERRY Urruñaco herrico baldarapheçac nahi
dugu eta manatçer

1. Murde D'ABBADIE emanicac precioac, yocatçac icanen
dire Urruñac hurrullaren 8.º eta 9.º 1851.º goiceco, 10 orenetan.

2. Biltçar bat hautatua icanen da, parte yocariez berez, parte
baldarapheçac Murde D'ABBADIE lagun; biltçar horrec eguiñen
diçtu partiden antçalamenduac oro, eta erranen precioac çoiñer
eman.

Eguiña Urruñaco herrico etchean Agorrillaren 25.º 1851.º

Baldarapheça, ETCHEVERRY.

1851 URRUÑA**1**

Joanes OXALDE

KANTU BERRIAK-URRUÑEKO PILOTA PARTIDAREN SUJETEN GAINEANAirea: *Gaskoinaren kantua*

- I. Mila zortzi ehun eta berrogoita hameka,
Urruñan gerthatu da oraiko sujeta,
Pilota partida bat izan da xarmanta
Xoria bezain arin zabilan pilota,
Kaskoinak errefera Autziartzek bota,
Aisa irabazi dute Espainolen kontra.
- II Saratarak zituzten hartuak lagunak,
Guziek dakitena pilotari onak,
Orai horientzat dira primaren fortunak,
Prima hori emanik d'Abbadie jaunak,
Ohore frango badu gure erresumak,
Pilotan buruzagi Frantses-Eskualdunak.
- III Probentziarrak ere eztugu mendratzen,
Errespetuz baitira pilotan jokhatzen,
Makhurrik dutenian plazari galdatzen,
Halako jokhairiak orok desiratzen,
Bere paso ederrez jendia admiratzen,
Bainan Kaskoinak ditu artetik tronpatzen.
- IV Kaskoinak errefera, Auziartz botari,
Plazer onik egin du hemengo jendiari,
Heien lagunak ere ziren ongi ari,
Erreprotsurik ein gabe sekulan elgarri,
Partida finitu ta gero lauek irri,
Berriz ere prest gaituk hoiien zerbitzari.
- V Adios Nafartarrak bai eta probentzi,
Franzesekin pilotan ez daite liberti,
Hirur erreinu huntan Kaskoina nagusi,
Oraino holakorik ez dugu ikhusi,
Azken partida hortan guziek sinhetsi,
Anitz penatu gabe gaitu irabazi.
- VI Partida galdu eta jua dira doluan,
Franzes hoiek utzirik oro deskantsuan,
Ethorriak baitziren gazte eta trenpua,
Heiek bezalakorik uste ez zen munduan,
Kaskoinak tronpatu'itu bigarren phausuan,
Erbia lo baitzagon uste etzen lekhuana.
- VII Arrabotian galdu eta gero sendotzeko,
Bazuten desafio pleka jokhatzeko,
Bi Franzes hoberenak plazan paratzeko,
Esparantza beitzuten aisa irabazteko,
Fortuna izan dute berriz tronpatzeko,
Buruzagi beitate Sarako Norbertxo.
- VIII Gizon gaztia da eta gorphutza arina,
Hemeretzi urthe du jaun harek adina,
Iduri du hartako esprez egina,
Manera guziek da kalitate fina,
Halako jokhairiak ez daite estima,
Orai harendako da plekako zen prima.
- IX Mussiu d'Abbadiek ez balu eman prima,
Probentziarrendako, ai zer atsegina,
Hura dela medio badute xangrina,
Partida galdurikan bere bihotz mina,
Sofri urthe dela aurthen hori da jakina,
Aski dute egitia berriz al-egina.
- X Mussiu d'Abbadiek egin du fagore,
Haren present ederrez kontent naiz ni ere,
Partida jokhatu hemen lehen ere,
Bainan arizan dira primarikan gabe,
Primaren izaitia guzientzat hobe,
Eman dezagun hortaz jaun horri ohore.
- XI Holakorik ez da izan heskual herrietan,
Laudorioak baditu doubleska denetan,
Eta oroz gainetik pilotarietan,
Mila libera eman tu haien fagoretan,
Gero pertzu berriak laster kopietan,
Orok kanta ditzagun haren ohoretan.
- XII Guzien buruzagi d'Abbadie jauna,
Jainkuak ekharri zaitu gure artera huna,
Zu zare laudoriuak merexi tutzuna,
Zeren egin daukuzun obra eder bat ona,
Desiratzen dauzugu milaka fortuna,
Bertze mundian ere zeruko erresuma.
- XIII Desperitzera nago guzier goraintzi,
Errespetu onian nihori ez gaitzi,
Uste dut badudala hotarikan aski,
Gehiago emaiteko ez bainuien asti
Bi sotesan kopiak ez tira garasti
Aurthen nahi duienak paperik erosi.
- XIV Saldu nahi duiena bethi enpleguan,
Haien eroszaliak khausitu orduan,
Pertsu berri paratzen bere ofizuan,
Bertze pensamendurik ez dauka buruan,
Uda ta primadera orobat neguan,
Deusetako ez denik ez baita munduan.

1852 URRUÑA

2

Martin HALSOUET "Ttipi, urruñarra"

NAPOLEON

I Mila zortzi ehun eta berrogoi-ta hamabi
Eman nahi nituzke zombait bertsu berri
Ohore emaiteko Napoleoni
Zorionean dela gu ganat ethorri
Guziak nahi gaitu trankilik ezarri,
Bakea emanikan erresumari.

II Huna nola jin zaukun gure iguzkia
Argitzen duelarik Frantzia guzia
Aspaldian ginauden berandetsia,
Zonbeitek hartzen dute hortaz jelosia,
Zeren emaiten zaion bere merezia,
Orai ez baita lana gaizki hasia.

III Napoleon Frantzia hirugarren zare
Biga ezagutu ditut lehenago ere,
Oseba eta kusia Enperadore,
Gu heien zerbitzatzen ibiliak gare
Zerbitzatuko dugu zuretako ere,
Adinean zahartuak izanik ere.

IV Luis Napoleon harrazu kuraie
Zure zerbitzatzerat borondatez gaude,
Erresuma guziak ikharan daude,
Norat nahi joaiteko orai gauzak gare,
Baldin zu gurekilar ethortzen bazare,
Etsai guzien kontra beldurrik gabe.

V Autrixia jin zaiku umiltasunean,
Bere beharrarekin xapela eskuan,
Leheneko obra onak dauzka gogoan,
Napoleon gaztea han galdu ondoan,
Ez baitzuten pentsatzen batere orduan,
Bertze Napoleonik bazen munduan.

VI Autrixia bezela Anglesa ere
Segurra naiz ez dela beldurrik gabe
Leheneko aferez orhoitzen dire
Napoleon zaharra han galdurik ere
Iloba hemen dugu, harendako ordre
Zoina egin baitute enperadore.

VII Napoleon zaharra huntan zen tronpatu
Angleterran zuen egoitza hautatu
Kriminel bat bezela zuten tratatu
Isla Santa Elenarat zuten desterratu,
Harroka baten puntan hantxen zen finitu,
Ilobak nahiko tu zorrak pagatu.

VIII Egin izan zitzaioten hoinbertze obra
Onikan baterez, gaixtotikan sobra
Errekonpetekin iloba hor da
Othoi, ez berantetsi! Jinen da denbora
Zuek izana gatik burua gogorra
Arrazoina nork duen ageriko da

3

Joanes OXALDE

BIBA LOUIS NAPOLEON

Biba Louis Napoleon Bonaparte,
Frantzia izan duzu hanitz begitharte,
Obeditu zaitugu galdata eta fite,
Zure populu maitiaz bethi orhoit zite.

Airea: *Iguzki denian zein den eder itzala.*

I Mila zortzi ehun berrogoi hamabian,
Kantore berriak baditugu Frantzia:
Sujeten gainian, abendoaren bian,
Parisko hirian,

Sala ederrian, baitzauden guztian,
Tronpatu uste gabian.

II Sujetak nahi tut oneski deklaratu:
Bi ehun deputatu nola diren mintzatu:
Napoleon nahiz bethikotz kasatu,
Edo laurdenkatu,
Dute proposatu eta elgar hartu;
Etzaie baliatu.

III Napoleon Jaunak egin du abilezia,
Bertzela galtzen zen Frantziaren erdia,
Igorri guardia, ordre bat berria
Estimagarria,
Deputatuientzat hura zen loria:
Arratsian presondegia.

IV Bero den gizonak han behar du freskatu,
Edo ez du behar nehor gaizki xerkatu,
Dira entseiatu, nahiz eskapatu,
Hartarik libratu;
Ditu segurtatu, barnean zerratu;
Han behar dute kantatu.

V Biba Napoleon, guzien Presidenta!
Zuk egin daukuzu obra bat etselenta
Tenoria kausitu, ez baitzen beranta,
Afera xarmenta!
Deithuren zaitugu zitioien aita,
Hala zuzena baita.

VI Ikhus zuenian nola zuen afera,
Hartaz egin dauku Frantziari apela,
Ezagutu zuen orduko manera,
Gauza honik etzela,
Ginduhazin galtzera, edo sofriztera,
Ez bagintu athera.

VII Napoleon jauna, izan da entseatuia,
Konserbatu nahiz, Frantzian populua,
Izan du karguia, berak galdatuia,
Zeren zen premuia,
Du kontsolatuia, bere izpirituia,
Zeren den maithatuia.

VIII Zazpi milion botz, baditu phasatuia,
Merezi baitzuien haren errespetuia,
Baiginen guziak deliberatuia,
Eta intresatuia,
Hark egin tratuia dira hon hartuia,
Orotan hedatuia.

IX Aita sailduia ere Errumako hirian
Berak plazatu du trionfa eder handian,
Desterru baitzagon jua den aspaldian,
Maltako alderdian,
Eman du bidian plazaren erdian,
President Italian.

X Erlisionia ba, hura dela medio,
Nork ez du izanen harentzat amodio?
Frantziari abantail eman nahi dio;
Hil eta herio
Gostarikan ere etzaio khario,
Egin ahal badio.

XI Oro eskuian tu guzien egiteko,
Amodiotan da populuia rendako,
Kontribuzioiak ditu ttipituko,
Komersa hasiko,
Gitu lagunduko eta gidatuko
Fidelki zerbitzatuko.

XII Jaun hura dezagun orok erremesia,
Jainkoak eman dezon zerutikan grazia,
Kontserbatzen badu bere prudentzia,
Zer bozkalentzia,
Haren zuhurtzia animuz bethia,
Gidatzeko Frantzia.

4

Martin HALSOUET "Ttipi urruñarra"

MONSIEUR DABADIE

I Mila zortzi ehun eta berrogoita hamabi
Zuri mintzo natzaizu Monsieur Dabadie,
Zu zare eskualdunen kontsolagarri,
Zori onean zare gu ganat ethorri,
Ohore egin diozu gure herriari,
Manera guziez zare xarmagarri.

II Zure presentzia da xarmagarria,
Kasi iduritzen zait izar bat berria,
Zuk ohoratu duzu gure herria,

Ekharri deraukuzu prima bat handia,
Liberti gaitzela bestetan jendia,
Gizon preziatua eta maitagarria.

III Monsieur Dabadie, zutaz naiz mintzatu,
Ez ahal zare bada hortaz afruntatu,
Huts egin badut ere jauna barkhatu,
Eskola handitan ez banaiz pasatu,
Halere nahi zaitut onhezki aipatu,
Nere inozentzia ezagut zazu.

IV Gure plaza berria egin eta beriala,
Jauna, izatu dugu zure beharra,
Bethi izatu zare gizon leiala,
Errekonpentsatzeko moianez ez bada,
Eginen dugu bada gure egin ahala,
Zure kontserbatzeko posible bada.

V Monsier Dabadie, hitz batez barkhatu,
Pilotariak ere nahi ditut aipatu,
Onhezki bai ditutzu denak tratatu,
Zure prima handia dute estimatu,
Eta ohorezki Urruñan jokatu,
Holako hainitz ez da lehen izatu.

VI Mila zortzi ehun eta berrogoita hamabian
Prima eman daukuzu bigarren aldian,
Holakorik ez da eskual herrian,
Kontserbatuko zare oraino agian,
Nik desiratzen zaitut denbora luzian.
Hemen egon zaitezzen gure artean.

VII Hunekin konplitzen ditut zazpi pertsu berri,
Guzietan aipatuz Monsier Dabadie,
bethi errespetu nahi diot ekharri,
Jauna gure herrirat baitzare ethorri,
Ohore handi hori zuk duzu ekharri,
Huntan gelditzen naiz, zure zerbitzari.

5

AN.

MURDE D'ABBADY HANDIA

I. Murde d'Abbadý handia,
Utz-azu hurbiltzera
Gazte haien konpainia
Gure ingurutara.
Adi zatzu zenbait phertsu
Zuretzat moldatuak.
Zeinak segur baititugu
Bihotzetik hartuak.

II. Uropa guzian eta
Bai hainitz haratago,
Zure izen distianta
Barraiatua dago;
Frantzian ohorez eta
Tituluz gainditua,
Zuzenez ikhusia da
Zuk duzun meritua.

III. Abantail glorios hoiek
Ditugu admiratzen,
Zure baithan ikhusiek
Gaituzte hagitz phozten:
Maithe duzun herri honi
Haietarik gloria
Heldu zaiona, segurki
Ez baita, ez, ttipia.

IV. Baina zutan gu xarmatzen
Gaituen berthutea
Ez baituzu guphidesten
Hain goratik jaustea.
Bethi arrai eta laino
Gurekin balzatzea,
Gizon handi egiazko
Hori baita agertzea.

V. Zaitugunean ikhusten
Guk gapeluarekin,
Gorphutza ere birundatzen
Gerriko zetarekin;
Oinetakotzat hartuak
Gure ezpartinetarik,
Badiogu: ah! mutilak,
Jaun hau duk guretarik.


VI. Baina nola mintza hemen
Zuk establitu primez?
Zure bihotz noblearen
Erakuspen handiez:
Hek gure plaza ederrari
Diate ematen ospe,
Baita herri guziari
Abantail eta ohore.

VII. Haien bidez dire ikhusten
Toki huntan bilduak
Eskual-herrietan diren
Jokari famatuak:
Eta dire ikhuskari
Ederrenak hedatzen,
Baita herrian urrozki
Asko moltsa gixentzen.

VIII Esker beraz eta ohore
Murde d'Abbadý, zuri,
Gure herri on hau maithe
Hainbertze duzunari:
Gure mihiek zaituzte
Bethi ohoraturen,
Gure bihotz onek ere
Zaituzte maithaturen.

IX Zaren gure Urruñaren
Luze edergailua,
Hori da gure bihotzen
Zerurako botua:

Bai dakezun galdez gaude
Hemen urthe luzerik,
Eta errezibi ohore
Gure ondokoetarik.



Maurice Harriet (Haltsu, 1814-1904)

100 Tiperak

ELICABESTA.

Behaturic 1790 Agorillaren 16--24. -- 1791 Burrullaren 28. eta Urtaren 6. eta 1857 Uztailaren 15. leguci;

Halaber ANTONIO D'ABBADIE yaunaac eguin dituen aguinteei, cemelak hiltz ematen, baidioate sari edo precio combatu, Uruñaco-plazan, heien disputateera elhorricot ditren pilotari Esecualdun hoberencei;

Precio horietec dire:

400 Libera erreboteco partida irabacico ditenei;

100 Libera pilotari hoberenari, den irabazle edo

Eduna ELICABESTA

100 Libera pleicari Escualdun heber enaria

Ikhsuric behar direla yakiin-arazi aiticinetic precio horiec yecataco diren eguiaz, arrea Escualdun guciaz esqual herrico eazpi partelariq ebhor abal diteseen, hortan parte hartocera, eta arren oraino vocarice iqan detacalen yusic...

Dembora berean / ANTONIO D'ABBADIE jaunak... bereciq... gogandien urthean garantide...

partideta edo bederen bilcarrean, sartecoo; Gue A. DE LARRALDE-DIESTEGUY, Urruñaco herrico...

NAHI DUGU ETA... 1. D'ABBADIE jaunac emanicaco precioq...

2. Bilcar bat hautatua iqanen da, parte vocariez berez, parte baldaraphecaz...

oro, eta erranen precioac coinec eman behar diren.

3. Icanen izite yar tekha berechitac.

D. MANUEL-IGNACIO ARPIDE, Oyarzundarrac, D. RAMON IRASA, Hernaniarrac, D. JUAN-MANUEL RUET, Oyarzundarrac, D. MANUEL ARPIDE, id.

Murde LAPEYRE, Uztaritarrac, eta yazco huene lagun Larresorrotar batec, pleicari...

NOTA: Egun parte hartocera... Eguña Urruñaco herrico etchuan Agorritillaren 29. 1835.

Hona oharrak dioena: Nota: Pilota partida baino lehen, iqanen da goraki eçagut aracica pherxuetaco guduan garaia eman duena, eta harc eguin pherxuac iqanen dire cantatuac herrico guic / çon gazte hortaraco berechi eta irakhaxiez, çoinekin aldizacatoo baita musicari gorputh bat: eta ondoan pherxuetan garaitu duenari emanen çazcoo, ANTOINE D'ABBADIE / jaunaren partezco untaçaco urrea eta ohorezco makhila.

URRUÑA 1853**6**

Bernard CELHABE, bardoztarra

ENTZUNIK ESPANTUTAN INDIEN BERRIAAirea: *Atharratze jauregian &*, edo: *Mendian zoin den eder &*, edo bertze hanitz.

- | | | |
|-----|--|---|
| I | Entzunik espantutan Indien berria,
Beldurtu ere gabe othe den egia,
Montebidorat noha zenbait urtherentzat,
Aisia bildu nahiz azken egunentzat. | Han galdeturen bethi herria bihotzak,
Eskasa ez betheko irabazi untzak. |
| II | Ez naukan hainitz herritik joaitea,
Guti nakien zer zen nigar egitea,
Untzirat nohanean orai dut sentitzen
Damuaren eztena bihotzean sartzen. | VII Desterruan non kausi herriko mendiak,
Aiten egin ederren lekhuko handiak?
Ohitu ezkila ere ez dut adituren,
Bozkariorat ez nau bestetan deithuren. |
| III | Bertz-aldiz zihoazkigun irritan egunak,
Tristerik orai ditut aldean lagunak,
Adiotarat zaizkit nigarrez hurbiltzen,
Iduri naiotela bethikotzat hiltzen. | VIII Desterruko bidean erortzen denari
Lagun onik etzaio agertzen sokhorri,
Eritzean ez duke amaren artharik,
Hil daiteke inguruan nihor gabetarik. |
| IV | Sor lekhuan nituen esteka guziak,
Ez dakit handik urrun zer daukan biziak,
Adios erraiten herri maiteari,
Bihotza zaurthua, naiz eman nigarrari. | IX Adios, Eskual-Herri hanbat onhetsia,
Hire zerua zaitak ezin ahantzia,
Uzten darozkitziat maite ditudanak,
Ethor bahi, aita-amak, haurreko lagunak. |
| V | Diruaren goseak etxetik narama,
Utzi behar dut aita, utzi behar ama,
Segurantzarik gabe nihoiz bihurtzeko,
Iragan atseginak berriz kobratzeko. | X Noizbait ahanzten badut ene ama ona,
Beldur ez nadin ethor, nigarrez dagona,
Ahanzten badut aita, ahanzten herria,
Nihoiz ez bekit mugi ahoan mihia. |
| VI | Lur atzean zuhaitza laster iraungitzen,
Desterruan gizona gazterik zahartzen, | XI Urrun, Jauna, niganik, othoi, zorigaitza
Hustua kausitzeko aita-amen egoitza!
Aitzitik egidazu bihur nadin laster,
Eta goza ditzadan luzaki zuri-esker. |

7

LANDERRETXE, Garaztarra

NAHI NUEN KANTATU*EPIGRAPHE*

*La Makhila, objet utile,
Soit dans les champs, soit à la ville,
Passe encore,
Mais l'once d'or
Est un trésor
Des plus minimes
Pour un gueux troubadour
qui ne vit que de rimes*

Airea: *Bizirik naiz baina ez...*

- | | | | |
|---|---|----|--|
| I | Nahi nuen kantatu,
Alegera partitu,
Bainan, zer bihotz mina
Ene baithan da piztu?
Ene bihotza nola,
Nola daite kontsola? (bis) | II | Norat hoa, untzia,
Norat utziz Frantzia?
Norat hola deramak,
Orai ene bizia?
Ene bihotza nola,
Nola daite kontsola? |
|---|---|----|--|

- III Bagoazi tristeki,
Ameriketan kausi,
Ustez gure gozoa:
Esperantza zoroa!
Ene bihotza...
- IV Zerek nau liluratu?
Hola zerk enganatu?
Egiazko onak utzirik,
Itzala dut hautatu!
Ene bihotza...
- V Euskal-Herrian sortzen,
Ameriketan hiltzen,
Oi, zer zorte dorpea
Orai dutan bilhatzen!
Ene bihotza...
- VI Euskal-herri maitea,
Herri paregabea,
Hiltzea da nerretzat
Hi gabe bizitzea!
Ene bihotza...
- VII Adios, ama maite,
Galtzen zaitut zu ere,
Ni zugandik urrunduz
Zenbat biziko zare?
Ene bihotza...
- VIII Egin dudan botua
Baldin bethetzen bada,
Laster itzuliko naiz,
Am'ona, zuregana.
Ene mina bertzela,
Nola daite kontsola? (bis)

8

Gratien ADEMA "Zalduby"

AMERIKETAKO BIDEAN

- I. Huna jadanik hamar egun
Itsasoz itsaso noala,
Nere sor etxetik hain urrun
Utzirik amaren hegala,
- II. Ailene amaren nigarrak
Orai ez daude xukaturik,
Aita zenaz seme bakharrak
Baitzadukan kontsolaturik.
- III. Arreba, hor egon zaitte, zu,
Ama maitearen aldean;
Jinen natzaiola errozu
Bai, urthe laburrik barnean.
- IV Inharak horra airez aire
Nun doazin alde hartara;
Hegalak banitu, ni ere
Ez nindeke, ez, hemen bara.
- V Ametsetarik nintzen barda
Aberats etxerat itzuli;
Bainan ene ametsa juan da;
Hartan oro zaizkit itzali.
- VI Lore bat hauzo baratzean
ikhusi dut, eta han utzi;
Berari deus ez diot erran;
Igorriren diot goaraintzi.
- VII Hor berean, lore gordea,
Egon zakizkit, hitsu gabe:
Zu izanen zare neurea,
Zu, nik ditudan denen jabe.
- VIII Ene gazte lagun maiteak,
Sor-herriaz goza zaitezte.
Ni hortik hoin urrun juaiteak
Oi! zein nauen ezarri triste!
- IX Hik, bai, diru gose zorrotza,
Nabilkak hola zoraturik;
Hik dautak gogortu bihotza,
Hik ezarri nauk itsuturik.
- X Aberastu nahi naiz, bainan
Zuzenez eta ohorezki:
Herrirat heltzen naizenean,
Dirudun fama ez zait aski.

Martin EGUIATEGUI

KANTU BERRIA EUSKALDUN BATEN BIHOTZMINAK MONTEBIDEORAT JUANEZ

Airea: *Harispe jenerala, & edo: Perkainen kantuen, & edo: Airea zahar eta kantoreak berri.*

I Gazte nintzen oraino,
Aski errana da,
Adin hartan gutiño
Gauza phisatzten da:
Aditu nuieneko
Montebiden fama
Herriaren uzteko
Lotzen zaut su-lama.

II Ni airatzeko bezen
Tratantek hartzeko
Sareak prest zauzkaten
Dena erraiteko;
Jaun hekien mihian,
Ez da dudatzeko,
Onthasunen herdian
Naiz behin bethiko.

III Ederki liluratu
Nautenean elhez,
Ninduten amarratu
Zinez eta legeez:
Gero atxikitzeko
Portuan auhenez,
Bizitzen ikhasteko,
Nituenak janez!

IV Pasaiako denboraz
Gaitzik erraiteko
Nihork ez du menturaz
Klarki mintzatzeko:
Lur-sagar ustel asko
Xardin begigorri
Han ziren jastatzeko.
Bihotz altxagarri.

V Hala ginduen ere
Sabela zimurrik,
Izan gabe batere
Amentsen beldurrik:
Goiti-beti agudo,
Bergia ilhunik,
Ikhusi Montebido
Doi-doia bizirik!

VI Biziaren erdia
Baita esperantza.
Untziko miseria
Ahantzirik datza:
Zelakotz leihorrian.
Zioten, multzoka
Urre-zilhar hirian
Biltzeko ahurka.

VII Bainan enganioa
Orai dut ikhusten.
Ene erhokeria
Ongi deithoratzten;
Aments eder batetik
Nola den ilkhitzen,
Onthasunen erditik
Eskale huts nintzen!

VIII Urruneko eltzea
Errana da urrez,
Ikhus beza etxea,
Aurkitzen da lurrez!
Zer erran gehiago
Atzeman gaixoez!
Ogian gutxiago
Gasnaki emanek.

IX Alde guzietarik
Hunat ethorriak,
Edozoin motetarik
Gizon galgarriak,
Irabaziaz xuhur,
Ardura gastuak,
Gaizki ez laizke segur
Kartzelan sarthuak.

X Nonbait balu jendeak
Nonbait deskantsua!
Badire langileak
Nonda sosegua?...
Batean gerla eta
Bertzean ohointza
Nun nahi kanibeta,
Noiz nahi hil hotza.

XI Lur batetarik salto,
Ia bertzera kurri,
Hemen gabiltza suelto
Nigar-egingarri!
Hain ongi nintakena
Nere sort-herrian,
Zer jan-edan nukena
Aita amen aldian!.

XII Nun zarete gazteko,
Oii! lagun maiteak,
Nun dire bestetako
Gure dostatzeak?
Zer arraitasun eta
Zer alegrentzia!
Ala irangi baita
Orduko bizia!

XIII Aldiz hemen trumilka
 Gabiltza, tristeak!
 Elgarrentzat beldurka,
 Zer dohakabeak!
 Ardurenik halere
 Mairuak iduri,
 Eman gabe batere
 Kondu arimari!

XIV Oraintxe ezagutzen
 Dut zinez egia,
 Beranxe auhendatzen
 Ene haurkeria!
 Batbederak hargatik
 Gerorat guardia,
 Bederen kasko-dunik!
 Hunat ez abia.

XV Harzazue etsenplu
 Nere Eskualdunak,
 Ez zeren enganatu,
 Gazteko lagunak!

Hor-berean duzue
 Segur onthasuna,
 Beiratzan baduzue
 Jarrekitasuna.

XVI Hitzño bat zuretako,
 Arreba Kattalin,
 Xuri guziak oro
 Ez dire, ez irin!
 Ezaitzu gaitzituko
 Erraitearekin:
 Presuna ohorezko
 Batño hunat ez jin!

XVII Batbederak dezala
 Jaio den herria
 Preza, ama bezala,
 Lur maithagarria!
 Duelarik segitzen
 Bizitze moldea
 Hortantxe da aurkhitzen
 Zeruko bidea.

10

Martin HALSOUET "Ttipi"

MONTEBIDEOREN AIPU HANDIAK

I Montebideoren aipu handiak
 Niri eman dauzkit alegerantziak
 Deliberaturik harat juaitia
 Zer zorokeria!
 Esperantzarekin han aberastia
 Ethorri zait idia.

II Juan behar naizela erran diot amari
 Hark ez ninduen nihondik utzi nahi
 Nolaspeit gan nahi bortxa eginik hari
 Orobat aitari
 Gero urrikiak baitzaizkit etorri
 Eginikan lan hori.

III Aita amak dire jarri tristezia
 Hitzeman nuela aditu zutenian
 Ni heien aldiran nigarra begian
 Ilun bihotzian
 Ez jakin nola egin heien kitatzian
 Jarri naiz tristezia.

IV Ama eriturik ohian zait gelditu
 Nere solas onez ezin dut kontsolatu
 Ama ez khekhatu huts eginez barkatu
 Behar naiz partitu
 Nik egin fortunak zuk izanen tutzu
 Har ezazu deskantsu.

V Untzia pasaian bere marinelekin
 Ni engaiatua guateko harekin
 Ezin despeitu familiarekin
 Aita eta amarekin
 Eta aubridekin han baken zer egin
 Orok bihotzian min.

VI Adio aita eta ama aubride maitiak
 Hauzo adiskide ahaide guziak
 Nere sor lekua bai eta mendiak
 Usten tut guziak
 Nere tristeziak zuen kitatziak
 Ez dirare xumiak.

VII Kantu hauk eman ditu Urruñako ttipik
 Ez zitaken mintza arrutinatik baizik
 Ez tu eskolarik, ez prinzipiorik
 Malur du hortarik
 Ibiliz izan balitz eskolan gazterik
 Bazuken orotarik.

*(Urruñan egina abuztuaren 13an 1853
 Martin Halsouet dit Ttipi)*

GIZON BATEN BIHOTZMINAK MUNTOBIDORAT JUANIK

Airea: Haurrak, altxa bihotzak zuen Jainkoari...

I Mila zortzi berrogoi hamalaur garrena,
Muntobido alderat phartitu nintzena,
Geroztik sofritu dut asko gisaz pena,
Ungi uros izan da hor baratu dena.

II Pasaian hasi ziren ene lehen penak,
Oraino gibeletik ziren handienak,
Ez ditu sinetsiren sinhets gogor denak,
Nik emanen ditudan abusu zuzenak.

III Untzian sarthu gabe hainitz dolutuak,
Hain arinki harturik gateko botuak,
Haurrak amaer lephotik besarka lothuak,
Hantxe phartitzeko ziren nigarrez urthuak.

IV Hango penak ez ziren deusik kondatzeko,
Handiagorik bazen gero phasatzeko,
Untzia hirriskutan eman zen galtzeko,
Jende guziak jarri nigarrez urtzeko.

V Ez zen nehun miriku ez eta barberik,
Gure ganik odolik jaliko zuenik,
Guziak belhauniko ginauden emanik,
Jainko onari oihuz humiliaturik.

VI Herioa ikhusten bi begien bistan,
Pena handiagorik ez deitake izan,
Jainko onari oihuz hantxe ari nintzan,
Harentzat on baginen othoi har ginintzan.

VII Bi aldiz izan gera hala penatuak,
Belak mastak orobat denak xehatuak,
Elgarri kofesatuz gure bekhatuak,
Bardin hiltzerat ginen deliberratuak.

VIII Orduan haize hire, gero aldiz bere,
Ez beikinen lehertuz harriturik nago,
Munduan halakoak beitira arrado,
Ifernuan othe da hainitz handiago.

IX Izan ginuen harat heltzeko plazera,
Aditzerat zer pena orduko eskerra,
Heskualduna heldu da lan bidan galtzera,
Lehen jinkan bada erdia sobera.

X Orduan hasi ginen hainitzak tristatzen
Solas hek aditzean bihotz erdiratzen,
Erdi dohainik hasi gintuenen saltzen,
Ez zen bertze moienik bizi behar baitzen.

XI Hortarik ageri da hemengo manera,
Ez naiteke ausarta denen erratera,
Hemen lekhu galdurik munduan othe da,
Ez, othoi, hunat ethor arimen galtzera.

XII Ez zaitzela nehor hotarat abira,
Malurusikan aski gu hemen bagira,
Bakharrik ez ditake nehun ere fida,
Gau oroz gizon hilak nun nahi badira.

XIII Zerbeiten egiterat ethorriak ginen,
Zuzenki nehork ez du hemen deus eginen,
Tronperiarik beizik deusik da hemen,
Hortarik ageri da nola bizi garen.

XIV Oro hemen gabiltza salbaiak iduri,
Khonturik eman gabe gero arimari,
Igandeak zoin diren ez dire ageri,
Enplegua duena hari da lanari.

XV Aski da gelditzea zonbeit egineri,
Jaberik ez duena da urrikalgarri,
Heskual herriko gisa ez dire ageri,
Laguntza ematerat eritzen denari.

XVI Laur hilabete huntan nago eritua
Hirur ofizialez nintzen tratatua,
Hontasuna nuena ungi moldatua,
Gabetu bezen laster oroz kitatua.

XVII Urriki dut utzirik aita eta ama,
Heien bortxara jinik Muntobidon barna,
Heiek phensatu zuten gerthatuko zena,
Hortaz bihotzean dut sekulako pena.

XVIII Zaharren abisuer ez dena behatzen,
Mundu huntan guti da uros atheratzen,
Etsenplua duzue ni baithan ikhusten,
Zaharrer ez behatuz zoin maluros nizen.

XIX Burhasoak ez egon, ez, gure begira,
Ethorriko garela ez beikira fida
Egun guziez zonbat galtzen hari gira,
Segur ez gira jinen miletarik biga.

XX Adios, heskual herri guziz onhetsia,
Hi galdurikan diat ene min guzia,
Horrat jiteko banu pasaia saria,
Segur besarka niro ene sort herria.

12

Pierre TOPET ETCHAHUN

MONTEBIDORAT JUAILIAK

I Bi berseten huntzeko denbora dut hartzen
Uskal herri guzian, nahiz khanta ditzen
Montevidorat dira hanitz abiatzen
Bere khartiel huna beitie kitatzen
Eta gaistuaguan fortuna txerkatzen.

II Hau da uskaldunaren sistima tristia
Hurrunian beitie bere sinhestia
Ustez aisago egin han aberastia
Deus eztien lekian, zer aperentzia
Hori da arrantzura larrerat juitia.

III Sujet falsu elibat, jiten zaitze hanti
Nahiz jente erostez zerbait irabazi
Gero haiek laidatzen, herria askarki
Nahiz ahal bezain bat eraman hebenti
Bere fortunak behar hek egin sinpleki.

IV Aita etamer deitze haurrak galerazten
Hasten zaitzen phuntian, zerbaiten egiten
Ustez fortunaren txerखा dutie igorten
Beren etxen beharrak beiteitze emaiten
Haurren gaizki ezartez berak gaizki jarten.

V Aitama hurak dira, ezarten nigarrez
Haurrak haboro ikhus, ezitzen beldurrez
Trete hek hitz emaiten, khuntu hartzera hez
Lehen etzeizkitzenak, salerazi urhez
Salerazitzen deitze, ordian gezurrez.

VI Haur gaxo hurak dira itxasuan sartzen
Bere galerazliak, gidatako hartzen
Muntevidora ordun, gero hek kitatzen
Ordian hasten dira, bihotz min egiten
Zeren bere aitamak, kitatu zutien.

VII Gure aita ezitia, zure haurregati
Odola ixurtera, zunikina utzi
Guk dugun estatia, untsa bazenek
Fi gaxo egiteko, bazunuke aski
Gu traditu gutien, traidore hegati.

VIII Gure ama trendia, guk utzia etxen
Gure abiatzian, bihotz min egiten
Egun gure plainiak, bazuntu entzuten
Nula zure utzia, dugun deithoratzen
Nahigo guntukezu ikhusi ehortzen.

IX Ezin biziz girade, jarririk esklabo
Etxen guntialarik, guk beharrak oro
Anaiak girade ezari soldado
Arreben estatia, aldiz tristiago
Haren aiphatzia zait, haien phartez laido.

(fait par Etxahon de Barcus le 2 août 1853)

URRUÑA 1854

13

DUSSAUT, bardoztarra

LABORARIA

I Ohore, amorio laborariari,
Gure hazteagatik nekatzen denari,
Haren medioz lurak zerbait du emaiten,
Hari eskerrak oro girade bizitzen.

II Haz-aurrak amaño amatako hartzen,
Hala balitz bezala bihotzez maitatzen:
Gure aitañori, laborariari,
Amorio dezogun eman haz-ordari.

III Aski eskarniatuz, izertuz, nekatuz,
Bere osagarria milatan jokatuz,
Laboraria gaxoak mundia du hazten,
Eskerrak, nahi bada, eztian ukaiten.

IV Ohean hiritarra dago ahatzerik,
Arrankura guziak lohan ehortzirik:
Laborariak eztu argi-lo egiten,
Aztalak ihinzean goizik tu etzaten.

V Aroaren beldurrez ezta baratuko,
Hotzak, beroak deusek eztu lotsatuko:
Zonbat ere beituke lana bortitzago,
Hanbat hobeki zaio bularrez lotuko.

VI Laborariak nekez geinatu ogia,
Zuk gozatuko duzu, hiritar nagia,

Nahi bezala zira beti zu izanen,
Aski nekez hark beitu artoa ukanen.

VII Laboraria, jinen ote zaik eguna
Lehen errege batek hitzeman zeiana?
Goiz edo berant ote haie ikusiren,
Igant-oroz oiloa tupinan ezarten?

14

Gratien ADEMA

OHORE LABORANTZARI

I Munduan oi! zein eder den
Ohorezko bizia,
Guziz laborariaren
Lanak irabazia!
Hark du orai, nola lehen
Hazten mundu guzia.

II Laborantza gauza handi
Eta botheretsua!
Hartan da lanean ari
Jainkoaren eskua,
Gizonaren eskuari
Berma dadin lotua.

III Ez balitz laboraririk
Hits lagoza bazterrak;
Ez liru gauza handirik
Eman alhor alferrak.
Hiritarra, hik segurik
Zer jan hezaken, errak.

IV Bizitzeko behar diren
Gauza lehen lehenak,
Bihi, fruitu, zer-nahi den,
Oilo, abre gizenak,
Jendeak laborarien
Eskutik ditu denak.

V Orhoit gaiten arno hori,
Aihenaren odola,
Edaterat nork orori

Ematen duen hola.
Jakin gabe ez da sori
Edatea nihola.

VI Laborari etxetan den
Hauk haur eder lerroa!
Zangar lodi, gorphutz lerdan,
Larru garbi sana;
Aita ama leialen
Ondorio gozoa.

VII Laboraria lanean
Egunaz da nekhatzen;
Bainan gero arratsean
Familiaz gozatzen.
Gabaz aise da ohean
Goizeraino lokhartzen.

VIII Igandez, Eskualherrian,
Eder laboraria!
Elizan, kantaz loriantz;
Plazan, pilotaria;
Xahartu 'ta, jar-harrian
Juie 'do xaxaria.

IX Laborantzari ihesi
Hanbat seme alaba,
Ai! ondikotz, baitoazi
Toki arrotzetara;
Alhorrak larre 'ta sasi
Hara han daiten bara.

15

Martin ARRUPE

BEHA DEZAGUN ONGI

I Beha dezagun ongi alde guzitara,
Gizonik urusena laboraria da,
Bizkitartean bada ofizio onik,
Bainan ez hori bezain ohoragarririk.

II Erran dut urus dela, ez zait urrikitu,
Guzien ohoreak merezi baitditu,
Urustasun guzia lurraren gainean
Ez da bertze deusetan baizik ohorean.

III Zoin bere estatuaz kontent izatea
Bertzek urustasun bat osoki maitea
Laborariak badu arrozoina franko
Bere bizi moldeaz kontent izateko.

IV Biba laboraria ohoreak hiri,
Hik hazkurri ematen mundu guziari,
Laborea bezala bertze gauza ere
Hi ganik heldu dituk dudarikan gabe.

V Idi eta aretze, zikiro gizenak,
Hire artha handia izatu dutenak,
Errege eta Printze enperadoretan
Hiri esker ezarten bere mahainetan.

VI Oilo eta oilasko, antzara, ahate,
Etxe aberatsetan arras on zaizkote,
Horiek denak laborariak haziak,
Bai eta bertze fruitu suerte guziak.

VII Denboran denborako baratzekariak
Patata, ilhar, aza, kobatu zuriak,
Hirietarat dohaz egun guzietan,
Bizitze guzia da laborarietan.

VIII Marinelak urean arrainen kausitzen,
Laborariak ditu hek ere laguntzen,
Ogi xingarki eta haragi gazitu,
Horiek denak zoini esker othe ditu.

X Zoin gauza beharra den munduan ogia,
Guziek behar dugu aithortu egia,
Xoriak ohatzean umeak bezala,
Denak laborariak hazten gaituela.

X Ihizkinak airean arrainak urean,
Laboraria bethi hari da lurrean,
Ez dakiola ahantz zeruko jaunari,
Laguntza ematea laborariari.

16

Bernard BORDA

NERE XARAMELARI
"Labor omnia vincit"

...

Nere xaramelari jadanik zuk, andre pulita,
Lehen erakatsi zenbait kantore diozu,
Noizta artzain baten auhenak,edo noiz-ta laburzki
Usa samur baten intzirak, lan eztia, bilduz,

Bainituen gogotatzen, edo xaren itzal ilhuna,
Eta, erle ernearen janharria, loren irina:
Noiz-ta aldiz ditut erran izan, gonbitua izanik;
Phanzart handiaren guduak, bizia eta plazerak,
Ta haren ere zori gaitza, eta ere azken eguna:
Erresuma xipi baten, lhautiria izenaz,
Bertze orduz zena,omen,Phanzart errege dohatsu,
Zoinak gaztedanik, xoilki xirribika soinu,
Bai gabaz, lorian, bai bere botherea egunaz,
Baitzuen haizearen pare, nola uholdea, hedatu
Lur guzian.

LANDAK

Phertsu hauxetan laboraria, landak,
Erran orai zatzu, andre guziz jakina, zeronek,
Bai laborariaren bakea, eta haren ere plazerak.
Errazu nola, onthasun guzietan igeri,
Zoin zorion gozo duen hark dastatzen egoitzaz.
Dire zeru-lurrak haren. Oi! Sobera dohatsu
Lanatarra ezagut baldin bere ona baleza!
Ez dute bortha bihotz phenek setiatzen harena.
Da gezurra hirian, berthutea landan ikhasten.
Landa zaharra Aitek mende hetan iraulia irauliz,
Hark bakean gaba, hark bakean du iragaiten eguna.
Dire bizi landa hartarik soldadoa, apheza,
Dire bizi guziak: da erregeren ere mahaina.
Bazterretan hari frutuz elementa dilindan
Dago irriz, madari, tuaxa, eta hi, sagar ederra.
Onthua da bata udan, neguan da bertzea erorten.
Du bethi primadera, dio beherapena bethi
Eskaintzen lurrak, egiazko ama ona; balute
Maite haurrek, maite haur guziek, maite elgar oraino!
Maiz berek dute bilhatzen laboraria ohorek.
Herrian aspaldi da errege hautatua jarri.
Sortzean hark ditu liskarrak sinhetsia ithotzen,
Jainkozko legean gauzak dituela jujatu.]

LASTERKA

Phestetan zelhai batean gazteria bilduz,
Da, guzien buruan jarriz bera hulaxe mintzo:
Ene haurrak, duzue zuhar bat hara hantxet ikusten,
Zoinak, dorre baten-pare, bere kapeta zerura,
Phentzearen buruan baitu lerdena goratzen?
Aldiz hortxet adar bitan bi moltsa dilindan,
Hartzekoak jauziz, urhez bata, bertzea diruz
Pisua? Lasterkan zoinak zuharrean ezker
Zalhuki itzulirik, haren ere ingurua eginik,
Aintzinduz guziak, lehentiaren harrapatzen
Baititu, haren bite izan...
Hain sarri Betiri lehenik eta Domingo,
Anaiak, Betiri kuriosa lilitan adinaz
Eta Domingo aldiz lerdena, muthiko zilharra,
Zoinak ez baitu bi zangoka bere parerik,
Hanbat amulsuki bata bertzea maite dutenak.
Gero Urdina, begi zorrotza, Nafarroa odolez,
Ez gazte ez eta ere zahar, gordina, superra,
Zoinak haizearen pare lasterkaria, baitu
Lasterkan biziki benzutzen ihizin ahuntza;
Zoinari omen, kasik haurretik ilea zaiko
Urdindu, nundik baitzaio ethortzen izena;
Aldiz Etxexuri, Bidegain okherria, Zubero
Ez dena salto goran bardindua izana nehortaz
Eta asko azkenean, zoinek ez baitute izenik.

Aintzinduz lehian, ia dire herrunkan ezarri.
 Ia beha oro, begiak erne, erne beharria, daude
 Manuaren. Da joz ixilik hats-hantua iresten
 Barnea beldurrak, guzien daizkala bihotzak
 Jausika ohorearen khaldak eta urhen agintzak.
 Maiz aldizka elgar, zuharra aldizka neurtuz
 Ia dute orok begiez bidea hainizetan iretsi.

Bat batean guziak oihuz bi zangoka dira
 Jauzi urrun, noizbait keinu berandua ikusiz,
 Eta babazuzaren pare, zoin gehiagoka betan
 Funditu aintzinduz guziak, lehena Domingo
 Doha. Hunen ondotik, bideak Urdina gurituz
 Doha hurbil, bainan delarik hurbilean urrun.
 Gero, hunen oinetan Betiri, lasterkan oraino
 Berria, zaitzu heldu. Dute laugarrena Zuberok.
 Landa belhartsuaren buruan, ia ziren izerdi,
 Zuharra itzulirik, galdurik ere ponetak,
 Haro handi batean zedarrian heldu,
 Noiz-ta Domingo, oinaz diola oina tratatzen abilki,
 Bat batean baitu Urdinak lurrera botatu,
 Baita aldiz dela hunen lasterra berantzen, hegitik
 Aztal-arin Betiri, ainhararen pare, hegaldaka doha
 Lehena, eta xuxen da molsa urhera dohatsu
 Jauzi: hala-hala orduz bigarren molsa Zuberok
 Hatzeman, arte hartan doi-doia ez berea, dautzu.

PILOTA

Hurbil du zelhaian orai lasterra pilotak
 Aldizkatzen. Orok zeruetara Azantza Sorhondo
 Altxatzen betan dute Perkaineekin izenaz.
 Ez du bardinik behin ere botatzen izatu
 Perkainek nehon, ez errefilatzen Azantzak.
 Dire biak bata bertzearen bethe, elgar oraino
 Garraitu plazetan ezin behin ere dutenak.
 Du Perkain Garazik semea eta Sorhondo Lapurdik.
 Heiekin guziek plazan tratulanta Domingo
 Bertzalde altxatzen dute, baita superra Kurutxet.
 Bira lagunekin zoin bere alderdian halto,
 Dire biak fama handikoak zelhaian ezarri
 Inguru beha plaza ixilik khexatua dago.
 Eta batak ia bertzeari dakola pilota
 Eskaintzen biribila, elgar dutela ere neurtzen:
 Jo! dio Perkainek. Bota! du ihardesten Azantzak.
 Besoa makhurtuz, ponpatik hartua, laster
 Perkainek zeruan gora dako pilota zaflatu,
 Eta urrun: biziki ere botak du iragaiten Azantza.
 Oihu ehun Perkaindarrek zeruetara betan
 Altxatzen guziek dute. Oraino pilota botatzen
 Du biziki ezkerrek gehiago, bainan ederki
 Eskunak bota du lekhu berera bihurtu
 Ordean Ezkerrek aldiz dio igorria igorri.
 Baita Lapurtarrak airetik hartua berriz

Airez-aire urrun guzien gibelera sakatu.
Mendian utzirik behin hantxe xaramel ozena,
Nola habalaz baitu, biziki bortxatua beso
Itzulika, artzainak harri biribila botatuz
Zorrozki gora menditik mendira bidali,
Halaxe du, begiek bide ikus ahala Sorhondok
Errefilatu. Batean, bere aldian, oihuz
eta orroz gora Azantzarrek dute hodoi en egoitza
Burlan inharrosten...

ZEZENA

... Da laster hedatzen
Berria, nola zezen bat orai gudukatua izanen
Zelhaian dela, gaitza hainitz, hameka pikerok
Eramana urrundik gogorki uztartua, nekez
Harroka handi bat lerran duela herrestatzen:
Nolakoa orhoituz nehon ez baitzuten ikusi.

Berriki ditu sei zamari, toreadore biga
Urratu, fama handikoak Espainia orotan.
Ia toreadoreer konkorra gudura tuhurtak
Oihuegin diote. Harrabots ezagutua adituz,
Marrumaz athean urratua dago zezena.
Hola duzu gabaz itsasoko orroa aditzen,
Noiz-ta element beltzak zolaraino nahasia baitu,
Pisuki altxatuz ponpoila zerura, zerutik
Harroka hauntsuaren bizkar zabalera botatu.

Azkenean, guziak beha daudezila, zezen bat,
Beltza buruz, laster da inobrea jauzten arera.
Ilea beldurrez guzier zaiote xutitu.
Predo bera ixilik, hanbat toreador abila,
Predo zoina nehork arean garrantua ikusi
Ez baitu, Predo bazter beha, izitua dago,
Ez baxharra. Abreak du bere indarra frogatuz,
Haizea, sudur hixtukan xiztatzen adarrez,
Eta behegoiler, lurra haztaparkan irauliz
Barna, hixtuka legor uri bat idorra botatzen.
Alferretan hari dakote bilhatzen orotan
Nor arean nahi laiteken harekin izartu.
Orduan eztiki bere adixkide zaharra
Du gaizkiz Ahado, hurbilduz, xiztatzen Azantzak:
"Josi zerk, errak Ahado, heure alimua dauka
Alkhi hortan, dako erraten, gogoetan alferrik?
Zauka arras hiri ohorearen guzia agortu?".
Dakote hitz horiek erakitarazten odola:
"Ez nauk ez ni beldurra lotsatua egoiten,
Dako aldiz ihardesten kopeta goraki.
Altxatuz Ahadok, xoilki naike urte zaharrek
Aspaldi hormatuz zainetan odola, gogortu.
Bainan oraino diat nahi zer lehen izatu
Garen erakutsi..."

la, guziak esku joka daudezila, torero
 Da, gora sorbaldak, tainki lerdena xutitu.
 Bainan orai noren bada bilha dabila nigarrez
 Nexka hau? Den kuriosa! Nehork hamaseitan oraino
 Ea du haren ile horian primadera lilitzen ikusi.
 Zoin damuk begiak daizkote nigarrean urtzen?
 Nexka torerori marraskan gaztea jauziz
 Lephora: "Aita, dio, zoin da zure xedea? Beraz
 Haur bakharra behar zuk amagabetua nauzu
 Aitagabetu? Aski beraz ez naizen oraino
 Ni dohakabe? Hurbil nik ere dut azken oreña".

Haurtxoari onki aitak irri bat gozoa eginez,
 Soinean ere hartuz, du besarkatzen alaba,
 Eta dio, duela eztiki tinkatzen, harentxe
 Mathel amultsuari musu bat amultsua ixuri:
 "Nork bada zer,dio,egin dautxu,ene uso eztaia? Soin bat
 Gerrian inguru, nitaz eresia, ederra,
 Goiko ozadarra bezain, nik hauta derautxut emanen".
 Halaxe lausenguz dautzu enganatzen alaba.
 Du biziki eztituz Toribia bozten ederra
 Eta haren ere bihotz mina laster agortzen agintzak.

Azkenean bakharra Ahado da aphaindua agertu,
 Eta aintzina arean landatu zangoa tainki,
 Nardatzen duela, haizatuz bandera,zezena.
 Abrea da hain sarri saiheska bihurria jarri,
 Eta legorra behatz zabalaz du barna zilhatu.
 Lurra arradatuz makur baratxe muthurraz
 Da behin hurbiltzen, duela aintzinatzen adar bat
 Luzea: gero xuxen, biziago arranoa baino,
 Bere etsai guti izituaren gainera zezena

Ozpinaren pare funditu. Bai bainan abilki
 la bandera buruz enganatzailea ezarriz
 Du toreadoreak baztertzen abere samurra.
 Da gero errabian lauhazka zezena bihurtzen
 Itzulia. Alferrik etsaia ez berea berriz
 Herrausten duela aitzinduz eskuna torerok
 Gordea lepho hegian dio dardoa barna sakatu.
 Dako abreak orro bat ikharagarria egiten,
 Nola eheurziarik duela arrailatzen hodoia....



1855 URRUÑA

17

Leon ELISSAMBURU

EMAZTE EDALEA

Airea: Hau da ikhazketako mandoaren traza

I Munduan ikhusten da hainitz bizio,
Hoberenetik ere deus ez balio;
Bainan halere
Ohituz geroz hartan, bertzeak bertze,
Zor edo hartze,
Ezin arnega daite, arras hil arte. (Bis)

II Emazte edalea da higuigarri,
Dabilan urrhatsetan hain hirrigarri
Haren manera?
Zokhoz zokho batetik eta bertzera
Sar et'athera:
Sabeletik ez hotza doha etxera. (Bis)

III Flasko muthur luze bat, bethi gordea,
Ostaturat badaki ongi bidea;
Balitz erraile
Edari xuri gorri zenbat suerte
Ahal lakike.
Ibilirik senharrak deus jakin gabe. (Bis)

IV Zaku bat mandatari, bihiz bethea,
Irauten duen arte badu bakea;
Gero behar du
Ohe eta athorez egin merkhatu,
Dohainik saldu:
Senharra egin liro, ahalik balu! (Bis)

V Emazte edalea alferketari,
Hauzorat joan eta, berri kondari.
Egun erdiak,
Senharra eta haurrak, landan guziak,
Erdi goseak:
Artha guti heietaz zintzur luzeak. (Bis)

VI Ama biziotsua, hire haurrentzat
Mundura sorthu hintzen, heien kaltetzat
Dударik gabe.
Nork nahi dun har detzan etxeko andre,
Ez egin jabe:
Beldurrez hi bezala, diren edale. (Bis)

VII Emazteki zoroa, hik zahartzean,
Egoitzarik ez duken sarri etxean,
Luza etziron.
Umekin ere ezin haiteke egon,
Deusetan ez hon;
Lehengo adixkidek ez nahi nehon. (Bis)

VIII Bizi iraganari, ukho eginik,
Sar beraz hire baithan orai beretik;
Othoitz Jainkoa,
Izan ez hadiela, ez lehengoa,
Ez hain flakoa:
Etxean emanen dun, bake osoa. (Bis)

18

Martin ARRUPE, urruñarra

ALDE GUZIETARIK BERRI TXARRAK

Airea: Urruñako pilota partida handi hartako kantuen

I. Alde guzietarik berri txarrak dire,
Gauzarik hoberena eskasian gire,
Arnoak huts egin du bi urtez Frantzian,
Gero garastiatu dute Espainian.

II. Halere bethi heldu da Espainiatik
Nonbait edaten dute arnoa gogotik,
Kario izan arren gustu bera baitu,
Bainan bihar ginduke bertzela pentsatu.

III. Ostatueta lehen bezala egonez,
Horren bertze pagatuz arnoa edanez,
Penak ahanzten dire baina ez gutitzen,
Ondoko egunetan dire gogoratzen.

IV. Zortzian behingoa gizonek bederen
Orai nahiz halere gastua handia den,
Bainan emaztekin biziatzuz geroz,
Nonbaitik behar baitu horrek egun oroz.

V. Jaiki orduko dit barniak galdetzen,
Zintzurra bustitziatz du atsegin hartzen,
Aldian guti baina maiz bihar dastatu,
Uste ez dubelarik zaio akabatu.

VI. Berriz ere behar du biharamuneko
Mandari ixilak baditu hortako,
Dirurikan ez bada zerbait diru sari,
Nihork ikusi gabe laster ibil hadi.

VII. Emazteki arnora biziatu hori,
Bethi zupaka dago bere sabelari,
Noiz ganen othe zaizkon gizonak etxetik,
Zer nahi salduko du edatia gatik.

VIII. Bihia salduko du erdi prezioan,
Lino erostia ez dagoka goguan,
Holako emaztia dagokan senharrak,
Maiz ibiliko ditu athorra zaharrak.

IX. Begira zaite, beraz, zu emaztekoa,
Maiz ethortzen zaitzuna barneko flakia,
Biziorikan ez har arno edateko,
Gaitz hori gaitz neke baita sendatzeko.

X. Bethi begira esku xuhurtasunari,
Urthe gaiztoak dire ikus zazu hori,
Holako biziorik ez utz nausitzera,
Hiltzia lehenago desiratzekeora.

19

Martin ARRUPE

BEGIA ILUN ETA SABELTIK MIN

Airea: Igaz okerra zen eta okerrago aurten

I. Begia ilun eta sabeletikan min
Emazte edaleak badute zer egin,
Zeren arnotto hori baitugu kario
Izari berak orai dobla balio,
Dirua bilhatzeak lan ematen dio.

II. Ez dezake engana ostaler abila,
Dirurik gabe ez du zeren izan bila,
Dirurikan ez badu zerbeit diru sari
Arrozoin handirekin ostalera nahi,
Higal hartuko du zenbat lakha bihi.

III. Gizon gaiztuak bere izerdien gustuz
Ez erexki bildua gogorki nekhatuz,
Emazte gormant horrek guti orhoiturik
Gizonarentzat ez du urrikalmendurik
Bihia salduko du edatea gatik.

IV. Etxean ogirik ez, artoak akabo,
Emazte gormant hori tristerikan dago,
Familia hazteak ez du, ez, orhoitzen
Nonbaitik ahal balu sabela berotzen,
Higal hasiko da arroparen saltzen.

V. Lehenikan ixilka gero agerian,
Bizioa sobera nausitzen denian,
Bizio higuigarri, bizio tristea,
Behin hartuz geroztik neke da uztea
Begira zaite beraz, othoi, emaztea.

VI. Emazte gormant horrek haurrik baldin badu
Laster bera iduri bilhakatuko du,
Nolako ama eta halako alaba,
Seietarik bortzetan gauza seguru da,
Bizio sortuz geroz hiltzen ez dena da.

VII. Biziorik ez duzun emazte garbia,
Alaba horie emazu guardia,
Abia ez ditezen uko eta jasta,
Nahiz arnoa eta bai agorienta,
Bizio horlakoak ez ditezen gertha.

VIII. Zuretzat kalte eta berentzat ere bai,
Geldituko baitire gaxoak ezkongai,
Adituz geroztikan holako kontubak,
Gizon gazteak ere ez dire tontoak,
Berentzat ikusteko espos holakoak.

IX. Emazte edaleak azken urte hetan,
Eske ibili behar bertzeren atetan,
Hauzoetarik ez du urrikalmendurik,
Erdiek ez diote eman nahi deusik,
Zer biziotako den jakinduz geroztik.

X. Etorkezun horiez ongi orhoiturik,
Begira emaztea bizio hortarik,
Heldu den egun hartaz orhoitzen zarela,
Bizio horren punitzaile bat badela,
Othoitz aitzitik Berak begira gaitzala.

20

Filipe BORTHIRI, Onizepekoa

MUNDIA NOLA BEITU EKHIAK ARGITZEN

Asko airetan

I. Mundia nola beitu ekhiak argitzen,
Emazte honak hala etxia edertzen,
Ala beita dohatsu izanen gizona
Emaztia halako ukhenen diana!

II. Emazte hon zuhurra, grazia handia!
Haren althian ezta deusere urhia.
Harekilan gozoz da gizona biziren,
Zoin haboro dirade biak zaharturen.

III. Ardoari emanik dea emaztia?
Senhar gaxoarentzat, oi zer ahalkia!
Ifernia etxian, laidoak kanpoan,
Harentako bakerik nola daite izan?

IV. Hordikerian sarthu den emaztekoa
Ezin erran daiteke zoin den itxusia,
Eijerren zena lehen guziz miragarri,
Ardoak ezarten du ihes egingarri.

V. Zer egin da nuizpaizko emazte zilharra,
Arropetan etxian hanbat garbi zena?
Hain indesik, zirtzilik, nontik da elkhitzen?
Zer kanbioa beitu ardoak egiten!

VI. Edaliaren etxen ezta ordre hunik,
Eztu hark antsiarik, eztu tenorerik,
Haur gaxoak senharra eztutu beztitzen,
Gosiareki dutu erdietan uzten.

VII. Auhurretan senharra lanez phorrokatzen
hark irabaz ahala lagunak iresten,
Arte hortan etxia zorrek iroanik
Bera, haurra, senharra ezdeus baratirik.

VIII. Bizioz mintzatzeraz emazt-edaliak
Horditzia bezala badutu bestiak.
Ala den edateko, ala den edanik,
Deusetan halakoak eztu baramenik.

IX. Sendimentu guziak ardoan ithorik,
Ahalke modestiak hoinpetan harturik,
Bizioan xederik eztu ezagutzen,
Gizon moldegaitzenak dutu gaintitzen.

X. Emaztia ez fida beraz ardoari,
Etxekitzen bazira prestutarzunari,
Maite batuzu haurrak, senharra, etxia,
Ura izan dadila zure edaria.



21

Beñat DORBE

MUNDU HUNETAN HAINITZ EMAZTEK

Airea: *Urnietako Marie Tranpu*

- I Mundu hunetan hanitz emaztek edaria maite dute
Bethi barnean hildurak eta zintzurak egarri triste
Dugun nafar edo agorient den merke edo kario,
Gastuari halakoa denak nehoiz behatzen eztio.
- II Estomakatik bethi flakezan indarrez dire gutitzen,
Maiz zerbeit hartu beharra dute direnaz gero herbaltzen
Emasabelak apur bat ere uzten ez ditu bakean,
Edari xorta bat baitezpada behar dukete barnean.
- III Xorta bat orai laster bertze bat ixilik edo ageri,
Nakhasdura guti izaten da nahiz izan borthitzegi;
Erratea etzaie ahanzten nihor bada aldaketan,
Ez litzaiket errex ohitzea edari borthitz hunetan.
- IV Zer da gertatzen bethi hortarik bizioan dire sartzen
Etxeko lanez orhoitu gabe edaria gogoratzen,
Deusez konturik, guziak trebes ahulkeria hauzoan,
Hitz onak baino maizago tuzte juramentuak ahoan.
- V. Jaunzkietarik seinale dire emazteki edaileak,
Zaia zikina, mothoa makur artharik gabe ileak,
-
-
- VI. Soilarutako arto-ogiek irauten ahal duteino,
Konkuila beltz bat bidean dabil ostatutik etxeraino,
Denbora guti hustuz geroztik etxean du iragaiten,
Berak ez pada mandatariak lasterrez dute bethetzen.
- VII. Ah! Zer bizia daramatena mundurat sorthuz geroztik,
Goizean goizik abiatuak garraioan ostatutik.
Begiak gorri, mihia motel, arratseko loa segur,
Berotuz geroz ongi sabela ez dire sorginen beldur.
- VIII Edarian ohitzearekin bada bertze biziorik,
Bertzen gauzetan nihoiz lotzeko ez dukete ahalkerik,
Lore ederra garbitasuna eta guziz berezia,
Edanari emanez geroztik laster dute ahantzia.
- IX. Hamabortz egunetarik dugu hauzo-herrian merkatu,
Gutiz gehienek nahi dute nolazpait hartan agertu,
Emaztekiak dire komunzki lehia handi horrekin,
Denbora errexxi daramate hagitz tratu gutirekin.
- X. Oren bat edo bien buruan etxetik ilkiz geroztik,
barneak zerbait galdegiten du ezti edo garratzetik,
Karrika hoitan bada zer hauta biskotxa ttiki batekin,
Azkenik hiltzen denak, diote, guziak pagatuko tin.

22

T. EYHERABURU

ESKUAL HERRIETAN ZONBAIT EMAZTEKI

Airea: Zortzikoa

I. Eskual herrietan zonbait emazteki
Edariari dire emanak handizki,
Ohartu ere gabe bizitzeak hola
Ondorio tzarrenak ekhar ditzazkela.

II. Halako emazteak non nahi ezagun,
Urguiluak daukate beren ganik urrun,
Lepokoa trebeska, burukoa makur,
Bi begietarikan maiz nigarra segur.

III. Arrimu bera dute egon lekuetan,
Zikina putz bat lodi zoko guzietan,
Paretak estaliak irmi arma sarez,
Utziak, duda gabe, han bere ederrez.

IV. Bainan ez da axola, arta dute hartzen,
Asten zaioteneko barna ahitzen,

Etxian izateaz edari onetik,
Hark baitu ahidura kasatzen barnetik.

V. Nola maixko baiditu ahidura horrek,
Barnetikan kexatzen emazte gaxo hek,
Ilun nabarretako edanain medioz,
Belhaunetarik ganak, flako memorioz.

VI. Egun guzietan behar edari freskoa,
Ezti edo garratza nola den gogoia:
Guziak on zaizkote, salbo ur garbia,
Zerbeit gauza onekin nahasi garbia.

VII. Dathorrena dathorla, dohana dohala,
Naiz zahartzean egin Betri Santsek gerla,
Izaten tuzten sosak irets edarian,
Urdintzeko beldurrez urth'aren barnian.

23

Arnaud HARAMBOURE, Ziburuko xantrea

ZENBEIT HITZ ORAI DITUT

Airea: Asto bat saldu nihon Manuel Traturi

I. Zenbeit hitz orai ditut pertsutan ezarri,
Laido egiteko andre mozkorrari
Gizonen begietan daude higuigarri,
Emanak direlaketz arras arnoari,
Egartsu tzar hori,
Lotuba emari
Du habondagarri
Eta izigarri.
Halako amak ditu urrikalgarri.

II. Ikusten tugu heltzen ostatuatarat
Urrats bezanbat itzuliz gibelerat
Sartuak direnean barneko alderat
Ez ditezke atrebi itzez galdetzerat
Bizia lastererrat
Kuri alaserat
Kikera artzerat
Gazi gordetzerat
Debru kaiku hartan zer duan triparat.

III. Hiru edo lau herri dituzte altxatzen,
Ostalerarekin hola elkar haitzen,
Amarru handiekin karrikarat heltzen,
Urbildu direnian eroriko jartzen.

Han tugu ikusten
Hurrup hurrupatzen
Lauetan berratzen
Dire atrebitzen
Xutitu orduko lurrerat erortzen.

IV. Berak bertzerenak dituzte iresten,
Haur gaxuez ere ez dire oroitzen,
Zeruaz eta lurraz bihotzez ukatzen
Bethi edanarekin dire egarritzen.

Arras alfer iten,
Ohoinkuan lotzen
Lohi bilakatzen
Hori da gertatzen,
Sudurra kikeran maiz delakotz sartzen.

V. Holako emaztia daguen etxian
Bizi dire denak erromeserian,
Atorarikari gabe larruben gainian,
Irailia delakotz beti gorringuan,
Balitz arratsetan
Jar supazterrian
Senar haurren baltsan
Kilua gerrian
Guziek lukete atorra soinian.

24

Arnaud HARAMBOURE, Ziburukoa

ZER ZORIGAITZA!

Airea: *Gure Xixili...*

I. Zer zorigaitza,
Dudan jasateko,
Sobra da latza
Ixil egoteko,
Badut emazte bat
Hartuta alderat
Ebatziz nere moltsa
Duat ostaturat
Zer zorigaitza.

II. Istan guzian
Anpoila betezko
Dabilka zarpan,
Urrup egiteko
Soldurik motua,
Soina lepokua
Ihesi etxetik
Eskatzerat dua
Istan guzian.

III. Urdantsa tzarrak
Arnuan igeri,
Itentu mainak
Bere gorputzari,
Zonbat du pairatzen.
Isilik jasaten
Ur hutsez egin saldak
Derauzkit emaiten
Urdantsa tzarrak.

IV. Lakrikunxuak,
Keinuak aitzeko,
Baditu inak
Ostaturatzeko.
Hor bi errirekin
Han hiru lauekin,
Zintzur ziloko karrak
Berraturz totekin.
Lakrikunxuak.

V. Dohakabeak
Ez du ez amesten
Haurrek beharrak
Tubela siflatzen.
Beriak iretsiz
Bertzenak ez utziz
Golko bizkar lasterrak
Beteak tu zorritz.
Dohakabeak.

VI. Andre edana
Bethi da alferra,
Lohi ohoina,
Senararentzat tzarra

Gizona funditzen
Odola xukatzen,
Guziez akho ina,
Hola da bizitzen.
Andre edana.

VII. Lagun maiteak,
Uztarri huntako
Ez gare inak,
Unekin batzeko
Ez, ez da lurrean.
Gizonen semetan
Holako zintzurak
Dirade emetan.
Lagun maiteak.

VIII. Gizon gazteak,
Eman beraz, kontu
Zintzur idorrak
Ez, ezkontzaz hartu.
Utz beitez mutxuridin
Bere edanekin,
Atzematokotz oinak
Beira moserekin.
Gizon gazteak.

25

Bruno HARDOY, Urkhuraikoa

EMAZTE EDALIAK

Airea: Hauxe da ikhazketako manduaren traza, &

I. Emazte edalea, jende bahaska,
Zer nahi deatsala, bethi elheka,
Dena kalaka,
Behiner'ezt'ixiltzen, haren kurrinka
Jinkoa, zuk barka,
Etxeko lanetarik bethi iheska, a, a,
Etxeko lanetarik, bethi iheska.

II. Beroxago denian, bethi mokoka,
Lehen jinari gerla, hara ataka,
Hari mendeka,
Arrazoin gutiz bardin fite kolpeka,
Ala biloka,
Hala hezten du harrek bere pottoka.

III. Hirugarren gradua eta azkena,
Nihonek ikhusia, ezta omena,
Ez hoberena,
Emaztekiak galtzen bere izena,
Hauts hidazana
Hori primarik balitz, hark luke dena, a, a
Hori primarik balitz, hark luke dena.

IV. Mothua falta zuen, urthuts oinetan,
Zikina zariola merke burrustan,
Zaiak errestan,
Begiak hilak eta barnia sutan,
Hotina apuntan,
Xutik ezin egonez, lanak zanguetan.
Xutik ezin egonez lanak zanguetan.

V. Pottoka gaitza zuen gobernatzeko,
Sobera goihenduia hark moldatzeko,
Murdazatzeko,
Hirriku handitan zen gaizki heltzeko,
Anbil eiteko,
Inthalat erori zen han garbitzeko, o, o,
Inthalat erori zen han garbitzeko.

VI. Eztea bada krima handia
Jaunak eman dohainak hola galtzia,
Ostikatzia,
Lohitik ezin altxa, zein bertzia,
Hordi muxia,
Muthur aphalt batentzat baltsan utzia, a, a
Muthur aphalt batentzat baltsan utzia.

VII. Holako kriaturak bakharrak dire,
 Nonbre xumean ere sobera dire,
 Dudarik gabe,
 Eskual herriez kanpo dienak ere,
 Bai behar ere,
 Eztugu ez hetarik hemen batere, e, e
 Eztugu ez hetarik, hemen batere.

VIII. Gure andrek eztute segur sinhesten,
 Emaztekoa dela hola mozkortzen,
 Zentzuz gabetzen,
 Heien delikatasuna gutiz kolpatzen,
 Erreboltatzen,
 Aiphatuz beraz ere dira nardatzen, e, en,
 Aiphatzen beraz ere, dira nardatzen.

IX. Hauien desir guziak obra onetan,
 Zilharra bezen garbi beren etxetan,
 Lan guzietan,
 Sobrezia handia beren elhetan,
 Jan edanetan,
 Ttottaño bat haizu da behar denetan, a, an,
 Ttottaño bat haizu da behar denetan.

X. Konseilu ttipitto bat behar dako,
 Emaztentzat bezala gizonendako,
 Orendako,
 Espainol bugre horri khasu eiteko,
 Ez fidatzeko,
 Izari honest batez kontentako.

26

Jean Martin HIRIBARREN "Laurent DAGUERRE"

EMAN NAHIZ HIGUINTZA...

I Eman nahiz higuintza hordi emazten
 Alzetan ikusien hemen naiz hasten,
 Minez erraten,
 Gordetzen diren behin xirrixt egiten,
 Berak egoten
 Hats gaxtoak dioteno usain ematen.

II Luzatzen dire gero, khaldak errotuz,
 Ezin utzi gathilu husturik gustuz,
 Dira nausituz,
 Kanpo ibiltzen laster, barne gorituz,
 Gutu oroituz,
 Nihor trufa diteken hekin mandatuz.

III Ostalerak badaki zer duten nahi,
 Zoinpean dakharkete galderen baki,
 Anpoila mihi,
 Haren bethetze sari, xakhuan bihi,
 Ez beldur lohi,
 Eginik ere atzo uriz zer nahi.

IV Nihor bada lekhuko hekin sartzean,
 Ez dire enganatzen ttup galdetzean,
 Pinta deitzean,
 Bi erri erakutsiz buru haztean,
 Ezkaratzean,
 Berehala iresgai bat ilkhitzean.

V Arte guziez dire hausten bidetan,
 Trebes utziz bazterrak bere etxetan,
 Haurrak larrutan,
 Nihor guti agurtuz gurutzatzean,
 Agor hirritan,
 Ithorik urraizia zintzur lanetan.

VI Lokharria darite upusurdatik,
 Bortz erriak zapata herrestaturik,
 Urin mothotik,
 Ile nahasiena buru guzitik,
 Sudur gorritik,
 Arraspa eta mukhi ongarrizkotik.

VII Ez beira alhasetan hekin trenxoinei,
 Ez armarioetan zituzten soinei,
 Ezkontzan onei,
 Ez diote egiten, bere gizonei,
 Zothinak lanei,
 Eltzekari emana den beharrenei.

VIII Ez dire halakoak gizon lagunak,
 Ema urruntzaleak ditezken minak,
 Aingeru onak,
 Nola baitire andre euskaldunenak,
 Hautatuz denak,
 Emazte hori baden ez dakitenak.



Jean Martin Hiribarren
(Azkaine, 1810 - Baiona, 1866)

27

Jean Martin HIRIBARREN "Leon DAJAS"

EMAZTE EDALIAK

Airea: *Hau da ikhazketako...*

I Bidatxun, Akhamarre, Salies hetan,
Elkhar iduritsuak dire orotan,
Guziz gustutan,
Hango andrekin lehia lege aisetan,
Arno goxotan:
Itho bedi eskaldun lakheta hetan! (Bis)

II Landes alderat handik denak hedatzen,
Ostatutan andrekin ditu aurkitzen,
Arnoz freskatzen,
Zitiz dutela eltze garthetan ontzen;
Guti gorritzen
Duten arren burua maiz aski galtzen. (Bis)

III Eskaldunek holako guti ikusi,
Arnoak hekin andre nihoiz nahasi,
Zein den itsusi!
Agertzen direnean zikhina nausi,
Buztan gahasi,
Iduri bazter orok behintzat sasi. (Bis)

IV Ez da nihoiz ikusten, Landes herrian,
Emazte edalerik khilo gerrian,
Orratz errian
Izanik ere senhar larru gorrian,
Negu bizian,
Holako plantak dire ema hordian. (Bis)

V Zitzu beldurra dute kurtxoin barneko,
Mihiserik date listairendako,
Ez buhurdiko,
Ohe hegi guziak trapu izarrezko,

Kherrutan zoko,
Aphaindura ederrak andren gelako!

VI Manketan nausi dute edari toki,
Ophor eta gathilu bada ausarki,
Bai botoilaki:
Arnorik etzinuke hartatik aurki,
Emek goxoki,
Baxerak hautsi gabe, edana naski. (Bis)

VII Bazter guziak dire garbitzekoak,
Harriak landiertzat, eskas hauskoak,
Alkhipekoak,
Bizpahirur haitz ondoz egin trunkoak,
Gela osoak
Ezta latsez geroztik miratzekoak. (Bis)

VIII Heldu direm jendentzat hekin grazia.
Karroin eta sakreka solas guzia,
Hura bizia!
Ama hordiek haurrei erakutsia
Zeru hazia,
Saindutasuna balitz hoin itsusia! (Bis)

IX Urrun beza Jainkoak ema holako,
Alferrik handiena lan orotako,
Salbu tripako,
Gai zortzi egun gelan hertzen uzteko,
Ongarri puerko
Erdaldunetan xoilki on bizitzeko. (Bis)

28

OLHAGARAY, Larrasoarra

ESKALDUNEI

Airea: *Kantuen emaitako izan dut kargua**Ez edan arnorik, kolera dakharke*

I. Boza daut altxarazi, ene herritarrek,
Gutarikan zenbaiten kontseilu beharrak,
Gure Eskal herrian ez nuen erranen
Hauien sujetik zela sekulan izanen.

II. Bainan ezagutzen dut tronpatzen nintzela,
Malhuruski sobera baizen ez direla
Barkhatuko dautazu, populu maitia,
Bihotzian dudana beraz erraitia.

III. Kreatzaileak zion eman gizonari,
Aihenaren frutuia lehortuz edari,
Lurreko lanen kontra ihardokitzeke,
Bere izerdi penak hartan irhesteko.

IV. Zer da ikusten aldiz oraiko denboran,
Edalerik baizen ez norat-nahi dohan,
Gizonak gizon diren emazte hordiak,
Egun beharrak nonbeit ahalgez gordiak.

V. Jainkoaren manuak oro ostikatuz,
Zintzurreraino dira bethetzen ostatur,
Ez dute, ez, segurki nekherik ikusten,
Pareko daudenian botoilaren husten,

VI. Jauna zauku agertzen kolera handitan,
Arnorik ez dukegu gure mahastitan,
Emazte edaleak ez dire kexatzen,
Bere khalda ez dute batere bortxatzen.

VII. Hazkurritzen dute bai sukar gaixto hura,
Zoinak finiarazten baititu ardura,
Heien senharek, haurrek zer dute egiten?
Miseria gorria etxean jasaiten.

VIII. Ez dute familiaz urrikalmendurik,
Ez eta ohoriaz egiten kasurik,
Bada hauk galduz geroz hobeago laite,
Bizirik lur barnean oro sar balite.

IX. Ezin aski deithora ditaken kaltea,
Emazte dohakabek hola edatea,
Zuhurrez famatuak gure lehen amak,
Bertzelakoak ziren heien jan edanak.

X. Hek ez ziren sekulan arnoz gorrituko,
Lehenago eskasa zuten sofrituko,
Nekhe handienetan hartarik edaten,
Lauretarik hirurek ez zuten ikasten.

XI. Edalek har bezate etsenplu hek baithan,
Galdegiten diotet ber-beren onetan,
Bilha bezate, bilha, etxeko gostua,
Utzirik arnoaren tirria gaixtua.

XII. Hemen baratuko naiz, aski da erranik,
Ez dut probetxu uste urrunago ganik,
Esperantza dut orok adituko nauten,
Eta gaitz horri gerla eginen dioten.

1856 URRUÑA

29

Jean Baptiste LARRALDE

HERRIKO BESTA

Airea: Hau da Frantses istu(di)endako alegantzia handia.

I Herriko besta denaz geroz aurthen kantuen sujeta
Nik ere zerbait erran nahi, dezagun denbora pasa
Ez naiz, sobra dakit (sasoina ganda)
Gehiago gazte, bai hala da!
Bainan egun huntan zaharrik nihon kausitzen othe da?
Ez thanburin, xirola-soinuz guziak airosten gira.
Goazen beraz zahar-gazteak, goazen herriko plazara.
Atseginez hain aberats den egun huntaz gozatzer.

II Egun guziz familiak dira mila gisaz barraiatzen,
Anaia, arreba, josienak elkarrenganik urruntzen,
Amak nigarretan umeak deitzen,
Haren boza nihork ez aditzen.
Bainan herriko bestarekin guziak etxera biltzen.
Bere burhaso maite horiek amultsuki besarkatzen,
Egun eder, egun gozoa, atseginez gauditua.
Berantegi aditu tuzu gure bihotzen oihua!

III Gizon gazte gorputz lerdena, hunat herriko gorria:
 Eta zuk, neskatxa kriketa, laster kaxa soin txuria.
 Goizetik denbora dago garbia.
 Nihon hedoi bat ez, zer loria!

Jadanik urrun ikhusten dut plaza jendez estalia.
 Loth beraz zuen makhileri: lagunak, gaiten abia.
 Goazen, goazen, zahar gazteak, goazen herriko plazara
 Atseginez hain aberats den egun huntaz gozatzeraz.

IV Plazara heltzen garenean, zer zaiku kolpez agertzen,
 Sei herrunketan gazteria, zaharrak etziren azken,
 Zortzi pilotari dira jokhatzen,
 Begiak dituzte liluratzen.

Nahiz oraino, bere boza nihork ez duen altxatzen,
 Segur naiz bakhotxak duela gogoz bederen kantatzen,
 Egun eder, egun gozoa, atseginez gauditua.
 Berantegi aditu duzu gure bihotzen oihua!

V Aurthen Urruña lehen dugu, besta guzien nagusi,
 Ikhusten dut, eta halere kasik frogarik ez aski;
 Zein goradanik Printze bat den jausti,
 Gurekin egungo khide jarri.

Eskaldunak ez dugu sekula Jaun hori behar ahantzi.
 Orai, ez bakharrak bihotzez, kanta dezagun goraki:
 Biba! biba gure Printzea, hanbat thalenduz bethea;
 Thalenduen bardina dago xoilki zure berthutea!

VI Nahiz oraino mila gauza banituzken erraiteko
 Printzeaz mintzatuz geroztik guziak litezke flako:
 Lurrera zerutik ez erortzeko,
 Muga da, en´ustez ixiltzeko.

Aski, beraz, bestaliarrak, orai etxera goateko,
 Amarra zuen espartinak, ama gure beira dago.
 Goazen beraz, goazen gibelat, bainan heldu den urthean
 Aurki gaiten, nere lagunak, aurthengo toki berean.

30

Martin ARRUPE

ALEGERA GAITEZEN...

Airea: Probentziaren kantak Lapurdin agertu

I. Alegera gaitzen eta elgar lagun,
 Gure eliza besta zeblebra dezagun.
 Gure Patroin handia eman bitarteko,
 Jaunaren aitzinean gu ez ahanzteko.
 Eta grazia galde heldu den urteko,
 Berriz adixkideek elkar ikusteko.

II. Adixkideek bestetan elgarri diote:
 Jaunak gertha gaitzala egun urte bethe,
 Guziak bizi eta osasunarekin,
 Bitartean lagunduz bere graziakin
 Gustu bera hartzeko gure lagunekin
 Othoitz egin dezagun fidantziarekin.

III. Zatozte aspaldiko ezagun zaharrak,
Ahaide, adixkide hauzo herritarrek,
Gure eliza bestan har zazue parte,
Ethor ahal guzia zahar eta gazte,
Gizonak ez du behar bethi egon triste,
Holako egunetan alegera zaizte.

IV. Pilotari, kantari eta dantzariak
Gonbidatzen ditugu horiek guziak
Gure eliza besta biharamunean,
Datozela guziak omore onean,
Liberti dituela lege zuzenean
Aitzineko zaharren usantza berean.

V. Pilota partidetan eliza bestetan,
Errenkura guti du gazte horietan,
Mainguak xuxenduak eriak sendorik,
Pasaletan dabilta koloreak onik,
Ez badu min handia ttipiak gorderik,
Gazteentzat ez da ez holako barberik.

VI. Gizon zaharrek ere gazteko solasak,
Ahantziak dituzte etxeko eskusak,
Pilotari, dantzari izatuak lehen
Orai ere gogoak badute bederen,
Ahalak joan eta gogoak irauten,
Gutxieneri hola, zaiote gertatzen.

VII. Zoin diren gustagarri holako egunak,
Alegera ikhusten bait dire lagunak,
tristurak ez litezke kasa bihotzetik,
Holakorik ez balitz bederen urtetik,
Ez gaitezen gibela besta egitetik,
Bethi lanean hariz, ez da bizitzerik.

VIII. Gure aitek bazuten pentsamendu onik,
Usario ederra dugu hek emanik,
Jaunak gertha detzala zeruko gortean,
Gu ere egun batez hekien aldean,
Gure Patroin handia azken orenean
Dakigula balia arimen onean.

31

Salvat DAGUERRE

KHANTORE BERRI BATZU

*Airea: Nor nahik zer nahi den erranikan ere
Ahazpandarra nuzu bai nahi ere*

I Khantore berri batzu nahi tut pharatu,
Sujeta zertaz den orai deklaratu,
Gure eliza phesta dugu zelebratu,
Eginbide guziak ederki konplitu,
Pilotan jokhatu,
Onheski dantzatu,
Gostuz libertitu
Ez dut uste nehoari zaukun dolutu.

II Libertimendu hori, oi gure herrian,
Aurthen egin dugu plaza ederrian,
Batzu pilotan eta bertziak soinuari,
Laur edo bortz egunez guziak loriar
Theatre gainian
Trionpha handian
Musika joitian
Dantzan ari ginen omore onian.

III Pilotari horiek kanpotarrak ziren
Ahazpandarren kontra ari baitziren
Gizona galantak dira plazara agertzen,
Ez baitute sekulan makhurrik xerkhatzen,
Ederki jokhatzen,
Bai eta mintzatzen,
Eniz estonutzen
Etsenplu zaharra baitute segitzen.

IV Ahazparneko horiek pilotan artzian
Akordatzen dira elgarren artian
Nihor ezagutu dut partida batian,
Pare guti dutela Laphurdi guzian,
Ez eta Frantzian
Bardin Espainian
Lege zaharrian
Besogainka jo gabe moda berrian.

V Leheneko urthetan eliza phestetan
 Aste guzia artzen ginen pilotan
 Bai eta bertze zenbait dantza jauzietan,
 Ostaturaz geroztik khantaz errepikan,
 Elgarri pertsutan
 Tringatuz artetan
 Erreita handitan
 Bainan gauherdiko zoin gure postetan.

VI Bal bat agradabilia zuen gazteriak
 Huna beaz orai pertsutan berriak,
 Xarmagarriak ziren hango dantzariak
 Eta partikulazki andere gaztiak
 Berenaz propiak
 Ederki jauntziak,
 Onhestak guziak
 Non nahi pharatzeko pare gabiak.

VII Theatre hartan bazen anhitz soinulari,
 Aplikatzen ziren beren musikari,
 Muthil gazte xarmantak han ziren ageri,
 Eztutela faltarik eginen phestari,
 Batzu pilotari,
 Bertziak dantzari
 Bai eta khantari,
 Idibarnegaray zuten pertsulari.

VIII Gure herriko phesta zoin zen xarmagarri,
 Gazetetan behar litake ezarri,
 Lehenik Baionarat primala igorri,
 Berifika deitzaten zortzi pertsu berri,
 Monsieur Dabbadi,
 Zu zire nagusi,
 Priman buruzagi,
 Huntan finitzen dut zure zerbitzari.

32

Leon ELISSAMBURU

BOZKARIO HANDI BAT BADA

Airea: Saratarra naizela orok badakite

I Bozkario handi bat bada gure baithan
 Zeren Eliza bestak diren herri huntan,
 Nola eginak garen ez dirogu erran,
 Atsegin gaindizkoak gaitu hola eman. (bis)

II Huna beraz non zaren, Besta, ethorria,
 Aspalditik zintugun ikhusi nahia,
 Plazarat egin duzu gaur gure galdia,
 Han izanen dugula behar den guzia. (bis)

III Gazteak heldu gare elkhar beroturik,
 Lekhu maite hortarat ongi aphaindurik,
 Urtheak ez daroku emaiten egunik,
 Hunek bezanbat plazer egiten daukunik. (bis)

IV Zuek ere Neskatzak, bazohazte arin,
 Norat hari zareten nahi nuke jakin,
 Egun herrian besta behar dugu egin,
 Han jostaturen gare, goazen elkharrekin. (bis)

V Gure besta ederra zare maithagarri,
 Zu gabe ez ginuke nehork bizi nahi,
 Erremedio onak badituzu bethi,
 Sendatzen dituztenak hainitz bihotz eri. (bis)

VI Denbora guzietan hola nauk izatu,
 Ni maithatu nauena nekez duk zahartu,
 Beharretan zirenak ditiat lagundu,
 Nahi gabe guziak bihotzetik khendu. (bis)

VII Huna nun den gizona lau hogoi urthetan,
 Musika bezain heze oraino bestetan,
 Gaztean zenbait dantza emana plazetan,
 Ikhusterat heldu da Urthe guzietan. (Bis)

VIII Egiatzki, zu Besta, hainitz zare ona,
 Ezin daiteke unha zurekin gizona,
 Heldu bazinitzaizku gu ganat ardura,
 Aisa pasa giniro munduko denbora. (bis)

33

Arnaud HARAMBOURE, Urruñako xantrea

KANTU BERRIAK HERRIKO BESTAREN GANEAN

Aire ezagutua

I. Huna non tugun noizbeit bestako egunak,
Urrundikan nahiaz deitzen gintubenak,
Gureztat urthean den egun ederrenak,
Iraungi beitez, beraz, bozkarioz denak.

II. Egun hauk direnean gu ganat hurbiltzen,
Hausarki gonbiduak ditugu egiten,
Hausarki gonbiduak ditugu egiten,
Hauzo herritarrekin atseinak zaitzen,
Hospeka hartako da jendea ethortzen.

III. Bezperatik ezkilak hasirik oihuka,
Gure bihotz samurrak atseinez punpaka,
Elizarat goizetik goazi murruka,
Hango edertasunak ez dite esplika.

IV. Guziak Jainkoari gomendaturikan,
Hasten gare orduan hausarki jostetan,
Bathasun ertsiena delarik gu baitan,
Nork ez du laketuko eskal herrietan.

V. Hemen aditzen dire batzuek kantatzen,
Hortxet bixtatzen tugu bertzeak dantzatzen,
Xirola, tanbulina, gatanbore jotzen,
Bazter guziek dute gaur errepikatzen.

VI. Plazaren erdiari badugu beiratzten,
Pilota jokoa hantxet da haurkitzen,
Gizonak artexenak ditugu ikusten,
Zalutasunakin ungi gudukatzen.

VII. Gutartean pilota* airos butatua,
Harat hunat airean da pasaiatua,

Egon gintazke huni beira landatua,
Iretsi ere gabe dugun pokadua.

VIII. Gudu hauxet denean gutartean hasten,
Trebesak egiterat gare lehiatzen,
Pilotak solas bide daukularik uzten,
Horrelaxet egun hauk dire iraungitzen.

IX. Azkeneko atseina huna non dugula,
Bortzekuak elkarri ematen direla,
Jainko onak grazia erranez digula,
Hanitz urthez guziak gerta gaiten hola.

X. Egun hemen badugu dohain berezi bat,
Printze bat ethorria hunat gutarterat,
Atsein gozo hautarik zatien hartzerat,
Lehia gaiten denak hunen jostatzerat.

XI. Mur d'Abbady hor da guzien bozteko,
Zahar eta gaztien alegeratzeko,
Moltsa ondo gabe bat badu banatzeko,
Kanteri, pilotari prima emateko.

XII. Dugun eman eskerrak orai patroinari,
Laudorioak bezten egile oneri,
Ezagutza oso bat aita izanari,
Orhoitzapen hauk utziz ondorioeri.

** Une paume, chez ce peuple avec adresse lancée
Vient tour à tour poussée et repoussée (Le sénateur
Garat de L' Institut, Éloges des Basques.)*

34

Jean-MARTIN HIRIBARREN

HERRIKO BESTA

Airea: Madrideko plazaraino guziak lerroz lerro

I Urthe guziz eskaldunek besta egiten dute
Ez izanik ere bethi lekhuko Bonaparte:
Hargatik haren begia hurbil eder zaiote, (bis)
Bihotzak ikus baletza otsegin liokete.

II Jainko handia delakotz lan guzien buruko
Lehen eguna izaten ohi da Elizako,
Hauzotar aphez batek du predikatu beharko (bis)
Ez diola patroinari lorerik bekhaiztuko.

III Etxeko jaun guziak du Meza nausiko aldi,
Seilharuek behar dute haren lerroez gaindi;
Itxura hil luke bestak ez balire hain lodi. (bis)
Gorthean dira herri denak agertu behar handi!

IV Goizetik arrats patent da sakramentu saildua
Aldarea duelarik lorekin aphaindua,
Ez baita gure herritan nihor ere Judua, (bis)
Ikusten da buru oro Elizan aphaltua.

- V Biharamunean dire ixter denak jauzian,
Irrintzirin arraienak muthil lerro guzian,
Ez du nihork min xumena lanaren gutzian (bis)
Holako egun bat ez du khorodunak bizian!
- VI Etxeko andrek dituzte bihotz min handienak,
Ikus arte mahainean nola dituzten lanak;
Abiatzean burrunba atsegin bahi onak, (bis)
Martheh sinhets dezakete direla erreginak!
- II Goizean, eguerditan, bai eta arratsean,
Mahaina bethi gaindiz da aixkiden irritsean,
Gonbidatuak iazdanik aitak khalden hatsean (bis),
Urthe batentzat basoak betherik trinkatzean.
- VIII Hirur egunez lerroan ez da lanik egiten,
Errenkura oro dire batzerrerat ematen,
Ez da gose edo behar hauzo nihor ikusten (bis),
Duenak ez duenari deus ez dio bekhaizten.
- IX Atsoak athera du soin bi itxuretako,
Horiaren gain pinttarka lili izarrezkoa,

- Bilhatu du eskaleak garbi den burukoa, (bis)
Nihork nihon ez du eskas nigar xukatzekoa.
- X Ez dire ganean ere oihartzunak ixiltzen,
Haurrak tarte guzietan hari dire jostatzen,
Xirribikariek dute muxikaria biltzen (bis)
Deskantsu nahi direnek pasaietan hautatzen.
- XI Muthil hautuen lehia bethi da pilotarat,
Hamar herritako lagun badohaz ikusterat
Zenbeit Azantz eta Perkain biltzean herritarat (bis),
D'Abbadi jaunak agindu utzten irabazterat.
- XII Bestetako errege da pikolari nausia,
Makhila gori ederra errietan josia,
Untza hori maitea ia sakelarar jautsia (bis)
Sorrarazi gabetarik nihoren jelosia.
- XIII Artzainak ala nausiak berdin dire jostatzen,
Bakhotxak bere hirriak gora ditu egortzen,
Attona baten kopeta ez da goibel gelditzen (bis)
Urthe baten ungia du edozeinek bilhatzen.

35

Jean Martin HIRIBARREN "Gaztainalde"

ERREXINOLETA KANTAN

Airea: O luce qui mortalibus

- I Errexinoleta kantan
Hari bedi itzaletan,
Hulako besta burutan
Ez da gure irritsetan.
- II Zerk habilka dili-dala,
Dorre gorako ezkila?
Uste duk ez dakigula
Elizak besta duela?
- III Ilkhi deneko iguzki,
Gizon ala emazteki,
Altxatzen dire arraiki
Oihuz badela lan aski.
- IV Hirur egun osoetan
Minik gabe bihotzetan,
Nor ikusten da gortinetan
Nola gu herriko bestan?
- V Besta aro onak ditu,
Berratarrak egin txistu,
Ez ahal zaite unhatu,
Hutsik bazaite hunatu?
- VI Aiztian sarthu haizena,
Bekhoz bekho hor hagona,
Azkaindar muthil lerdena,
Egitzik bi irrintzina.
- VII Hor dabila xirrikitun
Haurrak ondotik, tun, tun,tun,
- Balin bada nihon atun,
Bilduko zaio erosdun.
- VIII Aldeko xahato hori
Emok, Pello, musuari,
Horrek zio haroari
Emanen ez duen jari.
- X Atzoko predikaria
Etzuian hain lazgarria,
Utzi zeraukuk hirria,
Garbi badu ithurria.
- X Glu glu ferekan gerritik,
Ttirok dio gorenetik,
Baduela gorriñotik,
Ur gabea errekatik.
- XI Gaxik ere du athera
Kasakin loratu hura,
Egina baitu josdura
Arbasoen arabera.
- XII Lili dagozko plazari
Zortzi muthil pilotari,
Hirur ehun oihulari,
Herri guzia kantari!
- XIII Urthe zare lehertzen,
Hirur egunez jostatzen,
Bethi besta akhabatzen,
Bertzea dela galdetzen.

36

Jean Martin HIRIBARREN

ALTXA, MUTHIL EDERRAK

I Altxa, muthil ederrak,
Bilduz aire zaharrak,
Gaiten oro josta.
Etsairik ez da gutan,
Maite dugu elkhar
Nihork ez beza kantan
Bihotz minik ekhar.

II Handi zare, Jainkoa,
Ona sariztatzen,
Haur Eskal-herrikoa
Lukezu maitatzen,
Ez dabil kanibeta
Odola jarian,
Anaia bat hil eta
Espantuz lorian.

III Emozute zigorraz
Herri nahasiei,
Jazar ere sukharraz
Gaxtagin hisiei,
Herria itsasoetan
Goibel gutizia
Ihurtzuri hortzetan
Xeha tzar hazia.

IV Urrunazu, Jainkoa,
Heldea gu ganik,
Ikus gure gogoa
Garbi bethidanik,
Duenean gazteak
Maite garbitasun,
Sarista berthuteak
Emozu osasun.

V Utzi ditugu landak,
Bainan ez bethiko,
Hirur egunen brindak
Dire hazkartzeko,
Kanta zilhegi zaiku,
Baita irrintzirin,
Arno gutik derauku
Hotzik uzten irin.

VI Ez ditugu zaharrak
Etxean ahanzten,
Bethi hekin beharrak
Ditugu ikusten,
Egin dugu othoizta
Atzo Elizetan,
Egun dugu bihotza
Urtheko kantetan.

37

Jean IRIBARNEGARAY, hazpandarra

KHANTAK LAUR PHONDUKO AIREAN ELIZA PHESTEZ

I. Anhitz phesta badugu eskal herrietan,
Guziak heldu dira beren denboretan,
Zelebratzen ditugu gure aldietan,
Gostu handia baitu baxhotxak beretan.

II. Gure eliza phesta ez da khanbiatzen,
Leheneko legetan baitugu segitzen,
Gure patroin sailduaz garela orhoitzen,
Bihotz onez elizan orok ohoratzen.

III. Ahide adiskide guziak etxera,
Gomitatzen ditugu phesta egitera,

Zahar ohatuentzat hura zer plazera,
Familia guzia bildua batera.

IV. Hilez ala biziez han gira orhoitzen,
Gure pena guziez elgar kontsolatzen,
Phestaren batasuna han dugu kausitzen,
Zahar gazte guziak elgarrez gozatzen.

V. Gero libertate bat badugu kanpoan,
Pilotari ederrak plaza publikoan,
Guziak haizu gira halako lekhuian,
Gauza onhestagorik ez baita munduan.

VI. Beha egoten gira halako phestari,
Gure ahidiekin elhe eta irri,
Zaharren arabera moda ona hori,
Ongi liberti eta ezagutzak berri.

VII. Soinu eder batekin plaza da arintzen,
Onheski dantza eta nehor ez da galtzen,

Phesta ederragorik hau baino othe zen,
Aita bere semekin ikhusi dut artzen.

VIII. Zortzi pertsu berriak huna Hasparretik
Suietak hartu ditut herriko phestatik,
Alegera nindaite arras bihotzetik,
Primarik balin banu hetaz Urruñatik.

38

Gabriel LAMARQUE

ELIZA BESTA

I Ethorri zaiku beraz egun ederrena,
Oro boskalentzian emaiten tuena,
Itxura ederrekin denean agertu,
Alegerak dugu denek salutatu.

II Egun herriko haurrak jin dire kanpotik,
Hamabi hilabete urrun phasaturik,
Mende horren buruan etxer hurbiltzean,
Plazera zaie, segur, jarri bihotzean.

III Anaiak tuguneko zinki besarkatu,
Iskilak gaitu denak elizara deithu,
Fidelki guazi gero Elizarat athera.
Guziak elgarrekin meza entzutera.

IV Mezan dugu othoiztu herriko Patroina,
Egun dezan ardiets dener zoriona.
Patroin saindua zaiku, segur, urrikaldu,
Bai eta Jainkoari grazia galdatu.

V Elkhitzen gira laster, meza aditurik,
Besta eguna ongi santifikaturik,
Eztiki garenean etxen arribatu,
Kontentik gira denak mahian pharatu.

VI Etxe guzitan ez da besta bardin handi,
Bakhotzak egite du ahal bezain ongi,
Aberatsaren platak ez daitezke khonda,
Ogi eta arnoaz pobrea konten da.

VII Plazarat juaiten dira mahitik lekhora,
Batzuek pilotara, bertzeak dantzara,
Soinua dutenean urrunik aditu,
Gazte guziak dira trumilka hurbildu.

VIII Soinurat hurbiltzean ez zaiete aski,
Jakina nahi dute denek erakutsi:
Arinki dira beraz dantzan abiatzen,
Txarrak heier beha lorian egoiten.

IX Orai aiphaturen dut pilota partida,
Bestari emaiteko usatu segida,
Pilotaria zaiku jin atzo auzo herritik,
Guzien aitzinean soinua emanik.

X Itxuretan badute espantua frango,
Indarrak tuzte sarri plazan agertuko.
Herritarrek ez dire horren fanfarrunak,
Bainan joko guzitan pilotari onak.

XI Laster doha pilota burrunbaz airian
Jendek hari behatzen loria handian,
Burua dute betan guziek itzultzen,
Eta bethi pilota begie z segitzen.

XII Kanpokuak alferretan dira nekhatuko,
Herritarrek sekulan ez dute galduko,
Ohorea ez daite athera herritik,
Oraino gutiago dirua molsatik.

Nahiz bestako dugun hainitz amodio
Orain dezogun erran, aurthengo adio.

HERRIETAKO BESTAK

Nihil operis facietis in eo

Airea: *Donostiarat noha, Josepa, adio! edo: Gitarra txartxo bat nerekin laguna.*

I Neurri maitenez hatsa duzun aingerua,
Lagun zakizkit, othoi, utzirik zerua!
Herrietako besta maite ditudanez
Bertsu hauk ont detzadan antze zuk emanez!

II Gizonaz artha duen Jainko nausi onak
Eman ditu bizian plazeren egunak,
Hari esker ditugu deskansua, bestak,
Atseginekin irri, joko, dantza, kantak.

III Alegiaren mende xoragarrietan,
Zoriona zabilan Greken herrietan,
Oste handiak bilduz, Olynpian guziz
Koplari ospatuak hauzo sorraraziz.

IV Pindaro ezin hilaz orhoitzen gareino
Munduan izpiritu phindar diraeueino,
Ez dire ahantziren egun aiphatuak,
Thebano koplariak noizbait kantatuak.

V Fedean ethorkia dute gure bestek.
Guti uste dutela noski hainitz gaztek,
Hortik Eliza besta Herri-bestak deitzen,
Sainduei bailute maiz ohore bihurtzen.

VI Ezkilak errepikaz goiz abiatzean,
Besta baten berria airez hedatzean,
Zabaltzen du bihotza atsegin nahiak
Ohi baino argitzen Majaren begiak.

VII Bestako alegriak oihuak baditu,
Erdaldunik gureak ez ditut aditu,
Mendiz kanpo ez baita oihartzun arina,
Ihardesteko gazte guren irrirtzina.

VIII Josteta berdintsuak, atseginen bahi,
Eskaldun gehienak bestez ditu nahi:
Pilota eta dantzak, Pastual, kantekin
Jendea bateratzen plazer berarekin.

IX Lehen ikusi ditut asko herrietan
Sokha dantzak ibiltzen denen lorietan,
Zertako ez da hori Urruñan ohitzen
Harat Eskaldun oro direnean biltzen?

X Ziberutar alaiak, hizkuntza maitekin
Bizia nahi luke lasterka, dantzekin,
Arin eta zalhua, oro kortesia,
Bestako plazererat handi du lehia.

XI Josteta ederrena dituzten herriak
Badakitza non diren urrun gazteriak,
Omen baitarraikote Urruñako bester,
Lapurdi guziak du bestak harat laster.

XII Han, plaza ederrean, mundu bat inguru,
Pilotari hautentzat aithor eta dira!...
Han ohore kausten du, orai, koplariak,
Bertsu onez baditu kanten mugarriak.



40

Alexander MEABE

EGIA KLAR HUNEN

I Egia klar hunen irakhasterat
Zu zare prest Printze hargitua,
Omaien ungi merexitzerat
Euskaldunenganat agertua.

II Zare Euskaldunen ohoretan
Ibilki luzeki pasaiatzen,
Hek dituzu bi Erresumetan
Estimu handitan atxikitzen.

III Bi hauk Frantzia eta Espaina
Dituzu hain gogotik maitatzen
Ezen ezin dut ene ezpaina
Aski zorrotz ungi esplikatzen.

IV Zoinek erran euskaldun usaik
Zoin zinez dituzuen laudatzen,
Dituzularik erran omaiak,
Aski handizki autorizatzen.

V Urruñako Erri klar ederraz
Bihotz unez zare agradatzen
Zeren hor hor diren lanak kharraz
Publikoan bahi obratuzten.

VI Egin ondoan festa eleizan
Bixentxo patroin ohoratzen
Urruñak du bozkario plazan
Pilota jokotan libertitzen.

VII O, zu Printze lorios Luzian,
Ethorki iguzkitan duzuna,
Ehor bedi bizitze luzian,
Zure ganat gaineko dohaina.

VIII Zure xede klarak benedik
Dezala Sainduen saindu denak,
Zoinen nahia duzu besarka,
Duzulakotz bethetzen lan unak.

IX Euskaldunen bozkariatzerat
Zu zare handizki ekharria,
Du hedatzen heien Erritarat
Zure bisai eztiak irria.

X Korzegatik Donejoanerat
Amorior zare landatuzten,
Author khartsuen imitazerat
Euskaraen osoki prezatzen.

XI Mintzo miresgarri handi hortan
Zure laguntza ederraekin,
Inorantek dute egun hautan
Ikhasiren zer behar den jakin.

XII Euskara dela Hebroaz landan
Izkuntza funtsezko zaharrena,
Espainia guzian antikan
Zerbitzatu bahi izan zena.

XIII Zu zare hemen, o Printze Jauna,
Arras satisfatua gelditzen,
Zeren Lapurduiko oberena
Den plazan zaren gogorat jartzen.

XIV Duzu gizon pilotarienak
Hor ikhusten elkhar atakatzen,
Emanaz kholperik gogorrenak
Pilota bala gisa etxatzen.

XV Bi erresumetako leoinak
Duzu beraz segurki bistatzen,
Plaza zabal perfetan dutenak,
Elkharri herstura latz ekhartzen.

XVI Ingurutan lodi Euskalduna
Zure osoki otsekiatzen,
Erran leoinen brabotasuna
Oihu hazkarrekin publikatzen.

XVII Azkhenekotz dudan arrazoina
Da ez naizela ungi haurkitzen,
Segitzeko diskortsa hain una,
Zaitzuna handizki gstatuzten.

XVIII Zor ohore dautzu Printze Jauna,
Sehi tipienak errendatzen,
Zoinen Erria baitha Markina
Bizkai maitean dena kausitzen.

41

An. "ONTZAKOZALE"

I Egun eder, egun handia Eskual herri guzietan
Sor arazten alegrantziaduena bihotz orotan,
Gure Eliza phesta xuria bizpahirur egunetan,
Arbasoetarik jausia gure arimen onetan,
Oxala balitz atxikia, bethi gogo zuhur hortan.

II Eskualdunak lehen xedea bethi du Jainkoarentzat,
Haren ama paregabea edo bertze sailduentzat,
Bethi errespetuz bethea erlijionearentzat
Hark antsia berdingabea du bere arimarentzat,
Behin bethiko bizitzia emana zaionarentzat.

III Erleak nola kofoinatik multzoz dohazen airera
Lorez lore barbanaturik ezti geiaren biltzera
Hala jenderak etxetarik lehian dohaz tenplura,
Artzainaren aho khartsutik Jainkozko hitza aditzera
Bulhar azkarrak bateginik Jaungoikoa laudatzera.

IV Eman ondoan arimari phestaren lehen partea
Ematen dio gorphutzari neurri onetan berea
Ahaide, adiskideeri bai othuruntza noblea,
Lothuz berdin zerbitzuari husutzen zaie elhea,
Handik laster koplarieri bixitzen bere antzea.

V Phesta egunik eskualdunak ez duke pilota gabe
Hau gabe gertha laitekenak eskerrik eztu bathere,
Ah! othuruntza hoberenak sabela bethe dezake,
Arno goxo luxe edanak bai gogoa arin ere,
Partida ikhus ez lironak phesta galdua laukake.

VI Jendea osteka dihoa plaza handira lasterrez,
Partida hastera baidoa, gero ikhusi beharrez,
Ja lekhu ingurutakoa mukuru da jadan ostez,
Noiz da bada othe hastekoa, guziak elkharrik galdez
Hor dathor, jokari multzoa, agur! orok deihadarrez.

VII Plazan jadanik prestik daude, zortzi gizon gazte listo
Laur Frantzia aldeko dire, eta laur Probintziako,
Muthil hoberik ez daiteke ediren begitarako,
Ez ta artexagorik ere pilotako antzerako,
Hekiei beha bethiere otea bibaka dago.

VIII Zeritz, Perkain ez Azantzarik aspaldion guk eztugu
Meltxorrik eta Manuelik Probintziak eskas ez tu,
Jokari hauk aspaldiskotik pilotan nausi ditugu
Bekhaizkorik guri hartarik gogorat ez dathorkigu
Mintzotik eta odoletik anaiatzat baidauzkagu.

IX Gure artean sor ez bedi liskar ez eskatimarik
 Ez eta xerka muthiriki sistako ez ukhaldirik
 Adi ez bedi ere mihi edariaz motheldurik,
 Ez eta ikhus zangar nagi kordokan ezegilerik
 Hauk guzietan khristauari ezta deus dohakoenik.

X Phestak oneski eskaldunak bethi eramazkitzue
 Urrikirik hola eginak utziko ez darotzue,
 Aitzitik, onik nasaienak hortik badituzketzue
 Benedikaturen Jaun onak, alhorrak darozkitzue
 Alfer izerdi iraganak izanen ez zaizkitzue.

42

An. ÇUBEROUTARRA

EGUN ZERK USKALDUNA...

Airea: Egun zerk uskalduna...

I. Egun zerk uskalduna du alageratzen,
 Arroparik hobena zeren du ezarten,
 Zerk du hola mundia hara hunakatzen,
 Eta jende ostia algargana biltzen?

II. Egunko besta hunek
 Zutu estonatzen,
 Zer dien Uskaldunek
 Hola uhuratzen. (berriz)
 Eni, adiskidea,
 Bazira behatzen,
 Egunez jei handia
 Deizut nik erranen.

III. Uskaldun populia,
 Hanitz da famatu,
 Hark din korajia
 Mundian hedatu. (b.)
 Bere aiten fedia
 Hartu du osoki
 Hen erlijionia
 Maithatu goraki.

IV. Haitatzen tu zelian
 Sainuzko patronak,
 Haien manhamenian
 Ezarten herriak. (b.)
 Haier du gomendatzen
 Bere izatia

Urthe oroz emaiten
 Bere uhuria.

V. Patron egun handian
 Uskalduna bozten,
 Bestari da Elizan
 Fidelki juntatzen. (b.)
 Nula zien zelia
 Harek merexitzen
 Maithatuz berthutia
 Ordian entzuten.

VI. Etxen dira bildiak
 Egun eder hortan,
 Adiskide maitiak,
 Askaziak hetan. (b.)
 Algarren ikhustiak
 Untsa dira bozten
 Algarren maithatziak
 Bakian bizitzen.

VII. O herritar maitia,
 Zuri niz mintzatzen,
 Ene pensamentia
 Deizut nik erranen. (b.)
 Oso begiratziaz
 Hain kostuma hunen
 Mundia duzu zutzaz
 Jelorri eginen.

ZONBAIT PERTSUREN EMAITERA

Airea: *Xoriñoa norat hoa*

I. Zonbait pertsuren emaitera
Noha Heskualdun maiteak,
Alegeraki khantatzera
Prest zagotezte guziak,
Eman izan den sujeta da
Herriko Eliza Besta
Sujetetan nihork ez duda,
Hoberik etzaiten hauta.

II. Nork derauku beraz erranen
Besta hauien hastapena?
Mendeeri badut galdatzen
Bakharrik hek dakitenaz
Gure errelixioea
Derautote ihardesten
Da hauien establitzaila
Eta hark tu konserbatzen.

III. Bethi herririk xumeenak
Izan du bere tenplua,
Zointan saindu baten izenak
Delarik ohoratua.
Baiteraizku gogorazten
Etsenplurik ederrenak
Lurrean praktikatu tuen
Obra miragarrienak.

IV. Elizako ponper lekhora
Arbasoak biltzen ziren
Othuntza baten egitera,
Oi! zer zoriona etzen!
Aita zahar bat ikhustea
Patriarkha bat bezala
Bere haurrez inguratua
Hari beha zaudezela!

V. Ahaideak, adixkideak
Eztiki deskantsatzera
Zakharzkeien herriko Bestak
Guziak elkharretara,
Apairuak modestak ziren,
Oraikoak ez bezala;
Nahiz guziek badakiten
Miseriarik etzela.

VI. Egin zeneko bazkaria
Hariztei azpietarat

Zohan konpainia guzia,
Arraiki libertitzerat.
Gazteak hain ungi zaharrak
Sorhopilaren gainean
Hasten zuzten dantza jauziak,
Emanik oro errondan.

VII. Ez ditut oraino aipatu
Ikhusgarri ederrenak,
Pilota partida famatu
Orok maite ditugunak;
Perkainek eta bai Azantzak
Parerik ez omen zuten,
Heien ikhustera jendeak
Nora nahi heltzen ziren.

VIII. Oraidanik ene pertsuak
Finitu behar nituzke,
Bainan zuier gazte maiteak,
Mintzatu gabe ez nauke.
Ah! urrun zaudete bestetan,
Desordre guzietarik,
Ez zarete segur ondoan
Egonen urrikiturik.

ALDAERA

Airea: *Ni deitzen nuk Bernard
Mardo Barkoxe Baxabilako*

I. Zenbait koblaren emaitera
Noha Heskualdun maitea,
Xaamel batez segitzera
Zare zu gomit jitea.

II. Hitz laburrez sujeta zer da?
Herrian Herriko Besta,
Sujetetan nehork ez duda
Hoberik etzaiten hauta.

III. Lehen mender dut galdegiten
Besta hauien hastapena,
Bertze zoin mendek duke erranen
Hastetan iraganena?

IV. Zu zare izan Elixonea
Derautet hok ihardesten,
Zu besten sorraratzaila,
Zuk tuzu biziartzten.

V. Herririk ez aiphatuenak,
Noizdanik ez du tenplua?
Han du saindu baten izenak
Phiztu herriaren sua.

VI. Elizako ponpak finitu
Hor han biltzen Bestalerak
Arno haragi bai agertu,
Zer omore! oi zer trinkak!

VII. Aitaren aita da buruan
Patriarkha baten pare;
Haurrak haurrenak inguruan,
Oro hari beha daude.

VIII. Egin dea banket joria,
Hariztei azpietatat

Irhintziz doha konpainia,
Arraiki libertitzerat.

IX. Gazteak eta bai zaharrak
Sorhopilaren gainean,
Orok hasten dantza jauziak
Emanik denak errondan.

X. Errabot plaza hor estaltzen,
Huraxe bonet xapelez
Perkain berrien ala Azantzen
Pelota pasoen gurez.

XI. Oraikotzat ene kobleak
Finitu behar nituzke,
Bainan zuier gazte maiteak,
Abis bat gabe ez nauke.

XII. Ah! Urrunt zuhurra bestetan,
Desordre guzietarik!
Ez zarete segur ondoan
Egongen urrikiturik.

1857 URRUÑA

44

Louis ITHURBIDE

ESKALDUN BATEN AUHENAK.

Airea: Erregina andrea Espñaikoa.

I. Ene lira leiala orai duk denbora,
Ilhunbetarik gaitzen argira athera;
Eskalduna dezagun guduka goraki,
Haren zorakeria auhenda saminki.

II. Nun dire bada orai Eskaldun gazteak?
Herrietako lili gai ziren loreak,
Nun dire bada aiten lekuko handiak?
zueri nago eske India tristeak.

III. Bi aldiz ehun mila aise iraganik,
Erraietan dituzket ekartean tristerik;
Erdietan ez date sasiagarria.
Heien bizia dago auhendagarria!

IV. Aurthen zaiku pestea bihotzen sokhorri,
Kolpe kolpez furian gainera erori;
Laur ilhabathe osoz gutarik laurdenak,
Aurkitu ditu urbil herio krudelak.

V. Gure burua dugu guhaurk enganatu!
Haur prodigoa dugu utsean segitu,
Oi Eskaldun maiteak! gure etsenplua
Ez bedi izan zuez othoi segitua.

VI. Ez haut aski prezatu Eskaldun herria,
Berant diat ohartu ene errokeria!
Hire orhoitzapena bekit ahanztean,
Ezen eskuina ihar memento berean.

VII. Noiz dut noiz ikusiren nere sor herria,
Mundu huntan enetzat zorion guzia,
Noiz ditu! ikusiren nere burhasoak,
Ahaide, adixkide, nere amodioak.

VIII. Nun da nun maite nuen Larrungo mendia?
Ziharraren pareko Urdaxko ibaia?
Eta arbola borthitz muskil eder dunak?
Hetaz orhoitzean tut ixurtzen nigarrak.

IX. Utz zatzik Eskalduna utz zatzik Indiak,
Desertur joaiteko asmu tzar guziak,
Oha erakustera Eskaldun odola.
Guduetan hiltzera hire aitak bezala.

X. Kanta zatzik goraki ethorkizunean,
Kanta keien eginak umore onean;
Iraganari hartuz hekien izenak,
Errepika ezatzik xasur eskaldunak.

45

Bethiri SEILHARUX

ZURE BEGIEK EGUN ZER DUTEN

Airea: *Donostiako hirur damatxo, &*

I. Zure begiek egun zer duten,
Gana, nahi nuke jakin:
Birloratuak zaizkit zabaltzen,
Lele aire on batekin.

Betri, khendurik hedoi tzar horiek burutik,
Zagozkit, othoi, ixilik.

II. Zure mothoa lazoki horla
Zerk deramaka gibelat:
Utziz kopeta bera bezala
Bilhoak hartzi kanporat.
Betri khendurik, &

III. Zaia horiek erdi lothuak,
Abian dire beheiti:
Alde batetik lurreratuak,
Alde bertzetik goregi.
Betri khendurik, &

IV. Goizetik arrats bazinaudezke,
Alki horretan jarria:
Ez zagozkela uste daiteke
Errexki xutik jaikia.
Betri khendurik, &

V. Baduzu nekhe zure kiloa
Gerrian seguratzeko.

Ardatzak maiz du erorikoa,
Eztakit sobra zertako.
Betri khendurik, &

VI. Goizetik hainitz baderasazu,
Tonua ere gorasko,
Egiaz, damu gaiztorik duzu
Zure mihia motelsko.
Betri khendurik, &

VII. Zoko orotan badadukazu
Boteila erdi-hustua,
Gehiegitan hezatzten duzu
Argorientaz musua.
Betri khendurik &

VIII. Boteila erthuts bat ediren dut
Ohe-ister gibelean,
Jaiki nahia miresten ez tut
Maiz baduzu zuk gauean.
Betri khendurik, &

IX. Alki hortarik jaiki orduko
Pareta-ketan zabiltza.
Hark lagundurik atxikitzeke,
Berdintsu zure balentza.
Betri khendurik, &

X. Emazte tzar bat hor dabilkizu,
Mezu ixilka, madrea:
Saldurik zerbait ekhartzen dautzu,
Konkuila bethe bethea.
Betri khendurik, &

XI. Urmariatuaz dohakigu
Seilharuan bihi-pila,
Armariotik suntsitzen zaiku
Metan zagoen oihala.
Betri khendurik, &

XII. Haur gaixo hoiek erdi-bilhuzi
lhauska dabiltz athean:
Neroni nabil segur maizegi
Galtzak zilhotsu soinean.
Betri khendurik, &

XIII. Othoizten zaitut Gana, minekin
Utz-azu bizio hori:
Non ez, zoriz bertze hainitzekin
Errekara gioazi.
Betri khendurik, &

1858 URRUÑA

46

Jean Baptiste ELISSAMBURU

TAN TAN TAN (Kadira dantza)

Airea: *Bero deno burdina jo.*

I Tan, tan, tan, tan
Rapetaplan!
Artzain zaharrak tafarnan...
Hordi gira (bis),
Ez, ez gira (bis),
Basuak detzagun bira! (bis)
Johoho!, johoho!johoho! (bis)
Basuak detzagun bira (bis).


II Tan, tan, tan, tan,
Rapetaplan!
Nork joiten derauku borthan?
Behar bada (bis)
Otsoa da (bis),
Nihor ez gaiten athera (bis),
Johoho, johoho, johoho! (bis)
Nihor ez gaiten athera. (bis)

III Tan, tan, tan, tan
Rapetaplan!
Uria hari karrikan:
Gauden hemen (bis)
Arno hunen (bis)
Gostu onian edaten (bis)
Johoho, johoho, johoho! (bis)
Gostu onian edaten. (bis)

IV Tan, tan, tan, tan
Rapetaplan!
Babazuza tarrapatan...
Dugun edan (bis)
Hamarretan (bis),
Aberats gira gau huntan (bis)
Johoho,johoho, johoho! (bis)
Aberats gira gau huntan! (bis)

V Tan, tan, tan, tan
Rapetaplan!
Ez dut minik sabelian.
Nahi nuke (bis)
Ehun urthe (bis)
Hola egon banindaite! (bis)
Johoho, johoho, johoho! (bis)
Hola egon bainaite! (bis)

VI Tan, tan, tan, tan
Rapetaplan!
Arnorik ez da boteilan...
Ostalera (bis)
Ez ikhara (bis)
Arnoko bethi sos bada (bis)
Johoho, johoho, johoho! (bis)
Arnoko bethi sos bada! (bis)



Jean Baptiste Elissamburu
(Sara, 1828-1891)

47

Jean HIRIART

FERIETAKO GOZOAK

Airea: *Dugun trinka, zorro handi*

I Johan nintzan merkhatura
Ai, zer fortuna!
Espalakoin eroatera,
Burriko baten saltzera,
Ahaha! ene plazera!

II Bidean nindohalarik
Alegerarik
Uria hasi zerutik,
Babazuza hedoietik,
Ahaha! Non dut idorrik?

III Larruraino trunpaturik
Eta freskorik,
Ikusi dut Ezpeleta,
Ai zer hango jendeketa!
Ahaha! Nolako besta!

IV Abiatu niz hautatzen,
Espalakoinen,
Sathor bat barnetik ikusi,
Ene astoa ihesi,
Ahaha! zoinen zen bitzi!

V Buruz buru egiten du
Mur de jaun Petut,
Bilhatzen nau zor dudala,
Laster paga dezadala,
Ahaha! balitz ahala.

VI Erosi dut bi antxu,
Egin dut tratu...
Hogoira urthe bazuten,
Deusik ikhusten etzuten
Ahaha! itsu baitziren.

VII Lagunek irri egiten
Eta trufatzen,
Antxu hetan engainatzen
Segur hainitz errex baitzen,
Ahaha! hortzik etzuten.

VIII Ihes noha ostatura,
Lekhu itsura!
Hasi ziren makhilaka
Alde orotara joka.
Ahaha! ai nik zer zafila!

IX Agertu ziren jandarmak
Bai gizon latzak!
Lothu zaizkitan lephotik
Eraman preso harturik.
Ahaha! mainotaturik.

X Gartzelatik atheratu
Eta gosetu
Eskua sakelan sarthu
Eta handik moltsa galdu...
Ahaha! banuen dolu...

XI Zer eginen dut bada nik
Ez badut sosik?
Itzul begiak ilhunik
Eta bertzeak zimurrik.
Ahaha! gutti kontentik.

XII Etxalde nindohalarik
Tripa arinik,
Erortzen naiz ixtilera,
Anbiltzen zupu barnera.
Ahaha! ene ederra!

XIII Etxeratu naizenean
Andrea borthan,
Abiatzen zait mokoka
Hordi txar eta banditka.
Ahaha! zer afaria!

XIV Mur de burriko ihesi
Moltsa ebatsi
Antxuetan enganatu,
Trufak hartu, preso sartu.
Ahaha! ez naiz afaldu!

XV Uzten ditut merkhatuak
Eta feriak
Zentzatzeko panparriko
Eta nahigabe asko.
Ahaha! sobra behingoa!

*(Jean Hiriart, Espainian dabilana,
Eta naski aberasturen ez dena.)*

48

BALUYAN

ORAIKO NESKATXEN MODUBA

Airea: Arkuloren kanta

Alaba

I. Ai, ai, ai! Ama, buruan min!
Arta jorrara gan ezin!

Josteko batzu nere gelan orai banituzke behin:
Bertzela ez dakit zer egin.

Ama

II. Bai, nere haurra, bahuake,
Nahi badun izan bake,

Hire aitak emasabelaz ez du batere sineste,
Zertako hartu du emazte?

Alaba

III. Manean, ama, ote da kafe?
Xortaxo bat nahi nuke,

Karrukaka nire sabela nihon ere ez dagoke,
Laguntza zerbait behar luke.

Ama

IV. Bai, nere haurra, izanen dun,
Kausi badezaket nihun;

Agorient ttanta bat ere xixari hiltzeko on dun,
Izanik ere hirur ehun.

Alaba

V. Herriko besta hor da heldu,
Ni behar naiz ahalketu!

Soin berriaren erosteko aitak ez omen du diru:
Beharko dugu enganatu.

Ama

VI. Zein ilunik zauden, Piarres:
Zeren duzu kopeta beltz?

Aita

Ai, Maria, diru galdea eta ni moltsan baterez.
Etxea bethe dugu zorrez!

49

Martin ARRUPE

ADITZEA BERA

Airea: Oi gau dohatsua...

I Aditzea bera,
Frantzesak garela
Zaiku ohore,
Louis Napoleon,
Luzeki zaitte egon,
Enperadore. (bis)

II Aita hirugarren,
Semea laugarren,
Gero agian,

Kurri dadiela,
Hola zure odola,
Bethi Frantzian. (bis)

III Nola desiratu,
Hala da gertatu
Zorionean,
Enperadorea,
Zure seme maitea
Sorthu denean. (bis)

IV Enperatrizaren,
Bozkarioaren
Sujet handia;
Holako seme bat,
Ikhustea beretzat,
Oi zer loria! (bis)

V Aingeru garbia,
Zuk duzu Frantzia
Bozkariotu,
Haur desiratua,
Eta ohoratua,
Baitzare sorthu. (bis)

VI Zure aiphamenak,
Bozkarioz denak
Gaitu ezartzen,

Guretzat onetan,
Agian mundu huntan,
Zare gertatzen (bis).

VII Aitaren ondotik,
Guzien gainetik,
Zuri ohore,
Hori den lekhuian,
Eta horren karguan,
Jarriko zare. (bis)

VIII San Luis errege,
Denboran zuk ere,
Manatu duzu,
Zeruko graziak,
Izan detzan Frantziak
Othoitz egizu. (bis)

50

Jean DUVOISIN "Oihancelay"

SUPER FLUMINA BABYLONIS

I Babiloniako uren bazterrean
Minez gare jarri iphuru gainean;
Eta han, oi Zion, zutaz orhoitzean,
Oro eman gare nigar uharretan.

II Gure arrabitek zumeliketarik
Dilindan hor daude... beude hor ixilik!
Ilkhi gaituztenek gure herritarik
Galdetzen daukute gure kantetarik.

III Hunat gaituztenek ekharri gathibu
Entzun nahi dute hango zenbait kantu.
Oi bainan guk nola zer hymno sakratu
Atze herri hunetan kanta dezakegu?


IV Ahanzten bazaitut, Zion onhetsia,
Hemen ihar bekik eskuin alderdia!

Orhoitzen ez banaiz zutaz, oi herria,
Aho gainari loth daidala mihia!

V Zutaz bethi, zutaz nere asmuetan...
Zurekin gogoa...bihotza zu baithan...!
Zutaz kanpo banu irri bat hortzetan,
Nihon bozten banaiz, hil benedi bertan!

VI Orhoit zaite, Jauna, Edomen semeaz,
Zion herrausteko egun gogor hartaz,
Edom nola zagon izkola, marrumaz;
Xahu! Xahu dena burdin eta suaz!

VII Babilondar andre gaixtagina, hiri,
Neri egin gaitza bekian itzuli!
Haurra bekiaten bota harriari!
Ez hazala nihork izan urrikari!



Jean Duvoisin
(Ainhoa, 1810 - Ziburu, 1891)

51

Jean DUVOISIN "Gazteluberri"

LAURIER ET CHÊNE

Cantate allégorique sur le mariage de l'Empereur et sur la naissance du Prince impérial

Le Fénix de la paix (solo)

Haize beltza mendietan
Baratu da emerik,
Ez da gure aldapetan
Gehiago elhurrik.
Bildots maiteak, bazketan
Jauzka zaizte gogotik,
Artzaina dago gardian,
Ez da otso beldurrik.

La Renommée et la Gloire (Duo)

Bizkaitik Nafarroara
Hebrotik Arretara
Zelhai mendietan
Larrain oihanetan.
Haritzak iharrosi dira hiruretan!
Nafarroako erregen jauregi noblean,
Azantz ozen bat entzun dorreen gainean.
Harmetako salhan,
Gathea kraskaka,
Banderak zafiaka,
Panopliak dardaran.
Errazue zer berri den egun munduan.

Les Génies des Septs Provinces Basques (choeur)

Gernikako haritza,
Erronkalgo urritza,
Neguan hostatu!
Ezpel eta erramu
Gaur dira loratu!
Jauz zaizte,
Boz zaizte,
Eskaldun zaharrak,
Bota irrintzinak!
Haritzari erramu
Baitzaio xerthatu!

Le Génie de la Cantabrie (Solo)

Kartagotarrez geroz
Erromatarrez geroz,
Eskaldunak ez du
Odola ukhatu!
Ipharreko jendaiak, Agotak bentzutu,
Hegoako mairu beltzak phorroskatu,

Adurreko hegitan frantsesa baratu!
Annibalek Kanen,
Zesarrek Darsalen,
Eskara aditu
Eskaldun maithatu!
Napoleonek gutan andrea bilhatu!

Les Septs Génies (Choeur)

Gernikako haritza...
Haritzari erramu
Balinbada xerthatu,
Enperadoreak
Eta erregeak
Huni zaizko guziak begira gelditu!
Burutan dabilate gogo eta asmu,
Xertho hunetarik zer behar den gerthatu?
Gando bat da sorthu,
Ederrik altxatu,
Kantabria boztu!
Zerua da mintzatu!
Asaldutan zirenak batean gozatu!
Gernikako haritza,
Erronkalgo urritza,
Gaur dira loratu!
Ezpel eta erramu
Guzia flokatu!
Boz zaizte,
Jauz zaizte,
Frantses eskaldunak
Bai et'erdaldunak!
Haritzaren gandoa
Dezagun khoroa.

Tous les Génies réunis

Goazen beraz, goazen oro
Haren inguratzeraz,
Ageri daite gero,
Non jinen den oldartzera!
Altxa dezagun bandera,
Eta ezar ikhara,
Dugun kanta batean.
Biba Enperadorea!
Gure begiratzaillea!
Biba gure Andrea!
Oiba gure Printzea!
Biba Frantzia!
Biba Eskal herria!

52

Bernard E.

ENPERADOREARI

Airea: Espainolak ihes mendiak behera

Erregina bedi Enperadorea!
Harek gora dauka gure ohorea.
Eskaldunek kanta dezagun boz batez:
Biba Napoleon! Bizi bedi luzez!

I Munduaren lau bazterretan,
Gure banderak untzietan
Gorarik argitzen du.
Rusianoa izitu,
Mairu beltza gaztigatu,
Anglesa larderiatu,
Ohorerik aski badu!
Erregina bedi &

II Frantzia, oro asaldutan,
Lotsan bizi zen denboretan,
Harek berak salbatu;
Gaixtoak ehortzi ditu,
Bakea eman daroku,
Ez du guti merezitu;

Ohore bihur derogu!
Erregina bedi &

III Noizbait egun bat heldu balitz
Non gure etsaiak bekhaitziz
Egin lezan gudura,
Ez ginaizte uzkur sura.
Bonaparten izenera,
Eman laite ihesera,
Zein lehenka gibelera.
Erregina bedi &

IV Oi Frantzia maitea zuri,
Gure amodioa bethi!
Zuri gure bihotzak!
Zure etsaiak hil hotzak,
Eror beitez errekar!
Ez duzu zeren ikhara,
Begi bat dagotzu beira!
Erregina bedi &

53

Leon ELISSAMBURU

GURE ANDREAK DENAK KRENOLIN

Airea: Hau da ikhazketako mandoaren traza

I Bertsuak nahi ditut orai athera,
Ixilik banindago banuke pena,
Baina neke da!
Krenolinaz baizikan solasik ez da,
Hauxe da besta
Satanek etzezaken bertzerik pentsa.

II Andreak eman zaizku Krenolinetan,
Beharragorik etzen familietan,
Geihenetan,
Horrek onduko gaitik gure zorretan,
Botikak hetan
Akabo, eroriak gaituk errekan.

III Hamalau berga oihal ez duk itsusi,
Krenolina batentzat ez dela aski,
Ez gaituk gaizki;
Moda hori lehenik nork du ikhasi,
Egiten hasi,
Paga nezakek ongi nor den banaki.

IV Batzuek aise eta, bertzeak nekez,
Batzerrak bethe dira, bai, krenolinez
Gauza ederrez!
Gupela bezain zabal dira beherez,
Konkorrak gainez!
Gorde behar litazke jenden ahalkez.

V Iragan egun batez, zen Komedia,
 Plaza baten erdian ikhusgarria,
 Hango irria,
 Andre bat zen piayaz joan nahia,
 Ezin abia!
 Karrosan etziron sar gibel aldia.

VI Postillon bat Kaskoina, juramentuka,
 Bethi krenolinari eskuz pusaka,
 Diu bibanka:
 Zenbat ehun puskez dun egina hanka,
 Hori dun arkha!
 Karrosan ez haiteke hola enbarka.

VII Lehen mintzatzen ginen gu alkharrekin,
 Arthoz ezin aseaa zela gurekin,
 Bazen zer egin,
 Orai gure andreak denak Krenolin
 Alabak bardin!
 Nola hari zaizkigun nork diro jakin.

VIII Urguilu, Malurosa, hi habilana
 Guri eman arazten hainbertze pena,
 Bai eta gerla
 Krenolinak emaiten balauk oreña
 Hilien haizena,
 Gal dadien bethikotz hire izena.

54

Leon ELISSAMBURU

RUSIAKO GERLA

I Rusiako Enperadorea, mintzarazi duk jendia,
 Bai eta truble handian eman kasik Uropa guzia,
 Ikhusirik huela kontra Frantzia,
 Hirur nazionentzat buru jarria.
 Lan tzarrean sarthu hintzela bahuen bai urrikia!
 Beldurrez eta bethikotz gal, Nikola izen handia.
 Lehen bezala orai ere Frantsesaz haiz orhoituko
 Nola urez hala leihorrez ez dukala bentzutuko,
 Ez dukala bentzutuko (bis).

II Frantsesak ez dik ez faltatuko podore handiak baitik
 Untziak belan harmada onak laster altxarazten ditik,
 Ez duk ez mundu huntan erresumarik
 Abantail gehiagoz bethea denik,
 Eta gidari Napoleon, nolakoa den badakik?
 Zeruko hedoi gorenean orai Tronua eman dik.
 Altxa zatzik begiak goiti eta erran frantsesari,
 Ez dukala ez haren kontra gehiago deusik nahi,
 Gehiago deusik nahi. (bis)

III Rusia, hire banaloreak horra beraz zertan diren,
 Guzien jabe izan nahia zoin behera jautsi haizen
 Frantsesa zenekotzat hasi mugitzen
 Hire eremuetan bai khexu hintzen.
 Nahiz mila lekoka behar den itsasoan trebesetzen,
 Xoilki aiphamen horrek berak hainitz hinduen lotsatzen
 Orai hor dituk Zebastopol, bai eta ere Marina
 Erakusteko on direnak berriz egiten badira!
 Berriz egiten badira (bis)

IV Gure aitek osabarekin zuten kurritu Rusia,
Mosku errez ez baliote harturen zuten guzia,
Harmetarat geroztik mejoria
Bethi segur baitzuten garhaitia,
Iloba gure buruzagi badukegu bai fidantzia,
Etsai guzien bentzutzeko izanen dugula gloria:
Izan gaizkon gu ere leiak, jarraikiz arranoari,
Frantziaren izena atzetan gora deabilkanari,
Gora derabilkanari. (bis)

V Nazione hainitzak dire Frantziaren jelosian,
Zeren eta emana baita bertze guzien gainian,
Manatu duelakotz berak Rusian,
Beldurrez egin dezan Mundu guzian,
Printzeak bere gorthetarik daude ikhara bizian
Agur eta sumizione buruan eta mihian
Biba gure Enperadorea, biba bethi Napoleon
Zu bezalako aita onik ezin giniroken nehon
Ezin giniroken nehon. (bis)

55

ETCHEBARNE

AMERIKETARAKO PARTIADA

Airea: *Izar ederra, ager zite edo: Bard' arratsean ametsetarik.*

Alaba
Goizetan goizik artizarra mendi gainean agertzen
Harek bezala bertze batek ez du zeruan argitzen,
Esperantzak gizon gaztea bihotzean du
sustatzen,]

Haren argia ikusiz geroz ez dut gozorik aurkitzen.

Ama
Oi zoin de eder uda minean arbola baten itzala!
Gure esperantza ederrena histen da hur abezala!

Alaba
Zer bada bethi...bethi hola behar othe dut nik bizi
Gizonaz zer erran, ez badu mendia baizen ikusi?
Hark ez daki zer den mundua ez du bizitzen ikasi
Ama, barka diezadazu, orai behar zitut utzi.

Ama
Ene semea, lotsatzen nuzu! norat zirade abian?
Ezartzen nuzu dolu minetan eta ikhara bizian!

Alaba
Gosez hemen egonik baino hobe ere da hiltzia!
Egun batez aberasturik jinen niz, ama maitia,
Orduan ez duzu izanen deusen ere eskasia,
Barnian bihotza daukanak arriska beza bizia!

Ama
Lurra ez othe du gehiago izar-ihintzak bustitzen?
Gure mendiak lehen bezala ez othe dira
berdatzen?]

Alaba
Urrunera ikusten ditut urhe metak distiraten,
Odolak irekitzen deraut, nola egonen niz hemen?
Oi ama, ni zure otoitzek balin banute laguntzen,
Jaingo onak ez du nahiko zure haurra gal dadien.

Ama
Ene tristea! zu zinitudan azken urthen gozagarri,
Ez othe zira urrikalduren ama baten nigarrari?

Alaba
Amerika lekhu ederra, eder bezain aberatsa!
Hire izena entzuteak erretzen deraut bihotza:
Hi egun batez ikusteko ni ez nuk deuseren lotsa,
Burlatzen ditut itsasoa eta herio garratza.

Ama
Mendi gainetik hedoi ilhunek uri uharrak igortzen,
Ene begiek nigar hibaiez ohea dautet bustitzen!

56

Agustin ETCHEBERRI

FRANTZIA ETA ENPERADOREA

Airea: Tunberreka, errakozu ene parthez &

I Ahuspeka hadi, oi Frantses gerlaria!
 Jainkoak eman deraut Bitoria,
 Argitu Krimeko iguzkia,
 Hire oinetan ezarri du Rusia,
 Eskuan du garhaizia!
 Bihur zok esker bat handia!
 Hire banderak harritzen dik mundu guzia,
 Orotaz miretsia,
 Agertzen da nola zeruko argia,
 Ihes harama etsaia,
 Gure armadak, iduri hedoia,
 (Ai haren kuraia!)
 Iragan ditu itsasoa, mendia, zelhaia,
 Ikharan eman lurraren erdia.
 Kanta dezagun: Biba Frantzia!

II Noizbait agertu zaiku izen eder hura,
 Napoleon! Frantsesen argidura!
 Orai deskantsuz gohazke sura,
 Urrun gure bihotzetik beldurra!
 Napoleon ez da uzkurra!
 Hari jarraik gintez Moskura,
 Behar balitz munduaren bazterrera,
 Bai eta alegera!
 Bekhaiztez Anglesa, iduri muskerra,
 Irets beza bere herra!
 Gure armadetan, gora bandera
 Iduri izarra!
 Norapait suntsitu Frantzia ilhun zagokan keha
 Noizbait jautsi gutartera bakea!
 Biba gure Enperadorea!

57

Arnaud HARAMBOURE, Ziburukoa

MAKILARI

Airea: Istudianta, nihon parerik ez duzu...

I Zorigaitzean sortu nauk mundu huntarat
 Nere aldetik hainitzen garaiterat,
 Bortxatzen nau mintzatzerat
 Egjaren erraiterat,
 Botz-garrenean heldu haiz ene balakatzerat.

II Bethi holaxet behar othe nauk xoratu?
 Nere egin onak gaski sariztatu
 Orai diat ezagutu
 Ederki nauk enganatu
 Bekoz beko erranzak zertan haudan faltatu.

III Amesten duk ez dudala gutziarik?
 Nork othe dik nerea bezin berorik
 Deskantsubaz gabeturik,
 Sosegu ona galdurik,
 Neretzat ez duk munduban hi gabe zorionik.

IV Ez haut ez nahi untzakoaz gozatzeko,
 Sos bakar bat gabe hinduket hartuko,
 Hortarik duk frogatuko
 Maite haudala hanitzko,
 Orai bederen ahalaiz nitaz urrikalduko.

V Primaderian aski galerna bakar bat
 Arbola loretarik biluztekoztat,
 Sason hartan nauk hiretzat
 Izan hadien neretzat
 Bertzenaz ez nauk izanen batere nihorentzat.

VI Othoi beirazak ungi Larrunen gainerat
 Nigararak zuazkok itxasorat gazitzerat,
 Nereak hola samurtzerat
 Zinarik garrazterat
 Egunetik egunerat kirets bilakatzerat.

VII Izaiteko hi laudatzeko mila mihi,
Nere izanak emanetzakek bahi,
Hek denak nitzakek ahi
Neretzat izaiteko hi!
Ungi dorpe duk munduban ezin izan bai nahi.

VIII Zure baratzeko arrosaren boleak
Bozten ditik goraskotik iduzkiak,
Hi ere nere begiak
Mulzen pean eroriak
Bistan hartzen haudaneko arintzen dituk biak.

IX Hi haiz, Zahartuen sustengu dohatsua,
Gizon gaztiaren oi lagun hautatua,
Hirekin dena batua,
Bietan duk azkartua.
Ikharatzen dukelakotz etsai atrebitua.

X Ator, niganat, ator beraz, Makila,
Hementxet nagok hagonian laster hila!
Bihotz gaxo hau ez zila!
Maita nazak ehun mila,
Gehiago ez ibiltzeko holaxet hire bila!

58

Pierre HARANEDER

URTHE HANITZ ORAINO EZ DELA

Airea: Donostiako hiru damatxo

I Urthe hanitz oraino ez dela
Eman zauzkiguten koplak,
Edari goxo zale ginela
Emakume eskaldunak,
Gana khen zatzu
Asmu tzar horiek burutik
Ez dugu gerla beharrik.

II Irriz zabaldurik zinagozten
Plaza guzia bethea,
Gure berrien ungi aditzen
Kontentik zagon jendea.
Gana khen zatzu &

III Pello, zuk ere badaduzkatzu
Kopla zenbeiten bideak,
Orai aditu behar dituzu
Guk bezain ungi zereak.
Gana khen zatzu &

IV Igandetean bazoaz plazarat
Nahi duzun arteraino,
Goizetik sartua ostaturat
Han zaude arratseraino.
Gana khen zatzu &

V Eguna han daramazu aise
Zure moltsakoen gustu,
Jan eta edan ederki ase
Atsegina ungi hartuz.
Gana khen zatzu, &

VI Mahain hartarik jaiki orduko
Pretaketan zabilta,
Hark lagundurik atxikitzeo
Berdintsu zure balentza.
Gana khen zatzu &

VII Ardura bazabiltz merkatutan
Eta tratu bide gutti,
Etixeratzen zaizkit gauerditan
Kasik hola zabiltz bethi.
Gana khen zatzu &

VIII Berandu ethortzen zinen bathez
Gertatua den afera,
Ederki trunpatu zinen athez
Ganik hauzoko etxera.
Gana khen zatzu &

IX Ene kalakak kexatzen zaitu
Hunten beraz lana bego,
Oro nik erran behar banitu
Zer ez nuke errateko.
Gana khen zatzu &

59

Jean Martin HIRIBARREN "Heuty"

891 Garazirat ekartzen diote berri Abarkari Moroak Iruñako hegian direla

Airea: *Belzunzeren izena...*

I Belzunzek Abarkari
 Errege handiari,
 Agur eta berri:
 Galde du Iruñarrak
 Egiteak lasterrak,
 Han baitu Moroa
 Beharrez khoroa.

II Abarkak Belzunzeri
 Guduko lehoinari
 Esker eta berri:
 Iguzkia mendietan
 Ez higanen bietan,
 Non ez den Moroa
 Izaten ehoa.

III Errege berehala,
 Garaztar bil dabila,
 Adirazten hola:
 Etsaia da oldartu,
 Iruñan nahi sarthu:
 Ez da egoterik
 Hil oro utzirik.

IV Elhurra da Belaten
 Biderik ez ikusten,
 Lanhoek ematen

Arranoak ohatzez
 Oro egoten hotzez:
 Abarkak ez beldur
 Ez lagunak huzkur.

V Moroek, ustez nihor
 Etzitekeien ethor,
 Egin zuten leihor,
 Hartu ere janari,
 Ez ahantzi edari:
 Argaz alde huntan
 Oro zauden lotan.

VI Goizaldea zelarik,
 Nihon gabe horirik,
 Ez argi, ez kherik,
 Eskalduna hor sortzen,
 Sarraskiez abiatzen:
 Moro harritua
 Egon hondatua.

VII Zenbat dire ageri
 Emanak ihesari
 Urean igeri?
 Mendiko aldapetan
 Erreka goibeletan,
 Othe da batere?
 Ez itzalik ere...



60

Piarres MENDI

MAITIARI

Airea: *Ene maitiak biloa hori*

I Izar eder batek goizetik
Argitzen du zerutik,
Honen argiak zoraturik
Nabilka bere ondotik
Ez dut uste haren parerik
Ilkitzen dela nihondik.

II Goiz et'arrats, gau et'egunez,
Gogoa eri dut zinez,
Ezin bizi, ezin hil minez,
Izar hura beharrez
Bihotza dohakit nigarrez,
Eztukedan beldurrez.

III Oi, ni balinbanintz izarra
Eskuko nuke hura,
Bainan gizon niz, ez ederra,
Ez diote gezurra,
Bihotzez aberats nizena
Onthasun guti dudana.

IV Zuk naski ez nuzu nahiko
Izar ez nizelako,
Bainan zurekin paretzeko
Izan behar bada Jainko
Hola zirate sekulako
Etzira zu ezkonduko.

61

Joseph PALASSIE

MONTEVIDOKO ESKALDUNEN DOLAMENAK

Airea: *Mur de Granjan, Donibaneko Jaun aphez zenaren kantua*

I Kanbo gaineko inguru zoragarrian,
Hazi izan naiz bizi gozo batian,
Aita, ama onen hegian,
Maitia nuen herrian,
Orai gautxuen erdian
Bizi naiz ezerian.

II Gizon bat jenik herrira Montevidotik,
Dena espantu, ezin kasa etxetik,
Ordutik jaun harengatik,
Airatu ginen herritik,
Hain ongi ginen tokitik,
Zoko haren ondotik.

III Bortz aste bethe egotu ginen Pasaian,
Jaunak badaki zer pairatu dugun han;
Sosik ez, ez izan zer jan,
Nolazbeit bizi pilaian,
Finean sartu untzian,
Nigar sorta begian.

IV Montevidora noizbeit ere ginen heldu,
Gure begiak ordu hartan argitu,
Ezagun franko aurkhitu,
Gu ikus eta harritu,
Nola garen enganatu,
Hemen dugu frogatu.

V Montevideon guretzat nehon lanik ez,
Famak bai handi, bainan oro gezurrez,
Urrungo eltzeak urhez,
Etixerat orduko lurrez;
Zoratuak hitz ederrez,
Hemen gaude nigarrez.

VI Erran dezaket frogatzen baitut ongi nik,
Montevideon deusik ez dela onik,
Ez izan hemengo minik,
Zaude hor arthua janik,
Hemen ez da eskaldunik,
Bortz sos bere duenik.

VII Itxasoari besuak ditut zabaltzen,
Eskal herria oihuz galdetzen,
Mundarra diot aiphatzen,
Larrunez nago mintzatzen,
Lau egun hetaz pentsatzen,
Heien minez naiz hiltzen.

VIII Mundarra Mendi, nihondik ezin naiteke
Bizi munduan zu maiz aiphatu gabe,
Hor diren ithurri, lore,
Guziez orhoitzen gare,
Hemen hiltzen banaiz ere
Azken hatsa nik zure.

IX Bethi auhenka, oi! hau dolore samina!
Urthua nago, dena hezur egina,
Bortz aldiz egin dut zina,
Kantatuz *super flumina*,

Sekulan ez ahanzteko
Eskal herriko mina.

X Oi! ezin aski prezatuzko eskal herri!
Bizi naizeno ene hats penak zuri,
Mihia aho gangari,
Lothua geldi beit niri,
Ni sekulan banindadi
Zu maithatzetik geldi.

XI Eskal Herria, adio aphur bateko,
Sekulan bethi zutaz dut phentsatuko,
Jaunari dut eskatuko
Graziaz fagoratzeko,
Lur maite, lur saindu hortan
Biziaren uzteko.

(*Cambo, le 25 août 1858*)

62

An.

O GERNIKAKO HARITZ

Airea: *Gernikako zuhaitza*

I O Gernikako haritz ospe handikoa,
Mila urthe joan huntan berdin gabekoa,
Eskaldunen artean hain ohortua,
Atze herritan ere hanbat aiphatua.

II Zure itzalera ziren arbasoak biltzen,
Han zuten beharretan biltzar idukitzen,
Han bethi segur zuten kopetan zentzua,
Bai bihotzetan ere lehoin animua.

III Zure gerizera gaur bagatorz gu ere,
Asmu handi bat egin nahirik bai gare
Frantzian sorthu haur bat behatzen baitzaiku,
Han beharrez goraki gureztat aithortu.

IV O haur handi, haur noble zaudena jaiorik,
Napoleonen eta Guzmanen leinutik,
Zu zaitugu egiten zuhaitz hau lekhuko,
Gure herriko seme maitiena bethiko.

V Ez dakizuke gaitzi Enperadorea,
Gure egin dezagun zure haur noblea,
Barkha ezaguzuke gure ausartzia,
Ibero alaba da zure Eugenia.

VI O zeruak igorri haur preziatua,
Zaren bethi zeruaz maitheki zaindua,
Egizkitzu erroak hain barna Frantzian
Nola gure haritzak lur hunen azpian.

VII Zure ait'amak luze zutaz bitez goza,
Frantziak zoriona zutan aurkhi beza,
Leinu luzeenaren zaren hastapena,
Zure omena munduan urrun bedi barna.

VIII Kantabroek ez dute ukhatuko lana
Haritz honen azpian gaur egun,
Bai zure señoia heien bihotzetan,
Maiteki da egonen mendeen mendetan.

63

Martin ARRUPE

ABERATSA ZENBAT DEN ESTIMAGARRIA

I Aberatsa zenbat den estimagarria,
berenez baldin bada bihotz idekia,
Herrian sentitzen da holakoen ukia,
Aiphatzera noha Dabbadi handia.

II Zoin maitagarria den jaun hori herrian,
Erran nahia nintzen gan den aspaldian,
Denek jakin dezaten Frantzian, Spainian,
Eta ahal bada Eropa guzian.

III Nahiz zaharregia edo gaztegia,
Langilearentzat du bethi arraizia,
Zenbaitetik horri esker jaten dute ogia,
Izan bedi luze jaun horren bizia.

IV Bordarientzat ere zoin den nausi ona,
Ezin pagatua da holako gizona,
Desiratzen diogu bihotzez osasuna,
Gertha dakiola desira duena.

V Herriko bestak ere zoin alegeraki,
Hauk ere zoini esker, jendeak badaki,

Kanta dezagun, beraz, ahal bezin goraki,
Lodi eta mehe musikan ederki.

VI Pilota partida da ederra jokatzin,
Jaun horrek duelakotz dirua ematen,
Zenbaitetik horri esker duten atsegin hartzen,
Egun gare hasten bihotzez laudatzen.

VII Besta laugarrenean behi esnedunak,
Larrungo inguruan sortuak direnak,
Jaun horrek eman ditu usuario hauk denak,
Bizi deno segur iraunen dutenak.

VIII Herriko ostalerak ere lorietan,
Hainitz saltzen dutela egun horietan,
Berria hedatu da inguru guzietan,
Eskerrak jaun hori, eskerrak miletan.

IX Heldu den urte arte adio Dabbadi,
Gelditzen garelarik zure zerbitzari,
Galdetuko diogu gure Jainko onari,
Xede on horien irautea zuri.

64

Antoine CHOPERENA

OSTATU ON BAT

I Ostatu on bat herri batetan
gerthatu nintzen ustegabetan,
Bazkari batez lau lagunetan
Ostaler hori bere lanetan.
Espantu frango bere salsetan
Ageri da gero obretan.

II Ostaler hori goizik jaikitzen
Zortzi orentan sua hila zen,
Haragia re buxerian zen,
Hameka orentan berdura sartzen
Eguerditako bazkaria prestatzen,
Manera ona zopa on baten.

III Zopa jan eta haragi hori
Ekartzen dute egosi berri
Ikusi eta zin daite irri

Poxi poxi bat eman daut niri,
Zer khenero zen ez zen ageri,
Mami guti ta hezurra jori.

IV Zahi dabila zerbitzaria
Saltsa bat bada egin berria
Nahi dugunetz haren erdia
Eman behar da huni gardia,
Saltsa ez dela egin berria
Bezperakoa nintzen hasia.

V Galdeiten dugu erraki hori
Ekhar dezala gobernantari
Ongi errerik gixena guri,
Ikusi eta ein daite irri
Xikiroaren ama xarrari
Mehetzen bainan ez zen ernari.

VI Arnoa dugu Bordelekoetik
Edo bederen Chalossekoetik
Ez gaitik joko hunek burutik
Aboilatua ongi huretik,
Edan dezagun orok gogotik
Herritarrem beldurra gatik.

VII Kafe on horrek oro ahanzten,
Galde orduko bereal han zen,
Istantean ur pegarrian zen,
Hasten da bada noizbait ekartzen
Ura doi doia hasia belzten
Kiker erdi bat porroska bazen.

65

ERMITTAUA

DUGUN HERRIA OHORA

Airea: Dugun herria ohora

I Dugun herria ohora (bis)
Eskalduna eman guziz gora.
Har diteke premu lurreko.
Ez du nihor bere adineko.

II Ethorkian guziz garbia,
Garbiago nork duke hobia?
Dugun &

III Judurik ez Euskal herritan,
Haur guziak sinheste beretan.
Dugun &

IV Indarretan lehoina hurbil,
Izkilinbak ez ditazke ibil.
Dugun &

V Xizpa baino hobez makila
Bidez hura besotan dabila.
Dugun &

VI Erregeak bizi guriki,
Izan gabe sorbaldez hobeki.
Dugun &

VII Iguzkiak ez du izitzen
Izan gabe sorbaldez hobeki.
Dugun &

VIII Gauza bero sobera janik
Ez du nihoiz jaunen intzirinik.
Dugun &

IX Buruz gora diteke ager,
Badu bethi soinetako eder.
Dugun &

X Erdaldun da erdi estaltzen,
Ez izanez erosteko galtzen.
Dugun &

X Mendez mende eskal herriak
Non nahi den egiten hirria.
Dugun &

XI Gipuzkoak maite pilota.
Bizkainoak txistu eta kanta.
Dugun &

XII Nafartarra beroa suan,
Ez huzkurra xahato musuan.
Dugun &

XIII Alabesak haitz azpian
Lehiatzen biltzar zuhurretan.
Dugun &

XIV Xuberotar mintzo eztiak
Antzez ditu garaitzen astiak.
Dugun &

XV Garaztarra bethi jauzitan,
Ezin ixil gauen minenetan.
Dugun &

XVI Laphurtarrak errege gizon,
Nahi hauzok agur egin dezon.
Dugun &

XVII Nekhazalek nongo herritan
Dute besta Eskaldun hirritan?
Dugun &

XVIII Xirribika eta suntsunak
Hetaz dire musikan emanak.
Dugun &

XIX Jauregitan asko erdaldun
Bere muthil nahiak eskaldun.
Dugun &

XX Gizona goiz zahar atzetan
Luze gordin eskaldun herritan.
Dugun &

XXI Hiritarrak alfer usteltzen,
Eskaldunak lanean zainhartzen.
Dugun &

XXII Egiteko norapeit laster,
Zaldiketan ez nahasten bazter.
Dugun &

XXIII Egon bedi dena bera,
Nihor ez da nihon haren gora.
Dugun &

66

ETCHEBEHERE "Iaphurtarra"

ERROMESA

Airea: *Etzospeko alaba* (sic)

I Ardo gaxo izurritez betheak
Berrets ditu korrelan atheak,
Erromesak iragaten urtheak,
Herrestatuz zokhotan gatheak.

II Ez bazaio ethortzen zarpetarik,
Noiz edo noiz arditez bertzerik,
Agur guti izaten hauzotarik
Gutiago bazkal gonbidurik.

III Sos eskuan ez denetik agertzen
Saheskara saltzailek beirutzen,
Gaphelurik nehork ere ez khentzen,
Xakhur oro athetan oldartzen.

IV Berina du gorphutzetik iduri,
Lan du aldiz ihesten haizeri,
Haragian deusere zor lumari,
Hala ere gutik urrikari.

V Nausiekin gantzik ezin bilduko,
Argi lehen bethi jeki beharko,
Astirik ez buba egiteko,
Guti janez etxe arinduko.

VI Ilhun dute guzietan aurkhitzen,
Hoberenak ez jakin mintzatzen,
Sabelari jan sobera egortzen,
Edo janak nihoiz ez asetzen.

VII Neskatxek ondar oro bekhaizten,
Bekhurunde andrek erakusten,
Jauna nihoiz etxean atzematen,
Agurtzerat denean joaiten.

VIII Lehen zuten herriko egintzetan
Ontasunek ematen argitan,
Zuhurra zen aitua lan orotan,
Zorigaitza jauts arte zurrutan.

IX Ez du zeren erakuts izpiritu,
Hitz guziak tapatuak ditu,
Halere ez behar errenkuratu,
Nihorenik erriez ukitu.

X Dendariak ostoz estali nahi,
Zapatainak ez bekhaizten lohi,
Janaritzat herresa edo zahi,
Bestelako bere krema ahi.

XI Balin badu zorretan xumerena,
Laister gain du deitura frikuna,
Ohointzetan bethi haren izena,
Jandarmeri gogoratzen dena.

XII Beharrik da zeru goretan Jainko,
Bere haurren noizbait bardintzeko,
Ez ditezke onak batzuendako
Eta minak bethi bertzendako.

67

ETCHEBEHERE

ABERATSA

I Iguzkiak zeu oro arintzen,
Bere argiz izarrak goibeltzen,
Bainan lurra untza urrek argitzen,
Aberatsa orok isentsatzen.

II Heldu zaizko etsaiak agurrekin,
Erromesak saski gaphoinekin,
Bestaleak sabel erdi bethekin,
Aberatsa ona beharrekin.

III Hura nahi aixkide zikhoitzenak
Haren beldur ohoïn handienak,
Hari agur langile hoberenak,
Aberatsei bide mainguenek.

IV Gatz darite solas ergeletarik,
Izpiritu begi eritarik,
Emetasun elkhor beharritarik
Aberatsik nihon burokarik.

V Bastartentzat eztaï berri ematen,
Aita goibel errexki ahanzten,
Seme bada urreduïn jaun egiten,
Aberatsa itzalek ez bozten.

VI Gerlari da ikusi gabe sua,
Gerthaminek ez kausten itsua,

Sehaskatik aitoren semetsua,
Aberatsa nihoiz zorritsua.

VII Hoberen da bethi aitzaindaritzat
Ez hartua nihoiz ohoïn batentzat
Ikusia hainitez kristau ontzat,
Aberatsek urre eskolatzat.

VIII Ibil bitez artha handiz bidetan!
Oro beldur hekin ilkhitzetan,
Mafrundia hekintzat hirriskuetan,
Aberatsek miriku orotan!

IX Poker zonbait zaiotenean jauzten,
Domistecôn hauzoek erraten,
Gapheluak burutarik erausten,
Aberatsei guziak onhesten!

X Min ttipi bat dutenean hortzetan,
Sobera jan azken bazkaritan,
Andre oro mokanesak eskutan,
Aberatsak nausi erliketan!

XI Bego Jauna makhurren xuxentzerat,
Nor non zer den behin agertzerat,
Oro gare jautsi behar hobirat.
Aberatsak beira beatzalderat.

68

Manex ETCHETO, "Senperekø erriet"

BAI, BEHAR DUT MINTZATU

Airea: O vous dont les tendres ans etc., au cant. de St Sulpice.

I Bai, behar dut mintzatu,
Kargua hala dut hartu,
Ostatuko hara hunez.
Han eiten diren laidoez,
O hasten naiz erraiten,
Errepikaz kantatzen.

II Ostatueta gizonak,
Nola urean arrainak,
Atseinetan ahanzten dire,

Han guziak kontent dire,
Handik atheraz geroz,
Nausiak dire ahoz.

III Eskualdunak hobetu,
Ostatuak kitatu.
Hartua hango libertatiez
Bai eta dizipazioniez
Ahanzteïn tu debuarrak,
Baita etxeko aferak.

IV Arno edela famosak
Baditu maiz kanpuan hatsak
Bere biziuen estaltzeko,
Deboxkerien itzaltzeko,
Etxea zorrez kargatu eta,
Segur du handik konjita.

V Bertsu hau ostalerentzat,
Hek ere alpha ditentzat.
Gizonak saretan hatzemaleko,
Han hek laketarazteko,
Eiten dituzte entortak
Horra maiz heien phestak.

VI O bada arrangura,
Seurki ostalerentza,
Saltzen dute arnua eta ura,
Erranez hau arno purra,
Gauza hau kontrakoa da,
Jainkuaz jujatuko da.

VII Gizonek behar dute,
Launentzat karitate,
Abusuak erreprentuz
Beharretan elgar lagunduz,
Eginez gisa hortan,
Urus dire orotan.

VIII Gizon zuhurrak behar tu
Arrazoin hauk ongi hartu,
Bethi jarraikiz intresari,
Bere etxeko protxuari,
Hala gobernatzen bada,
Hunen phartia ona da.

IX O aditu behar da
Aberaziua kalte da.
Estekatuz diruari,
Guthi behatuz ohoriari,
Pasatzeintu negurriak,
Ahanzten onhestatiak.

X Bi bide beraz badire,
Hautu hortan lanak dire.
Bata da zuhurrarena,
Bertzia erhoarena,
Ongi pensatzen duenak
Einen tu afera onak.

XI Mundu huntako bizia,
O labur da gizona,
Zer nahi duzu pentsatu,

Bertze mundukoa irrikkatu.
Gaizki gidatzen bazare,
Lezerat joanen zare.

XII Frantsesen gidaria,
Da enperadoria.
Horren legeak beiratur
Baita manuak kunplituz
Behar da gure bonurra
Hori gauza segurra.

XIII Napoleon du izena,
Orobat osabarena,
Hunen talenduetarik
Hartu du zenbait segurrik,
Hala gobernatzen bada,
Haren plana hobia da.

XIV Haren majestatea
Orok dugun ohora,
Handiak eta xumeak,
Aberats eta pobreak
Gaiten horri sumeti,
Joanen gira prestuki.

XV Xefa horren balia
Da ezin estimatua
Gobernatzen du Frantzia,
Hala aitak familia,
Einez bere bonurra,
Eiten du ere berea.

XVI Puxantzia estranjerek
Orobat populu xehek
Xefa hau laudatzen dute,
Horren ahala bantatzen dute,
Hori dela medio
Dezagun altxa gorago.

XVII Bertsu hauien autora,
Da sortzez itsasuarra,
Trabailatzen da Senperen
Ignoranten instruitzen,
Ongia du pensuan
Gazterien aldean.

XVIII Kobla hauien jujeak
Baditut jaun handiak,
Haier ditut sumetitzen
Baita errekomendatzen.
Othoiztein tut graziaz,
Har ditzaten egiaz.

69

Martin GUILBEAU

BIHOTZ KARLISTA BATEN AUHENAK

Airea: Adio izar eder &

I Aitorren ethorkitik jeneral handia,
Eldu duk hire izen ohoragarria,
Gora duk geia, Zumelakarregi,
Eskalduna armetan zer den erakutsi.

II Hire bihotz handian hintzen konfidatu,
Jainkoak bereganat galde ez bahintu,
Erakutsiren huen gudueta,
Eskalduna ez dela beldur lanjeretan.

III Hire anaiak haute aguro ahantzi,
Hire galtzeak ditik arras iziarazi,
Ni laphurtarra, bihotze hirea,
Ez haut ez ahantziren, menditar umea.

IV Errege xuxenaren soldadu erneak,
Ager zaizte bet betan iduri erleak,
Har ezatzue zuen eskopetak,
Eta orotan altxa goraki kopetak.

V Altza zaizte karlistak zuen etxetarik,
Zeinbat denborarentzat urrun herritarik,
Zuen azpian espainol superrak,
Hautsiren ditu laister hautsiren indarrak.

VI Biba Karlos erranez zohazte gudurat,
Espainol fierraren buruan jotzerat,
Galde zatzue zuen frankeziak,
Arma xuritan pasa bertzenaz guziak.

VII Ager hadi menditar kapitain suharra,
Erakutsak erakuts bihotz Napartarra,
Hire eginez deituz gizonak,
laster bilduren dituk Probintziar onak.

VIII Etxa hadi gakorat hire gizonekin,
Tratatzen dituzkela amodiorekin,
Ez justizia ahantzi sekulan,
Atxiki nahi baduk Nafarra tropetan.

IX Orhoit hadi noiz behin Zesarren etsaiez
Mendi hauen erdian aurki zituenez,
Zoinak baitzuten herriarendako,
Eman bere odola azken xortaraino.

X Ager hadi gerlara hanitz famatua,
Gorthetan ohorezki bethi aiphatua,
Begira ezak hir' omen handia,
Sutan emanez, sutan espainol hazia.

XI Populua hire duk aspaldi jarria,
Hel hadi Monte-Molin eskaldun garbia,
Ator gurekin koroa hartzerat,
Madrilgo karriketan bibak aditzerat.

XII Ez hituke menturaz herabe eta nagi,
Bizi balute oraino Zumalakarregi,
Hire antzea pitz zak hekietan,
Bitorios dadintzat izan gudueta.



70

Arnaud HARAMBOURE

ESKALDUNEN LAUDORIOEN GAINEAN

Airea: Biba trantran, biba trantran.

Errepika

Kanta detzagun, kanta detzagun
Gure laudorio onak,
Bozak juntatuz erran dezagun,
Biba, biba Eskaldunak.

I Arbola zer den fruituetarik laster duk ezagutzen
Gure eginek ondoren ondo gora ditek frogatzen.
Kanta &

II Lurrarekin borroka haitzeko gaituk paregabeak
Gure besoak aitzurrarekin ezin ohituzkoak.
Kanta &

III Bihotz samurrak guziz gainetik dituk eskaldunenak
Behar ordutan diren guziak bethi sokorrituak.
Kanta &

IV Zuzentasuna, leialtasuna gure baithan aurkhitzen
Traidorekeria zer den ere ez dugu ezagutzen.
Kanta &

V Batasunean bozkarioan gure egunak kurritzen,
Gostu errexak dugunaz kontent grina gabe bizitzen.
Kanta &

VI Gure bestetan alegeraki plazarata atheratzen
Pilota gora hanitz artexki urrun diagu ibiltzen.
Kanta &

VII Eskaldunaren gozo maitea pilotako jokua,
Joko ederra, inozentena, ez aski laudatua.
Kanta &

VIII Gorphutz ederrak gure artean usu dire kondatzen,
Enperadorek guardiakotzat denetarik behexten.
Kanta &

IX Zalutasuna gurea dela ezin duk ukatua,
Lasterka guri eremailea oraino sortzekua.
Kanta &

X Kuraiak behinere oraino ez dauku ukho egin,
Zertan nahi den non nahi den eskalduna bethi aintzin.
Kanta &

XI Gure zaharrak mende gorenak zauzkatek ehortzirik
Egin ederrak ondokueri etsenplutzat utzirik.
Kanta &

XII Gudu handitan lehoinen pare hek ditiztek ikusi
Etsai doble eta ez behin egorririk ihesi.
Kanta &

XIII Libertateak ihes lekua eskaldunei galdetu
Hunen banderak gure menditan bethi du distiatu.
Kanta &

XIV Zesarrek berak bere fulian ezin gaitu bentzutu
Haren arranoak gu bezin gora ezin tuk hegaldatu.
Kanta &

XV Leihorreen bezin on gaituk itsasoan agertzeko
Hemen ere gure kopetek ez ditek ahalkatzeko.
Kanta &

XVI Mundu guziak guri ohore zuzen duk bihurtzea
Guk dugulakotz itsasoari hartu lehen balea.
Kanta &

XVII Zer izan garen nahi badute hauzuek ere aithortu
Erranen ditek hanbat aldiz ditugula ikaratu.
Kanta &

XVIII Gutarteko itsasgizonak orotan diztek maithatzen
Dudarik gabe zerbeit onik diotelakotz kausitzen.
Kanta &

XIX Izatu dituk orai baituk izanen ondokuetan
Notarik gabe, gure izena beiratzeko mendetan.
Kanta &

XX Kuraia beraz, lagun maiteak, gora gora burubak,
Gure zainetan bethi dezala kurri Eskaldun odolak.
Kanta &

(Nitaz eginak Ziburun, Arnaud Haramboure, Urruñako xantrea)

71

Dominika HIRIBARREN

KANTU BERRI PARATZEN

I Kantu berri paratzen Dominika Hiribarren,
Zerbeit erran nahi du eztaikien arren,
Esperantzan dagolarik prima eder horren,
Nahi duena franko uztenuke baden.

II Urruñatikan zait letra bat arribatu,
Amodio handirekin nuen irakurtu,
Intenzionea orduan nuen hartu,
Orai behar ditut paperian markatu.

III Esplikazioneari egon nitzen guardian,
Prima eder bat bazela Urruñako herrian,
Eman behar zirela eskuara garbian,
Bai eta ere kantatu plazaren erdian.

IV Urthetikan urthera bethi prima berria,
Eztu gaizki ohoratzen Urruñako herria,
Hori da gizon bat hainitz maitagarria,
Gure alegeratzeko Jainkoak egorria.

V Nere baitharik ez naiz pertsulari abila,
Libertiziona eder bat egin nahiz nabila,
Esperantzak ere baliotu mila,
Irabazten banitu untza eta makhila!

VI Prima emaiteko du afizionea,
Nolazpeit egiteko libertizionea,
Nik egiten dut orai deklarazionea,
Berak emanikan permizionea.

VII Libertizione egiterat nolazpeit aplika,
Lehenik kanta, gero pilota eta bleka,
Hauzo herrietarat dezagun publikia,
Guziak ethorriko gare itzulipurdika.

VIII Jaun hori ibili da Abyziniako partean,
Bizia arrisku etsaien artean,
Etza halere sarthu hekien gathean,
Hain kuraie zuen atheratzean nola sartzean.

IX Han gudukatu eta norapeit abia,
Frantziarat zuen bere egarria,
Egoiteko nahi baitzuen toki bat garbia,
Hargatik hautatu du eskualdun herria.

X Jaun horrek urrikari du presuna paubria,
Higual estimatzen xehia nola larría,
Neke da atzemaitia bertze bat hobia,
Zenbeitek irabazten dute harekin ogia.

XI Jaun horrek maite baitu hainitz karitatea,
Zer nahi duzue batek gehiago egitea,
Jon Doni Petri, idekozu zeruko athea,
Lorian pasa dezan eternitateá.

XII Agerian eman ditut hamabi pertsu berri,
Hemen gelditzen naiz zure zerbitzari,
Jainkoak egin darot zerutikan argi,
Biba berriz lurrean Jaun Abbadié.

72

Jean Martin HIRIBARREN

1643. Muñosek Baiona Españari saltzen

I Zer da berri, errak laster, Epherra,
Urthubiak eginen lasterra
Hirriskerian nihoiz hura huzkurra,
Non da, errok, laguntza beharra.

II Urthubia Ziburuk gerizatzen,
Donibanek Ziburu ukitzen,
Donibanen etsai beltza gordetzen,
Baionari sareak hedatzen.

III Haika lotik, haika laster, muthilak,
Urthubiak higuin lagun hilak,
Har guziek, har gorosti makilak,
Ixilaraz mihien ezkilak.

IV Erran zuen, eta hor berehala,
Non zen jalgi hartz gizonen saila,
Gorostia burrunban zabilkala,
Asko aldiz zenbait otso hila.

V Hetan ziren Zigarroa, Lizardi,
Garro, Urdin, Lizarritz, Garmendi,
Etcheberry, Hiriari, Berro, Murdi,
Argainaratz, Bonihorte, Mendi.

VI Uria da zurruta larriz hari,
Gogoz behar jarreki bideri,
Hedoietan izar bat ez ageri,
Uhar, istil tarte denei jari.

VII Urthubia, lagun hartzak ondotik,
Donibanen sartzen oro gatik,

Han ikhusten gaphirio tartetik
Zerbait argi etxe suspitxetik.

VIII Han zen Muños theilatu arrasoan,
Nola huntzak argi ihesean,
Errara lo zabaldu mihisean,
Lagun asko erne sahetsean.

IX Etziteeken arpegi beltzagorik,
Nihor gutik haren sorbaldarik,
Herioaz etzuen axolarik,
Ikuspenak bat uzten lasturik.

X Beldur gabe Urthubia da sartzen,
Harrabotsak Muños iratzartzen,
Paperei su ematen abiatzen,
Aiztoari ere betan lotzen.

XI Urthubia gero gerritik hartu,
Ihausketan biak abiatu,
Besoz beso ixterrez ixter lothu,
Lagun oro zirela harritu.

XII Amor eman Muñosek azkenean,
Agertzeko frikunen lanean,
Baionari bere hoberenean,
Sartzen zion etsaia barnean!

XIII Urthubia lan honek handitu,
Geroztik zen Bizandia deitu,
Bizandia Urthubian ez histu,
Premu oro Bizandiak ditu!

73

Jean-Martin HIRIBARREN "LAPHEIRE"

MAKILA

Airea: Bethi izan da mentan lurrean makila.

I Bethi izan da mentan
Lurrean makila,
Hura zen hainitz mendez
Nausien itzala,

Marexalez herriak badire
Hek Eskal Herriak behar dire.

II Nausien izarirat
Iduriz eginak,
Makilaren uzterat
Ez diren emanak.

III Etzenean khororik
Erregen indar zen,
Zaintzeko gaiztotarik
Beharra da gauzen.
Marexalez &

IV Makila bat eskuan,
Agurka bazterrak,
Handi ziren tronuan
Babyloniarrak.
Marexalez &

V Erromulen makila,
Hanbat aiphatua,
Zerutik jautsi zela
Izan asmatua.
Marexalez &

VI Toki zahar askotan
Ageri oraino,
Jainkoen eskuetan
Zigor Erromano.
Marexalez &

VII Etziren guti handi
Frantses erregeak,
Makila urrez gaindi
Hastean mendeak.
Marexalez &

VIII Ematean makila
Nausiek norbaiti,
Erran nahi on zela
Higateko goiti.
Marexalez &

IX Errege Elizako
Jaun aphezpikua:
Makila du handiko
Itxura hautua.
Marexalez &

X Nihoiz ez eskaldunak
Mendez ganbiatu,
Gero lehen zirenak
Makilak izartu.
Marexalez &

XI Jaun d'Abbadiek beraz,
Eskainiz makila,
Adirazten eskaraz
Herriko ezkila.
Marexalez &

XII Heldu bazait eskurat
Aphaindu makila,
Joanen naiz etxerat
Nola Marexala.
Marexalez &

74

L.D. INDIANOTEGUI

ESKUALDUNA

Airea: Doniguanen andre gaztendako

I Bethi fier, leal eta kortes
Eskualduna kantabre da sortzez }bis
Izena du xoilki kanbiatu,
Bainan ezta arraza mendratu. }bis

II Alferretan sabantak penatzen,
Noizdanik othe hizen xekatzen,

Horren berririk nehork etzakik
Aments ukhan othe duk hasterik.

III Aitorren seme Murga handia,
Aphalak aphal hire buruia,
Hire nobleziak data badik,
Baina eskualdunarenak eztik.

IV Hunen obrak aiho handikuak,
Juje onez ongi prezatuak,
Itsasoan nola leihorrian,
Hunen pare guti da munduian.

V Errumano fierrak aguatik
Partida zuiela arrapatu,
Lehoiaren pare ezarri hi
Bere gostuz jakin hire berri.

VI Kantabre noble hain famatua,
Hire kasta ez duk ez galdua,
Hire odol bera duk zainetan,
Mendi hoién bi alderdieten.

VII Itsasoko hire balentriak,
Zenbaitek ongi beren nahiak,
Amerika nork zuien bidali,
Bertze batek bainan hi gidari.

VIII Baleari nor zen atrebitu
Mustro hura nork lehen bentzutu,
Eskualdunak dio munduari
Erakhutsi nola jokha hari.

IX Hire lenguaia admirabliak,
Oraino guti ezagutuiak,
Orai behar dik orai brilatu,
Printze bat duk hartaz agradatu.

X Hark dik hura ongi konprenitu,
Haren edertasuna prezatu,
Printze sabant dena izpiritu,
Zuri esker behar du brilatu.

XI Napoleon du bere izena,
Izenetan den podorosena,
Izen hori maita eskualduna,
Hortarik behar duk hire ona.

75

Jean Baptiste LARRALDE

ESKUALDUNA

Airea: *Ene izar maitia*

I Oi! Frantziako untzia,
Mila lanjerretan,
Trebeska zen jarria,
Itsas-hautsietan,
Lema kasik utzia,
Bai, galtzerat zohan
Napoleon handia
Ez balitz han izan.

II Jaun horrek zabalerat
Untzia pusatu,
Hiriskutik kanporat
Urrun egorri du,
Orai bela bethéan
Haizez lagundua,
Dabila popa-airean,
Ungi gidatua.

III Zorigaitzean gauzak
Denborak higtzen,
Gizonik handienak
Harren trabek hartzen,
Horla beraz untzia
Ez da mendetako,
Helas! ez gidaria
Gazte arin bethiko.

IV Nahiz berri tristea
Ez izan beldurrik,
Huna nun den semea,
Aitaren ondotik,

Eskualdun bat denean
Leman ezarria
Bai, nahiz tirainpean,
Ungi zoak untzia.

V Horrela aintzindaria,
Eskuetan dugu,
Phuskatzen bada untzia
Gai onak baitugu,
Gernikako haritzak,
Haurraz orhoiturik
Bere adar hoberenak
Ematen gogotik.

VI Untzi pare gabea,
Segi beraz bozik,
Nekhe duk higaltzea,
Egunaz segurik,
Bethor gau ilhunena,
Bardin hiretako,
Izarrik ederrena
Hor duk argitzeko.

VII Othoitz egin dezagun
Denek Jainkoari,
Eman diotzan lagun
Gure printzeari,
Bere armada guziak
Dohain guziekin
Izan dezan Frantziak
Indar etsaiekin.

ERROMANOAK EUSKALDUNEN GIDAN

I Erromanoak Euskaldunen gidan
Estimutan begiak landatu
Zituzten, zituelako fermutu
Euskaldun berek gidak segidan.

II Ezin prezatuzko prenda larria
Gida hau Euskaldun jigententzat
Hek hazkar klar atxikitzekotzat,
Gai eder handizki maitagarria.

III Hau Erromanoak errespetutan
Hartu zuten Euskaldunenganik
Bahi ezin garaituzkoenganik
Ekhartzekotz beren harmadetan.

IV Hau beraz Lau-buru laudagarria
Khoroa tu ederraz estimatua,
Konstantino handiaz ohoratua,
Emanik Labaro izen berria.

V Bandera hau etsai latzen kontra
Kausitu zen trionpha goren hetan
Zointzubek latinezko itzetan
Deitutzen baitire *non plus ultra*.

(Lehen bost bertso hauek gainmarratuak daude)

VI Euskaldunen Jaun Pelaioen izena
Espainian aipatua estimutan,
Erretzen zenian hau erreboltan
Estrainatuz gerla latzgarriena.

VII Bildu zituen Pelαιο peleginak
Mauruenganik urrundutzerat
Iheslekhu segur hetarat,
Gan izan ziren Espainolunak.

VIII Pelαιο lehenik hek zuten hartu,
Konseilu handian beren nausitzat,
Espainia guziko erregetzat
Akortasun berean proklamatu.

IX Pelαιο horduan jende flakoak oro
Igorririk mendi halthotarar
Sartu zen Covadongan gerlarat
Lagun unekin Mauruen espero.

X Cordobatik Covadongarat
Jautsi ziren Mauruen bi harmada,

Tarako eta Muza hek gida,
Azkhenekoa gan zen Gixonerat.

XI Fletxazko edoia Tarakoen tropak
Arthiki zuen Covadongarat,
Othoitz oihu mandatu zerurat
Igorri zuen Pelαιο unaen tropak.

XII Apokalsiko andre hari
Deiturik mirakuilua gertatu,
Fletxa hek gibelerat tornatu
Horduan Mauruak lotu ihesari.

XIII Pelαιο zituen fidelak mila
Mauro bentzutuen kholpatutzen,
Deba ur handiraino segitzen,
Hilik pasaturik ogoi mila.

XIV Gainereko Mauro eskapatuak
Pasatutzean mendi batetan
Mendia eroririk bebetan
Gelditu ziren oro lehertuak.

XV Horduan Pelαιο Euskaldunen Jaunak
Deitu zituen beitik bereganat
Mendirik segurren hetarat,
Berak igorritako presunak.

XVI Plazatu zituen kanpo handitan,
Manaturik etxeak egiteko
Eta lurra laboratuzeko
Espainiaen erreparazionetan.

XVII Espainiola heldu izan da
Bitorio miresgarri handitan,
Nazione borhitzten espantutan,
Munduari hartutzerat harrunda.

XVIII Ez zen hemen gordetzen iguzkia
Erresuma huntako Phurubak
Halhoki dauzkatena burubak
Euskal-Erritan dute ethorkia.

XIX Belasko, Sandobal, Zuñiga,
Eta bertze etxe eder franko
Euskal deitura klar klar klareko
Dire erran dudana egiaen frogia.

XX Berexiki dut aipatzen Guzman
Etxe klar eder karitatoso,
Du Euskal deithura deliziosa,
Erran nahi du guzieri eman.

XXI Etxe klar huntako San Domingo
Espainia eta Frantzia argituz
Maria Saindua bethi maitatuz
Egin izan zuena hau klarrago.

XXII Da klar San Domingoan odoleko
Frantziako Enperatriz Eugenia
Utzi izan duena Espainia
Huruski Frantzia gobernatzeko.

XXIII Jaunak lagun dezala urthetan,
Enperatriza Napoleonekin
Jende intresatutakoekin
Frantzia ederraen abantailetan.

77

Jose de VERA "Ezkerra"

JUSTIZIA ETA EGIA INORK EZ NAI LURREAN

Airea: Au da ikazketako &

I Beinbetan justizia eta egia
Agertu ziran baltsan, lagun argia,
Bai ungia,
Ihestu zitzaizkoten denetan aurrak,
Etsi aurrak,
Ortzak irrikan jarri nausi biurrak.

II Agertu ere ziran ungi biltzeko,
Zituzten itxurekin, eun sistako
Eta ostiko.
Egia biluzirik oinetik buru,
Bere inguru
Justizia gordina ilhun bepuru.

III Etzioten aterik inon ideki,
Naiz zuten egiten otoitz beroki
Inor ez uki!
Nora jo etzakiten, etzuten surik,
Ez aterberik.
Ote zan gaizkiago amen umerik?

IV Gizon gaxo batzuen egiak kaustu
Noiz ere unatua baitzan gelditu,
Ark zuen artu.
Dena ere zan gizon arras murrirtza
Ja ezin mintza,
Udetan intza bezain herio itsa.

V Justiziak ez kaustu inor oberik,
Lurreko ezkin denak xekien jorik
Loak utzirik,
Juan du zan azkenean bere etxerat
Adiunderat (Tribunalerat),
Angotz egina zala adirazterat.

VI Egin zuen sartzea letrak eskuan
Bere izena larri paper buruan,
Tinta autuan,
Juez jakinek zuten galdez unatu,
Itzulikatu,
Ondoan bere nausi ez naikatu.

VII Letrek bezala itzek erakustean
Nor zan sortu naia hekin artean
Denek batean,
Sudurraren gainerat etsiz atea,
Gakoz betea,
Sarjentuaz egorri andik juatea.

VIII Etzuten inolare aren tokirik,
Zurtziak ere ez nai urbilatzerik,
Argi berririk,
Juan bear izatu zan beraz zerurat,
Bear tokirat!
Etsituz etortzea inoiz lurrerat.

78

An.

BAIGORRIKO HERRI GAIXOA

I Baigorriko herri gaixoa,
Zeren eskuetan da hartua.
Mera dute kusion zarra
Mozkorra, alferra eta gormanta
Neuk ere eztaki zen zarra
Herriak ezin soporta
Amaedio ez othe erreboka.

II Nere intresa dut maite
Bego ene haurra alkate,
Etcheverrik du ama lasungatzen,
Bere osabak aisa tronpatzen,
Heiengatik ostatuak hantutzen,
Baitare bilkura zarrak maitatzen.

III Osebak mehatxa,
Amak lasunga,
Halere neok ezin molda
Mutiko moldegatza.
Ama emazte urguilusa,
Banitatez guzia bethia,
Oseba amerikanuak aberastua.

IV Jaun zaharra aisa enganatu.
Ez elizan beretzat hartu,
Bainan hil obean esposatu,
Orduan andre hori madamatu,
Hantxe fite hektorek hautatu,
Sapetan semea orduan handitu.

V Patharre haren aitaso,
Etchazuko lekaio edo esklabo,
Madama Harispe utzi libro,
Zeren egin zuen semea notari,
Gerotzik ez dire nehoen zerbitzari.

VI Morde d'Abbadie izan balitz orduan hango
Etcheverry etzuen utziren frango,
Arrantzari eta sapetan
Etcheverry aitaso izan
Pertoila eta eztena
Astean bizi laguntza.

VII Satan ez balu bereganat deitatu,
Etchazuko lekaio behar zuen hiatu,
Patharrek hura zuen premuntzat hartu,
Familiak ez behar hartze sobra urguilu.
Bada-arras egia handia.

79

An

MOLDEZ SEGI AHAL BANEZA

I Moldez segi albaneza
Asi dudan kantuba,
Zugan daukat esperantza,
Izpiritu santuba,
Egidazu behar laguntza
Amodiyo kartsuba,
Zutaz dudan konfidantza
Baldin bada gustuba.

II Zu aitzinat bilatzeko
Izpiritu garbiya,
Gure gaitzen sendatzeko
Eman zazu argiya;
Etsaia guzik garaitzeko,
Bihar dugun graziya,
Zerutikan hortarako
Amodiyo jaustiya.

III Arimaren midikubak,
Ama elizak baditu
Libru hontan predikubak
Behar ditugu aditu,

Jainko jaunen abisubak
Biyotz onez segitu;
Sukar gaitzoz eritubak
Ez gaitezen gelditu.

IV Kontseilari gezurtiyak
Dira bihar sinetsi,
Jinko jaunen beldurtiyak
Bihar ditugu berexi,
Dohain honen birtutiak
Biyotzetik honetsi,
Biziyotan erortziak
Anitz kalte daukazki.

V Mundu huntan urguilutik
Heldu diran kaltiak,
Satanasen obratatik
Banitatez betiak,
Sekulako honetatik
Arimaren guzi galtziak,
Ihes haren saretatik
Zarrak eta gaitziak.

VI Bihar ditugu ganbiatu
Bizimodu gaixtuak,
Guregandik behin kitatu,
Plazer handikoskuak;
Mundubari mespresatu,
Bere hore faltsuak,
Gehitzen bada begiratu
Ama urrikaltsubak.

VII Zure bidez libratubak
Etsaiaren mendetik,
Zerurako galdetubak,
Sortu ginen pontutik,
Bataioan garbitubak,
Kulpa orijinaletik,
Serbitzura bortxatubak
Giristino partetik.

VIII Maiz berritu baleitezke
Bataioko promesak,
Sendotubak jar leitezke
Gure fede eskasak,
Indar geio hitzakin luke
Egiten den othoitzak,
Deskantsu bat ar dezake
Ortaz gure biyotzak.

X Guregatik jautsitzera
Jesus hona Zerutik
Emen gizon egitera
Zure aiten aldetik
Gu betiko libratzera,
Etsaiaren mendetik,
Biziyaren ematera
Gurutzian gugatik.

1859 URRUÑA

80

Jean Baptiste LARRALDE

AMA HAURRAREN SEHASKAN LOHAKARTZEN

Airea: *Ene izar maitea*

I Lo! lo! nere maitea,
Lo! ni naiz zurekin;
Lo! lo! paregabea,
Nigarrik ez egin.
Goizegi da munduko
Gelditzen bazira.
Nigarretan urtzeko
Baduzu denbora!

II Lo! nik zaitut higitzen,
Lo! Lo! nonbait goza,
Ez duzuia ezagutzen
Amattoren boza?
Etsai guzietarik
Zure begiratzen.
Bertze lanak utzirik
Egonen naiz hemen.

III Lo! lo! nere aingerua,
Bainan ametsetan,
Dabilkazu burua,
Hirria ezpainetan
Norekin othe zare?
Non othe zabilta?
Ez urrun ama gabe
Gan, ene bihotza!

IV Lo! lo! zeruetarat
Airatu bazare,
Ez bihur zu lurrerat
Ardietsi gabe.

Ungi zuri altxatzeko
Enetzat grazia,
Guziz eni hortako
Zait ezti bizia.

V Lo! lo! gauak oraindik
Nonbait du eguna,
Ez da nihon argirik
Baizik izarrena.
Izarrez mintzatzean
Zutaz naiz orhoitzen,
Zein guti zure alden
Duten distirutzen!

VI Lo! lo! denbora dela
Iduri zait albak
Histen ari tuela
Ekhigabazkoak;
Xoriak arboletan
Kantaz hasi dire;
Laster nere besoetan
Goxatuko zare.

VII Bainan atzarri zare
Uso bat iduri,
Huna nik zenbat lore
Zuretzat ekharri.
Ametsetan ait'amez
Othe zare orhoitu?
Ail irri maite batez
Baietz erradazu.

81

Jean G(OROSTARSO) HAROZTEGUY

ETXEKO XOKHOA

Orhiko xoria Orhin lakhet.

I Orhiko xoria Orhin lakhetik da bizitzen,
Bere larre sasietan ez da hura unhatzen,
Han zen sorthu,han handitu,han hasi zen maithatzen
Han bere umen artean gozoki du kantatzen.

II Dohatsu harek bezala egiten dakiena!
Orhin sorthu eta Orhin gazte-zahartzen dena!
Ez du jakin nahirik zer den kanpoko ona,
Bainan aldiz gozatzen du etxeko ziona.

III Bego etxeko xokhoa oraino nor-berari!
Bego ait'amen etxola haur zuhur denari!
Etxea bethi etxe da, zenbat den itsusgarri,
Kanpoa bethi kanpo da zenbat den edergarri.

IV Etxean pena guziak dirade kontsolatzen,
Etxean zauri minenak noratbait ere hartzen,

Irriak, solas guziak non dirade han baizen,
Gaualdera familia denean bateratzen?

V Familiako bizia, zein zaren plazertsua!
Zutaz gabetua dena, zertaz den gabetua!
Ume zurtza baten pare dabila herratua,
Ezin bere bihotzaren aurkhituz sosegua.

VI Zenbat urrikari dudan bizi dena kanpoan!
Bera da beretzateko mundu huntan ostean,
Jendez da sethiatua eta da desertuan!...
Laguntza onik ez duke bere behar-orduan.

VII Ahaide txarra hobe da ezenez atze ona,
Atzeak ez du balio etxekorik txarrena,
Hori da alde orotan kurri dohan errana,
Baina ongi aditzeko frogatu behar dena.

82

Martin GUILBEAU

ESKALDUN DESTERRATUA

I Triste jarria desterruan,
Orai noha kantatzera,
Zer dudan maite mundu huntan
Dolu minez erraitera.

Sort-herria!

Lur maitia!

Sekulan

Bizian

Ezin ahantzia!

Adios! adios mendi ederrak,
Nihon parerik gabeak!

Adios! adios ibai bazterrak,

Eta oihartzun emeak!

Adios! Laphurdiko alhorrak!

Adios, ene amoreak!

Adios! adios en' herritarrak!

II Denbora iragan ondoan,
Orai dut orai ikhusten,
Ez dela herria sekulan

Ez aski nihoiz prezatzen.

Sort-herria &

III Guti nauk hitaz goza,
Oi lur adoragarria!

Hire minaz ene bihotza

Hurtzen hari duk guzia.

Sort-herria &

IV Hire orhoitzapen saminak
tristatu naik sekulako,
Zeren ditudan maiterenak
Hor utzi sorthu orduko.

Sort-herriak &

V Oi zerua zoinen eder den
lpharra garbi denean!
Eta zoinen den goibel arren
Mendebal hedoi denean!

Sort-herria! &

VI Hala-hala ene urtheak,
Hain lehen eder zirenak!
Hi begietarik galtzeak
Ilhunarazi tik denak.
Sort-herria! &

VII Helas! hi ganik urrundua,
Oi herri hainitz ederra!
Bihotz mineraino zaurthua,
Ixurtzen diat nigarra.
Sort-herria! &

VIII Hala-nola du arantzeak
Zauri minena gaixtatzen,
Hala du ene doloreak
Bihotzean ihardesten.
Sort-herria! &

IX Ezin sobera maithatutzen
Haran benedikatua,
Hire ganik noiz arteraino
Izanen nauk urrundua!
Sort-herria! &

X Lur atzean laster da histen
Lore ederren botza.
Hasi orduko birlandatzen
Hala da histu enea.
Sort-herria! &

XI Zoinen garratz den desterruan
Orai dut orai ikhusten,
Ez dut, ez dut uste munduan
Min dorpheagorik baden!
Sort-herria! &

83

Pierre MENDIBIL

ARTZAIN DOHATSUA

I Etxola bat da ene jauregia,
Aldean sailkatzat hariztegia.
Arthalde bat,
Halakorik ez baita hanbat,
Bazait niri behar bezenbat.
Ai! etzait itsusi!...
Ni naiz etxola huntako nausi!

II Goiz-arratsak bethi deskantsu ditut,
Deuseren beldurrik nihondik ez dut,
Hemen nago
Errege baino fierrago,
Nik zer behar dut gehiago?
Ha! ez da itsusi!...
Etxola huntan Piarres nausi!

III Goizetan jaikirik argialdera,
Igortzen ditut ardiak larrera,
Eta gero
Itzalpean jarririk nago:
Nor da ni baino urusago
Ai! etzait itsusi!...
Ni naiz arthalde huntako nausi!

IV Aitorensemeak, gazteluetan,
Bihotzak ilhunik daude goguetan.
Alegera,
Nik ez dut denbora sobera.
Kantuz nabila gain-behera.
Ai! etzait itsusi!...
Etxolan nor da ni baizen nausi!

V Jan onegiak barnea betherik,
Aberatsak nihoiz ez du goserik,
Eta bethi,
Ene trenpuaz da bekhaitzi,
Diruz ez baitaite erosi,
Ha! ez da itsusi!...
Etxola gazteluaren nausi!

VI Noizbait Jaunari nik damu eginik,
Igortzen banindu aberasturik...
Zorigaitzez
Hesturik ninduke bihotzez,
Ene etxola hunen minez,
Jauna, barkha niri,
Utz nezazu etxolako nausi!

84

DETCHEPARESTOU

GIZON GAZTE BATEN AZKEN KANTUA

Airea: Mertzikaren liliaren ederra

I Argi onaz goizetan atzarriak,
Xoriak kantuz bozkariotzen,
Hek maitarazten ene beharriak,
Bainan minak gogoia daut jotzen.

II Zeru aldean den izar ederrak
Denak irrikan ditu aurkhitzen,
Ene nigarrak hezaten tu bazterrak,
Naularik minak iraungitzen.

III Barnea zaut eritu aspaldian,
Nere baithan mintzarra baratu,
Azparkak buzokak alderdian,
Sortuz geroz zer nahi pairatu.

IV Zorionaz hiltzen gudukaria,
Sarraskian ezpata ukhaldiz,
Hiltzeko eman nezake saria,
Ni hiltzen naiz ezin hilez aldiz.

V Heriotza, eror ene gainera,
Jo azkarki, ez izan beldurrik,
Izurtzeko orai betzegunera,
Lehertu gabe ez utz hezurrik.

VI Athor, athor, ahalik lasterrena,
Behinere ez nauk beldurtuko,
Asper hadi bildotxik ederrena,
Hemen duk eta etzauk izurtuko.

VII Hurbilenak zoroa naute deitu,
Ene auhenak maiz entzutean,
Ethorkizun gozoz ere goithitu,
Etsimenean ni ikustean.

VIII Heiagorak entzuten tu Jainkoak,
Jadanik dut bihotza boztua,
Orai izaiten ozkhei bethikoak,
Begi ubel, burua hoztua.

IX Gezurra da, ez naiz oraino hiltzen,
Min tzarrena bethi da berretzen,
Hosinerat ur zikhinak hur biltzen,
Mingarrak daut bihotza erretzen.

X Baratu gabe eta arduratuz,
Ithaizurak harria zilhatzen,
Ezinerranak orai arte pairatuz,
Bozkarioz ni naiz hobiratzen.

85

Gratien ADEMA "Inazio HARAMBELTZ"

ZENBAT HITZUNTZI!

Airea: Hau da ikhazketako...

I Gure herri xumetan
Zenbat hitzuntzi!
Heien mihi phozoiak
Bethi pitzitzi,
Nausituz dotzi,
Nahiz hobe litezken
Bere gisa utzi,
Zokhoan ahantzi,
Phertsu hautaz diotet
Mila goraintzi.

II Beren egitekoak
Ez aski izanez
Noiz nahi khexu dire,
Nor nahirenez
Makhur xuxenez,

Lehor egin hurrenak
Gauza arinenez
Dagozi minez,
Ez hekien gogorat
Orok eginez.

III Nun zer gaizki diteken
Bilha dabilta!
Phorroskatzeko baizen
Ez daizte mintza,
Kasta hezgaitza!
Bipera ausikia
Bezein borthitza,
Da hoiien hitza,
Nork hek egin kalteak
Othe dakitza!

IV Izan dagin egia
Edo gezurra,
Zer nahitan sarthua
Dute sudurra.
Tresna segurra!
Xuxen ezagutzeko
Nun den makhurra
Juje zuhurra!
Hark antolatu gauza
Guardia urra!

V Nor da heien mihian
Garbia denik?
Azkenik aiphatua
Da zikhinenik,
Ez dut uste nik
Badenez uli beltzik
Ez listafinik
Hain phozoindunik.
Sistakoa hek bezein
Samin dutenik.

VI Akhelarren omen da
Sorgina frango,
Galtxagorrik soinu joz
Aika putingo!
Salto ta bringo.
Mihi gaixtoak hobe
Litezke hango
Bertze nihungo.

Ondikoz kasta hori
Baita behingo!

VII Emazte mihi luze
Moko meharra,
Bazter nahastaileak
Eta ozarrak,
Bihotz eiharrak!
Berak ixil ixila
Egon beharrak
Medisent tzarrak
Puies aparta Satan
Akhelartarrak!

VIII Nahiz gerez ez garen
Hain maithagarri,
Dezagun amodio
Ekhar elgarri*
Eta sokhorri
Lege hoi izan bedi
Gure uztarri
Eta lokharri
Hola da bizitzea
Loriagarri.

* aldakia:
Agur eta amodio
dugu ekharri
behar elkarri.

86

Gratien ADEMA "Joanes HERGARAY"

Pilotan afizione dutenek kantatzeko, xaxari xahar baten phertsuak

I Pilotari gaztea, higi hadi laster,
Hire beha daudenak huna jendez leher,
Errebotean hire jokoa zak ager,
Eia zein haizen hazkar, zalhu eta eder.

II Eskualdun gazteriak besoz, zagoz arin
Bere azkaziari ez dik ukho egin,
Pilota partidetan, oi zein den atsegin,
Eskualduna eskualdun bethi ager dadin.

III Zer pilotari gaitzak Perkain et´Azantza!
Heien famak oraino badik harramantza,
Espantuz baizen hetaz nor daiteke mintza?
Halako guti dugu orai esperantza.

IV Bai besain, bai besazpi, bai punpa lasterrak,
Hautaki zerabilzkan Kurutxet, Exkerrak
Domingo ezpeletar jokari supherrak,
Hobeki inharrosten zitian bazterrak.

V Betiri jandarma eta Herorizko Martin,
Bi soldadueneko osaba ilobekin,
Etxand´eta Ibarla Duluniarekin,
Nihork ez dik pilotan hek bezala jakin.

VI Onyore Justun eta Suraidar Betiri,
Erreferaraz geroz nork hek handik higi?
Bainan horra Rumeba, horra Frantxistegi,
Xemartingoarekin butatik piklari.

VII Hire mandrunarekin*, Kaskoina, emak hor,
Perkaini, Azantzari deus ez diotek zor.
Sasoinean hintzeno othe zuan nihor,
Hik bezala pilota zezakenik igor?

VIII Hogoï urthez eginik hainbertze partida
Kaskoina heinbat lerdan oraino bizi da,
Oraiko gaztek hura har bezate gida,
Harekin ikhasteko jokoko segida.

IX Bere trunko lodian hainbertze haragi,
Harrizkeko da nola dion ere mogi,
Badu oraino franko kosko eta begi,
Damurik gaztetzea ez zaio zilhegi!

X Esku huska zelarik lehenguen jokoa,
Geroxago hasi zen eskularruzkoa,
Orai berriz noiznahi atxikian joa,
Habalaz bezain urrun airetan badoha.

XI Atxiki aire hortaz orai da hauzia,
Legezko joa denetz ala malezia,

Bixtan da baduela bere adrezia,
Guziz joiten dueno pilota bizia.

XII Meltxorren joko gisa duenak ikusi
Ez ahal du jujatu falta ez itsusi,
Azken urthe hoietan ez ginion kausi,
Pilotan zaitekenik horri buruz nausi.

XIII Meltxorren ondotikan huna bertze batzu
Hura bezenbat jada badire abantzu
Mattin aheztarra, zuk ahal dakizu
Frantsesak noiz dezaken Espainol hoi bentzu.

XIV Muthiko eskualdunak, hots, erna zaitezte,
Laphurdi, Baxenabar, Zuberu nahaste,
Zein nausi, zein lehenka pilotara zoazte,
Han ezagun da nor den hazkar eta gazte.

(Ahazparnen egina, uztailaren 5an 1859)

* *On connaît sous ce nom (mandruna) un genre de coup de bras propre à Gascoina.*

87

M./LGC.:

HUNA NI GERLARIA

I Betbetan gure mendian
Altxatu gazteria,
Etsaia zeren Italian
Omen den sarthu nahia
Nihun malxurrik denian
Laster harat Frantzia.

II Adios zonbait egunen
Oi, arreba maitia!
Lagunak han et ni hemen!
Zerk nauka gibelatia?
Auhenetan zoin trixte den
Arrebaren uztia.

III Oihanian alegera
Hazten uso paluma
Jan edanak zaizko sobera
Galduz geroztik laguna.
Trixte goizetik atsera
Dabila hara huna.

IV Gerlariaren ganbaran
Ainguru bat aguspez
Zeriar gerla denboran
Grazia bat dago galdez
Nik phentsu zer duten erran
Ainguriak nigarrez.

V Hoita bortz aitamen haurrak
Gerlan hantxe baratu
Adin lilian herioak
Zorrozki bereganatu
Aitamen egun xaharrak
Zerk behar kontsolatu?

VI Napoleon Italian
Armaden aitzindari
Lorioski du bitorian
Agur egin etsaiari,
Eder suiaren erdian
Bakian miragarri.

VII Huna ni jin berheala
Huna ni gerlaria
Kuraiez emanik odola
Libraturik Italia.
Zu beldur galdu nintzala,
Oi, arreba maitia!

VIII. Biak biharamunian
Goizian goiz argiko,
Elizan elgarren aldian,
Othoitzian belhauriko
Hek bethi behar ordian
Zeriak onhetsiko.

88

MENDIBOURE "Laphurtarra"

DIRU BANU

Airea: *Ai! ai! zer egin zait niri?*

I Ai, aberatsa banintz ni! (bis)
Segur nindaite gizon handi (bis)
Guziak adiskide,
Ustekabez ahaide,
Hanitz agur emaile,
Ohore, lausengu banuke,
Diru banu, jaun bat nindaite! (bis)

II Diru duenak sakelan
Izpiritu hanitz buruan;
Banuke jakitate,
Mintzatzen banakike;
Orok erran lirete
Ez dela ni bezalakorik!
Moltsa banu diruz beterik!

III Jaun Erretora, egun on!
-Bai zuri ere, Mur de Santson.
Zato barazkaitera,
Othoi, gure etxera,
Aphur bat jostatzera:
Egidazu egun atsegin,
Laket dut gizon prestuekin.

IV Orotarik (diru banu)
Heldu lakiket konplimendu,
Nik parerik ez nuke,
Herrian orok maite;
Eta galdatu gabe
Laster izenda nintzakete
Edo juje edo alkate!

89

Joanes OXALDE

ITALIAKO GERLA BERRIAREN GAINEAN

Airea: *Atharratzeko, edo, Air national de la reine Hortensie*

Bertso burua

Bi arrano bazauden hisia handian,
Begiak zorrozturik jua den aspaldian,
Elgar hatzeman dute ulhau ederrian,
Bat laster gelditu da hegalak lurrian.

I Autrixiak azpian zaukan Italia
Salbu Piemontia, lekhu bat ttipia,
Osoki beretzeko zuen gutizia
Eta botatu harat harmada guzia.
(berriz: Bi arrano)

II Bainan, biba fransesak, biba bethi ere,
Juan dira denborarik nehon galdu gabe
Ehun mila soldado gizon baten pare,
Segur zirelarikan aurkitzia lore.
(berriz: Bi arrano)

III Jeneralak gidari jua dira alegera,
Hekien buruzagi Napoleon bera,
Bakea egiterat ekharria zena,
Gudukan egiterat bortxatu dutena.
(Berriz: Bi arrano)

IV Frantzian gerlari gazte aipatuak
Beren buiaz dira ezaxolatuak,
Iduri lehenko soldado zaharrak,
Beldurrik gabekorik, bihotzez azkarrak.
(Berriz: Bi arrano)

V Montébellon agertu lehenik bandera,
Forey jenerala da orduan athera
Etsaia hersatu du lekhuen husteria,
Uraz bertze alderat ihes egitera.
(Berriz: Bi arrano)

VI Palestroko guduan bigarrena baitzen
Manuel Erregea Zuabekilan zen,
Haukien baionetak ederki jokutzen,
Errakarat etsaia metaka botatzen.
(Berriz...)

VII Nola erran, nork aipha heien balentria
Magestan egin dute kolpe bat handia,
Solferinokoa, oi! zoin izigarria!
Ez daite zuzen khonda hango sarraskia.
(Berriz...)

VIII Laur ehun mila gizon ziren elgarrekin
Frantses eta Piemont Autrixianekin,
Egun guzia joka haritzearekin,
Frantsesa gelditu da Bitoriarekin.
(Berriz...)

IX Lehertua etsaiak, lehenik ephea,
Eta gero laster du onhetsi bakea,
Dezagun bethi lauda Enperadorea,
Arras altxatu dauku berriz ohorea.
(Berriz...)

X Bi hilabete oso gudukan egonik
Frantsesek izan dute laudorio onik,
Heien sartzeko bestek ez dute parrerik,
Nihoiz ez da ikusi holako bertzerik.
(Berriz...)

Bertsu buztana
Oi! Arrano supherra, hintuen bi buru,
Oraiko aldi huntan, diat nik bat kendu,
Bizirik hukeien bildotsa larrutu,
Frantziatik ez banintz laster hegaldatu.

90

Joanes OXALDE

ESPAINOL BATEN TRATUA

Airea: Nork nahi zer nahi den erranikan ere

I Tratu eder bat zauku Lapurdin suertatu
Zertaz den nahi dugu zuzen kondatu,
Bi eskualdun baitira elgarri juntatu,
Eta abiatu,
Egitera tratu,
Bai eta zerratu,
Idi zaharra dute mulan trukatu.

II Espainol batek zuben athera idia,
Etzularik hainitz airos begia,
Noiz eroria othe zen baitzagon guardia,
Haren errabia,
Etzagon ttipia,
Zer pena handia,
Lehen bai lehen zuen khendu nahia.

III Frantses baten ganik truk hartzen du mandua,
Orduan deskantsatu haren gogua,
Kaprestutik harturik, bistatik badua
Etzen dolutua,
Eginik tratua,
Halako fruitua
Batere ez du galdegin non zen sorthua.

IV Etxera denian dio bere andreari,
Othoi, begira zozu nere mulari,
Tailaz eta guziez hain da xarmagarri,
Nere mando hori,
Bergia du larri,
Estomaka lodi,
Gogua emaiten daut dela ernari.

V Andriak erreposta, irria farretan,
Niri bezik ez konda, othoi, bertzetan,
Ongi arrima zazu lehenik ferretan

Emaiteko errentan,
Goizuetako mentan,
Lagunekin tropan,
Bakharrik jan liote belek errekan.

VI Halaxe, Manuelek, erraiten goguan,
Zenbat dohakabea haizen munduan,
Arranuen pazkaz duk heldu den neguan;
Emanen oluan,
Ez janen gostuan,
Ez baitzen trenpuan
Hortz hagin bihirikan ez dik ahuan.

VII Frantses pikaro horrek sarthu dauk ziria,
Ongi zorrozturikan berri berria,
Ez dik tatxa gabia berorren idia,
Laneko nagia,
Bethi eroria,
Onxe haragia,
Xoriz betherik dauka zintzur guzia.

VIII Mehe balinbadago, ona duk jateko,
Aldiz nere mandua ez deusetako,
Horren behar bakharra nere laguntzeko,
Haurren jostatzeko,
Ez duk deusetako,
Ez on bertzetako,
Ferrak khenduz geroztik zakurrendako.

IX Zertako duk horrela idia trukatu
Tratu txar bat eginik baitzauk dolutu,
Ongi behar hituen begiak argitu,
Bai eta miratu,
Orai ez probetxu,
Hauxe zauk gertatu,
Demonio horrek hau zakuan sarthu.

91

Betiri ARBELONDE

GOAZIN EDATERA

Airea: Indan edatera maitea Katalin.

I Goazin edatera arno huntarik,
Nork emanen derauku hobiagorik,
Ez dezagun galdu zenbat den goztatzen,
Orok eman dezagun zintzurren hezatzzen.

II Alegera niz eta ez dut bihotz minik,
Zerk emanen daut niri goguan xangrini,
Gazte niz eta kontent, dugun kanta lagun,
Arno hunen indarrak ni pizten nu egun.

III Pinta bat hustu eta bertzia ondoko
Gogoko tristezien alegeratzeko,

Sakelan badut ere bi bosliberako,
Ostatuko gastuen bethi pagatzeko.

IV Remedio hoberik eztut uste baden,
Laster sendatzeko gure gogo beltzen,
Arnuak gizonari indar du emaiten,
Flako izanik ere hunek du hazkartzzen.

V Biba arno gorria xuriaren nausi,
Hauxe bezalakorik nik eztut ikusi,
Barrika bat beterik orai huts nezake,
Sabelaren ahala balitz neure bethe.

92

Martin ARRUPE HARLOUCHE "Urruñan"

ESKALDUNEN LAUDORIOAK

Airea: Herriko Besta

I Mila zortzi ehun berrogoi eta hemeretzi urthe,
Aurtengoa sartzen delarik hola direla diote.
Urtheak badoaz, gogoa gazte,
Iduritzen orai dela haste,
Eskaldunak garen bezala bethi dugu elgar maite;
Detzagun inguru guziak gure fama onez bethe.
Hunat beraz kantari eder omore ona dutenak,
Eta oihu egin goraki, biba, biba eskaldunak!

II Ez dut bada asti handirik ez eta jakitaterik
Hala ere deus erran gabe ezin nagoke ixilik.
Zer othe da gauza ederragorik,
Eta gustagarriago denik,
Omore onak ez ahal du munduan bere parerik.
Eskaldunak garenaz geroz tristurak khen bihotzetik.
Hunat beraz kantari...

III Pentsaketan jarriz geroztik bethi tristura ethortzen,
Bainan omore onak ditu horiek denak kasatzen.
Eskal herrietan zer da ikhusten,
Alde guzietan, zer aditzen.
Hirrintzinek eta xirolek bazter guziak arintzen,
Abia gaiten eskal-herri maite haukien laudatzen.
Hunat beraz kantari...

IV Errenkuratzen da jendea gazterentzat aldizka,
 Nahasten dutela igande eta bestetan karrika:
 Kantari, hirrintzin eta oihuka,
 Arnoa edanik espantuka,
 Eta elgar ezin kitatuz, hor dabiltzala multzoka.
 Bainan orhoit gure denborez eta bihotz onez barkha.
 Hunat beraz kantari...

V Pilota partida ederrak eskal herrian jokhatzen,
 Libertizione onhesta nehork ez du kondenatzen,
 Zer gustua duen jendeak hartzen,
 Hekhi beha denak loriatzen.
 Eskal herrietarik kanpo holako guti ikhusten;
 Gure lur sor lekhu maiteak ez ditugu ukhatzen.
 Hunat beraz kantari...

VI. Pilotari eta kantari bertze batzuek dantzari;
 Guk adios erran ginion gure gazte denborari,
 Kontseilu bat orai gazteriari,
 Trufarik ez egin zaharriari,
 Eta ihes egin lagun tzar bruitaketariari.
 Hori ez ahantz eta gero erakuts ondokoari,
 Eskal herri maitagarriak, eskal herri aipatuak,
 Zure aiten usantza onak izen beitez segituak.

93

LEMARQUE semea

MADALENARI

I Hamahiru pertsu berri
 Noha kantatzerat
 Neskaxa miragarri
 Baten laudatzerat.
 Bozkarioz lorietan
 Noha mintzatzerat
 Eskal-herri denetan
 Ihardukitzerat.

II Neskaxa gazte bat da
 Bidarten xarmanta,
 Osoki ederra da
 Eta elegantea.
 Ungi mintzaria da
 Hainitz elokanta
 Manera guziez da
 Arras atraianta.

III Zu zare, Madalena,
 Bidarteko izarra,
 Xuriago zarena
 Ezen ez elhurra.

Diztiazten duzuna
 Itsaso bazterra
 Nobleki zabiltzana
 Herrian bakharra.

IV Infinituki eztia
 Da zure bisaia
 Eta duen airea
 Graziaz bethea
 Oi zeinen den loria
 Zure ikustea
 Erraten dut egia
 Izar miragarria.

V Zure begi eztiak
 Erdiz-erdi zerratuz
 Errespetuki jautsiak
 Modeski behatuz,
 Zure manerak nobleak,
 Bethi emendatuz
 Badohazi guziak
 Aintzinara doblatuz.

VI Zu zare hainitz piusa,
Arras merbeilusa,
Eskal-herriko arrosa
Hainitz preziosa.
Arras injeniosa
Zare industriosa
Obratzaile kopiusa,
Hainitz baliosa.

VII Zu zare guzietan
Hainitz dakizuna,
Presuna zerebrotan
Pasa zintekena,
Behar bada gorthetan
Hedatuko dena
Denbora guzietan
Zure aiphamena.

VIII Pelopen alaba da
Orai grazian dena
Munduko emerauda
Perla xarmantena,
Lurrean botherez da
Bertzek aintzin dena
Bertze nihun zutaz landa
Parerik ez duena.

IX Zuk erreki pasatzen
Haren botherea
Aintzinara doblatzen
Haren berthutea,
Zuk errepresentatzen
Atrofa lorea
Eta nunahi hedatzen
Saphirra airea.

X Izar urus baten pean
Zare errekontratu
Munduratu etortzean
Arraioz klaritu,
Zaitu orai artean
Bethi kontserbatu
Mundutik partitzean
Doluturen zaitu.

XI Jainko onak behin ere
Ez zaitu utziko
Prestu baduzu ere
Fidel zerbitzatuko.
Hark ez gaitu gu ere
Sekulan utziko
Munduan bethi bagare
Ungi gobernaturiko.

XII Orai arte beneratu
Zaitut errespetuki
Eta ungi mintzatu
Ahal beizen oneski
Bai ere lorifikatu
Behar beizen goraki
Nihor ez dut laudatu
Zu beizen nobleki.

XIII Kantu hunen mediod
Segur naiz etzaren
Enetzat abertsioz
Gaizki mintzaturen.
Oi zeren amodiod
Bethi maitaturen
Baitzaitu laudorioz
Bethi inguraturen.

94

Joanes ETCHETO

SORTZEZ ESKUALDUNA NAIZ ETA

I Sortzez eskualduna naiz eta
Egia erraitia dut maite.
Gizonak elhez tronpatu-ta
Ez dut irabazi uste.
Nahi naiz mintzatu jokoetan
Gizonen galgarrietaz
Erranen dut xede onetan
Zenbait hitz hemen pilotaz. (bis)

II Juan nadin huna eta hara,
Kausitzen tut pilotari
Gazteak hasirik jokora,
Zaharrak aldiz jujari,
Pasionia dute bere gida,
Bai hori gauza segura,
Nork erran dezake segida,
Zenbat den maiz kaltekorra. (bis)

III Ikusi ditut gazteriak
 Juaiten herritik herrira,
 Phestan elgargana bilduak,
 Nola armadak gerlara.
 Elizan bisitarik ez da
 Heien ganikan ukhanen,
 Plaza edo ostatua da
 Heien hautukua izanen. (bis)

IV Han urria ta zilharra ez dire
 Partidan gupidetsiak.
 Pobrentzat bi ardit ez dire
 Jokoko dire guziak.
 Hortarik ageri zer den
 Phestaren izpiritua.
 Libertinkeria nola den
 Han bethi pratikatua. (bis)

V Pilotarientzat igandiak
 Ongi unhatzekuak dire,
 Jainkuak pausatzeko eginak,
 Heientzat nekhezkuak dire.
 Mainetzak goizian hasi eta
 Arratsian gelditzen dire.
 Eguna profanatu eta
 Nola kofesatzen dire (bis).

VI Pilota jokotik lekhora,
 Segur da deboxkeria.
 Egunen profanazionera
 Konpliki laxokeria,
 Zeren handia baratu eta
 Baidohazi ostatura
 Plazan gastatzen hasi eta,
 Han arraso finitzera. (bis)

VII Ikusi ditut hainitz herri
 Pilotariz famatuak.
 Ibiltzen ziren herriz herri
 Bazituzten amarruak.
 Partida egiten hartzen ziren,
 Nork erran hango adreziak?
 Onduan zer bilhakatu ziren!
 Pobre hil ziren guziak. (bis)

VIII Partidetan pilotariak
 Badirade izan dunak.
 Eginikan ero galtziak,
 Gutti senditzen dutenak.
 Bainan bertze hainitzen baitan
 Bertzela da bai gertatzen,
 Sofriaraziz familietan,
 Mubleak tuzte jokhatzen. (bis)

IX Pilotari heien artean
 Izan dire traidoreak.
 Kontrarinekin aditzean,
 Bere launen galtzaileak.
 Nork erranen du krima horren
 Hedadura nolakua den?
 Munduan ez da halakuaren
 Deskansurikan izanen. (bis)

X Gizon prestuak bere umeak
 Bertzela tu erematen,
 Pilotaren amodiak
 Ez dituzte hatzematzen.
 Zeren harentzateko sua
 Baitiote apartarazten
 Adiaraziz lanen zentzua
 Zenbat duen galarazten. (bis)

XI Toki hauk pilota utzita
 Litezke ganbiatuko.
 Pisionezo jokuak utzi-ta
 Gizonek lana maiteko.
 Orduan larreak haintzurtuz
 Balukete fruitu frango.
 Bethi prestua gida hartuz.
 Jendia baita zuzenago. (bis)

XII Pilotaz hola mintzatu-ta,
 Ez dut erraitia utziko,
 Pleika dela dudarik ezta
 Gaztien leherrarazteko.
 Pilota baino hainitzetan
 Da seurki nekhatzezinago.
 Thonbarat ditu gaztietan
 Segur eremaiten frango. (bis)

XIII Izan zen bat gazten artian
 Joko hortan nausia,
 Lehenik hasi zen Frantzian,
 Gero Espainian bama,
 Han bien kontra jokhatu zen
 Nork erran haren sukharra!
 Laster jokotik gelditu zen:
 Hatzeman zen hil gogorra. (bis)

XIV Azken bertsuan gaztieri
 Nahi diotet adiarazi,
 Ez ditzen izan sobra egarri,
 Ez lagunak galarazi.
 Errekreazione honestak
 Familian pratikatuz
 Zeruko aingeruen phestak
 Izanen dire doblatuz. (bis)

Refraina:

Enperadoria frantsesen aita,
Bai dezagun orok kanta.
Horren podoria handia da-ta
Bai, dezagun bai, handizki maita.

I Juan den urthean urtharilean
Akzident bat izatu da.
Paris barnean kapitalean,
Hainitz jende xahutu izan da.
Hirur deskargu ein dira.
Guzien aita huts egin dute.
Gauzak hola joanak dire,
Bai mirakuluz huts egin dute.
Enperadoria...

II Bai familia Inperiala
Kolpe hortan salbu izan da,
Probidentzia landa dadila,
Frantziarentzat bonurra izan da.
Bainan kolpatu gaixoeak
Zer zorthe tristea izan dute!
Heien sofrikarioek
Zer bihotz mina ematen dute!
Enperadoria...

III Kolpatuetan zenbat hil dire.
Jainkoari zer juan dute?
Jujamenduan agertu dire,
Bere finala hartua dute.
Hekin familia gaixoeak
Zenbat erregret, zer pena dute!
Bainan gelditzen direnek
Zerbait segida harturen dute.
Enperadoria...

IV Gaixtagin hekiyen instrumentak
Deitzen ziren infernalak.
Zeren baitziren hark asmatuak
Bai eta ere pozoindatuak.
Nork erran hekien lana!
Heien forma zen udariarena.
Ez gaiten beraz engana,
Etsaiak emana zen bai plana.
Enperadoria...

V Instrumenta hek deituak ziren:
Diferenki bonbak ziren.

Bai balaz ungi kargatzen ziren,
Efetua re halakoa izan zen.
Nork erran hango brexada!
Oi, zenbat jende masakratuak!
Bainan Jainkua gure alde da.
Hark laguntzen tu bethi prestuak.
Enperadoria...

VI Gure jabiaren karitatea
Mement hartan agertu da.
Ahantzirikan bere kaltea,
Biktima hetaz okupatu da.
Hainitz ongi zinez bethitu
Jeneroski agertu izan da,
Heien oihuak aitu.
Heien ait'ontzat zerbitzatu da.
Enperadoria...

VII Instrument heien obratzaileak
Biltzen ziren Angletarren.
Beren tokitik desterratuak,
Han egoitzaren egiliak ziren.
Karnaia zuten gogoan,
Bai mundu guzia nahasteko,
Bainan oraiko aldian
Jainkuak ditu beriak ikhusico.
Enperadoria...

VIII Nork erran diro norainokua zen
Gaixto heien errabia?
Seurki bistan da biktima eitia zen,
Mundu huntako heien gloria.
Zer krima izigarria!
Bai zer laidua zeruaren kontra!
Nork erran zoin zen handia
Heien herra bai gizonen kontra!
Enperadoria...

IX Laur gizon ziren tiratzaileak
Gure jabiaren gainera,
Laurak ongitto amarratuak,
Emanak izan ziren lezera.
Kaxot ikharagarria
Izan zen beraz heien ohea.
Etzen ez erhokeria,
Hek gisa hortan segurtatzea.
Enperadoria...

X Jujamenduan heien puniza,
 Izan zen bai azkenekua,
 Etzen ez, sobra eta kapriza,
 Mundutikan kasatzia holakua!
 Gaixtaginak libro utzita
 Nolakua laite onen bizia
 Prestuek lephua utzita
 Segur lukete fite partitzia.
 Enperadoria...

XI Aintzidarien mirail handia,
 Bai bonurrez salbu izan da.
 Horren eseiuz gure Frantzia
 Bai hainitzetan urusagua da.
 Ez gaiten beraz gu bara,
 Oi horren gure aita deitzeari,
 Izan dezagun bai kharra,
 Jabe horren obeditzeari.
 Enperadoria...

96

Joanes ETCHETO

DANTZAREN SUJETERA...

I Mintzatuko naiz bertsutan
 Dantzaren sujetera.
 Erranen dut ehunetan:
 Sumizione legera.
 Elizari sumis denak
 Bethetzen du manua.
 Ama horri fidel denak
 Ukhanen du zerua.

II Dantzetan kausitzen dire
 Segurki re bi suerte.
 Batian nahasteka dire,
 Bertzian kolpa ez daite.
 Gaztek zer egiten duten
 Kontu eman bezate,
 Zeren aitek heien falten
 Lista hartzen baitute.

III Oraiko gaztien dantzak
 Oi! desonestak dire.
 Segur hekien oinhatzak
 Makhurrekoak dire.
 Gobernatuz gisa hortan
 Fite galduko dire.
 Bere azken orenetan
 Urrikaltzeko dire.

IV Herri batian izatu da
 Gizon gazten arin bat,
 Bai deboxa agertu da,
 Ezin erran bezenbat.
 Bere azken egunetan,
 Izan da modela bat,
 Hango gazte lagunetan
 Deithua da saildu bat.

V Gazte hunen etsenplua
 Gutitan da segitzen.
 Bekhatoria gogortua
 Thonbarat da etxatzen,
 Dantzari gehienetan
 Horrela da gerthatzen,
 Zeren arinkerietan
 Bethi diren zorutzen.

VI Jaunaren legea zauku
 Apezez explikatzen.
 Jaun hauk bethi hari zaizku
 Alkitik predikatzen.
 Hauien kontra goaten denak
 Bai gaizki du pentsatzen.
 Oi jujamenduan denak
 Betan dire agertzen.

VII Aldi huntan dut emanen
 Oi, dantzaren segidez.
 Lehenikan dut erranen
 Zer izan den Herodes.
 Printze hunen ezteietan
 Alegrantzian daudez.
 Herodiasek dantzetan
 Zoratzen du Herodes.

VIII Dantza hunen preziuetan
 Izatu da burua.
 Jondoni Juaneren baithan
 Egina da hautua.
 Profeta horren lephua
 Izan da pikatua.
 Zer etsaiaren gudua!
 Lekhuko da zerua.

IX Berek orduz zenbait gaztek
 Izan dute malurra.
 Badakite hori aitek,
 Bai lekhuko da lurra.
 Eguberri gabarekin
 Juan ziren Lur saildura.
 Dantzatu zeinuarekin
 Trufatzeko zerua.

X Dantza hunek iraun zuen
 Oi, urthe bat osua.
 Haren buruan ez zuen
 Nihork aitu seinua.
 Iharturik jua ziren
 Etzen gelditu traza,
 Guziak suntsitu ziren
 Zer dantzaren punitzia!

XI Erranen tut ezteietaz
Aldi huntan bi solas.
Hainitzak likhur onetaz
Berotzen dire arras.
Bat bedera nahasi-ta
Ez da orhoit Jainkoaz.
Oi, Dantzari eman eta
Trufatzen da zeruaz!

XII Eztei batzuez izan zen
Jende ospe handia,
Barnian ezin kokotuan,
Athera zen guzia.
Borthan dantzan hasia zen
Jautsi zenian hila.
Orduan ihesi jua zen
Deskansuaren bila.

XIII Orai Dantzaren segur
Bai diferentak dire,
Hartzen ez baituzte brio
Gaztiak tronpatzen ere.
Biziko kirastunak
Dantzen punizak dire
Zerukuak ontasunak,
Oi, irrikkutan dire.

XIV Jende prestuak ez dute
Dantza hori onhesten,
Begi triste ere dute
Abusua ikhusten.
Zeren gisa hortan dire
Hainitz arima galtzen
Bai eta etsaiaren
Badira emendatzen.

97

Joanes ETCHETO

IZATU NAIZ AMIKOZEN

I Izatu naiz Amikozen
Zuberoko aldean.
Pasatu Baxenabarren,
Baigorri zelaiean.
Diferentak tut kausitzen
Gizonak thalenduan,
Lehen klasan tut ezartzen
Laphurtarren artean.

II Laphurtarraz mintzatzeko,
Emanen diot zor dena.
Egiazki erraiteko,
Antzetsua da dena.
Sanhoa konpainietan.
Ez da ez nabarmena.
Bere hartze ematetan
Osoki da zuzena.

III Laphurdiko kapitala
Kausitzen da Baiona.
Hiri hortan badabila
Berthutiaren usaina.
Goaten bainaiz Donijuanen:
Zor diotet fama ona.
Pasatuko naiz Urruñen.
Hainitz da jende ona.

IV Urruñetik Senperera
Ez da bide luzea.
Bai hauk biak onak dira.
Zoin othe da hobeaz?
Famatuak eremuan
Lurra hainitz ona da.
Sartzen banaiz oihanean,
Senperekoa naisi da.

V Kobla bat emanen diotet
Hazparneko hauteri,
Zeren hori zor baitiotet
Eginbidian sari.
Herri hautan tut ezartzen
Bertsutan buruzagi,
Bainan ez naiz engaiatzen
Hartziaz hek argizagi.

VI Izatu naiz Uztaritzen,
Bai eta Ezpeletan,
Bertsulari tut kausitzen,
Bi herri horietan.
Goaten banaiz Sararaino,
Han naiz bai abiletan,
Bainan nausi da oraino
Espainola titxuetan.

VII Donijuanen-ta Urruñan
Egiten dire phestak.
Biga ditut hatzemanen
Segurki inozentak.
Bata da bertsuetakua,
Bertzia ureko jokua.
Bainan da bertsuetakua
Handizki laudatzekua.

VIII Urruñeko herrian dut
Jaun on bat distingatzen.
Neure begiz ikhusi dut
Kantua sarizatzen.
Bertzeri irakhusten du
Etsenpluez mintzaten.
Fortuna onaz ere du
Usai-ona egiten.

URAK ETA GURE ARNUAK

I Urak eta gure arnuak
Hartu dukete disputa.
Urari dio gure arnoak:
Hakit hemendik aparta.

Refr. :
Zer da hire banitatea,
Neurekin konparatzeko?
Zer da hire prentziona!
Neurekin balsan jartzeko! (bis)

II Urak dio gure arnoari:
Zoin fanfarrana haizen hi!
Hi haiz guzien erhogarri,
Orok gaitzesten haute hi.
Zer da...

III Nik baditinat mahastiak,
Fruitu ederrez betheak,
Harat sartzen diren guziak
Atheratzen tun aseak.
Zer da...

IV Nik baditiat ithurriak
Kristaila bezen argiak,
Hik erhotu tukan guziak
Han dituzkek zuhurtuak.
Zer da...

V Ni naun nekhatzale onetan
Indarraren emaila,
Bai eta hik flakatuetan
Ongi sustengatzailea.
Zer da...

VI Zer da etzeko zerbitzuan,
Ni gabe egiten denik?
Gauza guzien preparuan
Ni nauk hartua lehenik.
Zer da...

VII Ni naun oroz preferatua,
Errepas handienetan,

Segurki haiz meziprezatua,
Ni laudatzen nautenetan.
Zer da...

VIII Hik dituk familak nahasten,
Hitan fida direnetan.
Bai-ta etxeak janarazten,
Hi Jainkotzat hautenetan.
Zer da...

IX Ni naun erien sokhorria,
Bai eta altxagarria.
Ez dun zeren kontra abia.
Ez dun hiretzat hauzia.

X Ni nauk jende freskatzailea,
Hik berotu tukanetan,
Bai eta kontsolatzailea
Hik xahutu tukanetan.
Zer da...

XI Nik dinat ematen kuraia,
Hainitz gudu suertetan.
ez hadila beraz engaia,
Oi, neure kontra kantetan.
Zer da...

XII Ni naun phestetan enplegatzen,
Ponpa handitan ibiltzen.
Nik ditinat alegeratzen
Ni naiten ongi trinkatzen.
Zer da...

XIII Neure kantzak dituk prestuak,
Bai eta zuhurrarenak.
Hiriak dituk deboxkeriak
Bai etare nabarmenak.
Zer da...

XIV Hik dituk dantzan harrarazten,
Buruan jo tukanetan,
Solas lizunak sorrarazten
Hik zoratu tukanetan.
Zer da...

99

Joanes ETCHETO

FRANTSSES GERLARIAZ

I Mintzatuko naiz hemen
Frantses gerlariaz:
Bertsutan dut erranen
Dakidana hartaz.
Hasiko naiz Krimeko
Bataila handiaz,
Bai eta finituko
Oraiko bakiaz.

II Krimeko erreduta
Guziz aiphatua,
Frantsesak ez du falta
Bada funditua.
Rusianuak zuen
Gaizki beretua.
Frantsesak behar zuen
Harri egin sua.

III Su hartan frantsesa da
Hainitz distingatu.
Bai haren baliyua da
Orotan aiphatu.
Turkiarra ere du
Dretxuan pharatu.
Bai bere burua du
Horrela altxatu.

IV. Italiako gerla
Gerla aiphatua.
Diot izarraz dela
Bai anontzatua.
Frantziaren onetan
Jainkuaz manatua.
Ez gaiten egon dudan
Hau da altxatua.

V Lauretan tut ematen
Gerlako batailak.
Montebelotik hasten
Gure abantailak.
Hango zazpiren kontra
Gure bat aski zen,
Frantses harmaren kontra
Hangua lotsatu zen.

VI Magenta eta Mincio,
Gero Solferino,
Hartu dire khario
Hil da giristino.
Bai hauietan galdu da
Segurki re bia:
Doblezka xahuta da
Segur otrixia.

VII Frantsesen jabea da
Hainitz irakhutsi.
Bataila heietan da
Kuraios ikhusi.
Haren bertutea da
Guziez onhetsi.
Europan horixe da
Handizki hautetsi.

VIII Italia du eman
Bere dretxoetan;
Bakhotxa bere plazan
Bozkarioetan.
Aita saindua ere
Altxatu orotan,
Errelijionia ere
Fagoratu hortan.

100

Joanes ETCHETO

SEBASTOPOLGO GERLA...

I Sebastopolgo gerlaren
Ondotik da Italiakua.
Frantziako armadaren
Sekulakotzat altxatzekua.

Refreina:

Biba, Biba Enperadorea,
Bai eta seme printzea.

Dezogun batian egin gorthea:
Hau da gure jabea.

II Krimeko joitiaren fama
Europan bai hedatua da.
Frantses armadaren harma
Bai Rusian aiphatua da.
Biba, biba...

III Montebeleko jokhada
Jokhadetan da handiena,
Han da bai frantses armada
Erakutsi kuraiosena.
Biba, biba...

IV Bai Tagenteko jokhada
Italian da bigarrena.
Han frantses jenerala da
Ezagutu baliosena.
Biba, biba...

V Tagentetikan Mincio,
Minciotikan Solferino;
Hauk hartu dire khario.
Xahutu da han giristino.
Biba, biba...

VI Bai beraz frantses armada
Biktorios da atheratu.
Hainitz konbatatu bada,
Hainitez behar da altxatu.
Biba, biba...

VII Autrixiako armadak
Ezagutu du bai nausia.
Frantses armadaren harmak
Lotsatu du segur guzia.
Biba, biba...

VIII Gure jabearen gloria
Glorietan handiena da.
Hark egin duen onkia
Guk ezin estimatu da.
Biba, biba...

IX Inperatrizaren kharra
Errientguan da bai agertu.
Oi kolpatuen beharra
Handizki du bai ezagutu.
Biba, biba...

X Gerla horren iraupena,
Ez da ez luzea izatu,
Ainzidariaren plana
Segur ongi da baliatu.
Biba, biba...

XI Azkenian beraz bakea,
Bi buruek dute sinatu.
Odolaren ixurtzea
Segur laster dute gelditu.
Biba, biba...

XII Orai Frantziako phestak
Phestetan handienak dire.
Bai jo detzagun tronpetak:
Oro alegrantzian dire.
Biba, biba...

XIII Bake hori egina da
Italiaren fagoretan.
Hortan irakhutsia da
Zer den gure jabia obretan.
Biba, biba...

XIV Familia inperiala
Bai zeruaz manatu da.
Segituz haren eskola
Gure bonurra egina da.
Biba, biba...

101

Joanes ETCHETO

TURRA ASTO GAINEAN

I Aintzin urrian juan nintzen
Turraren egitera,
Heian bihotz onik bazen
Frogetan ematera,
Kartierreko uztaillaren
Fruituaren biltzera,
Bai eta fede onaren
Oi, etsaminatzera.

II Asto batekilan nuen
Segurki hasi turra,
Huntan erakatsi zuen
ez zela solas gura.

Hainitzetan zen agertzen
Mula bezen gogorra,
Maiz zen gibelaz itzultzen
Irakusteko ferra.

III Lehenbiziko egunian
Patarrean jaustean
Etzen gelditzen lasterrian,
Ezin koka gainean.
Errekala erorita
Han nintzen istilean
Arropak zikhindu eta
Gorphutza re lurrean.

IV Burriko furios hori
Unhatziaz zen ezitzen,
Ibiltziarekin kurri
Pausura zen ethortzen.
Zenbat bide kurutzetan
Xikanak zuen hartzen.
Buru beheratzetan,
Bai nitaz zen trufatzen.

V Gisa hortan asto honek
Hartzen zuen kolera.
Frogatzen nuen nerorrek
Istantetik bertzela.
Gainera guan nahi eta
Ezin ongi prepara.
Hola eseiatu eta,
Guaiten nintzen lurrera.

VI Hiruretan nau etxatu,
Bizkarretik lurrera.
Halere ez nau kolpatu
Gorputzeko hezurra.

Ez zaut bada espakatu,
Desir zuen bezala,
Sokhatik nindakon lothu
Ahal nuen bezala.

VII Asto zalhu kuraiosak
Zalderea jan eta
Egiten zituen phestak
Musikan hasi eta.
Behin batez kurritzean
Egin zauntan muinika.
Bai haphatzen ikhustean
Juan zerauntan lasterka.

VIII Aldi batez asto hori
Larrian zaut espakatu,
Laun bat ez balitz ethorri
Ez nuken harrapatu.
Lasterrari eman eta
Harrek zuen kausitu
Sokhaz amarratu eta
Berriz nuen kargatu.

102

Victor ELIÇAGARAY

LANGILEA

Airea: Itzul hadi..., bertzenaz: Coeur de Jesus...

I Langilea, nahi zaitut khantatu,
Oi! zoin zaren estimagarria,
Lana dela nahi nuke frogatu,
Aisiaren ithurri garbia (Bis).

II Ez estona, ez badituz khantatzen
Gerlarien gudu bitoriak,
Hainitz dituz gehiago prezatzen,
Zure lana, zure izerdiak. (bis)

III Gozo bada, etsaiak bentzuturik
Familiarion trionphan sartzea,
Hain gozo zaut lanean atxiturik
Deskantsuan gustuz phausatzea. (bis)

IV Bitoria, eremaiten denean,
Bethi norbait badago tristerik,
Segur bertze zorion da lanean,
Hartan ez da etsai gathiburik. (bis)

V Errazue, Printze soberanoak,
Langilerik ez balitz lur huntan,
Non litezke zuen Palazioak?
Zer liteke zuen mahainetan? (bis)

VI Fruitu bazen edo belhar erroak
Litzatezke zuen janhariak,
Harroka bat, bertzenaz haitz zilhoak,
Zuen etxe, zuen jauregiak. (bis)

VII Langileak, bethi bizi garbia
Gogotik jan eta gustuz edan,
Apetitu, nekhez irabazia,
Hari nihork ez dezoke eraman. (Bis)

VIII Langilea, jaten duen ogia
Nahiz duen izerdiz bustitzen:
Pena nekhez, erosi hazkurria,
Du bederen aise diseinitzen. (bis)

IX Ahantzirik pena nahigabeak,
Zoin gustuz den phausuaz gozatzen,
Nondik nahi buha dezan haizeak,
Arrats oroz da kontent lokhartzen. (bis)

X Lanak ez du, erran dadin egia,
Hitzemaiten aberastasuna,
Bainan hark du segurtatzen aisia,
Aisian da bethi zoriona. (bis)

103

Martin GUILBEAU

URZO GAZTE BATEN LEHEN EGALDA

Airea: *Urzo xuria, errazu...*

I Urzo xuri bat goizean
Ikusi dut jeikitzean,
Nahiz ez ziren nere begiak
Arras ungi idekiak.
"Egun ona" diot eman:
"Gauza bera deraut erran". (berriz)

II Jadanikan planadiak
Xoriak eta mendiak,
Nork batez zituen iragan
Laphurdi gibelat eman,
Deusek ez du gure kharra
Ez baratzen aire harra. (berriz)

III Urzo xuria zerk zaitu?
Zerk bihotza enganatu?
Norat zohazi horrela, norat?
Nafarroako alderat
Zer duzu utziz Frantzia?
Bilhatzen libertatea. (berriz)

IV Ez dut ekiaren pean
Ikusi ene bizian
Zu baino gauza ederragorik,

Zu paretzeko gai denik,
Zu galtzea da urzoa,
Lastima egiazkoa. (berriz)

V Iduzkia atheratzen,
Uhartzetikan hasten zen,
Larrun alderat zen lorietan,
Urzoa joan airetan,
Noiz eta ere bet betan,
Hartua baita saretan. (berriz)

VI Laphurdin zuen eguna
Egunetan ederrena!
Ikusi haran zelhaia pean,
Ondikotz oren menean!
Oi, hala behar krudela!
Hik huen, hik, nahi hala. (berriz)

VII Ez dagoenean denbora
Zertako duzu nigarra?
Adio, Laphurdi maiteari,
Zure jaijo lekhuari!
Ahal diozu erraiten,
Ez duzu, ez ikusiren... (berriz).

104

Martin GUILBEAU

LAGUN BATEN BEREKUNTZA

Airea: *Gaztek erraiten dute...*

I Dolu minez gohazi orai kantatzera,
Gure nahi gabeen emen emaitera,
Lagun baten galtzeak (ber.) gaitu tristarazi,
Sekulako bihotza zaurthurikan utzi.

II Adio, gure lagun hainitz maitatua!
Ez hintzen sor herriko biziz dohatua,
Urania iganez (ber.) bahoa desterrurat
Ethorkizunarentzat aisia biltzerat.

III Bihotza altxagarri maiz nahi gabetan
Penak dituk izanen desterru heietan,
Bainan gogoz emen dik (ber.) haigu segituren
Hire amodioaz gaituk orhoituren.

IV Orhoit hadi noiz behin hire herritarrez,
Hire haurtasuneko amore samurrez,
Orok hiretzat ditek (ber.) galdetzen grazia
Aiten herri maitean uzteko bizia.

V Adio, jaijo herri benedikatua!
Nihoiz munduan ezin aski maitatua,
Adio, adixkide (ber.) ene amoreak,
Haurtasuneko lagun, herriko loriak.

VI Adio, uhaitz, bazter parerik gabeak,
Eskal herriko mendi, oihartzun maiteak,
Adio, Laphurdiko (ber.) lansai ederrak!
Zuen edertasunaz munduan bakharrak.

VII Biziko lagun leial osasun maitea,
Nahi gabe guzien kontsolatzailea,
Lagun zak, othoi, lagun (ber.) ene ama ona,
Nigarretan hurtua ni gatik dagona.

VIII Azken pertsu hunetan, lagun maiteak,
Zuentzat beitez izan ene hasperenak!
Zuen orhoitzapenak (ber.) ene bihotzean,
Iraunen du, iraunen ethorkizunean.

105

Martin GUILBEAU

MARINELAREN JOAN ETA ETHORRIAK

Airea: *Bistatik dohat untzia*

I Lertsunak dohaz airian
Don Ibaneko hirian,
Sendoaraziz zenbeit bihotz eri,
Eta asko familia
Zeinak baitziren eman nigarrari,
Berantetsiz sokhorria. (berriz)

II Doluz utziz lur berria,
Igan dute Urania,
Larrun alderat horra nun dohazin
Adiaraziz berria:
Itsas lehoiak hor direla: Gaitzin
Laster biderat lehia. (berriz)

III Ager orduko ibaian,
Horra andreak lasterrean,
Bozkarioak deramaz hirirat,
Guziak ahantzirikan
Beren senharren soin zabaletarat
Bihotzaren erditikan. (berriz)

IV Portuko kaia guziak,
Abantzu dire betheak,
Zinka, irrintzin, eta kikizaiak
Ez dire eskas bornuan,
Ikusiz bere emazte maiteak,
Ungi osasun onean. (berriz)

V Trionfan sartuz herrian,
Alegrantzien erdian,
Ez dute deusik eskas bihotzian,
Dohatsu dire aphur bat,
Bere emazte maiten besotikan,
Dohaz, harat eta hunat. (berriz)

VI Etxa ditu primaderak,
Bere lehen arraioak,
Itsas ederrak ditu gonbidatzen,

Berriz ere bere haurrak,
Ikusazue marinela uzten
Bere bihotz maiterenak. (berriz)

VII Mingarri da ikustea
Besarkatzen emaztea,
Nigarrari da eman planuetan
Madalena bat bezala,
Ez du pausurik, ez du bihotzean
Xori amak hala nola. (berriz)

VIII Adio, ene senharra!
Ene amore bakharra!
Nahi gabetan diat altxaturen
Jainkoari ene botza,
Eta bihotzez zihoat erranen
Marinelaren othoitza. (berriz)

IX Adio, ene andrea!
Adio, ene maitea!
Jaunak haizala eman auhenetan,
Behar dunen sokhorria,
Lagun haizala behar orduetan,
Othoizten dinat, Maria. (berriz)

X Oi, berexkuntza samina!
Ondikozko bihotz mina,
Kentzen duena amodioari
Bere bihotz samurrena,
Entseiatzeko hala beharrari
Ethorkizun itsuena. (berriz)

XI Untzia bela bethea,
Doha aize iparrean,
Jadan iragan ditu uhinetan
Sor herriaren leihorak,
Itsas lehoiak du begiratzean
Gordetzen bere nigarrak. (berriz)

106

Jean-Martin HIRIBARREN

HEREN-SUGEA (1407)

I Hedoi bat lehertu
Urdaiz inguruan,
Haritz bat ez gelditu
Kapeta buruan:
Babazuza, harria,
Ozpina artetik,
Hedoi izigarria
Suzko zen barnetu.

II Laster da ilhuntzetan,
Irubi aldetik,
Entzuten beharritan
Ziztu bat zinetik,
Behin ilhun iduri,
Itsaso orroa,
Ez denean ageri
Izarren lerroa.

III Mehatuaz gererat
Hain da min altxatzen
Non baitu bihotzerat
Odol dena biltzen.
Ikusi omen dute,
Bai zerbeit ikusi,
Nola alde balute,
Iduria hesi.

IV Baditu hiru buru,
Bakhotxak eztena,
Oro kharrez inguru,
Agertzen zaiona,
Bizkarretik dario
Harri harrabotsa,
Hezurrez egin dio
Herrestak sahetsa.

V Begientzat diruri
Harri legundua,
Uharretan igeri
Ferdats gelditua,
Artetan marradia,
Badu xuharxago,
Bizkarrez ingudia
Ez da gogorrago.

VI Itsusi bezain handi,
Luze bezain makur,
Lur bazterrean gaindi
Dabila ez huzkur.
Gorphutza zaio jartzen
Lau, bortsz uztaietan,
Orgak dire ibiltzen
Hura higitzetan.

VII Gizon eta abere
Oro onak zaizko,
Ezdu uzten deusere
Gaxtoz zintzurreko.
Beldurra da orotan,
Biluz inguruak,
Bi lekhoa erditan
Behera buruak.

VIII Aita haundien seme,
Seme handiagua,
Ixilik eta erne,
Belzunze Morongua

Buruz zaio joaiten
Heren-Sugeari,
Jan ondoko egiten
Dagola loheri.

IX Urratsak du atzartzen,
Eta berehala,
Buruz gora da jartzen
Jauzteko bezala.
Sei ximizta begitan,
Luze hogoi pia,
Buztana su-lametan,
Horitsu azpia.

X Joan zaio ihesi
Belzuntzi muthila,
Berbera da ikusi
Hirriskatzen dela.
Buru bat, lehen lana,
Dio ebakitzen,
Bainan, nahiz arina,
Sugeak du lotzen.

XI Belzuntze zaio hari
Azpitik sistaka,
Sugea Belzuntzeri
Ezten asikika.
Lehena, ubeldua,
Itsutzen da hantuz,
Sugeak, urratua,
Lan ezin hats hartuz.

XII Berro bat ez da xutik,
Lana bethi hari,
Suge sabel zaurthutik,
Gizon puska jari.
Khalika eta hilka,
Nihon ezin bara,
Badohaz itzulika
Ur-handi behera.

XIII Belzuntze itho hola,
Bainan ez ahantzi,
Omen bat ezin hila
Eskaldunei utzi.
Lehenago arraina
Mendiz alhaturen,
Ezen haren izena
Baita ahantziren.

107

Johanes IGUZQUIBELHAR

EIHARAZAINAREN ZALDIA

Airea: Lili bat ikusi dut

I Zaldi bat erosi dut merkatu batian
Hobeki egin nuken utzirik han berian,
Ile izpirik ez du beharri batian
Arrazoin onez zeren moztu baitzioteian.

II Lepua da luzia, burua handia
Zango bat ere maingu, bestia larrutia
Zauri bat bizkarria, zer zela lekuia
Lanetarik ez eman, begiz da itsuia.

III Oi, Mulin zertako duk hik abere hori,
Hartari ekartzeko ez duk gauza hori,

Hobe huien asto bat saku ibiltzeko
Eta hire zaldia utzi belendako.

IV Ez trufa ni, laguna, oi neure zaldia,
Penarik aski badut enekin bertziaz,
Hobeki egin hiro niri emaitia,
Ehun luis erosteko garano gaztia.

V Mulin eztituk hola ehun luis kausitzen
Oino nihork ezitik leihotik botatzen,
Xiula utzirik ez baituk lastersko bilhatzen,
Nik seurrik ezdazkiat zaldian emanen.

108

Jean-Baptiste LARRALDE

AMATXI ZAHAR BATEK (ISTORIO XAHARRA)

I Amatxi xahar batek hotzetan neguan
Iruten hari zela suphazter xokoan,
Khondatu daut miletan bethi gauza berri,
Istorio luze bat, huna zein, laburzki.

II Hirur gizon zoazen, bideak emanik,
Elkharrekilan lagun, behin, merkhatutik,
Bata zen eskalduna, bertze bat kaskoina,
Ez naiz orhoitzen nongo zen hirugarrena.

III Nola denborak tinke baitzuen berotu,
Gure merkhatiarrek ziren egarritu,
Gorphutzak izerditan, ur hotzaren beldur,
Ostaturat gan ziren, nahiz motxak zimur.

IV Han, laster egarria zuten arnoz hautsi,
Larrutik izerdia bertzetarat jautsi,
Bainan errexenetik hasi zuten lana!
Nola pagatuko da tabernako jauna?

V Ikharetan kaskoina, zerurat begira,
Ez jakinez zer egin, eta ez norat bira,

Badago gogoetan, bainan, kolpez, gero,
Altxatzen da, bederen hotz zen bezen bero.

VI Huna zer zaitan, dio, jaunak bururatu:
Poko gisa, gaur, diruz, amets inen dugu,
Zein ere aberatsena baita geldituko,
Harrek eskutik, bihar, ez du pagatuko.

VII Batek bai, bertzeak bai, gauza zen onhetsi,
Eta amets puxantenak denek ardietsi,
Soilarua Kaskoinak, urrez du kargatu,
Diamantez bertzeak guphelak gainditu.

VIII Eskualdunak, azkenik, bere laguneri,
Huna orai, nere ametsa: zein den izigarri,
Zuen obra onen dako zaituztela urkhatu,
Ni gelditu naizela zuen bien premu.

IX Beraz, gastuetarik eskualduna kanpo,
Ostatutik ilkhi zen, diotenaz goixko,
Bertze biak ez hain goiz nola zuten nahi,
Beren amets ederrak utzirikan bahi.

109

Jean-Baptiste LARRALDE

JOSE MARI EZKERRAREN LAUDORIOAK

Airea: Soldado nintzelarik Jakako mendian

I Parnaseko mendirat gogoz igaitean,
Lehen Jose-Mari dut ikhusten bidean.
Alferretan lagunak inguratzen dute,
Buruaz gorago da, nola gorde daite?

II Ethorkiz aphala, bakotxak badaki,
Libururik bazenetz etzakien naski,
Haren dohainak, horla, deusek ez lagundu,
Halere kanta ematen nor zaio hurbildu?

III Errangai agorrenak zituen hautatzen,
Bainan agortasuna harendako zer zen?
Deusik etzen tokian, nahi bezen fite,
Sorrarazten zituen mila gauza maite.

IV Bethi kasik airetan, denen xoragarri,
Lorez-lore dabila, pinpirina iduri;
Bainan eman gardia, nahiz maiz pinpirin,
Lixtor bilakatzen da, damu guttirekin.

V Lixtor erran dut, bainan laster urrikitu,
Nahiz asiki mina, phozoinikan ez du,
Bere harmen nagusi, zuhurtzia lagun,
Axaletik dabilzka, bihotzetik urrun.

VI Asto jaunek, bakharrik, zuten etsai handi,
Heien garatosaten zagon maiz izerdi.
Zer gisaz hortaraino ziren hasarratu,
Istorio berrian ez dut irakurtu.

VII Animale bertze bat ez dut izendatzen,
Kolerak ez duena, segur, maiz erhotzen,
Miletan, ikhusi dut errabiatua,
Faltso zurika baitzen kalomnitua.

VIII Bainan hasarradurak begoz bazterrerat,
Merezimenduz, egun, jin naiz mintzatzerat,
Nahiz athorra, bakhan, ungi kaxatua,
Jose-Marik bazuen gaindi talendua.

IX Haren bertsu legunak, eztiaren pare,
Ahotik badoazi, trabarikan gabe,
Mihia gelditzen da guti unhatua,
Izpiritu lindarrek xoilki samindua.

X Herronkez, mundu huntan, Apollon trufatzen:
Handiez bezen ungi da xumez orhoitzen,
Maiz jauregi murrutan, belhar bastoena,
Maiz, xola baraztetan, lili ederrena.

110

LARROULET PASCOT

HESKUALDUNEN BEHEITI LERRATZEA

Airea: Mainhuak hur ephelez saldak oilokiz

I Hitz batek beharria deraut kilikatu,
Buruko zain guziak betan hirritatu,
Nafarrua beheren ez da koblaririk!
Urruñan ez da agertzen baizik Laphurtarrik!

II Untza urhea, khoroa, makhila mizpira,
Oro Laphurtarraren sudurraren dira,
Hori dut irakurtu Baionako fulan,
Ahalge phizu hori ez dioket jasan.

III Ene herria nahiz hortarik garbitu,
Laphurtarrekin aurthen gogo dut agertu,
Ez niz egon nahi lo heien zango petan,
Nafartarren odola baitauket zainetan.

IV Heskualdunen makhurrez nuha mintzatzer
Egia biphilskoek koblaz erraitera,

Bihotz minak nigarra daut eginarazten,
Ttipituz gohatzela nik baitut ikhusten.

V Gure aitzinekoak hain ziren arruntak,
Soinian janharian merkenez kontentak!
Etxen egin jauntzia zuten ardurako,
Feriako girgilaz beste irauteko.

VI Egun handietako jauntzi bat gaztiak,
Hil artekan beste bat zien ezkondiak,
Heien janharia zen, artho, esne xingar,
Etziren gehiago gauza goxo behar.

VII Anoa zabilaten behar zen arauka,
Etziren ostatuak ordian osteka,
Mahain bestak zituzten bakhanak, arruntak,
Benan alegerari heietan jostetak.

VIII Ostatuko jan edan erho kharioak,
Beste anhitz igorbide orai usuzkoak,
Etzuzten ezagutzen orduko zuhurrek,
Zonbat duten ikhasi heien abil haurrek!

IX Zahar gaztiak erne jarraikiz lur laner,
Huntarazuna heldu zen zorrik gabe umer,
Aberastarzun haundi goseak etziren
Ukhaite pollit batez hon eginak ziren.

X Nekez bilduak zuzten xuhur begiratzan,
Orai biltzen beno da gehixot igortzen,
Itxuraz eta gogoz gu gira gorago,
Egiazki hek ziren anhitz goriago.

XI Lur lana utziz garraizko bizi nakiari,
Landen langile galdez dira oihuz ari,
Gazteak multzoz duhaz Ameriketarat
Edo jaun andre nahiz hiri horitarat.

XII Heskualdunen etsaia ez niz urrun dago,
Arrangura min hotan heien grinaz nago,
Untsa beraz bitzate har heben erranak,
Besteinez egin baitu heskualdun onenak.

XIII Arbaso guren hatzer so dezagun egin,
Heier jarraiki giten ahal artharekin,
Beheiti lerratzetik baratuz agian,
Urhatsa goiti dugu eginen ordian

111

Jean SAUBABER

UME ESKERGABE BATEN DOLU MINAK ETA ERAKUSPENAK

Airea: Hainitz airen gainean

I Laster naiz aiphatzean, laster orhoitzean!
Ama bat nuen ona, higuin bihotzean,
Ikusi dut ilkitzen, ilkitzen mundutik,
Dolu minez betherik, helas! neure gatik!

II Nigarra dut begian bihotza zaurthua,
Neure ama dut eskas hobian sarthua!
Berantxo dut ikasten, oi! zer dudan galtzen!
Bertze amarik ez dut lurrean kausitzen.

III Barka, ama maitea, barka Jainko Jauna!
Urrikitan guzia hemen naiz emana;
Miraila munduari nahi naiz ezarri
Egia handienen erakusle garri.

IV Zenbat ni bezalako doluegingarri,
Burhaso hoberenen bihotz lehegarri!
Familetan naiz sartzen, sartzen bizitzetan,
Orotan dut ikusten mina bihotzetan.

V Umeak uste dire ozar bilhakatu,
Bake gozo ezta etxetan da galdu,
Nigarretan urthua doluz bestitua,
Nun nahi da burhaso gaizki dohatua.

VI Burhaso onak dire guk ohoratzeke,
Jainkoaz ezarriak umen altxatzeke,
Oi! bihotz gogortasun ez ohoratzea,
Maithagune phurua ezin maithatzea!

VII Morthutan ohi dire bestia dorphenak,
Bere amen alderat arren samurrenak,
Bizia dute galtzen amen ez galtzeko,
Ez nuke nahi erran, miraila hartzeko.

VIII Orhoit zaitte, umea, orhoit zure gatik
Zenbat duen pairatu askoren ondotik,
Oinazetan guzia bizia menturan,
Zaituenean amak ekarri munduan!

IX Egun osteak ditu auhenez iragan,
Beldurrez herioak zu laster ereman,
Luzerenak gauhetan zu nahiz lagundu,
Bihotz minez bethea zurekilan galdu.

X Athera zarenean haren bulharretik,
Ibiltzen abiatu, handitu ondotik,
Zenbat izerdi, neke zu sokorritzeko!
Nahigaberik gabe, ustez bizitzeko.

XI Haren lagun leihala, aita deitzen dena,
Urhundu da etxetik, nahiz zure ona,
Itsasotan herrestan urean pulunpan,
Hola ditu egunak ereman phorrokan.

XII Orai, ume gogorra, ez duzu izenik,
Ez baduzu eskerrik ongiak izanik,
Orain baduzu zaurtzen burhaso bihotza,
Zure bihotza duzu horma bezin hotza.

XIII Zure gatik menturaz doluz bestitua,
Ama duzu hobirat jadan hurbildua!
Ez zare kanbiatzen, urrikitan sartzen,
Oi! bihotz ggoorrena, ama duzu hiltzen!

XIV Egizu, egin nigar, ume dolugarri,
Horrela xukatzeko nigarrak amari,

Etsenplu emateko aldiz munduari,
Itzul Jainko jaunari izan ume berri.

XV Gaizkiaren sariak ez heda munduan,
Aski da dohakabe infernuko suan,
Dezazu segi xuxen jaunaren legea,
Zeruan du saria, lurrean bakea.

112

Jean SAUBABER

SOLFERINOKO BATAILA ETA GARAITIA

I Laphurdiko umea, hasten naiz koblatzen,
Frantsesen garhaitia phertsutan altxatzen
Bozturik oro kanta dezagun zorion,
Gohotik errepika: Biba Napoleon!

II Bethitik da frantsesa gizon aiphatua,
Harmetan bereziki ezin garaitua,
Berritan dut ikusten harmetan negurtzen,
Zeru goretan barna lorios altxatzen.

III Uste zuen Autrixak bere indarrekin,
Garaitu Italia frantses armadekin,
Oiartzunez oiartzun mezutu omen on,
Aitzen du bere gustuz: Biba Napoleon!

IV Zeruan nola diren izarrak hedatzen,
Hain usu ditu tropak Minzion agertzen,
Mendiak ditu aldi, urak, zedarrian,
Frantsesen ithotzeko bere egarrian.

V Agertu da frantsesa bere tenorean,
Ur hegian baratu animu onean,
Guthia da ostean, bihotza du handi,
Horrek dio ematen garaitia hari.

VI Zerueta tximista nola da ikusten,
Hain distirant, hain bizi, bolbora da phizten,
Hedoiek ondotikan tokiak ilhutzen,
Galerna bat iduri uhartzetik sortzen.

VII Sutan dire bazterrak, beruna da jauzten,
Iduri bahazuza zerutik erortzen,
Lothu dire borroka, lothu sarraskika,
Hilak dire lurrean etzanak osteka.

VIII Hauxe da gertakari, hau da ikusgarri!
Harritua etsaia dago beha horri!

Frantsesa du ikusten, lehoina iduri,
Hirri, jostet egiten bizia berari.

IX Animu horren bistan, guzia laztua,
Kolpe kaltekorretan ahala galdua,
Lerrotan garbitua, dena bentzutua,
Galtzerat zohan segur horrelakatur.

X Betbetan da eguna gaua bilhakutzen,
Bahurritan harria hedoietaik jauzten,
Uhartzetik haizea xirimolan phizten,
Etsaia horri esker lasterrai emaiten.

XI Hortan dire baratu etsaien hauziak,
Hortan berean egin arrimu guziak,
Elgar dute ikusi Autrixa Frantziak,
Bakean egoiteko elgarri josiak.

XII Gau xurian izarra eder da agertzen,
Haren edertasunak ez gaitu goibeltzen,
Frantziaren omena handi da altxatzen,
Bazter guziak ditu lorios bethetzen.

XIII Zeruak beza bethi ikus Napoleon
Herstura guzietan ukanik zorion,
Frantziak du prezatzen, bere aita deitzen,
Zoriona guziak harentzat galdatzen.

XIV Eskaldunak herriko badu orhoitzapen,
Maithe duen laguna nekez du ahanzten,
Ni ere eskalduna gohotik naiz deitzen,
Neure laguna xoilki orai dut galdatzen.

XV Zatozte, lagun onak, zatozte gudutik,
Pausatzerat herrian nekeren ondotik,
Gurekin gastatzerat omere aphur on,
Kantatzerat gohotik: Biba Napoleon!

113

Marieder UTHURRALT

EGUBERRI

Airea: askotan

I Egun salbatzalia Mariak du sortzen,
Berokienik egun nik hura othoitzen.
Bihotz min bat gaistoa bethi zait alhatzen,
Emazte niz et'ama ezin niz izaten.

III Ene othoiak batuzu egun honhartzan,
Dutudan ederrenez nitzaizu bilaizten:
Seme bat, ainguru bat, dereizut galthatzen,
Urhezko khoroa bat ordari eskentzen.

II Ama pare gabia! Jinko denarena!
Nigarrez erortzen niz zure hoinetara,
Ikhusiz zure haurra zonbat den ederra,
Bihotza baten nahiz jiten zait galtzera.

IV Enetzat haur bateki sor laizte plazerak,
Bai eta ere agort bethikoz nigarrak.
Ene boztarioan, gaxo emerria!
Ahantz nitzazke bertan bihotz min guziak.

114

Marieder UTHURRALT

HAUR BAT*

I Aspaldiko ametsa, ilusionia,
Haur batek egin liro enetzat egia.
Ainu bat! sinhets niro, ama izatia,
Emaztiaren dela ohore handia.

III Egun honak urtheko doatza zalherik,
Doluz eniro egin halere nigarrak.
Nik gal niroena denborak joanik,
Haurrak irabaz liro, adinak emanik.

II Mundiari erranik bethikoz adio,
Haren inganioer ihes egin niro.
Esku makhil hona da haur bat bermatzeko,
Eta lagun segura xuxen ibilteko.

IV Gogoz ene laguna baledi kanbia,
Enetzat lizateke ohiko maitia.
Erran niro: ama niz, haren haurrarena,
Zeren etsi? Bil diro haurrak amagana.

1860 URRUÑA

115

Jean Baptiste ELISSAMBURU

GAZTE HILTZERAT DOHANA

I Hogoigarren urthera hari naiz hurbiltzen,
Eta nere oinetan tonba dut ikhusten.
Ni zertako mundura ethorria nintzen?
Ondikotz! ez sortzea neretzat hobe zen.

II Sekulan zoriona zer den jakin gabe,
Hainitz dut nik lurrean izan atsekabe.
Lore sortu orduko histu baten pare,
Biziaren uztera guti naiz herabe.

III Ez-ez enau izitzen ez ni herioak,
Laster khen dezadala bizia Jainkoak!
Sehaskan galdu ditut nere burhasoak;
Zer diren eztut jakin etxeko gozoak.

IV "Aita ama maiteak, zertako mundutik
Zerura goan zineten ni hemen utzirik?
Ez dut nik mundu huntan izan sosegurik,
Ez baitut ezagutu amaren musurik".

V Hamazazpi urthetan, zorigaitz dorphea!
Izar bat maitatu dut parerik gabea;
Aingeru bat zaiteken, zeruko umea;
Nere bihotz eritik jua darot bakea.

VI "Nahiz aingeru ona, ez duzun sekulan
Munduan jakin zenbat nik maite zintudan,
Urus zarenaz geroz Jaunaren oinetan,
Ez nezazula ahantz zure othoiztetan".

VII Anaia bat banuen haurra nintzelarik,
Soldado jua zen eta nik ez dut berririk:
Aita amekin dela ez daite dudarik,
Niri begira daude hirurak zerutik.

VIII Ahituz banarama nere oinhazeak,
Burhasoen aldera deitzen nau zortheak,
Nork ditu arthatuko, ait'ama maiteak,
Zuen tonba gainean nik eman loreak?

IX Nere gorphutz flakoa lurrerat orduko.
Nor othe da munduan nitaz orhoituko?
Nere ehortz lekhura nor da hurbilduko?
Lore berririk ez da neretzat sortuko!

X Mendian ur xirripa, harrien artean,
Auhena eta nigarrez jausten da bidean,
Izan nahi bailuke zelhai ederrean...
Hala nere egunak badohaz lurrean.

116

Tomas ELISSALDE "Ainhoarra"

SOLDAGOATIK ESKUAL HERRIRAT

I Zorigaitzez egun batez zortheak atzemanik,
Nere burhaso zaharrak nigarretan utzirik,
Soldado nintzela bada harmetan paraturik,
Ninduten urrun eraman, urrun Eskual-herritik.

II Sor-lekhitik urruntzea zoin den lastimagarri!
Maite guzien uztea, oi zein erdiragarri!
Nik ez nuke sekulakotz adios erran nahi
Ez nere etxekoeri, ez Eskual-herriari.

III Laster igorri ninduten Afrikaren barnera;
Laur urthe han egon eta deithu Italiara;
Lekhu orotarik bethi hegalekin bezala,
Gogoa zaitan airatzen arin Eskual-herrira.

IV Italiako lurrean sartuz geroz Frantsesak,
Oi, nolako sarraskiak! Oi, zer gizon galtzeak!
Odol-hibaiez dirade han gorritu bazterrak,
Holakorik ez dezala ikhus Eskual-herriak.

V Burhaso gaixo hoitarik semeak galdurikan,
Zenbatak ez dire jarri auhenik minenetan!
Gure Jainko zerukoak hoin bihotz-min handitan,
Beira gaitzal-erortzetik, guziz Eskual-herrian.

VI Eskualdunen omenari ez diot egin ukho,
Nere sabre-baionetak, maiz agertu lekhuko;
Solferinon kolpaturik zioten gehiago
Ez nintzela ez bizirik, ni Eskual-herrirako!

VII Atsulaiko bizkarrean Ainhoako kapera,
Handu nere ama onak othoitz egin ardura,
Aingeruen Erreginak bidal nezan etxera,
Bizirik eta osorik ekhar Eskual-herrira.

VIII Nere ama entzun duzu, oi Andre amultsua!
Azken hatserat nindagon jadanik hurbildua,
Zuri esker baizen ez dut nik beiratu bizia,
Zuri esker ikusi dut berriz Eskual-herrira!

IX Mundarraingo mendi hori bethi kopeta gora,
Ikhusteak phizten deraut bihotzearan pilpira,
Italiako lurretik eri nintzen athera,
Bainan sendatu heltzean gure Eskual-herrira.

X Irriskuak iraganik trankil orai etxean,
Hauxe diot Jainkoari galdetzen azkenean:
Bizi nadin hainitz urthez aitamekin batean
Nere egunak higatuz Eskual-herri maitean.

117

Leon ELISSAMBURU

DANTZARIA

Airea: *Orzirale arraxian Garruzetik yin ninduyan, etc.*

I Hu-pa, muthillak lorian
Nola xoriak airean'
Heldu nauk zuen erditan,
Rau, riu, rau, rata-plau, rau, riu, rau
Heldu nauk zuen erdian,
Besta baitugu herrian.

II Hu-pa, alegera gaiten
Soinua hari da joiten!
Joan gaizkola du erraiten
Rau, riu, etc.
Joan gaizkola du erraiten
Urthean behin bederen.

III Hu-pa, huna beraz, plazan,
Aurthen ez baikinena izan!
Oro hari gaituk dantzan
Rau, riu, etc
Oro hari gaituk dantzan,
Zaharrak gaztekin baltsan.

IV Hu-pa, arreba Kattalin
Orai, ez dun, buruan min
Badabiltzan oinak arin!
Rau, riu, etc
Badabiltzan oinak arin!
Tunpaka ongi badakin.

V Hu-pa, Maria, atzo hi
Ohetik ez hintzen jeiki,
Lanean hartzeko eri,

Rau, riu, etc.
Lanean hartzeko eri,
Egun gurekin dantzari!

VI Hu-pa, hik soinularia
Ardura duk egarria
Hi ere gu iduria!
Rau, riu, etc.
Hi ere gu iduria,
Okasionez balia!

VII Hu-pa, gur'etxean, ama,
Oilasko hiltzen hari da!
Arnoak ez diro falta,
Rau, riu, etc.
Arnoak ez diro falta,
Bizi bada gure aita

VIII Hu-pa, ama ez dut nahi,
Khorda eman lephoari,
Gazte nahi naiz ibili,
Rau, riu, etc
Gazte nahi naiz ibili,
Ezkontzaz ez aipha niri!

IX Hu-pa, etxean bi andre
Gerla bizia laiteke;
Mokhorra, ama zu ere!
Rau, riu, etc.
Mokhorra, ama zu ere
Bake onik ez ginuke.

118

ALZUGARAY "Uztaritzekoa"

ALEGIA

I Mende eder batean
Xoriek mintzatzen (berriz).
Bat bethi zelatean
Erran on bilhatzen (berriz).

II Egun batez larrean
Elheketan hasi (berriz).
En'erbat zaharrean
Deneri ikhasi. (berriz)

III Geroztik batzarretan
Hura zen ospatzen (berriz)
Arrotz batek tzarretan
Baizen ez aipatzen. (berriz)

IV Erran zion garbiki
Deus etzakiela (berriz),
Eta bera aitziki
Jakintsun zela (berriz).

V Ordu hartan hasi zen
Erran porogutzen (berriz).
Nehork ez dio baizen
Zel'ongi mintzatzen. (berriz)

VI Asmu eder guziak
Ageriz xehetzen (berriz).
Diren egi garbiak
Han ziren lakhetzen. (berriz)

VII Noiz'eta aski mintzatu
Ber'egintz'ederrez, (berriz)
Norbaitek han baratu
Bi begi uherrez. (berriz)

VIII Harrek zioen laster
Egi agerazi. (berriz)
Makhurak utziz laster
Biluzgorriskazi (berriz).

IX Lasterka deithu zuen
Herri leganera (berriz)

Hoben hainitz baitzuen
Bere garbitzera (han ihardestera) (berriz).

X Hauzia eman zuten
Mendiko maldean (berriz).
Hauzajarrai mezuten
Lekuko aldean. (berriz)

XI Zin eginarazirik
Oizaren begian (berriz).
Ez nahi gezurrik
Erranak egian (berriz).

XII Denek erranetarik
Han zuten ikhusi (berriz).
Epher egintzetarik
Ebaslea nausi. (berriz)

XIII Leganean manatu
Lur oiz aitzinean. (berriz)
Behar zela urkatu
Bai denen onean. (berriz)

XIV Bainan bertan ezurtu
Ohoindu usoa. (berriz)
Hortakotz zen urtu
Itzkina usoa. (berriz).

XV Denek laidotu nahi
Xori hain gaixtoa (berriz).
Leinua deithu bahi
Itzkina usoa. (berriz).

119

Martin ARRUPE

BERTSUAK ONTZA URREARI

Airea: Haur prodigoaren kanta

I Zortzi garren urthea da uda huntan bethetzen
Abiatua naizela bertsu berri ematen,
Esperantzak handi baina guti naiz progotxatzen,
Aurtengo huntan oraino ez dut bada etsitzen.

II Athor aurtan ene ganat beg... hori airosa,
Badiat hire tokia, largoa ... moltsa;
Dudanean arras guti eta n... hutsa,
Hirekin ez nauk izanen lagun artian lotsa.

III Zenbat adixkide handi lehen bero zirenak,
Ene alderat hoztuak ikhusten tiat denak,
Borondate hutsa aski ez baituke gizonak,
Behar den guzia badik hi berekin hauenak.

IV Lagun nazak beraz, aurthen herriko besta hautan,
Behar bezala konplitzen ene adixkidetan,
Baldin ikhusten bahaute hi ene eskuetan,
Begitarte ona segur ostatu horietan.

V Ostalerek amodio, dirua duteneri,
Bereziki gastatzea damu ez duenari,
Dohain hori izan dugu eskerrak jainkoari,
Ene ontzak diraueno, segi lagunak niri.

VI Horra, beraz, nola diren aurthen nere xedeak,
Zatozte ene ahaide eta adixkideak,
Elgarrekin egiterat besta pare gabeak,
Denak pagaturen ditu ene ontza urreak.

120

Martin ARRUPE

GIZON ABARIZIOSA

I Bizio hainitz bada mundu zabalean,
Ikhusten ditugunak gizonen artean,
Bat da higuigarria guzien gainean,
Aiphatzerat nohana memento berean.

II Bizio higuigarri, bizio gaixtoa,
Eskaraz deitzen dena abarizioa,
Gizonak nola hartzen hau amodioa,
Naski ustez baduen bizi bethikoa.

III Zoin den higuigarria holako gizona,
Bizio gaixto hori berekin duena,
Hori dela medio berak zenbat pena,
Bertzerentzat nekez on beretzat tzar dena.

IV Bethi da bekhaitz bere jan, edan pausuez,
Lotan ere nakasten alkartze husuez,
Burua hartua du ontasan diruez,
Urrikalmendu guti hauzo inguruez.

V Bethi hari da bere diruen gordetzen,
Lekhu aski segurik nihon ez kausitzen,
Jende beharrez ez da batere orhoitzen,
Alferretan diote deus ere galdetzen.

VI Abarizios hori bakhan alegera,
Sekulan ez dohako gosturat afera,
Hamar dituenian, hogoien desira,
Higoal zaio zuzen edo makhur tira.

VII Urrikalgarri dire zenbait familia,
Holakoa dutenak etxeko nausia,
Sekulan eskerrik ez, bethi erasia,
Eta oraino bertze zenbat eskasia.

VIII Nahiz holako guti den Eskal herrian,
baterez balitz bizi, gintezke lorian,
Jende beharrak lagun direnek aisian,
Hola zer fama ona ginduken Frantzian.

IX Izan dezagun beraz, odol famatu bat.
Jeneros eta garbi, elgarren alderat,
Behatuz aintzineko arbasoetarat,
Ez baitziren emanak bizio hortarat.

X Gazteria oraino solas bat zueri,
Urrikalmendu bethi jende beharreri,
Kasa bihotzetarik bizio tzar hori,
Etsenplu on bat eman ondorioeri.

121

Martin ARRUPE

PENA HANDI BAT ESKAL HERRIAN

Airea: Zure kontra naiz altxatu...

I Adios, Eskal Herria
Bethi zohaz beheiti,
Zeren doan gazteria
Lur hautarik ihesi,
Fortuna handiak
Lilurutzen guziak.

II Oraino gatea deusez
Etxeak kargatuak,
Hek gatean egin zorrez,
Dire atakatuak,
Fortuna...

III Gan dire, beraz, gan dire
Laster ethortzekotan,
Bainan ez berririk ere
Aspaldiko urthetan.
Fortuna...

IV Zorioneko Indiak,
Amerika, Habanak,
Jan gaituzue guziak,
Akhabo eskaldunak.
Fortuna...

V Zenbat burhaso penatu,
Beren umeengatik,
Zaizkotela barraiatu,
Erdiez ez berririk.
Fortuna...

VI Hori othe dute bada
Burhasoek merezi,
Hanbat sem'eta alaba
Dituztenean hazi.
Fortuna...

VII Zahartzean pausa orde
Nekheak doblatuak,
Alaba horiek ere
Dituzte airatuak.
Fortuna...

VIII Semeak itsasoz ganak,
Alabak hirietan,
Ezin egin beren lanak,
Burhasoak penetan.
Fortuna...

IX Ikhusten dugu ikhusten,
Ikhusten penarekin,
Gazteek elgar berotzen
Dutela elgarrekin.
Fortuna...

X Heldu dire bat edo bi
Noizetikan noizerat
Herriko gazterieri
Gogoia berotzerat.
Fortuna...

XI Aditzen dituztenean
Hekien espantuak,
Uzkhur haukien lanean
Haritzeko gogoak.
Fortuna...

XII Baratzen balitz bederen,
Usantza triste hori,
Eta gogoia xaindatzen,
Heldu diren haureri.
Ganbia, ganbia,
Eskaldun gazteria.



122

AZKONZABAL

GAIZKI HURRENDUKO NAIZI ZERENGATIK?

Airea: *Entzunik espantutan...*

I Gazte denen zuhaitza
Behar da habetu,
Bihurtu arte haitza
Ez hartaz gabetu,
Ttipi deno oihana
Hartaz baliatu,
Haur danik ere lana
Bihotzez maitatu.

II Zorigaitzean nitzen
Aspaldi aurkhitu,
Sortu geroz nagitzen
Jadanik nausitu.
Ene nahi guziak
Nituen bethetzen
Bethi gaixtokeriak
Ninduen laketzen.

III Ahala nuenean
Etxeko hauzoan
Aro ontzen menean
Baratze gozoan.
Ziren sagar ederrak
Nituen ebasten
Gazte diren alferrak
Ez dire hazten.

IV Geroztikan noiz ote
Handitzean hasi.
Ez egorriz lanketa
Nik zer ez ikhasi.
Ez nuen nahi lanik
Nork emanen gura
Beharra ez izanik
Ni ohoin ardura.

V Ebatsi dut dirua
Nik ongi jateko
Gero urre zakua
Jauna izaiteko.
Bainan nik azkenean
Ahalak ebasten
Eta ordu zenean
Burdin latz erazten.

VI Behin ere ez uzten
Jaidura gaiztoak,
Axeri ez biluzten
Azken gaztekoak.
Hura bezain maltzurra
Nintzen bilhakatu
Orai esku makhurra
Hurbildik hertsatu.

VII Orai ene hobenak
Dire biluziko,
Ebaste gehienak
Jakinak aurkhiko,
Haukien ithurburu
Madarikaturen
Bethiko ene buru
Zepoan kausituren.

VIII Gazte deno zuhaitza
Behar da habetu,
Bihurtu arte haitza
Ez hartaz gabetu.
Zer nahi lanetarik
Haurra inguratu,
Ene egintzetarik
Bilant forogatu.



123

BARNEX "Atharratzekoa"

ZAZPINOEN GEHIENAK

Airea: Urguilu gaizton gainen

I Urguilu gaizton gainen
Haste niz khantatzen,
Harek hunik gizunen
Faltak tu handitzen,
Bere lagunena,
Gero ororen,
Hastial da agitzen,
Hula dena bizitzen,
Itsuski urhentzen.

II Gaizki aberasteko
Ideiaz hanisko
Judasen uduriko,
Gradu orotako,
Faltsiak franko
Inganatzeko
Haur hunez thipiltzeko
Ezpeitira aseko,
Lehen barkhalako.

III Guzien hi laguna
O bekhazteria!
Amuriothegia,
Ni galgarriena.
Khozu gaiztua,

Aspaldikua
Arauz sekulakua,
Gazten gastazalia,
Phozuen lilia.

IV Kolera, hugungarri
Bai eta lazgarri,
Satan ordian hari
Hasperritzen ari,
Gerokoz aski
Tentatze gaizki,
Errabia handiki,
Gizuna gizunari
Halaz mendekari.

V Gormandizarekila,
Laket herabia,
Haiek algarrekila,
Gastatzen jendia.
Galtzez zentzia
Sendimentia,
Gerokoz ahalki,
Itsuskerietara
Erorten beitira.

124

BARNEX

GERLAREN HAS AITZINEKUAK

Airea: Otrixari gisala papurrak gaintitu

I Otrixari gisala papurrak gaintitu
Italian nahi du urguiluz manhatu,
Populu gaxo hura phorrokatzen beitu,
Humanitatez nurbait behar zaie heltu.

II Frantzia Uropako sekursaren ama,
Sekulaz geroz bethi ukhen beitu fama,
Orai hanko armada zalherik beitu
Sardeinaren fabori pietatez dua.

III Rusa, Anglesa, Prusa hasi trabailatzen,
Otrixe bakiala zien engaiatzen,
Berea gisala hura orotaz trufatzen,
Piemuntesen beita ari masakratzen.

IV Armadaren phuntatik Enperadoria
Otrixiener so da zorrotzik begia,
Hareki azkar beita Bonaparten zaina
Koraie franko beitu bai etare maina.

V Uskaldunak gerlala khantatzez joaiten
Gure aita Kantabrek muda egin zien
Napoleon hirurak gutu khumitatzen,
Harek komenda eta gu hardit izanen.

VI Biba l'Empereur eta hareki Frantzia,
Piemuntesen hun da gure presentzia,
Tiraniaren kuntre huna jinik gira
Italia ororen libre ezartera.

VII Otrixienak orai zalhe bazirade
Frantzeseki brale bat dantza ezazie,
Baionetak zorrotzik huilantzen girade,
Bienara artino lekhu egizie.

VIII Alo, François Joseph Enperadoria,
Hire urguilia duk gerlaren buria,
Odolez arrusatuz Italian lurra,
Galerazien beitu armada ederra.

125

BARNEX

ZUNBAT PRINZIPALETAN ETA BAIONETAN GAINEN

Airea: Jeneral Foreyk tropa gutireki...

I Jeneral Foreyk tropa gutireki,
Montebello otrixiener idoki,
Lina xasureki agitu azkarki,
Forjetak erabilirik zalheki,
Armarik frantsesena
Baioneta hobena
Uskaldunek lehenik egina.

II Piamunteser Palestron heltzera
Zuabak zalherik juan ziren hara,
Espaldak bustatzez igaranik hura,
Otrixen artiluren jostera.
Armarik Frantsesena...

III Frantsesak Kosein igaran hardiki
Enperadorea bere gardareki,
Zortzitakua etsai hen kontre jalkhi,
Bena hurak defendatu brilantki.
Armarik Frantsesena...

IV Zuabak usian hasle suiaren
Eta bethi dine bere izenaren
Etsaien artian hurak sarthu ziren
Bi drapeu bertan atzeman beitzeren.
Armarik Frantsesena...

V Magentako bataila da famatu,
Frantziari uhure egiten beitu,
Marexal Mac-Mahon han gloriuz heltu,
Enperadoriak duke nomatu.
Armarik Frantsesena...

VI Baraguey d'Hilliers sarthu Marignan
Otrixienak hil dituzte batailan
Erauntsirik azkarki arma xurietan
Etsaiak herritik idoki bertan.
Armarik Frantsesena...

VII Solferino jarri erremarkable
Hunen kunbata izan beita terrible,
Bi Enperadore han komendazale
Bonaparten genia irabazle.
Armarik Frantsesena...

VIII Biba Napoleon hirurgerrena!
Populiaren enperadore huna!
Harek librerazten Italiana!
Eta adirazten Otrixiena.
Armarik Frantsesena
Baioneta hobena
Uskaldunek lehenik egina.

126

BARNEX

FAMILIA ENPERIALARENTAKO

Airea: Louis Napoleon famatia...

I Louis Napoleon famatia,
Esklat handiko lilia,
Bazter gabe zure talentia,
Enperadore nublia.

II Obra handiak egiten tuzu,
Uropa jakile duzu,
Populiak amorio deizu,
Ontsa merexi beitzuzu.

III Probidentziak haitatu zutu,
Jenia hunez dohaintu,
Mundia behar duzu argitu,
Eta Frantzia azkartu.

IV O Enperatriza eder huna,
Jinkuak indar deizula,
Bergisan zuri Printze Eugena,
Frantzesen primu leiala.

V Bethiz geroz zuhaintze huneti
Fruu arrarena jalki.
Eugenia zu jin Espainati
Sendimentu perfeiteki.

VI Napoleon Enperadoriak
Zutien phausatu begiak,
Zureki den berthute irusak,
Protejatzen tu Frantsesak.

VII Karitaten mudelarentako
Haitia zira Munduko,
Malerus haurzurtzen gidatzeko,
Ama hun Frantzesentako.

VIII Jelkitzen zira Kantabriati
Bizkaiko probentziati,
Bur eta odol uhuratuti
Familia hun nubleti.

IX Uskaldun hunek partikularki
Maite zutugu trendeki
Zure ikustez hain gloriuski,
Irus gutuzu justoki.

X Bonaparten odolarentako
Jinkuak jenia franko,
Printze Eugena jin Erramuko,
Bakez indar ekharteko.

XI Napoleon hirurgerrenian
Gorätzen gira Frantzian,
Harek eman ordre ederrian,
Admiraturik mundian.

XII Biba bethi Enperadoria,
Enperatrizarekila,
Bai eta printze Enperiala
Hartan Frantzesen gloria.

127

Baptiste CURET "Donibane Lohitzunekoa"

BIZIO BATEN GAINEAN

Aire ezagutua.

I Bizio baten gainean noha kantatzerat
Sujetak emanik garbiki mintzatzerat,
Guziak zatozte unen iguntzerat,
Entsaiatu behar dugu erotik kentzerat.

II Bizio guzien ama alferkeria,
Ortarik ageri da zoin den igungarria,
Lehen erran dute zaharrek egia,
Hori izanen dela hainitzen galgarria.

III Alferkeriak baitu ainitz bizio,
Garbiki erraiteko kapitalak oro,
Gure ganat jin gabe otoi urrun ago,
Betiko iguntzia ainitz du balio.

IV Hau da bizio gaxto aborigarria,
Noiz eztituko da hire egarria,
Gaxtakeria den iturri andia,
Etsaiaren partetik unat etorria.

V Alferrak bilatzen du beretzat asia,
Lana guti egin nahi du irabazia,
Bertzen onez baitu beti jelosia,
Igungarria baita orien bizia.

VI Bizio hau dubenak zer da pentsatzen
Beti kurri dabila inozent enganatzen,
Pozoin ezтики dubelarik edatzen
Propheta bat bezala badaki mintzatzen.

VII Alferra ibiltzen da beti pasaietan
Bere lagunekin merkatu orietan,

Beti diruba gasta irritz lorietan,
Laster ageriko da horien etxetan.

VIII Hauen erretiratzeaz orai mintzatzeko
Nonbeitik heldu dire gaubaren erdiko,
Biharamunian egia erraiteko
Buruko mina dute lanari lotzeko.

IX Biharamuneko horien kontuba
Hamarretan ohean buruba lotuba,
Emaztia haurrekin penetan hurtuba
Senarra ere aldetik irritz urratuba.

X Holako familetan ez da faltatuko
Dituzten erresurtxak laster haizatuko,
Gero azkenian zer da gertatuko,
Neguba pasatu gabe Betiri dantzatuko.

XI Guardia emazube Betiri sartzetik,
Ezin kasatuba da sekulan etxetik,
Gerla egin behar zaio berari gohotik,
Maite du ibiltzia alferren ondolik.

XII Zonbat arrazoin dugun lana maitatzeko,
Bizio gaxto ori betiko inguntzeko,
Alferrak gauz onik ez egia erraiteko,
Beti presatuba da trunkil egoiteko.

XIII Abisu emaiten diot jende gaztiari,
Ihes egin dezola alferkeriari,
Gazte danik lanean behar dela hari,
Gero izaiteko burasuan kontsolagarri.

XIV Lagunak hari gaiten gogotik lanean
Pausatuko gare igande egunean,
Egin ura pasa jaunaren legean,
Ez da sobra izanen azken orenian.

XV Lana da mundu untan jaunak ordenatuba,
Gure lehen burasuek penitentziaz artuba,
Biek jan baitzuten fruitu debekatuba
Gero izatu ziren lanerat kendubak.

XVI Geroztik segitzen du lanak gure artian,
Gizona hartan dago trankilitatian,
Kondatu nahi badu esperantzaren gainean
Alferkeria igun munduban dagon artean.

XVII Bizio hau dela kausa ainitz hautan,
Zenbat pena pasatzen den gan den denboretan,
Dirubak ateratu intresian notarietan
Gero dire kontubak pagatzeko denboretan.

XVIII Denbora jin denian intresa egiteko,
Nondik ezin paga ez da estonatzeko,
Sarjanta etxerat kuraia artzeko
Berriz etorri gabe otoi pagatzeko.

XIX Beldur izan zaitezte bizio gaxto orri,
Batzuben sorte bererat ez zaitezten erori,
Beriak garbitu eta bertzetan bordari,
Alferraren fruitubak ez dire ageri.

XX Alferra urguilusa da, ez da dudatzeko,
Zer nahi eginen du ungi bestitzeko,
Artua edo ogia sal moda segitzeko,
Hai zer segida ona etxia altzatzeko.

XXI Ederki beztitzerat ekarriak dire,
Modaren segitzeko badute kuraie,
Aberats hala pobre ez dire seinale,
Hainitz geldituko da senarrikan gabe.

XXII Hainitz gertatzen da erri haukietan
Nola ibiltzen dire bisita alferretan,
Elkarri berri kondatzen bazter guzietan,
Parte guti arturik auzoko nahi gabetan.

XXIII Ez zaiote bekatu ola ibiltzia,
Denboraren erdia alfer pasatzia,
Nola ote dute ber sukaldia,
Ez bide da beti zilarra bezin garbia.

XXIV Obeki eginen dute etxean egitia,
Pasaietak utzirik lanari lotzia,
Ungi pena dut bada ola mintzatzia,
Barkatu beraz, otoi, ene hausartzia.

XXV Bizio unen kontra nintzen abiatu,
Ene neke izerdiz beti gudukatu,
Orai adio erranik nahi du kitatu,
Eskual errietaryk bitoko kasatu.

128

DARRICART "beraskoitzekoa"

HETIKA

Airea: Bozaz kantatzen nauzu

I Oihanean xoriak
Gazterik kantatzen,
Hekien itzuliak
Hedoia haizatzen,
Heien pare jadanik
Nahi dut kantatu,
Bozkarioz emanik
Hartara ertxatu.

II Nahi nuke debalde
Nik bozkariotu,
Bihotza bertze alde,
Hemen ere lotu.
Beltxargek hurrentzean
Kantatzen dutena
Joanen da hastean
Ene min azkena.

III Arras lilitu gabe
Behar naiz ihartu
Ni aita amen habe
Lur barnean sartu.
Iguzki ikhustera
Joan nintzenezan
Huntzarekin batzera
Nahiz ilhunean.

IV Goizean dut hurrentzen
Eguneko usua,
Joan lekhotik urruntzen
Nola ur dohana.
Martutx xoria pare
Segada jotzean
Ezin aldara sare
Mina bihotzean.

V Nahi nuke baratu
Haran ederrean
Herritarrez maitatu
Bizi en'etxean
Bainan xitoa nola
Miruak airatzen
Heriotzak nihola
Laster hobiratzen.

VI Bildotx gazte bezala
Handitze menean
Otsoek hala hala
Aro lehenean
Herbal ezagaturik
Hemengo tartean
Hilen naute harturik
Goizian artean.

VII Atzo sorthu naiz, sorthu,
Bai zorigaitzean,
Eguzki nahiz hartu,
Hotzez argitzean.
Nigarrek tut ixurtzen,
Hosto ikhustean
Zuhaitzetik erortzen
Hixtura hastean.

VIII Gutu dut irabazten
Nik auhendatzean
Alferki du erasten,
Maiteen artean,
Izanen naiz lurrean
Heldu den urthean
Ni hori beharrean
Muga agortean.

IX Lo gabe iragaiten
Gauik luzeena
Alferrik dut emaiten
Hari gozoena.
Eztulak nau behartzen
Sabeleko mina
Bethi thuka lehertzen
Zorigaitz samina.

X Ai, ai, ai, zer burua!
Hola daut gogortzen,
Zerk begi ingurua,
Bixtara uhertzen.
Ez dezaket nik hatsa
Har behar orduan
Gelditzen da khiratsa
Zintzur hormatuan.

129

DE BERON

GAZTE ETA HIL BEHAR

I Zertako naiz jadanik akhitua,
Ni hastean aroan hozitzen,
Udaritzea ezta askatua,
Hainitz uzta ekarririk baizen.

II Ni lasterka naiz belhartzean sartu,
Uzta ere nahi dut ikhusi,
Mendietan belharrak dira sortu,
Mixtea nik aurkitzen itsusi.

III Orai naiz egunaren hastean
Ongi bizitzeak ez nau itsutu,
Neurria emoki bethetzean,
Ezin sinhets dela mukurutu.

IV Erran ama hemen denak boztean,
Zertako ni naizen hain sutsua,
Adixkideak irriz egoitean,
Zertako dut begi nigartsua.

V Zertako nik izai goraren pare
Oraino ez buru goititua,
Zertako azi harpean nola bare
Ibili behar errestatua.

VI Zertako nik entzuten dut goizetan
Lagun hemendik iragaitean,
Nork bertzerik erraitea hitzetan
Kantatzen du beltzargak joaitean?

VII Orai dakit ene egun sutsuak
Maiz direla hasi kordokatzen!
Ikusten tut ene ezti sorthuak
Zorigaitzak lezerat botatzen!

VIII Hemen naiz uso gaizoa bezala,
Buzoka minberaztaparretan
Alferrik dut bildotx eme bezala
Auhenetan hiltzeko larretan.

130

Dominique DEMARQUE

ANDRE PHILOMENA

I Bozkarioz kantatuko
Dut ahal gorena,
Zure ohoratzeke
Andre Philomena,
Zutaz ongi mintzatuko
Naiz izar emena,
Orotan hedatzeko
Zure aipamena.

II Zu zare Philomena,
Izar hainitz ederra
Xuriago zarena
Ezenez elhurra,
Distiratzten duzuna
Itsaso bazterra,
Nobleki zabiltzana,
Herrian bakarra.

III Eztia baino eztia
Da zure bisaia
Eta duzun airia
Graziaz bethia.
Oi zeinen den loria
Zure ikustia
Erraiten dut egia
Izan miragarria!

IV Zure begi eztiak
Erdiz-erdi zerratuz
Errespetuki jautsiak
Modeski behatuz.
Zure manera nobliak
Bethi preziatuz
Badohazi guziak
Aintzinara doblatuz.

V Zorionean ethorri
Zare izar emea,
Maite kontsolagarri
Amorez bethea.

Oi zein den miragarri,
Zutaz mintzatzea
Izar adoragarri
Parerik gabea.

VI Zu zare guzietan
Hainitz dakizuna
Presuna zerebrotan
Pasa zintakena.
Behar bada gorthetan
Hedatuko dena
Denbora guzietan
Zure aipamena.

VII Izar urus baten pean
Zirade gerthatu
Mundurat ethortzean,
Arraioz argitu
Zaitu orai artean
Bethi begiratu
Mundutik partitzean
Gidaturen zaitu.

VIII Jainkoak behin ere
Etzaitu utziko
Justu baduzu ere
Fidel zerbitzatuko.
Ez-ez gaitu gu ere
Sekulan utziko
Munduan bethi bagare
Ongi gobernatuko.

IX Hala-nola diztiratzen
Duzu berthutea
Beneroski segitzen,
Jaunaren legea.
Kanta hunen medioz
Segur naiz etzaren
Enezat medizioz
Sekulan mintzaturen.

131

Leon ELISSAMBURU

AMA DOLOREZKOA

I Ama dolorezkoa
Ez nauzu ikhusten
Ni maluros umea
Preso, nola naizen
Zu ez nahiz sinhetsi.
Zure egietan
Zer dudan ardietsi
Ene eginetan.

II Nigarrez Zaude, ama!
Nitaz orhoiturik,
Ez othoi hola pena
Ez da progotxurik:
Premu, presondegian
Nago sekulako!
Bizi naizen guzian
Ez naiz atherako

III Oren tristean nintzen
 Duda gabe sorthu,
 Etsaia ordutik zen
 Ene baithan sarthu
 Gidari on batentzat
 Nola; haurrek aita
 Hartu nuen enetzat
 Ai! ni enozenta!

IV Pena zait erraitea
 Ni, zer izan naizen,
 Bainan ama maitea!
 Zuri dut aithortzen:
 Ez ahal da gaizkirik
 Lur hunen gainean?
 Nik egin ez dudarik
 Zuk jakin gabean!

V Grazia bat dut ama
 Zuri galdegiten,
 Hitz dautzut ez dudala
 Bertzerik eginen.
 Nehork aiphatzen badu
 Nitaz zerbait berri!
 Othoi, ukha nezazu
 Hala dut merezi!

VI Aita dut Indietan,
 Ez dakit noiz danik!
 Bizi da plazerretan
 Ez du deusen minik,
 Haren itzala bera
 Izan banu hemen!
 Segur da ez nintzela
 Horrela galduren!

132

ERRECARTE "Bearritzen"

ARRANTZAILEA

Airea: *Adio, izar ederra*

I Ni sorthu bezain laster
 Ur gaziz hezatu,
 Hortakotz dut geroztik
 Itsaso maitatu.
 Ibiliz gero (berriz)
 Maiz igerikatu,
 Handitu gabe nintzen
 Igel bilhakatu.

II Mirestuak zarete
 Ene herritarrak,
 Hain maiz ez ikhustea
 Nola bertze haurrak.
 Ni gaztedanik (berriz)
 Uraren gainean
 Itsasoan aurkhitzen
 Nausitasunean.

III Nik maizenik herrian
 Ditut beltzuriak,
 Alde guzietarik
 Ilkhitzen etsaiak
 Errumes naizela (berriz)
 Guziek sinhesten,
 Itsasoan aberats
 Ni bethi onesten.

IV Nere ontasunak dire
 Xalupa sarea,
 Ene lehenak eztu
 Bela gabe pareta,

Bainan guti da (berriz)
 Diote gehienek
 Eganatuak dire
 Hola diotenek.

V Pil soinekoetarik
 Eztut dizdiratzen,
 Athorraren zilotik
 Larrua aizatzen.
 Zaparekin (berriz)
 Ez nihoiz ikhusi
 Hetarik eztute behar
 Ni itsasoan nausi.

VI Hainitzek niri esker
 Ongi direnetan
 Jaten tuzte arrainak
 Bere mahainetan.
 Nik atzemaiten (berriz)
 Ugotz amorrainak
 Hainitz izokinekin
 Athun korrokoinak.

VII Untziak direnean
 Haize gaitzez joak
 Ageri direnean
 Hurbil herioak
 Ni laster han naiz (berriz)
 Bihotzez hegaldatzen
 Gazterik ikhasi dut
 Anaien maitatzen.

VIII Luzaro han denean
Nozbait pulunpatzen
Hurbiltzen naiz eta
Hari jarraikitzen.
Han dire nigarrez (berriz)
Azkarrek baratzen
Eskerretarik izuri
Ni naiz etxeratzen.

IX Nik hola dut bizia,
Bethi iragaiten
Naizelarik etxetik
Urera joaiten.

Haurdanik gara (berriz)
Itsasoko hartu,
Han aurkhitu naute
Direnak behartu.

X Ditudan haur guziak
Ditut eskolatuko,
Itsasoa deneko
Nitaz gabetuko.
Lan hoberena (berriz)
Nik dut ezagutzen
Hura alhor handian
Anaien laguntzen.

133

ERRECARTHARRI

AMETS

Airea: *Ezagutua*

I Multzoka dirurik
Badut nik bildurik
Barurez bizitzeko ez gerthurik
Ongi aphaindurik
Ni ezaguturik
Bazter jaundurik
Bethi solas emez ni gainditurik
Balakaturik.

II Orai diru jabe
Ni guzien habe
Barur ez nahi ozkilarik gabe,
Egun guzietan
Karrikan etxetan
Ene mahainetan
Hurbilaraziko direnak gose
Nahi tut ase.

III Bethi igandetan
Herriko jostetan
Pilotan haiko naiz esku hutsetan,
Guziak baturik
Zahagi husturik
Bozkarioturik
Hartaraziko ene herritarrez
Guziz beharrez.

IV Herrian jaietan,
Nahi tut aldetan
Denak bozarazi othoruntzetan
Goizian jaikirik
Ez bertze nahirik
Hunat jinazirik
Jarrarazi baizen hek gosaritan
Erdi biritan.

V Nahi dut horduko
Han gosaritako
Urdai gizenetik saihets halako
Usokumekitik
Milagarrokitik,
Izokina berritik
Heien bulgatzeko mahats arnotik
Gozo gozotik.

VI Egu´erditako
Bazkaritako
Eltzekari on oiloak hartako
Antzar ixterretik
Herbi ederretik
Ahat´epherretik
Heien bulgatzeko mahats arnotik
En´etxekotik.

VII Gero aratsean
Ilhuna hastean
Nihor ez egoiteko jan beharrean
Xingar azpikitik
Martutx xorikitik
Arrain zernahitik
Heien bulgatzeko mahats arnotik
Lehuntzakotik.

VIII Agur egitean
Etxerat joaitan
Edari izanen mahain gainean
Adixkide arnotik
Iruñakotik
On eta gozotik
Bihotz altxatzeko agorientetik
Hoberenetik.

134

Joanes ETCHETO

HAUR ONGI PRESTUA

I Munduan ez da parerik
Haur ongi prestuarenik,
Garnitua da gozoaz
Bisaia noblearenaz
Izarra du hak iduri,
Hain da bai liluragarri.

II Humiltasunez bethea
Maite du obeditzea,
Eztitasunez jauntzia,
Bai osoki da dultzia.
Hau zoin den xarmangarria
Neke da bai erraitia.

III Konponziona du pertaia,
Nork eman aski honura!
Graziaz da bestitua
Jainkuaz benedikatua.
Ez da bakerik hain onik
Ez arrimurik hoberik.

IV Ait'amez da behatua,
Bozkarioz altxatua,
Eiten du heien plazera,

Bai eta ere bonurra,
Ez da urusitaterik
Huni konparatzekorik.

V Jin denean adinetan
Emana da eskoletan,
Han fite lakhetua da,
Guziez maitatua da,
Ezik bisaia noblea
Hola ohi da ardura.

VI Eskola hortan haur hori
Da guzien xarmegarri,
Bere etsenplu ederraz
Bai eta karitateaz
Eiten du ongi handia,
Ez daite aski prezia.

VII Seme hain distingatua,
Da sujet estimatua.
Holakuentzat dire plazak,
Bereziki ohorezkuak.
Gobernu bat holakozkua
Ez daite baizen onezkua.

135

Joanes ETCHETO

ERRIENT NAIZ LEZIONE EMAILIA

I Errient naiz lezione emailia,
Gazterien artean,
Ignoranten argitzailia,
Zortiak eman karguan.
Bihotzez dut, Jainkuak emana,
Bihurtuko koruan.

II Hainitz ona datza kausitzen
Zaldi eder hezia,
Horrekin da konparatzen,
Gizon eskolatua.
Ez da aski estimatzen
Hark egin zerbitzua.

III Urria zer den ez dakiena
Hortaz trufatuko da.
Metaletan hoberena
Guti estimatzen da
Zeren aditu ez baita
Oi horren aiphamena.

IV Gisa berian inoranta
Eskolaz da trufatzen,
Haurrian handik urrundu-ta

Gero ez da hurbiltzen,
Inoranki egotu eta
Hala da akhabatzen.

V Eskolako tretuetan
Badirade bi suerte,
Harat goaten direnetan
Diferent kalitate:
Bat pausatua denean,
Bertzia arina daite.

VI Eskolan zuhurra dena
Guti da libertitzen.
Baliatu nahi dena
Bethi da jarraikitzen.
Hori daite hoberena
Konpainian agertzen.

VII Eskol-onak badituzke
Segurki bi efetu
Erran ahal baditeke,
Pendura xuxentzen du,
Eskartatzen denak ere
Xuxen hau segurtzen du.

VIII Galdegiten datza komuzki
Heia zer den gizona.
Erraiten da bai laburzki:
Eskolan egin dena.
Hori datza, bai diot finki,
Gauza ikhusten dena.

IX Hortik beraz erraiten da:
Bai eskola behar da:
Gauzetan baliosena
Segurki horixe da,
Zeren han den argitua
Izpiritu flakuena.

136

Joanes ETCHETO

BIARRITZE

I Biarritze
Datza fagoratua,
Donijuane
Kuraieztatua,
Eskual herri dira
Famatuak dira.
Enperadorea
Hauietaz da hartua.

II Frantziaren
Aintzindari handia!
Eskaldunen
Bonur-egilia
Jainkuaz hautatua,
Hortaz lagundua,
Orok behar dugu
Batean ezagutu,
Bozak errepikatu,
Ahal guziez gora altxatu.

III Aintzindari
Hunen presentzia da
Segur guri
Agradatzen dena.
Hunek egin ona
Bai eta fagoria
Herri hautan dira,
Present bat bai handia,
Ezin estimatua,
Ez daite sekulan aski lauda.

IV Izatu den
Herri toki orotan,
Da ikhusten
Emaizta onetan
Eta agintzetan
Gure intresetan.
Hainitz daite erran
Ait'on batian holakuan!
Bethi ongia goguan
Bere azpikoen fagoretan.

V Eskual Herri
Gizen eta xarmanta
Orai zuri
Buruz da fortuna.
Zure jabe ona
Hemen duzu jina,
Bai Eskual herria
Hainitz da altxatua,
Jabeaz maitatua,
Ez diro falta ongi jartzea.

VI Donijanen
Egiten bada barra,
Herri haiuen
Aberaskua bada.
Komers eginen da,
Estranjer jinen da.
Bai hori segura,
Haiuen fagoretan da
Barraren izatea
Langilearen enplegatzea.

VII Langiletan
Hainitzak geldi daude
Alferretan
Galdegiten dute.
Lana nahi dute,
Lanikan ez dute.
Hainitz pena suerte
Hauiek sofritzen dute.
Ahalki bizi dire
Haiuen estatua erran ez daite.

VIII Diot beraz,
Barra egiten bada,
Langileaz
Enplegua bada,
Gauza salduko da.
Diru eginen da.
Hainitez jendea
Hobeki izanen da
Bai kuraieztatua
Guziez ongi sarizatua.

137

Joanes ETCHETO

OI, ENE SEMEA...

Aitak

I Oi, ene semea
 Non duzu zuk gogoa?
 Norat goaten zira
 Zure dizipatzera?
 Ez zaitela tronpa.
 Ez etare unha:
 Zure aita da ona
 Segi zazu hura,
 Zuhurra bazira
 Urus izanen zira.

Semeak

II Oi, ez, nere aita,
 Ez da ez zure falta,
 Hainitz zira ona,
 Eta pare gabea.
 Hartu dut xedea
 Uztea etxea;
 Bearko dut phartea,
 Oi zure uztea
 Ez da prudentzia!
 Hola dut nik suertea.

Aitak

III Bai, seme maitea,
 Nahi duzu parthea,
 Diozu holha dela
 Segur zure xedea,
 Har zazu zuzena,
 Etxeak zor dautzuna.
 Oi, bai neure maitea!
 Zuazi bilhatzera
 Desira duzuna,
 Bai, egizu fortuna.

Semeak

IV Adios, beraz, aita,
 Baita neure etxea.
 Ez da zuen falta
 Balin badut suertea,
 Aiskiden uztekua
 Bai urruntzekua;
 Norapait gaitekua.
 Ez dakit zer pentsa
 Eta zer bilhaka:
 Etsaiak naramatza.

Aitak

V Oi, bai neure Jainkoa,
 Zer da neure dolua!
 Oi, bai ume gaixua
 Juana dut desertura!
 Ene bihotz mina
 Bai eta xangrina
 Guziz handiak dira.
 Galdu da umea
 Segurki maitea:
 Ez dakit norat beha.

Semeak

VI Zeru eta lurra
 Zer da neure malurra!
 Jin naiz desertura
 Gosez akabatzera.
 Goanen naiz etxera
 Aita othoitz bera
 Emaiteaz jatera.
 Hartuko dut hura
 Oi, nagusi ona!
 Ez uzteko sekula.

Aitak

VII Oi, zer zoriona
 Niri ofritzen dena!
 Hemen dut semea
 Segur gibelat jina
 Uzten dut dolua
 Bai eta xangrina
 Hartzeko bozkariaua.
 Neure zoriona,
 Oi, ene jaun ona!
 Guziz da handiena.

Semeak

VIII Huna, ene aita,
 Zure haur errebelatza.
 Jina zure gana
 Zure sehi deitzera.
 Jana dut parte,
 Etxeko zuzena,
 Ene aita maitea,
 Ni naiz malhurusa,
 Bai tristeziakua!
 Galdu dut zure izena.

Aitak

IX Zato, seme maitia,
Har zazu zure plaza,
Neure umia zira,
Ez zaut sobera beraz sobera.

Ene seme deitzia,
Zu dretxuan ezartzia,
Etxean goardatzia.
Errendatu zira,
Osasunian zira,
Bozkariuetan gira.

138

Joanes ETCHETO

FAMILIA IMPERIALA

I Eskualdunen
Bisitaren handia!
Frantziaren
Jabeak egina.
Hunetaz dut
Hasten orai kantua:
Goratzen dut
Hunen aiphamena.

II Familia
Inperiala dugu
Ethorria,
Egoitza hemen du.
Hau nahi dut
Neure kantuz laudatu:
Hau behar dut
Segur ohoratu.

III Balin banu
Nik aski adrezia,
Nola negu
Ez dire uria,
Ekhar niro
Segur jende guzia,
Bortxa niro
Egitiiaz gorthia.

IV Bizkitartian
Nonbriaren arabera,
Jendian artian
Hainitz da athera.
Ait'on hura
Aldian pasatzen bada,
Bai segura.
Eginen da Biba.

V Mendiaren
Bistak du animatzen;
Ferdaduren
Iklusliak xarmatzen.

Kanpaina du
Handizki estimatzen,
Pobrea du
Aminaz bethetzen.

VI Biarritze
Hautatu du berexki,
Bai han daite
Pharatu ederki
Handikan du
Kurritzen hainitz herri,
Ikhusten du
Zenbait gauza berri.

VII Kurritu-tu
Kanbo eta Itsasu,
Ikhusi du
Azken hau herrian.
Herri hortan
Rolanen pausua da
Athaitzetan
Drolea kausitu.

VIII Izatu da
Senperen eta Saran
Iragan da
Handikan mendian
Toki hortan
Izan da segitua.
Eskualdunian
Da ohoratua.

IX Egin dire
Trunfazko arkhuak,
Bai-eta-re
Bibazko oihuak.
Izan dire
Oro sariztatuak
Bai eta-re
Ongi prezatuak.

139

Jean GOROSTARSOU "Duhalde"

MENDIAK BETHE HEDOIEZ

*Désespoir déposé aux pieds de Notre dame de l'Aubepine.**Airea: Argizagia agertu
Bai eta gura altxatu.*

I Mendiak bethe hedoeiz,
Oihan errekek daude beltz,
Begiak altxatzen ditut, zeruetan izar bat ez...
Nihon ez duket gozorik, ilhun bainago bihotzez.

II Enetzat ez da egunik,
Nihoiz ere iguzkirik,
Ez hila eta halere hobian nago bizirik,
Ez enetzat gehiago zeruak ez du argirik!

III Habil, habilkat bizia,
Urrunt hadi, gezurtia,
Atseginak agindu-ta, minez bethea nauk guzia,
Habil, utzak, utz gorphutz hau orotarik biluzia.

IV Lore guziak arrantze,
Uki guziak oinhaze,
Ni naiz ama ganik sorthu jasaiteko hunenbertze
Ez da enetzat izanen ez ganbio, ez eztitze?

V Xophorro mendi ganean,
Igzuki eder denean,

Kapera bat ageri da bi harri beltzen artean,
Elhurra etzen hain xuri gan den negu bihotzean.

VI Boz bat ethorri zait handik,
Gabaz lo nindagolarik,
Entzun ez dut behinere hain kantu xarmagarririk,
Ene bihotza pilpiraz gelditu da zoraturik.

VII Nor da niri mintzo dena,
Eztiki deitzen nauena?
Ni naiz minen gozatzaille, Arrantze-gaineko-Ama,
Oi haur inkoniatua, lasterregizu ni gana.

VIII Zeru goratik lurrera,
Arrantze baten gainera,
Gure Ama guziz-ona, bihotz ezti, bihotz bera,
Zu zare jautsi zarena gizonen kotsolatzera.

IX Hemen naiz zure oinetan,
Dena nigar uharretan,
Ama ona, har nezazu othoi urrikalmendutan,
Gaixtaginen asperrari gorde zure besoetan.

140

Jean Martin HIRIBARREN "Menditarrak"

PETXE BATEK NAHI DU

I Petxe batek nahi du
Pariserat partitu,
Plazer badugu hautatu
Guretzat deputatu,
Gure bozen galdez dago
Kargu horren hartzeko.

II Petxe horrek omen du
Zaku bat lege berri,
Gauza direnak makhurtu

Moldatzeko xuxenki,
Azpikuaz goiti nahi tu
Oro betan itzuli.

III Sehi dena nagusi,
Ikustera omen guazi,
Bordariak ere burjes,
Petxe jaunaren lege
Aberatsen onthasunak
Probendako guziak.

IV Kafe, likurrak merke,
Izan dadin edale,
Kasik urririk tabakua,
Pipatzalen gostukua,
Inposetik arnua libro,
Zorraz ere bai kito.

V Dela gizon leiala
Jakintsun et'abila,
Heskualdunen iguzkia,
Frantziaren argia,
Orotan da publikatu,
Petxek berak erran du.

VI Espantu handi hotan
Ez gitezen konfida,
Nik oraiko denboretan
Kausitzen dut ardura,
Xarlatanen botigetan
Marxandiza tronpurra.

VII Gauzen hol'ezartzeko
Behar dira moianak.
Usaiaren sanjatzeko,
Kanbiatzeko legiak,
Ez dira segur askiko
Petxe horren ahalak.

141

Jean Martin HIRIBARREN

EUGENIA

Airea: Biba, biba, Louis Napoleon

Agur, agur, andre Eugenia,
Inperatriz guzien lilia (refrain).

I Handia zen, guziz handiena,
Eugeniaz erdi zen eguna.
Zeruetan bazen irrintzina,
Gizonetan hirri arraiena.

II Harri-bizi hautuak badire
Asko buru hetaz argi dire:
Eugeniak ez behar batere,
Bethi izar nahi bada ere.

III Lore onek sasitik argitzen,
Kolorea laharrek ez khentzen,
Eugenia bethi dirdiratzen,
Tronotik urrun bazen ere jartzen.

IV Izarretan badire izarrak,
Handiago handitan bakharrak,
Ederretan berezten ederrak.
Eugenia ezin izar lurak.

V Itxuran du gaindiz arraizia,
Ezpainetan hirri berezia,
Aingerutzat harkidin guzia,
Aphainkidin zeruko bizia.

VI Begiez du biamanta histen,
Perla hortez ixiturik uzten,
Harmin eztiz arrosa bekhaizten,
Liztafina gerriaz ahanzten.

VII Ez du xoilki lehia handitan
Badabila bide guzietan,
Hurbilkidin nor nahi goritan
Hala nola haran beheretan.

VIII Bere ona da nigar xukatzen,
Galdek nihoiz ez dute unhatzen,
Ez da beldur athe idekitzen,
Karitatez tronua agertzen.

IX Bihotz urre, zeruan piztua,
Ungiari bethi zabaldua,
Galdekidin den arkanjelua,
Elizetan denean khurtua.

X Zenbat zauri ez du arthaturik,
Zenbat behar berak ikusirik,
Zenbat xurxa haurtzat berezirik,
Zenbat etxe atherbe utzirik!

XI Hobe guti lurak ekharririk,
Ez ahal du gaitzik ikusiren,
Agian da mendea biziren,
Azkenean zeruan sarthuren.

142

Jean Baptiste LARRALDE

XORI OHATZEA

I Haurra, zer ari zare,
 Sasian sorthua,
 Progotxurikan gabe,
 Lapharrek zaurthua?
 Amak bere umendako
 Luze egin egoitza,
 Atseginez hausteko
 Non duzu bihotza?

II Adi zazu nigarrez
 Xori gaixo hori,
 Umeak har beldurrez.
 Oihuz dago zuri,
 Ama bat baduzula
 Othoi, orhoit zaitaie,
 Eta deus ez duela
 Zu bezenbat maite.

III Zertako nahi duzu
 Guziz, alferretan
 Dolu mina hedatu
 Oihan guzietan?
 Dolu gose bagare
 Helas! naturalki
 Geronek deithu gabe
 Nork ez du bada aski?

IV Bainan, barne gabea,
 Hots zure lanari!
 Zer da bada galtzea,
 Diozu, lau xori?
 Bihotzak ez badautzu
 Erran: bai, gaizki da!
 Amari galde zozu,
 Doluz hil ez bada!

V Munduan, deusik egin,
 Gizon, ez dukana,
 Ez bederen desegin
 Jaunak egin lana;
 Egilea, bakharrik,
 Duk gauzen nagusi,
 Ez dukala dretxorik
 Behar duk onhetsi.

VI Jaunak eman lekhoa
 Gauza guzieri
 Ungi da hautatua,
 Ez deus handik higi,
 Utzi, beraz, loreak
 Beren baratzetan,
 Xorien ohatzeak
 Utzi sasietan.

143

Jean Baptiste LARRALDE

GIZON SOBREA ETA EDALEA PREDIKUAN

Piarres sobrea

I Mintzatzeko dohaina zein den prezagarri!
 Egun, gure erretora zukan xoragarri;
 Aspaldian ez diat nik eliza huntan
 Predikurik aditu hoin hitz ederretan.

Thomas edalea

II Nahi bezen ederra, bainan luzegia,
 Badik oren bat, hurran, nagoela egarria,
 Eta nihon ez saltzen hemen edaririk
 Ur benedikatua duk hortxe bakharrik.

Piarres

III Bainan, lau urhatsetan hor duk ithurria,
 Ur bat zilharra bezen fresko eta garbia,
 Bi saltzo eginen duk aise hire lana,
 Hargatik thauna laster, meza ez duk emana.

Thomas

IV Zer diok gizon xoro, guti funts, ergela,
 Urez hor asetzeko, naski nauk igela?
 Arno onez usatzen nuk egarria hausten,
 Eta urik hoberenak aberentzat uzten.

Piarres

V Ez duk bada progotxu, hemen edaririk
Nekez duk khausituko galdetzen dukenik,
Behar bada erretorak ez nauk finkatuko,
Bazikek zenbeit xorta, bainan aldareko.

Thomas

VI Hartako edo huntako, segur nuk ni ere
Ez dela zankhertia zenbeit flasku gabe,
Gehiago zioat, erran ez dukana,
Horko arnoa ez dela xuartxez egina.

Piarres

VII Bah! izan edo ez izan, Thomas, hiretako,
Ene ustez igualtsu duk, ez hau hordituko;
Ilkhiko gaituk laster, erradautak, beraz,
Zer zaikan iduritu gure predikuaz.

Thomas

VIII Egiaz mintzatzeko, nik, gan den gabea,
Bergia ez doiat hetsi, sukharra barnean,
Beraz, hemendik loa, handik egarria,
Ez nikan predikuan arras beharria.

Piarres

IX Hanbat gaizto hiretzat, ez duk irabazi,
Atseginez ni, egun, ez nuk kasik bizi,

Zeruaz, hango gauzez luze duk hedatu,
Eta harat gateko, nahi nuk prestutu.

Thomas

X Luze! hoi bazakiat aspaldi nik ere,
Albiriste sariarik hiri eman gabe,
Bainan, errak, zeruan baden mahastirik,
Eta, maiz aditzen den han irhintzinarik.

Piarres

XI Edaria, sobraxe, duk Thomas, goguan,
Gose eta ez egarriarik ez zukek zeruan,
Jaunaren laudatzeko kanta ez duk ixiltzen,
Bertzelako beharrik ez duk han frogatzen.

Thomas

XII Hire ahotik, hi bethi, Piarres, haiz galtzen,
Zer! oren baten kantak gaitik egarritzen,
Nola, beraz, kantatu, bethi, bethi ere,
Zintzurra noiz edo noiz arnoz busti gabe?

Piarres hasarratua

XIII Jadanik eman daiat horren errepusta.

Thomas

Bai, hala duk, Piarres, ez zimir kopeta,
Eta seguratzeko gaineko loria,
Egundik uzten diat arras edaria.

144

Jean Baptiste LARRALDE

ITSASOA MIRIKU

I Egun bat du, bakharrrik
Naizela munduan,
Herioa, jadanik
Dabilkat ondoan,
Oi! eritasun triste,
Sobra lakhetua,
Hik naukak horren gazte
Hemen ezindua.

II Miriku hoberenez,
Naiz inguratua,
Mila artha samurrenez,
Amak lagundua,
Bainan jakintasuna
Guti baliatzen,
Bai! nere azken orena
Hari da hurbiltzen!

III Ametsak alde, xoilki,
Ni gan den gabea,
Aurkhitu naiz hobeki
Itsas bazterean,
Eria sinheskor da!
Ama gazen harat,
Sendatzerik ez bada,
Bederen hiltzerat.

IV Hurbildu nintzeneko
Donibane alderat
Kasik atze enetako,
Nindagoen bertze bat;
Aire gose bulharrak
Nintuen asetzen,
Suntsitu nere indarrak
Jadanik khausitzen.

V Zenbait urhats oraindik,
Eta zait agertzen
Itsasoa, bertzerik
Ez nuen bilhatzen;

Ene minez iduri
Jakintsun jarria,
Bide erdi zait ethorri
Miriku berria.

VI Hunen ur zilharretan
Ardura ikhusia,
Orai, bozkariotan
Naiz gaitzak utzia,
Bigarren bathaiotik
Ilkhitzen naiz garbi,
Arima lehenetik
Ilkhi bezen berri.

VII Oi! istudio gabe
Miriku jakina!
Osasunaren jabe
Ni zuk naiz egina,
Bai, nahiz sei mila urthe
Dituzun hondatzen,
Airos, hazkar bazare
Guti naiz harritzen.

145

MUGARITZ

PRIMADERA

Airea: Goizean goiz jeikirik ...

I Ilhuna ehoztean
Jarraiki argia,
Horma elhur urtzean
Primader garbia.
Raite ra lalalala (bis)
Horma elhur urtzean
Primader garbia.

II Haritzak du jasaiten
Hosto ederrena,
Erresinolak iten
Kantu maiterena.
Raite...
Erresinolak...

III Belharrak gonbidatzen
Dantz' arinetara,
Edertasun manatzen
Amodiotara.
Raite...

IV Baratze handia da
Aldetan lilitzen,
Sutsurik balin bada
Dolore garbitzen.
Raite...

V Jadanik da entzuten
Kantatuz xoria,
Jadanik hark mezuten
Du bere maitia.
Raite...

VI Jadanik da ikhusten
Ainhara gaixoa,
Errepikatuz bozten
Ohantze hauzoa.
Raite...

VII Guziak gonbidatzen
Dantz´arinetara,
Xoriñoak manatzen
Bozik kantetara.
Raite...

VIII Xirripitak du jadanik
Kolare ozena,
Hezatzten du jadanik
Lurrik gizenena.
Raite...

IX Erleak lilietan
Ezti onak biltzen.
Jinkoiloa aldetan
Gozoak biphiltzen.
Raite...

X Larretan dire hasi
Bildotxak jauzika.
Ezin baratuz hasi
Lasterka pitika.
Raite...

XI Bozarik ederrenak
Gaitu gonbidatzen,
Maitea maiterenak
Hemen dire batzen.
Raite...

XII Goazin bai, gozin beraz,
Bozik dantzatzera,
Guziz gure maneraz
Maitez kantatzera.
Raite... (bis)
Guziz gure maneraz
Maitez kantatzera.

146

Johan OXANDABARATZ

IRAGAN DENBOREN MINA

Airea: Lachen droumi!

I Eskaldunak
Non dira gure herritarrak,
Eskaldunak?
Hits dira naski guziak!
Non dira gure garhaiziak,
Gure lehengo balentriak?
Hil guziak!

II Bazakiten
Lehen gure aitek ixurtzen
Odolaren,
Etsai gogorren zebatzen.
Orai ez dakigu ematen
Ez odola, ez kantu baten,
Ez sos baten.

III Mur d´Abbadi,
Oraino bizi ez baladi
Mur d´Abbadi,
Balaiteke beldur handi
Eskaldun izena galtzeko
Eta zokhoan usteltzeko
Sekulako!

IV Arbasoak,
Ahantz othoi gure laidoak
Oraikoak;
Ez khonda eskarnioak!
Noizbait berrituren ahal da
Gure zainetan zuen khalda,
Hil ez bada!

147

AN.

MENDITARRA

Airea: *Ene izar maitea...*

I Atzo bazen herrian
 Arrotz aberatsa
 Nik laster mahastian
 Moxtean mahatsa
 Ikhusi bezain laster
 Hasi zaut mintzatzen
 Nik utziz lana bazter
 Burua altxatzen.

II Izerditu zare Jauna,
 Zu hainitz nekhatu
 Balimbaniz ezaguna,
 Sober'ez baliatu
 Zato, zato nerekin
 Ongi gozatzeko
 Axxideak elgarrekin
 Biak bizitzeko.

III Nerekin ikhusiko
 Hiri eder hainitz
 Nik lakhetaraziko
 Zu hirian hainitz
 Paris, Madrid ikhusi
 Gero bidai itea
 Ez aurkhiko itsusi
 Atsegin maitea.

IV Milesker zuri jauna,
 Eskaintze ederrez,
 Aspaldi dut laguna,
 Aurkhitu beharrez,

Egon nahiz herrian
 Urrezko eltzea
 Utzi bere tokian
 Hainitz han heltzea.

V Zato, zato nerekin
 Utz hemen hauzoa,
 Ene etxekoekin
 Izanen gozoa,
 Atsinez iraganen
 Luzeki bizia,
 Zuenekin izanen
 Guziz onetsia.

VI Zu ene jauregian
 Zare jostatuko,
 Oihanaren hegian
 Maiz ihizatuko.
 Epher buztanikara,
 Orein zalu dena,
 Uso basa, antzara
 Hauta ederrena.

VII Aski, jaun ona, aski,
 Ur doha gaintitza,
 Nahi zinuke naski
 Ni zu jarraitzea.
 Ez naiz ni deusen gura
 Egon nahi herrian
 Sortu eta segura
 Han bizi mendian.

1861

Ez da koplari gudurik ospatzen

Mairie

Urrugne

Urrugne le 5 Septembre 1862.

Monsieur,

J'ai reçu, avec votre lettre de ce jour,
les six exemplaires de la chanson
Couronnée et je les remettrai à M.^r
le Maire qui j'attends aujourd'hui.
Agriez, Monsieur, l'assurance de mes
sentiments très respectueux.



J. Dorbe
[Signature]

A Monsieur l'Abbadie, Correspondant de
l'Institut,
à Craponne.

J. Dorbe, Urruñako alkatearen gutuna Anton Abbaduari (1862-IX-5)
(BNP, naf., 21747, f. 113)

1862 URRUÑA**148****Jean Baptiste ELIZANBURU****APEXA ETA LOREA**

I Neguaz primadera zenean jabetu,
Sasi baten hegian apexa zen sorthu,
Lekhu berean baitzen lorea gerthatu
Gaxoek elgar zuten bihotzez maithatu.

II Iguzkiak ihintza histen duenean,
Apexa doha bethi hegalez airean;
Nahi luke loreak segitu bidean,
Girtainak zertako du gelditzen lurreen?

Loreak

III Nere besoak ditik ihintzak zerratzen,
Ondikoz! iguzkiak goizean urratzen;
Zertako haiz hi bethi nitarik urruntzen?
Hi goan-eta, badakik, nigarrez nauk urtzen.

Apexak

IV Zertako nigar egin, oi lili maitea?
Egunaz iguzkia dun ene jabea;
Goizetik lorez lore dun ene bidea;
Iguzkia sartzean bethi naun hirea.

Loreak

V Goiz guziez "Adio" arratsean "Agur" ...
Egunak luze dituk, gauak hainitz labur;
Nere nigarrez, othoi, ez hadila samur,
Zeren hire galtzeaz bethi bainauk beldur.

VI Iguzkiak goiz batez zenean agertu
Lorearen besoak zituen urratu;

Bi maitek zutenean elgar besarkatu
Apexak haizeari hegialak zabaldu.

VII Haize bihotz gabea, zertako herritik
Erreman duk apexa mendien gainetik?
Zertako duk urrundu maitearen ganik?
Hegastin gaxo horrek etzian hobenik.

VIII Desertuan apexak, lorearen galdez,
Inguruak zituen bethetzen auhenez,
Lorea sorlekhuian, apexa beharrez,
Begiak aphaldurik zagoen nigarrez.

IX Haizeak egun batez, udaren hastean,
Apexa zuen hartu berekin airean.
Lorearen maiteak, herrira heltzean,
Oi zer bozkarioa zuen bihotzean!

X Apex hegal flakoa, geldi hadi, geldi!
Utziz bozkarioa, doluan sar hadi! ...
Zertako haiz fidatu haize gaixtoari?
Lorearen gainera lurra duk itzuli! ...

Apexak

XI Maitea, kausitzen haut lurrez estalia!
Jainkoak bere ganat hartu hau, lilia! ...
Hi hindudan lurreko sosegu guzia ...
Hil haiz! ... orai neretzat deus ez dun bizia!

XII Oraino iguzkia zohan inguruan,
Apexa zenean hil bere sorlekhuian ...
Izan baitzuen aski zorigaitz munduan,
Agian lorea du kausitu zeruan ...



149

LAPHITZ

ODERIK EDO AITA-SAINDUAREN SOLDADOA

Airea: *Adios, ene maitia...*

Makhilari: Nafarro-behererat ez jiteko zer duk?
Makhilak: Hauts nezazuen beldur nuk!

I Aitorren semen artian
Oderik ederrena;
Nihun lanjerrik denian
Oderik han lehena,
Aiten ezpata gerrian
Baten beldur ez dena.

II Adios, ene maitia
Zonbait egunendako,
Erruman aita saindia
Laguntza galdez dago.
Aita bat grinan uztia
Zorigaitz haurrendako.

III Sei mila gizonek entzun
Justiziaren botza;
Aberats, gazte, bihotzdun
Armada loriosa.
Justizia bera lagun
Ez dute zeren lotsa.

IV Gaxtuek elgar harturik
Errumari jazarri,
Ihes ditu bentzuturik
Oderikek ezarri.
Ez daude behin jarririk
Erruman aitzindari.

V Nonbaitik uste gabian
Armada bat agertzen
Errhauptsak haren bidian
Iguzkia goibeltzen
Oderik da furian
Traidorria oldartzen.

VI Nigarrez oihartzunari
Loretako ezkilak:
"Erori dira, erori,
Israelgo borthitzak,
Odol ibaian igeri
Horra nun dauden hilak".

VII Bizia duk hirriskatu
Oderik alferretan;
Etsaiak dituk zilhatu
Ezpataz hamarretan,
Nahiz lagunekin sarthu
Lorios zeruetan.

VIII Norbaiti bizirik jinez
Duk ekhartzen bizia.
Hantxe dagok hire minez
Nigarretan hurtia.
Arranguran gau egunez
Hitaz hire maitia.

150

GARRO

KRIKETA ETA POBRE

Airea: *Xoria kantuz oihanean*

Neskatxa gazte burtxoroak xerrenda frango lephoan,
Xerrenda frango badu bainan ez hainitz zentzu buruan.
Dote guti badu ere, aberats iduri plazetan,
Guti bazkaldurik ere, arinik dantzatzan soinuan,
Gazte deno girgilatsu, phildetan ezkondu ondoan, (berriz)
Ezkongaiian atheratzen, gero da egonen zokhoan. (berriz).

151

Jean Baptiste ELISSAMBURU

NERE ETXEA

I Ikhusten duzu goizean
Argia hasten denean,
Menditto baten gainean,
Etxe tipitto aintzin xuri bat,
Lau haitz ondoren erdian,
Xakur xuri bat athean,
Ithurriño bat aldean,
Han bizi naiz ni bakean.

II Nahiz ez den gaztelua,
Maite dut nik sor-lekua,
Aiten aitek hautatua,
Etxetik kanpo zait iduritzen
Nonbeit naizela galdua,
Nola han bainaiz sorthua,
Han utziko dut mundua,
Galtzen ez badut zentzua.

III Etxean ditut nereak,
Akilo, haitzur, goldeak!
Uztarri eta hedeak,
Izako bihieiz ditut oraino
Zoko guziak betheak,
Nola iragan urtheak
Emaiten badu bertzeak
Ez gaitu hilen goseak.

IV Landako hirur behiak
Esnez hanpatu ditiak,
Ahatxe eta ergiak
Bi idi handi, kopeta zuri,
Bizkar beltz, adar handiak,
Zikiro, bildots guriak,
Ahuntzak eta ardiak
Nereak dire guziak.

V Ez da munduan gizonik,
Erregerik ez printzerik,
Ni bezein urusa denik,
Badut andrea, badut semea,
Badut alaba ere nik,
Osasun ona batetik,
Ontasun aski bertzetik,
Zer behar dut gehiago nik?

VI Goizean hasiz lanean,
Arratsa heldu denean,
Nagusi naiz mahainean,
Giristino bat ona dut hartu,
Nik emaztea hartzean,
Ez dut mehe egunean
Sarthuko uste gabean
Xingar hezurrik eltzean.

VII Piarres ene semea,
Nahiz oraino gaztea,
Da muthiko bat emea,
Goizean goizik bazken erdira,
Badarama arthaldea,
Segituz ene bidea,
Nola baitu egitea,
Ez du galduko etxea.

VIII Ene alaba Kattalin,
Bere hameka urtheekin,
Ongi doha amarekin:
Begiak ditu, amak bezala,
Zeru zola bezin urdin,
Uste dut denborarekin,
Oraiko itxurarekin
Andre on bat dion egin.

IX Ez dugu behar lurrean,
Ongi bizirik etxean,
Utzi laguna gosean,
Ez du beharrak sekulan jotzen
Gure etxeko athean,
Non ez duen mahainean,
Otruntza ordu denean
Lekhu bat gure aldean.

X Ene andrea Maria,
Ez da andre bat handia,
Bainan emazte garbia,
Irri batentzat badut etxean
Nik behar dudan guzia,
Gald'egiten dut grazia,
Dudan bezala hasia,
Akhabatzeko bizia.

Jean Martin HIRIBARREN "Salataria"

HERRIKO BILTZARREEN GAINEAN

I Kantatzera noha bertsu hotan
Nolako sujetak kontseiluan,
Ditugun herrian ezarriak,
Haukien promesak eta obrak.

Kantu lehena
Kargudunen izendazionia

II Egun batez, Merak deithurikan
Adi zak, Piarres, zautan erran,
Izendatu behar tuk herritik
Hamar kontseilari onetarik.

III Onetarik hamar toki huntan!
Gauza hain arraro den denboran!
Menturaz ez da bat miletarik
Kargu hortakotz onsko denik.

IV Hautuia hik utzak en ´eskura
Bota zak biletto hau kofrera,
Hamarren izenak hemen dituk
Herrian hoberik bater ez duk.

V Horiek ditiguk ixilenak
Bai eta gizonik humilenak,
Jakin gabe zer den arrazoina
Eginen dutenak nik errana.

VI Gaiten jira beraz meriara
Lasterka beldurrez gal tenora,
Manatu biletan emaitako,
Zer pasaturen den ikhusteko.

VII Kofre gakhatu bat bada salhan
Meriako jaunen gomenduan,
Han dira izenez markatuak
Karguduntzat behar ditugunak.

VIII Oro beha gaude xutiturik,
Begiak ahalaz zabaldurik,
Zer behar othe den handik jali.
Atheratzen dira hamar uli.

IX Mera dantzan hasten da plazerez,
Gu gaude betherik konfusionez,
Fidaturik gure malurretan
Meraren kontseilu tronpurretan.

Kanta bigarrena
Kargudun berrien lehen banketa

X Kargudun berriek lehen lana
Banket bat ein dute, jan bat ona,
Pentsaturik, moda den bezala
Hortik behar dela hasi saila.

XI Platak dituztenian deskargatu,
Hamasei botoila denak hustu,
Basuak jo, fierki, trinkreko,
Menbro bat mintzo da bertzendako.

XII Ha! zer abantaila herrikotzat,
Jaun mera, baitzitu gidaritzat,
Zure gobernuiak behar ditu
Afera makhurak arranjatu.

XIII Bai, hala da, dio gure Merak,
Ikhuziz hemengo planta zarrak,
Kargu hau hartu dut karitatez,
Ez anbizioez, ez banitatez.

XIV Oi! zenbat desordre lekhu huntan
Pairatu izan den orai artian!
Gogora lakiket berehala
Egun batez hemen kondahala.

XV Herriak faltaitu jende bidiak,
Penatuz dabilta habitantak,
Ahunzka iganez patarretan,
Belhaunak trenpatuz ibaietan.

XVI Eliza, meria, johan dira
Usteldurik biak erortzera,
Herriko arbolak, lur komunak,
Meren adiskidek eramanak.

XVII Zenbat diru gaizki gastatuak!
Zenbat khondu makhur ezarriak!
Eta pleinta bat xoil eiten bazen
Bazakiten merek mendekatzen.

XVIII Hemendik aitzina bertze moldez
Juanen dira gauzak ene ordrez,
Kontent ezarriko ditut oro
Meriako xarpa nik dudano.

XIX Herrian gu gira kapablerik
Tiratzeko bide xuxenetik,
Aferen timoia errekarra,
Utz lioke bertzeko erortzera.

XX Desiratu behar dugu beraz
Kargu huntan bizi giten luzaz.
Orai dugun edan orok puntxa,
Horra ni Meraren ordenantxa.

XXI Berriz trinkaturik ingurian,
Diole guziek errepikan:
"Biba Mera! biba! ehun urthez!
Eta kontseiluia berrehunez!!!

Kantu hirugarrena
Gure pleintak

XXII Faltsuiak ziren, arras faltsuiak
Gure meraren promes guziak.
Sekulan ez dut sinhetsiko nik
Mera berrien erranetarik,

XXIII Bi mila gauza hitzeman dauzku,
Solament bat ez du konplitu.
Sekulan...

XXIV Herriko etxeak daude nigarrez,
Beren zilhuentzat pedaxu galdez.
Sekulan...

XXV Urak pasatzen ditugu jauziz,
Igelen gisa zangarrak bustiz.
Sekulan...

XXVI Patar hertsia eririkoka,
Lehen bezala lurrari potka.
Sekulan...

XXVII Hirrisku xarra dute komunek,
Hirrisku xarra herriko sosek.
Sekulan...

XXVIII Ez da hoberik, ez, aferetan,
Oro doazi ohiko trazan.
Sekulan...

XXIX Gaztek zaharrak iduri dute,
Gaztek paper berak dituzte.
Sekulan...

XXX Herriak beraz sanjatuz mera,
Sasitik ein du jauzi berrora.
Sekulan...

XXXI Ez da gezurrik nik erranetan,
Ez egarik meren hitzetan.
Sekulan ez dut sinhetsiko nik
Mera faltsuien gezurrik.

XXXII Gutitan ontzen dute herria
Meraren obrek, horra egia;
Guziz direnean kontseilariak
Gizon enulak, gizon uliak.

Kantu laugarrena
Mera baten nahigabiak

XXXIII Gure herriko jaun Mera
Nagusituia sobera,
Nahi zuten aitzetsirik
Kendu bere fauiletik.

XXXIV Agertu zituzten denak
Jaun horren egitaiak.
Ordutik zagon ikharan
Zelakotz lanjer handitan.

XXXV Kapa berri bat jauntzirik,
Present onak igorririk,
Ibili da handietan,
Nahiz egon bere plazan.

XXXVI Hortaz ez giten estona,
Ez da gogotik gizona,
Jausten tronutik lurrera,
Edo zalditik astora.

XXXVII Ardietsi du grazia
Kontinatzeko karguia
Horra beraz bitorios,
Bere emaitzen medioz.

XXXVIII Ala baita baliosa,
Gizon puxanten laguntza!
Bainan oinak nagi tuzte,
Urindatzen ez bazaizte.

XXXIX Partidak bentzuturikan,
Mera trionfan zabilan,
Iduritzen zaion hola
Hil izanik phiztu zela.

XL Plazerak maiz ondotikan
Badu pena mundu huntan.
Helas! zorthe triste hori
Gerthatu zaio jaun horri.

XLI Ein izan du zorigaitzez
Lerrako bat egun batez,
Ezin pasatuz saltoka
Xokho batian den atheka.

XLII Zertako gan trebesetik,
Jaliz bide xuxenetik?
Ardura da malurusa
Makhurretik ein urratsa.

XLIII Hor urratu zaio kapa,
Zikhindu gerriko xarpa,
Hor jo du lurra kopetaz,
Orai dago heiagoraz.

XLIV Mera doloratu hori
Ez du nehork urrikari,
Ez da baratzen irritik
Gure herria geroztik.

XLV Oxala etsenplu horrek,
Edo kantu triste hunek,
Ikhara balitza merak,
Makhur dabiltzan guziak!

Jaun jujeari

XLVI Horra, jauna, ene bertsuak
Lehenik aizkoraz lanthuak,
Ondotik legunduak limez,
Estaliak bernuza finez.

XLVII Halere daudez ikharan
Zure begien aitzinian,
Zeren diren oro deithuiak
Bainan gutiak hautatuiak.

153

Jean Baptiste LARRALDE

BIOLETA

I Alferretan haiz sortzen, oi lore maitea,
Baratze bazterretan humilki gordea,
Bafada goxoenak hau bethi salhatzen,
Hire egoitza bakhotxak aiseki khausitzen.

II Orai errak zertako haizen hoin herabe,
Eder duk modestia, bainan gaindi gabe,
Berthutean orobat, bertzetan bezala,
Jakizak, ez badakik negurri badela.

III Bertze lore guziak, sorthu bezain sarri,
Arrai dantzan bizi tuk, zefir soinulari,
Hi aldiz belharpean, burua behera,
Alhargun bat iduri lurrari begira.

IV Bainan diok Jainkoak hauela landatu,
Ez dukala lekhua heronek hautatu,
Hori baizik ez bada, hoi bada guzia,
Adi nezak zer gerthuz hagon ehortzia.

V Jaunak, hire hazia hola estaltzea,
Ber'ustez bertze zenbait zaukaian eskuan,
Ezer dukan soin hori eztuk ilhubeko,
Hain guti hire hatsa lurra iresteko.

VI Ez dik naturalezak bere mila obretan
Nihon deusik agertzen egina alferretan,
Bada hainitz munduan gordea egotea,
Hire dohain guziak, errak, zertarako?

VII Horra beraz argitan zeruko xedea,
Egun etzaik zilhegi duda egitea.
Orai behar duk jakin, entzun nezak ongi,
Hire gana zertara ni nauten igorri.

VIII Hire lagunek haute beren gana deitzen,
Jelosia bera ere heier duk juntatzen.
Altza beraz luretik, ez ukha ethorkia,
Arrosaren alde duk hire tokia.

154

AN.

PILOTARIAK

Airea: *Espainolak zaizkigu Frantzian agertu*

I Espainolak zaizkigu Frantzian agertu,
Dire pilotariez goraki altxatu,
Heien joko ederrak gaitu gu harritu,
Geroztik da Espainia urgulutan sarthu.

II Frantzia zen harritzen horren ikusteaz,
Penarekin orhoituz iragan denboraz,
Non eztugu, zioen Perkainak, Azantzak (bis)
Espainia guzia benzutzen zutenak. (bis)

III Geroko denboretan, Halsu, Uztaritze,
Laguntzat arturikan hauzoan Saint Pere,
Kuraioski dohazi Espainoletarat (bis)
Bai lurrean heien ungi zapatzerat. (bis)

IV Azken urtetan dugu Hazparne ikusten
Jokarien nausiak Iruni ematen,
Kaskoina, Harriaga izen aipatua (bis)
Frantzian, Espainian nausi pasatuak. (bis)

V Gutti bat egotu da Frantzia gorderik
Bere garaitzitan pausua harturik
Iduzkien pareko hedoiaren artean (bis)
Gerorat agertzeko loria berrian (bis).

VI Espainolek diote, adio Frantzia,
Betikotz akabo duk, hire bitoria,
Guk diagu, guk orai, guzien nausia, (bis)
Ez nuen nahi, bainan aitor zak egia. (bis)

VII Meltxor du Espainiak bistarat agertzen,
Frantzesak harren kontra maiz desafiatzen,
Harren joko handia bethi da nausitzen (bis),
Espainolen loria, ungi da finkatzen. (bis)

VIII Orduan Oihartzunek boza du altxatzen,
Bere semearentzat tronu bat galdetzen,
Meltxor, Manuel, Ansa, gure iduzkiak (bis)
Penarekin zaituzte ikusten Frantziak. (bis)

IX Zeruak ez du maite nihon urgulurik,
Harren ezeztatzen da hari bethi danik,
Hala zuen agertu Dabid haur gaztea (bis)
Hartaz laster bentzutu Goliath handia. (bis).

X Espainiak ez zuen asmatzen sekulan,
Nihor sartuko zela harren primantzetan,
Meltxorren tronua du azkartu eguna (bis)
Mundu guzien kontra iraunen duena (bis).

XI Haur gazte bat du artzen Frantziak besotan,
Laster agerrarazten plaza guzietan,
Erraten diolarik, Frantzia zak altxa (bis)
Hitan duk pausatua ene esperantza (bis).

XII Sarak ere du entzun bere aitaren boza,
Bitoriaren nahiz bethetzen bihotza,
Mathieu, Jean Baptista, Norberto butari (bis)
Aise dire Espainolendarri aitzindari (bis).

XIII Jean Baptista errefiran parerik gabea,
Harren kolpeak dauka segurki kintzea,
Pilota du egiten balaren pareko (bis)
Nor da, nor gai kausitzen harren bihurtzeko? (bis)

XIV Borotra gibeletik guzien nausia,
Erreturnatik ere da xoragarria,
Bere karkuluz ditu guziak harritzen (bis)
Kolperik segurenez etsaiak bentzutzen. (bis)

XV Norberto bere butaz da harrigarria,
Xaxetako kintzetan bethi atzarria,
Harren enganatzeko ez da bidezkarik (bis)
Berak dauzka guziak begiz zarraturik. (bis)

XVI Biba, biba Frantzia, populu lehena,
Orai lehen bezala nausitzat emana,
Hiretzat dituk beraz, ohore, loria (bis)
Kanta zagun goraki, nausi da Frantzia. (bis)

1863 URRUÑA

155

Betiri OLHONDO

MARINELA

Airea: Andre Bizenta, zure buketa...

I Bizkar batean,
Haritzen pean,
Ene etxea leku ederrean,
Airezko jauregian ni nago
Zenbat ote du ate-ta leiho,
Bai eta zilho?
Zenbat arteka? ... Zirritu franko!
Udan ez nau beroak joko!

II Badut osasun
Eta ontasun...
Atun itsasoan, airean lertsun...
Donibanetik Amerikara,
Ene landak alde orotara
Hedatzen dira,
Bihi dudano badut ihara,
Sekulan ez dut eskas ura!

III Promenatzeko,
Plazer hartzeko,
Untzi bat dago ene zerbitzuko,
Norena den eta norat dohan
Ez naiz sartzen xehetasun hortan.
Khontu hoietan
Ez naiz galtzen astelegunetan,
Gutiago besta denetan.

IV Hil leihorrean
Ala urean.
Deus ez du erran nahi azkenean.
Dudalarik arima bakean,
Ehortz arrain baten sabelean,
Ez dut axola!
Marinel ona kontent da hola.
Egarri naiz, hunat botoila!

156

Jean Baptiste LARRALDE

XORIÑOIA KAIOLAN

I Zertako ni kaiolan,
Zer eginik gaizki?
Ez othe dut bada izan
Bihotz-minik aski?
Airetan ibiltzeko,
Jaunaren dohainak,
Eta ez preso egoteko,
Ditut nik hegalak.

II Beharbada nigarrez,
Barur atzodanik,
Ene haurrak ni galdez
Daude, goseturik,
Laster hetaratzeko,
Idek beraz borthak!
Maiz heien bazkatzeko
Ditut nik hegalak.

III Primaderak, oraindik,
Senti du negua,
Eta ume bat bakarrik,
Daukat lumatua;

Bertzek ez pairatzeko,
Onhets nere othoitzak!
Hekien berotzeko
Ditut nik hegalak.

IV Alhargun bat naizela
Ez dautzuet erran,
Helas! hil zitzaiala
Laguna segadan!
Harren mina arintzeko,
Eta eginbideak
Bienak bethetzeko
Ditut nik hegalak.

V Iragan arratsean,
Egin dut nik amets
Eta umez dohanean,
Amak zer ez sinhets!
Ohatzetik hurbilxko
Zabiltzala etsaiak,
Ai! lanjera aitzintzeko
Ditut nik hegalak!

VI Baina berantegi den
Nago beldurturik,
Nihon ez dut aditzen
Auhon minik baizik,
Ez eta dudatzeko,
Galdu ditut haurrak!
Orai, nik deusetako
Ez ditut hegalak.

VII Doluz errebel, Jauna,
Hasi naiz mintzatzen,
Bai, nere azken oreana,
Hari da hurbiltzen,
Zerurat airatzeko,
Umentzat alferrak!
Zaizkit baliatuko
Agian hegalak.

157

Jean Martin HIRIBARREN

ADISKIDE MIN BATEN ORHOITZAPENAK

I Adiskiderik maitena
Ez zaitut ez ahanzten,
Ezagunik hobereana
Maiz zutaz naiz orhoitzen.

II Dudan erregret samina
Ez du deusek ezitzen,
Ez du nere bihotz mina,
Denborak eramaten.

III Egun oroz goizgoizetik
Heldu zaizkit gogora,
Arratsak ez daut gogotik
Khentzen zure figura.

IV Orhoituen naiz sekulan
Phartidako egunaz,
Bai, nere bizi guzian,
Doluko egun hartaz.

V Nola ni besarkaturik
Zinazkidan mintzatu,
Nola, begiak bustirik
Ginen biak urrundu.

VI Geroztik hatsgorapenka
Ardura nagolarik,
Nigarra doha punpilka
Ene begietarik.

VII Zurekin toki orotan
Ni alegera nintzen,
Ni triste naiz guzietan
Zeren zu falta zaren.

VIII Ibili naiz ald'orotan
Zure berrien galdez,
Bainan belas! alferretan,
Deus ez dut jakin funtsez.

IX Ah! hegastinen ahala
Nere oinek balute
Zure ganat berehala
Hegaldaka nindaite.

X Bai, bainan ez dut indarra
Desiren segitzeko,
Apartatu zare sobra
Ni zutarat heltzeko.

XI Balin baduzu ahala,
Zuk konsola nezazu;
Bederen bizi zarella
Gaztia dezadazu.

XII Ene penak arte huntan
Ez dire jabalduko,
Nere grinek hainizetan
Naute tormentatuko.

158

AN. apeza "Donapaleu ondokoa"

MONTEBIDEORAT PHARTITZEA

*Tous les discours sont des sottises
Partant d'un homme sans éclat;
Ce seraient paroles exquisées
si c'était un grand qui parlât.*

(Molière)

I Aspaldiko mendetan urrun ospatua,
Mihi guziez bardin gora altxatua,
Nere aiten etxea, oi hau da zoria!
Zergatik ikusten haut bada eroria?

II Zer bilhakatu dire hanbat handitasun?
Zer zorigaitzez galdu hainbertze ontasun?
Izanekin omenak, ongi ethorriak,
Itzali dire betan, suntsitu guziak.

III Aita guziz maite bat gogoia ilhunik,
Ama bat nigarretan dakuskit bethi nik,
Ene arimarentzat zer kolpe zorrotza!
Ikusgarri gogorak zaurtzen zaut bihotza.

IV Adiskiderik ez da, ai hau da lastima!
Agertzen gozatzera hekien arima.
Ordean othe daike seme bat deskantsu?
Ez: barnean eman daut maithaguneak su.

V Etxadi eroria nahi dut altxatu,
Burrasoen nigarrak behar tut xukatu,
Desterratu behar naiz, banoha, oi! norat?
Eskal herri maitetik Montebideorat.

VI Ordean zer gudu zait altxatzen barnean,
Aita amak uztera banihoanean?
Maite tut, maite naute; oi hau bihotz mina!
Adio, erran behar, berexete samina!

VII Ai, ordu ilhun huntan, zer ez dut gogatzten?
Mintzatu nahi banaiz, hitza zait baratzen,

Lagunduko othe nau aldeko zoriak,
Berriz ikustekotzat nik Eskal herriak.

VIII Nere aita maitea, ama samurrena,
Adio, orai noha, joa da orena,
Agian etzaituzte ene hil berriak
Hobirat egotziko altxatu nahiak.

IX Lur atze bat badaut beretzen bihotza,
Gatzaturik bekio odol hotza.
Zango, besotan geldi ez bekit indarrrik,
Eskergabeak ez du, ez bizi beharrik.

X Itsaso latzagarria, ematzak uhinak,
Buraso gaxo hauien goza bihotz-minak,
Urrun hakit ekhaitza, hik, haize ezta,
Hel-zadak dohatsuki naraman untzia.

XI O Jainko amultsua, zuk entzun nezazu,
Ume bihotz samur bat, othoi, lagun zazu,
Aintzinean zabilzkit, oi nere zuzia!
Maite ditudanentzat naukazun bizia.

159

Baptiste CURET (Donibane Lohitzune)

KANTA BERRIA

HAUR HATZEMAN BATEN GAINEAN

Aire huntan: *Lo, lo...*

I. Nigarretan sortu naiz nigarrez hiltzeko,
Ez ordean lurrean luze bizitzeko,
Munduak izanen du hainitz erraiteko,
Aita ama maiteak zuen biendako.

II. Aita ama maiteak mundurat zertako
Eman izan nauzuen zorigaitz huntako,
Nik ez nuen hobenik hola tratatzeko,
Federik eman gabe abandonatzeko.

III. Mundurat sortu eta hirur oren gabe
Berro baten hegian gaxua eman naute,
Bakarrik hemen nago xoriak haurride,
Ene konpainiatzen kantuz hari dire.

IV. Ene sortea baita, pena eman garri
Auhenetan bainago bildotx bat iduri,
Horra dut sehaskatzat zerua estalki,
Norena ere naizen Jainkoak badaki.

V. Lur hotzaren gainean sortu naizeneko,
Jaberik gabe hemen ni ez naiz biziko.
Hiltzerat heldu banaiz ez naiz zerurako,
Federik ez duenak ez da han sartuko.

VI. Goizeko alban naute ni hemen pausatu
Geroztik iduskia gainetik pausatu,
Ez ahal naute behar norbeitetik altxatu,
Aitarik ez dut eta amak nau etxatu.

VII. Ama bihotz gabea Aita zu iduri,
Zori gaitzez nauzue eman munduari,
Barka zozute Jauna hoben handi hori,
Othoitz eginen zaitut orai eta bethi.

VIII. Iduzkia zenean zeruan aphaltu
Andere gazte bat zait aldean pasatu,
Aingeru bat nintzela zenean ohartu
Amultsuki ninduen besoetan hartu.

IX. Zato enekin, zato aingeru maitea,
Dolugarri liteke zu hemen hiltzea,
Bozkario enetzat zatoz jabetzea,
Erakutsiko zaitut zeruko bidea.

X. Desagertu zenetik biharamunean
Jauna deitu izandu adin ederrean,
Haurra orai ez dago deusen inbidian,
Aingeruekin dago zeruko lorian.

160

DARRIGOL

HESKUALDUN GAZTIA SOLDADO JOHAN

- I. Aita ama maitiak behar niz urrundu,
Frantziak gaztierri oihu bat egin du,
Laguntzaren gutarik orai beharra du,
Heskualdun bat lasterrez bere ukhanen du.
- II. Zuekin erabili egun gozuenak,
Ez ditut ahantziren ukhan tudan mainak,
Nahi bezin urrundik, aita ama onak,
Zuentzat erranen tut othoitz hoberenak.
- III. Zer dolhamen handiek nauten hala zaurtzen.
Ene haurbide onak orai ditut uzten,
Zuekilan nintuen zorionak hartzen
Eta egun guziak laburzki igaiten.
- IV. Utziko duta bada ene sor tokia?
Hemen urthe anitez ukhan dut bakia,
Hau izanen da bethi herri bat maitia,
Ene bihotzarentzat lekhu hautetsia.
- V. Hegaldatu denian xoria bolatzen,
Orduan da orduan biziak gozatzen,
Nik nuen harren pare hasten ezagutzen
Lurreko izaitia enetako zer zen.
- VI. Halere nuzu bethi huntaz orhoituko
Ene odola dela Frantziaren dako,
Hura mintzatu eta dizut sinhetsiko,
Ez nuzu lotsaturen etxetik jauteko.(sic)
- VII. Besarka zitzatedan zatozte aldera,
Junta gaiten bihotzez, noha urruntzera,
Toki hautarat gogoaz zuen ikhustera.
Jinen nuzu segurki maitiak ardura.
- VIII. Jainkoak hedaturik atxikiz hegala
Zuen gorputz maitiak begira ditzala,
Untzi bat ur ezian johan den bezala,
Hala zuen egunak luzaz dohatzila.

161

Martin GUILBEAU

NERE MAITERENA

Airea: Adios, izar ederra, adios izarra.

- I. Izar bat aspaldian nik dut adoratzen,
Hark bakharrik ni baithan du erreginatzen,
Hura dut xoilki munduan maitatzen,
Hilik ez dut axola ez badut neretzen.
- II. Erregeren gorhetan ez da ez lorerik,
Munduko gaztelutan ez aldiz lilirik,
Edertasuna urbil dezakenik,
Ez du iduzki pean ez bere parerik.
- III. Haren gorputz lirainak arras nau xoratzen,
Haren begi eztiak bihotza xarmatzen;
Ederragorik ez dut ezagutzen,
Aingeru bat daiteke, ez dut, ez, dudatzen.
- IV. Oi, lore xarmangarri! Oi lore samurra!
Zu zare, zu, munduko izarren izarra.
Distia zazu aingeru ederra.
Zu zaitut maitaturen, oi maite bakharra!
- V. Gizona desterruan ez da, ez, zahartzen,
Sor-herriaren minak laster du bentzutzen.
Zu gabe ni naiz orobat kausitzen,
Hilen naiz ez bazare nitaz urrikaltzen.
- VI. Nere ametsak zutaz dirade ardura,
Atzar-eta zu eskas, oi nere hestura!
Zurekin segur ninteko goihena,
Ez nazazu utz, othoi, xangrinez hiltzera.
- VII. Gauaz hala egunaz bethi gogoetan,
Ardura niagozu kantuz nigarretan,
Zutaz orhoituz nere planuetan
Zure izen ezta daukat ezpainetan.
- VIII. Primaderako lili parerik gabea!
Noiz izanen zirade bihotzez nere,
Erran dautazu, oi izar maitea,
Ni zurea bezala zarella nere.
- IX. Ez nauzula, segur naiz, penetan utziko.
Sobera amodio baitut zuretako.
Nik hartu zaitut nere bihotzeko,
Hil arteraino zaitut bethi maithatuko.
- X. Oi lili xarmangarri! Oi aingeru ona!
Zu zare zu bakharrik ene zoriona.
Erradautazu izar ederrena,
Ni naizela munduan zure maitherena.

162

Martin GUILBEAU

ADIOS NERE MAITEARI

I. Adio, nere izarra!
Adio, maite bakharra!
Zu orai uztia bethiko,
Iduritzen zait hiltzia,
Neke da bainan sekulako,
Adio, nere maitia!...

II. Aingeru zortheatua!
Izar benedikatua!
Zu zaitut nik behin bethiko
Egun batez adoratu;
Ene bihotzetik kentzeko,
Sobera zaitut maitatu.

III. Zure gorputz dohatuak,
Begitarte amultsuak,
Ene bihotza du ondikotz!
Bere xarmez liluratu,
Dohakabea sekulakotz,
Zugatik naiz enganatu!

IV. Amodioak nau galdu,
Sobera zaitut maitatu,
Ez naiz zu gabe ez ni luzaz
Mundu hunetan biziko.
Zure eskasak laster penaz
Bizia deraut kenduko.

V. Zu gatik lili ederra,
Ixurtzen dizut nigarra,
Halarik ere progetxurik,

Ez dut hainitz esperantza,
Neretzat ez da zorionik.
Hau da bada zorthe latza!

VI. Oi zorthe dohakabea!
Bihotz-min pare gabea,
Ez othe da bada lastima,
Izar bat hola galtzea,
Orhoitzapen horrek nerama,
Mundutik, nere maitea!

VII. Zerua eder denean
Trixterik nago etxean!
Zer dudan zugatik sofritzen,
Oi, maitea, bazinaki!
Ez banauzu ere maitatzen,
Pena zinduke segurki.

VIII. Oi, lili xarmagarria!
Neke zait zure uztia,
Mundu huntan zure pareko
Ez dut nik nihon aurkitzen,
Ez du segur ederragorik
Ez iduzkiak argitzen.

IX. Adios, beraz, maitea!
Izar parerik gabea,
Adio, beraz sekulako!
Zeruetako amea,
Ene bihotza zuretako,
Adios nere maitea!

163

Jean Baptiste LARRALDE

LANA

I. Zoin nahi herronketan
Garen hemen bizi,
Gabezian herrestan
Edo burjes handi
Maitha dezagun lana,
Ezta edergailurik
Harrek gisa gizona
Aphaintzen duenik.

II. Egia horren frogak
Galdetzen baitutzu,
Utzirik langileak,
Alferra adi zazu:

Hunek berak aithatzen
Du gauzaren ona,
Nahiz den ikharatzen
Aiphatzean lana.

III. Istoriak badakhar
Zenbait printze gazte
Zirela bazkaltuko,
Noizbait, Erroma parte;
Nola aihenjusak baitu
Bakhan hitza labur,
Luze ziren mintzatu
Xuxen edo makhur.

IV. Zituztenean hustu
 Beren hitz-untziak,
 Eta legez higatu
 Erran-gai guziak,
 Oraindik ixiltzerat
 Uzkur, ezin bertzez
 Jin ziren mintzatzerat
 Beren emazteez.

V. Berea gozatzeko
 Bakotxa etzen nagi,
 Hedoiak heiendako
 Ziren aphalegi;
 Nahi baitzuten jakin
 Zoin zen hoberena,
 Gan ziren elkharrekin
 Beren andren gana.

VI. Guziak, bai, guziak,
 Boz atsegineri,
 Zauden xoro handiak
 Jainkosak iduri;

Bakharrik Lukrezia,
 Sehien aldean,
 Heien kide jarria,
 Hari zen lanean.

VII. Beraz, Lukreziari
 Omen hoberena,
 Esker bere lanari
 Izan zen emana.
 Oxala ixtoria
 Hor balitz gelditu.
 Laster etsai gaixtoa
 Ez balitz jelostu!

VIII. Hain bertze mende dire
 Geroztik iragan!
 Hanbat gauza badire
 Galduak ibaian!
 Baina lanaren trazak
 Deusek ez itzaltzen,
 Alfer zaizkola urtheak
 Gainetik pasatzen.

1864 SARA

164

Jean Baptiste LARRALDE

MUTHIL-ZAHARRA

Aire ezagutua.

I Bakharrik bizitzeaz unhatua franko
 Xede zerbait banuen lagun bat hartzeko
 Bainan orai andreak zenbat ez du behar!
 Ez, ez, nahiago dut egon muthil-zahar.

II Herrunka guzietan estatua gaindi,
 Egun oroz baitugu mila moda berri,
 Hoinbertze gasturekin, nola menaian sar?
 Ez, ez, nahiago dut egon muthil-zahar.

III Grisetek utzi dute mokanes pullita,
 Ustez hobeki dohan lore-dun boneta,
 Zer! boneta buruan neskak bat nik har!
 Ez, ez, nahiago dut egon muthil-zahar.

IV Sederian sarthuak, printzesak iduri,
 Fu! egiten diote soin telapintari,
 Horrela uste dute zenbat xoro lokhar,
 Ni ez-bainaiz logale, nago muthil-zahar.

V Handiek badakite musikan kantatzen,
 Bainan badakitea botoin baten lotzen?
 Dendari jornaletan zenbat erre, zilhar!
 Ez, ez, nahiago dut egon muthil-zahar.

VI Mirail baten aldean, goizetik, josiak,
 Han dituzte miratzen aurkhintza guziak;

Egun gauza bat eskas, bertze zerbait bihar,
 Nor ez da lotsatuko? Gauden muthil-zahar.

VII Zenbat senhar munduan, gaizki gerthatuak,
 Lephoraino sasian direnak sarthuak!
 Orai egiten dute berantegi nigar,
 Hanbat gaixto berentzat, egon muthil-zahar.

VIII Ezkontzako bideak, legun eta garbi,
 Urrundik begiraturuz, du belus iduri,
 Bainan da hurbiletik, dena harri, bizkar,
 Nola bainaiz lausuzko, nago muthil-zahar.

IX Segur da, deithuko nau, batek galai hotza,
 Behar bada bertzeak harpagon zikhoitza,
 Laidoen jasaiteko senti baitut indar,
 Askoz nahiago dut egon muthil-zahar.

X Oi! hauxe da mendea gizon gaztendako!
 Orai andreak dire jaunen larrutzeko,
 Ez othe da, diozu, xuhur zenbait bakhar?
 Ez nezake zin egin, gauden muthil-zahar.

XI Hobeago zuretzat othe da zoria!
 Zuri nago, neskak, goregi jarria?
 Utzatu sobraniak, izanen da senhar,
 Non ez egonen zare bortxaz neska-zahar.

165

M.A. SALABERRI

SOLFERINOKO ITSUA

Airea: Bard'arratsean ametsetarik boz bat entzun dut ederrik.

I Harmen hartzera deitu ninduen gazterik zorte etsaiak,
Urrundu nintzen, herrialderat itzuliz usu begiak,
Itzuliz usu begiak.

II Zorigaitzean baitut ikusi Solferinoko hegia!
Alferretan dut geroztik deitzen iguzkiaren argia,
Iguzkiaren argia.

III Nihoiz enetzat ez da jaikiren goizeko argi ederra,
Zeru gainetik nihoiz enetzat dirdiraturen izarra,
Dirdiraturen izarra.

IV Bethiko gaua (gau lazgarria!) begietara zait jautsi,
Ene herria, ene lagunak nihoiz ez behar ikusi...!
Nihoiz ez behar ikusi!

V Ene amaren begi samurrak bethiko zaizkit estali,
Maiteñoaren begithartea behin bethiko itzali...
Behin bethiko itzali!

VI Ez aipha niri landa hegitan sortzen den lili ederra,
Othoi ez aipha ur axalean arinik dohan ainhara,
Arinik dohan ainhara.

VII Larrainetako haritz, gaztaina, mendietako ithurri,
Horiek oro enetzat dire amets histu bat iduri,
Amets histu bat iduri.

VIII Herriko bestan, gazte lagunak kantuz plazara dohazi,
Eta ni beltzik, etxe zokhoan, irri egiten ahantzi!
Irri egiten ahantzi.

IX Oraino gazte,gogoz ez hoztu, eta biziak lotsatzen...
Dohabea! zer egingen dut Jaunak ez banau laguntzen?
Jaunak ez banau laguntzen?

X Ai aski hola! Jainkoa, barka! begira zure haurrari,
Kontsolamendu zerbait emozu, noizbait duzun urrikari,
Duzun noizbait urrikari.

166

Jean-MARTIN HIRIBARREN "Menditarra"

GANETXIKI IKHAZKINA ETA KATTALIN MAINGUA EDO BI MAITEREN ARTEKO AMODIOZKO SOLASAK

Airea: *Lantiruri, lantirula.*

Kattalinek

I Uztar hunat, uztar harat, jauzikoetan Ganetxiki, (berriz)
Plazan denean dantzan hari zoin den eder bazinaki, (berriz)
Bi matheletan zinetzozke eman bi musu segurki (berriz).

Ganetxikik

II Mothoa xut, ikhusten dut ene bihotzeko Kattalin,
Xingilka hurbiltzen plazara... Zer zorion! Zer atsegin!
Zeruko Jainkoak ez balu oraikoan maingu egin.

Kattalinek

III Hara non den Ganetxiki, haretzek du ene bihotza.
Ez dakit bada nik zertako erraten dioten beltza;
Segurki bera bezain xuri ez du egiten ikhatza.

Ganetxikik

IV Begiaz klisk, niri kheinu, Kattalin urrundik hari da.
begiratzean iduri du haren begiak simista,
Ederragorik nork zukeien izan ez balu gorrasta.

Kattalinek

V Agur, agur, Ganetxiki, ai zoin ederki zaren hola!
Nahiz ez duzun xuriegi egungoz athorra fola,
Atsegin guri egiteko, emazu dantza kakola.

Ganetxikik

VI Ai, ene maite pollita, gaitezin biak orai dantza,
Egizu aintzinerat jauzi, gero enekin balantza,
Ez duzu arinik jauzteko, estekatu behar gantza.

Kattalinek

VII Dantza gaiten, Ganetxiki, iduritzen zaizkit izarra!
Herrian parerik ez duzu, oi ene senhar beharra!
Sar zazu belhaun handi hori, bai eta xuxen bizkarra.

Ganetxikik

VIII Zer zoriona guretzat, lastozko jauregi batean!
Ni errege, zu erregina, laratzaren aitzinean!
Ni xirolarekin, zu kantuz, biek errepikatzean!

Kattalinek

IX Bi biak gira biziko, xoriak baino arinago,
Zerbait ekartzen badautazu, eltzearen bethetzeko,
Hori ez ahantz, Ganetxiki, beude kantuak geroko.

167

Jean Martin HIRIBARREN

HAUZILARIA

Un méchant accommodement vaut mieux qu'un bon procès

Airea: Goizian goiz jeki eta...

I Orratza bezain mehe oin-buru egina,
Saientzat xurgatzeko ez ninteke ona,
Ene zangar urthuek xotxa dirurite,
Deus onik egiteko surat behar dute.

II Khailurik baizik ez dut, khailua hirrikan,
Bizkarretik hezurra hari zait sistakan,
Ez dut zer jan, zer edan, bainan banu ere,
Beldur naiz ez nezaken har ahal deusere.

III Lehen ez naiz gozatu nuelarik gauza,
Beharrak deraut orai hedatzen murlaza.
Gaizki naiz, hala ere nihork urrikari.
Hartzak ez dio zorrik amen semeari!

IV Ezagut ordu nuen hisiaren lana,
Bainan soka lephotik sobra dut emana.
Ez naiz on bizitzeko, ez eta hiltzeko,
Ez on mundu huntako, ez eta bertzeko.

V Hisiaren hisia, egik noizbait leher!
Hobeki lihoazkek golkhoan sei musker!
Oi, ni banaiz, ez, ehaiz! gogoeta tzarrak
Non gordetzen zintuzten zaurien laharrek?

VI Argi tzarren ondotik ez zuen sesurik,
Ehun gau naramatzana nihoiz gabe lorik,
Bidetako harriak ditut mintzarazi,
Legetako gizonak gauaz zurirazi.

VII Abiadak atheko zuen ithurria,
Lothu zitzaion laster ondotik hesia,
Emanez bethi egur suaren kharrari,
Heldeak lothu zaizko ontasan denari.

VIII Hauziak bazituen itxura hautuak,
Omen nituen argi ezin ukhatuak,
Bainan egun guzian behar nuen diru,
Bilduz etxean edo hauzotan inguru.

IX Oi, zer dudan ikusi, zer dudan pairatu,
Hauzi baten goibela beharrez xuritu!
Gaua gau da egotu, eta ni gaizoa,
Gelditu izan gabe errotan oloa.

X Erro, erro, erroa, dena ni bezala!
Bidetako zakhurak jarrek dakizkola!
Su, harri, ihurtzuri, gaitzik lazkorrenak
Jasankorrako dire, ezen hauzi lanak.

XI Ahanzten da Jainkoa, herra emendatzen,
Gezurak mentan dire, lekhukoak saltzen,
Ez da deus sakraturik, zilhoak non nahi,
Hauziaren ondarra hartzedunik bahi.

XII Heldu bazait makhila piko haukin sari,
Berauk, hauzilaria, bizkar hezurriari:
Lagun uste hintzaket, utziz umatua,
Hauzitarat gateko bahintz errotua.

168

PIERRESTEGUY "Maulekoa"

ADISKIDEKIN BAZKAL-ARTEAN

I Miresten dire Printzeak
Baroinak eta Kondeak
Gizon aiphatu nobleak,
Egun ez dire gure pareko
Haiek ez bertze jendeak,
Oi, ene adiskideak!
Ditugun bota gordeak
Barneko bila pherdeak.

II Zuri, koziner andere,
Osasun, diru, ohore
Munduan ez duzu pare,
Zure eskutik jan ginirozke.
Akherren adarrak ere
Herrestorik utzi gabe
Plataren zolan deus ere,
Obrak lekhuko hor dire.

III Birazkatuz ohoreak,
Zuzenki ditu bereak,
Holako prestatzaileak
Gure progotxu, zure loria
Iduri dugu lezeak
Phalangak hartu goseak
Husten ditugu betheak,
Untzi, baxera, eltzeak.

IV Konbeni zaiku bozteak,
Damu litake uztea,
Holako phesta maitea,
Alegeraki dugun hitzeman
Engaia gure fedea
Berriz biltzeko xedea
Ahantzi-gabe bidea
Dukegunean galdea.

169

ZOHIOIA BERRI

HIRIARTHEN LEHENBIZIKO GARAITIA

Hil, hil aldia dugu gauden mendekari
Dechepare (Iberia)

Airea: Perkainen kantua

I Urreaz gosetuak, Erroma hiritik,
Etsaiak jin zaizkigu, begiak uherik,
Arthaldetan otsoa nola den ikhusi!
Gure gainera bardin zorrotzik erori. (bis)

II Hiriak erre tuzte, bazterrak funditu,
Harmak gure odolaz maizegi gorritu,
Haika, herriak haika, harmatuz haizkorez
Urre biltzaile hoiek anbilka hil hotzez (bis).

III Hara, hara han dira, harmez estalirik,
Milaka janzten dira mendi gerendetik,
Goazen, goazen, gudura ximixtak iduri, }
Hil, hil, aldia dugu, garen mendekari. } (bis)

IV Jo hor, jo hemen eta alde guzietan,
Leher eta sarraska haizkor azpitan,
Zeha, zeha, ostika, burdin ekarleak, }
Egun suntsi detzagun odol ixurleak. } (bis)

V Jo, jo, nehoi barka eztiozozue,
Heriotza eskuez erein ezazue,
Jo, jo, bethi, jadanik urratu dirade }
Iziturik iheska abiatzen dire. } (bis)

VI Lasterka hor dohatzi, zaldunak jarraiki,
Matxeta zorrotzekin buruak ebaki.
Non zaizte erromatar agintari onak?
Non gure herritarren espantu gizonak? } (bis)

VII Non dire zuen oste atzo hiri ederrak!
Non ezin garaituzko gerlari zaharrak!
Han dira ordakian odolez igeri, }
Bizirik ezta nehor bakar bat ageri. } (bis)

VIII Hain ongi ibilirik zazpi oren huntan
Unhatuak daude erredol azpitan,
Bihar goizik, belek hila dute joko, }
Oste eder hetarik bat ez higituko. } (bis)

170

AN.

BURDIN-BIDEA

Airea: Galtxagorri zaharra ez dago geldirik

I Galtxagorri zaharra ez dago geldirik,
Burrunbaka dabila lezetik ilkhirik,
Ehun lekhoa bide hats batez egiten,
Nahiz ez dion nihork zaldirik ematen.

II Sua jari burutik, ez diteke geldi,
Herratua dabila erreketan gaindi,
Ez diruri jendea, mamu bat da beltza,
Bizkarretik hedoez dariona hatsa.

III Orga-lasterretan du gorphutza hedatzen,
Luzean ehun urrats dituela hartzen,
Egiten du ziztua nihork ez bezala,
Ageri ifernutik duela xirola.

IV Ikusi uste dute nonbait leherturik,
Bethi xuxen gateko ez baitu begirik,
Nahiz dituen alde bere langileak,
Ostatu guzietan husu edaleak.

V Bainan badaki orduz bere lan egiten,
Ogi landan iraka artez eragiten,
Liluratzen du urrez behar hiratua,
Usainerat halatzen sudur mutxitua.

VI Xoria bezain arin dabilka jendea,
Oro laster beharra delakotz mendea,
Irakutsi hurren du egiten bazkari,
Hurrupatuz tragoan bordeles edari.

VII Amura hedatu du langileen biderat,
Ez dadila nihor gau jauzika lanerat,
Hurbiltzen den lilia burdin-bidetarik
Bihurtzen da etxerat errainak hautsirik.

VIII Bidetan bada diru, irabazi handi,
Ezkontzaz ere badu mutxurdinak gaindi,
Bainan irabaziez asko ezin bizi,
Mutxurdinen senharrek zorrak ezin izi.

IX Ehun etxin ez aski tripen asetzeko,
Pasaiko hatuak nonbait pagatzeko,
Ez bada gehiago urdinik hertzetan,
Berratzen hari gaitzak joko goibeletan.

X Lau soinen andanetan andreak kofointzen,
Zortzi zapaten sariz oinek dirdirutzen,
Atzea dabilala beharrik zikhin,
Egarri zirtzilpean, mihitik ahurin.

XI Sorthuz geroz iduri larretan egona,
Ez daki igandetan non den bide ona,
Holakotarik dire, gizon itxuretan,
Sobera luketenak hatsa burdinetan.

XII Alferkeria dute berthute lehena,
Zorrari ihestea naski bigarrena,
Ez dute ezagutzen nihongo nausirik,
Etzen Eskal-Herrian holako motarik.

XIII Holako egitetik ama geldi bedi,
Galtxorrik behar du izurritez erdi! (bis)

171

Martin ARRUPE

XOXO MOKHO BELTXA

Airea: Nigar marrasketan...

I Munduan guziak
Ez gare higualak,
Jaunari graziak.
Baditugu hegalak,
Bainan ezin ibil
Orai ni airean,
Hemen nago, humel,
Ene ohatzean.

II Gazte eta libro,
Egon nintekelarik,
Ez nuen oraino
Halako lan beharrik;
Bainan ez sinhesten
Amaren errana,
Berak ongi lehen
Frogatu zuena.

III Mokho hori hautan
Fidaturikan sobra,
Orai urrikitan
Egin ondoan obra,
Banaki bederen,
Bi, hirur, lauretan,
Parte duna zoin den,
Ene arrolzetan.

IV Lehen zoin lehenka,
Heldu ziren guziak,
Ni ganik iheska,
Orai dire hasiak,
Xoxo mokho beltza,
Ni naiz orai hula,
Munduan neskatzka
Zenbait den bezala.

172

Jean DUVOISIN

STABAT MATER

I Jesus ona gurutzean
Itzaturik ikustean,
Ama zagon nigarrez.

II Oinhazerik gaitzenean,
Lantzaz joa bihotzean,
Ethendu zen auhenez.

III Zenbat ahal zen samina,
Ama saindu haren mina,
Atsekabez bethea!

IV Han zagoen auhenetan,
Nigar eta hesturetan
Ikustean semea.

V Hanbateko oinhazean,
Ama haren ikustean,
Nork ez duke nigarrik?

VI Ama! semei begiratzuz,
Nor ez egon minez, doluz,
Nigarretan urthurik?

VII Ikusi du azotatzen,
Gure gatik estiratzen,
Bere seme eztia.

VIII Ikusi du hagaratzen,
Herioak akhabatzen,
Zeru lurrez utzia.

IX Amodio ithurria,
Emadazut min bizia,
Pairatzeko zurekin.

X Jainkoaren gogokotzat,
Amodioz Jesusentzat
Egizu erre nadin.

XI Sar dizazut bihotzean,
Jesus onak gurutzean
Hartu duen zauria.

XII Zure seme zaurthuaren
Ene gatik jasan penen
Emadazut erdia.

XIII Hil arteo, haren minez,
Deithoratzen nigar zinez,
Nagon bethi zurekin.

XIV Nahi nuke zurekilan
Habearen itzalean
Nere goitza egin.

XV Birjinarik ederrena,
Onhets zazu ene pena,
Zurearekin baltsan.

XVI Jaun onaren gurutzea,
Harek jasan oinhazea,
Iduk bezat gogotan.

XVII Haren zauriz zaurt banedi
Gurutzeaz ere hordi,
Zure semea gatik.

XVIII Ama ona, zain nazazu,
Zure haurra beira zazu,
Ifernuko garretik.

XIX Egidazu gurutzeaz
Semearen pairamenaz
Hazkartzeko grazia.

XX Hiltzen naizen oreneko,
Emadazut arimako
Aingeruen gloria.



173

ETCHEPARE

NIGARRA DUDALA BIHOTZETIK

I Nigarra dudala bihotzetik
Partizera noha herritik,
Etzeitut, maitia, aldeñotik
Gehiago ikusiko nik.
Ai! hau da nere gozogabea...
Ai! eta hau dut oinhazea...
Lehortzera dohakit barnea...
Adios, adios, maitea!

II Zorteak herritik banarama,
Zure ganik urrun, oi ama!
Jainkoak bihur nezan zu gana,
Otoitzazu, othoitz zuk Jauna.
Ai! hau da nere gozogabea...
Ai! ordu dolorez bethea...
Goan behar... ez haizu egotea...
Adios, oi ama maitea!

III Jadanik tronpetak urrunera,
Burruban alde orotara,
Frantsesa deitzen du harmetara!
Goazin beraz, bego nigarra.
Oi Eskualduna, emak bihotzez,
Ez lotsa etsaiaren lantzez,
Jozak Alamana heriotzez,
Hamarren aski duk bi Frantses!

IV Gudua soinaten du tronpetak...
Jaiki! jaiki! har baionetak!
Bolborak erhotzen tu Frantsesak...
Lurrera dohaz etsai metak.
Oi Eskualduna, emak bihotza,
Ez lotsa Tyroliar gaitzez,
Hekien jotzeko heriotzez,
Emotek baioneta trebes!

V Hauxe da, hauxe egun ederra!
Bitorios frantses bandera,
Orai da abian itzultzera,
Iduri zeruko izarra.
Oi! hau da egun pare gabea!
Heldu zait Enperadorea,
Emaiten deraut gurutzea.
Plazerez beldur naiz hiltzea.

VI Alpetako mendiak behera,
Oro jauts gaiten alegera,
Neretzat, maitea, ez ikara,
Heldu naiz, heldu Frantziara.
Oi aita, ama, herri maitea,
Eta zu, ahantzigabea,
Nere arimaren jabea,
Hegalka daramat bidea.

(Etchepare, blessé de Magenta)

174

Joanes ETCHETO

JAUN ANDRE GAIEN ARTEKO DIALOGA

Airea: *Jaun gaia...*

I Zure eta neure seinaleen xedea,
Duzu segur elkarri esku ematea,
Dugun beraz medita bezalaren hartzea
Eta dugun hitzetan agertu fedea.

II Etsai enganakorak asko du asmatzen,
Errekontr'onetarik gaitu maiz urruntzen,
Gure leialtasuna ohi du frogatzen.
Jauna gurekin bada errex da benzutzen.

III Tugun etsaiaren boz maleziosari
Kasurik egin gabe, hotsak aferari,
Hainitzek ohi dute gerorat egorri.
Luzamenak ez diote gauz'onik ekharri.

IV Aithor dut jaunak ez du geroa agindu,
Eta oraiaz behar gare baliatu,
Bainan ez dugu behar sobera presatu,
Gauzak ongi ethorritz gaiten abiatu.

V Gauzak ethortzen dire ongitto bilhatuz,
Baiet'ere gozaten ongi merezitzuz.
Deusik ez dugu galtzen oro baliatuz,
Ez eta irabazten gerorat luzatuz.

VI Ikusten dut luzamen horrek zaituela
Xokhatzen eta horren aiphamena bera
Duzula higuin, nola haur onak minena,
Gauzak konplitu bitez ontsa den bezala.

175

Joanes ETCHETO

LLILURA BANAITEKE

Airea: Espainian jauregiak

I Lilura banaiteke zenbait aldiz bizian,
Iragan egunean eman dut loterian,
Eta neure bileta nehork guti ustean
Ona izan daiteke: zer dakit nik finean!

II Bai aithortu behar dut ez dela hau segura,
Bainan gauza badaite eta hori aski da.
Niri hori ematean irriz hasi dira,
Bai eta erran naute: hau duzu hoberena.

III Bizkitartean loteria banu neuretzat,
Bai erosiren nuke jauregi bat behintzat,
Edo bederen etxetiar lekhu gizen bat,
Hantxe irabazteko komeni den bezenbat.

IV Kantoinamendu huntan bai herri hau maite dut,
Eta bertzalde dena Justinekin lakhet dut.
Neure manamenduan jendeak izamina tut,
Hau zein liluragarri den nola erranen dut!

V Bai, manatze horretan oraino berri nuzu,
Ez naiz izanen fier´ ez eta urguilutsu
Zer izan naizen atzo bai orhoituren nuzu,
Iraganaren bistan, ezti izanen nuzu.

VI Egia erraiteko maithatu dut handizki,
Etxetiar lekhu hau arthaturen dut funski,
Etxeko jaun egina biziren naiz hobeki,
Gauza guziak ethorriren zaizkit nasaiki.

VII Orduan ikusiren ditut neure borthetan
Oiloak xitoekin kurritzen oro betan,
Neure eskuz haziren ditut egun orotan,
Begi kolpe ederra da hori etxeetan.

VIII Atsegin izanen dut ikusteaz ethortzen,
Ardiak, xikhiroak morrekaz heian sartzen,
Behorrek eta migak establiarat biltzen.
Hunelako bonurra ez da usu gerhatzen.

IX Bittor ttikia hupana abrera sehiatz,
Bide egin araziren du bere zaldiaz.
Lorios izanen naiz, erraiten dut egiaz,
Hala nola baita errege bere tronuz.

X Aberats izanen naiz eta segurki ere,
Amoina eginen dut bethi baratu gabe,
Gero neure bistan ixilik erranen dute:
Hau duzu Mur de Bittor xapelak khendu bite.

XI Nahiz hau hunkigarri den ikusten begiez,
Enganatu naiteke esperantza falsoez
Neure nahia finkatua zen bilet´batez.
Jakitera nihuazu galdu dudana bai al´ez.

XII Neure bileta ez dut ikusten gehiago,
Galdu izan behar dut egia erraiteko.
Malurra segura da, ez duket dudatzeko.
Bai adios erran behar diot sekulako.

176

Joanes ETCHETO

MUNDUKO BILTZARRE JENERALAREN GAINEAN

Airea: Lilura banaiteke...

I Baduzu izate bat orotako gorena,
Lur huntako arboleak erakusten dutena,
Xoriek bere kantez ohoratzen dutena,
Eta gizonak bakharrrik ukhatzen dubena.

II Elephantak goizetan salutatzan du hori,
Eta eman izan da ihurzuriari,

Ezagutaraztea zoin den puxant ageri,
Itsasoak du markatzen hau zenbat den handi.

III Fedegabeak ez ditu begiak altxatu,
Edo bere behatzeak lurrerat aphaldu,
Izan bada malurusa edo fortunatsu,
Bihotz gogortasunaz duzu bethi gidatu.

IV Naturaleza duzu hain urrun haren ganik,
Nun ez baitu amiratu ahal hurbildanik,
Jinak direla uste du oro hazartetik,
Bainan hazartak ez diro eman ez den onik.

V Naturalezaren edertasuna daiteke
Izpiritu oro gaineakoaren seinale,
Mogimendua errepausa, segurki erre,
Errealiki iraupenekoak ohi dire.

VI Biltzarre guri khentzen dena denborakotzat
Koloratzen duzu bertze populu batentzat,
Ikusgarria ez ganbiatzen behintzat,
Behatzailea da sanjatzen aphur batentzat.

VII Beraz baterazkitzu zure pensamenduan
Naturalezaren akzidentak arrimuan,
Suposatuz ikusten ditutzula batean,
Eguneko orenak goizetik arratsean.

VIII Suposatuz ikusten ditutzula sasoinak,
Primaderako goizak, uda azkenekoak,
Izarrezko gauak bai et'ere lanhozkoak,
Peuntze loreztatuak, bai oihan biluziak.

IX Suposatuz ikusten ditutzula oraina
Landak horiztatuak, sasoinak bilduz gero,
Ukhanen duzu orduan, ogiaz naiz mintzo,
Munduko biltzarreaz idera justuago.

X Iguzki hori amiraten duzun denboran,
Sartzen hari dela okzidenteko kopetan,
Bertze behatzaileak ikusten du berritan,
Atheratzen argi hasteko oren beretan.

XII Eguneko oren bakhotxean iguzkia
Atheratzen da eta argitzen ilhunbea,
Gero munduaren gainean da itzulia.
Gisa hortan du egiten bere piaiea.

177

Joanes ETCHETO

OHORE ETA OPULANTZIA

Airea: Ohorea zuzentasunaz...

I Ohorea zuzentasunaz ongilea,
Kausitzen zen egun batez piaian urrunda,
Beztimendu zuelarik xar eta zikindua,
Bere baithan zakharkeen pobrearen modua.

II Orduan opulantzia errekontrak emanik,
Han zagoen karrosa urrezatuan hapanik
Karrosa zainak kontrako khaminoa harturik,
Gerthatzen ziren ustekabez errebelaturik.

III Opulantziak zelarik beztitua handizki,
Ikusi zuen ohorea jaunzia pobreki.
Hura pobre ikustea ez zaizkon segur ongi,
Zuelakotz aitzinean ezagutu pulliki.

IV Andreak ohore hori zuelakotz maithatu,
Bai eta bere etxean ximenki alogitu,
Nahi izan zuen berriz ezagutza berritu,
Bai eta adiskidantza berrietan pharatu.

V Bai harekin nahi zuen bizi unionean,
Errespeturekin egon haren batasunean.
Hori dela kausa ere hasi zen abantzuan
Pleinu handien egiten zorthe malurusean.

VI Andre horrek urrikamendutsuki erran zion:
Zu zaitut beraz ikusten miseriaren peon.

Behar zinuke brilatu, eta segurki egon
Herronka eder batean eta etxeko jaun on.

VII Penarekin zaitut beraz iraungia ikusten,
Eta zure ostatua neke da konzebitzen;
Bainan neurekin ethortzeaz zaitut gonbidatzen
Jakinen dut injustiziaren erreparatzen.

VIII Nerekin karrosa huntarat ethortzen bazare
Sanjamendu ikusiren duzu segurki ere.
Atheraturen zaitut nik zikhinpetik bedere,
Urus ibilaraziren luzez bizi bagare.

IX Ohoreak erran zion: Senditzen dut egiaz
Ongiaren balioa eskainia bai zutaz.
Iduri du hartu behar nukeiela eskuinaz,
Bainan beldur naiz publikoaren jujamenduaz.

X Publiko zorrotzu horrek denbora huntan dio
Ez gaitzekela ibili elgarrekin oraino,
Bada nahiago dizut ibili oinez libro,
Ni karrosan kondenatua ikustea baino.

XI Malurus egiten gaitu aberaskua naphurrak,
Eta errendatzen ohitu injustu gizonak.
Fiteki aberastea desiratzen dutenak
Ez ditezke aberastu zuzenbidetik denak.

178

Joanes ETCHETO

GIZON ZAHARRA ETA BERE MAKHILA

Airea: Lilura banaiteke...

I Gizon zahar ezindu bat haski zen kausitzen,
Bere jendeaz utzia baxharrik gerthutzen,
Hantxe zorigaitzean zelarik iraungitzen,
Zerbait sustengu zuen naturalki bilhatzen.

II Zaharrak izpirituki barraiamenduan
Nahiz eman khanbio bere bihotz minean
Erran zion bere makhilari sanfretean:
Athor, hi haiz neure sustengua azkenean.

III Athor neure maitea, neure lagun leiala.
Athor, lagundu nezak piaia egitera,
Ez banauk sustengatzen aitzinean bezala
Segur bortxatua izanen nauk erortzera.

IV Ongi seguratu ez naukala utziko,
Bainan indar guziaz naukala lagunduko,
Hire baithan diat esperantza finkatuko,
Goaten naizen toki orotan haut behartuko.

V Bertzeek ni zerbitzatzeaz enheituak,
Bai eta pena gutienaz gibelatuak,
Uzten nitek baxharrik: bihotzak gogortuak,
Egoten dituk bethi niganik urrunduak.

VI Bainan hik, deusek gibelarazi gabe,
Eta hire pazientzia unhatu gabe,
Zerbitzatzen eta lagutzen nauk bethi ere
Bai eskerrak hiri ditiat segurki ere.

VII Laguntzaren lehia atxiki nezak bethi,
Hik utziz geroztikan ez nauk deus ere hari.
Egungo egunean, erraiten dauiat hiri
Jendea pharatu duk osoki muthiri.

VIII Nahiz hunkituak diren humanotasunaz,
Axolarik ez die ni abandonatzeaz,
Hau zenbat den lazgarri mintzo nitzatik egiaz
Ezin zukek esplikia mihirik abilenaz.

IX Egun oro konprenitzen diat bai neronek,
Adin handian, ez dutela gizon zaharrek
Laguntzarik izanen, emanikan jendeeki
Izatekotz eman behar dutela makhileki.

X Gizon zaharrak arrazoina zuben arabez,
Eta horren errana behar laite lekzioez,
Zerbitzatu gazteei: eta konpasionez,
Behar dute lagundu gisa bat edo bertzez.

179

Joanes ETCHETO

EZKONTZEKO HITZAREN GAINEAN

Airea: Neskatxa gisako batez...

I Neskatxa gisako batez
Gizon gazte bat suertez,
Agradatu zen zin-zinez,
Eta huna zer diskursez,
Mintzatu zen hitz batez,
Huraxe poztat beharrez.

II Ezkongai ona zirade,
Hala nukazu ni ere,
Baldin plazer bazinuke
Izatea neure jabe
Ekharria nindaiteke
Izatera zure jabe.

III Nahiz moltsaz arin naizen,
Adin ona dut bederen
Urtheekin dut ikhasten,
Izpirituki mintzaten,
Bai et'ere nuzu hasten
Geroaz ongi pentsatzen.

IV Ni banaiz bizitorea,
Deithu naiteke urhea,
Neurekilan bizitzea
Ez duzu gauza dorphea,
Nerekin daite bakea,
Bai eta unionea.

V Zuk baduzu izpiritu,
Bai et'ere jujamendu
Zuk eta nik behar dugu.
Konjunki elgar aditu.
Orai arte badakizu
Nola naizen gobernatu.

VI Beraz zure baiarekin,
Behar dut solasa egin,
Zure burhaso maitekin,
Bai autoritateekin.
Dugun bethi ontsa egin,
Bihotzak junta bozekin.

VII Neskatzak izpirituki
Errepusta preposari
Eman zioen onheski,
Eta hunela zen hasi:
"Mundu huntan graziari
Behar dugu ihardetsi.

VIII Baldin hala balin bada
Zur'eta neure dohaina,
Konplitua dadiela,
Bainan ez gaiten engana.
Adreza gaiten zerura,
Aita guziz ona gana.

IX Biak esposatzekotan,
Behar dut ait'amer'erran,
Haukiek onhestekotan,
Nahi dut fedea eman.
Huts eginez phondu hortan,
Nindaiteke maiz penetan.

X Gisa hortako pareak
Dire ongi ikhasiak.
Holakoen burhasoak
Deithu daitezke prestuak,
Zeren heien berthuteak
Umez diren agertuak.

180

JAUREGUIÇAHAR D'ARBOUET

AMERIKARAT PARTITZEN DIRENEN ZORIGAITZA

I Eskaldun bihotz kharaua
Uzten duzu sor-lekhua
Hautatzeko desterrua
Ontsa pagatuz dukezu jakin
Zer den berankor dolua,
Zenbat den fontsez itsua
Arhinki kontzebitua
Eginik duzun botua.

II Amerikan ez da sartzen
Non ez den hainitz gostatzen,
Asko pena kharreatzen
Zuretzat ez den tresora gatik
Lehenik zare pobretzen,
Dituzun oroz gabetzen,
Zuhurki duzu phentsatzen,
Kasi zare aberasten.

III Han balitz ez den tresorik
Ez lauke luzaz gorderik
Zokhoetan erdoildurik,
Aberasteko zakharrekin
Mundu bat han da bildurik
Ez izanez enplegurik,
Pobreziak iretsirik,
Ezin eginez bertzerik.

IV Neskatzak notha gabea,
Konbeni zaizu uztea,
Harturik duzun xedea,
Zure damutan ikhas ziniro,
Indietako bidea,
Galduz geroz ohorea
Berthutearen lorea
Zer da zure izatea.

V Ez sinhets hango berririk,
Itxuraz daude xuririk,
Artharekin aphaindurik,
Han ez bertzetan ez du zeruak
Uzten urrhezko uririk,
Ez lurrak hazten zilharrik,
Sentitu gabe nekherik
Ez da nehon bizitzerik.

VI Ikhuziz eta entzunez
Mintzo nauzu fide zinez,
Kontseilu onak emanez,
Zure herria lehenka zazu
Zuzenki bethi egonez,
Orori ongi eginez,
Langile zuhur izanez
Gaindi zare ontasunez.

181

LANDEZTOY "Donapaleuko xantrea"

MAKILA

I Eskaldunen loria
 Ene pertsuen saria
 Makila banu berria!
 Gizon akhitu gogo-denari
 Etzaiko erhokeria
 Makila baten tirria,
 Zeren den maiz eroria
 Eskatzen du sokorria.

II Nahiz dudan ezagutzen
 Egun guziez frogatzen
 Janez indarrak berritzen,
 Zahartzearen lege gogorra
 Muthiriki dut sentitzen,
 Zentzuak zaizkit tontotzen
 Ixta-zainak ikharatzen,
 Makilak nau sostengatzen.

III Zerbitzatzen nau urrik,
 Ez du onhesten mainari,
 Sasoin oroz da barurik
 Etxean edo ostatuetan
 Ez du galdatzen gortherik,
 Zokhoan dago bakharrik,
 Gau guzian atzarririk
 Phartitzeko xutiturik.

IV Makila lagun bidean
 Badoha ene parrean,
 Leialki ene menean,
 Poxolu,lanjer eta etsaiak
 Sentitzen dituenean,
 Ematen nau gibelean,
 Guziak ditu batean
 Laster hedatzen lurrean.

V Eskolarik ez du hartu
 Nausirik ez du behartu,
 Zeren den jakinik sorthu,
 Osasun on batez iduri du.
 Behar duela gozatu,
 Bethi lerdetik zahartu,
 Gaitzik ez du ezagutu,
 Medikuri ez da boztu.

VI Gaur gero ene makila,
 Zu zare nere muthila,
 Pelegrin lagun ixila,
 Nik zu idukiz, zuk ni bermatuz,
 Aski xuxen banabila.
 Oi zerbitzari umila!
 Banu hautatzeko mila
 Ez niro bertzerik bilha.

182

Jean Baptiste LARRALDE

ENE SEHIA GEREXANIÑO

Airea: *Santa Theresaren kantika*

I Neskatxa bat xuhurra
 Nahiz erdi makhurra,
 Egun hautan dut sehi,
 Net etxea altxagarri,
 Parerik ez dut uste,
 Baduen hainitz gazte. (bis)

II Goizetan goiz jaikia,
 Aitzindurik argia,
 Su handi bat du phizten,
 Egur zama garbitzen,
 Beraz lodi du friko?
 Xokolota egiteko (bis)

III Bazterrak garbitzean
Hobeki, zikhintzean,
Hedoi herrautsezko bat
Banatzen du orotarat,
Hunen erkhatz abila
Nola nahi dabilla. (bis)

IV Ene alase guzia
Da kasik biluzia,
Jadan ezta josteta,
Dozena bat azieta.
Hautsi dauzkit segurik,
Nola iraun dezaket nik? (bis)

V Basoez mintzatzeko,
Mina dut sobra fresko,
Orai, orai, tontoki,
Bat egin du lau zathi,
Bere arnoa barnean,
Zer bi malur batean! (bis)

VI Nola baitut fedea
Net on dela kafea,
Kikera bat badut nik,

Ethorria Txinatik.
Atzo, oraino, supherra!
Egun non du giderra? (bis)

VII Fularrak idortzeko
Ahalaz ez hixteko,
Non dituen hedatzen
Ez duzula pentsatzen?
Nola sinhets ordean?
Sutegian khepean. (bis)

VIII Uhearen egiten
Nekexko du ikhasten,
Bethi zangoz gorago,
Kasik dilindan nago,
Noiz othe naiz lurrera
Ganen buruz-behera? (bis)

IX Horra nere neskatxa,
Gisa guziz artexa,
Balinbada erosdunik,
Salduko diot, bai, nik,
Emanen diot merke,
Merke izan baditeke. (bis)

183

Migeltxo UALDE

BERRITAN EZKONDU MARINELAREN ADIOAK BERE ANDREARI

Migeltxo Urruñako marinela zerbitzura gobernamentuaz deithua ezkondu berrian bere bihotz mina seinalatzen dio bere andreari segidako bertsuetan.

Airea: Xori bapho gorria... eta bertze asko.

I Banoha, nere espos hanbat maithatua,
Bertze gaztenartetik berritan hartua,
Itsasoz bertzaldera ni naiz manatua,
Oi! nola naite bizi, zutaz gabetua?

II Ez dut uste badela lurrean lorerik,
Ez zeruan izarrik zure pare denik,
Nihon zutarik urrun, nik ez duket onik,
Eta nihon zurekin ez duket nik gaitzik.

III Elizak juntatzean biak elkharrekin
Eman zautan bai gozo eta bai atsegin,
Bertzerik badut orai, bihotzean dut min,
Min hunen sendatzeko ez dakit zer egin.

IV Nere espos maitea, othoi, erradazu,
Ene sendagarririk ez othe dukezu?
Urrun hedatu gabe, badela jakizu,
Ene sendagarria bakharrik zare zu.

V Bainan ez dut, ez zeren esperantza hartu;
Sobera zorrozki da legea mintzatu.
Eri edo ez eri, behar naiz partitu,
Barnea tristerikan zutarik urrundu.

VI Bela xuriak ditu haizeak hanpatzen,
Ja itsas-zabalera gaitu eramaten.
Oi! zugana banindu horrela ekhartzen!
Hori dut Birjinari bakharrik galdatzen.

1865 SARA**184**

Jean Baptiste LARRALDE

ERIA EZAGUTZAZ BETHEA ERREXINOLETARENTZAT

I Kantarien errege!
Hire kantatzeko
Gai denik nor daiteke
Hitaz beraz kanpo?
Geroztik, itsumendu
Zerbait othe dut nik?
Ez, eskertiak ez du
Neurritzen indarrrik.

II Modestiaz bethea,
Gabaz duk kantatzen,
Unhaturik jendea
Lo denean jartzen.
Hik uste duk bakharrik
Haizel´atzarria,
Erne zagok hargatik,
Khexu den eria.

III Bai, erne zagok eta
Oi! ohatze-pean!
Sasitik hire kanta
Hasten dukanean,
Ordutik ene minak
Zaizkidak ixiltzen,
Eta gau luzeenak
Labur iruditzen.

IV Maiteaz orhoiturik,
Hago hasperenez,
Hurbil izanagatik,
Gabaz ikhusten ez,

Ai! nahiz agian hiri
Lagun itzalia,
Kanta, kanta zak bethi,
Ez ahantz eria.

V Batzuetan gorago
Duk altxatzen boza,
Orduan urrunago
Duk senti esposa:
Oi! aphalt, berdin gora,
Zoin den hunkigarri!
Maiz zohak bihotzera
Handik dena jalgi.

VI Zertako primaderak
Ez iraun bethiko!
Iphar goxo,loreak,
Bakharrik lekhuko!
Laster (zorigaitzean!)
Denboraren ihes,
Ganen haiz ni ohean
Utzirik nigarrez.

VII Adios! bizi banaiz
Heldu den urthean,
Othoi, phausatuko haiz
Ohiko tokian,
Lanjeretik han urrun,
Ta hurbil maithea,
Kantatuko duk legun,
Emadak fedea.

185

Joanes BERJES

ARTZAINGOA

I Ez naiz handietarik gizonen artean,
Hurrari bakharrik nago mendien gainean;
Arthaldetto bat daukat han nere menean,
Harekin bizi banaiz gustu ederrean.

II Asko dira menturaz nitaz urrikaltzen,
Atsegin zoro batzuz ez bainaiz gozatzen.
Urrikari hek daukat orai eta lehen
Bakearen gozoa ez dakite zer den!

III Mundupean duenak higitzen bizia
Ardura du berekin izaten hauzia.
Bakea jendetarik urrun igorria,
Handik khendurik dago mendian jarria.

IV Artizarra zeruan agertzen denean,
Goiti noha ni ere harekin batean,
Sartzera egiten du ilhun nabarrean,
Ni ere itzultzen naiz omore onean.

V Xoriak eder dira khantari mendian,
Begira egoten naiz hekier lorian.
Bazter guzietarik khantuz daudenean,
Ni nola nindagoke ilhun bihotzean.

VI Menditik zoin den eder goizetan argia!
Bozkariotan nago maiz hari goardia.
Ohepean hagoen, hiritar nagia,
Nola ezagut dirok nik dudan zoria?

VII Menditik dudanean begia hedatzen,
Jainkoak eman onak orotan ikhusten,
Bihotza haren gana dut bozik altxatzen,
Gure Aita onari eskerrak bihurtzen.

VIII Tratulariak dohaz nekhatuz bidean,
Zenbat amets ederrez alhatuz gogoan.
Aldiz artzaina dago mendi urdinean,
Deskantsuz lo eginez etxola txarrean.

IX Ethorri da negua, harekin elhurra,
Zelhaian eginen dut egoitza laburra.
Ez daiat adiorik egiten, etxola,
Nihondik ez naiteke hi gabe kontsola!

X Negua joan-eta primadera hasten,
Bazterrak oro dira belharrez bethetzen.
Xoriak oihanetik khantuz abiatzen,
Bozkarioz artzaina mendirat igaiten.

XI Han dut nere gozoa, han nere bizia!
Jainkoa da bakharrik han nere nausia!
Bertzentzat diru, jan on, soineko ederrak,
Niri bake gozoa! Jaunari eskerrak!

XII Nere adiskideak, orai naiz gelditzen,
Hasi dudan bertsua hemen akhabatzen.
Jainkoak osagarri eman dezazuen,
Bihotzaren erditik othoitz dut egiten.

186

Joanes ETCHETO

ARROSAREN KANTUA

Airea: Kaila kantuz ogipetan, uztaril-agorriletan...

I. Arrosak eder baino jeloskorrago zelarik
Ikusi zuen imortala aldean jarririk,
Eta hori bere etsaiarendako harturik,
Behatze bat egin zion bisaia borthizturik.

II. Inbidios horrek erran zioen bai goraki:
Nola ausarta haitake konparatzerat niri?
Zertan ahal duken beraz ni naizena iduri?
Diferenziarik ez deia gu baithan ageri?

III. Konsidera beraz ongi neure argitasuna,
Bai eta hire kolore bethi ihuntasuna.
Zer! deithua naun komuzki loreen erregina,
Eta uste dun hirekin ez dukedan gaihena!

IV. Imortalak erran zion eztitasunarekin:
Ez dizut, ez, segur nahi konparatu zurekin.
Ezagutzen dizut beraz nik xoramendurekin
Zure argitze ederra eklat handiarekin.

V. Bainen edertasun xoragarri horrek ez duke
Neure jelosia segur pitzarazten batere.
Ontasun bat ez dukezu balios behin ere,
Nun ez den asantatua gisa bat edo bertze.

VI. Bada zur'edertasuna, goizetik arratsean,
Histua kausitzen duzu istantetik bertzean,
Loriatzen zare xarma zerutik duzunean,
Eta edertasun guti iraupen duenean.

VII. Bai, nahiz neure tretuak guti ederrak diren,
Segur ez dire beldur urtheen borthiztasunen.
Guti brilatzen dudana bethi dizut brilatzen,
Hortakotz ez dautzut beraz inbidia ekhartzen.

VIII. Ikusten dire fidelki, bi lore horietan,
Edertasuna eta berthutea mintzoetan,
Lehenak akhabantza du bai ephe laburretan,
Azkenak iraupena du denbora guzietan.

187

AN. "Satarra"

PRIMADERA

Mariaren zerbitzari gazte baten kantak bere laguneri.

I. Urto dire mendi gainetako elhurrak,
Bai eta garbitu haranetako urak,
Hedoen artetik sortzen da iguzkia,
Guri egortzeko bere argi maitia,
Huna primadera. Oi zer izen eztia,
Zu zare lurreko plazeren ithurria!

Agur, beraz, primadera,
Agur, loren sasoin ederra!

II. Bethere dire landak mila lore suertez,
Estali arbolak mila aldaxka pherdez,
Hostuen artian xoriñuak gehizan,
Apexak airetan lili freskuen gainean,
Denek primadera dute laudatzen baltzan,
Denek amodioz erraiten kantuetan,

Agur, agur, primadera,
Agur, loren sasoin ederra!

III. Gizon nekatzaile hau ez duzu ikhusten,
Lur erdiratua izerdiz du bustitzen,
Iguzki minian hari da leherturik,
Bekokia ilhun, kopeta zimurturik...
Bainan laster huna non dagon itzalean
Ezagutzarekin diolarik bihotzean,

Agur, agur, primadera,
Agur, loren sasoin ederra!

IV. Artzaina mendian bildotxaren aldean,
Bildotxa larrean amaren errapean,
Eztinik dagotzi goxoki larrainean:
Urtaldiak belhar franko du aintzinean,
Zer du bada eskas? Kasik zoramendutan
Artzain dohatsuak dio bolta ter batean.

Agur, agur, primadera,
Agur, loren sasoin ederra!

V. Bainan gureztat da primadera eztia,
Gureztat atsegin hoberenez bethia,
Guziek orduan, Amaren ohoretan
Lore ederrenak biltzen tugu phentzetan,
Eta arratsean aldarerat jitian,
Bozkariorekin kantatzen maiz bidian.

Agur, agur, primadera,
Agur, loren sasoin ederra!

VI. Bai laborariak eta hiriko jendiak,
Artzainak mendian, eskoletan haur gaztiak,
Larrean bildotxak, haranean liliak,
Harroka tartian ur xirripa garbiak,
Primadera dute lorietan ikhusten,
Denek mila gisaz errepikan kantatzen,

Agur, agur, primadera,
Agur, loren sasoin ederra!

188

AN., Ezepletarra

PUTXURDINA

Airea: Epher xango gorria, edo Bakarrik bizitzeaz...

I.Oi! mundu gaixo huntan, zenbat den Putxurdin!
Eta denak sobera eta denak higuin.
Izan dadin Piarrex edo den Kattalin,
Nola maita dituzten, behar dute jakin.

II. Bainan barka dezagun neska zaharrari,
Zeren putxurdin bada, ez du bere nahi.
Ezkontziaz izan balitz hura bere nausi,
Lepoa joka nezake, einen zen aspaldi.

III. Zafra dezagun diona: Gaude mutil zahar,
Jaunak harren gainian etsenplurik ez har.

Aberats balin bada, dena da paper tzar,
Eta beharra badu, segur, berean bizkar.

IV. Bizioz betetzen da gizon putxurdina,
Tabakoz usaindurik, sudurra zikina,
Sosa du bere jainko, elkor tzar egina,
Edo dena tripan du bere atsegina.

V. Eta zoin injustu den gaixo emaztentzat

...
...
...

VI. Nexka arina bada, nork egin du hala?
Etxian balin badu urre eta farbala,
Donado, zer diozu, non du hark ahala?
Gaxtaginek diote, zuk badakizula.

VII. Hazeri zaharra da donado zaharra,
Itxuraz saildu bainan golkua du tzarra;
Nexka! ihes hartarik, zirenian bakarra!
Guardia, bai, guardia, saretan amarra.

VIII. Maiz donado zaharra ase eta alfer,
Nexkan tatxa guzien aipatzen du plazer
Eta izan dain bera maingu, konkorr, oker,
Segur bere buruia kausitzen du eder!

IX. Bethi ezagutzen da gizon putxurdina
Soinian bethi zerbeit huts edo zikina,
Athorra fola makur, izanatik fina,
Ez zen homorian naski Kattalin neskatoa sorgina.

X. Maiz donado zaharrak, menaiu idorra,
Maiz bere etxian dago histu eta mokorra,
Ozpina bezala du sehia minkorra,
Bi putxurdin batian, zer gauza gogorra!

XI. Eta akort badira ez da fama onik,
Mihitxarrek ez dute axola handirik.
Jende honest guziek ihes haietarik,
Ez, ez hobiago da, jaunak, ezkundurik.

XII. Orai zueri, neskakak, huna bi hitz bakar,
Ene errana hatik, othoi, ez gaizki har.
Samurtzen bazinezte einezake nigar,
Zeren ez baitut nahi ergo mutil zahar.

XIII. Nexka, nahi baduzu segurki ezkondu,
Balios izaitia bethi kondu eizu,
Eder izanagatik, zertako zitut zu
Ez bazia emaiteko galtzetan bi pundu.

XIV. Aberatsentzat bego toaleta handia,
Izan zaite modesta, bainan bai garbia,
Mila aldiz hobe da pentzeko loria
Edozoin floka baino gorri edo xuria.

XV. Krinolina bezenbat izan zu bertute,
Arroba bazen eder, barnez izan zaite,
Mutil zahar guziez, orduian, nik uste,
Andre bana lasterka hautatuko dute.

XVI. Hala nahi duena, dagola putxurdin
Dezala hatik ongi pensamendu egin,
Zahartu, kaskaildurik eta ilia urdin,
Denek erranen diote: fu zikin, fu zikin!

XVII. Kopla oraiko huntan emaiten dut fina,
Bertsu txar hauien, jaunak, barkamendu eni,
Ez dakit erran dutan sobra edo aski,
Ez baziezte kontent, eizazui hobeki.

1866 SARA

189

Jean Baptiste ELISSAMBURU "Laphurtarra"

OKHERTUAK BERE OKHERTZAILEARI

I Fortuna erori zait burutik behera,
Zuri baitautzut esker, gure jaun Barbera!
Harriturik baxhotxa niri dago beira
Bi begiez...

Nik guziak ikhusten begi bakhar batez!
Lehen biez,
Orai batez,
Oro ikhusten begi batez!

II Mundu hau bethea da zenbat nahigabez;
Barberak okhertu nau, abiltxe izanez!
Lehen banindagoen ardura nigarrez
Bi begiez...!

Zertako biez egin? Aski date batez!
Lehen biez,
Orai batez;
Jaun hari esker, begi batez.

III Nonbait balinbadira bi bosliberako,
Biatarik ohoinak ez dik bat utziko,
Zuhurra den gizonak ez beza egin lo
Bi begiez!

barberak manaturik, egiten dut batez;
Lehen biez,
Orai batez,
Zuhurren gisa, begi batez!

IV Zure ohoratzeke, gure jaun Barbera,
Lau kopla ez dirade izanen sobera.
Lehen ikhusten nuen Betirisants bera
Bi begiez!

Milesker, jaun Barbera, egundanik batez;
Lehen biez,
Orai batez,
Hobe lizate niholaz-ez!

190

Jean Baptiste ELISSAMBURU

MARIA

Airea: Ikhazketako mandoarena.

I Bertzek erran baitute nik baino lehen
Hainitz adituz dela hainitz ikhasten;
Uste dut on den,
Nik dakidan bezala guziek arren
Jakin dezaten,
Beraz aipha dezagun Maria nor den.

II Aztal biribil eta zangar hertsia,
Eskuaren betheko zango bihia,
Ttiki-ttikia!
Golkhoz aberats eta lerden gerria,
Erne begia,
Nolako panpina den horra Maria!

III Erle bat da Maria etxe barnean,
Eta landan orobat hari lanean
Behar denean;
Aphaintzeko polliki behin astean,
Noiz?- Igandean,
Ustai beharrik ez du soinaren pean.

IV Solas alegera bat erranagatik
Irri freskorik baizen ez dut izan nik,
Mariaganik;
Adiskidekin ez du handitasunik;
Bainan hargatik
Ez erran Mariari solas arinik.

V Mariak barazetik badu berea,
Udan eta neguan lorez bethea,
Eta saltzea!
Bere loren artean erdi-gordea
Gaixo maitea,
Bera da pollitena hango lorea!

VI Mariak balinbadu moltsa joria,
Merkhatura gateko badu saskia,
Xuri-xuria,
Arroltze lau dotzena, oilasko bia,
Salduz guzia,
Zertako den aberats horra Maria.

VII Jendek erranik ere hala-ta-hola...
Maria batzuetan, ezjakin nola,
Goibel dagola...
Bertzetan nigartto bat jausten zaiola...
Zer zaio axola?
Baluke nahi balu aise kontsola!

VIII Igandetan Maria zinez panpina
Zapata xabalekin soin motx urdina,
Berak egina,
Elizako bidean arin-arina,
Mila sorgina!
Errege balinbanantz, zer erregina!

191

J. MENDIBURU

AMERIKAK

I Trankil nindagolarik nere sortherrian,
Probexko, bainan urus ahaiden erdian,
Lagun batzu zaizkidan etxerat ethorri,
Etsai gaixtoak naski zituen igorri.

II Miserian, zioten, hemen zertan hago,
Amerikan oraino baduk diru frango,
Gazen, eta guretzat bada eskaldia,
Laster izanen diguk nasaiki urhia.

III Hitz ederrak (zoroa!) nituen sinhetsi,
Dolamenetan ama alharguna utzi,
Gogo sendo batekin etxetik phartitu,
Behar zaudan, ondikoz! laster urrikitu.

IV Habanako lurretan sarthu nintzeneko,
Dohain on bat zagon prest nere zorirako!
Laster izanik joa eritasun batez,
Huna agorandua non naizen oinhazez.

V Lur atzean nagola bihotzetik ilhun,
Hitz on bat entzun gabe oi! ja zenbat egun!
Horra beraz hemengo aberastasunak...
Oi, zertako nituen sinhetsi lagunak!

VI Lagunak! ai ez dute izen hau merezi...
Krudelak, ni utzirik, gan dire ihesi...
Bainan zer diot? Ama nik ere dut utzi,
Nitarik dute hola bizitzen ikhasi.

VII Ene ama gaixoa, ene ama ona,
Huna non dagon zure seme hobenduna.
Ai! badakit, ez nintzen zutaz urrikaldu,
Bainan, zuzen baitzen, nau Jaunak gastigatu.

VIII Gaztigu lazgarria! ni hemen ohian,
Ta zu, ama, hain urrun Eskaldun-herrian!
Zu nigarrez geroztik, penetan jarria,
Behar bada ... Oi urrun pentsu tristegia!

IX Eta bizkitartean sekulan berririk,
Sekulan hitz bat ere Eskaldun herritik!
Oi zoin den lotsagarri hola bizitzea!
Bai, mila aldiz hobe laiteke hiltzea.

X Barkha, Jainkoa, barkha! barkha semeari,
Urrikalmenu nere ama gaixoari!
Othoi, adi nezazu, eman osasuna,
Gan nadin laster ama maitearen gana.

192

Martin DARRUPE

GIZON GAZTE SOLDADO ZORTEAN ERORIEN ANIMOA

Airea: *Xoriñoa kaiolan*

I Eroriak zortean,
Ez da eskapatzerik,
Ez baitugu gorphutzean
Nehon ere tatxarik,
Gare guanen
Soldado Napoleonen.

II Lege zahar garbiak,
Aiten aitek emanak,
Parti gaitezen guziak
Hautatuak garenak,
Lorietan,
Ikhas dezagun harmetan.

III Ez dadiela nehor
Abia bertzetarat.
Bainan gogo onez ethor
Gurekin armadarat,
Xede hori
Ez itzularaz nehor.

IV Ez idek beharrik,
Kontseilari tzarleri,
Ez dugu nahi bertzerik;
Obedi legeari,
Ez dezagun,
Etsayik gerorrek lagun.

V Orai gu eta gero,
Heldu diren gazteak,
Izan daitzela bero,
Obeditzen legeak,
Frantziari,
Emagun etsenplu hori.

VI Biba, biba, Frantzia,
Biba gure bandera,
Fidelki gaiten lehia,
Oraiko lege bera;
Bethi dagon,
Biba, biba Napoleon.

VII Xoriak primaderan,
Kantaz oihanetarik,
Alegera bihotzean
Negua pasaturik,
Zer loriak,
Horra gure iduriak.

VIII Ethortzen garenean,
Gu ere armadatik,
Eskal herrian sartzean,
Nork bara kantatzetik
Bozkarioz
Orai goazen amodioz.

193

Joanes BERJES

LABORARIA

- I. Kantu berri batzu tut laborarienak,
Hekien ohoretan eman ditudanak,
Baditake ez diren sobrarik onak,
Ere kanta ditzala nahi dituenak.
- II. Laborari alferra nekhez da etxean,
Ohart zaitezke dela ardura bidean,
Diruak ahitu eta ilhun bihotzean
Kredita galdurikan lagunen artian.
- III. Laborari alferrak plazaren gainean
Ilgande, besta, igoal astelenean,
Hondatzen tu guziak bere uste gabea,
Hortik maiz ortzirale hekien etxean.
- IV. Laborari zuhurra goiz erretiratzen,
Ondoan urrikirik ez duke sentitzen,
Ere lanari berriz errexki da latzen
Barneko zoriona hortarik ethortzen.
- V. Laborari alferra izpirituz eri,
Ez dio begiratzen ethorkizunari,
Ez du harrek phentsatzen haurren ezkontzari,
Ez nola utz dezaken zerbeit bakhotxari.
- VI. Laborari zuhurra ongi ikhusirik,
Urrun dago atsegin sobratuetarik,
- Haurrer nahi du utzi zerbeit segurik,
Horra haren ametsa ez du hark bertzerik.
- VII. Laborari alferrak etxean maiz gerla,
Denak dohazko gaizki, bera da mokhorra,
Andreak aldiz bethi zerbeiten beharra,
Ardiets dezakena da solas iderra.
- VIII. Laborari zaharrek ez dute gerlarik
Heien etxean ez da dremenden eskasik,
Jauna sartzen denean barnera kanpotik,
Ikhusteko laiteke zein dauden bozturik.
- IX. Laborari alferrak badu haurra franko,
Ez ordean dirurik hekien hazteko,
Heien beztitzekotzat naski gutiago,
Uros etsenplu onik balitz heiendako.
- X. Laborari zuhurrak balin baitu haurrak
Segur izanen dire ongi altxatuak,
Ez dire ibiliko erdi beztituak,
Ez ditu hek galduko etsenplu gaixtoak.
- XI. Laborari onetik hala ez denera
Zer diferentzia den eman dut argira,
Orai aski erran dut noha ixiltzera
Diotalarik, biba laborari ona!

194

Auguste ETCHEVERRY

ANDDERE XAKHURRA

- I. Adin gaztetik anddere xakhur bat zen
Etxeko andre on batekin egoten,
Bere grazie zion plazer egiten,
Tretu ederrez zuen bethi ohoratzen,
Haren parerik kausitzea pena zen.
- II. Andreak aldiz zuelakotz maithatu,
Eta gogoan zuelakotz hartu,
Gauza goxoez nahi zuen bazkatu,
Etzauntza guriak harentzat pharatu,
Horretan zuen egin xakhur gastatu.
- III. Xakhur minunak bazituen pixkotxak,
Pastiza puxkak, onkeriak, gauz'onak,
Mundu huntako mainak eta karezak,
- Segur ederrak ziren haren egunak,
Hola pasatu balituzke azkenak.
- IV. Bainan denbora gutiko zen bonurra,
Haren ondotik ethorri zen malurra,
Ama xakhurra zenean hil hobira,
Triste gelditu zen anddere xakhurra,
Hezearen ondotik zuen idorra.
- V. Ama on hura zutenean ehortzi,
Harren uneak partilan ziren hasi,
Helas! xakhurra kanpoan zen ezarri.
Eta ogi beltzetik eman janhari,
Aitzinekotik ganbio zen ikusi.

VI. Bigarren ama bat izateko orde,
Xakhurak nausi bortitz bat zuen jabe,
Ordutik zuru gora zuen atherbe,
Bai eta lurra beretakotzat ohe,
Gizenetik bilhakatu zen bai mehe.

VII. Estatu hortan zagonean nigarrez,
Aditua zen zenbait xakhur lagunez
Laster jin ziren kosolatu beharrez,
Eta galdetu eri zenez suertez,
Malurrak erran ziozkaten auhenez.

VIII. Ikusliarrak hau aditzearekin,
Mintzatu ziren guziak boz batekin,
Erranez zinki: ez zutela zer egin;

Hola bizitzeaz zutela atsegin,
Hortakotz behar zela usaia egin.

IX. Anddere xakhur humilak aithormena
Egin zioten ahalik laburrena,
Erranez gaitzes zuela aiphamena
Gauza goxoen, bai eta guriena,
Hura maluraz bilhakatu zuena.

X. Menturaz zenbait populuen artean,
Kausitzen dire kasu hortan berean.
Besta guziez, goizetik arratsean,
Pulunpatzen direnak deboxkerian,
Oro xiflatu eta penitentzian.

195

Auguste ETCHEVERRY

GIZON GAZTE ESKUALDUNA

Aire ezagutuaren gainean

I. Lapurdi, Baxenabarre,
Zuberua erranik ere,
Ez naiz tronpatzen bat ere.
Eskualdun herriak dire,
Hirurak ganbio dire,
Mintzo moldeaz bedere.

II. Eskual herriko zelhaiak,
Kurritu ditut guziak,
Eta oinez gehienak.
Horgo artho 'ta ogiak
Dire bai buruzagiak,
Ezin estimagarriak.

III. Abantail horien gatik,
Jendea duzu pobrerik,
Dire behar hauzuetarik.
Guti da familiarik
Kito dena zorretarik,
Beharrak joa ez denik.

IV. Eskualdun gazteak oro,
Gaituzu bai arin xoro,
Eta kasik bethi erho.
Pilota jokuak diraino
Izanan gaituzu zoro,
Eta hauzuan zorra frango.

V. Guk asko baia badugu,
Bestak maiz maite ditugu,
Libertitzia lakhet dugu,
Etxea ahanzten dugu,
Ezkondu nahi badugu,
Dote xumeak ditugu.

VI. Aziendaz mintzo naiz funski,
Larreak haz liro aski,
Gida bagineza ongi,
Eman gare jokoari
Eta deboxkeriari.
Nola bihurtu zorrari!

VII. Arreba maitea, kontu:
Ez, othoi, deboxik hartu,
Eginbidier beiratu.
Ez nola nahi ezkondu.
Deboxa hartzen baduzu,
Grinaz hil beharko duzu.

VIII. Mundu huntako bizia
Labur da segur maitia,
Ez dut maite flatatzia.
Ez segitu kaprizia,
Errex duzu tronpatzia,
Segi bethi zuhurtzia.

196

Agustin ETCHEVERRY

POBRIA

I. Mundura sortu nitzenian,
Sortu nitzen deusik gabian,
Eta naiz manera berian.
Orduan pobre, orai pobre,
Jaunaren miseriakorian,
Lagunduren nau agian,
Batian edo bertzian
Segitzen banaiz bidian.

II. Oi, pobriaren urusa,
Ez ditake ongi pentsa,
Haren geroko intresa,
Pobrearentzat Jainkoak dauka
Zeruan lekhu espresa
Hango bakhe loriosa
Aldiz abarasiosa
Ez ditake nihon goza.

III. Deusik ez badut jateko,
Atian nago belhauniko,
Othoitzian etxe hartako,
Etxeko andriak nere othoitzia
Laster darot adituko,
Amoina eskuan jauntsiko,
Andria agian bethiko
Jaunak zaitut lagunduko.

IV. Negua zait arribatzen,
Kuraioski naiz kausitzen,
Jainkoak bainau laguntzen
Haren laguntza handiarekin

Ez naiz biziki khexatzen
Sofrikariak zer diren
Ez ditu nik ezagutzen
Loriak dauzkit estaltzen.

V. Suertatzen naiz eria
Oi, jendiaren borondatia,
Egiten dautet eskia,
Desiratua daukat nik ere
Halakoirentzat loria,
Pobriaz urrikaltzia
Da zerua idabazia
Othoi, nitaz pietatia.

VI. Holaxe izaten badut
Gehiago zer behar dut,
Aberats goserik ez dut.
Jaunarekin bakhe gozoa,
Segurki nahiago dut
Mundu zoro hau nik zer dut
Jauna zerbitzatzen zaitut
Loria esperantza dut.

VII. Mundura zertako sortu
Behar ditut abisatu
Nahi banaute aditu,
Aberats eta pobriak ere.
Jaunaren haurrak gare gu,
Dezagun hura maitatu,
Aberatsa adi zazu,
Eternitiaz orhoitu.

197

Auguste ETCHEVERRY

URGUILUAZ

I. Horaiko andre gaztek zer dute buruan,
Ez gaitazke gu pasa hoienguruan,
Behar ginuke pasatu xapela eskuan,
Ustez guziak diren aberats graduak.

II. Urguiluak mundu hau iretzi urran du,
Beren hartarainokorik ikusten ditugu,
Satanen pentsu hori andriek ongi hartu
Horaiko andrientzat deusik ez gare gu.

III. Satanen pentsu hori, oi, zer adrezia,
Eta horaiko andriek zenbat malezia,
Hola nahi lukete egin gan lantzia
Fu! egin diotet, hau da ausartzia.

IV Nola diren nekhatzen horaiko grizetak,
Khadira fotilian harturik gazetak
Batzu mendisentzian, bertzeak menetak
Nahiz izan detzaten buruan bonetak.

V. Mirail baten aldean goiztiria pasa,
Aise hartzen dutela lanetako hatsa,
Zertako makhil batez etxetik ez kasa,
Egiteko fortuna pobria edo aberatsa.

VI. Heldu dire ohetik tualetatuak,
Orraze espres batez iliak harrotuak,
Arropak ere aski ongi brotatuak,
Hauk andre baliosak mundura sortuak.

VII. Batzu izanarekin, bertziak gabian,
Promeneta dabilta bidien erdian,
Ustez heki begira gaudezen lorian,
Ez gare gustaturen hoietaz agian.

VIII. Idabazten tuztenak buta tualetan,
Eginikan oraino zorrak botilhetan,
Non baitik ahal balute daude lorietan
Behar dute ibili nonbait ferietan.

IX. Hoik bidian ikhustiaz behar du lotzatu,
Urguiluz ezin dute nihondik khurritu,
Jaun xapeletakuei mintzaira saindatu,
Orduan nahi lukhete fortuna zerratu.

X. Igoil atso batzuek erdi konkortuak
Hek iduri baitute bietan sortuak,
Krinolinak soinian dena harrotuak,
Zer ustia oraino atso zar gaizuak.

XI. Nahiz izan zaharra eta muzurdina
Khupela bezin zabal haren krinolina,
Bizkharra makhur eta elia urdina,
Bertzerena denaren postixan egina.

XII. Jaunak eta andreak, finitzen dut huntan,
Urguilu zarra franko bada mundu huntan,
Eta partikulaski horaiko andretan,
Ez ditake ezagut pobria aberatsetan.

198

Auguste ETCHEVERRY

XIRLISKA ETA XINAURRIA

I. Esplikatzera noha zerbait istorio,
Omoria gastatzeak hainitz du balio,
Plazerikan duenak beha beza niri:
Gudu egin behar dut bi alimaleri.

II. Alimale xirliska eta xinaurria
Negua zaio huni beretzat loria,
Aldiz xirliska dago, udapean kantari:
Neguan gosiak dago galdeka bertzeri.

III. Primadera ethorri, belharrak handitzen,
Xirliska oro dire kantuz abiatzen,
Landa guziak lore, xirliskak kantari,
Ez diote behatzen negu triste hari.

IV. Xinaurria lanean uda hastetikan,
Jendea alegera baita ordutikan,
Udari kentzen dio neguko aisea,
Etxepean egon dadin jatekoz asean.

V. Xirliskak daudenean musika saindutan,
Zer erraiten othe du bertzeak bere baitan,
Xinaurriak egiten dio arnegua:
Hago, istanpat hago, heldu duk negua.

VI. Xinaurria horai da lanetik gelditu,
Errekolta guziak etxepera sartu,
Ah! xirliska non hitzen udan musikari?
Ethorri duk negua horai dantza hadi.

VII. Udak zoraturikan egon erabez,
Xinaurriari horai nola dagon galdez,
Othoi, gaixua ekarrak hire sobretarik,
Ez naik usten bertzenaz neguak bizirik.

VIII. Tristurarekin dago ezin menturatuz,
Galdetzen dio bada hainbertze othoituz,
Xinaurria bederen ez nauk urrikari:
Emadak zerbait edo hiltzera nihoa ni.

IX. Ah!, ah, horai heldu haiz hunat hagonian,
Zer, arribatuko zen erraiten ginian.
Ez, ez, ez haut segurki hanbat urrikari.
Othoi, has hakit orai hiltzean kantari.

X. Alferra eta abila hola tuk ezagun,
Gu aseak garotzik hik barnea ilhun,
Udan haritzen dena bortizki lanean,
Holaxe egoiten duk jatekoz asean.

XI. Gauza simple horiek bizi mundu huntan
Eta oraino nola, gure zangopetan,
Hoik ere ensaiatzen dire bizitzeko,
Bainan alferra beti gaizki da biziko.

XII. Esplikatu dut ustez istorio hori,
Plazerekin erraiten hari naiz deneri,
Horra kantuak ikas detzaten gaztiek,
Huntan uzten zaitutzet, barkatu guztiek.

199

Joanes ETCHETO

GIZON GAZTE EZKONDU NAHIA

Aire ezagutuen gainean

- I. Bertsu emaile batek duela bi urthe,
Ongi aiphatu gaitu zenbait gizon gazte,
Bainan ez du laudatu hainitz andre gazte,
Ezkontzatik urrundu nahi ginituzke.
- II. Donado egoterat gaitu gomendatzen,
Lehenik etsenplua berak du ematen,
Jaunaren ordenari du ihardokitzen,
Ikhasi behar luke zuhurki pentsatzen.
- III. Hemen erranen diot ezkontza sailduaz,
Mundua publatzeko jaunak moldatuaz:
Bi espos onhetsiak badire zeruaz,
Edifikatzen dute beren etsenpluaz.
- IV. Beraz gazte lagunak ez gaiten lotsatu,
Guziek espos bana behar dugu hartu.
Tobiasen semea dugun imitatu,
Raphael aingeruak lagunduren gaitu.

- V. Onheski mintza gaiten gure khidekoetz,
Ongi erran dezagun gure haurridez,
Ez dezagun arnega gazte amultsuez,
Detzagun edifika gure etsenpluez.
- VI. Kondizione hori da moien bakharra,
Lagun prestu batekin hel gaitzakeiena.
Holakoetan datza batasun leiala,
Jainko soberanoak hel araz gaitzala.
- VII. Bertso hauk eman ditut bai xede onetan,
Primaren emailea ber laudatzekotan,
Othoizten ditut beraz gazteak berritan,
Oro kanta detzaten haren ohoretan.
- VIII. Ongi egile hori, primaren autora,
Eskual-Herri guzian ongi aiphatzen da,
Bertsutako gostua horrek da emana,
Zeruetako aitak sarizta dezala.

200

Joanes ETCHETO

SOLDADO ONA

Aire ezagutuaren gainean

- I. Napoleon da Frantsesen ainzindari;
Suiet guziek onhesten dugu hori,
Zeren zeruak baiderauku igorri,
Populu guzieren edifikagarri,
Horren fama hedatzen da herriz-herri.
- II. Maitha dezagun gure ainzindaria,
Horren baithan da gure indar guzia,
Gobernatzen du bai prestuki Frantzia,
Hortaz gidatzen da Europa guzia,
Jaunak luzaz eman dezote bizia.
- III. Zorthe leialak zinki etxaturikan,
Soldadoa naiz xepha horren tropetan,
Zerbitzatzen dut hori kasu orotan,
Ez naiz guphida gudu handienetan,
Kuraiosia nuzu segur gonbatetan.
- IV. Estatu hunek baditu bere xarmak,
Gabiltzanean soinean gure harmak,
Oinetik buru gaituzu distiantak,

- Nola baidire zeruetan armadak.
Ohoragarri dire gure arropak.
- V. Mintza nadien gure hazkurri onaz,
Ogi, haragi, zopa, kafe, pixkotxaz,
Egun guziez asetzen gare hortaz,
Nola desertuan Israele manaz,
Kontent bizi gare tratamendu hortaz.
- VI. Erran behar dut anaia deserturez,
Urrikaltzen naiz heien pena dolorez,
Desterratuak hemen ezin egonez,
Dabilta bethi nonbait bizi beharrez,
Bethi gira beldurra xepharen partez.
- VII. Ongi gozo da xepharen maithatzea,
Kasu orotan horren zerbitzatzea,
Bai prezatzen dut soldado izaitea,
Hori delakotz jaun onaren xeeda,
Ez da hain onik nola obeditzea.

VIII. Frantses armadak khatolikoak gare,
Ezin hautsizko harroka baten pare,
Gudurat baguaz justiziaren alde,
Gorphutz guziak ez gaituzu herabe,
Izanez geroz Jainko ona fagore.

IX. Tronpeta soinuaz dugu elgar aditzen;
Musikak gaitu zeruraino altxatzen,
Hango armadaz gare bethi orhoitzen,
Zeren baidugu izpirituz gozatzen,
Pentsamendu horretan gara sustatzen.

X. Bake denboran egun onak ditugu,
Zerbitzurikan kasik deusik ez dugu,
Egun guziez bi biltzarre ditugu.
Gainerako denbora eskuko dugu,
Gure aisiaren parerik ez duzu.

XI. Beraz bihotzez othoizten dut San Leon,
Lagun nazala egoten soldado on,
Bethi nadien xephari fidel egon,
Eta ez okhasionetan phanpharron,
Dugun bethi erran, Biba Napoleon!

201

An. "Gipuzkoarra"

AMERIKATIK ETORRERA

I. Pozez Amerikara
Joan nintzan gazterik,
Etzalako inon lur
Oberik besterik;
Bainan an portuna truk
Pobrezaz beterik,
Eztakart etxerako
Urteak besterik.

II. Portuna bila joanak,
Ainbeste bidean
Urteak etxeratzen
Ditu azkenean;
Joan bainan pobreago,
Bainator urean,
Peseta bi ezтира
Polsilu nerean.

III. Ontziya pagatzeko
Izan ez ta sosik,
Jarri naiz bertan lana
Egitera pozik;
Bainan nola dauzkatan
Zarpa denak ausik,
Ni ikustean parrez
Jartzen dira guzik.

IV. Ontziyan jiratzen naiz
Kemearran joana,
Eta pozikan bertan
Detanean lana;
Soldatik ez tet bainen
Badaukat zer jana,
Amerikan prankotan
Paltatu zaidana.

V. Nere moduban joanak,
Poz aundiz aruntza,
Pranko gaur etorriko
Lirake onuntza,
Bañan nola baitiran
Bear iru ontza
Bere paltan gaitz baita
Bilatzen laguntza.

VI. Beti irabazten ez,
Ta beti bear jan,
Zenbait pobrez traste
Pasatu det nik an;
Pozez banintzan ere
Amerikara joan,
Zartzerako ona zer
Portuna dakartan.

VII. Nubelarik eskola
Oso polita, nik,
Maiz ez nuben izaten
Plumarekin lanik;
Ala aldi horretan
Goseak eginik
Etziran bizimodu
Ark egiten onik.

VIII. Gero arotziyan, ta,
Urrena argintzan,
Opizio bietan
Jardun izan nintzan;
Bainan nola portuna
Biderikan etzan,
Utzi ta obe bila
Mendirra joan nintzan.

IX. Zenbait denboran nuben

An segitu artzai,
 Etxera jiratzeko,
 Zerbait sobratu zai,
 Bainan indio xarrak
 Gertaturik etsai,
 Nitubenak galdu ta
 Jira nintzan itzai.

X. Onetan nebilela

Gerra zan azaldu,
 Zeinen berriro berak
 Baininduben auldu;
 Jan bear, ta nituben
 Ganadubak saldu,
 Eta zitzaidan neukan
 Biziera galdu.

XI. Ala ernegaturik

Nekarren bizitzan,
 Lur ura utzitzera,
 Erabaki nintzan,
 Eta obe det, bada
 Irten ezpanintzan,
 Denbora gutxi barru
 Antxen ilko nintzan

XII. Nairikan eragotzi

Arako pausoak,
 Zenbait lan egin zuben
 Pamily gaisoak;
 Bainan nik aitu gabez
 Beren itz gozoak
 Nere penaz ziran il
 Nere gurasoak.

XIII. Poltsaz ezpanaiz eta

Arkitutzen sendo,
 Eznator osasunaz
 Ere guziz ondo;
 Molde ederrekoa,
 Naiz etxera joango,
 Ay! zer kolpea detan
 Sartzean emango!

XIV. Ara, non dagon Frantziya,

Ara, Españaia,
 Ara, non dagon Jaizkibel
 Deritzon mendia;
 Ara, Ernio, ara,
 Ayako arriya,
 Ara! non dan ni jaio
 Nintzan basarriya!...

1867 SARA**202**

Joanes BERJES

ORAIKO NESKATXA BATZU

I Begientzat bakharrik badire loreak,
 Dire usainik gabe, fruiturik gabeak.
 Ordean zein dituzten eder koloreak!
 Koloretik jujatuz, bertzen erregeak.

II Haukien iduriko ditugu ikhusten
 Neskaxta gazte hainitz orai distirutzen,
 Hauk beren itxuratik duztenak jujatzen,
 Ez dirade, xingleak, guti enganutzen.

III Landetan sorthurikan nahiz diren asko,
 Ez dire hek eginak lanean hartzeko;
 Bulharrak duzte flako, larrua xurixko,
 Ez dute kuraierik kanpo-lanetako.

IV Barnean daude beraz lanetik ihesi,
 Burhasoek beharko heien phartez hari!
 Aberats gutizian, aise nahi bizi,
 Zer damua ez duten errentarik aski!

V Balakite bederen barneko lanetan,
 Jatera preparatzen bere tenoretan,
 Zonbait phondu egiten philda xaharretan,
 Ez litazke ezdeusak gure begietan.

VI Ehailetan ez dute sinheste phorririk,
 Ez dute hunkituko hortakoz khilurik.
 Khutxa zahar guziak daudezela hutsik!
 Eginen da oraino athorra hertsirik!

VII Errentak ttipi bainan handi gutuziak,
Aberatsen lerroan agertu nahiak,
Beztimenta berriez nihoiz ez asiak,
Aitaren izerdien zer xukhagarriak!

VIII Iklusatzue gure printzesa berriak,
Urhatsak xehe eta ezpainak hertsiak,
Oso-osoak gaten, iduri panpinak...
Probe diren errazu ala aberatsak.

IX Badohatzu phestara begia arinik,
Arinago bihotza, gorphutza xuxenik,
Orai ez dute senti sabeleko minik,
Bulharrentzat batere ez dute beldurrik.

X Iduritzen zaiote plazan direnean,
Denen begi samurrak duztela gainean,
Destenorean hantxe daudezi lorian,
Gau ilhunak ez ditu lotsatzen bidean.

XI Hauki lotzera hoan, muthiko gaztea,
Egik kontu! ez ditek baizen kolorea!
On baten bilhatzeko harrezak ephea,
Baldin gogoan baduk uros bizitzea.

XII Andreak, ez gaitzetsi hitz bat aditzean,
Loretto bat dautzuet ezartzen eskuan,
Gaztean dabilana urhats holakotan
Labur higaturen da pena-ahalketan!

203

Jean Baptiste ELISSAMBURU

ESKALDUNA

I Eskaldun seme dena bedi alegera!
Ikhusi dut bet-betan, oi zen den ederra!
Ez ametsetan, ez ametsetan, nintzen atzarria)
Arbola bat harrokan ederki jarria.

II Zer haiz bada, arbola? orai mintza hadi,
Harrokatik begira hagoena guri.
- Ni nauk Eskaldun,ni nauk Eskaldun,bai aspaldikoa,
Egundaino haizkorak ezin-hautsizkoa.

III Nahi duenak jakin noizkoa ni naizen,
Bilha beza harrokan erroak non diren.
Baliatu zait, baliatu zait barnasko baitziren,
Orai bertzenaz bizi ez nitzan izanen.

IV Ikhusi-tut armadak heldu Erromatik,
Ene hosto ederra handik ikhusirik.
Athera nahi, athera nahi ninduten errotik;
Ezin khendu zautatzen zenbait adar baizik.

V Pikatu badarautet nonbaitik adarra,
Azpian atzeman tut, entzun dut nigarra:
Eskaldunaren, Eskaldunaren adarren dorphea!
Zerk nau ekharrarazi ni heien azpira!

VI Doidoia ene minak zazin sendatzera,
 Huna non agertzen den Erdaldun jendea.
 Ibaika ikhusten dut,ibaika ikhusten dut ene hondatzera,
 Gutu zakien zer zen Eskaldun arbola!

VII Heldu zaizkit gainera tiroinak borthitzik,
 Berekilan ni nahiz eraman hemendik.
 Bai iharrosi, bai iharrosi, bainan nago xutik,
 Gan ziren, eta nago errege bakharrik!

VIII Bakean nagoela orduz geroztikan
 Amesten duk menturaz haurra, hire baithan...
 Etsai handia, etsai bakharra munduan Karloman
 Ni ere nahiko nau garhaitu gudian.

IX Karlomanen kapitain, Errolan handia,
 Harek zuen beretu ja mundu guzia.
 Bethor Karloman,bethor Errolan,ez naiz aurdikia,
 Dugun ikhus norena daiteken hauzia.

X Turuta soinu huna non tudan guziak,
 Izitzen dituztela hegastinek berak.
 Zaldi zuriak, zaldi gorriak, zer gizon hazkarrak!
 Nola detzazke garhait Eskaldun arbolak?

XI Haizkorez harmatuak, denak lotzen zaizkit;
 Bertzen ezin-bertzean, Errolan azkenik
 Lotzen zait bainan,lotzen zait bainan etzuen ahalik...
 Jo nuen erre kara harroken gainetik.

XII Huna orai non naizen, orai lehengoa,
 Lorerik ez dut bainan sendo dut erroa.
 Ez naiz ihartu, ez ihartuko, segur dut bizia,
 Ez badautet azpian zelhaitzen mendia?

XIII -Eskaldunak, geroztik gaiten alegera!
 Kanta berria dugun denek kanta gora,
 Biba Eskaldun, Biba Eskaldun arraza hazkharra!
 Biba mendi gainean Eskaldun arbola!



204

Gratien ADEMA "Harambeltz, senperra"

AMAXO

I Emakume xahar bat buruko xuritan,
Opulurda beltz eta zai ile gorritan,
Altoan alabaren haur bat harturikan
Neguko egun batez zagon iguzkitan.

II Dio Maddi ttikiak bere amaxori:
Nolaz duzu amaxo ilea hoin xuri?
Maitea, neguaren elhurra da hori,
Ene sasoinak orai negua dirudi.

III Bisaia golli hori, errazu, amaxo,
Ez duzu amak bezein legun eta goxo.
Ura doha erreka petarrian atxatxo
Nigarrek egin naute luzaroz ni atxo.

IV Nolaz zare amaxo hain nekhez higitzen,
Eta ez ni bezala airoski ibiltzen?
Haurra, ni ere lehen zu bezala nintzen,
Urtheek orai naute zaphan idukitzen.

V Izaiten dudanean zuk bezenbat urthe
Amaxo, zu bezala izanen naiz othe?
Haurra, urthe hasi bat nork du bethe uste?
Urtheek segurenik mentura baitute.

VI Jainko maiteak bethi amaxo, zertako
Ez gaitu elgarrekin bizirik utziko?
Bizi huntaz bertze bat hobea geroko
Badagoka Jainkoak, haurra, guretako.

205

Gratien ADEMA

MEHETEGIKO XAKURRA

I Mehetegiko xakurra,
Zangoz, errainez makhurra.
Berga bat luze muthurra,
Larrutik hurbil hezurra,
Urthe guzia barura,
Zeren zen toki xuhurra.

II Amak ttikitik utzia,
Esnerik gabe hazia,
Tripa errainei josia,
Uliek jaten hasia;
Xurikok bere bizia
Hola derama guzia.

III Mahainpetik kokoriko,
Begira dago Xuriko,
Artho axaltoa bat noizko
Othe zaion eroriko.
Nausiak ematen daizko
Doan hortik bi ostiko.

IV Xakhur gaixoa holakoz
Merke hazten zutelakotz,
Tripa hutsik, ilhun gogoz,
Pleinuz zagon egun oroz,
Hazka zangoz eta besoz
Nihun ez zauken kukusoz.

V Ohoinak ere noiz-nahi
Horren sainga ilhaunari
Gabaz ziren irriz ari:
"Xakhur prestua hi haiz, hi!"
Gero ixiltzea sari,
Jo harrika gaixoari.

VI Egun batez baratzer
Huiatzen dute lanera,
Doan oilo haizatzer...
Xakhur gose-ta-minbera,
Buztana tripaz behera,
Ihes doa gordetzer.

VII Martin etxeko muthila,
Zalu harturik makhila,
Haren ondotik dabila.
Xuriko xakhur abila
Lastoan ixil-ixila
Dago alegia hila.

VIII Zenbeti gau egun bakharrez
Gorde egonik herabez,
Athera zen jan beharrez,
Hamikatua, nigarrez,
Estalia zaragarrez,
Lakhastaz eta zakharrez.

IX Sukaldean nihor ez da;
Sartzen da xakhur herresta.
Errekoa zen prespresta,
Zeren zen herriko besta.
Usain, milik'eta jasta
Dena jaten du has eta.

X Etxeko andre khexua
Hor heldu da hats-hauntua:
"Zakhur madarikatua,
Eia, hor, usu-usua,
Nik hauts artean burua,
Egik hire ordenua."

XI Ordenuak hau du beltza,
Denen uztea bertzentza;
Xurikok badaki ontsa
Nori zer utz, nola phentsa:
Etxekoandreaki gantza;
Nausiari azken putza.

XII Bizian gosez egonik,
Hiltzean sobera janik,
Huna Xurikok erranik,
Zer entzun dugun azkenik:
"Gose dagonaren ganik
Ez daitekela lan onik".

1868 SARA

206

Joanes OXALDE

ENPERATRIZARI

Airea: *Gernikako arbola...*

I Sartzetz Eskualdun, soldado xorthetik,
Gerletara joan nintzen ait'amen aldetik,
Nigarrez maiteño bat herrian utzirik,
Etzuten uste berriz ikus ni bizirik...
Soldado on izan naiz, ez dut urrikirik. (berriz)

II Lehenbiziko sua, hantxet Italian,
Frogatu izan nuen Magenta-zubian,
Lerro osoak zoazen lurrerat aldian,
Enperadorea zen han gure erdian,
Harentzat hilen ginen guziak lorian. (berriz)

III Magentaren ondotik, gero Solferino,
Hain su bizirik ez da izan egundaino.
Gur'Enperadorea, biba zu oraino!
Han ere suharrago baitzuen gu baino
Etsaiak arras amor eman arteraino. (berriz)

IV Bolboraren lanhoa altxatu zenean
Napoleon galopan, ezpata eskuan,
Begiak erabiliz bere inguruan,
- Non da etsaia, dio, joan deia airean?
- Horra non den ihaurri, etzana lurrean. (berriz)

V Erromatik entzun da oihu bat Frantzian,
Mauduler batzu dira hasi errabian,
Gure Aita Saindua bortxatu nahian.

Bainan indarra urthu laster bihotzean,
Frantziako bandera agertu denean. (berriz)

VI Erromatik Frantzian berriz sarthurikan,
Amiexen nindagon izurrite hartan.
Herioaren eztaiak jastatu tut nik han,
Harekin hari ginen guziak borrokan,
Batzu hil zireneko, bertzeak khorrokan.(berriz)

VII Bere palaziotik entzunik berria,
Huna Enperatriza, zalhu ethorria,
Eriz eri dabila... zer ikusgarria!
Iduri aingeru bat Jaunak igorria,
Zure ganik zenbatek ez dugu bizia. (berriz)

VIII Sei urtheren buruan, jin zautan orena,
Aspaldian Jaunari galdatzen nuena,
Ene herri maitera naiz alde-bat jina,
"Urtzo, begi urdina, hain fidel egona,
Orai aldean zaitut espos hein bat ona!" (berriz)

IX Haurretik maithaturik Jaunaren legea,
Bethi baliatu zait prestu izaitea;
Ongi zerbitzaturik Enperadorea,
Badut ohore frango, badu gurutzea.
"Bide beretik habil, hi ere, gaztea!" (berriz).

J. VINSON

CONCOURS

DE

POÉSIE BASQUE

A SARE

EN 1869

Extrait de la *Revue de Linguistique et de Philologie comparée.*

PARIS

MAISONNEUVE ET C^e, LIBRAIRES-ÉDITEURS

15, Quai Voltaire, 15

1870

Julien Vinsonen txostena Sarako 1869ko Koplarien guduez

207

Joanes BERJES

ANDRE ALFERREN ETA ZUHURREN GAINEAN

I Kantu berri batzuek oraiko andrentzat
Pharte bat alferraren, zenbait zuhurrentzat,
Egiak erranen tut orai guzientzat,
Onak izanen dire agian gaztentzat.

II Alfer hioen senharrak denetan seinale
Maiz galtzak zilo eta moltsan diru gabe,
Plazara agertzeko askotan herabe,
Lagunetarik urrun zokuetan daude.

III Andre zuhurra duzu parerik gabia,
Behar denean segur athorra xuria,
Egunazko ederra gabazko bertzea,
Ez alferrak bezala kukusoz bethea.

IV Zenbait andre badira aisian jarriak,
Egun egin beharrak biharko utziak,
Ez baitire sobera lanean heziak,
Etxe erori baten, zer altxagarriak!

V Zuhurren baitan ez da holako gauzari,
Zeren bizi baitire lana maitaturik,
Denekin ohorezki, ez egin dudarik,
Bakotxa ezagun da bere obretarik.

VI Alferrek badituzte kontrako indarrak,
Jatera berant eta mihiak hazkarrak,
Munduan badituzu holako bakarrak,
Ardura ortziraile hekien senharrak.

VII Nahi duzu sar gaiten zuhurren etxetan,
Sukal bazterrak argi dituzte goizetan,
Jatera preparatzen bere tenoretan,
Garbitasuna maite gauza guzietan.

VIII Alferra jeikitzen da ongi loz aseta,
Handik hauzora doha gezurrez betheta,
Gero seharrarentzat han dago gaizkika,
Etxeko poxi onak berak iretsita.

IX Barnian gerlarik ez, kanpoan bakea,
Hori da zuhurraren bizitze moldea,
Arkan badu arthua bai eta ogia,
Hukitzen duelarik zaharrak berria.

X Aza buruarentzat kalte dire harrak,
Hoberenak jan eta gelditzen kuxkurrak,
Etxe gizen batentzat igualtsu alferrak,
Hango buruzagiak laster!!! laster zorrak.

XI Gaztea, beha zazu nere erranari,
Jarraiki behar zare bethi zuhurrari,
Kasurik egin gabe andre alferrari,
Halakua duena daukat urrikari.

XII Andreak, etzazuen ez hartu penarik,
Zeren gelditzen bainaiz egiak erranik,
Etxean ongi dena naiz alegerarik,
Ez alferrak bezala, ezpainak zimurrik.

208

Joanes ETCHETO

NESKATXA POBREAREN GAINEAN

I Ihesi egin diot lo kexagarriari,
Amets on batez ere lagundu ez denari,
Mendiaren gainean aintzindu naiz segurki,
Iguzki ederraren arraio lehenari.

II Xori kume pollitak, elhorri loratuan,
Kantu egiten zuen, goizetan argitzean.
Amak ematen zion hazkurria mokoan.
Hori ikusirikan nik nigarra begian.

III Oi, zergatik ez dut nik amarik ezagutu!
Xori hura bezala, zergatik ez naiz sorthu!
Hark bere ohatzea arbola gainean du,
Nik behere hunetan, deusik ez dut kausitu.

IV Ez lurraren gainean, ez nuzu deusen jabe,
Ez segurki ez dizut ohakorikan ere.
Ni naiz haur hatzemaña, karritto bat ohatze,
Eta Elizako borten geriza atherbe.

V Neure burhasoetarik urrun kasatua,
Ez dut ezagutzen heien besarkamendua,
Zelhaietako haurretarikan urrundua,
Ez naute ezagutzen hek beren haurridea.

VI Laborariarekin ez naiz errekontrazen,
Bere eremuetan ez nauk hark gonbidatzen,
Urrunetik haren familia dut ikusten,
Arratsetan haren musuaren bilha goaten.

VII Neure egon lekhua, nik kapera dut beraz,
Harat lehiatzen tut neure urhatsak mugaz,
Hura neuretzat ez duzu hetsia fedez.
Han ongi nuzu ikusia jende prestuaz.

VIII Izagun dut neure urhats errebelatuaz
Hil hobien egoitza, aithortzen dut bihotzez,
Bainan hil-hobiak neuretzat dire arabez,
Khearen iduriko, zoin baidoha lasterrez.

IX Harri haren gainerat etxatzen tut begiak,
Zoinetan hasi baitziren neure doloreak,
Hartan ikustekotzat nigarrezko kutsuak,
Ene amak neuretzat egin zituzkeienak.

X Hamalaur primaderaz egon naiz nigarretan,
Khendu nauten besotarik urrun auhenetan,
Zato, neure ama hemen nago othoizetan,
Zuk utzi harriaren gaineko pausu huntan.

209

Joanes ETCHETO

AMOINAREN GAINEAN

I Erran dezadan amoinaz, guti egiten denaz
Liburu sakratuetan goraki altxatuaz.
Neure jakitateak ematen nauen ariaz,
Mintzaturen nuzu horren obratzeko premiaz.

II Bai liburu sainduetan segur ikisten dugu,
Jaun handiaren eskuaz izkribatua duzu,
Gure othoizetan ere bethi erraiten dugu,
Pobreak behar tugula bihotz onez lagundu.

III Zinki Jesus-Kristoren anaia onak dirade,
Beharrak balinbadira Jaunak eginak dire,
Gisa hortan amoinaren dretxo handia dute,
Izandunek salbatzeko eman behar diote.

IV Izaiteak mundu huntan froga batzuek dira.
Hainitz gozatzen duenak zor duke arabera,
Guti daukanak ere hartarik eman dezala.
Horrela agertzen dugu segurki bihotz ona.

V Alhargunaren komadoa da segur khondatzen,
Zeruetao aberaskuen artean ezartzen,
Hori hola denaz geroz, nik bethi dut sinhesten
Zeruetan amoinaren gozoa dela biltzen.

VI Hau da liburu sainduen irakaspena hitzez,
Jesus-Christok du pobrea segitzen ber-urhatsez,
Duda gabe pisatzekotzat, balenza zuzenez,
Arimari egiten den kaltea errefusez.

VII Madarikatzen ohi du gosezko oihu batek,
Bihotz higitzen ez dena, diote liburuek
Beraz pobreri emana, badakigu guziek
Jainkoari ematen da: pagaturen tu harrek.

VIII Duda gabe amoina da obretan ederrena,
Gizona du helarazten bethi zorionera,
Nola urak hiltzen badu sugarraren indarra,
Orobat du hilarazten Jaunaren hasarrea.

IX Eman dezagun amoina, bainan ez oihurekin,
Ahalaz ixiltasunean, ez harrabotsekin,
Esku eskuinaz emana, ez dudarikan egin
Esku ezkerrek ez luke behar sekula jakin.

X Amoina egin dezagun gure ontasunetik,
Eziz Jauna zuzena da, ez da hortan dudarik,
Beraz, onhetsiren dizu, diot beraren ganik,
Gogotik ematen dena, bere gauz propitik.

XI Hainitzak behere huntan, bertzerena ebatsiz
Arranguratzen dituzu ezin onheski biziz,
Bertzeak bethi emanez, bizi dituzu aldiz,
Zeruetao laguntzak nasaiki ardietsiz.

XII Zeruetao beira dago lekhuko aberats bat,
Bihurtuko ditu ehun bakhar baten alderat.
Ukhantza handiak dira amoina emanentzat,
Bakhotxa gaiten lehia, obra eder horrentzat.

210

Augustin ETCHEVERRY

HAURRA HOBI HEGIAN

I Atzo sortzeko hintzan, oi gaxo lorea,
Zer jadanik histu duk hire kolorea!
Ni atzo hi iduri oraino ninduan,
Eta izanik nukek sarrikotz munduan!

II Ez daut ez min egiten lurraren uzteak,
Ene amets ederren amets ikhustekak,
Lotsaten nauena da amaren begia,
Badakit zerentzat den nigarrez bustia.

III Ahituz banuhala hori da seinale,
Berbera daitakela nihar laguntzale,
Oi, ondikozko zori, zori latzgarria!
Nola sendaturen da amaren zauria!

IV Sehaskan nintzalarik ene aita gan zen,
Orduan amak bere ninduen khondatzen,
Ez nintzan, ez, zuretzat orai da ageri,
Galtzen nauzunaz geroz hazi bezen sarri.

V Ametan trixteena, etzenez, errazu,
Hobe, sorthu berria galdu baninduzu,
Tikiago zaiteken zure bihotz mina,
Nik ez nuken senditu oinhazen eztena.

VI Atsekabe izanez bazine orhoitzen,
Hek oro elkharrekin bazintu ezartzen,
Zer itsaso ilhuna zinezake erran,
Hoinbertze jesan eta denak alferretan.

VII Zer orhoit etzarena pairatu tuzunez,
Sobra zaitut entzuten zaudela auhenez...
Ai!... oraikoan noha, uzten zaitut ama!
Zure nahi ninduzun, gaitzak banerama.

VIII Orai bizkitartean, orai nintzan hasten,
Amaren mintzoari laster ihardesten,
Irri eztiz pagatzen amaren irria,
Eta jo herioa bilha ethorria!

IX Galdatzen baninduzun norapeit beharrez,
Nik behantzut? zuk hoa... nindohan lasterrez,
Mandatu egilea orai nun dukezu!
Ama ni galduz geroz zer ari zare, zu?

X Bainan, ama maitea, erraiten zinautan
Jainko bat bazagola onen zeruetan,
Zer gaizki duket bada, nik oraino egin,
Xuxen zerurat noha, ez naiz ni gaixtagin.

XI Zeruratzearekin Aingeru naiteke,
Hegaldun balinbanaiz ikhus nezazuke,
Ama! zoin naizen urus! ez nauzu ez galtzen,
Maiz somaturen nauzu zure ganat heltzen.

XII Ez, beraz, ama ona, ez egin negarrik,
Suntsitzen naizelakoz mundupe huntarik,
Etzaitut ahantziren zeru gorenean
Non etzaren enekin ber zorionean.

211

Augustin ETCHEVERRY

ETXEKO ANDREA

I Etxeko andrerik
Non da hoberik?
Barneko lanetan
Ez du parerik,
Goizean lehenik,
Besoak arinik,
Lanari lotzen da
Ederki jauntzirik.

II Arropetan xuhur,
Gaxina sudur,
Nola bestizaren
Ez zare segur,

Burukoa makur
Kotilunak labur,
Horma haizeari
Ez bide zare beldur.

III Emazte panpina,
Gure Gaxina,
Xingilka dabila
Aztal zikina.
Koleran kusina
Dohako ihesi,
Ez nahiz ikusi
Enoxent-arina.

IV Zenbat denbor du
Etxetik zalu
Betroin xuri-beltx bat
Zuela saldu.
Adarrez ixilka
Egin zen kiska,
Ez da abiatzen
Geroztik xingilka.

V Bertzenaz etkeko
Gauzen hazteko
Bazkatzeko maina
Badu askitto.
Orai ere asko
Baditu saltzeko,
Zazpi xerri edo
Konexua franko.

VI Baditu bakarrak
Etxe antzarak,
Oilo, oilanda,
Gapoin, oilarrak,
Amaxo xaharrak
Dituen nigarrak
Oilotto bat goinik
Axei ozarrak.

VII Jokuaren parte,
Trufarik gabe,
Segurki, Gaxuna,
Aberats zare!
Zenbait senhar-andre
Jelosian daude
Zu bezen bat gauzaz
Ez baitire jabe.

212

GOYETCHE

TRATULARIZ ETA OSTALEREZ

Airea: *Saratarra naizela...*

I Jeneralian mintzo naiz guziei klaroki,
Bat ez bainuke nahi bakharrik berexi,
Nihori pena egiten ez dut nahi hazi,
Guziekin adiskide nahi baitut bizi.
(*guzietan dobla azken bertsua*)

II Deklaratzera noha zer den sustantzia,
Tratulariek dute hainitz malezia,
Gauzak merke hartu eta saltzen garastia,
Atherako du errez doble irabazia.

III Gauzaren erosteko negurri noblia,
Saldu behar denean ez sobra gorria,
Enplegu dutenetan zer hekien loria,
Erostuna ez bada saltzaile iduria.

IV Hainitzak eman dire orai tratuari,
Herriak ere egin hiriak iduri,
Beren har emanetan ez fida orori,
Ukho egin hurranak gaude fedeari.

V Esne saltzailiak ere arimaz orhoitzen,
Burra khendurik gero gazuraren saltzen,
Hala hobeki dela barnean kuratzen.
Edari ona dela ez dugu dudatzen.

VI Nafar zalek badute beren aabilezia,
Bidean egiten dute aize adrezia,
Zenbeit trago edan eta erthuts zahagia,
Errekako ur sanhotik bethe negurria.

VII Ostaleren hasten naiz orai etsaminatzen,
Nor den ofiziale arnuaren drogatzen,
Denek badakitela ez dugu pentsatzen,
Ofizio hortako guti da aberasten.

VIII Beren estomakak ere dituzte berotzen
Gauza ona den tokian maixko tirriatzen,
Barneko ilhaundurak hark ditu animatzen,
Moltsan eman beharrak tripak erematen.

IX Gero kontzientzia denen etsamina,
Bihotzian guti sarthuz bekhatuen mina,
Beren egiteketan dabilta aintzina,
Mundu huntan bada bertz holako makina.

X Orai othoizten ditut jaun iskribantiak,
Kontratu egiteko dauden prest guziak,
Lanak ditu bertzela orai fidatziak,
Guti uste dugunean tronpatzen guziak.

XI Ez dut erraiten denak holakuak direla,
Nonbrian badakit hainitz onak badirela
Nihorentzat ez noha dretxo emaitera,
Txarrak itzul ditezke oneko parterat.

XII Hamabi bertsu berri ditut nik ezarri,
Ohore bihurtzeko Sarako bestari,
Hartako diren jaunek galdea dute igorri,
Osagarri on batekin goraintzi orori.

213

Jean LANDART

GARIBALDI

Airea: Soldado nintzelarik Jakako mendian

I Gerlan aiphatu bat khantatzera noa
Harrentzat ene boza nahiz den flakoa,
Nola Roman baititu azken balentriak,
Ikhustera zatozte gerlako tokiak.

II Horra Monte Rotondo segidan Mentana,
Hor da bihotza sutan Zesar bigarrena,
Zin egin du goraki Romaz jabetzea,
Edo haren athetan hilik erortzea.

III Bainan, haren lagunak, ez othoi, ez izi,
Kharramitxa bat gabe osorik da bizi,
Beldurra du baxharrik hertzetan barnaxko,
Ez du zenbeit egunez purgarik beharko.

IV Garibaldik ezpata gerrian lotzean,
Ezproinak etzituen ahantzi etxean,
Eta nahiz ezpata guti baliatu,
Bai, ezproinen beharra segur izatu du.

V Ikhustean etsaiak balekin jostatzen,
Gure xamar gorria hula zen mintzatzen:

Hauk, iduriz, biziak ditiztek milaka,
Nik ez baitut bat baizik banoha lauhazka.

VI Hanitzek uste dute zin egin geroztik,
Etzela behar ihes laxoki gan sutik,
Oii! zer xorokeria! putrun bizitzea,
Hobe baita ezenez bihotz-dun hiltzea.

VII Honela Garibaldik ahal du jujatu,
Xistuz etsaien balek dutenean gorthu,
Ixilik erran dio bere buruari:
Ez duk ona musika, Zesar, urrun hadi.

VIII Garibaldik gaindizka ditu berthuteak,
Baten argiratzeko lanjerean denak,
Emaitea zitzaion erhokeria bat,
Beraz ainhitz zuhurki gan da gibelerat.

IX Orai zertan othe da gure gerlaria?
Oraino kokoriko othe da jarria?
Ez altxatu zen, bainan Romaz badu gaindi,
Kanta dezagun, beraz, Biba Garibaldi!

1869 SARA

214

Augustin ETCHEVERRY

HILTZERA DOHAN HAUR BATEN AUHENAK

I Zeruan othe nintzen, ala ametsetan!
Haur eder hek zer ziren, ene aitzinean?
Xuriz, guziak best, guziak xingola...
Gan behar eta banintz hek diren bezala!

II Ez nuke bada minik, lurraren uzteaz,
Ene amets ederren, amets ikusteaz,
Lotsatzen nauena da, amaren begia,
Badakit zerentzat den, nigarrez bustia.

III Nohakola ni ere, hori da seinale!
Eta geroz berbera!... nihor laguntzaille!...
Oi ondiko zori, zori lazgarria!
Nola sendaturen da, amaren zauria!

IV Orai, bizkitartean, orai nintzen hasten
Amaren mintzoari laster ihardesten,
Zagotanean irriz, nioen irria,
Eta ja, herioa, bilha ethorria!

V Galdatzen baninduzun, norapeit beharrez,
Nik: Badantzut? –Hoa, zuk; –Nindohan lasterrez
Mandatu egilea, orai, non dukezu?
Ni gabe, ama ona, zer hari zare zu!

VI Sehaskan nintzalarik, aita gan omen zen,
Orduan, amak bere, ninduen beiratzen,
Ez nintzen ez zuretzat, orai da ageri,
Galtzen nauzunaz geroz hazi bezain sarri.

VII Ametan trixterena! etzenez, errazu,
Hobe, sorthu-berria, galdu baninduzu?
Eztiago zaiteken, zure bihotz mina!
Nik, ez nuken senditu oinhazen eztena.

VIII Zer erran zinezake, bazine orhoitzen,
Atsekabe jasanez? bazintu kondatzen?
Begira bazinaude, itsaso beltz hari?
Oxala! nik zeren haut mundurat ekarri!

IX Zu, orhoit etzarena, pairatu tuzunez!
Sobra zaitut entzuten, zaudela auhenez,

Ai! ezin dirot luza, uzten zaitut, ama!
Zure nahi ninduzun, gaitzak banerama.

X Zeruratzearrekin, aingeru naiteke,
Aingeru valinbanaiz, ikhus nezazuke,
Utz nezazu, gan nadin, ez nauzu ez galtzen,
Maiz somaturen nauzu, zureganat heltzen.

XI Ez beraz, ama ona, ez egin nigarrrik,
Suntsitzen naizelakotz, mundupe huntarik,
Etzaitut ahantziren, zeru gorenean,
Non etzaren enekin, zorion berean.

215

Edmond GUIBERT "Ezpeletar batek"

SARAKO ANDREGEIA

Airea: *Entxauspeko alaba dendaria*

I Gauerdi da herriko orenean,
Nihon ez da argirik lurtean,
Ez ditake mendian adi deusik
Haizearen harrabotsa baizik.

II Jautsia da loa begietarat
Xoil Sarako neskatxa gazte bat,
Bere leihoan, gau hura bezen triste,
Atzarria zagon ordu arte.

III Zazpi negu iraganak jadanik,
Goanez geroz maitea herritik,
Eta huna urthe bat Mariari
Ez diola berririk egorri.

IV Idortean lorea laster histen,
Tristezia Maria hiratzen,
Ezpainetan ja hil zaio irria,
Bergia du nigarrez bustia.

V Urso batek galduz geroz laguna,
Kantetzeaz ezitzen du phena,
Andregeiak gauazko aizeari,
Minki dio kantu hau egorri:

VI "Goan zenean oraino haurra nintzen,
Anaia bat Joanes neretzat zen.
Erestun hau, ait´amen aintzinean,
Eman zautan adios erraitean.

VII Orduz geroz maiz egiten dut nigar,
Hain eder zen, hain zalhu, hain azkar!

Etzuen hark mendietan parerik...
Non othe da? Nik ez dut berririk.

VIII Bihotza daut ikhara batek hartzen:
Maitea hil beldur naiz othe den,
Nere ama hiltzen ikhusi dut iaz,
Zorikaitzak gabetu nau aitaz.

IX Gelditu naiz nere amasorekin,
Sustengatzen gare elkarrekin,
Nik gidatzen ditut haren urhatsak,
Hark xukatzen daizt nere nigarrak.

X Ezartzen tut esperantza Jaunean
Indarra dut hartzen othoitzean,
Bainan ez da neretzat sosegurik,
Maitearen ez baitut berririk."

XI Kolpez bortan jotzen du esku batek...
Boz batek dio: Idek azu idek...
Andregeia, boz hau ezagutzean,
Xutitzen da ikhara zainetan.

XII Amaso, zuk, idek azu athea...
Mariaren han zagon maitea!
Oi, Jaun ona! zaren bedeikatua,
Gur´auhenak dituzu aditu.

XIII Iduzkia agertzen da mendian,
Mari´orai ez da tristezia:
Elizako eskilek bozki jotzen,
Andregeia egun da ezkontzen!

Paris 7 Octobre 1870

Monsieur,

Dans le temps où j'ai été
chargé d'émettre mes avis
sur le plus ou le moins de
février, je me balancais pour
donner mon jugement; il
était conforme à celui de
M. l'abbé Tréhouque. Au
temps ont changé sans
changer l'opinion. Toutefois
je ne puis pas que cette
pièce soit d'un tel mérite
qu'elle doive être signifiée
à son public auable et
truis et de tristesse. C'est
dans ce sens que j'écris à
M. Tréhouque.

C'est avec ses sentiments,
d'entier serrement que j'ai
l'honneur d'être

Monsieur

avec très respectueux
salutations

Duvernois



J'ai écrit à Londres
sans copies de réponse

216

Gratien ADEMA

EZ DU SOSAK EGITEN ZINEZKO GIZONA

I Arrozoin bat aspaldi aitaxok ziona,
Ez dik sosak egiten zinezko gizona,
Gizon zinezkoak hau da dohakona
Zuzentasun garbia eta bihotz ona.

II Aberastuz geroztik Pattin zaiku jaundu,
Bainan aberasteak ez dik hanbat ondu,
Jainkorikan ez dela haltoki erran du,
Nahikariak dio sinhestea khendu.

III Mundua kurriturik zerbeit ikusia,
Pattin koxkorro horrek badu erasia,
Gure fedeez trufan dena fantesia,
Ibili den lekhatan deus ez ikhusia.

IV Pattinen arrozoinak baititu sinhetsi,
Moltsa dio norbeitek berari ebatsi,
Pattin, hire ohoinak zer lege dik hautsi?
Jainkorik ez zela hik hion irakutsi.

V Huna Aparrapio aberats zikhoitza,
Harriz ala burdinaz othe du bihotza?
Karitate, obra on, edozoin emaitza...
Aiphamen xoilak aurdik lezake hil hotza.

VI Aberatsari ala haren diruari
Agurka gehienik zoini gare ari,
Agurra zor diogu gizon zuzenari,
Dirudun den bezala bihotzdun denari.

217

Jean Baptiste DARRICARRERE

LOT LANARI

Airea: *O filii et filiae*

I Munduaren kreatzean
Jaungoikoak zion erran
Gure aita lehenari:
Lot lanari!

II Zeruaren ibarretan
Lurra itzul ingurutan
Zer derroke gizonari?
Lot lanari!

III Ekhi bero emaileak
Argi ezin akhituak
Zer derroke gizonari?
Lot lanari!

IV Airearen aurkhintzetan
Zer hedoiak lasterretan
Derro goiko hedoiari?
Lot lanari!

V Itsasoko haranetan
Zer haizeak musuetan
Derro uhain urdinari?
Lot lanari!

VI Xirriparen gurgurak
Urhaitzaren zurruthatsak
Zer derrote ibaiari?
Lot lanari!

VII Xoriñoek hostopean
Goizko kantu ederrean
Zer derrote gizonari?
Lot lanari!

VIII Airetarrak hegaldaka,
Uratakk igerika
Zer derrote gizonari?
Lot lanari!

IX. Lanak demo osasuna,
Janharia, ontasuna,
Jarraitzen zaionari...
Lot lanari!

X Beraz ongi bizitzeko
Ez dezagun egin uko,
Gure aita hazleari,
Lot lanari!

218

GOYETCHE, saratarra

GIZONAREN BIZIAZ

Airea: Perkain eta Azantzaren partida

I Gizonaren bizia lurraren gainian,
Hainitz penatua da den hoberenian,
Deskantsua ezin har bere negurrian,
Zorion osuan ez baita munduan.

II. Batzuek aberatsak, bertziak pobriak,
Gare errenkurekin baikare guziak,
Zenbeit zaharrak dire, hainitzak gaztiak,
Bazterrak asetzen tu luze bizitziak.

III. Gizonen ohoriak ez daude berdinak,
Errespetu hainitz du kargua duenak,
Araberan orobat etxian ungi denak,
Denentzat higual, oi gure azken orenak.

IV. Sortzian pobre baita hiltzian orobat,
Arthe huntako hemen mudantzan manerak,
Berdin arrapatzen tu heriotze berak,
Lurrak estaltzen ditu gure hutsak denak.

V. Zein gare burua gora, hemen gabiltza
Bide makhurra hartuz, zuzena utzita,

Gutik dugu kunplitzen Jainkoaren abisa,
Elkharren enganatzen hainitzak dabiltza.

VI. Zerua eta lurra zituen kreatu,
Gu gaitezila hetaz ungi baliatu,
Horra gizona zenbat duen estimatu,
Zertako behar dugu gaizkiaz pagatu?

VII. Gizon galant guziak ez dire akhabo,
Nonbrian zenbeit bakhar oraino badago,
Jainkoaren grazia handia baitago,
Txarrak onduko diren esperantzan dago.

VIII. Aita on bat badugu bakharra zeruan,
Ezarri baikaitu familia munduan,
Denak anaia arrebak bere zerbitzuan,
Harekin gozatzeko loria sainduan.

IX. Azkeneko bertsuan guziei guaraintzi,
Ungi gobernaturik hobe dugu bizi,
Nihori ez dakigun onduan urriki,
Zuzen dabilana da bitorios bethi.

219

Piarres IBARRART

KANTUAK LARRUNGO MENDIARI

Airea: Saratarra naizela, edo: Gernikako arbola...

I Bertsutako guduak sujet hainitzetan,
Pasatu izan dira iragan urthetan,
Eta guziz oraino Sarako bestetan.
Larruna ez da izan aiphamen hoietan,
Hoin famatua dena Heskak herrietan.

II Larrungo mendia da zabal eta gora,
Iduri du lurretik bide erdi zerura,
Zer loria juaitea harren bizkarrera,
Leihor itsasueri beha egoitera,
Horren laudorioak ditzagun athera.

III Mendi horren gainetik dutenek behatzen,
Oro bere azpian dituzte khausitzen.
Bi oren har daiteke herrien khondatzen,

Behin izatu dena berriz lehiatzen,
Holako guti dute nehon harrapatzen.

IV Larrun hire berria urrun duk hedatzen,
Hi ikhusten hautenak dituk agradatzen,
Untziko marinelak ere fagoratzen,
Urrundanikan haute begietan hartzen,
Eta hiri behatuz leihorrean sartzen.

V Larrunak ohore hau etzuen izatu,
Nola Napoleonek emanikan baitu,
Mendi hau guzia du ongi inguratu.
Lehengo erregerik ez da menturatu,
Horren bihotz azkarrak parerikan ez tu.

VI Gure Enperatriza ohoragarria,
Behar guzien ama eta sokorria,
Aire ezti batekin, hortzetan irria,
Larrunen begiztatzen, zer ikhusgarria!
Iduri aingeru bat Jaunak igorria.

VII Ez dut dudatzen dela berriz ethorriko,
Gostu hartu baitzuen han lehen aldiko,
Manua eman zuen dorre bat eiteko,
Mundua mundu deno hartaz orhoitzeko,
Larrunaren gainean dago sekulako.

VIII Printze gazteak ere burhasoekin,
Larrungo bidia du haurretikan jakin,
Othoitz egin dezagun orok elgarrekin,

Khorona izan dezan aitak uztiarekin,
Odol hau izan dadien bethi frantsesekin.

IX Ikhusi tuztenean Larrungo hegiak,
Bai eta leize dorphe ezin sinhetsiak,
Gero Saran zituzten, zer ikhusgarriak!
Hainitz ederrak zaizte, bai urzotegiak,
Ez baitira izanen segur ahantziak.

X Aditzale maiteak, bertsu hau azkena,
Desiratzen dautzuet, osagarri bana,
Hori da mundu huntan beharrenik dena,
Bihotzez othoizten dut gure Aita ona,
Hil eta har gaitzala oro bere gana.

1870ean ez da Koplarien Gudurik

1871 SARA

220

Jean Baptiste ELISSAMBURU "M. Doyharçabal"

XORI BERRIKETARIA

Airea: Lurraren pean sar nintake, maitea, zure ahalgez...

I Sor-lekhua utziz geroz ondikoz bada beharrez!
Jainko ona urrikalduz bethiko nere nigarrez.
Primaderan hasi orduen arbolak estaltzen lorez,
Xoritto bat heldu da bethi nere herritik hegalez.

II Nere gana hain urrundik ethortzean unhatua
Arbolarik hurbilena du bere pausa-lekhua,
Ardaxka goren-gorenean hara non den lokhartua,
Lumapean zango bat eta hegalpean du burua.

III Pausa hadi, lo egizak, xori maitea, bakean!
Atzarria, ni hire zain, hemen nauk hire aldean,
Ur xortarekin huna gero papurrak leiho gainean,
Bainan gero hango berriez orhoit hadi atzartzean.

IV Orhoit hadi, bai, xoria, berri maiteko berriez,
Nere aitaz nere ama, nigarretan nik utziez,

Mintza hakit ahaidez-eta,mintza lagun on hekiez,
Mintza,nihor ahantzi gabe,maite ninduten guziez.

V Atzar hadi, atzar bada, berriketari abila,
Ene beldur izan gabe jauts hadi hurbil-hurbila,
Erran leihoan izan haizen erradak ixil-ixila.
Izan ere hunatekoan solas ordainetan bilha.

VI Xoria, lo hagolarik, ikharan nagok aldean,
Ez ahal da zorigaitza maite nautenen artean!
Hala balitz, othoi, xoria, berriz herrira heltzean,
Loretto bat nigar batekin pausa zak tonba gainean.

VII Xorittoa joan denean hostoan eror denboran
Berriz ethor ez dadien nago beldurrez ikharan.
Ihizlaria hartzen baduk ene xoria segian,
Utzak,othoi, gaixoa libro, berriak ekhar detzadan.

Concours de Poésie Basque

Chori berriketaria.

Dor le. Klu. a u. igiz gu rox on. di. eg! ba. la. be. har. rez, Jan.
 o. na. re. ni. kal. du. be. thi. ce. no. re. ni. gar. rez. Pri. ma. de.
 ran. ba. di. os. du. co. ar. bo. lac. es. tal. i. gu. lo. rez. cho. ri. to. bat. hel. da. za. be. thi.
 ne. re. ber. ri. tik. be. ga. les.

2.^a

Nere gana bain urundik - ehortzian, unkatua,
 arbolarik burlidena du bere pausa lekhua,
 aldaitza gorongoruan bota non den lothartua
 sumazcan zango bat eta bezalpean du burua.

3.^a

- "Pausa badi, lo eguzak, chori maitea, batuan;
 "Atzaria ni bere gain hemen nauk hiru aldeaz;
 "Ez choriarekin huna guero papurak leho ganean,
 "Bainan oher hango berriez, orhoit badi atzartean.

4.^a

- "Ohoit badi bai, hona, berri maitea berriez;
 "Nere aita, nere ama ni garetan nik utziaz;
 "Mintza hatlet abandez eta mintza lagun on egiaz, (betiaz)
 "Mintza nhor abantzi gabe, maitea oinartuz gueziaz.

221

Gratien ADEMA

JEUS

I Asko gizon orok uste dute munduan,
Ez dela sekulan *jeusekin* zerbait egin,
Hetaz trufatzeko nik eman dut buruan,
Zenbait bertsu pullit egitea *jeusekin*.

II *Jeus* errexagorik! Zenbat gaizo lurrean,
Atzo *jeusen* jabe, egun diruz betheak!
Ez *jeus* hek urtheak bildu dituztenean,
Aise nik *jeusekin* eginen tut bertsuak.

III Ez dut galduko *jeus* egiten ez baditut,
Jeus gabe nintzena, *jeus* gabe naiz egonen,
Aditu beharko: *Jeus* ez haiz, gaizo petut!
Bainan hitz ergelek ez dauret *jeus* egiten.

IV Egiten baditut, zer zoria neretzat!
Jeusik etzait lana, pena guziak *jeusik*,

Aiphatuko naute gizon abil batentzat!
Othe da munduan *jeus* arraragorik?

V Zer dakit oraino? *Jeusekin* behar bada,
Untza ta makhila ditut irabaziko...
Nahiak nau naski mintzarazten horrela,
Bainan zinez ez da *jeuseri* fidatzeko.

VI Ixiltzen naiz. Etzait *jeus* heldu gehiago,
Jeus handirik erran gabe dut akhabatzen.
Bainan nere kantak ez badu *jeus* balio,
Nehori bederen ez du minik egiten.

VII Zoroa! Zer diot...? Bertsu hauk *jeus* balio!
Gauza segura da *jeusez* egiten tudala,
Bada, nik ez nuen *jeusnahi* gehiago,
Urus nahietan *jeus* eskas ez duena.

222

Joanes BERJES

GERLA

I Zori gaixtoan zagon gerlaren hastea,
Hortara izatu da hainitzen kaltea
Etsaia garhaitzeko harturik ustea
Enganatu izan da enperadorea.

II Jaun horrentzat baduzu mila erraiteko
Bakharrik ezin izan denen gogorako,
Khorroak zituen guziez gorago,
Geroztik jarria da hainitz aphilago.

III Urguluaren gatik utzi du gortea,
Etzuen hala uste han preso hartzea,
Hainitzek pena hartu artzaina galtzea
Ikhusirik hola zen gure arthaldea.

IV Lan hori ikhusirik ginen lotsatuak
Hala manatzen zuen gure estatuak,
Etsaiek ordurakotz lur hainitz hartuak
Zeren ez ginelakotz ongi prestatuak.

V Solas hau hasia zen zoro baten pare
Langile guti eta hainitz manazale,
Erresuma gaizki zen nausi onik gabe,
Zerbaiten egitera obligatu gare.

VI Hortakotz bildu ginen botzak emateko
Deputatuak egin denen zerbitzuko
President bat hoiekin ongi gidatzeko,
Beharretan ginela ez da dudatzeko.

VII Jaun deputatuekin egin da bakea,
Deliberatu dute etsaia khentzea,
Jasaiten dugularik hark eman golpea
Orai bilha dezagun haren sendatzea.

VIII Gorriak altxaturik Parisko hirian
Deputatuen kontra kolera handian
Egiak ostikatuz zangoen azpian
Manatu nahi zuten guzien gainean.

IX Gogor egiten zuten burua berorik,
Etzutela on hartzen Versailgo legerik,
Gizon saildu batzuen odolaz aserik,
Ez bide zen orduan nihoren beldurrik.

X Versaildarrak Parisen barnerat sarturik
Gerlaren egiteko etzuten dudarik,
Azkenekotz gorriak humiliaturik
Hainitz liskhartu ziren zorrak pagaturik.

XI Ez dugu hartu behar pena bihotzean,
Alegera gaitezen gerla gelditzean,
Guziak juntaturik lege on batean,
Hala behar ginake guk orai Frantzian.

XII Othoitz egin behar da Jaun zerukoari,
Indarra eman deion hark bake onari,
Gerla nahi duena daukat urrikari,
Huntan uzten zaituzten zuen zerbitzari.

223

Jean BERGES

LOREAK EDER DIRA...

- I Loreak eder dira eguzki denean,
Hainitz agertzen duzu hoitarik munduan,
Saltzerat ekharriak denbora berean,
Erostunik balute prezio onean.
- II Ethorri da denbora penen ahanzteko,
Zahar eta gazteak alegeratzeko,
Ez dugu beldur hainitz donado jartzeko,
Andreak prest ditugu orai ezkontzeko.
- III Hainitz agertzen dira ezkondu nahiak
Alegeratzen ditu Jaunaren hartzeak,
Batzuek adinian pasatzen hasiak,
Halere latsatzen tu serora sartzekak
- IV Serora sartzekotzat behar da botua,
Jainkoaren graziaz benedikatua,
Bertze batzuek aldiz ezkontzan gogua,
Beldurrez gabe geldi hori zer damua.
- V Ezkondu nahi eta mila enganio,
Gizonak azkarrago adin bateraino,
Donado gelditzeak ez luke balio,
Aurthen ez ahal dira andreak kario.
- VI Zer erran dezakegu orai donaduez,
Diruak gastatzeko hor daude zuhurrez,
Begiak zoraturik andre aphainduz,
Ederki zabalduak baitziren usteiez.
- VII Hoiek utziko tuzte ez egon beldurrez,
Ezkondu eta laster bai beren beharrez,
Etxean arthorik ez haur hoiek niharrez,
Ez dire orhoituko orduan usteiez.
- VIII Aphaindura sobera hainitzentzat kalte,
Familia beharrak penatzen dituzte,
Egiten direnean haur ttikiren jabe
Nihondik ezin bizi miseria gabe.
- IX Mundura sortzen dira batzuek xingleak,
Ez beitu orhoitzen beren zahartzeak,
Soinarentzat ez aski ahal den guziak,
Hekien senhar denak maiz galtza hautsiak.
- X Aberatsek ez dute holako beldurrik,
Etxean behar dena Jainkoak emanik,
Ez duen gaixo hori bethi aphaldurik,
Bettiriren meneko ez egin dudarik.
- XI Herri hautan baduzu irule ederrik,
Goizean jeiki eta kilua harturik,
Xingleak bazterrera geroko utzirik,
Andrea behar bada bilha on hoitarik.
- XII Kanta hauk eman ditut Sarako herrian,
Agertu nahi nuzke gaztien artian,
Penarik hartu gabe haukien gainean,
Denek kanta ditzaten omere onean.

224

Jean IRIBARNEGARAY “ Xetre Hazpandarra”

GALDE ONARI PREST

Airea: Laur phundukoa

- I Galde onari prest da bethi heskalduna,
Frantziak ez du gaixto halako laguna,
Oraiko gerla hortan hara ala huna,
Oinak arin zabilan iduri lertsuna.
- II Prusiano zoruaz mintzo ziren oro,
Inozentziak naski harren bertze haro,
Gomitatua zela ezagun zen klaro,
Dirutan arranjua egin arteraino.
- III Ttipituz geroztikan aitaren omenak
Tiraka hasten dira haurrik handienak,
Zorigaitza sofritu behar ttipienak,
Galtzen balin baditu sortzeak emanak.

IV Batek phuska har eta beha bertzeari,
Hilak ere bardintsu ikhusten da ari,
Hola arizan dira hain bertze gerlari,
Inozenten odola ixuriz lurrari.

V Bitoriaren xerkha jin balitz Prusia,
Etzuen galdeginen dirutan saria,
Arranoa baitzuen bere gidaria,
Aise egin daukute saltsa berexia.

VI Haurrek ezin onhartuz aitak egin lana,
Berak oldartu dira etsai beltza gana,

Bainan kausitu dute soberaxe barna
Frantziaren gainean eskua emana.

VII Begi guziek beha ez ginen gu ontsa,
Bihotz guziak xuxen halere ez lotsa,
Aditu dugunean tiranoen hotsa,
Arbolak begiratuz eman dugu moltsa.

VIII Heskaldunen idea guziek izanez
Gerla akhabatuko ginuen gizonez,
Oro agertu gira borondate onez,
Bizi nahiz hiltzera arrazoin xuxenez.

225

Michel ETCHEGARAY

ENE LORE EDERRA edo Xanamarik orhoitzapentzat Jakesi eman lorea

Airea: Itxospeko alaba dendaria

I Baratzean badut lore eder bat,
Bihotz onak emana enetzat,
Bereziak arthak ditut hunentzat,
Emaila delakotz neretzat.

II Goizean goiz ungi dautzut jorratzen,
Belar tzarrak hurbilek,
Arratsetan ur garbiz ihintzaten,
Hunentzat naiz lur huntan bizitzen.

III Aiphamena urrun du hedatua,
Ikusterat heldu da mundua,
Ardura zait guziez galdetua,
Nondik dudan hau hunat bildua.

IV Lore eder berdinek gabekoa
Bihotz osoz haiz maitatzekoa,
Diamantak ez din ez balioa,
Nihon ere hik bezalakoa.

V Xoriñoak bozkario handitan,
Hor dabilta hunen ingurutan,
Adarretik aldaskarat jauzikan,
Han kantatzen bere errepiketan.

VI Pinpirinak pullit eta arinik,
Hegalak menditik jausirik,
Bira-bira dabilta harriturik,
Hunen ganat denak hurbildurik.

VII Ethorriak erleak oihanetik,
Usain ona urrun sentiturik,
Gaten dire lore hunen gainetik,
Ezti gaiez ungi kargaturik.

VIII Ttirritta bat argitzean kasirik,
Kantaz dago hunen itzalpetik,
Aditzen da erraiten duenetik,
Lore hau dut lore hau maite nik!

IX Iduzkiak bere arraoekin,
Berotzen du samurtasunekin,
Aize arinak gaba sartzearekin
Ferekatzen eztitasunekin.

X Orhoitzapen ezin ahantzgarria!
Zurekin daut ekarri berria,
Pasatzeko enekien bizia,
Hitz eman daut: segur da egia.

XI Hurbiltzen zait egunik ederrena,
Neretzeko dudan maiteena.
Hark nakarke berratzu zoriona,
Lore hunek enetzat duena.

XII Ez da ez hau egun batez hixtuko,
Gure haurrek dute ikusiko,
Amudioz baltsan gare biziko,
Zaharturik dohatsu hiltzeko.

226

Jean ETCHENIC

*Kantu berriak, Laphurdin Donibanen, emanak, Akotz Eskerrenian.***HIRITARRAK ETA BASERRITARRAK***Airea: Goizian goiz jeki ninduzun esposatzeko goizian*

I Urusak gaituk hiritarrak, jakintsun haundi baikare,
 Eskolatuak garelakotz, langile pobriak ere.
 Baserritarrek etzakitek gizon bearrek deusere.
 Bertzek erranak iten tiztek kaltetan izanik ere.

II Urguilutzarren gatik dituk kalte haundiak etortzen,
 Zuen eskolaz hiritarrak sobera zaizte bantatzen.
 Zer dela khasu gaitutzue baserritarrak mendratzen?
 Zenbat abantail on duzue guk ez dugunik agertzen?

III Argitzen gaituk hiritarrak khazeta eta liburuz,
 Ikasteiagu asko gauza, hoiek ongi irakurtuz,
 Zenbait legetan ez gaituk gu gidatzen bertzeren manuz,
 Baserritarrak gaten zaizte, jaun aphezeri galdetuz.

IV Zenbait liburu eta khazet baituk ainitzen kaltetan,
 Erlijione sainduaren galharazteko xedetan,
 Hoiek pozoinaturik zaizte asaldatzen hirietan,
 Baserritarrek eztiagu sinhesterik holakotan.

V Asaldatzen gaituk hiritan arrazoin haundiarekin,
 Eztiagu deusikan nahi asko lege hertsirekin,
 Nahiago diagu bizi biba libertatietekin.
 Baserritarrak ikaratzen zaizte aditziarekin.

VI Baserritarrek nahi diagu libertate zuzen ona,
 Bainan ez lege injustuki maiz asaldatzen dena,
 Bandera krudel ifame bat agertu nahi lukena,
 Zenbait hiritarrek bihotzez desiratzen duzuen.

VII Baserritar gehienak zaizte betiak ilusioneaz,
 Arras itsutuak zagozte, jakitien eskasez,
 Izpirituak xinpletuak, zenbait aphezen erranez,
 Ez gaituk ez enganatzen du, jaun hoi en elhe ederrez.



227

Joanes ETCHETO

DIALOGA ELIZA XORIA ETA URZOAREN ARTEAN

Eliza xoria

I Nola daite, neure arraba ona,
Izan zaiten behere huntan,
Oroz maithatua eta altxatua,
Ni gaitzetsia naizen denboran. (bis)

Urzoa

II Neure anaia, hori da zeren duzun
Bethi ere ebastea maite,
Ni bazkatzen naute gau eta egun
Eta nago bertzek eman arte. (bis)

Eliza xoria

III Bai, zu hazten zaituzte amultsuki,
Niri hemen hainitz pairaraziz,
Bizkitartian hurbiltzen naiz adreki,
Eta nabil ezin maitharaziz. (bis)

Urzoa

IV Segura da, adrezia baduzu,
Atzartasun, arraizia frango.
Hala ere bertzerena utz zazu,
Ez zaita izan hobe hala baino. (bis)

Eliza xoria

V Hainitz gisaz lausengatzen ohi tut
Nagusi ta etxeko andreak
Hala ere, errezebitzen ditut
Hekien furfurua gaiztoak. (bis)

Urzoa

VI Berriz diot, hartzen dukezu bortxaz
Laborariaren onthasuna.
Hargatik erraiten derautzut beraz,
Ez dukezu hola fama ona. (bis)

Eliza xoria

VII Ehunetan zu baino bozago naiz,
Eta badut hainitz jakitate,
Hainitz gisaz iseiatzten ere naiz,
Hola ere bethi higuin naute (bis).

Urzoa

VIII Bai anaia, baduzu jakitate,
Eta Jaunak adret egin zaitu,
Hola er' hobeago zinuke,
Atzaparrak garbi bazinitu. (bis)

Eliza xoria

IX Zer! beraz ni gudako naiz egina,
Eta aldiz zu bethi bakeko!
Nola dirot ardiets zoriona,
Eta urus izan sekulako? (bis)

Urzoa

X Bizi zaita Jaunaren beldurrean,
Eta utzi jaidura gaiztoak,
Hola goanez bethi bide onean
Ez dautzu faltako zorionak (bis).

Eliza xoria

XI Bai aithor dut, hortako naiz munduan,
Jaun handiak berak ezarria,
Horixe da, bai, guzien buruan
Egun batean buruzagia (bis).

Urzoa

XII Bai anaia, horrela gobernatuz,
Portu ona hatzemanen duzu,
Hartan bethi arima eta gorphutz
Sosegu onean bizi duzu. (bis)



228

Joanes ETCHETO

SOLDADO MOBILA

I Gerlako ministroak manatu ondoan,
Hartu ditugu harmak mobilek Frantzian,
Ni ere gerthatu naiz lagunekin baltsan.
Etzen eskapatzerik: gan behar lerroan.

II Gudukatu izan naiz mobila bezala,
Neure etsaia nuen Bismarren armada,
Ez nintzen, ez herabe, gateaz gudura,
Neure eginbidea bethe dut horrela.

III Neure sinhestea da, zaharrek erranik,
Gudukatzea kausa justuaren gatik,
Dela eginbidetan lehenbizikorik,
Zuzen ibili banaiz ez duket kulparik.

IV Katholikoak ginen protestanten kontra,
Ziotela Jainkoa laguntzat zutela,
Hekien gobernua etzen Jaunarena,
Eziz jokhatzen ziren lehoinak bezala.

V Heien oin-arrastoak izigarri dire,
Heien itsuskeriak nork erran ditzazke!
Jende ospe handia bilhakatu dute,
Zeruko justizia oihuz dagokote.

VI Heien sakrilejio, profanazioeak,
Ezin erran ditezke zoin diren handiak:
Hainbertze haur, emazte sakrifikuak!
Eror dakizkotela gainerat guziak.

VII Frantsesa izan balitz oro katoliko,
Ez zuen bitoria horrela galduko,
Berekin bazituen traidorea frango,
Hori dela medio bentzuturik dago.

VIII Bismarren maleziak ez du, ez, parerik,
Hedatu du dirua hiriei khendurik,
Zonbaito pharatu da eskuak betherik.
Satanek ez du izan hoin lagun leialik.

IX Frantziaren hartzea zuen erraietan,
Penaxko egin dio utziz indarretan,
Nahi gintuen sarthu bera sareetan,
Jaunak beiratu gaitu, haren despitetan.

X Guillomek dotatu Bismar gose hori,
Auzoko erregeri khenduz injustuki.
Oro hatzeman nahiz dabilta klaroki,
Jauna unhatuko da agian laburzki.

XI Probintzia hartuak guri daude oihuz,
Athera detzagula gerlaz edo diruz,
Orai gudukatzeko etsaiari buruz,
Ez gare aski azkar, ez gaitzke biluz.

XII Jaunak utzi baditu gutaz nausitzera,
Ez du horrek erraiten zuzen zabiltzala,
Oraiko aldi huntan bentzutu bagira,
Bertze aldiño batez nausituren gira.

229

HARRIET

1870AN SOLDADU

Airea: Oren onean sorthua zira izar orenen izarra

I Herritik noha, adios, nere bihotzeko maiteenak!
Ahaide onak, adixkideak, aita ama hoberenak,
Deihadarrekin Frantziak ditu galdetzen haur bihotzduak,
Iphar aldeko etsaien kontra altxa gaiten eskaldunak!

II Uzten zaituztet herri ederra, mendi ezin ahantziak,
Gure etxeko arthaldearen ardi bildotz bereziak,
Bethi zuekin iragan ditut egun bozak... gau ilhunak!
Iphar aldeko etsaien kontra altxa gaiten eskaldunak!

- III Aitak bezala egin nahi dut, hura izan da soldadu.
Ama gaixoa! Bihurtuko naiz, Jainko onak nahi badu,
Eska itzotzu gure harmentzat garaitiko ontasunak!
Iphar aldeko etsaien kontra altxa gaiten eskaldunak!
- IV Hitz hauk zuretzat, Mariederra, ez ahantz zuk agindua,
Zure nahi dut bizi naizeno, hori da zina saindua.
Agur, maitea! ez berantetsi nik hitzeman jai-egunak!
Iphar aldeko etsaien kontra altxa gaiten eskaldunak!
- V Aita zaharra gan baino lehen behar zaitut besarkatu.
-Haurra baho? Ibili ongi... ni ezpanintz hain flakatu!
Maiz orhoit hadi aitak zirela gudueta bihotzdunak!
Iphar aldeko etsaien kontra altxa gaiten eskaldunak!

230

Piarres IBARRART

SOLDADO ONDOA

Airea: *Gernikako arbola...*

I Soldado izatu naiz lehen zazpi urtez,
Bethikotz ethorria nintzen nere ustez,
Xapeldunak jin zaizkit argi haste batez,
Gerlarat galde duzu, legearen phartez,
Horra zer atseginak ezkontgei egonez. (bis)

II Frantziaren oihua entzun nueneko,
Banderaren azpirat laster egiteko,
Ez nuen sosegurik nehon egoiteko,
Gutiago beldurrik gerlaren galtzeko,
Frantzia gaixoaren hola ikhusteko. (bis)

III Hari ginen gogotik guziak suari,
Ez dute zeren erran soldado xoilari,
Berak dire hobendun, zonbeit buruzagi,
Harmarik ere gabe lothuak gerlari,
Thur bat gizonekin hainbertze munduri. (bis)

IV Nahiz garrhazitale den etsai manduela,
Harrek ere min hartuz ereman du gerla,
Ibaia bat bezala bazohan odola!
Nun nahi hedatua Prusiano hila!
Frantses luraren ontzen hantxe dagozila. (bis)

V Prusiano gaizoak usteko du, naski,
Bethikotz deraikula Frantzia aurdiki,
Gure gogoko berri oraino ez daki,
Erori gare bainan, behar gare jeiki,
Eta hartu derauzkun guziak edeki. (bis)

VI Ikhusi duguneko bakea egina,
Pariseri oldartu zaiku gaixtagina,
Lege bat asmatu ezin daitekena,

Haizu dela hartzea bertzen onthasuna,
Hortakotz hiltzen zuten protsimo laguna.

VII Nork erran gaixtaginak zituzten indarrak,
Zernahi egin dute, hain ziren superrak,
Giritino odolez gorrituz bazterrak,
Sarraskitan emanaz elizatiarrak,
Zonbat bizirik erre!! Oi! bihotz gogorak. (bis)

VIII Orduan da Mac-Mahon handia altxatzen,
Bere armadarekin sarthu da Parisen,
Etsaien errabiak ez du ikharatzen,
Hantxe ditu ordainez oro xehakatzen,
Gaixtagina ikhus gabe zertaratu haizen. (bis)

IX Goraki mintzo zaitzu orai Paristarra,
Mac-Mahon baginuen bai zure beharra,
Zure armadarekin, zuk duzu indarra,
Zuk eman deraukuzu bake bat ederra,
Bandera gorriari hautsirik giderra. (bis)

X Agur Eskual Herria, hain maite hautana,
Nun zaituztet, gaixoak, aita eta ama,
Egun hasten da berriz gure zoriona,
Nahiz hila nintzela ethorri den fama,
Bizi naiz! akhabo da zuen bihotz mina.

XI Eskaldun laguna, zer egin dautazu,
Iheska ibiltzea ez da gero haizu,
Herria etsaiari libratu diozu,
Espainiarateko bidexkak utz tzaitzu,
Izan gaiten guziak haur bihotzdun batzu.

231

Joakin IRIZAR "Bergararra"

DOLORES

I Esku txuriyak ditu
Dolores ederrak,
Kafia emoteko
Munduko onenak.
Zilargin onak dira
Azukar tontorrek
Damiak ikututa
Zerutik jatxiyak.

II Bere aizpa Kasilda
Ez da txarragua:
Begi ederrak ditu
Biotz obiagua.
Nun ipiniko ete dot
Jesusa xarmanta,
Munduban ezpadago
Alako dun planta?

232

Joakin IRIZAR

DANTZARI ZARRA

I Plazara nuanian
Dantza egitera
Begi biyetan daukat
Maritxu ederra.
Soinu onak pozten dit
Arima barrena,
Marik nai duanian
Zerura narama.

II Ezker'emoten badit
Txoratuba nauka:
Emoten dit eskuma
Galtzen det buruba.

Ah! Mari! ner'ederra,
Zu zera zeruba:
Argi, izar, eguzki,
Eta geyagua.

III Maritxu gaixo oni
Biyotzetik parka:
Ardangelan obeto
Dago gizon zarra.
Aingeruba zera zu
Aingeruben para.
Ni naiz, ni naiz Maritxu,
Goazen tabernara.

233

Joakin IRIZAR

APAIZ AIXKIDEA

I Aixkide gazte batek
Ipini nau estu,
Nere kanta txoro bat
Biar dula kantatu.
Artu zak ba kantori,
Erreza edo gaitza,
Beinik bein izango duk
Zerbait moldakaitza

II Kafe on atz' batian
Egin zan izketa,
Egin biar nula
Zortziko nekeza.
Kafe eder' izan zan
Dakigun lakua:
Au izango dozue
Barre egitekua.

234

Joakin IRIZAR

ORGANISTA ETA GAZTIA

I Iru eguzki dira
Bergara luzian,
Eguneko argiya
Zeruen erdiyan.
Alkatiaren alaba
Gaztien artian
Dan ederrena dago
Nere biotzian.

II Iru eguzki dira
Bergara luzian,
Eguneko argiya
Zeruen erdiyan.
Beste bat ilargiya
Izarren artian
Ederrena Maritxu
Nere begietan

235

C.S.V.P., ainhoarra

SOLDADO ZAHARRA, HAREN EZPATA ETA SEMEA

Airea: Hauxe da ikhazketako manduaren...

I Aita, ekharradazu zure ezpata,
Zeronek, othoi, nauzu hankan esteka,
Nohan lasterka,
Frantzia laguntzerat lanjerrian baita,
Hari guduka:
Besoa badut eta bihotz ez falta! (bis)

II Oi, ene seme maite odol-durua!
Hi baithan diat kausten enbe burua,
Phuru-phurua!
Horra ene ezpata, oha gudura,
Buru-bururat:
Ez barkha etsaiari ez den goithua! (bis)

III Hargatik ezpata hau eskuratzean,
Agintzak juramentuz, nola hiltzean,
Hau ibiltzean,
Haizela edirenen zuzen bidean,
Notha gabeen,
Nola gur´ arbasoak zabiltzanean. (bis)

IV Aita, zure semea, ez izan beldur,
Bide ohorezkotik dadien makhur,
Hainitz ez aphur:
Gazte eta sendo da, orobat zuhur;
Hitz dautzu segur,
Ukhatu baino lehen gelditzen lur (bis).

V Seme hori zenean eman bidean,
Phentsaketa hazkarrak zauzkan barnean;
Zohan airean...
Laster ikhusten dugu etsai menean,
Hurbilenean:
Herioa dakharke beso kolpean! (bis)

VI Goizean hasi eta arrats artean,
Hanbat etsai zituen eman lurtean.
Bizkitartean,
Berare da aurkhitzen, bai, odoletan,
Oi sarraskitan:
Zaurizko gurutzea dauka kopetan! (bis)

VII Zitzaioen orduan Aita gogora,
Itzultzen da semea etxe aldera,
Bai alagera,
Aita zahartu hurren besarkatzera,
Kontsolatzera,
Kopeta hautsi horren erakustera. (bis)

VIII Horra eskaldun baten egin ederrak,
Guk hertsiki gogoan hartu beharrak;
Gazte zaharrak,
Ditzagun kanta betan, errepiketan,
Dadien izan,
Holako seme hainitz Eskaldunetan! (bis)

236

An., "Amotzar bat"

SOLDADO NAIZ

Airea: Gizon gazte hogoi urthekoa

I Soldado naiz, legeak ezarririk,
Goan behar naiz maiteak utzirik,
Frantziako kasu justua gatik,
Eman niro bizia gogotik. (bis)

II Utzi behar aita, ama zaharrak,
Bai eta ere haurride maiteak,
Zeren duen ordenatzen legeak,
Eta manatzen Jainko handiak. (bis)

III Orhoitzen naiz patriarkhen fedeez,
Bai eta ere heien khar sailduaz,
Hukitua heien leialtasunaz,
Ez naiz lotsa gudura goateaz. (bis)

IV Gerla bada Jaunaz ordenatua,
Gaizki duzu desobeditzea,
Ihes goanez erresuma guzia,
Izan laite etsaiaz hartua. (bis)

V Ez, lagunak, ez gaiten desertatu,
Ihes goanez ez gintazke salbu,
Bai, ditzagun gure arropak hartu,
Eta zagun erresuma zaindu. (bis)

VI Aita amen nigarrek gu hukitzen,
Zeren sobra barna hartzen duten,
Abrahamek Isaak maite zuen,
Hala ere imolatzen zuen. (bis)

VII Bai, lagunak, har dezagun kuraie,
Probintziak gure oihuz daude,
Aingeruek lagunduren gaituzte,
Eta gaizuak izituren dire. (bis)

VIII Goazen, beraz, goazen, goazen ausarki
Legeari dezagun obedi,
Hola goanez gazteriak nasaiki,
Goanen dugu etsaia ihesi. (bis)

IX Neure ustez gisa hortan goatea,
Duzu funski leial izatea,
Nik hola dut esperantza bakea,
Bai eta ere gibelat jitea. (bis)

X Jiten banaiz, zerbitzatu ondoan,
Eginen da besta gure etxean,
Izanen da oiloño bat eltzean,
Zopa ona gure mahainean. (bis)

237

An., "Bizkaitar bat"

ELIXAREN GARAIMENA ETA BAKIA

I Zeru ta lurrak egin zinusan
Jaungoikoaren Berbia!
Mugittu mina, kantadu deidan
Zeure Eleixaren gloria,
Zelan dagan orbanik baga,
Distiaduraz betia,
Indartsu eta Luzbelen kontra
Egundo bainan obia.

II Zer usteko dau Beltzebu berak
Orrenbat guda suturik
Eta Parisen eta Erroman
Bere arrabija garturik,
Jaungoikua lez mundu danian
Jargoi andijan goiturik?
Anbat gura dau Eleixa gaindu,
Gison guztiak galdurik?

III Purrukaturik jausiko da bai,
Bere buruti koroia,
Amorraturik bere lagunaz
Inpernura gaur badoia.

Agertuko jako Eleixa Amari,
Batie ederrezko sasoi:
Erroma aldian ikusten dozu
Argi darijon odoia.

IV Egijak garbi distietan dau
Ilargija lez gabian
Zelan goixian egun sentija
Ta euskija egun erdian
Ondatu bidez hereje zarren
Guzur baltz danak lur pian,
Protestantien eta Masoien
Gaiztakeriaz batian.

V Zuzen begijak Italiaruntz
Begira nolan dagan
Pio Santua San Pedro bera
Dirudijala garbuan:
Katolikuak an bildu dire,
Pozik an dagoz albuaz,
Laster bai laster zabalduko da
Pake gozua munduan.



238

An., "Eskoaldun mobil bat"

MOBILAREN ETHORTZEA

I Iduzkiak argitzen bozki mendietan,
Eta xori guziak kantuz oihanetan,
Lore arrosak irriz sortzen sasietan,
Urak badohazila zelhai bazterretan.

II Mendartean ez dago nihor lokharturik,
Etxetako leihoak laster idekirik,
Ur bilha badabiltza neskatxak jadanik,
Muthilak ardiekin jalgitzen bordetik.

III Mendiko arrocketan, erditik erdirat,
Sigisagan ageri, hosinen gainerat,
Makurtu bidexketan, beiraturz herrirat,
Huna non den bakharrik ethortzen gizon bat.

IV Bethan ikhus litake gizona gelditzen,
Bazter xoragarriei ohartuz miratzen,
Belhauniko zerurat oihu bat egiten,
Jainkoari eskerrak bihurtuz erraiten.

V Ez, ez dut alferretan presuner izanik,
Andrevena Maria deithu bihotzetik,
Bulharrean medaila arrebak emanik,
Enekin bethi nuen nihoiz ahantzirik.

VI Ez, ez dut alferretan luzez iguriki
Ez, maiz, heriotzea hurbildik ihesi,
Gose, hotz, min guziak pairatu tristeki,
Huna non oren ona heldu den ederki!

VII Huna non oren ona heldu den! ...herriko
Airea zoin ezti den herritarrendako!

Ez othe dut ikhusten gure bestelako
Gurutze sakratua arbolen arteko?

VIII Ikhusten tut haritzak, non maiz ardiekin
Udan, bero denean, bainuen lo egin,
Hor, eliza xuria, dorre gorriekin,
Urrunean aditzen diren ezkilekin.

IX Hor ere itsasorat darion ibaia,
Iduzkiak superki zilharreztatua,
Haltzetarar hedatuz bere ur garbia,
Non arraina jokatu baitzen ohitua.

X Eta hor ithurria xarako aldian,
Ene maite pollitak, hor, arrats batean,
Mariak, oi tristeki! joan nintzenian,
Igaz, bere fedea niri eman zautan.

XI Hauk mintzatu deneko, emazte zahar bat,
Agertzen da bidexkan, badea xararat,
Menturaz zenbeit egur dakharke etxerat,
Makurtua dabila otheen erdirat.

XII Emaztea ikusiz muthila jadanik,
Haren ganat kurritzen... ja besarkaturik,
Ama eta semeak minak ahantzirik
Laster ethortzen dire, eskerrak emanik.

XIII Memento bat ondotik, etxetto xurian,
Mobil hori jartzen da aitaren aldian,
Arrebak miratzen du nigarra begian,
Eta dio: Mariak zaitu bihotzean!

239

An., "Eskaldun bat"

ESKALDUNA

I Eskaldun arraza
Biba, biba, biba!
Arrazetan zaharrena,
Arrazetan ederrena,
Arrazetan garbiena,
Biba, biba, biba, biba!

II Lerden eta zalu
Begietarik su,
Zinta gorria gerrian
Makila galtzar azpian
Iruñatik Baionara
Hola dabil Eskalduna.

III Mendian sorturik,
Mendian hazirik,
Mendian bizi da beti,
Artzain edo laborari;
Mendi gainetan oraino,
Iduritzen dela libro.

IV Han ditu loreak,
Guziak bereak,
Harroketan ur xirripak,
Arbolak, xorien kantak.
Han zerutik hurbilago,
Bihotza zabaltzen zaio.

V Maite tu zaharrak,
Maite bere haurrak,
Maite bere sor tokia,
Maite Eskal herri guzia,
Maite du dantza, jokoa,
Denen gainetik Jainkoa.

VI Sorhoak utzirik,
Ongi beztiturik
I gandetan elizara
Badoha meza entzutera
Kantatzen ere gogotik,
Bezperetan liburutik.

VII Elizari kontra
Pilotako plaza,
Han bezperak erran eta
Gizonkia jostatzen da
Abilenak hari dira
Bertzeak jarririk beha.

VIII Bainan batzuetan
Xirola errepikan
Jauzietan nahiago,
Hasi gaztek lerro lerro,
Zer saltoak! zer zangarrak!
Oreina baizen finak.

IX Etxean berea
Barna bihotzean
Eskaldunak zer zoria!
Emaztearen legia
Haurren irriak, jostetak
Batean egin othoitzak.

X Opil eta pitar
Arroltze ta xingar,
Bestetan arno xorta bat,
Zikiro gizen azpi bat
Heldu zaizko mahainera
Guti gaten gibelera!

XI Holaxe bizi da
Urus eskalduna,
Mendian trankil trankila,
Zer dohako politika?
Landak, etxea, Jainkoa,
Hautan du bere gozoa.

XII Eskaldun arraza,
Biba, biba, biba.
Arrazetan ederrera,
Arrazetan hoberena,
Arrazetan garbiena.
Biba, biba, biba, biba!

240

An., "Gipuzkoar bat"

AITA GUZIZ SANTU PIO IX-RI ORAINGO PERILEN ARTEAN

I Aingeru galai egalariyak!
Ez dakatzute kanturik?
Ots eta soinu zerukoakin
Ta argiz aizeak pizturik
Kanta dezagun Aita Santua
Zeru ta lurak pozturik

II Aita santu txit maitagarriya
Gure animen artzaia!
Zoratzen gera pozez, jakinik
Zure bertute garaia...
Nola su-ta-gar egingo ez da
Ori ikusirik etsaia?

III Ara Beltzebu, beltzen buruba,
Gizon guztiyak gaiztotzen!
Zertako dabil tximistak sutzen
Eta olatuak arrotzen,
Eta astindurik itsas ondoak
Ekaitz gogorak jasotzen?

IV Pedroren ontzi miragarria
Oso nai luke puskatu,
Alper alperrik. Zer? Gure Pio
Jaunak etzuen autatu?
Bai. Etsai danak menderatzeko
Pio, Zu zera goratu.

V Jauna zurekin dezun ezkeru
Ez bildur eta ez ikara,
Ez da perilik Zure ontziya
Zuzen dijoa kaiara...
Guazen Zurekin iritsi arte
Zeru barru ber-bertara.

VI Etsai gaiztoak atzetik zaunkaz
Arrabiatu dezala,
Simon Magoak arroturikan
Lurra jo zuen bezala
Eroriko da naita naiez,
Orroa beza naiala.

VII Jesus gurekin izango degu
Ta Ama Birjina Maria,
Parerik gabe bere Sorreran
Eder ta garbi-garbiya
Aingeru danen ispilua ta
Zeruko izarren argiya.

VIII Bai, gure Pio biotzekoa,
Infernuaren atea
Ez dute eskurik ezarritzeko
Geiegi Zuri kalteak;
Zapaldu beza Luzbel arroa
Zure oinaren golpeak.

241

An., "Gipuzkoar bat"

JAINKOAREN LETARTAREN GAINEAN

I Nekazari bat udan
Lan egin ondoan,
Artepe eder batean
Soseguz zegoan.

II Bere etzauntza alaitik
Inguru guztira
Kanpo pontuz betea
Ari zan begira.

III Ikusten zuben bere
Lanaren prutua,
Kalabazaz ta meloiz
Lur dana estaldua.

IV Zergatik ziyon Jaunak
(An bere barruban)
Ezkur ale xastarra
Para du ain altuban?

V Ez lirake anbat obe
Trukaturik gauzak,
Arboletan zintzilik
Melo kalabazak?

VI Au esan bezin laster
Itzetik ortzera,
Erortzen zaio ezkur bat
Sudurren gainera.

VII Arriyia! esaten du
Orduban xit agitz,
Ezkurraren tokiyan
Meloia izan balitz!

VIII Bertatik naiko niyan
Naiz sudurrik gabe
Geldi benik,pein neure
Biziyaren jabe.

IX Onetan adierazo
Ziyon Jaunak ari
Bear zana eman dala
Gauza bakoitzari.

X Dana dago xit ondo,
Xirlan preso arraia,
Ta airean libre libre
Xori kantariya.



242

An., "Gipuzkoar bat"

AMA BIRJINA SORTZEZ OSO GARBIARI

Kantartea

Kanta dezagun, kanta gogotik,
Birjina amaren sorrera,
Izar zeruko ta eguzkiaz gain,
Eder garbi da bera.

I Mantxaren antzik ezertxo bage,
Zera sortua Birjina,
Zeru ta lurren edertasuna
Jaungoiko berak egina,
Ikusgarrietan
Gutzizkoenetan
Parerik gabe pin-pina.

II Ez bazinaden argia baino
Argiago zu bera
Nola zeruen egile dana,
Zugana jetxi lurrera?
Danik apainena
Distiatuena
Argi ta lore zu zera.

III Agertu naiez zure antzera,
Argitxo bat da guztiya,
Zeru urdinean urtzen dagoan
Bola goritu eguzkia,
Urrez apaindurik
Nun nai zabaldurik,
Argizko itsaso biziya.

IV Izar artean ori bezela
Zu zaitu Jauna kantatu,
Zure oinari muin egitean,
Ilargiya da lotsatu...
Egun sentiaren
Ta izar taldearen
Argiak zertako aitatu?

V Nai dute ala ere Birjina ...
Danak zerorren itxura,
Euzkia omen da zure jantziya,
Izarrak koro modura,

Amabi daudela
Gordetzen bezela
Zure buruko apaindura.

VI Egun sentiak xit goizetikan
Zu pasatzeko bidea,
Utzitze omen du perla pollitez
Ta arrosa gorritz betea,
On argizkoakin
Lore errainuakin
Distiatu rik ohea.

VII Intzaren ale biribil urdina
Lore ta pitxi usaidunak,
Zure birtuteen iduri izaten
Dituzte beren jardunak,
Esaten dutela
Zureak direla
Guzien edertasunak.

VIII Jainkozko gizon zeruko aingerua
Goienak zuri begira,
Zoraturikan gabaz ta egunez
Beinere aspertzen ez dira.
Bakarrik deabrua
Dago amorratua
Orroaz jira ta bira.

IX Ezin du eraman zure bitartera
Igo bear dala gizona,
Zeru ederrean gozatu zera,
Berak an galdu zuen ona.
Kanta Birjinari
Oin azpian ari
Eman dio zor zaiona.

X Mila miloika banituzke
Aingeru danen mingainak,
Jardungo nuke beti kantatzen,
Birjina, nik zure hazainak,
Ase-ase artean
Soinuzko ujoldean
Muino ta zeru gain-gainak.

243

An., "Itsasuar bat"

ZITOIEN LEIALA

I Oihuz nago birjinen birjinari
Othoizten dut ama saildu hori,
Ez dezala, ez, Frantzia ahanzi,
Bainan lagun orai eta bethi.

II Lehenago gure Ama Birjina
Frantziaren alde agertu da,
Gudueta ama horren laguntza
Mirakuluzki seinalatu da.

III Azken gerlan utzi izan bagaitu,
Bizioa zaphatu izan du.
Ama hori lagun nahi badugu
Bera imitatu behar dugu.

IV Mundu huntan ez da gaitzik gerhatzen
Non ez duen Jaun onak igortzen,
Horren gatik beraz abia gaiten
Jainkotiarren herronkan pharutzen.

V Bai frantsesak, bezti gaitezen harmaz,
Giristino khar sailduarenaz,
Beztituak horrelako jauntziak
Trufa gaiten etsai gaituarenaz.

VI Frantziako hiri ederretarik,
Galdu dugu hameka segurik,
Hango jendek etsaiaren aldetik,
Ez dukete orai gastu onik.

VII Bai jende hek hainitz sofritzen dute,
Frantsesaren izenik ez dute.
Bortxatuak guri erraiten dute,
Gaiztoetarik libra gaitzazue.

VIII Lagun on hek handik atheratzeko
Diruz hobe laite gerlaz baino,
Hemen bada Jaun aberatsa frango,
Bainan karitatea urrun dago.

IX Bizkitartian Frantziaren ohoria
Hola laite erreparatua
Bai eta ere erresuma gozoa,
Elgar gana ber arrimatua.

X Jainkotiar hek bai niri urrikaltzen
Zeren frantses lagun onak diren,
Horrengatik ditut guziak deitzen
Obra hortan pharte har dezaten.

244

An., "Senpentar bat"

ARTZAIN ONA

I Sarako bestetako prima emaileak
Gaitu bai gonbidatzen ematiaz bertsuak.
Hori onhesten duke artzainen artzainak,
Detzagun beraz altxa bozekin bihotzak.

II Neure ofizioa da artzainarena,
Bertzietan bezala bada huntan phena,
Bakhotzak berea du segur hoberena,
Hortan zuzen ibiliz badu behar dena.

III Neure arthaldea dut mendian alhatzen,
Hango nire biziak maiz nau hatzematzen,
Munduko harrabotsei dut ihes egiten,
Eta inozentzia hala begirutzen.

IV Neure janharria da esne eta thalo,
Edaritzat baduket ithur-hatxa frango.
Ur hortarik edanez ez naiz hordituko,
Eta duket barnea fresko atxikiko.

V Sarako mendietan kausitzen da Larrun,
Han errekontratzen dut zenbaitto ezagun,

Bertzenaz ardiekin Jainkoa dut lagun,
Kausitzen naizelakotz jendetarik urrun.

VI Neure bizia badut ardiek emanik,
Batean gasnetarik, bertzean iletik,
Nehorentzat ez dut nik inbidiarik.
Ongi bizi naiz eta zer da hobiagorik!

VII Daukadan arthaldean bada bildots onik,
Hek ongitto saltzeaz nik ez dut dudarik.
Haien hazkarria da belhar xarpotetik,
Hekien haragiak ez duk parerik.

VIII Sosa dut aldaratzen ongi gobernatuz,
Eziz banabilazu bethi izpirituz,
Zenbaitto badabilta gosez eta biluz
Zeren diren gormantak arim' eta gorputz.

IX Nik funski hartua dut bakhar egotea,
Ez da abilezia edozoin hartzea,
Hainitz gauza ona da bakian bizeitza,
Hola dut esperantza hil onduan zerua.

GANPERITZ DOTOR EMASABEL ZAPATZAILEAREN KANTUAK MONTEBIDERAT GATEAN

Airea: Arkulo heldu da menditik

I Ganperitz joan zauku herritik
Ofizioaz etsiturik,
Montebiderat,
Omen doha ikhusterat
Badenez han zapatzekorik
Urdail edo emasabelik.

II Ganperitzek bere herrian
Bai eta inguru guzian
Ukhan du ospe
Hogoi bat urthe bedere
Zoinek konda ahal sabelak
Harek solejitu dituenak?

III Moldatua ere ofizioz
Espres iduri du hartakoz,
Legun mihia,
Xarlatan aire handia,
Eskua du hagitz goxoa,
Sudurra ere net lainoa.

IV Talendu honekin Ganperitz
Baliatu omen da hagitz,
Ungi irabazi
Araberan zen bizi,
Bilduak sabel zapatzetik
Eraman ditu zintzurretik.

V Ganperitzen emazte haurrak
Maiz zagoten tripa zimurrak,
Bainan Ganperitz
Ez zen desolatzen hainitz,
Hura zen pontutik asean,
Drole zen nihor pleinitzea.

VI Gure Ganperitz dohatsua,
Ez zen urdailaz nekhatua,
Zeren abilki,
Sabela baitzenezan bethi
Kabitua ahal betherik,
Urdailak ez zuken tokirik.

VII Ganperitzek bi iduri beti
Lanarentzat bazaramatzen
Bata moltsaren
Bertzea aldiz zintzuraren
Edan gabe Ganperitzen ...
Bisitak ez zuen eskerrik.

VIII Sabelez sabel zabilala
Han zuen bethetzen sabela,
Non arratsean
Noiz bait erretiratzean
Badoan hauzoen etxerat
Ustez eta dohan berera.

IX Aberastu zaiten Ganperitz,
Hordi bilhakatu ez balitz
Bainan egun oroz
Zentzutik atheraz geroz
Deus onik hark egin ez zuten
Pratikek ere utzi zuten.

X Dotorak ez zuen ordutik
Herri hautan erresursarik,
Famaz gabea,
Zintzurra zein asean,
Emazte eta haurrak hazteko,
Nagi haintzurari lotzeko.

XI Bazindu urthe presentean
Gutixago bizkarrean,
Bainan ez zoazi
Emazteketarat naski,
Egizu diru ausarkisko,
Izanik ere berandusko.

XII Ez guphidets saluntantzia,
Agertzeko kasko zerua,
Mihia bethi
Legun eta balakari,
Eman beza hainitz espantu
Kondaira eta konplimentu.

XIII Hamar bat urtheren buruan
Diru eman eta murruan,
Bizi bazare
Hetaz gozaturen zare,
Gozatzen berdin badakizu
Arras ahantzi ez bazaitzu.

XIV Baldin gozatzeko hargatik
Uzten ez bazaitzu astirik,
Halarik ere,
Abantail gabe ez zare,
Zer atsegin pare gabea,
Testament baten egitea.

1872 SARA

Saririk gabe

246

Joseph ANXO

A.M.D. MAITEARI

Airea: Xarmagarria zira eder eta gazte

I Zaude, othoi, maitea, etzaitela izi,
Erran nahi derautzut nola naizen bizi,
Aspaldion batere etzaitut ikusi,
Urrundik bazabiltza niganik ihesi.

II Goizik eginez gero Jaunari othoitza,
Zure baithan josirik dadukat othoitza,
Zu ganat hegaldaka dabilkat bihotza,
Hau du laketdegia hautetsi egoitza.

III Gabaz jo bezain sarri bururdi hegia,
Ametsetan dakusat zure aurpegia,
Orduan alferrik dut mintzatu nahia,
Nolatan nik eztakit mothel dut mihia.

IV Geldi geldia nago, betan harriturik,
Burua zoratua sukharra harturik,
Ilhunbea dakusat bi begietarik
Eztakit zer dantzudan beharrietarik.

V Izerdiak naduka ikhara-hotzetan,
Emeki hormatzen zait odola zainetan,
Ezin dirot bihotza entzun panposetan,
Horrela, zuregatik, naiz azken hatsetan.

VI Ikusazu, maitea, arras naiz argaltzen,
Badirudit zuhaina herstez zimaltzen,
Nereak eginen du ezpazaizkit heltzen,
Othoi, bada, has zaite nitaz urrikaltzen.

247

BARGARA

BERTSU BERRIAK

I Mila zortzi ehun eta hirur hogei ta hamabian,
Uztaileko hilabetearen azkeneko egunian,
Zer errekontra izatik dudan leze ilhun batian,
Deklaratu nahi nuke ahal dudan moldian.

II Zertarat juana nintzen harat nahi dut esplikatu,
Hango lur ona dela fama nola baita hedatu,
Ni ere nere beharrarekin nonbait nahi enseatu,
Nere errekontra malurusa hara non den gerthatu.

III. Aziendekin bakharrik nintzen zilho hartara guana,
Ilhunbetan sarthu nintzen bide puska bat barna,
Arroxina batean argian egin nahi nuen lana,
Harri triste bat erori eta xehatu deraut belhauna.

IV Belhauna hautsita sofrikariak han ziraden ondotik,
Uste nuen memento hartan guan nintzela mundutik,
Eta orotara begira deusez ageri nihondik,
Nerorri berriz ezin atera harriaren azpitik.

V. Trantze hura ordu artean neretzat ez dut ikhusi,
Bi eskuekin zangoari tiraka nintzen hasi,
Herioa nere bilha ni berriz haren ihesi,
Denbora etzela konplituia bertzalderaino nau utzi.

VI Nahiz guziek behar dugun mundu hautarik partitu,
 Ilhunbe hartan ez nuen nahi bakharrik han gelditu,
 Aingeruzko laguntza bat zerutik nuen deithu,
 Aparantziaz ethorri zen orduan nintzen argitu.

VII Harri azpitik ordua nuen nere zangua athera,
 Aire berian esneiaturik hapan orgen gainera,
 Azienden manatzea hartu nien bidera,
 Ordukotzat odol ibaia zohan zangua behera.

VIII Aziendak itsumen hartan norapait ziren partitu,
 Bide makhurrik etzizaioten nihon halere gerthatu,
 Denbora puska baten burua ... nuen bitatu,
 Nere bihotza orduan zen pixkabat animatu.

IX Nere denbora mundu huntan konplitua bada baldin
 Ilhunbe huntarik argi hartarat norapait guan nadin,
 Nere bihotzian pentsamendu hori bera nuen egin,
 Athera nintzen kanpoko aldera kontsolamendu har ezin.

X Kanporat athera gero ere han baziraden lanak
 Hezur osorik guti zuen seinale nere belhaunak
 Harri triste haren kolpeak xehatuak gehienak,
 Zangua behera ordukotzat odol guzia guanak.

XI. Gure jainkoak mirakuilurik egin munduan,
 Ni bizirik atheratua egin zuen orduan,
 Oinazeak marrasketan pentsa nola ninduan
 Nihon jenderik ezin ikhus bi orenen buruan.

XII Hameka pertsu hamabigarren huntan huna despegida,
 Gauza horiek aipatzearekin nigar heldu zait begira
 Zenbait piraiaz mediku jauna nereganat ibilia
 Sendatzeko esperantza du orduko nere eria.

248

Joanes BERJES

BETTIRI SANTS

I. Bettiri Sants jaun handi udaren hastean,
 Soineko ederrekin xapala buruan,
 Nola izatu naizen ni haren menean,
 Erran nahi dautzuet denen aitzinean.

II. Nik berantetsi gabe jin duzu Bettiri,
 Padira hartu eta sukhalidian jarri,
 Hortarik salbu denak eginen du irri,
 Bortz aldi ezarri nau sabeletik eri.

III. Aberatsak nun diren handik urrundurik,
 Enekin egoiten da ongi lakheturik,
 Borondaterik gabe askotan barurik,
 Harekin ibiltzen naiz begiak ilhunik.

IV. Amets bat egin nuen iragan urthean,
 Bethiri Sants zela ari nintzan lekhuian,
 Jan... guziez bethi mahainean,
 Solas guti eginik biak ginenian.

V. Denbora hartan baitzen Bettiri nagusi,
 ... egiten ongi dut ikhasi,
 Haren handik khentzeko molsan diru guti,
 Gisa hortan dagona daukat urrikari.

VI. Bettiri adi nezak lan horren gainean,
 Zer pasatu behar den denbora berean,
 Hirekin bizi dena ez zukek aisian,
 Lagunen bilhatzera orai nuk abian.

VII. Ene galdea zuten zenbaitek aditu,
 Adiskide on batek ninduen lagundu,
 Hona beraz nola den kasu hau gertatu,
 Bettiri Sants kanpora zuen atheratu.

VIII. Jakes errota zaina han zen buruzagi,
 Bettiri behatu da haren emanari,
 Zehe bat sudurrekin baitzuen igorri,
 Adio erran zion gure herriari.

IX. Alegeratu nintzan Bettiri khendurik,
Orduan ez bainuen Jaun haren beldurrik,
Ikhusi baitzituen egiak ondurik,
Ihesari eman zen karrosa harturik.

X. Bethiri ilhundu zen, bazuen zer egin,
Ezagunen uztea ez zuen atsegin,
Bazkaria txarra eta afaria arin,
Hura den lekhuetan behar dute egin.

XI. Oxala gehiago ager ez baladi,
Zeren izatua den ene penagarri,
Galdiak maingu ditu bera ezin igi,
Laguntza galdez dago Bertran konkorrari.

XII. Othoitz egiten diot Zeruko Jaunari,
Pena handi hautarik athera nezan ni,
Bettiri Sants etxean ez bainuke nahi,
Horretan uzten zaituztet zuen zerbitzari.

249

Joanes ETCHETO

BILIGARROA PIAIAN

I Biligarro maite pollita, norat goaten haiz airean?
Zerk hola asaldatzen haute hire xedera goatean?
Trabak oso khenduak ditut goaten haiz bidean,
Aingeruak lagunduren hau, behar izaten denean.

II Hire harat hunat orotan gogoan haut nik hi bethi,
Hire kanta aditzen diat eginik ere emeki,
Hire luma berexten diat bertzen artean errexki,
Norat nahi ibili hadin begiak zauzkaiat hiri.

III Hire trebesia orotan hirekin nauk izpirituz
Beldurrez eta gaztaginek hezaten lumatik biluz.
Hori hola gerthatzen balitz ni hilen nindukek doluz,
Urrun hadi etsaietarik akhaba ez hadin damuz.

IV Hire goiti behehietan izanen nauk bethi alde.
Laguntza behar dukanean, errak niri falta gabe,
Zonbait urhatsen egiteko ez nauk segur ni herabe,
Hire gatik egin nitzazkek ehun bat lekkoa bedere.

V Erne niagok ikusteko heia badukan etsairik,
Damu nitek izaten bahu hire piaian makhurrik
Zuzen bidean dabilana lagundua duk zerutik,
Oha beraz, ibili hadi, ez izan, othoi, beldurrik.

VI Biligarro maithagarria, erradak hire xedea,
Errak, othoi, eman dukanez nihori hire fedea,
Piaia hortan errak, othoi, zertan dabilak gogoa,
Hiretako tokiño hortan idekia duk athea!

VII Batasun zorionezko bat beira ziagok hiri funski,
Hire hegalak mugi zaizkik, egon gabe bethi nagi,
Orai egin behar dukana ez gerorakotz igorri,
Zeren geroa ez baitu Jaunak hemen agindu nihori.

250

Augustin ETCHEVERRY

AMAIZUNA

Airea: *Prima eijerra*

I. Nola xoria, belatz aztaparrean
Izatu dena, airez dohanean,
Ni halatsu naiz botz, amaizun muthiria,
Bethikoz uztean,
Ez da goizegi! Has bekit bizial!

II. Lau-bortz urthetan ama zen bezain ona
Khaxan darotet ezartzen etzana,
Ikhusten tut gero, hura ixil ixila,
Eta lo naukana,
Handik norapeit deramatedala.

III. Etxean arrotz, ez jakinez zer asma,
Hilherriraino zerbaitek nerama...
Orduan zinituzten eramaiten xilhora
Oi, zu nere ama!
Nik oihu bainan bertzek lur gainera.

IV. Usu daut aitak emaiten aditzera,
Bertze ama bat dakharla etxera,
Nik, ergela! Ez nuen ihardetsi orduan:
Ama bat berbera
Zuela Jaunak haurrentzat munduan.

V. Ama ordeak behar zuen izena,
Geroz jakin dut zela amaizuna,
Ez du ez halakoak bertzerenik maithatzen,
Jauna ganik zena,
Urrundu baitu gogotik ilkhitzen.

VI. Nere etxean sarthu zitzaidaneko,
Nerorren hartan ni nintzan kanpoko,
Nik irri amari, bainan ez hark musurik!
Ene lanendako,
Nihork eskerik ez begithartean!

VII. Haurride gaztek gizen larrua zuri,
Aitoren seme direla iduri!
Nik, xar eta beltz mehez (zerbait galderen giltza)
Hezurrak ageri,
Bainan ni bizi! Amaizun zikhoitza!

VIII. Supazterrean lehen nuen alkhia,
Haren gainean nik nuen zoria,
Zangoz surat eta altzorik goxoena,
Ene bururdia,
Enetzat amets! bertzek gozamina!

IX. Orduz geroztik nago mahain zokhoan,
Bakhar bakharra, xakhurra ondoan.
Hotzez othe nagoen edo naizen bustia,
Nork duke gogoan?
Nagola ni hau: Ni buru handia.

X. Minez banintzan ama bizi zelarik,
Laster han nuen eskua ezirik;
Hunek balin baderaut nihoiz entzun auhenik,
Izan tut berririk,
Bertze bi uspel, bat pareta ganik.

XI. Jauzika, kantuz, gero berriz pilotan,
Jo ahala jo, hari zinenetan
Aita-ama-dun haurrak ez ninduan zurekin,
Baina bai landetan
Edo bidean, zerbait haxerekin.

XII. Orai ordean ez othe nau entzuten,
Haren berrien kantatuz emaiten?
Entzun nezala, entzun, baitut hamalau urthe,
Etxea dut uzten!
Nere adinak eztudano bethe.



251

Martin GUILBEAU

EINADAK

I Ametsetan ihunik, herria gogoan,
Goiz batez banindagon jarria leihoan,
Einadak lorietan zohatzen airean,
Orhoitzapen bat phiztu dautet bihotzean.

II Norat zohazte, norat, einada maiteak?
Ez urrun, ez hegaldia, hegaztin emeak,
Senda zatzue, othoi, ene arantzeak,
Agor zuen hats-onaz ene onhazeak!

III Zer berri dakharzue ene sor herritik?
Nigarrez hari nago nere desterrutik,
Orhoitzapen dorphea! othe duk parerik?
Aphal zaizte, einadak, goan gabe bixtatik.

IV Hara-han hainitz urrun mendi Eskaldunak,
Iklusirik zarete heldu, hegaztinak,
Zer dio bere haurraz ene ama onak,
Nigatik nigarretan maizegi dagonak?

V Zer diote haurraren maitatu lagunek?
Zer ezin ahantzizko haran oihartzunek?
Ni gabe, hek gabe ni! nere hatsberenek
Iraun bezate iraun nola mundu honek!

VI Baina oi! bihotz mina! jadan bazohazte!
Zer! nihork sortherrian ez othe nau maithe?
Zeru goretan barna arinik zohazte,
Ene dohakabea! aira ezin naite.

VII Laster duzue berriz eskaldun herria,
Ikusiren, einadak, oi! zuen zoria!
Nik hemen auhenetan, oroz ahantzia,
Tristerik iraganen dut ene bizia.

VIII Eldu den primadera berriz agertzean,
Bizi banaiz oraino nere desterruan,
Hegaldia zaizte, othoi, ene leihopean,
Eta erran zer berri den ene sorlekhuana.

252

Piarres IBARRART

GERLAKO PRESONIER BAT

Airea: Gernikako arbola

I Eskal herritto bat da nere sor-lekhua,
Gerletara xorthetik izan niz deithua,
Prusiano etsaiez han preso hartua,
Nahi duten lekhua hetaz gidatua,
Sei hilabete osoz heien menekua. (bis)

II Hain urrun eman naute, lekhu arrotzetan,
Pietaterik ez da heien bihotzetan,
Abre batzu bezala heia zokhoetan,
Berogarririk gabe neguko hotzetan,
Goseak hil urrana izan niz bortzetan.

III Ez nuen aita ama on heien berririk,
Hesturetan nindagon hetaz orhoiturik,
Ez ikhusten mendirik, ez uda lilirik,
Othe daite munduan hain lekhu tristerik,
Frantzia! oh! Frantzia! hik ez duk parerik.

IV Hainbertze sofriturik jena da orena,
Ene herri maitera hurbiltzen naizena,
Argi haste eder bat, igande eguna,
Aspaldian Jaunari galdatzen nuena,
Orai akhabatzen da ene bihotz mina.

V Iguzki arraioak hai dira altxatzen,
Primadera loreek usaina botatzen,
Nere herri ttipiko eliza agertzen,
Izkilak jo du eta jendea da biltzen,
Ahaide, adiskidek naute besarkatzen.

VI Nere etxe maitean orduan sarthurik,
Aitaren besoetan eman naiz lehenik,
Ez egin, ama ona, ez othoi nigarrik,
Altxa zazu burua, ez da zorigaitzik,
Zure seme bakharra hemen naiz bizirik.

VII Berri hori, maiteak, entzun zuenian,
Aingeru bat bezala sarthu zait etxian,
Nik eman seinalea oraino erhian,
Hain fidel egotua denbora guzian,
Laster ikhusiko dut ene saiheitsian.

VIII Bake goxo eziaz orai naiz gozatzen,
Aspaldian jaunari bainuen galdatzen,
Jainkoari diozkat eskerrak bihurtzen,
Eta bihotz guziaz grazia eskatzen,
Guzier osagarri eman dezazuen.

253

Piarres IBARRART

ITSU BAT

Airea: *Gernikako arbola*

I Hogoi eta bi urthe, adin ederrean,
Gaizkienik ahal naiz gizonen artean,
Atsegabe guziak emanik batean,
Othe litazke deusik nerearen aldean,
Munduan bizi behar bethi ilhunbean (bis).

II Nere ait' ametarik xoilki dut aditu,
Sehaskan haur xumea nintzela itsutu,
Zeruko aitak hola nintuen dohatu,
Gau beltz huntan behar dut bizia higatu,
Egunaren argia ez dut ezagutu.

III Zori gaitz hau ethorri behar zen nigana
Nork ez du auhenatzen nere bihotz mina,
Uroso da mundua ikhusten duena,
Jainkoak eman oner begira dagona,
Dakiena noiz diren gau eta eguna.

IV Ez da hainitz munduan ni bezala denik,
Bista galdu duenik horren gazte danik,
Haur denboran ez nuen horrelako minik,
Neretzat zorigaitza! ezagutza jinik,
Lur hau ikhusi nahiz nehon ez dut onik.

V Baditu itsasoa, bai eta mendiak,
Argizagi, iguzki, airean xoriak,

Hainbertze gauza eder, udako liliak,
Entzuten ditut bethi guzien berriak,
Eta nik ezin heda hetarat begiak.

VI Zonbat amets ederrez gauak iragaiten,
Argitua naizela gogoak emaiten,
Ametsa zela ere ez nuen sinhesten,
Leihora noha, bainan deusik ez ikhusten,
Bihotza nigarretan oherat itzultzen.

VII Lanean hari zare, zu aita zaharra,
Bazinuke ardura bai ene beharra,
Haurriderik gabea ni seme bakharra,
Oi! ene bihotzeko oinhaze gogorra,
Nola paga dezaket zuri dudan zorra?

VIII Ama, zer gurutzea duzun jasaiteko,
Zure bihotz eria nork du sendatuko,
Ni bistan aski nauzu nigar egiteko,
Ez duket zorionik mundupe huntako,
Noiz zare bada, jauna, zu urrikalduko?

IX Hasi ditudan bertsua huntan akhabatzen,
Nere leize beltzean ilhunik gelditzen,
Bihotzaren erditik othoitz dut eginen,
Bista ona guziek izan dezazuen,
Eta lur hau uztean zeruan sar gaiten.

1873 SARA

254

Gratien ADEMA "Hergaray"

BILDOTXA ETA OTSOA

I Primadera goiz batez, xirripa batera
Ama gabe, bildotxa gan zen edatera,
Hantxet ari zelarik xurga xurga bera,
Oihanetik otsoa zitzaion atera.

II Otsoak, goraxago urean sarturik:
"Ur hau, erraten dio, zikhintzen dauak hik".
Bildotxak errepusta: "Jauna, nik nihundik
Hemendik ez dezaket zikhin zure urik".

III "Ixil hadi, kixkila, jaz ari baihintzen
Ene fama onaren nun-nahi funditzen".
-Jaz ni oraino, jauna, sortzeko nintzen,
Amaren tittirat naiz oraino ibiltzen.

IV -"Hire anaia zuan, hi ez balin bahaiz".
-Ez dut nik anaiarik, ume bakharra naiz.
-"Hots! zuetarik norbeit entzun diat nik maiz,
Nitaz bazerasala zer nahi elhe gaitz".

V Hortan zen bildotxari oldartua otsoa,
Eta bi klaskaz zuen iretsi gaixoa.
Azkarrak duenean partida flakoa,
Hauzia zoinena den erran gabe doa.

VI Otsoak bildotxari egin zioena,
Jainkorikan ez balitz, nork liro kondena!
Jainko legetik kanpo zertan da zuzena?
Galde zazu indarrez zoin den nausi dena.

Cardets 20 Septembre 1873.

Monsieur,

J'ai été entièrement flatté du cas que vous avez bien voulu faire de mes deux si petites et si simples pièces. J'avais eu devoir me voiler aux yeux du public surtout, sous le pseudonyme de Bourquard, qui est la désignation cadastrale de mon quartier natal à St. Véz; mais Monsieur le chanoine Duchauspié m'a dit qu'il vous avait confidentiellement déclaré mon vrai nom. Votre visite ainsi que celle de M. le Capitaine Duvoisin me fut annoncée par mon frère pour Mercadi à St. Véz. C'est ici de votre part plus que double et l'honneur et la récompense. Votre fidèle commissionnaire, procureur de splendide malheurs et de l'œuvre traditionnelle, m'expliqua l'œuvre de volturizer qui vous avait fait m'apporter la voie de St. Véz. Il me dit aussi la bonne envie que vous eûtes de reculer quand même à Roscais jusques chez moi. Pour les coups, j'aurais été désolé d'avoir été cause de tant de peine. Voyez si je méritais tant d'attention, puisque j'ai été l'homme à l'arrière d'effica jusqu'au point, hui l'expression de ma reconnaissance. Un devoir de cœur, un devoir d'honneur ainsi retardé m'embarrasserait bien si j'osais alléguer la moindre excuse.

Recevez Monsieur
les hommages bien respectueux

De Votre très humble serviteur

G. Adema





Lezama, le 20 oct.
27.9. 3. 1974.

Mon cher Mr l'Abbadie

à mon retour
de la Campagne j'ai vu
l'affiche de Lora et le joli
exemplaire du Prône toulestin.
Bonne nuit mes meilleurs
remerciements, et croyez-moi
comme toujours

Un affe!
L'Abbadie.

P.S. Quelle preuve avez-vous
que le Prône soit la première
livre toulestin imprimé? Le
titre ne figure pas dans la
tête, mais sous le titre vous
trouvez cela d'autre part.

255

Gratien ADEMA

BELEA ETA AXERIA

I Jasan ahalikako
Zitzi bat mokoan
Belea zagon behin
Haitz baten kaskoan.
Axeria ihizin
Han gaindi bazohan,
Belea ikusirik
Trikatzen zaio han.

II Agur, Mus de Belea,
Zoin eder zaren zu!
Zure luma pullitaz
Lilurutzen nauzu.
Kantua luma bezein
Eder ahal duzu?
Ai! entzun nahi nuke,
Othoi, kanta zazu.

III Koak-koak! arrai hasten da
Belea kantatzen,
Mokoa duelarik
Etxe bat largatzen.
Haragi puska zaio,
Lurrerat erortzen.
Axeriak ez zuen
Bertzerik asmatzen.

IV Bazka atzeman eta
Dio beleari.
Ez gaitela, to, fida
Lausenkariari.
Ez zerbeit garelako
Gure usteari,
Xitxi hau zor derautak
Hitz on horren sari.

1874 SARA

256

MAE "Bizkaitarra"

JAUNGOIKUA TA ERRIJA

I Ea bada, mutilak, jaki gogorturik,
Fusilak baionetak artu berbertarik,
Jaungoikua ta Marija doguz gure aldetik,
Europa kontra izanik ez dogu beldurrik.
Barrizetakoa.

II Ogeta amabost urthe diras iragoak,
Agintzen deuskubela liberal gaistuak,
Astruzija andijakaz, madarikatuak,
Engainau zitubezan Espainol sintzuak.
Ea bada, etc.

III Judasek saldu eban zeruko maisua,
Maroto jeneralak Karlos gisausua,
Bilaukeria onegas jaso zan tronua,
España gustijentzat zori gaistokua.
Ea bada, etc.

IV Isabelen gerisan baltz infernukuak,
Bete ditubez ondo euren poltzikuak,
Kendu deuskubes guri geldika foruak,

Askok artu ditube gradu ta enpliuak.
Ea bada, etc.

V Inos aspertu ezinik dauken egarrija,
Mutildu dabe ederto España errija,
Geratu erreinuau, o ze lotzarija!
Alkarren jelosijas galduta gustija.
Ea bada, etc.

VI Eskerrik baltzanagaz, o ze jente final!
Askenez bota dabe euren erregina,
Agintari izatia, diruba, astegina,
Izan da liberalak beti zuben grina.
Ea bada, etc.

VII Agintari jarri da jente itsusija,
Serrano ta Topete Prim da familija,
Onetan bete dabe dauken banerija
Orbaindurik galanto euren kontzentzija.
Ea bada, etc.

VIII Ardijen narrubagaz jantziriko otzuak
 Izan dira ta dira liberal paltzuak
 Otzo onen artian ez dira mankuak,
 Ardi triskantzarako gaurko ministruak.
 Ea bada, etc.

IX Eleiza santiari deutesen gorrotuak,
 Artu eragin deutesen diabrusko asmuak,
 Erbestetu ditube Jesusen soldauak,
 Eta bota lutarras mojen konbentuak.
 Ea bada, etc.

X Liberalen artian daukas diabruak,
 Arimak galduteko lagun asartuak,
 Entzun ditus Mdrilgo diputau lekuak
 Dardar eragiteko izkuntza moduak.
 Ea bada, etc.

XI Ukatu da Jesusen Jaungoikotasuna,
 Ta bardin Marijaren Dontzeilatasuna,
 Andija da benetan Jaunen ontasuna
 Igaroteko isilik irain ain astuna.
 Ea bada, etc.

XII Baltzen gaistotasunak ez dauko neurririk,
 Ezin dabetse ikusten fededun gizonik,
 Pekatu andijenez aspertu bagarik,
 Aldendu gura dabe Fedia gugandik.
 Ea bada, etc.

XIII Mesprijau ditudes onen erreguak,
 Españan ez zartzeko jaungoiko paltsuak,
 Eregi daijesala, dinue, Tenpluak
 Eretiko, judegu, jentil da Turkuak.
 Ea bada, etc.

XIV Oraindino badago Españan lotxarik,
 Ezin igaro leikes gauza onek geldirik,
 Euskaldunen artian ote da mutilik?
 Ala dagos gizonak oilo biurturik?
 Ea bada, etc.

XV Amar mila aingerugas! ez orrelangorik,
 Euskaldunen bijotza ez dago oiloturik,
 Jaki gaitezan beraz danok bat eginik,
 Liberal arruari jarkiten gogotik.
 Ea bada, etc.

XVI Bai, bai irasartu da lo zegon legoia,
 Españan entzuten da orain bere orroia.
 Alperrik jaki kontra Tiro ta Troia,
 Karlosek jantziko dau Errege koroia.
 Ea bada, etc.

XVII Karlos zaspigarrena geure jaun maitia,
 Zure preminan dago Euskaldun jentia,
 Zapaldurik betiko liberal kastia,
 Zugas eukiko dogu biardun bakia.
 Ea bada, etc.

XVIII Españako koroia buruan jantzita
 Don Karlos izango da Espainolen aita,
 Esan bada gogotik bildurrari itxita:
BIZI BEDI DON KARLOS TA ANDRE MARGARITA.
 Bai bai irasartu da, etc.

XIX Ea bada, mutilak, jaki gogorturik,
 Fusilak, baionetak artu berbertarik,
 Jaungoikua ta Marija doguz gure aldetik,
 Europa kontra izanik ez dogu beldurrik.

257

Gratien ADEMA "Zalduby"

BETIRI-SANTS

I Betiri Sanxeren berririk,
 Aspaldi ez zen deus handirik,
 Zioten ehortzi zutela bizirik,
 Lurpetik ilkhirik,
 (Ez duk ez iririk)
 Munduz mundu herratua ibilirik,
 Oraikotik ditu Betirik
 Indarrak hartu guk utzirik,
 Orai dago kargu handitan jarririk. (bis)

II Betiri Sanx bai lehen ere
 Zer zen ezagaturik gare,
 Zer nahi miseria eta dolore,
 Denboraz hain pobre
 Orai zen podore!
 Jainkorik ez dutenen enperadore,
 Bethi gaixtaginen fagore
 Bandera nahi den kolore,
 Oraiko mende gisan bere du ohore (bis).

III Betiri Sanx dago oihuka,
Biba, biba Errepublikak!
Nahi ez duenari lephoa pika.
Jendea dabilka
Nahasiz trumilka
Umatua libertate ukhaldika
Jainkoa ukh-eta ostika,
Bainan Bettiri ez kitzika,
Aztaparra bezote denek milika (bis).

IV Lege munduko errexena
Omen da Betiri Sanxena,
Bethi haizu dela egin daitekera.
Ahal gabe dena,
Hark du hark hobena,
Indarrak du orai garhaitzen zuzena.
Kontzientziarik duena
Ez da bethi irabaz dunena.
Frikun adret bat orai nola kondena?(bis)

V Betiri-Sanxtarren Jainkoa
Da mundu huntako gozoa,
Erlixione libro eta largoa,
Apez gabekoa,
Erran gabe doha,
Gure xakhurrak dik hola holakoa.
Bizi huntarik ondokoa,
Zer daiten edo nolakoa,
Hortaz ez dute hanbat khexu gogoa.(bis)

VI Betiri Sanxen soldaduak,
Nun nahi dire nausituak,
Framazon, eskuaraz *Harginbeltz* deituak,
Heien sekretua,
Zin eta patuak,
Lurpeta ilhunbetan daude sarthuak,
Jainkorik ez nahiz munduak,
Hek ditu gidari hartuak:
Ez dik gaizki irri egiten debruak. (bis)

VII Betiri Sanxen haur guzia,
Ttikitik librorik haziak,
Adinik gabe zer nahi haziak,
Bizioz gairiak,
Zein nardagarriak!
Onhestate-ta ahalkea utziak,
Deus onik ez egin nahiak,
Gormant bano eta nagiak,
Iretsiak dagozka deboxkeriak. (bis)

VIII Betiri Sanxen zangoetan,
Oi zenbat dabilzten herresta!
Eta zenbat den haren atzapparretan!
Pobre-ta jaunetan,
Gradu guzietan,
Hainitz dire hola sarthuak saretan.
Asko bizitze moduetan,
Jainkorik nahi ez denetan,
Betiri Sanx da nausitzen guzietan (bis).

258

Agustin ETCHEVERRY

KATTALIN-XUME

Airea: *Zaldi-zaharra...*

I Jende hainitzek ez du uste dakiten
Bakean hantxe bera bizi denaren
Gozoa zer den,
Beraz on da guziek bi hitzez hemen
Ikhas dezaten,
Kattalin-xume bera nola bizi den.

II Etxe ttiki beltz eta xahar batean,
Sorthuz geroztik han da lekhu berean
Nere ustean

Ixil-ixila bethi bere lanean
Gogo onean
Kattalin-xume han da bizi bakean.

III Ez da hanbat ederra haren etxea,
Bainan kilho-kilhoa zorrik gabea
Bere-berea,
Nola ez baithu maithe hiri-arthea
Ez jende pea
Harthakotz hauthatu du han bizitzea.

IV Kattalin-xumez asko dire trufatzen,
Bere xokoan bethi bakarrik zeren
Hola bizi den,
Bertzen irriez ez da hanbat kexatzen,
Zoroek ezen
Ezagutzen ez duthe bakea zer den!

V Hainitzek behar dute bizi munduan
Lanean leherthuak bethi kanpoan,
Landan kaskoan,
Aldiz Kattalin-xume lekhu goxoan
Dago pausuan
Iresten xuraxun sukai-xokoan.

VI Eriz gelditzen bada bere larrutik,
Kattalin-xume badu irabazitik
Salda onetik,

Arno hurrupatto bat haren ondotik,
Hoberenetik,
Medikuak sos gutti haren etxetik.

VII Haren etxean ez da deusen eskasik,
Xuhurra izan baita ttiki-ttikitik,
Zuzen bidetik
Kutxa guziak dauzka linaz beterik
Oial onetik,
Ez da bertze zenbeiten inbidiarik.

VIII Zenbat nigar ez dago nekearekin,
Gazterik familian sartzearekin
Beren haurrekin
Zerbeit ezaguturik dago Kattalin
Hain ondu berdin
Urosago bizi da bethi mutxurdin.

1875 SARA

259 GOYETCHE

EZKILA

I Maite dut goizean xorien errepika
Arbolen artean airearen musika,
Uraren auhena, ttortoilaren kantua,
Bainan maiteago ezkilaren soinua.

II Ezkilaren botza zoin den xarmagarria!
Herrian ezkila egiazko xoria,
Errepikaz beti, beti hatzarria
Kobrezko ahoan burdinez du mihia.

III Dorrearen puntan ezkila beilan dago,
Soldadu bat baino gau egun erneago.
Sua nonbait, nonbait etsaia agertzen da,
Ezkila kuxean oihuz abiatzen da.

IV Ezkilaren botza ageri da denetan
Mendi gorenean, zelaian, haranetan,
Nigarrez iduri doluzko egunetan
Irriz eta kantuz egiten alegereetan.

V Ezkilaren botza da herriko bizia
Ezkiarik gabe herriak zer grazia!

Gorhutz bat litake arimaz gabetua,
Alhargun triste bat, presuna bat mutua.

VI Oi! Zoin ungi duen ezkilak predikatzen
Denentzat badaki hitz on bat atzematen,
Probeari dio: Deus ere probe zen,
Ogetzat ez zuen lasto puxka bat baizen.

VII Hedoietan goiti arranoa badoha,
Iguzkiko argi garbian mainatzera
Bainan ezkilaren botza gorago gaten
Gure otoitzekin zerura da igaiten.

VIII Bai hegaldatzen da zeru gorenetera,
Jausten ere berdin purgatoriotara,
Gure adixkiden, ahaiden peskatzera,
Uriaren pare lur idorren gainera.

IX Diot beraz berriz... Bait maite dut musika,
Harrixken erdian nigarrez ur xirripa,
Oihan ixilean ttortoilaren kantua,
Bainan maiteago ezkilaren soinua.

260

B. CELHAITO

ONDIKOZKO ZORIA

I Ederretsgarri zaiote itsasoa hainitzeri,
Marrumaz, orroz,karraskaz gudukan denean hari,
Jauzten delarik muthiri, khonba xuri bat gainean,
Elhur oso baten pare harrokara denean.

II Ez bide dute beldurrik hunki detzan bihotzean,
Ordean joa daukanak eta ikhara latzean
Bertzelako du gogoan. Haizela beltz itsasoa!
Eta hargatik naizeno nukek hire menekoa!

III Hiratua, lehertua, inguma batez bezala,
Haurrean naiz egotua, berak josta zitezela
Ihes nere laguneri ezin atheraz burutik,
Zer nuen noizbeit neronek ikhusi itsas hegitik.

IV Tiroinez zafratua zen ezponda baten gainean,
Amaren soiner lothua nindagon haren aldean,
Eta bazen urrunean untzi gaixo bat berbera,
Nere aita zeramana anaiekin galordura.

V Batean uretik kanpo zorrozki zen gero jausten,
Nola usoa zerutik badu belatha ikhusten,
Zagon gero zola-zolan uhinez setiratua,
Eta gu ginauden ilhun ja ez ginuen galdua.

VI Ez! etsia har ginezan agertu zen untzia,
Dilindan tiroin kaskotik, izaiteko aurdikia,
Harroka batzuetara orduan zen zathikatu,
Aita eta haurrideak hantxe ziren galdu.

VII Ezpatatz bethi bihotza zagokidan zilhatu-rik,
Laguntzat behar nuena dut marinela semetarik,
Eta orai, hau zoria! non dagokit, non dabila?
Erran zarotan bardakotz ethorriren zitzaidala.

VIII Ez othe zuen bertzerik, untzirakoan asmatzen,
Nigar pulpurez mazela zarotanean bustatzen?
Zeruan etzen hedoiik, ixil zagon itsasoa,
Haizea nahi bezala nolaz hain ilhun gogoan!

IX Huna zerk, nere nerea zaukan bihotza goibeltzen,
Erasiaz itsasoa atzotik ezin erdiz zen,
Orai da eginen, horra, haren orro borthitzena!
Jauna, urrikal beikizu urrantzaile lagunduna!

X Nola buru, gau beltzean, itsaso nahasiari!
Gibel, aitzin ura duke mendi handiak iduri,
Gaiak eta haize beltzak harrira deramakete,
Oh maitea, garhaitiar nola izanen haiote!

XI Gau luze, gau latzgarria!zer duket bizkitartean
Bihar goizera heltzeaz? argi hastean berean,
Du, nonbeit, phitzaraziko norbeitetik omeneria
Zerbeit bada kharla urak...bai! untziki iduria.

XII Gan da! bertzen iruzkia, atseginezko egunak,
Neretatz gela zokhoan gau eta egun ilhunak,
Mezutu duen artino ezkilak itsasoari,
Garhaitu nauela, bainan laguna ganat igorri.

261

Martin ARRUPE

BIBA ESKAL HERRIAK ETA BIBA GUR´ ANTZINEKOAK

Airea: Gernikako arbola...

I Kantatzera goazi zenbeit bertsu berri,
Ohore emateko eskal herriari,
Nahi bagare bizi urus eta ungi,
Lekhu maite hautarik ez gaitezen mugiri.

II Biba Eskal herriak, biba gure Larrun,
Ez dugu bizi nahi zure ganik urrun,

Usario zaharrak imita detzagun,
Elgar haurride gisa maita eta lagun.

III Utz beraz Amerikak, utz beraz Indiak,
Ez dire ez han ere zorion guziak,
Urrungo berrieri tapa beharriak,
Goza dezagun gure lur aitek utziak.

IV Zuek jendeketari espantulariak,
Eraman dituzue gure gazteriak.
Horra burhasoentzat zer pena handiak,
Ez baitzituzten ustek hortako haziak.

V Erdiek berririk ez bizi diren ere,
Hainitz burhaso hola penatuak dire.
Gizon gazteak othoi adi nazazue,
Ez zaitetzela izan holakoen pare.

VI Ohora burhasoak, ohora herria,
Ez baduzue nahi laburtu bizia,
Pausa behin bethikotz, pausa gazteria,
Zerutik ifernurat ez gaiten abia.

VII Hemen baino hobeki non duzue uste,
Edo ez dituzue sor lekuak maite.
Guanak diren zenbeitek orai han diote,
Espantulari txarra tronpatu gaitzue.

VIII Gure lekhu maiteak bethikotz utziak,
Huna norat gaituen ekharri utziak.
Hola dire hainitzen hango erasiak,
Orai ez du balio gure urrikiak.

IX Gure aiten aietan ez zen holakorik,
Bat ez zen aldaratzen hamar miletarik,
Behi, zikiro, ardiz, mendiak betherik,
Intres ederrak hartzen zituzten hetarik.

X Batzuek mendietan, bertziak landetan,
Antoski hari ziren zoin bere lanetan,
Erretiratze ona igande bestetan,
Holako guti baita oraiko gartzetan.

XI Izan gaitezen beldur ethorkizunari,
Beha gure zaharren etsenplu onari,
Bainan sekulan ez da behar zuhurregi,
Adios, jende onak, zuen zerbitzari.

262

Piarres IBARRART

KANTARI BAT

Airea: Lili bat ikusi dut baratze batean.

I Eskal herri ederra nere sor-lekhua!
Hemen ikhusi nuen lehenik mundua.
Nahiz handitarik ez naizen sorthua,
Jaunak aberaski nau emanez kantua.

II Argia urratzean goizetan jaikirik,
Jainkoa othoizten dut belhaunikaturik,
Othoi ez dezan igor zorigaitz ilhunik
Nere kantua ixil ahal dezakenik.

III Nor da aski aberats gizonen artean
Ni bezain urus denik lurraren gainean,
Kantuz eta lanean umore onean,
Jainkoa zerbitzatzu bihotza bakean.

IV Itzal ilhun zenbaitek nautenean hartzen
Kantuaren medioz ditut aldaratzen,
Zorigaitzen lekhuon zoriona sartzen,
Oinhazerik minena bihotzetik khentzen.

V Nere deskantsuaren hartzera gan eta
Ardura entzuten dut errexinoleta.

Kantarien errege, kanta zazu, khanta,
Zuk gauaz, nik egunaz ez gaitezen trixta.

VI Handiak itzaletik dagozi begira,
Berantesten dutela kanta eder hura,
Bihotzetik ilkhia heien bihotzera,
Erdizkatzen diotet nik dudan plazera.

VII Xahar ile xuritu, hezur gogortuak,
Adinaren phisuaz bihotz gabetuak,
Haiek niri xorta bat, nik haier kantuak,
Gazteturik deruzkat irriz lehertuak.

VIII Urzo begi urdin bat mendian sorthua,
Ihiztariek ezin saretan sarthua,
Egin diot urzoen biltzeko kantua,
Orai aldean daukat ongi lakhetua.

IX Kanta hunen gudua, huntan dut utziko,
Eta gure jaun ona bethi othoiztuko,
Beretzat hauta gaitzan eternitateko
Aingeru guziekin kantuz haritzeko.

263

JAUREGUIBERRI

ARTZAIN ZUHURRA

I Adin gaztetik artzain naiz,
Mendi gora batean,
Hantxe bozik kausitzen naiz,
Ni bakhartasunean.
Nere arthaldearekin,
Bizi naiz han bakean,
Bai-ta artzain lagunekin
Batasun ederrean.

II Han nere atherbea dut,
Harrizko etxola bat,
Nik hura baliatzen dut
Urhezko bezain bat.
Han nere hazkurria dut,
Aldian thalotto bat,
Maiz hari emendatzen dut
Ardi gasua pixka bat.

III Edaritzat kausitzen da
Ithur-hatxa aldean,
Edaririk hoberena,
Nere ustez munduan.
Basua bethez edan eta
Uzten nau bai zentzuan.
Bertze asko likur on da,
Bainan beira gaindian!

IV Bizi naiz horrekin,
Ez dut gastu handirik,
Zenbait aldiz lagunekin
Besta egina gatik.
Orduantxe elgarrekin
Gauza goxoak janik,
Jartzen gure aski arin,
Moltsakoak utzirik.

V Arthaldeak alhatzean
Larrerik gorenean
Ikhusten tut behean
Elizak lur sainduan.
Jaun ona dut adoratzen
Hetarik bakhotxean,
Horrela dut hatzemaiten
Gozoa bihotzean.

VI Igandetan jausten nuzu,
Ardiak alhaturik,
Elizarat gaten nuzu,
Bai bederen zortzitik,
Hantxe Meza entzun eta
Gibelat jin behar nik,
Arthaldea ez da ontsa
Artzaina gabetarik.

VII Egun hetan bezperetan
Hiltzen da jendea,
Nik ere heiekin baltsan
Maite dut izatea.
Bainan nola mendietan
Irrixka arthaldea!
Hobe dut othoiztto hetan
Bihotzez juntatzea.

VIII Artzain gazte zuhur gisa
Ez dirot hainitz erran:
Gauza serioesak dira
Holako kasuetan.
Nik dakidana hauxe da
Nola bizi hala gan,
Zeruak lagun gaitzala
Gure eseiuetan.

264

AN. "senpere-amotztar bat"

UHOLDEAREN GAINEAN

I Aditzen dudanean uhaldez mintzatzen,
Frantzia Tolosa zaut niri urrikaltzen,
Hango nigar marraskek naute erdiratzen,
Duda dut egundino hola gerthatu den.

II Lulubiaten erditik deihadarra min zen,
Ama bere hurrekin ithotzen hari zen,

Bai hantxe desgrazia izigarria zen,
Hainitz arimaren itzul azken fina han zen.

III Menditik hasi eta itsaso portura,
Urek bazeramaten zenbaitto presuna,
Deithoragarria zen hango ikhuspena,
Jende haiekin balsan bazen asko gauza.

IV Han ur hegietako landak, mahastiak
Oro zikhinkeriez daude estaliak,
Ezin erran zeinbat dire han kalteak.
Nola erremedia hango desmasiak!

V Milaka familiak arroparik gabe!
Beren etxeak ere urak gan zaskote.
Gorputzen pausatzeko oherik ez date,
Gaixo maite heieri urrikal gaizkote.

VI Aita saindua bere kardinaleekin,
Aphezpikuak beren jaun erretorekin,

Zenbaitto puxantzia beren gortheekin
Orok hantxe dituzte amoina onak egin.

VII Miragarria duzu begiz ikhustea
Zenbatez handia den han karitatea,
Herritan kanpotarrek prest dute urhea,
Erreparaturen da izan den kaltea.

VIII Handi, tiki, guziak, pobre, aberatsak,
Katholiko, juduak eta higanotak,
Orok heltzen dituzte han beren amoinak.
Saristaturen ditu zeruko jaun onak.

265

AN.

GIZONAREN BI JANARI

I Arren, ikus zazute,
Altxa ta begira,
Zeru-lur-itsasoak
Zeinegatik dira?
Ezerezetik gizonagatik
Sortu ziraden argira?

II Gizona bizi dedin
Gizona bezala
Anima ta gorputzez
Bat-egina dala,
Zabaldu dio, Jainko maiteak
Bere mesedeen magala.

III Janari xit gozoak
Gorputzarentzako
Mila bider obeak,
Aisa animentzako
Antola ditu zeru lurretan
Gizonen zoriontzako.

IV Aurra jαιο ta laster
Bular esnetiak
Ezti-goxo-goxoak
Aia ta mamiak
Eroso ditu pozik emanik
Bere amatxo maitiak.

V Indarretan aurrera
Asetzen danean
Gizon eginda gora
Buruba altxatzera
Bazter guziak zabal zabalik
Dakus beraren aurrean.

VI Jaunak ematen dizka
Mundu zabalean
Abera ta ogi asko,
Sasoin ederrean,
Miloika egazti aize-egaletan
Ta arrai gozoak urean.

VII Baso soro zelaiak,
Baratza atseginak,
Jaki ta fruitu gozoz
Alkarren berdinak.
Gizonarentzat on izan dedin
Dira Jainkoak eginak.

VIII Baina zer dute ekusi
Janak eta edanak
Gorputz ilkor onentzat
Ugari emanak
Zeru danari Jainkozkoakin
Naiz ekusten ez diranak?

IX Jaunaren grazia ta
Jesus-Jainko Bera
Eta gure animetan
Biyen sartuera
Da janari bat goitzen duena
Gizona aingeruez gainera.

X Sakramentu santuen
Zazpi iturriyak,
Bizitza dariyela
Dauzkagu irikiyak,
Erdi-erdiko iru ta laubat
Artu litezke sarriyak.

XI Karidade betiko
Maitakizun pina,
Da animaren barruko
Birtute erregina,
Indartzen gaitu, iritxi arte
Zeru goienen erpina.

XII Animaren bazkari
Da argi zerukoa,
Erreintzen duena
Gure adimentua,
Ezagun dezan gauza bakoitza
Bera dan bezelakua.

XIII Denbora izpi bat dala
Munduko izatea
Arekin behar dala

Zerura juatea,
Gaistoarentzat pistuba dala
Betiko garren leizea.

XIV Jainkoaren esanak
Eta santubenak
Ditugu zerurako
Bide zuzenenak,
Birtutsuak izan gaitezen
Erakusterik onenak.

XV Oiei jarrai deiegun
Bagera gizonak
Bila deitzagun beti
Egiazko onak
Gure animai eta gorputzei
Gure Jainkoak emonak.

1876 SARA

266

Gratien ADEMA "Piarres Uxaleguy"

BIBA REPUBLIKA!

Dugun errepika:
Bib´Errepublika!
Dugun errepika:
Bib´Errepublika!

I Errepublika zer den ez dakienari, (bis)
Huna hots nik egia: denek nausi nahi.
Dugun errepika...

II Errepublikak liro xoraraz mundua, (bis)
Damurik fama hitza du lehen bildua.
Dugun errepika...

III Lehengo denboretan Errege batto zen: (bis)
Orai denak errege hori da hori zuzen.
Dugun errepika...

IV Ni ere errege naiz, baina ez aisian! (bis)
Bertzeak gainian eta ni bethi azpian.
Dugun errepika...

V Errepublika hortan ez zaiku itsusi (bis)
Parisko xanfarinak baititugu nausi.
Dugun errepika...

VI Bazterretan gizonik ez omen zen lehen, (bis)
Eta gizona orai beha zein merke den!
Dugun errepika...

VII Podore´ta karguak, lehen oi zer gauzak! (bis)
Orai indarrak ditik ziri baten bozak!
Dugun errepika...

VIII Lehen aitoren seme eta orai burjes!(bis)
Bainan jende xehea bethi berdin nekhez.
Dugun errepika...

IX Kargu handi horiek hauxe ditek ona!(bis)
Berehala joritzen uharririk zagona.
Dugun errepika...

X Askoren alde orai huna arrozoina (bis)
Ebasle indartsua ez dela ohoina!
Dugun errepika...

XI Asko gauza zen lehen zilhegi ez zenik.(bis)
Orai zer nahi libre, bertzek baina ez nik.
Dugun errepika...

XII Lehengo sinhesteak utzi baititugu,
Nihundik orai nori fida ez dakigu.
Dugun errepika...

XIII Lehen zerga eta orai kontribuzione, (bis)
Noiz larrutuko nauten beha nago erne.
Dugun errepika...

XIV Lehen ginenak gure odolaren jabe, (bis)
Orai oro soldadu, gerlarako gare.
Dugun errepeka...

XV Gu baino goragotik lehen manatuak,(bis)
Geroni gare orai legegiletuak.
Dugun errepeka...

XVI Lehen ez zen bezala da mundua orai:(bis)
Tikia handiari manatzeko da gai.
Dugun errepeka...

XVII Sehiak nausiari: Orai guardi´emak, (bis)
Errepublikak gaitik berdin egin denak.
Dugun errepeka...

XVIII Nausiak erreputa: Errepublikak to, (bis)
Hi segurik hagoka bethi berdin asto.
Dugun errepeka...

XIX Asto hau, halere, zagozte, ia beha, (bis)
Egun batez daiteke Frantsesen jabea.
Dugun errepeka, Bib´Errepublika. (bis)

267

Martin ARRUPE

XORIZAINA

Airea: *Xoriñoa kaiolan ...*

I Gure xoria guan da kanporat, kaiolatik,
Lagunen xistuak ditu aditu oihanetik,
Nik ez dakit,
Zer zaioen egin burutik.

II Ene falta handia, xoriaren guatea,
Askotan uzten bainion idekirik athea,
Zer kaltea,
Fidatuegi izaitea.

III Galtzea etzen aski, ez dakigu berririk,
Guti da guk kurrutu ez dugun oihan, sasirik,
Probetxurik,
Ez dugu oraino segurik.

IV Ez aithorturen, bainan zaio urrikituren,
Orhoitzen da bai xoria, hobeki zela lehen,
Ez ginduen
Uste lan hau eginen zuen.

V Parte eman nahi dut xori zaintzaleen,
Ez daitezela sekulan izan fidatuegi,
Xorieri.
Malhura gerthatu zait niri.

VI Malhura, eta ezin ahantzizko malhura,
Lagun txarrekin bat egin dela baidut beldurra,
Bai segurra,
Aski da denbora laburra.

VII Nik uste bere baithan dioela jadanik,
Bihotza urrikiturik, hau lana egintzat nik,
Ez da onik,
Igurikitako ni ganik.

VIII Menturaz lagun txarrek kolpe eman diote
Urriki izanik ere itzulika ahalke,
Hobe luke
Berriz eskapa ez litake.

IX Nahia badut bainan esperantza xikia,
Behin eskapatuz geroz kaiolatik xoria,
Bai egia,
Hau da, hau, ene flakezia.

X Non fida eta han gal, bai maiz egia dela,
Okasionian dena emerik dagoela,
Ni bezala,
Flako izan ez dadiela.

XI Sobera fida baino hobe da beldurregi,
Berriz ez nuke utziren athea xoriari,
Zabalegi,
Pentsamendu hau berantegi.

XII Nere pena doblatzen, jendeak erasian,
Gure xoria othe da gorde dena sasian,
Flakezian,
Gezurra diote agian.

268

Pierre ETCHEGOYEN "saratarra"

AMERIKETARIK

I Ameriketarik ikasi ditut berriak
Adiskide fidel batez igorriak,
Lehen aberatsak zirenak orai pobriak,
Erdiak eta gehiagoko nonbriak.

II Zonbeit eskualdun sartu da Bordeleko hirian,
Handik partitzeko itsasoko bapurrian,
Gibelat turnatzeko xedez denbora laburrian,
Bainan heietaz berantetsiak gare aspaldian.

III Uso tropa baten pare gan dire jendiak,
Han atzemaiteko esperantzan Indiak,
Bainan pasatuak dire halako mendiak,
Utz diezadatzue, adiskidiak, hango bidiak.

IV Muntavideon arribatu eta Bonasarieserat
Beren ustez bizitzeko leku segurorat,
Bainan ez dire ausartatzen han sartzerat
Egun bakia balinbada bihar duatzi gerlarat.

V Jendia triste da Montavideo Bonasariesetan
Neboziantek ez dute segitzen bere gonbertzetan,
Aberastua ez dena orai arteko denboretan,
Errentarik ez du izanen oraike egunetan.

VI Pasajera horien piztiak badu ondorio
Mundu guzia han da elgarren kontrario,
Angels eta portues italianua nausi dago,
Frantses eta espainol indio gehiago.

VII Zenbat eskualdun gauden badaki jaunak
Itsasoetan beterikan barkuak,
Non ote dire gure adiskide fidantziak, uak,
Erdiak eta gehiago elgar abandonatuak.

VIII Indiano batek duenian herrian arribatzen
Mundu guzia hari zaio notizien galdetzen,

Adiskideak ere berri duzu ekartzen,
Nere eskal herritik orai naiz partitzen.

IX Zenbat ez dire bura arindurik ganak,
Beren familietan utzirikan penak,
Hunarat ezin etorri han dituzte lanak,
Erdiak eta gehiago deuskeriak janak.

X Nere erraitian gan da hogoi berrogoi mila
Gure haurride eta ahide hurbila,
Zonbat ez dago ahantzirik adiskide fidela,
Errentier eginik guti heldu zauk gibela.

XI Bazter zabalak dire Kalifornia eta Alana
Zonbeit arima bada hemendik harat gana,
Sasiuak dire han desuertetan barna,
Egin nahirik han nonbeitik fortuna.

XII Hainitzak gan dire soldadu kortiaren iesi,
Beren buruak nahirik libro ikusi,
Bainan bizitzen ere han dute ikasi.
Liberte dabilanak ez du errentarik merezi.

XIII Non zirezte, non, gizon gaztiak,
Tirakatzeko, tira soldadu kortiak,
Zueren galdia egiten du gure printzeak,
Errenta batekin emateko gurutzia.

XIV Gizonak behar dire beti harmadetan,
Gerla eta bake denboretan,
Neori ere parti nindake semendeferretan
Pasa bainindake Pariseko portaletan.

XV Huna hamalau pertsu hau da hamabortzgarrena
Ene adiskideri emaiten diotet etsenplu ona,
Bere baitan sar dadien inozenta dena,
Probetsurik gabe bait'ondoko urrikitan dena.

269

Martin ETCHETO

LABORANTZA

I Eman nahi nituzke zenbeit pertsu berri,
Deusik memoriorat ahal badut ekarri,
Toki hautan bagare hainitz laborari,
Lorietan bizi gare lagunduz elkarrri.

II Ene ofizioa bethi laborantza,
Lurretik egiten dut bihien arrantza.
Hekien ondotik gero hazienda bazka,
Hemendik aintzina ere badut esperantza.

III Penatua gatik aurthen agortiak,
Ez gaitela ikara gu lagun maitiak,
Batek ez badu ere izanen du bertziak,
Uste dut granierak badiren bethiak.

IV Arthuak eta ogiak gure hazkurriak,
Jaunaren borondatez lurrak ekarriak,
Hekien biltzailiak gu laborariak,
Neguko seguratzan udan ethorriak.

V Horiek printzipalak bertzia frankorekin,
Baratzekari ederrak beren arbolekin,
Sagardi eta mahasti mustra ederrekin,
Sarri janen ditugu denek elkarrekin.

VI Sorho horiek ere nahi ditut aiphatu,
Azinda parte handik behar da bazkatu,
Heiekin behar tugu lanak trabailatu.
Oraino bertze hainitz gisa hetaz baliatu.

VII Oraino badugu hainitz oihan eta larre,
Funtera horietarik guri beira daude,
Iduritzen zaizkigu itzal baten pare,
Pena da bizitzia halakorik gabe.

VIII Huna zortzi pertsu aurthengo berriak,
Nahi nuke ni bezala kontent balire guziak,
Arthuena esperantza bildu tut ogiak,
laz baino gehiago erregu dobliak.

270

DOMINIKI GOYHETCHE

DEKLARATZERA NOHA

Airea: Hiru seme ditut hiruak harmetan, nahi bada bertze batian.

I Deklaratzera noha guziei klaroki,
Bat ez dudala behar bakharrak berexi,
Nihor penaturik ez dut nahi utzi,
Guziekin aixkide ahal badut bizi.

II Huna non ditugun kantore berriak,
Aboztuko hilian Saran ezarriak,
Gezurrik erran gabe ahalaz egiak,
Laster izanen dire frogan ezarriak.

III Munduan asko eman da artifiziuari,
Guziek ungi eta aise bizi nahi,
Kontrario ez diot egiten nihori,
Hola gustatzen zaio hartzekua denari.

IV Zenbeit aberasten da suertiak emanik,
Ez baita guzientzat holako atseginik,
Elkhar ezin tronpatuz badugu aski lanik,
Gizonak tontua baino hobiago erne izanik.

V Gutu nekhatu eta hainitz irabazi,
Gisa hortakua dena ez da gaizki bizi,
Hala ere zenbeitek dute lanik aski,
Bethi arrenkuran dire mundu huntan bizi.

VI Hainitz nekhatu eta guti irabazi,
Lekhu hautan gehienak hola gare bizi,
Bakharrak guaiten dire hemendik ihesi,
Indietan baitute burjes nahi bizi.

VII Guaiten delarik franko guti da ethortzen,
Lekhu hetan hainitzi zaiote laketzen,
Bertze batzuek zuten bertzela pentsatzen,
Uste aberasteko harat guaitia aski zen.

VIII Hetarik franko dago guaitian bezain haste,
Hemendik abiatzian etzuten hala uste,
Oraino zerbeit egin esperantza dute,
Urre meharik nihon kausitzen badute.

IX Zeruko Jainkuak mana lege zaharrian,
Emaiten omen zuen lurraren gainian,
Guziek jan zezaten behar zutenian,
Halako fagorerik ez da gure aldian.

X Zenbait bizi dire penarekin triste,
Ontasun zale horiek lana franko dute,
Hainitz maitatu onduan uzten baituzte,
Bihotzeko mina hark emaiten diote.

XI Borondate onarekin gaiten alegera,
Munduan bizitzeko hori da manera,
Buruan hartu gabe trabailu sobera,
Gizonak hobe baitu ungi pentsatzera.

XII Azkenian darotzuet guziei goraintzi,
Batek bertzia lagunduz behar dugu bizi,
Aita zerukoak ere hola du erakutsi,
Elkhar sokhorritzeko orai eta bethi.

271

Jose Maria IPARRAGIRRE

NERE ERRIKO GAZTEAI

I Villarreal de Urretxu,
Nere erri maitea,
Seme bat emen dezu
Amorez betea.
Nai baina, nola ikusi?
Au da lan tristeia!
Zuretzat nai det bizi,
Urretxu nere.

II Bi mila eta seiregun,
Legua badira,
Montebideotikan
Euskal errira.
Naiz ezperantzetan
Etorri bagera,
Aurrerasun gabe
Urtiak juan dira.

III Bai nere adiskideak,
Bear da pentsatu,
Guretzat Amerikak
Nola dian mudadu.
Inork emen ezin du
Lanikan bilatu.
Orain datorrenari
Bear zaio damutu.

IV Gainera izan degu
Emen ere gerra,
Gure zorionean
Bakea egin da.
Baina gerrak ondoren
Dakar diktadura,
Don Lorenzo Latorre
Nagusi degula.

V Ez bada, ez etorri,
Gaur lur onetara,
II edo bizi obe da
Juatea Habanara.
Au da gure bandera
Espainaren honra,
Txurrukaren semeak
Ara juango gera.

VI Agur, adiskideak,
Ikusi artean,
Zuenganatuko naiz
Egunen batean.
Esperantzatan bizi
Nai det bitartean.
Gero ezurrak utzi
Nere lur maitean.

272

JAUREGUIBERRI

LAUDORIOAK JAUN DABBADIRI

I Jaun Dabbadi hemen orai
Behar dut nik aiphatu,
Jaun hori eskualdunentzat
Jeneros da agertu.
Horren prima onetarik,
Bat behar dut laudatu,
Zeren hortaz herri hautan
Du morala altxatu.

II Prima hori deithua da
Kantuetako prima,
Horien animatzeko
Hartu behar da luma.

Hitz onen hatzematoko
Behar da buru ona,
Zeruetarik heldu da
Mintzatzeko dohaina.

III Ez naiz fraide ez apheza,
Ni naiz gizon ximple bat,
Ongirako lehia dut,
Ahal dudan bezeinbat.
Irabaztea maite dut
Haurren behatzekotzat,
Zuzenbidean eginez
Ni naute modelatztat.

IV Prima horren gutziak,
 Ez du debox egiten,
 Ez et'ere sakolako
 Jaidurarik ematen.
 Hori erran gabe ere,
 Aise duzu ikhusten,
 Zeren kanten phartzeko,
 Zuhurtzia behar den.

V Bertze primez mintzateko,
 Ez dirot hetaz erran,
 Bakhotxak bere gostuko,
 Ogitik behar du jan,
 Gauza ageri da zer den,
 Ber efetuetan,
 Begiak argi duenak,
 Ikhus beza obretan.

VI Edaririk hoberena,
 Pozoin bilhakatzen da,
 Hortaz sobranioetan,
 Pasatzen balinbada.

Lohi hautan jokotako
 Jaidura hartua da,
 Zonbait premu jokhalari
 Pobre bilhkatu da.

VII Jaun primen emaile hori,
 Nik ontsa dut ikhusten,
 Adituz horren ongia,
 Zenbat laudagarri zen.
 Gizon aphal bat naizela,
 Ni ez naiko hurbiltzen,
 Bizkitartean jaun hori,
 Gogoan dut ekhartzen.

VIII Jaun onak, atxik dezola
 Pobren amodioa,
 Hekien othoitzek dute
 Zerratzen ifernua.
 Zinki desiratzen diot
 Nik bizitze luzea,
 Ber bizi hunen ondotik
 Zeruaz gozatzea.

273

LAMOTHE

SOLDADOAREN ETA DESOBEDIENTAREN ARTEKO DIALOGA EDO ARRAZAINAMENDUA

Soldadoa

I Nere lagun Guanes gazte
 Zorthean eroria,
 Kuraiak falta eginik,
 Utzi duzu Frantzia.
 Zure zortheko hotsetan
 Bada diferentzia,
 Nik gure herrikotzat dut
 Hirrixkatzen bizia.

Desobedienta.

II Zortheko lagun Piarres,
 Zu ... zaitezke,
 Zure eskola dutenek,
 Guan ere behar dute.
 ... ez lakitenek
 Hainitz pairatzen dute,
 Eskualdun gazteetarik
 Guti ... dute.

III Frantses, ez duzu ikhasi,
 Zure falta da hori,
 Errientak herrietan
 Frantzesez dira hari,
 Ikhastekotz behar zinen,
 Eskolan ongi hari,
 Bai et'ere zenbeit urthez,
 Garbiago ibili.

IV Gure herrian eskuaraz,
 Erraiten da dotrina,
 Bertze guzien gainetik,
 Ikhasi behar dena,
 Frantsesaren ikhasteko,
 Ez da ez, alde dena.
 Bizkitartean hala da,
 Burhasoen ordena.

V Gure erreljioea,
Behar dugu atxiki,
Hori gabe mundu huntan
Ez daite ongi bizi.
Bainan soldadorik gabe,
(Hau behar da sinhetsi)
Herrietan ez laiteke
Bakerik ardietsi.

VI Nere aita eta ama
Ez ziren ahaletan,
Ni eskolan ibiltzeko,
Soberaxe zuten lan
Eskolaren pagatzeko.
Diru guti sakelan,
Hekien pobreziak nau
Ni herritik ereman.

VII Lagun gaixo beldurtia,
Sar zaite zure baitan,
Arropa beltzak utz zaitzan,
Gorriak hartzekotan.
Jaunak hemen deitzen zaitu,
Zure zorionetan,
Zato, ba... sekizu,
Bai, zato, zur'onetan.

VIII Nahi dut tropetan baden
Zonbeit agradamendu,
Soldadoak hori gabe
Hor doluz hil behar du.
Lenguaia ez dakienak
Laidoa pairatzen du.
Hori bera dela kausa
Ihesi egiten du.

IX Soldadugoan ikhasten da,
Gauza balios denik.
Huntan aditzen ohi da,
Soinu miragarririk,
Eskualduna lakhetzen da
Lagunak maithaturik,
Sortetxerat libratzen da,
Ber denborak eginik.

X Zure solas onek naite
Bihotza erdiratzen,
Horiek aditziarekin,
Hasi naiz ganbiatzen.
Denbora iragana dut,
Nik erreparaturen,
Gorphutzez ezin badirot
Diru onez bederen.

274

Juan URDANPILOT

SUBERNOAN 1876KO EKAINEAN BAPATEAN KANTATU BERTSOAK

I Mila zortzi ehun hirur hogoi eta hamaseian,
Kantu horien emaiten orai naiz abian,
Axenko jaun batentzat Subernoako herrian,
Hogoi eta zortzi pertsu eskuara garbian.

II Abisu ethorri zait lehenkuan niri,
Kantu horien emaiten behar dudala ari,
Dama gazte hori nula duen ezari,
Orai bera andriareki hor dabilalari.

III Holakorik gerthatu ez heben orai artian,
Zer nahi adituko dugu aurthenko urthian,
Abitate bat bazaukan gordian,
Etxian deus ezin zuen bitartian.

IV Zaharrari deus ezin egin gaztiari pekatu,
Gauza klaruan dago nahi duenak behatu,
Azkenian ederki daukan operatu,
Aita aberatsa du, ez beraz kexatu.

V Jaun hori disimulan gan den egunian,
Kondari egontu da ene aldian,
Haize batzuek zituela dama horrek barnian,
Eta ordukoz haurra sortu orenian.

VI Orain jotzen diozkete jaun horri tobelak,
Nihauri erran nau han zen batek berak,
Eztia hoiiek gizon gida honen manerak,
Bertzaldian utzi kanpoko aferak.

VII Horren andrea ere dago elhasian,
Trunpatua dela ongi oraiiko aldian,
Garainu hona zuen hori establian,
Gaztiaren gana noiz ganen zen zaharra guardian.

VIII Ai, zer polita auzuan duguna,
Etxeko jaun handia bufun fanfarrona,
Sortzez Subernoara denen ezaguna,
Hantxe duk aziua egin deraguna.

IX Familietako hoeik, ah! zer desgustuak,
Arimak eta khorphutzak guziak belstuak,
Jenten arteko ere arras afrustuak,
Deus agertu ezpazen horiek prestuak.

X Etxenko andrea askotan sukalde zaharrian,
Muthila ardieki juana larrian,
Gutxieneko afera ilhun nabarrian,
Jaun hori dama hareki goiko belharrian.

XI Jostetan ari ziren horik bapo,
Segretia usten zuten etzela atherako,
Ah! zer bidegabia arimarentako,
Gisa hortan gobernatzuz ezta zerurako.

XII Irri egin nahia da bertzeren gainian,
Eta bera holakua duen adinian,
Aperentziaz oraino dago sasuinian,
Bertzenaz etzen sortuko semia junian.

XIII Horren andrea asko dago phenetan,
Zeren hasi zaion kanpoko lanetan,
Zerbitzaturen zaitu zu ere artetan,
Fanfarrun jarria abantzu hirur hogoi urthetan.

XIV Dama horrek eztu izatu batere lanikan,
Horrenganat igortzeko mandatarikan,
Nihuntik ezin hartu bigarren andrerikan,
Lehenekua etxian dauka orainikan.

XV Ardi bordalat azkenian egin dute bisita
Dagotzanak badire horiek ikhusi eta,
Soropila sapatu jostetan hasi eta
Horien istoriak dauzkat ikhasi eta.

XVI Gero borda aitzineko harri losian
Deskantsuan jarriak biak solasian,
Oraintik ere behatzen zuen bere gosian,
Horien segretua eztago alhasian.

XVII Handitu arte etxian dauka etxekia,
Hori ere ezta bada afera bitxia,
Satan hola kontent zen koleran luxia,
Etxian beharrentako esnia kanpuan jeitxia.

XVIII Jaun andre horier beha gare egontuak,
Buruak dantzan eta ebilki zankhuak,
Eztut erranen garbiki diren nunkuak,
Bainan horrenbertzereki badaki munduak.

XIX Merexi duen gisa dugu tratatuko,
Hori gauza tzarra dela ez tut ukhatuko,
Honik egin duela ez tut kondatuko,
Nere ustian hanitxek ez dute laudatuko.

XX Hementik gana beden balitz Indietan
Egon gabetarikan gure begietan,
Ezta asko fida orai karrika horietan,
Txanpain tartia goiti dabila khaietan.

XXI Jaun horren ohoria dabila klaruan,
Nik erraiten dudana atxiki goguan,
Ongi aiphatu da oraiiko tornuan,
Ai, zer irri egingarria hori Subernoan.

XXII Ezkondu nahi denik nehor othe da,
Dama horrentzat gizonketan jaun hori bera,
Muthil bati athera zaijo lehenkuan bidera,
Emanen diozkatela bortz mila libera.

XXIII Bortz mila libera eta andria orainikan,
Lehenagotik lanak berak eginikan,
Ezkontzeko ez ahal duzue muthilak minikan,
Horra horrenbertze intres hartu dohainikan.

XXIV Hor badugu zenbait eregu arthoren saria,
Eta gainera orano Frantziska Maria,
Bena gero ongi beharko guardia,
Satanek egin eztezan zerbait pikardia.

XXV Esplikatu nahi dut jaun horren berriak,
Trakazatzia bethi hon du memoriak,
Horren egitia badu orai mundura ithurriak,
Mirakuilu egin du Birjina Mariak.

XXVI Aisa hatzeman du lehenbiziko lorean,
Harengatik atxikitzen zuen bere aldian,
Berantu arte uztia etzen fida kanpo zabalian,
Anjelusetan etxerat Kristoren legian.

XXVII Hanitxek erranen zuten zela prudentzia,
Gauzak ere badauka bai aperentzia,
Gero hareki ohian igaran dena erantsia,
Hargatik ikhusi da daguen galantzia.

XXVIII Hogoi eta zortzi eman eta behar dut gelditu,
Santandereat khuxian nahi nuke phartitu,
Ni nor nizan jaun hori behar dut abertitu,
Juan Urdanpilotekek kantu horiek eman ditu.

1877 DONAPALEU

275

Martin ARRUPE

XORI KAIOLATIK IHES GOAN DENA

Airea: Soldadoaren paga bi sos eguneko.

I Kaiolan nintzanean maiz nindagon triste,
Kanpoko lagunetan bainuen sinheste,
Librotasuna ona zela nuen uste,
Orai arte.
Amets, amets zoroa! hik egin nauk kalte.

II Banuen zertarik jan, bai-eta zer edan,
Deusen eskasik etzen enetzat kaiolan,
Bainan guzien gatik nintzen errenkuran,
Banuen lan,
Aski zabalik ezin arterik atzeman.

III Ene arthatzailea fidaturik nitan,
Athea idekirik behin utzi zautan,
Nahi nuena egin orduan ni hautan,
Lorietan,
Lagunetara laster goan nintzen airetan.

IV Lehen ni usatua lo trankil egiten,
Orai huna berri bat zer dudan aditzen,
Gau-ihizi batzuek direla ibiltzen,
Xori biltzen,
Aztaparren artean dituztela hiltzen.

V Gabaz beldur bizian, egunaz ikharan,
Non-nahi hirriskatzen sartzea segadan,
Holakorik etzaitan burura, kaiolan
Nintzanean,
Zoin gaizkiago naizen hobeki ustean!

VI Hegalttoak oraino ditut laburregi,
Nik nola ihes egin belatx gaixtoeri?
Bertzeak bezin airos ez naiteke segi,
Laguneri,
Zer lana eman dudan ene buruari.

VII Ene hegalak aski luzatu orduko,
Uda akhabaturik negua hasiko,
Berriz uda-lehenik ez da ethorriko
Enetako.
Izotz, elhur, hormetan, nola naiz biziko?

VIII Gaztea nahi bada egon segurean,
Ez dadiela eror nik egin hutsean,
Bainan asmu hoberik harturik buruan,
Deskantsuan,
Egon bedi kaiola ongi zerratuan.

276

Jose Ignazio ARANA

1212. GURUTZEAREN GARAITZAPENA EUSKUALDUNAKIN NAVASEN

I Atozte, korri kantatutzera,
Euskaldun anai maitiak,
Gurutze galai Jainkozkoaren
Mirari guziz andiak,
Gurutze baten gugatik ilik
Jaungoikuaren Semiak,
Desegin ditu beti-betiko
Etsaien asmo guziak,
Distiatzen du mundu osoan
Gurutzearen argiak.

II Orixen dago zein edergarri
Gure mendien gainetan!
Ori Erregeen buruetan da
Agintarien armetan!
Ori da agero gailorturikan

Gure Eliza danetan.
Lezo-santura begiak altxa:
Euskaldun erri onetan
Gurutzearen mila mesede
Arkitzen dira loretan.

III Lauburu onek mila ta berreun
Amabigarren urtean
Euskaldunakin garaitu zuen
Mairu-gogorren artean:
Santxo ta Alfonso buru zituzten,
Ta Aro Jaunaren mendean,
Arri-ta makil bazijoazen
Basamortuen tartean,
Ilera askotan isil-isilik
Mendi-gain artu artean.

IV Igo ziraden artzai batekin
Muradaleko portura,
Ekusteko zan Afrikatarren
Beldur larri ta estura.
Bela dijoaz, Ubeda utzirik,
Errege duten lekura,
Baina Kristabak gurutzeakin
Ta Ama Birjinaen itxura,
Sartzen zaizkate il-edo-bizi
Beren gain eta burura.

V Aurrera! dio Alonso erregek,
Ta oiduka danak, aurrera!
Aro ta Lete, Nuño ta Lopez
Saltoka ezpaten artera,
Milaka euskaldun, otsoak nola

Ardiak triskilatzeraz.
An ere datoz napar ta Aragoi
Kateak purrukatzeraz,
Lotsa-gorrian errege beltza
Sevillaratu da atzera.

VI Ilerri bat da ilkintzekin
Navas deritzan tokiya,
Berreun mila Berberiskoak
An utzi zuten biziya,
Gizon-odolez ujoltzen zala
Guadalaviarko ibaia,
Gloria bada gurutzeari,
Birjin Amari gloriya,
Ta izarrez gora jaso dezala
Mundubak Euskal-erriya.

1878 SARA

277

Joanes OXALDE

KHILO-EGILEAREN KANTUAK

Airea: Kaiolako xoriak alegera dira

I Amikozeko Gilen khilo-egileak
Etxetik khendu ditu bere langileak,
Sehi maiteak,
Zeren galdu dituen irabazbideak.

II Ez dezake nihon sal khiloa, ardatza,
Nagusitu baitzaio galtzerdi-orratza,
Moko zorrotza.
Ez da izertu nahi oraiko neskatxa.

III Elhe biltzen dabila, galtxoina eskuan,
Laneko gogorikan ez baitu buruan,
Alfer moduan,
Oihal guti emanez khutxaren xokhuan.

IV Gazte irule guti da Eskual-Herrian,
Bat ez dugu ikhusten khiloa gerrian,
Athe hegian,
Oi, zer frendak horiek saltzeko ferian!

V Oraino zenbait bada atso horietan
Iruten hari denik berant arratsetan,
Bihotzminetan,
Hobek ez lagunduz behar-orduetan.

VI Askotan altxatzen da amasoren botza,
Bainan ilobak ez du hartu nahi ontsa,

Lanerat lotsa!
Arrantze gabe nahi bailuke arrosa.

VII Amak goizean oihu: Jaiki hadi, haurra,
Ez deia aski luze hiretako gaua?
Har zan haintzurra,
Itzuli beharra dun baratzeko lurra.

VIII Alabak arrapostu ohetik gostura:
Bego bihar artino haintzurtzeko lurra,
Arte laburra,
Joan behar baitut goizik egun merkhatura.

IX Zuri galdatzen dautzut, izaba Maria,
Lakhet-lekhu othe da gatzentzat hiria?
Hain da egia,
Harat joaiteko badut hainitz gutizia.

X Horra nola dabilizan oraiko neskatxak,
Lur-lanetako dira sobera beratxak.
Oi, alfer hotzak!
Akhabo eginen du laster laborantxak.

XI Neskatxa gazte deno, itxuraz da abil,
Esposatu berrian jaunarentzat umil,
Ondoan zarphil,
Galtzetako zilhoak erdirat ezin bil.

ARTZAINA ETA BERE GASNAK

Den berria, den zaharra,
 Huna kondera bat, ez txarra,
 Ez hala-hulako errana,
 Baina zentzu handia daukana.
 Behialako egunetan
 Aldudeko mendietan,
 Bazen artzain famatu bat,
 Naski ez baita hanbat
 Orai halakorik,
 Ez eta idurikorik,
 Izen zuen Arkulo.
 Gauaz ez egunaz etzuen egiten lo,
 Edo guti bedere,
 Batzuk zioten ere,
 Etzuela lorik
 Begi batez baizik.
 Jausten zen menditik igandetan
 Mezara eta jateko-ketan.
 Behin hala eldu zelarik,
 Bizkarra gasnaz betherik,
 Jausten da patar bat behera,
 Gero igaiten bertzera,
 Gainera heldu deneko,
 Izerdia darioko.
 Behar duela hats-hartu,
 Karga lurrera ematen du,
 Baina ematean lurrera
 Hor doa gasna bat gain-behera.
 Min zitzaion Arkulori
 Han uztea gasna hori.
 Gure artzainak bazuen izpiritu,
 Etzuen bere gasnaz etsitu,
 Zer egin ordean? hau? hori? hura?
 Azkenekotz heldu zaio burura,
 Hainitz asmu duenean erabili,
 Behar duela bidali
 Gasna galduaren bilha
 Bertze bat gogor eta biribila.
 Bat hazta, bertzea hazta,
 Bazuen ezik non hauta,
 Hartzen du bat, segur ez ustela,

Eta mintzatzen zaio hunela:
 "Gasna maitea, habil beheiti,
 Erakartzera laguna goiti,
 Bidean ez ibil jauzika,
 Bainan emeki pirritaka,
 Beldurrez hauts dezakan burua,
 Hartaz nik baituket damua".
 Nola erran hala egin,
 Igortzen du gasna. Gasna badoha arin,
 Bai, artzainak ikusi zuen goaten,
 Ez ordean gibelerat itzultzen.
 Ez biak, ez bat ere.
 Etzuen etsitu halere.
 Traba zerbaitek othe zaduzkan bidean,
 Hirugarren bat igortzen du kuxean.
 Hau ere nonbait gelditu.
 Bidean othe zen eritu,
 Arkulok igortzen du bertze bat,
 Egin zuen hunenbat eta hanbat,
 Non azkenekoz zakua
 Gelditu baitzen hustua,
 Eta gasnak joan pusketan urera
 Hango arrainen hartera.
 Orduan Arkulok buruan min...
 Berantxe! etzen gehiago zer egin.
 Nora dago solas hunen aria?
 Hunek erakusten du jokolaria,
 Zeinak galtzen badu urhe bat jokoan,
 Ez baitu etsitzen berehalakoan.
 Galdu atzeman nahiz
 Arriskura doha berriz,
 Bethi berotuz dihoa,
 Azken sosen adioa,
 Ikusi duken artekan,
 Eta ordu hartan,
 Urrikiak alperretan.
 Zuhurra dostatzen da negurriz,
 Diru guti jokotan igorritz,
 Beldurrez geldi turin
 Arkuloren berdin.

279

Martin ARRUPE

XORI ZAINZAILIA

Airea: Xori papo gorria udan da kantari...

I Akhabo ene egun loriagarriak,
Orai egon beharko ilhunik begiak,
Ihesi egin deraut kaiolatik xoriak,
Zer ondorioa ene flakeziak.

II Xoriaren baithan naiz sobera fidatu,
Aldi batez athea ez nion zerratu,
Bai eta hura laster kanporat atheratu,
Xori zaintzaileak egizue kontu.

III Ene flakhezia dut nerorrek aithortzen,
En faltaz hari naiz nigarretan urtzen.
Etsaiarekin aski ez nintzen gudukatzen,
Zenbat othe gare, gure gatik galtzen.

IV Arratsetik gozerat hau nahi gabea,
Horra zer den etsaia behin nausitzea.
Zoin alde guan othe da gure xori maitea,
Nik zerratu faltan arthoski athea.

V Galtzea ez zen aski, ez jakin berririk,
Guti da nik kurrutu ez dudan lekhurik.
Eta ez dakit nonbait othe dagon gorderik,
Hura galduz geroz ez dut sosegurik.

VI Horra beraz xoria, ene gatik galdu,
Pena handiagorik nehork ez ahal du.
Ez nuen nahi eman ez eta ere saldu,
Gure ihiziak fin gaixto egin du.

VII Menturaz kolpatua, menturaz da hila,
Nik norat goan behar dut xoriaren bila.
Airetan ere ez zen zonbeit bezin abila,
Bizi bada ere, nola othe dabila.

VIII Ene xori maitea, ezin khen burutik,
Ez non den ez nola den batere ez dakit.
Oi zer bozkarioa, heldu balitz nonbaitik,
Ene zorionak ez luke parerik.

IX Nahia badut bainan esperantza guti,
Pena hainitz darraio oren gaixto bati,
Lehen burua gora bezin orai beheiti,
Ahalgetan bizi beharra dut bethi.

X Batetik desohore, bertzetik kaltea,
Zer pena gisa huntan xori bat galtzea,
Hau da hau eskandala eta gaizki dorpea,
Alferrik dut orai nigar egitea.

XI Egia hainitz bada erran zaharretan,
Kargua karga hori entzun dut bortzetan,
Manatzailea baina egilea askotan,
Hainitz urrusago dela mundu huntan.

XII Xori zaintzaile horrek ama bat iduri,
Soberaxe fidatu zen bere haurrari,
Galdu duen ondoan, eman da nigarrari,
Haren urrikia, orai berantegi.

280

M. CHANGO

ALDEA ETA IFRENTZIOA

Aldea

I Nihun ote da lorerik
Ene maitiaren parerik?
Haren begia,
Zein den argia!
Haren biloak
Zirikuzkoak,
Haren maxelak
Xori hegalak,
Haren besoak
Kristailezkoak,
Haren bularrak
Elur molkoak.
Ez da zeruan izarrik
Ene maitiaren parerik.

Ifrentzioa

II Maite baduk bipher beltza,
Har zak laster hire neskatxa.
Haren begiak
Xilo gorriak,
Haren biloak
Astokarloak,
Haren maxelak
Kalotz gantzolak,
Haren besoak
Adar makoak
Haren bularrak
Larru piltxarrak.
Hire maitia, zer gauza!
Iduri dik marmalo beltza!

281

P. DUFOURQ

XINHAURRIA

I Xirritta kausitzen da oihan zabalean
Han goizik ikhusten da on ere onean,
Bethi kantaz hari da uda ederrean,
Hazkurririk gabe da negu dagonean.

II Ethorkizunean ere ez du beldurrikan,
...darama.....gauza...
... hauzuetan
Nor fida dakioko behar orduetan.

III Han kanta, hemen kanta, soinu bera bethi,
Lanean ez da funski behinere hari,
Gisa hortaz emana alferkeriari,
Etxea hutsa duena buruz neguari.

IV Negua jin denean xirritta alferra
Hazkurririk gabe da bai eta barura,
Horrela ezin biziz badoha hauzora,
... daukalakotz betherik graniera.

V Haulo zuhurra ez da agertzen flakoki,
... arima igortzen da minki,
Errnaz ez dudala erabil arinki,
Zoriona daizula gobernatuz ongi.

VI Laguntzarikan gabe hauloak utzia,
Bere ohatzean da laster eraungia,
Bethi maite izan du bai alferkeria,
Horrela da munduan laburtu bizia.

VII Xinhaurria bezala da bera gobernatzen,
Udako egunean lanean da hartzen,
Denbora on guzietz ... biltzen,
... du graniera nasaiki bethetzen.

VIII Langile horren obra da, bai miragarri,
Horren leialtasuna da bai maithagarri,
Horren irakhaspena da liluragarri,
Mirailtzat har daiteke izaite on hori.

282

Agustin ETCHEVERRY

LARRUNGO MENDIA

Airea: Gernikako arbola

I Nahi lukenak egon
Bazterrei begira,
Jan dadila behin
Larrungo mendira.
Ez da nahi baduzu
Gora den kadira
Bainan handik behatuz
Inguru guzira
Ezin sinets ahala
Lekhu ageri da.

II Uda alderat geroz
Larrungo mendiak
Egun guzian ditu
Bisita berriak,
Han deskantsatzen dire
Ikhuksetariak.
Largabixta luzetan
Hedatuz begiak,
Handik ikhusten tuzte
Urrungo herriak.

III Larrundik zoin den eder,
Goiz egun xurian
Eguzki altzatzea
Distira guzian!
Ikhusten dire urak
Zilhar idurian,
Hainbertze herri xuri,
Haranen erdian.
Oii! zer begien besta
Larrungo mendian!

IV Liho pezaren pare,
Guziz da ederra
Larrundik ageri den
Itsaso bazterra.
Hainbertze arrantzale
Untziz dabiltzala.
Hetako marinelek
Larrunen bizkarra
Hain maite dute nola
Norteko izarra.

V Larrungo harroketan
 Ez da agortarik,
 lthurria sortzen da
 Zilho orotarik.
 Gutti daitake ere
 Ur hobeagorik,
 Bada hurrupatzaile
 Belhaunikaturik,
 Edateko baitire
 Bordele utzirik.

VI Berriz ez aipha Larrun
 Bazka harrietan:
 Zonbat Larrungo harri
 Dorre zubietan!
 Ez baita biziotsa
 Nihoizko urtetan.
 Ere, abere batek
 Larrungo bazketan,
 Notha guti dakarke
 Gibel-erraietan.

VII Famatua izan da
 Larrungo kapera,
 Zoinetan apezto bat
 Bizi baitzen bera.
 Saratarrentzat hura
 Zer argi ederra!
 Bozik igaiten ziren
 Zerbeit ikhastera,
 Jatekoz kargaturik
 Larrungo gainera.

VIII Zeru zolaren eta
 Lurraren artean,
 Zer bakezko lekhua
 Larrungo gainean!
 Zer gerlako lekhua
 Denbora berean!
 Zonbeit gerlari handik
 Mende hau hastean
 Larrun ereman zuten
 Beren bihotzean.

IX Lehen Larrun bere
 Lau herri maiteak,
 Urtetik bazoazkon
 Sinestez betheak.
 Han ziren, han ikhusten
 Fedezko jendeak,
 Kaperarat bilduak,
 Lauen gurutzeak,
 Handik ziren egiten
 Zerurat galdeak.

X Larrunen lau herriak
 Mugen arabera
 Dire: Urruña, Sara,
 Azkain eta Bera.
 Sararen egiazko
 Geriza da bera;
 Biltzen zauzkon galernak
 Gaineko parera
 Larrunek bolhatzen tu
 Saraz bertzaldera.

283

Agustin ETCHEVERRY

HARTZA ETA KAKAMARLOA

I Kakamarloa behin
 Zerbeit ikhusririk,
 Bide hegi batean
 Zagon trikaturik.
 Gostura apurto bat
 Hantxet zagolarik
 Hartz handi bat zitzaion
 Iragan aldetik,
 Aztaparra ziola
 Emaiten gainetik.

II Kakamarloak minez,
 "Atx, ai! ai! non naiz ni!
 Zer! alimale-pean
 Behar dugu bizi!"
 -Hou! ixiltxago gero

Gure legeari!
 Edo bertzenaz gerla
 Uli guzieri.
 -Bai? egina duk beraz:
 Gazen zoin nagusi.

III Alimale lehenak
 Egin den pathuan
 Elgarrekin derautzo:
 Nola has guduak?
 Axeria artetik
 Mintzo da orduan:
 -Jaun hartza, zu emanez
 Sailaren buruan
 Aise sar ginezake
 Etsaia zakuan.

IV Ordukotz bi pardidak
Hurbil elgar ganik
Bozik lotzen da hartza,
Saila gibeletik.
Bainan hartuak dire
Inguru guzitik,
Marrumaz daude lizkor
Lezpaden azpitik:
Alimalen etsai da
Ulia geroztik.

V Zangoko min txar batez
Azeria bera,
Beharrik gerhatzen zen
Gudutik gibela;
Ikhusiz bere lagun
Gaizoen min-bera.
Oihuz hasten zaiola:
-Urera! urera!
Hartzik etzen itzuli
Uretik gerlara.

VI Etzen burutik maingu
Gure axeria,
Harek asmatu zuen
Zertxu zen ulia.
Buru igorri zuen
Gaizo hartz handia,
Berak idukiz beti
Gibel alderdia:
Haretzek egin zion
Gostuko irria.

VII Hartzak egin ziona
Kakamarloari
Zonbatak ez lukete
Orai egin nahi!
Zangopean jendea
Ulitzat ezarri!
Zuzenaren indarra
Behin lothuz ongi
Kontu hartza bezala
Ez ditezen geldi.

284

Piarres IBARRAT

XINAURRIA ETA XORIA

Airea: O! amodio, gazteen xoragarria

I Primadera hastetik uda azkenerat,
Xinaurria bazoan landa bazterrerat,
Xori papo gorria arbola gainerat
Egun oro juaiten zen kantuz aritzerat
Eta xinaurriari trufa egiterat.

II Xinaurria goizian hasia lanari,
Egun guzietako duen gogoari;
Karga ezin altxatuz zen nigarrez ari,
Xoriak itzalpetik kantu eta irri,
Xinaurriak derauko zerbeit erran nahi.

III -Xoria, hitz hau diat hiri erraiteko.
-Nik ere bi beharri hiri aditzeko.
-Kanpuan baduk hainitz ontasun biltzeko,
Emak xoko batean neguan jateko,
Lanean hasten bahiz, ez zauk dolutuko.

IV Xinaurri lepho mehe itsusi kiskila,
Ez nitzauk hire ganat jiten deusen bilha;
Lanian ez duk ari ihizi abila,
Utzak, utzak, hik ere, lan hori, ergela;
Berdin urthe guziez, jiten duk uztaila.

V Negu beltza heldu da abendoarekin,
Horma eta elhurra haize hotzarekin,

Xinaurria orai da gauza frangorekin,
Ongi jan et'edaten bere lagunekin,
Xoria zer egin den nahi luke jakin.

VI Xinaurria goizean badoa kanporat,
Xoria ere berdin usatu-lekhura:
-Kanta zak, kanta orai kantu pollit hura.
-Nundik kanta dezaket oraino barura,
Sarraraz nezak othoi hire etxolara.

VII -Haizen bezalakoa, hoakit bixtatik,
Zer behar othe duk hik ene etxolatik?
-Emak aphur bat bederen hire askaritik.
Othoi begira nezak gosiak hiltzetik,
Gehiago ez diat erranen gaizkirik.

VIII -Auherra hizalakotz ez nau urrikaltzen,
Ikhusak, ikhus, orai zertaratu haizen;
Jinkoak eman onez ez hiz baliatzen,
Jakintzak negukoia udan dela biltzen,
Goratzekotz lehenik ikhasak aphaltzen.

IX Xinaurriak ziona erran xoriari
Erran ahal daiteke mundu guziari:
Alferra dela usu gose'ta egarri.
Lot gaiten beraz denak bihotzez lanari
Lurreko'ta zeruko egitekoari.



Felipe Arrese ta Beitia
(Otxandio, 1841 - 1909)

1879 ELIZONDOGaia: *Euskaldunen gauzik maiteena***285****Felipe ARRESE BEITIA****AMA EUSKERIARI AZKEN AGURRAK**

I Neure biotzeko Amatxo zarra
Antxinako ama Euskera,
Seme leial bat orain datortzu
Azken agurra emotera;
Ainbeste gerra goituz ezinda
Danori atsotu zara,
Zaurien zauriz galdu galduta,
Amatxo, zuaz iltera.

II Zori gaiztoan negargarri ta
Dot sentimentu andia,
Geure lur maite dakustalako
Gaztelatuta jarria;
Bestela erdu, erdu ikustera,
Tubal euskeralaria,
Baina ez dozu ezagutuko
Orain zure jatorria.

III Nun dira bada zure semiak
Foru ta euskera zaliak?
Nun dira bada, Tubal, gure aita
Zure ondorengo garbiak?
Nun dira bada zure ume zintzo
Eta leialen legiak?
Nun dira orain, orain negarrak
Nun dira nire begiak?

IV Agur ilun bat egin deuskue
Guraso zarren legiak.
Umezurtz batzuk gelditu gara
Bilotsik foru bagiak,
Izan bagina eurak legetxe
Euskeriaren zaliak
Oso ta garbi gordeko ziran
Oitura ain miragarriak.

V Errazoiagaz esango dabe
Gure urrengo umiak,
Izan ginala duda bagarik
Ero ta zoro garbiak,
Jakingo dabez euskeriagaz
Genduzan eskubidiak,
Erdera zale ginalako egin
Galdu zirala guztiak.

VI Zorioneko arkaizak eta
Zorioneko mendiak,
Orain artian zuek zare izan
Foruen gordelariak;
Zuek goietan beti euskeldun,
Ez alan beian erriak,
Orra zer gero ekarri deuskun
Azkenian erderiak.

VII Begietan iya ez dot ikusten
Tubalen ume zintzorik,
Ez dalako gaur emen entzuten
Erderaz baino besterik,
Onexek dauka nire biotza
Naibagez erdibiturik,
Ez dodalako gure euskera
Osatuko dan usterik.

VIII Euskeriari gorroto eta
Gozau nai bere foruak,
Dirala uste dot barru barrutik
Auterestia zoruak;
Izan leiteke ori alan baina,
Niri ezetz dinost goguak:
Baldin euskera bizitzen ezpada
Iltzat daukadaz foruak.

IX Geure erruz bada ekarri dogu
Eriotzako unera,
Berebeta eder gozo ta leun au
Beste munduko atera,
Norbait ezpada laster minduten
Osasuna emotera,
Mundutik laster juan bear dau
Ama Euskerak bestera.

X Ainbeste seme emon zituzan
Itsasorako zoliak
Liorrerako ez gitxiago
Gerrari bildugarriak;
Liburuetan ta izkuntzetan
Ugari miragarriak,
Il ziran danak, ta orain il biar
Euskera maitegarriak.

XI Or, Gernikako arbolaren
Oinian dago etzinik,
Estu ta larri iya ilian,
Arnasaz bete ezinik,
Au ikusita, ez ete deutsa
Inok artuko errukirik,
Ez ete datoz bere semiak
Osagarriak arturik?

XII Ai!neure Ama,gaurko semiak
Deritxat dagoz aztuta,
Estura onetan lagundutera
Inor ez da agertuta,
Il zaite bada, bakar ta soilik,
Paradisuko izketa,
Sei mila urtian ainbeste damu
Garratz mingotz iruntsita.

XIII Zer al daiketzut, Ama, bakarrik
Agonia estu orretan?
Zotin, zizpuru, negarrez urtu
Etzinik zure oinetan,
Parka eskatu seme danentzat
Biotzez bene benetan
Zure arimia lagun ipinetan
Jainkoaren eskuetan.

XIV Zuaz mundutik orban bagarik
Zuaz mundutik garbia,
Zuaz mundutik adoraus baga
Ez idi eta ez beia;
Beti gorrotau, beti zapaldu
Zenduan idolatria,
Ta orain zagoz Jaunari emoten
Fedian zintzo bizia.

XV Il da Euskera! il da Euskera!
Betiko itxi dauz begiak!
Negar Arabak! negar Gipuzkoak!
Negar egin bei Bizkaiak!
Negar arkaitzak! negar mendiak!
Agortu arte iturriak,
Ainbeste geixo, ainbeste gatxen
Osasun emongarriak.

XVI Negar Naparrak, geure anaiak,
Ta euskaldun Frantziakuak!
Neugaz batera danok urratu
Sentimentuz soinekuak,
Aztu istoria edo kondairak
Emengo antxinakuak,
Ta euren lekuan asi barriak
Aurrera erderazkuak.

XVII Eta, nun dozuz, zeruko arbola,
Zuk bere jantzi berdiak?
Zure erramok bilos dakustaz
Igar ta ezkur bagiak.
Ai mingarria! Gaztelako arrak
Jan deutsuz sustrai guztiak,
Baita biotza, baita barruak,
Azala itxita bestiak.

XVIII Zagoze oraindik zutik, arkaitzak?
Doilortu baga mendiak?
Samur emoten Somorrostrogaz
Zeuen ondasuntegiak?
Errotak klan klan, taun taunka olak,
Eta pil pil iturriak,
Biziorekrek baita itsasuak
Opaka arraintza ugariak?

XIX Geiegi da ta ausi, arkaitzak,
Onegi ez izan, mendiak,
Lurpetuteko Euskera ila ta
Bere ondasun biziak,
Bera tontorrak, bete arruak,
Erdue Gaztel-lau igarrak
Agortu errekek, lurtu itsasuak,
Agur, euskeldun ibarrak.

XX Geure Erria, gizaldi danak
Zugaz dira gomutauko,
Ez dabelako beste erri bat
Zu duin garbi aurkituko,
Etsai batzuek alper alperrik
Zure izena zikinduko,
Zeure Jaungoiko egi bakarrak
Dau oso garbi gordeko.



286

Ramon ARTOLA

ALTABIZKARKO KANTUA

Nor bere etxean izan bedi nagusi

I Oijuska bat erantzun da Euskaldunen mendiyetan!
 Etxeko-jauna zut-zutik zeguen bere atietan,
 Adu du ta esan du: Zer da gure lur onetan?
 Eta altxarik xakurra, lotan zeguen oinetan,
 Nastu du Altabizkarko inguru dena zaunketan.

II Ibañetako mendizkan arbast-otz bat da sentitzen,
 Arkaitzak ezker-eskuin joaz dator ugaritzen,
 Armada batek dakarren burundara da urbiltzen,
 Gureak mendi puntetan orain ari dira biltzen,
 Eta etxeko-jauna ez da dardaz zorroztez gelditzen.

III Emen dira! emen dira! oh! zer lantzazko sasiya!
 Banderaz ezarriya da lur urrutiko guziya.
 Aien armaren distirak mila ximisten argiya
 Botatzen dute ta bista begira galdu zait iya.
 "Ikusi bitza, ikusi! ikusi bitza, nausiya."

IV –Zenbat dira, aurra; kontaitzik ongi.
 –Dira bat, bi, iru, lau, bost,
 Sei, zazpi, zortzi, bederatzi,
 Amar, amaika, amabi,
 Amairu, amalau, amabost, amasei,
 Amazazpi, emezortzi,
 Emeretzi, ogei.

V Ogei ta milak ta milak dira bidean onera,
 Denbora galduko degu kontatzen jartzen bagera.
 Batu ditzagun indarrak, arkaitz aundiyak atera,
 Eta sartzen diranean gure mendiyen oinera,
 Amil zaizkagun lertzeko beren buruben gainera.

VI Iparreko gizon oiek, zertan ziran gerran asi?
 Zertan zuten Espainiya pakean zegueta nasi?
 Arkaitzak amildu dira, ezurak zaizkate autsi,
 Aragiak daude dardar puskatuak, zapaltuak,
 Orrelako sarraskirik ez du ikusi munduak.

VII Korri, korri, oinezko ta Karlomanoren zaldunak,
 Euk ere bai dantzatubaz kapa gorriya ta lumak.
 Iloba Roldan ila dek, orra zangar aren famak.
 Orain, Eskaldunak, hea! laja-ta arkaitzen lanak,
 Dardaz akaba ditzagun igesi dijoazenak.

VIII Badijoaz! badijoaz, ilak utzi-ta biziyak.
 Orra aien edertasuna eta beren pantesiyak.
 Non dira lengo banderak eta lantzazko sasiyak?
 Armetan ez da ximistik, odolez dira bustiyak.
 Badijoaz! badijoaz! iya, joan dira guztiak.

IX –Zenbat dira, aurra? kontaitzik ongi.
 –Dira ogei, emeretzi,
 Emezortzi, amazazpi,
 Amasei, amabost,
 Amalau, amairu,
 Amabi, amaika,
 Amar, bederatzi,
 Zortzi, zazpi, sei, bost,
 Lau, iru, bi, bat.

X Bat ere ez da ageri, bakarrik gelditu gera.
 Etxeko-jauna joan leike xakurrarekin etxera,
 Emaztea eta aurrak zorionez laztantzera,
 Dardak garbitu-ta adar zorroetan altxatzera,
 Eta beren gainean lo eginaz deskantsatzera.

OBIZDEA

XI Gabaz arrano sailak dirade bilduko
 Eta gorputzak jaten dira ibilduko;
 Mami puskek bistatik dirade galduko,
 Bainan ezurak beti dira azalduko.



ADIOS AMERIKARI

Airea: *Hau omorearen gozoa*

- I Adios Amerikari,
Eta agur Eropari!
Zenbatak othe gaur lur huntan ezin eta egin nahi?
Etzaiku goaten eta ez goanen bizian lehia hori.
- II Aski othe da dirua
Satifatzeko gogua?
Bihotzetik ez da aldaratzen herriko amodioa,
Lantza bat bezala han sartua dago azken adioa.
- III Zoin gutiak garen segur
Adio bezala agur.
Sekulan eginen othe dugun! esperantza, bainan beldur
Bortxaz egin beharko dugula atsegin hortarik barur.
- IV Bortxazko penitentzia!...
Ez duke hanbat grazia.
Mundu huntakotz bederen balu nahi ginduken saria,
Bethikotz Amerikak utzirik, laster gintezke abia.
- V Behin ethorritz geroztik,
Ezin goan eskuak hutsik!
Lana denean badugu hemen irabazi onik;
Bainan halere zer probetxu da, erdiek ez dugu sosik.
- VI Gure penen ahanzgarri
Galdez gaude edanari.
Hau ez da hobe! erdietan ez gare lanean hari;
Horra Ameriketari zer zaikun gertatzen gehieneri.
- VII Amerikak! Amerikak!
Ez dire usu karrikak,
Ez eta urhe eta zilharrez palaz bethetzen barrikak.
Non-nahi lanaz, zuhurki biziz, aldara daizte arditak.
- VIII Egia da bai, izitzen,
Bainan ez dugu etsitzen.
Lagun tzar guziak utzirik hasten gare ganbiatzen.
Zer hitzemanik ethorri ginen, berant bederen orhoitzen.
- IX Gonberti gaiten, gonberti,
Hula bizi gabe bethi!
Xedeak onak ditugu, bainan obrak arras guti.
Hemendik harat gure faltaz ez dezagun begirik busti.
- X Burraso eta haurride
Zenbaitenak bizi dire,
Ahaide, hauzo, adiskideak, animo oraino ere!
Menturaz laster, menturaz gero, zerbait eginik hor gare.

288

Jose Maria IPARRAGIRRE

NAFARROAKO ALKARKIDARI

I Zorioneko batasunean
Nafarrak gure anaiak
Bizi dirade lege onean
Gaur gizon guziz emaiak,
Gure gatik on, esango badu
Etokizunak, kondairak,
Laurak bat beti!... maite alkartu
Izan Euskaldun leialak.

II Alkar gaitezen txiki ta aundi,
Aberats eta pobreak,
Maita zaitetze! ... esaten digu
Jaungoikoaren legeak
Auziak utzi alde batera,

Batu Euskaldun guziak,
Besoak zabal esaten digu
Gaur Iruñea uriak.

III Erruki zaite, o jaun maitia,
Lagunzu Euskalerra,
Bada guztiok alkartu gera
Orain beltz eta zuria,
Anai arteko guda beti da
Gutzizko izugarria...!
Arren anaiak!... errespetatu
Gizon guztien bizia.

Valle de Sta Lucía, 28 de enero de 1878.

289

AN.

JAUNGOIKOA BERA BAKARRIK DA ANDI

I Arbol azpiyan zear etzana
Gau izarrata batian,
Buru nastuba, gogoa ilun,
Bainan biyotza pakian,
Arkitutzen naiz irakurriya
Zerbait papertxo batian.

II Egun-eroko eguzkiya ta
Gau izar ta ilargiya,
Aize, euriyak, itxaso zabal,
Egazti eta piztiya,
Lur eta zeru diyogun ori,
Ez bada arrigariya!

III Ez da ametsa, ez nago lotan,
Aditzen nago mintzuba
Dagokidala neri esaten:
"Ah, zer gizonaren gaxua!
Ua, ua lotara, alper ari aiz
Nekatzen izpirituba".

IV Irten dedila jakintsunen bat
Gizon berriyen artetik
Esan akiyo bear dukela,
Senistekotzat bertatik,
Landare edo azirik gabe
Arbolatxo bat lurretik.

V Gaia emanik egin lezakek
(Baderitzaio) guztiya;
Bainan ez baitik orrek sortuko
Xingurri baten biziya!
Negurri gabe igua zegok
Gizonaren iritzia.

VI Orrela ere ausarteriyan
Maiz aurreratxo dijua,
Eman nairikan, ez dakit zeri!
Bertute guzirakua,
Iritxitzen da ukatzeraino
Ori bere Jaungoikua.

VII Ezaguera ta gaia emanik,
Gizonak egin oi ditu,
Gauza ederrak, arrigariyak;
Au ez diteke ukatu.
Zeini zor diyon ori guztiya,
Au bear luke aitortu.

VIII Orretarako emana degu
Guk degun izpirituba;
Eta onen bidez egina bada
Gizonarentzat munduba,
Ez litzake asko eskatutzia
Onra dezala zeruba.

IX Gizona balitz menderen mende
Bizitzekoa munduban
Jauna berari igo lekiyo
Bere ustetan buruban
Eriyo otzak gelditutzen du
Bidi xit laburragoan.

X Eriyotz orrek irukiko du
Gizona beti txikiya,
Jaunak guztia andi ya du-ta
Onetan erebakiya;
Askok litzake aitortutzeko
Beraren jakinduriya.

EUSKALDUNEN GAUZIK MAITENA

(IRU ZORTZIKO AKROSTIKO)

- I** Erregerik txit goienak nola
Urre ta zilar argiyak,
Sartu dituzte gaiztakeriyan,
Kirasturikan koroiyak?...
Ah Euskaldunak! Nai dituzute
Lurreko ondasun txikiyak?
Doilorkeria litzake, izanik
Uts ezerezak guztiyak.
- II** Noraino bada bear du igo
Euskalerriko jendeak?...
Nik esango det atsegin andiz,
Gure anai txit maiteak!
Adur eder da Ebro ibaien
Ur-bitarteko semeak,
Zerurontz, nola suba bear du
Igo, ausardiz beteak.
- III** Ken grina txarrak: Jainkoa degu,
Maiterik-maiten lenengo,
Ark eman zigun Euskalerriya
Izandu bedi urrengo:
Toki gozo au Kristau-oituraz
Euskerarekin goiengo,
Nun-nai kantatu... aurrera ere
Au da garaitzail itrenngo.

1880 MAULE**Felipe ARRESE BEITIA****BIZI DA AMA EUSKERA**

- I** Iru gaubela Amari eginaz
Nenguan arbolapian,
Neure begiak liortu ezinda
Bere buruko zapian,
Jaunak ez baleust gorde bizia
Ainbeste minen erdian,
Bakezko lotan arimiau ta
Gorputza neukan obian.
- II** Eguzki ederrak ikuste ez arren,
Negargarriau lurrian
Odei ilun bat ipini eban
Arpegiaren aurrian,
Baltzez jantzirik agertu oi zan
Damuz goizian goizian,
Gorde ilargia lotsaz izarrak
Gabaz azaltzen ez ziran.
- III** Ni gisajo au, Amari munka
Bekoki ta begietan,
Sur, ezpai, okotz, matraila biain
Esku eta oin otzetan,
Erdeldun askok ikusi arren
Estura samin orretan,
Ezer ez utsa bazan legetxe
Aurrera euren bidietan.
- IV** Irugarren gau erdirako
Eztarri au zarratu zan,
Begiak agor, pultsuak geldi,
Ozta ozta bizi nintzan,
Gizon argitsu bizi eder bat
Nun dakustan zeruetan,
Zuriz jantzita odei gain baten
Lauburugaz eskuetan.

V Ule luze ta bizar urdinez
 Agura itzaltsu bat zan,
 Odei gainian puzkaten geldi
 Ikusi neian egon zan,
 Asi zanian baina beruntza
 Ez dakit nola ez zelan,
 *Onaztarri bat baino lenago
 Jausten jat albuari bertan.

VI Justuri batez alako otsik
 Ez dan ez inoz atera,
 Mendiak dar dar aitzak lokaka,
 Euskelerria ikara,
 Arri bat legez ni otz ta gogor
 la zentzun asko baga,
 Ots gozo batek bertati dinost
 Jaunak gorde zagizala.

VII Bakia zugaz, baita anaiakaz
 Natortza iragartera,
 Tubal aita naz, zerutik nator
 Amatxo osatutera,
 Atsegin eta pozez beterik
 Zerutar danak batera,
 Kantetan dabe: izketa artian
 Garbiena da Euskera.

VIII Omen artian baina nituzan
 Entzun nik zure negarrak,
 Aitu nituzan zerurainoko
 Zure dei eta deadarrak,
 Beian itxirik ilargia ta
 Eguzkia zein izarrak,
 Oraindik gora igoten eben
 Amodio orren sugarrak.

IX Baina nasaitu atsedean zaite,
 Seme maite ez da il, Ama.
 Ume gaiztuen atsekabiak
 Geixotu dabe orrela,
 Orain guztiak negar dabe egin
 Ezagaturik okerra,
 Il dalakuan beti betiko,
 Euskera Ama laztana.

X Negar dabe egin Bizkaiak eta
 Araba ta Gipuzkoak,
 Negar dabe egin Naparrak eta
 Euskeldun Frantziakuak,
 Orain arte uts egitia
 Daukazuez parkatuak,
 Baldin bazare aurrera izaten
 Anaiok alkar artuak.

XI Auxe esanda, putz egin eutsan
 Ama geixuari aotik,
 Eta bertati gazte bat legez
 Oinen gainera zan zutik,

Eta dirautsa: Ama jatsi naz
 Zeruetatik zugaitik,
 Seme leial au il zinala ta
 Neukalako otsez lurretik.

XII Biziko zara baina zu emen,
 Munduak dirauan arte,
 Lur onetara etorri zinan
 Neugaz orai lau mila urte,
 Etsai gaistuak gerra min asko
 Ta zauri egin deutsue,
 Baina oraindik Ama bizkorrik
 Ikusi biar zaitue.

XIII Agur zerura banua, eta
 Geiago etzan ikusi,
 Ama bakarrik neuri begira
 Eta ni barriz berari,
 Zabal zabalik bere besuak
 Eustazan laster ezarri,
 Sotil ta humil entzun neutsazan
 Berba samurrok berari.

XIV Pasino latza irago dot, ai!
 Juan diran egunetan,
 Neure arimau neukan ala ez
 Ez dakit gorputz onetan;
 Indar barri ta bizi bizi bat
 Biotzian dot sometan,
 Odol gaztia darabildala
 Uste dot neure zainetan.

XV Seme guztiak esan eiezu
 Bizirik nazala emen,
 Ta datozela txar eta onak
 Danak ikusi nagien,
 Mundua mundu arbolapian
 Bizirik euki naizuen,
 Berbeta gozo eder onetan
 Saiatu danok egiten.

XVI Egia da bai ume zurtz gagoz
 Foru baga lotsarian,
 Baina emongo arbola onek dauz
 Orriak udabarrian,
 Negu gogor ta ekatx andiak
 Artu gaitue erdian,
 Ainbeste gatxez ez gara egon
 Lenago Euskelerrian.

XVII Baina begira, neure semia,
 Arbola oni an goian,
 Nun antxinako Lauburu zarra
 Zelan daukan agirian,
 Esan egizu lotsarik baga
 Ta arrokeria andian,
 Beste gauzarik ez dala adorau
 Sekula Euskelerrian.

XVIII Zuaz, barriro dirautsut eta
Neure bedekazinuz
Zuaz, anaiak argituzera
Emen ikusi dozunaz,
Baina ez arren geiago nastu
Erdeldun oiturakaz,
Neugaz bakarrik biziko zare
Munduan atseginakaz.

XIX Irakatsiok entzun neutsazan
Malkuak gorde ezinik,
Aldendu nintzan, esku-oinetan
Laztan gozoz mun eginik,

Neure erriari iragartera,
Ez dala ez il Amarik,
Eta anaiok gaitiala izan
Euskeldun garbi bakarrik.

XX Neure anaiak, bat izan beti
Euskeldun siniskeretan,
Bat izan geure uste, eretxi,
Gogo eta asmuetan,
Fede bizi bat baldin badogu
Biotz eta arimetan,
Bakez oraindik biziko gara
Mendi, atx ta ibarretan.

292

Joanes OXALDE

BERANTEKO URRIKIAK

*Airea: Uso xuria, errazu
Norat joaiten ziren zu.*

I Bizi nintzena bakean
Ait'amekilan batean,
Tratulari bat sarthu zerautan, uste gaberik etxean,
Ez baitzuen nahi handik athera ni saretan sar
artean.]

II Amerikako bidea
Har ezazu, Jaun gaztea,
Erranen dautzut nola bizi den lekhu hartako
jendea,]
Hemen kobrea bezain nasaiki han badabila
urhea.]

III Orduan nintzen harrotu,
Gogo guzia berotu,
Abisu frango izan dut bainan, ez naiz nihori
behatu,]
Ni zoro bezain hura ernea, laster ninduen beretu.

IV Diru-goseak nerama,
Utzirik ait'eta ama,
Arrosa petik ather'orduko, arrantzetan atzemana,
Nahigabetan bethi bizi da aiter behatzen ez
dena.]

V Untzian hasi senditzen
Damuak bihotza zaurtzen,
Ald'orotara begira, bainan urik baizen ez ikusten,
Haize tenpesta, masten karraskak zain guziak
ikharatzen.]

VI Sarthu naiz azken buruan
Gogo naunkan lekhu,
Neure etxean nintuelarik atseginak inguruan,
Orai hemen naiz, dohakabea, nehor gabe
desterruan.]

VII Bizi naiz nahigabetan,
Bethi hasgorapenetan,
Damu min-gaitzikildatu nintzen bertzen solas
ederretan,]
Geroztik hunat urrikitu zait probetxu gabe
bortzetan.]

VIII Ene haurride gazteak,
Ez segi ene bideak,
Ithurri kharitsetan edan du zuen anaia maiteak,
Hemen egunak luze dohazko nola herrian
urtheak.]

IX Bidali diot amari,
Zertaz nagon hemen eri,
Zerbait laguntza egin dezola nigarrez dagon
haurrari,]
Ahalik balitz nahi bailuke sorthu-lekhurat itzuli.

X Hemen nago lotsatua,
Dolu minez hiratua,
Ikusten badut berriz aldi bat Eskal herriko zerua
Hor biziko naiz lehen bezala galtzen ez badut
burua.]

ALTHABIZKARKO KHANTORIA

I Deihadar bat erantzun da
 Uskaldunen mendietan,
 Etxeko jauna agertzen da
 Jauziz bortha alhartzetan,
 Behatzen da eta dio:
 Zer dabila lur hoietan?
 Haren txakurrak lauhazkaz,
 Lo zegoenak hoinetan,
 Althabizkar unguriak
 Iharrausten tu txanpetan.

II Ibañetako gaintitik
 Herots handi bat jaikiten,
 Harmada batek dakharren
 Burrunbotsa da huilantzen.
 Karlomanen tropak dira
 Iberiatik utzultzen;
 Nefarroa menpeturik,
 Ospetsu Frantzian sartzen.
 Uskaldunak aitzinera
 Mendiak gora multzotzen.

III Heben dira! heben dira!
 Oi! Zer lantzazko sasial!
 Banderaz estalia da
 Hurrnian lur guzia,
 Zaldun eta hoinezkoen
 Zer oste izigarria!
 Haien harmek distiratzten
 Mila tximisten argia.
 Iklusatu, ikhusatu,
 Laster egizu, nausia.

IV Hainbeste direnez, haurra,
 Khuntatzera hisei'adi.
 Bat, biga, hirur, lau, bost, sei,
 Zazpi, zortzi, bederlatzi,
 Hamar, hameka, hamabi,
 Hamahirur, ta hamalau,
 Hamabost eta hamasei,
 Hamazazpi, hamazortzi,
 Hemeretzi eta hogeï,
 Berrogei eta laurhogeï.

V Ehun eta mila milak
 Lerroz lerro jiten dira.
 Zonbat diren jakin nahiz
 Gal genezake denbora.
 Junta ditzagun indarrak,

Harroka horik athera,
 Eta heldu direnian,
 Mendi hoién hoinetara,
 Ald'orotarik batian
 Aurthik ditzegun gainera.

VI Ipharreko gizon horik
 Zeren zaizku hunat jaitsi?
 Bake bizi ginandian
 Zeren zaizku gerlan hasi?
 Harrokak jauziz erori,
 Hezurak karraskaz hautsi,
 Odol balsan aragiak
 Dardar phuskatan itsusi,
 Horrelako sarraskirik
 Ekhiak eztu ikhusi.

VII Oihu marrasken artetik
 Arrolanen dei-hadarra,
 Ozen eta intziritsu
 Entzuten da hurrnera,
 Mendiak gainti heltzen da
 Karlomanen bihotzera.
 Olifantak oihuzten deit
 Ene llobaren herstura,
 Goazkon laster, goazkon laster,
 Egin dizogun heltura.

VIII Ihes, ihes, Karlomanen
 Hoinezko eta zaldunak!
 Ihes ihaur, galdu dutuk
 Karloman, tropa hobenak.
 Hil duk Arrolan handia!
 Huts egin deik zorthe hunak,
 Mendietarik jaitsi tuk
 Bitorius uskaldunak
 Lantzez ehaiten ditie
 Ondar ihesi doatzanak.

IX Hilak ezttazke khunta,
 Bekhantu dira biziak.
 Zoinen laster histu diren
 Hoién ospe, balentia!
 Zer egin dira banderak
 Eta lantzazko sasiak?
 Ezta harmen tximistarak,
 Odolez dira bustiak,
 Nola ixiltu diradian
 Goizeko herots handiak!

X Haurra, zonbait diren xutik,
Khuntatzera hisei' adi.
Hogei dira, hemeretzi,
Hamazortzi, hamazazpi,
Hamasei dira, hamabost,
Hamalau, ez hamahirur,
Hamabi, orai hameka,
Hamar, bederatzi, zortzi,
Zazpi, sei, bost baizik ezta,
Laur dira, hirur, biga, bat.

XI Ezta bat xutik ageri,
Guziak etzanik dira,
Etxeko-jauna, joan zite
Txakurrarekin etxera,
Emaztiaren ta haurren
Gozoki besarkatzera,
Bitoriaz Jainkoari

Hekin esker emaitera,
Gero zure harmen gainen
Deskantsu lo egitera.

XII Gaian dira arranoak
Hurrunetik hor bilduko,
Hartz otsoekin nahasi
Khorpitz hil hoiien jateko.
Mamiak laster dirade
Gure bistatik khentuko,
Bena hezur xuritiak
Bethikoz hor baratuko,
Nor beren etxian nausi
Utz dadin erakasteko.

I a-a-a-a-a-o-ho-ho-ho-ho-ho!!!
iao! iao!

1881 IRUN

294

Biktoriako IRAOLA

LORE IGARTUA

I Baratz berdeko lirain polita,
Usai gozozko loria,
Atzo zenbaiten deseoa ta
Gaur igartuta lajia:
Urruntasunak zauzkan ezker
Orla galdutzaz botia,
Zure merio sentitutzen det
Biotz penaz betia.

II Xori xiki bat bezin alegre
Etorri zinan mundura,
Txortentxo melar berde batetik
Jostailu baten modura:
Zure orduko preskotasuna!
Zure orduko itxura!
Gogoratzean beti sartzen zait
Tristetason bat petxura.

III Galaz jantzita guztiz suabe
Mugitzen zinan aizetan,
Dama gazte bat bezin airosa
Udaberriko goizetan;
Uriztatua doai aundiaz
Egun sentiko intzetan,
Baina gaur penaz jartzen naiz zutzaz
Oroitzen naizen denetan.

IV Lore polita zinan denboran
Zenbait gustora begira,
Zure kolore pinak ikusten
Gelditu izandu dira;
Dizdiz eginaz perlaren gisa
Eguzkiaren argira,
Baina lengoko zure dizdizak
Ezer gelditu ez dira.

V Betiko galdu zaizkizu lengo
Edertasunen indarrak,
Gabaz ez dizu argi egiten
Ilargi eta izarrak;
Ez dizkizu nai intzak gozatu
Goizetan ostoz igarrak,
Denak jiraka or darabilzki
Lurrean aize iparrak.

VI Penaz biraltzen diran bezela
Sentimenduak aizera,
Zu berriz beti usai gozoak
Emanaz bizitu zera:
Zure doaiaz orla gozatzen
Aditu ere bazera,
Eskergabeak oinperatua
Azkeneko iltzera.



GRANDES FIESTAS EUSKARAS

EN IRUN

LOS DIAS 8, 9, 10 Y 11 DE SETIEMBRE DE 1881

CON MOTIVO DE LA FESTIVIDAD DE SU EXCELSA PATRONA

NUESTRA SEÑORA DEL JUNCAL

el Ilustre Ayuntamiento ha acordado

← FENCIONES RECREATIVAS →

JUEGOS FLORALES EUSKAROS

EXPOSICION DE GANADO VACUNO

PARTIDOS DE PELOTA

CONCURSO DE TAMBORILEROS

REGATAS

CARRERA DE MUJERES CON CÁNTAROS DE AGUA

FUEGOS ARTIFICIALES

CARRERAS DE NADADORES

Musicas, Tamboril, Iluminacion, etc.

ILTZEN BAZAIGU AMA EUSKERA, EUSKALDUN ILAK GERA!

I Zer ikusten det urruti artan
 Biotza pusketan joanik?
 Zer ekaitz ilun ikaragarri
 Dator euskaldunak andik?
 Ai, esatea libre banuke
 Esango nuke, bai, pozik,
 Baina penetan bizi gaitean,
 Supri dezagun ixilik!

II Ixilik atzo, ixilikan gaur,
 Ixilik bigar eta etzi,
 Ixilik beti, kantatutzea
 Ez degulako zilegi;
 Ordu txarrean gure artean
 Ginalako, ai, berezi,
 Anaiak bear genduelarik
 Len, orain, gero ta... beti!

III Naigabe pisu leor-leor bat
 Doakabe ark dakarkit,
 Negar egin nai, baina malkorik
 Bat bakarrik ez datorkit;
 Len ixuriak ditut guztiak,
 Dar-dar gorputza dabilkit,
 Eraso beltza badator eta
 Euskal-Erria... zabilzkit!

IV Lengo oitura miragarriak
 Zar eta maitagarriak,
 Gure aitonen aitonetatik
 Jaunak guri biraliak,
 Denbora joanik beti berriak,
 Beti txit arrigarriak,
 Nora dijoaz? Nola ta noizko?
 Au lotsa, anai maitiak!

V Gure semetxo eta aitonen
 Erdian gaude jarriak,
 Aek seaskan, oek zerutik,
 Guri begira guztiak;
 Eta guk norontz geren begiak
 Daukazkigu ipiniak?
 Zorigaiztozko lotarki batek
 Dauzkigu oso itxiak!

VI Gauza tritea, paregabear
 Da gaur nere dolorea:
 Semeak aita ikusten du ta
 Aitak ez berriz semea!

Al balitz aitak gaurko egunean
 Seaskara begiratzea,
 Izango luke bere biotza
 Su bizi baten labea!

VII Baina itzali zuen su bizi ura
 Etsaigo negargarriak,
 Minak izanik esan ditzagun
 Garbi ta soilik egiak;
 Euskal biotzak sentitzen ditu
 Eriotzaren sugarrak,
 Odol-ustu zan, au nere mina,
 Nere erritar laztanak!

VIII Euskal Erriko semeak, esna,
 Altxa gaitean gaur bertan,
 Ara aurtxoak guri begira
 Seaskatxo otz-otzetan!
 Ama non degu, Ama euskera?
 Ara an txokoan, penetan!
 Iltzen bazaigu ilak gera ta
 Ilak aurrak seasketan!

IX Bai, gure Jauna, il bitez orain
 Ama ez ezagutzekotz,
 Gu bezelako esker gaiztoko
 Seme txarrak izatekotz,
 Gure legea, paregabear,
 Oinperatzera jartzekoz,
 Berak galdurik beren Amari
 Bizia galtzen uztekotz!

X Guk, gurasoak eta semeak,
 Gaurko euskaldun erbalak,
 Zer erakusten diotegu? Ai!
 Non dira euskal oiturak?
 Eraso beltza badatorkigu,
 Azitzen datoz aurtxoak,
 Oitura on aek badaramatzi
 Berekin Ama gaisoak!

XI Gu, gurasoak eta semeak,
 Zentzu apurrik gabiak,
 Euskal izkuntza eta oituren
 Galtzaile lotsagarriak.
 Bereak ditu gure animak
 Sekulako lotarkiak?
 Etzaituzte gaur esnatu bear
 Amaren azken antsiak?

XII Ezta batere! Ezta batere!

Il bedi triste beingoan:
Ez gerade gu bere semeak,
Ez gaude euskal lurrean!
Au esan eta odei lodiak
Agertzen dira zeruan,
Eta aurtxoak joan nai luteke
Amon onaren kolkuan!

XIII Ama joan zaigu, baina umeak

Emen gelditzen zaizkigu,
Ai dira anditzen eta erasoa
Alderatzen datorkigu;
Odei lodiak, beltz-beltz eginik,
Argia digute kendu,
Eta dunbota turmoiarena
Nunbaitik aditzen degu.

XIV Kantauriako kosta guztiko

Itsasoaren orrua
Dator ondoren, irentsi naian
Euskal-Erri izandua,
Garaintzi nairik mundu danari
Jaunaren lege santua,
Zeinek danari esaten dion:
“Onra zazu gurasua”.

XV Aur txiki aek gizon eginik

Biurtzen zaizka aitari,
“Aita gaiztoa –esan diote–,
Utzi zenion amari!
Saldu gaituzu, zu galdu zera,
Orain negarrak ugari,
Bazenekizun, aita gaiztoa,
Etzinala ondo ari”.

XVI Bai! Atzo il zan ta gaur emen dator

Eraso beltza gainera;
Bein damutu ta piztu zenduen,
Joan zinan berriz atzera.

Urte oetan ibili zera

Bein batera, bein bestera,
Baina azkenik il zaigu eta
Goazen guztiok lurpera!

XVII Aizea ere usteldu da ta

Ezin arnaserik artu,
Aita-semeak lurra jo dute,
Nai baina ezin altxatu!
Estutzen dira, aitak orduan
Nai tu semeak salbatu,
Eta semeak madarikatzen
Aita nai dute urratu!

XVIII Odeiak ontan lertzen dira ta

Negarrez dago zerua!
Euskal-Erria izandu zana
Beltzez jantzia, galdua!
Esker gaiztozko bere semea,
Len gozoro bizitua,
Il nai ta ezin il zorrotz batekin
Damuak arantzatua!

XIX Ai! Lurrak berak du Ama il ura

Guk baina geiago maite,
Ama ark onra eman ziola,
Beste Lurrak badakite;
Joan nai du, bada, arren atzetik,
Urak estaldu lezake,
Sar bedi bada Done-Joanetik
Santander jotzera arte.

XX Diz-diz tximistak, marru turmoiak,

Orro itsaso ederra,
Estal ditzazu euskaldun lurrak,
Etsaigo gaiztok galduak;
Adio orain, agur betiko
Atsekabe emengoak,
Barkaturikan Berarengana
Gora gaitzala Jainkoak!



JAUNGOIKOA ETA FUEROAK

I Gauza bakotzak Jaunak emonda
 Daukaz doe bereziak,
 Zar eta gazte gizon zein andra
 Dierrri naiz probintziak;
 Bardin arrainak ta egaztiak
 Abere eta pistiak,
 Lege bategaz ezin litekez
 Zuzendu emen guztiak.

II Ez da ardura atera arren
 Uren barrutik arrainak,
 Joan ditezen leorrez arin
 Une badituez oinak;
 Egazti batek zer balio dau
 Uretan barriz sartzeak?
 Naiz abereak ego bagarik
 Aidez igoten asteak?

III Ezin liteke leorrez bada
 Arrainik inoz ibili,
 Ez egaztirik uren barruan
 Joan liteke igari;
 Ezin liteke ez abererik
 Egan aidean eregi,
 Eta ain gitxi Euskal-erria
 Erdaldun oso imini.

IV Beraz usoa egina dago
 Ibili dedin aidean,
 Ez abereak dabilzan gisan
 Beian emen lau oinean;
 Tiroz ego bat eizari batek
 Baina austen deustanean,
 Zelan kantan leiz urru gozoak
 Erreka aldamenean?

V Deituko deustut gaur zuri bere
 Neure Erria, usoa,
 Ez legoia ta ez arranoa
 Ez belea ta otsoa;
 Zarealako sotil zuri ta
 Otsan leial ta gozoa,
 Ego ausiaz zelan zakustaz
 Usotxo biotzekoa?

VI Nun dozuz orain zuk antxinako
 Urrueta ezti suak?
 Arbolapetik ipar aisetan
 Nik pozez entzundakoak?

Isildu ziran uso maitea
 Mututu zure urruak,
 Zure lekuan kantetan dabe
 Bela baltz erbestekoak.

VII Errekatxoen ur korrontetan
 Sortuten zan murmuilua,
 Inoz etxatu ain gozo izan
 Zeinda zeurorren urrua,
 Mendi gainetan urtu bagarik
 Ikusten neban edurra,
 Zer zan besterik zure ondoan
 Ezpada gauza iluna?

VIII Erri onetan beti beti, zu,
 Izan zinan erregina,
 Zure mendea bizitea zan
 Guretzako atsegina,
 Arranotzarrak etziran izan
 Zu arrapetako dina,
 Baina legoia jaurtigi deustu
 Atzamarkada samina.

IX Jaunak emonik zeugaz zenduzan
 Ego bi oso sendoak,
 Jaungoikoa zan eskumakoa,
 Ezkerrekoa fueroak,
 Aurrera bere gura badoguz
 Egun zorionekoak,
 Zeruruntz danok otsegin daigun
 Betoz euskaldun egoak.

X Eurakaz jagi gaitezen narraz
 Gabiltzazanok galduak,
 Auzoetatik daukaguzala
 Barreka arerioak;
 Jaso barrero neure anaiak
 Zeruraino zizpururak,
 Eta eskatu geure egoak
 Jaungoikoa ta fueroak.

XI Zer da ume bat aitagaz utsik
 Baldin il bajako ama?
 Errukarria zurtza gaisoa
 Gobernu andirik baga;
 Modu berean neure anaiak
 Gu bere aurkitzen gara,
 Oitura zarrak biztu bearko
 Gauz onik izango bada.

XII Asaba zarren Jaungoiko ona
 Zuk errez daikezuz biztu,
 Erri on oni arren errukiz
 Egiozu begiratu;
 Zugan ustea jarri dabenik
 Sekula al da lotsatu?
 Bere jagola sendotzat onek
 Beti zaitu ezagutu.

XIII Beronek dino zu zara, Jauna,
 Guretzat etzan lekua,
 Nai dogu zure ego azpian
 Bilau osasun dontsua;
 Orain bost urte eizari batek
 Jaurtigi eustan tiroa,
 Eta osatu egidazu gaur
 Zauritu eustan egoa.

XIV Ez da geiago gure lurrean
 Aiserik aserratuko,
 Itxasoetan amorruz bagak
 Ez dira atzera jasoko,
 Sekula bere Egoi aldera
 Ez dogu begiratuko,
 Gure ontzia salbetan utsik
 Indarra dogu egingo.

XV Bakigu oker ginala ari
 Lenago danok begira,
 Ipar aldera bearrean jo,
 Kenduan eguerdira;
 Orain atzera gura genduke
 Laster egin danok bira
 Biurto gaizuz gure asabak
 Biziten ziran tokira.

XVI Zu zara Jauna, Ipar bakarra,
 Nogan ditugun josiko,
 Biotzetako gure orratzak
 Gaur danik beti betiko,

Ezaugarritzat odei zuri bat
 Deuskuzu gia jarriko,
 Bere ondoren oker bagarik
 Kananen gara sartuko.

XVII Alperrik dira Ejipton barriz
 Odeiak burrukatuko,
 Alperrik euren zauri-odolaz
 Ibaitzarrak gaineztuko;
 Alperrik trumoi burrundariak
 Sorua dardaratuko,
 Atxen txuntxurak zirt zart tximistak
 Alperrik lurreratuko.

XVIII Aurrera zuzen joango gara
 Batera basamortuan.
 Aurrera, aurrera, leorrez legez
 Bardin bardin itxasuan;
 Aurrera ... eta Jaungoikoari
 Deiturik itxas onduan,
 Urak erdi bi eten da doaz
 Iges bildurti moduan.

XIX Betor su ta gar, nai badau bere
 Jarrai Ejipto guztia,
 Damuz beterik Israeleri
 Libre joaten itxia;
 Baina jaristen naz ondo daben
 Itxaso erdi-erdia,
 Ur danak trila egina deutse
 Ilgo amorru guztia.

XX Dakialako Jaunak emoten
 Danai euren alogera,
 Erri leial ta baita mukerrai
 Irabazita daukena,
 Itxas erditik eroaten dauz
 Onak baterik bestera,
 Txarrak botaten ondarreraino
 Arrainak gizendutera.





Klaudio Otaegi
(Zegama, 1836 - Hondarribi, 1890)

ELKAR GAITEZEN DENOK NAPAR-EUSKALDUNOK!!

I Urez aronzdik iskribatzen dit
Anai batek penaturik
Luma kamutz bat artu duela
Biotza erdibiturik
Gure ibarrak ikus ginuzen
Txikitan lorez jantzirik
Eta egiaz-dio, arkitzen
Dira orain igarturik?

II "Mendi guziak poztzen zituzten
Burni-ol eta errotak:
Mendi-oinetan jaiotzen ziran
Iturri eta errekek;
Arkaitz eta oian itxietako
Enara erretxinolak,
Zinez diote, oraindik ere
Dagozela mututuak?"

III "Sinis litezke euskal-erritik
Dakartzkiguten berriak,
Esanaz: oso lurperatuak
Daudeztela baserriak;
Umezurtz baten gisa guraso
Gabe mendi ta erriak,
Uztarriean, inoiz ez ta gaur,
Zaukazkitela atzerriak?"

IV "Artizarraren argia baina
Garbiagoko umeak!
Biotz berako neskatz lirainak,
Lenago pozez beteak!
Orain urtuak arkitzen dira,
Noski, negarrez tristeak!!
Dizkielako eraman beren
Auzoko galai gazteak!"

V "Gure biotzak pozez bete oi
Zituzten artzaian kantak;
Gure gogoko ezpata, makil,
Pordoi eta eskudantzak;
Pilotapostu, palanka joku
Eta koplarien pestak,
Aztu al ziran bet betiko
Gaitzik gabeko jolasak?..."

VI "Arkitzen dira euskal-erriko
Arriarma danak berez,
Gure aitonen dinbere ederrak
Estalirik sare beltzez?"

Eta ala ere nor bere dabiltz
Alkar ikusi ezinez
Gure anaiak zuribeltzkeri
Galgarriak utzi ordezt!"

VII Erromak izan zuen podore,
Omen eta patu onak;
Bere ontzidi, ekersitu ta
Kapitanik azkarrenak.
Ondatu ziran aitz orietan
Zeudelako euskaldunak
Gure Lege ta zorionezko
Oitura zarren zai danak".

VIII "Baina, aek, ai! sesio gutxi
Izandu zuten etxean
Ibil gaberik errierta ta
Mokoka beren artean:
Etsai gogorrek mendietatik
Botatzen zituztenean,
Ama maiteren magal gozoan
Bizitzen ziran pakean".

IX "Eztuten aek aundinai eta
Kutiziarik ezagutu:
Etzizkioten jaioterri
Sekula ere ukatu
Beren ondasun eta odola
Ziranenan arkitu
Aitorrek utzi zizkigun Lege
Jakintsuak estu estu".

X "Arranotzarrok bezela libre
Mendietan bizitzeko
Etziran inoiz besteren jua-
Etorrietan nastuko;
Or konpon bitez beuden artean
Erdaldunak sekulako.
Utzi ez keroz pakean guri,
Zioten emen betiko".

XI "Sentituzten ez dezute, bada
Biotzaren barrenean,
Esaten : -arren bildu gaitezen,
Jainkoaren izenean.
Lau Probintziak bat eginikan
Erri maiteren onean?
Edo zaudezte etsai gogorrek
Larrua kendu artean?"

XII Dirudizute Jaunak eskutik
Lajarik zaukazkitela!
Penitentzia juduen gisa
Egin bear dezutela!
Alde aldean esan liteke
Lotargitan zaudeztela,
Esna zaitezte, errukienak,
Galdu zerate bestela!”

XIII “Azkenik kendu nai dizkitzute
Dezute doai bakarra,
Mundu guziko jakintsuak nai
Dioten izkuntz ederra:
Irme itxeki, ez inoiz aztu
Gure mintzoera zarra,
Ori da gure Aitalen aen
Azgarri biurrezkorra”.

XIV “Oraindik ere nai dituzute
Galdu indarrak alperrik
Zuen arteko iritzi txarrak
Alde bat utzi gabarik?
Ez dakizute, zorigaiztoto
Ez dala Ebroz aronzdik
Gure Lege zar maitagarriak
Ikusi nai dituenik?”

XV “Orra zer diran mundu onetan
Gizonaren txurkeriak:
Ama maitea minez dago ta
Ezpaita ta kutiziak.
Zerengatikan esanez dauzka
Alkar ezin ikusiak,
Bere semeak oapurutik
Apartatuak guziak”.

XVI “Baina ez, ez naiz ondo mintzatu,
Zeren badira semeak
Beren iritzi on edo txarrak
Utzi dituzten umeak,
Ikusirikan sendatutzeko
Amaren gaitz doakabeak,
Betiko aztu bear dirala
Iragotako nasteak.”

XVII “Badira seme azkar, alaiak,
Federik bizirenakin,
Bildu diranak Amari kontu
Egiteko asmoakin:
Bildur gabarik leiatzen dira
Gaur luma satar batekin
Bigar menturaz leia litezke
Askoz zorrotzagoakin”.

XVIII “Ez dakizute, Jaungoikoaren
Esaera jakintsua,
Au da: –dierr berezi dana
Izango da larrutua?
Aztu zaitzute beti izan dala
Eleizaren zimendua,
Maita ezazu aurrena Jauna,
Gero lagun projimua?”

XIX “Ez diozute, bada barkatu
Bear batak besteari,
Ainbeste kalte egin da gero
Zuen Ama maiteari?
Ai! aski ez da, ez, esatea
–Ez naiz izan pekatari...-
Guziok egin dizkiotzute
Okerrak maiz ta ugari”.

XX “Bazekizute zuen anaiak
Zeinen triste dauden emen
Ikusirik ez diozutela
Amari begiratutzen!
Erdiak bedeik etzeratela
Aren izkuntzaz mintzatzen!
Oroitza utzak ai Ama ona!
Gaitu oso lotsatutzen!...”

XXI “Zer nai dezute, irrintziren bat
Mendi muinoren batean?
Oju estu bat, itz egoki bat
Gure izkuntz ederrean,
Entzungo dana erri, baserri,
Iskinik urrutinean?
Nai dituzute piztu arazi
Gargarri aek gauean?”

XXII “Ez da bearrik. Orra Irunen,
Orra Bilbaon bandera;
Zoazte danok, zuri, beltz, gorri,
Danok azpian jartzera;
Zabaldurikan arkitzen baita
Ebrotikan Igererra;
Napar pizkor ta euskaldun azkar
Denak an kabitzen dira”.

XXIII Eskatzen dana, ez da besterik,
Guzion alkartasuna:
Napar ta euskaldun, aitorren seme
On guzien batasuna:
Oraindik ere Ama maiteak
Izango du osasuna
Eta etxean libertadea
Eta zoriontasuna.

XXIV Bildu zaitezte bada korrika
Astintzeko uztarria,
Zorigaiztozko itzaldi artan
Somorrostron ezarria:
Urraturikan arkitutzen da
Lege zar maitagarria,
Zizpiroz daude Ama-umeak,
Lantuzka jaioterria!

XXV "Ez diozute guziok berdin
Nai Fuero jakintsuari?
Ikuserazi ez diozute
Lendik mundu guziari,
Zoriontasun mueta danak
Zituzutela ugari,
Eskerrak zuen oitura eta
Erljio Santuari?"

XXVI Jaunak argitu ditzala orko
Zenbat umeren begiak,
Euskal-errira, beste lan gabe
Gure etsaiak biraliak.
Zuen tartean erein ditzaten
Belar gari galgarriak!
Baita, zuen gain aberastutzen
Dabiltzan merkatariaik".

XXVII "Baina txit gutxi dira noskiro,
Orrelakoak, txit gutxi,
Jaioterriren ona inondik
Nai ez dutenak ikusi.
Aurrera! bada, Napar ta euskaldun
Fuero zaleak, ez etsi;
Zabaldurikan arkitutzen dan
Estandarteak, ez utzi."

XXVIII "Egiak beti egin izan du
Leku alde guzietan:
Alkartasuna dala indarra
Dakigu antzinetikan:
Nor bere alde bazabiltzate
Alkar ikus ezinikan,
Ez da paltako aritz arbola
Txetutzeko ekaitzikan".

XXIX Orra bada non daukazkitzuten
Gurutzea eta arbola.
Uztarrituak arkitzen dira
Senar-emazte bezela:

Zuen anean etsairik bada
Ebroz aronz dijoala
Erdaldunakin Makiavelon
Papera an egin dezala..."

XXX "Eskerrak diot ematen gure
Anai maite, prestuari,
Nai diolako ainbeste bere
Ama maitagarriari.
Baina etzaitez batere estutu,
Baditu umeak ugari
Erne daudenak begira, bildur
Gaberikan etsaiari".

XXXI "Alper alperrik egingo ditu
Aleginik aundienak
Berezituak iduki naian
Napar eta euskaldunak:
Besarkatuak biziko dira
Emendik aurrera danak,
Oraindik intza izan dezaten
Arbola santuren zainak".

XXXII Ezpada sortzen erriertarik
Berriro gure artean.
Oraindik ere izan liteke.
Usterik gutxienean.
Arkitutzea gure Lege zar
Jakintsuen itzalpean.
Gure Aitalen zarrak bizitu
Ziraden era berean.

XXXIII Naisi gaituzte, ustez aituko
Dalako gure arraza;
Baina ori da zeruko izarrak
Kontatzea bezin gaitza.
Portxaz moldatzen diran erriak,
Oial nabarraren gisa,
Izaten dute iraupen gutxi,
Urratzen dirade aisa.

XXXIV Orrengatikan alkartasuna
Nai genduk euskal-errian,
Ala emen non Lapurdi eta
Suberorekin Prantzian:
Izkuntza bera duten mendiak
Jakintsuon iritzian,
Gaur edo bigar batuko ditu
Jaungoikoak etxadian.

1882 SARA

298

Piarres IBARRART

IKHAZKIN MENDIAN

Airea: *Muthil zaharra...*

I Gazterik hasi nuen gogoalhatzen,
Bakezko estatua zein othe zaiteken;
Ez bainuen kausitzen egonez herrian,
Hortako jarri nintzen ikhazkin mendian.

II Urrikari nautenak dire enganatzen:
Urrikgarriago ditut ezagutzen,
Bake osoa nun da hekien artian?
Ni hartaz gozatzen naiz ikhazkin mendian.

III Jaun onari diozkat eskerrak bihurtu.
Lagun zoro hetarik bainaiz aldaratu.
Beude beren atsegin galkorren erdian!
Prestuki biziko naiz ikhazkin mendian.

IV Mendiko ur xirripak dohaz erasian;
Xori, xoxo, epherrek... kantatzen sasian;
Urso-ihiztariak arbolen gainian...
Nola trista naiteke ikhazkin mendian?

V Igandetan mezara menditik naiz jausten;
Jainkoaren manua hola ez dut hausten,
Egun hura gozatuz ahaiden erdian!
Gero aste guzia ikhazkin mendian.

VI Zapetaín, sastre, harotz, zurgin eta hargin,
Hek, hirian lanean igandearekin,
Astelehena besta, gero min burian!
Ni zuhur eta sano ikhazkin mendian.

VII Gizon gazte, lorios merkhatukaria,
Jan-edan onen zale eta jokharia,
Ontasunak horrela goaten direnian,
Erranen duk: "Hobe zen ikhazkin mendian!"

VIII Ene anaia goan zen Amerikan barna,
Laster zerbait eginik uztektan lana;
Egun bezein aberats zen sorthu zenian!
Hobe lukela dio ikhazkin mendian.

IX Lili-arrosa hainitz bada bazterretan,
Gaztien xoragarri herri guzietan;
Ez naute enganatu ni orai artian;
Lorerik gabe nago ikhazkin mendian.

X Igande bestetan dut garbitzen larrua;
Plazara naiz agertzen ongi aphaindua;
Arrai dut arpegia, hitz onak mihian,
Nork ezagut nagola ikhazkin mendian!

299

Bonifazio ETXEGARAI

AZUZENAK

Zorionekoak biotz garbia dutenak, zergatik aek ikusiko duten Jaungoikoa.

Zelai gozatsu miragarrian
Lore gustiyak bildurik,
Arkitzen ziran udaberriko
Doai danakin galairik.
An zenden larros gorriyak intzez
Beren kopeta garbirik,
An klupiraiak apainduriya
Liluragarriz jantzirik,
An lore pollit beti-biziak,
Beti bezela bikainik,

An bixilorak bide xigorren
Ertz ederretan jaiorik,
An zenden ere jazmin txuriyak
Usai gozoa zabalik;
An azuzenak begirasuna
Zeru goietan josirik,
Eta lilipak sartaizetxoak
Atsematean mugirik.
Beren oinetan errekatxo bat
Igarotzen zan maltsorik,

Ur eder urdin osasungarriz
 Aien sustraiak bustirik.
 Ur oriyekin landaretxoak
 Indar biziyak arturik
 Azaltzen ziran guri ta mardul
 Xortena lirain jasorik,
 Erdidikirik zegoan lorea
 Erakutsitzen pozturik.
 Ala gustiyak zendela mardul
 Eta pozkidaz beterik,
 Andik urrean zegoan ujolde
 Batek goaitik irtenik,
 Arrapatutzen zuan guztiya
 Kolko loituan arrezik,
 Eta berekin etzeramana

Ondaturikan utzirik,
 Larrosak eta beste loreak
 Xortenetikan autsirik,
 Eramanikan batzuek, eta
 Beste batzuek igarrik,
 Erreka garbi beyarrezkoa
 Lagatu zuen zikinik,
 Eta loretsu len ikusten zan
 Zelai ederra soildurik,
 Bakar-bakarrik azuzenkoak
 Gelditu ziran mardulik,
 Ujoaldearen indarretikan
 Garbitasunak gorderik.
 Garbitasunak, maite badegu,
 Gordeko gaitu gaitetik.

300

Klaudio OTAEGI

EUSKALDUN BATEN ARRENKURAK

I Zorigaiztoan nintzan etorri
 Ai, nere ama biguna,
 Ainbeste laztan, aritz intxaur ta
 Gerezi azpian emana!
 Urez onontza, zentzu gaberik
 Berorren konseju ona
 Duzun nai ezik, lajaturikan
 Mundu bazterrik onena.

II Mendi oriek utzi ezkeroz
 Ez det izandu pakerik,
 Inon arkitu ez dedalako
 Nere erriren antzekorik:
 Zoriontasun paregabeak
 Or nenkarkien, ama, nik
 Emen ez dago galgiroa ta
 Desengainua besterik.

III Orko ispligu erremeroak
 Duten usaiaren ordez,
 Mendi orritsu, zelai berdetan
 Zeru osgarbiren partez,
 Belar pozoiak, egoaizeak,
 Lainoak.... ezer onik ez,
 Arkitzen dira, inoiz aztuko
 Ez diranak nere ustez.

IV Baleki zenbat neke irago
 Ditudan dagoeneko!
 Seguru nago ez lituzkela
 Inondikan sinistuko:

Gose egarriak, izurri minak...
 Denak esan, zertarako?
 Izandu bitez egin ditudan
 Oker danak zuzentzeko.

V Kaiolatik itsuri egin
 Zuten txorien gisara,
 Zenbat, ai ama! ezin bizirik
 Gabiltz ara ta onara,
 Pensamentuak utzi ginuzen
 Sukaldetara begira!
 Sinistu beza, orko doaiak
 Zerutik jetxiak dira.

VI Parre gozo ta zoragarriak,
 Negar biurtu zazkigu,
 Fedez beroak ekar ginuzen
 Biotzak sekulako oztu;
 Denbora garbi ederraren truk
 Ekaitz gogorrek agertu,
 Zenbat soineko txuriren ertzak
 Dituztenak, ai! zikindu.

VII Barkatu bizait, arren barkatu,
 Ama, nere utseginak,
 Ekar nituen utsirudiak
 Dira aizeak eramanak:
 Ematen badit itzulitzeko
 Dina diru gure Jaunak,
 Or nau berriro iragotzen
 Lenagoko egun onak.



Antonio Arzak (Donostia, 1855-1904)

301

Beñat DORBE

SOKORRIKO MENDIKO BIRJINARI

I Sokorriko mendia deitzen den gainean,
Birjina dut ikusten argitzen denean,
Eta bihotza bozten hari behatzean,
Nere laguntza baita bakarra munduan.

Gure ama ona urrikal zaizkigu,
Zure laguntza behar guziek baitugu.

II Nonbeitik ethortzean nola garen bozten,
Ama Sokorrikoa badugu ikusten,
Nahiz oraino urrundik den salu(ta)tzen,
Haren amodioa ez zaiku fal(ta)tzen.

III Diogunean othoitz kartsuki egiten,
Gure othoitzak bethi dauzkigu entzuten,
Jainko zerukoari galdeak egiten,
Merezi baditugu dauzku ardiesten.

IV Urthe denboretan udan agortetan
Eri gaozenean tristerik ohean,
Othoitz egin Sokorriat izatekotan,
Iduzki edo uri osasun gu baitan.

V Zenbat xangrin pena munduan direnak
Geldiarazi ditu gure Ama onak,
Kontsolatzen badaki hari doazkonak,
Bethi eman dauzkigu galdatzen zaizkonak.

VI Tenpestaren erdian itxaso gainean,
Txalupa bat saltoka dabil lanjerrean,
Marinelek ez dute segurki orduan
Othoitz alferrik egin Sokorri gogoan.

VII Gu ere haurrak goaz batzuetan,
Bide ona utzirik lanjer handietan,
Zu arras ahantzirik mundua gogoan
Othoi, gida gaitzatu, oh, ama orduan!

VIII Zu baitan dugu bethi guk konfidentzia,
Ez garela izanen zutaz ahantzia,
Bide ona segituz eraman bizia,
Ardietsi gaitzazu zeruko gloria.
Halabiz.

1883 MARKINA

302

Bonifazio ETXEGARAI

ZERTAKO...?

Baserritxo batean
Bizi naiz txit pozik,
Samintasun, naigabe,
Minik gabetanik.
Dauzkat zelaia lore
Pollitez jantzirik,
Zugaztiyak, intxaurrez,
Gaztainaz omirik:
Soroak artoz, gariz,
Alortaz beterik,
Beren ertzetik doan
Ibaiak bustirik.
Iturri garbiyaren
Urak naroturik.

Goizean txoritxoan
Kantak esnaturik,
Jauna bedeinkatuzten
Joaten naiz etxetik
Sorora, non lanean
Eguna pasarik,
Sentitzen ez det nigan
Kezka mingarrik.
Ez dator oneraino
Munduko soinurik:
Ibai leiardunaren
Murmurra bakarrik.
Emengo gauz ederrak
Naukate zurturik,

Esaneskisunezko
Gozaroz beterik.
Beraz, zertako nai det
Nik urre zilarrik
Baldin ongi banago
Berak gabetanik?
Zertako nai det –diot–
Orrelako gauzik,
Asko gizon badaude
Berekin tristerik,
Beti samintasunez,
Beti penaturik,
Beti minen azpiyan
Biyotza lerturik?

Zertako, zertako det
Aberastea nik,
Baldin ez bazait kentzen,
Ez gozatzen gaitzik?
Zertako lagako det
Baserrri gozorik,
Zelai miragarri ta
Baso gozatsurik?
Agur, urre zilarrak:
Aldendu nigandik
Mendiyan bizi nai det
Jauna doandirik.

303

Felipe ARRESE BEITIA

JAUNGOIKOAREN PROBIDENTZIA

“Gaizki dabilena
Gaizki amaitzen da.
Ondo bizi dana
Ondo il.” (Refran)

I Maiatzak oraindino
Eguntxo bat eukan,
Errexinolak pozik
Kantetan erautsan,
Lorak egozan arro
Zelai ta landetan,
Soinera barriakaz
Lurra agiri zan
Iturritxoetan,
Ura murmurketan,
Ibai garbietan,
Zeruak berriz ziran
Biziro pintetan.

II Arpegia ain argi
Eukan eguzkiak,
Begiratuteko duin
Etziran begiak,
Artuko eutsezala
Inguru guztiak.
Inok ez eban uste
Ain laster odeiak
Baina pila andiak,
Baltz eta zuriak,
Ain izugarriak,
Laster burrukarako
Zirean jagiak.

III Peru agura zarra,
Pobretxo jantzirik,
Edur gisan burua
Oso zuriturik,
Ezin ebalta bota
Oinkada arinik,
Egoalako urtez
Gutziz astundurik,
Urbiñan urtenik
Goizean goizetik,
Bizi zan etxetik,
Arantzazura doa
Promesa eginik.

IV Eguzkia gorde zan
Alako batean,
Estalgi baltza jakon
Jazarri aurrean,
Peruk zelan ez eukan
Etxerik urrean,
Mendian aurkitzen zan
Igo bearrean,
Sasoi ederrean,
Larogei urtean,
Bizita lurrean
Elgean goruntz doa
Baina aldatsean.

V Trumoia asiten da
 Burruka soinuan,
 Tximista bat austen da
 Peruren onduan,
 Aretx bat birrintzen dau
 Sarturik barruan,
 Gizona larriturik
 Jausten da soruan,
 Ain une gaiztuan,
 Eta txit estuan,
 Al eban moduan,
 Birjina Arantzazuko
 Deitzen dan beinguan.

VI Elorri batera zan
 Nekez urreratu,
 Bere anparupean
 Jarrita geratu,
 Arria zan bertatik
 Goitik abiatu,
 Orri eta erramak
 Ugari apurtu,
 Aiseak azkatu,
 Euren putzak txistu,
 Odeiak urratu,
 Errekak euriagaz
 Bertatik gaineztu.

VII Batetik zarra eta
 Bestetik sustua,
 Errukari egoan
 Peru gisajua,
 Egun artan baraurik
 Tripea ustua,
 Komulgetako ustez
 Garbirik barrua,
 Berorik burua,
 Leorrik aua,
 Gorputza oztua,
 Promesa betetako
 Baina pin gogua.

VIII Zaldun bat agertzen da
 Goian atertzean
 Gordin osagilea
 Zana Barrundian,
 Peru gisajoaren
 Tokira jastean
 Nai nok esango leuke
 Alan ikustean,
 Ain taju tristean,
 Bakartasunean,
 Leku urrinean,
 Lagunduko eutsala
 Al eban ainean.

IX Euria ebalako
 Barriz abiatu,
 Zalditik an jatsirik
 Gordin zan geratu,
 Baina eskurik onek
 Ez eutsan luzatu,
 Ezta begi onakaz
 Bere begiratu,
 Ain gitxi lagundu,
 Iksurik estu,
 Noz eban atertu,
 Agurrik egin baga
 Gordin zan aldendu.

X Zaldira zelan igo
 Munatxo batetik,
 Asten jako lau oinan
 Arinka bertatik,
 Gordinek bridai sendo
 Tiratuagaitik,
 Aberea gelditzen
 Etzan orregaitik,
 Doa arri artetik,
 Naiz sastraketatik,
 Zein bide ertzetik,
 Bota arte nausia
 Lurrera gainetik.

XI Entzuten da bertatik
 Dei bat ain estua,
 "Neure gogortasunen
 Au dot kastigua!"
 Arritzen da onegaz
 Peru gisajua,
 Karidadez bizturik
 Ikustera dua,
 Txit errukitua,
 Oso samurtua,
 Gordin arrizkua
 Troka baten jausirik
 Dakus zelaitua.

XII Berak gura ebana
 Egin ebanean,
 Tximista legez iges
 Zaldia bajoian,
 Egon arren ain makal
 Peru gorputzean,
 Laguntzeko usteaz
 Al eban ainean,
 Zearo autortu,
 Zer zan an gertatu,
 Damua agertu,
 Gizon bat ain dongaro
 Zalako amaitu.

XIII Bigunek eutsan dana
Entzun arduriaz
Errukitutzen zala
Osalarilaz,
Eta miraturik
Peruren fediaz,
Bujakan erabilan
Jateko gauziaz,
Ardao ta ogiez,
Gaztai ta aragiaz,
Al eban guztiaz,
Erripa ain txarrean
Leku labanean,
Arrisku artean,
Pozik aurkituten zan
Beeratu zanean.

XIV Baina Gordin egoan
Lekura eldurik,
Dakus au pultsu eta
Arnasa bagarik,
Buru arri ertzak
Erdi bi eginik
Azkenetan dagola
Oso sinisturik,
Txito samurturik,
Belaunikoturik,
Jaunari gogotik,
Erregututen deutsa
Arimeagaitik.

XV Erregu txit luze bat
Egin ebanean,
Oitura dan legetxe
Kristinau legean,

Ila bertan laga ta
Aldats garratzean,
Igo ezinik dabil
Atx mutur artean,
Eta goi aldean,
Begiratuean,
Txakurraz nasteen,
Bigun eizaria dau
Ikusten bidean.

XVI Oh! Bigun eizaria!
Eustan laster deitu
Zurturik ots onegaz
Egin zan geratu,
Peru nozbaiten jakon
Nekez urreratu,
Puskaten atseden ta
Berbaz abiatu,
Indartu eban Peru
Galdua gosiaz.

XVII Azkenez esan eutsan
"Jaunak nai izan dau,
Gaur zure birtutea
Peru ondo probau,
Bere Probidentzia
Egizu alabau,
Berak oi gaitu bada
Guztiok gobernau,
Beragaitik dirau,
Ta dabil mundu au,
Berak ekarri nau,
Estutasun onetan
Zaidazan anparau.

304

Antonio ARZAK

EUSKAL-ERRIKO PERLAK

(Madame d'Abbadie-ri)

I Dizdizariak, egiazkoak
Jaunak zerutik botatakoak,
Odeiak ura daukan bezela
Euskal-biotzak gordetakoak,
Dira: malkoak!... Ixurtzen ditu
Gau eta egun mundu osoak,
Baina neretzat ezтира inon
Euskal-errian bezelakoak!...

II O erri maite maitagarria
Malko iturri guztiz garbia,
Maitasunaren, sentimentuen
Eta negarren kabi txikia!

Pena bat daukat! sinistanazu,
Zuri begira, ai! etorria,
Gaur edo biyar zu emen utzirik
Zeruetara, gabe! joatia.

III O Jaun aundia! ... zer da zuretzat
Zeru ederra onat jaxtia
Ikusirikan nere erriak
Dizun maitasun paregabia,
Ikusirikan onen fedia
Dena garretan irazekia,
Ikusirikan, Aita laztana!
Zurea dala guzti-guztia?

IV Begira zakitza zeru goietik,
Zure Ama du bere jabia!
Beti elkarrekin izango dira
Euskal-erria eta Maria!
Ta lur ontatik Amerikara
Dijoanean Euskal-umia
Antxen darama bere kolkloan
Amatxo onen kuttun ezia!

V An!... besoetan, aurtxo a zala,
Euskaldun amak jarritakoa
Erakatsirik bere aurrari
Jesus! esaten, izen gozoal
Erreguturik Kristau-Legean
Ez bizitzekotz aingerutxoa
Il dedila, bai! ... beso aetan
Egin dezala betiko loa!

VI Orazio au Zerura joanik
Zerutik dator malko tantoa,
Eroririkan perla eder onek
Esnatutzen du ume gaixoa,
Eta ikusirik amaren negar
Eta arpegi dolorezkoa,
Aur txikiari jaiotzen zaio
Beste perla bat ederragoal!

VII Azitzen dator; beste ama bat
Irtentzen zaio bere bidera
Mundu ontako gauz on guztiak
Maitagarriri agertutzeroa,
Jaun bat, lege bat eta Erri bat
Nola dituen erakustera,
Mundurik-mundu gure artean
Sekulan ilko eztan Euskera!

VIII O, nere Ama! Etorri zera
Gaur gu Markinan laztandutzeroa,
Etorri zera zure semeak
Pozaren pozez txoratutzeroa,
Etorri zera gure lengoko
Atzekabeak txit aztutzeroa,
D'Abbadie jaun ta sari emaileak,
Malko batekin eskertutzeroa!

IX Baina... O Ama! Ama Euskera!
Zure semeak goaz iltzeroa,
Sufrimentuak bialtzen gaitu
Zeruan zutaz itz egitera!...
Sufritu degu aski, Amatxo!
Baldin gaiztoak izan bagera
Iltzerakoan zugana gatoz
Arren! gauza bat zuri eskatzera.

X Ama Euskera! ain oña zera
Aditu zazu gure erregua,
Zure aurrean egiten degu
Azkenik gure testamentua,

Paper beltzean, malkoz bustirik,
Gure eskuak izkribatua,
Agoniako ordu estuan
Animatikan jaiotakua.

XI Esan zaiezu gure aurrari,
Gutaz galdetzen duten orduan,
Gu il ginala ezin bizirik
Euskal-Legea! galdu damuan,
Lege santu au daukatela gaur
Oitura onak! beren barruan,
Ta, zu! zaudela sekuletako,
Jaunak jarria oen kontuan.

XII Esan zaiezu il arteraino
Bizitzeko, bai! mendi onduan
Erakutsirik, Ama garbia!
Zer usteltasun dagon munduan!
Esan zaiezu beren biotzak
Idukitzeko beti Zeruan,
Ixuririkan malko tristeak
Gure ezurak diran lekuan!

XIII Ama Euskera! Ama Euskera!
Orra non diran gure umeak,
Zer? eztituzu ezagutzen?...
Negar gizonak! negar andreak!
Negar gizonak, lotsarik gabe!
Lotsaturikan ez egiteak,
Biotza ere igartu digu
Izandu degun doakabeak?

XIV Ez mila bider!... Atoz malkoa!
Itzakin ezin esantakoa
Zergatik zeran ixil-ixilik
Izkuntzen izkuntz gain-gainekoa,
Zergatik zeran, o ur tantoa!
Sentimentuen itsas beroa,
Zeinaren bagak mugitzen duten
Gure animen ontzi gaixoa!

XV Atoz!... zu gabe ontzi gaixo au
Ondar leorrez ingurutua,
Eztaikit nola joan al liteken
Ikututzero Zeru-portua,
Baina badakit malko batean
Joaten bazaio, umil! sartua
Besoak zabal! datorkiola
Gure Jaungoiko errukitsua!

XVI O nere erritar biotzekoak,
Ainbeste negar egintakoak!
Azi ditzagun, zuzen! aurtxoak
Erakutsirik gure malkoak!
Ederrak dira dolorezkoak!
O!... eta, zeinen baliosoak!...
Munduan orla bizitakoak
Dira Zeruan zorionekoak!

EUSKERAZKO IPUI JATOR BERRIAK

I

AZERIA ETA ZAKURRA

Biak zijoazela
Bein bide batean,
Ikusi zuten gizon
Bat bere lanean.
Au zan arakina ta
Aragiya austen,
Puskak zer nai modutan
Zituela uzten.
Azari zarrak zion
Esan zakurrari,
Ostu zaiogun puska
Aundi bana orri,
Kontatuko dizkiat
Nik bat, bi, iru, lau,
Eta lau esatean
Sartuko gaituk rrau.
Esan ta egin biyak
Asirik batean,
Azeriya tranpaz zan
Erori bidean.
Eta zakurra joanik
Gaitz pentsatu gabe,
Egin zan an lau puska
Aundiaren jabe.
Bainan jabeak zuben
Lapurtzen ikusi,
Eta segitu zion
Labana ta guzi.
Zakurrak nabaiturik
Trantze ain lariya,
Bota zuben abotik

Bere aragiya.
Gizonak berriz kaso
Egin gabe oni,
Oraindikan segitzen
Zion zakurrari.
Nai zuben kolpatzeko
Bera arrapatu,
Geiago aragirik
Etzion lapurtu.
Eta... da arrapatu
Zubela egija?
Bai... bestek... an lurrean
Zegoan aragiya.
Azeriya eginik
Puska arren jabe,
Jabea gelditu zan
Aragirik gabe.
Baita zakurra ere
Ederrak artuta,
Berriz lapurtutzeko
Gogoak kenduta.
.....
Onek erakusten du
Bear dala jakin,
Kontu aundiz ibiltzen
Pilo zamarrakin
Geitxo fiatzen dana,
Beren esanetan,
Gaizki irtengo dela
Lautatik irutan.

II

ASTO ALPERRA MINEZ

Asto bat biziro maiz
Gelditzen zan minez,
Oso puztuturikan
Mugitu ezinez.
Okuiluan zeguala
Bein txit aundituba,
Beste asto bat deitu
Zuten medikuba.
Eta onek lehengo
Pultsuba arturik,
Galdetu zion zeukan
Jateko gogorik.

Erantzun zion baietz
Ederra zeukala,
Apetituen paltaz
Ala etzeguala.
Ezin ezaguturik
Medikubak mina,
Esan zion atera
Zezala mingaina.
Ain ere gaitz arrazik
Etzion ikusi
Bainan sendatu nairik
Alaz eta guzi,

Asi zitzaion sangri
 Aundi bat egiten,
 Odol txarrik bazeukan
 Andik zedin irten.
 Oh! asto kottaruba!
 Tranpak eta penak,
 Orduban argitara
 Irten ziran denak.
 Odolaren tokiyan
 Aizea zan asi,
 Zulotik txistu joaz
 Zijoan igasi.
 Beste asto larruban
 Egonik sartuba,
 Ura zan zekarrena
 Aizez puztutuba.
 Min paper ura zuben
 Egiten ikasi,
 Nai zubelako lanik

Egin gabe bizi.
 Bainan ziotenean
 Gaitza ezagutu,
 Ostikoka zioten
 Altxatzen lagundu.
 Ala andik aurrera
 Astean sei makil
 Bizkarrean puskatzen
 Zizkatela zan il.
 ...
 Emen ikusitzen da
 Dabilena tranpan
 Nekeztxo beren, bera
 Erortzen dala an.
 Inor engainatubaz
 Nai dubenak bizi,
 Ez dezakela azken
 Onikan ikusi.

III

ZAKURRA ETA EULIYA

Zakur gaizto gaizto bat
 Urguiloz jantziya,
 Zan animala txiki
 Guzien nausiya.
 Igual zan non pistiyak
 Ala egaztiyak
 Porrokatzen zituben
 Mendeko guziyak.
 Bein kejaz oek denak
 Bildurik batera,
 Euli zar bat zan denen
 Erdira atera.
 Esanaz inork ere
 Artu gabe minik,
 Denon partetikan gaitz
 Egingo diot nik.
 Nerekin daukat ongi
 Zorroztuba lantza
 Seguru du gaurdandik
 Izango mengantza.
 Ala segiran joanik
 Zakur txarragana,
 Arkitu zuben lotan
 Lurrean etzana.
 Eta zulaturikan
 Gogor ezpainean
 Jatsi arazo zuben
 Lau anken gainean,
 Andikan joan zitzaion
 Gero bizkarrera
 Eta zakurrak ezin
 Zubela atera,
 Ixilik zion onek

Esan mutil bati,
 "Kendu nazak euli txar
 Ori bizkarretik,
 Bainan ez, ez, ez kendu
 Bizkar gain orretan
 Makilarekin jota
 Akabazak bertan".
 Ixilik esan arren
 Aiturik euliyak
 Prest paratu zituben
 Bero ego biyak.
 Eta jotzeko altxa
 Zanean makila,
 Euliya joan zan andik
 Leku obe bila.
 Orduban azpikoak:
 –"Ez jo", zion esan,
 Bainan makilazoa
 Ordurakoz an zan,
 Ala eginikan bi
 Puska an egurra,
 Gelditu zan kostilak
 Ausita zakurra.
 ...
 Onek erakusten du
 Gaiztoa danari,
 Gaitz eginiaia sortzen
 Zaiola denari
 Eta indarrez inor
 Ez naiz izan gauza,
 Txikiyak diotela
 Egingo mengantza.

IV

ASTOA ETA TXIMUBA

Biyak zuten nagusi
Bat merkataria,
Ibiltzen zana beti
Peririk periya.
Eltzez kargaturikan
Joaten zan astoa,
Janaz belarra eta
Noizik bein lastoa.
Tximubak komediyak
Zituben egiten,
Jendeari par asko
Zion eragiten.
Gazta eta gaztainak
Baitzituben jaten,
Eta bide guztiyan
Fumatzen zan joaten.
Ala zijoazela
Bein bide batean,
Zutela nagusiya
Zerbait apartean
Tximur txar petralari
Zitzaion burura
Tentatzen asitzea
Asto umil ura.
Eta galdetu zion,
Astua, zertan zan
Ura bezela tximu
Zertan jaio etzan.
Erantzuera eman
Zion segiduban,
Astoak ere bear
Zirala munduban.
Berak zekala bada
Berak sobra pena,
Astoaren partez ez
Tximuba izana.
Gero galdetu zion
Dantzatu nai zuben,
Dantzatuko zirala
Biyak nai bazuben.
Esaten baziozkan

Itz bi belarriyan
Dantzaz asiko zala
Gatzontzi aundiyan.
Oni erantzun zion
Jolas ona bazan,
Adituko ziola
Zer nai zion esan.

Ontan tximuba joanik
Belarri batera,
Zigarro punta zion
Bota barrenera.
Eta jarri zanean
Tximiniya ketan,
Astoa arrantzas zan
Dantzaz asi bertan.
Lau anak altxatutzen
Zituben batean,
Bazirudiyen joan nai
Zubela aidean.
Bera zan tronpetero
Ta bera dantzari,
Gabriolak egiten
Zituben ugari;
Bainan alako batez
Ler eginik oso,
Anka batekin zuben
Egin estropozo.
Eta eroririkan
Kargazoi ta guzi
An zituben gaineko
Eltze denak ausi.
...
Onek erakusten du
Jostailuk diranak,
Laguntzat kontatzeko
Ez dirala onak.
Eraginazo nairik
Txorakeri parrak
Ekartzen dituztela
Askotan negarrak.

V

AZERIYA ZAKUR JANTZIYAN

Azariyak mozturik
Atzeko isatsa,
Nai izan zuben artu
Zakurraren antza.
Ala onen larrubaz
Tapatuturik ongi,

Oilo usaian joan zan
Basarritz basarri.
Sarri usandurikan
Bat biziro ona,
Itzegiteko zuben
Bilatu gizona,

Zeinari esan zion
 Minez egon zala,
 Eta lur mudatzera
 Zijoala aara.
 Bada baldin bazuben
 Ark gustoa ala,
 Bertatik zerbitzari
 Geldituko zala.
 Gizona arkiturik
 Eraro itz artan
 Geldi zedila bada
 Esan zion bertan.
 Etziran zortzi egun
 Pasa geldituta
 Non asi zan nabaitzen
 Egaztien palta.
 Geroz etzan egunik
 Etzanik bat galtzen
 Da esatea andik
 Oilorik paltatzen.
 Ontaz kejurikan
 Zegoala gizona,
 Zakurrari otsegin
 Zion beregana,
 Esanaz. –"Zertan eztek
 Egiten zaunkikan?
 Ire zaunkik eztiat
 Aitu oraindikan.
 –Jauna, erantzun zion,
 Ez nezake egin,
 Zeren detan oraindik

Artzen aboan min.
 –Egin zak, esan zion,
 Bigarrenko txandan,
 Zer zaunka modu dekan
 Nik aitu dezatan.
 Orduban zan zaunkaka
 Zakur ura asi,
 Bainan zaunkatzat zuben
 Egiten kikiki,
 Onetan igarririk
 Etzala zakurra,
 Ezpada azeriya
 Eta bera zarra,
 Gizona mugitu zan
 Eskopeta bila,
 Bainan azari zarra
 Nolan zan abila,
 Ankartetik pasa ta
 Asirik igasi
 Geiago etzan airea
 Pintik an ikusi.
 ...
 Onek erakusten du
 Zerbitzari txarrak,
 Dirala ondatzeko
 Askotan baztarrak.
 Nor dan begiratzeko
 Ongi aurrenean,
 Penaz arkitu gabe
 Denbora joanean.

VI

ZALDIYA, GIZONA ETA ASTOA

Zaldi bat maite zuben
 Bere nagusiyak,
 Zeren osatzen zizkan
 Nai era guziyak.
 Ongi jaten zuben ta
 Etzuben nekerik,
 Nagusiyaren karga
 Ezpazan besterik.
 Bein onek joan bearrik
 Erbeste batera,
 Kaja diru bat zion
 Eman bizkarrera,
 Esanaz: –eraman zak
 Au nere tokiyan,
 Ni oinez bakarrikan
 Juango nauk mendiyen.
 Segiduban asi zan
 Zaldiya kejatzen,
 Zeren zuben karga ark
 Ondotxo nekatzen.

Iritxi ziranean
 Lenengo errira,
 Zaldiyak gizonari
 Jarririk begira,
 Esan zion: –ez det nai
 Aurrera segitu,
 Onla joatekoz nai det
 Bertan nik gelditu.
 Gu ezkera jaiok
 Kajaz kargatzeko,
 Ezpada nagusiya
 Gaiean artzeko.
 Ontatik asirikan
 Gogor ez bai etan,
 Aspertu ziranean
 Biak errietan,
 Justizi bila ziran
 Juan juezagana,
 Zeinen zan astozar bat
 An juez zeguana.

Eta onek lenengo
Aiturik biari,
Kopeta beltzez zion
Esan gizonari.
Etzala karga ura,
Zaldiyarentzako,
Eta ez kajaz berriz
Ura kargatzeko.
Aurrera joan etzeden
Zaldiya nekean
Berak artu zezala
Kaja bizkarrean,
Eta arrekin igo

Zedila zaldira
Segitu zezan joan nai
Zuben alderdira.
...
Onek erakusten du
Tontoen gandikan
Ez ditekela artu
Lezio onikan;
Oek jartzearekin
Juez ta alkate
Izango dala bere
Erriyaren kalte.

VII

GABIRABAREN EIZA

Begi zorrotzarekin
Egonik zalantzan,
Zozo baten ondoren
Gabiraba joan zan,
Eta arrapaturik
Jan kai eder ura,
Mokazo batez zion
Puskatu buruba.
Au zeramala gero
Jateko aidean,
Txori txiki bat zuben
Topoz jo bidean.
Eta berriro kolpe
Tirarik berari,
Utsegin ta zozoa
Zitzaion erori.
Segiduban jatxi zan
Sasiyan gelditu zan
Zozoa artzera.
Bainan trabaturikan

Bera sasi artan,
Irten ezinik preso
Arkitu zan bertan.
Len zana libre eta
Zozoaren jabe,
Gelditu zan preso ta
Zozorikan gabe.
Ala zegoala trantze
Estu artan umil
Eiztari batek bera
Zuben tiroz an il.
...
Maiz da gure artean
Gertatzen au bera,
Gooragi igo nairik
Erortzea beera.
Nai dubenak beretzat
Bakarrik guziya,
Galtzen aitu dena ta
Askotan biziya.

VIII

AZARIYA ETA AZARIZAKURRA

Oilo bat jaten zala
Azariya ari,
Zakurrak eldu zion
Lepotik berari,
Esanaz: –zer ari aiz?
Nondik ostu dek au?
Zeinen erantzun zion,
–Jabeak eman nau.
–Ez jabeak oilorik
Ez dik eman iri,
Gure etxetikan dek
Ostu oilo ori.

–Egiya da au zuen
Etxekoa dala,
Bainan bai eta ere
Ostuba ez dala.
Nagusiyak berak dit
Ageriyan eman,
Ez ditzatan ixilik
Geiago eraman.
Oraindikan esanaz
Ilero ilero,
Emango ditala bat
Au seguru gero.

Bada ez ostutzeko
 Arri oilorikan,
 Ezpaldin badet artu
 Nai balazorikan.
 Itz eman diot ezetz
 Eta au zan dena,
 Lapurtzat egitea
 Da nik detan pena.
 Goazen, goazen, biok gu
 Orain beragana,
 Galdetzera dan edo
 Ez au ark emana.
 Ontan erdi sinistu
 Eginik zakurrak,
 Kendu zizkan gainetik

Bere atzaparrak,
 Eta zijoazela
 Galdetzera biyak,
 Bidean eskapatu
 Zuben azariyak.
 ...
 Onek erakusten du
 Bizitzeko ernai,
 Ez sinistatutzeko
 Edozeini zer nai.
 Begiratzeko len zer
 Izana dan bera,
 Ez deikiyon tiroa
 Erpotik atera.

IX

OILOAK ETA ARRAUTZAK

Lau oilo alkarrekin
 Ziranak bizitzen
 Arrautzak egiten maiz
 Ziran ikusitzen.
 Egunero egiten
 Zuten laubak bana,
 Au zan beren lanbide
 Edo zuten lana.
 Egun batez joanikan
 Arrautz aien bila,
 Neskatxaren tokiyan
 Etxeko mutila,
 Onek esan zioten
 Oilo on aieri,
 Emango ziotela
 Nai anbat janari,
 Nai bazituzten egin
 Arrautzak gordean,
 Ark beste etzekiyan
 Paraje batean.
 Lau oiloetako bik
 Arturik au ontzat,
 Asi ziran egiten
 Arrautzak arentzat,
 Batek egunero bat
 Egiten baitziyon,
 Asi zan egunetik
 Paltatzen etziyon.
 Besteak etzeikiyon
 Jabeak igarri,
 Uzten ziyon bat oni
 Ta bestea arri.
 Ontan ailegatu zan
 Goiz bat txit alaia,
 Au zan nagusiyaren

Eguna ta jaia.
 Eta nola bear zan
 Eltze on bat egin
 Kontatu zuten oilo
 Aietan batekin
 Bada juanikan lauak
 Zeuden parajera
 Zein il sententziya an
 Baitzuten atera.
 Esanaz arrautz gile
 Izandu ez dana,
 Orain izan dedila
 Il bear dubena,
 Eta eramanikan
 Ura sukaldera,
 An il ta sartu zuten
 Jateko eltzera.
 Au ikustez oilo
 Kulpaz kutsutuba,
 Ikaraz larriturik
 Izan zan justuba.
 Urrengo txandan arri
 Eldu etzioten,
 Zuzen segitu zuben
 Arrautzak egiten.

 Ona leziotxo bat
 Au bera guretzat,
 Orra zer etortzen da
 Traidorearentzat.
 Bi aborekin jaten
 Diranak aritzen,
 Desgraziyan denboran
 Dira eroritzen.

ARDIYAK ETA LEGOIA

Ardiyak kejaz ziran
 Joan legoiagana
 Esanaz justiziya
 Nai genduke Jauna.
 Otsoak iya gure
 Artalde guziya,
 Jan dute eta egin
 Beza justiziya.
 Ordena bereala
 Onek eman zuben,
 Berriz ardirik inork
 Lapurtzen bazuben,
 Izango zubela txit
 Kastigu gogorra,
 Bere biziz zubela
 Pagatuko zorra.
 Andikan laster bera
 Eroririk minez
 Aitz zuloan gelditu
 Zan irten ezinez,
 Eta luzarotxoan
 Egonikan ala
 Zulotikan jan bila
 Irteten etzala,
 Arkitzen zan goseak
 Eta zer jan gabe
 Ezin eginik ezer
 Jatekoren jabe.
 Onela zala ardi
 Bi zitzaiozkan juan,
 Kejaz beren umeak
 Ziozkatela jan.
 Aiek jan zitubena
 Otso zar bat zala,
 Eta arren da arren
 Kastiga zezala,
 –Ondo da, esan zien,

Kastigatuko da,
 Bainan orain zat beste
 Gauza bat gogora.
 Nik ura kastigatu
 Edo naiz il arren,
 Nola beste urtea
 Ondoren datorren,
 Orduban ere ezta
 Otsorik paltako,
 Zuen ume berriyak
 Ostu ta jateko.
 Eta onen onena
 Izango da emen
 Nik esaten detana
 Egitea amen.
 Berriz onelakorik
 Ez dedin gertatu,
 Obeko zaituztet gaur
 Sabelean sartu.
 Ala zuen umerik
 Eztu inork jango
 Eta ni naiz gilborra
 Beteta egongo.
 Au esatearekin
 Ilik bi ardiyak
 Ezurrik utzi gabe
 Jan zituben biyak.

 Ispilu ontan degu
 Ikusten argiro,
 Nola dan justiziya
 Egiten garbiro.
 Ez dala basta zuzen
 Hartzea legeak,
 Oker eramatekoz
 Beren egileak.

ESKUARA ETA ESKUAL HERRIA MAITHA

I Eskualdun espainoler frantses eskualdunak
 Gaude oihuz erranez: egun-on, lagunak!
 Gare oro anaiak eta bihotzdunak,
 Izana gatik atze edo ezagunak,
 Elgar ongi maithatu nahiko dugunak.
 Entzun guk erraiteko hemen ditugunak.

II Nabarrak, Gizpuzkoak, Bizkaiak heiekin
 Hirur populu eder bethi dute egin.
 Hirur kondatzen ere gare elgarrekin,
 Laphurdi, Zuberoa, Baxenabarrekin,
 Zuen idurikoak, berthute berekin,
 Seiak guazen aitzina gure lenguaiekin!

III Alaba galdu dugu arreba maitena,
Oro ez bada ere, segur gehiena!
Eskualdun bihotzentzat, ai! hori da pena!
Gutarik urrunduko sekulan ez dena!
Dugin egin entseiu bainan handiena
Berriz zorigaitz berak ez gaitzan engana.

IV Eskualdunen lenguaia, lenguaia ederra,
Izan dadin bizkaitar edo nafartarra,
Gipuzkoar, laphurtar, bai zuberotarra,
Heiekin seigarrena baxenabartarra.
Eskuarak garhaitzen du edozein erdara,
Zeren den ezti, gozo, oroz gain zaharra.

V Mintza gaiten eskuaraz bethi eskualduner,
Lenguaia eder hori dakiten guzietar,
Zaharrer, artekoer, bereziki haurrer.
Erakuts artharekin eskuara haukier,
Hizkuntza bera dute gero ondokoer.
Gazte hauiek utziko mende guzikoer.

VI Eskualdun liburua gure eskuetan
Dezagun maiz erabil etxe barne hetan,
Edo itzal azpian pausa denboretan,
Goizetan, arratsetan, arte libroetan,
Bainan oroz gaintetik meza-bezperetan,
Hitz batez, ahal dugun aldi guzietan.

VII Liburu hetan bada bat ongi egina,
Eskuara katixima, bertzenaz dotrina,
Gauza onez bethea, hobeki ezina,
Haurrer ikasaraz hau hastetikan fina,
Heier saria eman dohakoten dina.
Izanik ere gastu, jua gaiten aitzina!

VIII O, zein Herri maitea den Eskual-Herria!
Airea da sanhoa, osoki garbia,
Ausarki alhorretan arthoa, ogia,
Bai eta arboletan fruitu on, eztia,
O, zer lakhet-lekhua, gutaz onhetsia!
Han dugu eremaiten bakean bizia.

IX Ene amak bulharraz hemen nau ni hazi,
Sorthu naizen lekhuan nahiko naiz bizi,
Hemen ene ogia lanaz irabazi.
Nahi naute zenbeitek lurrez aldarazi.
Zeru berriak niri ezagutarazi.
Jende enganatzaile hoiekie begotzi!

X Nola, zutarik urrun, oi! ene etxea,
Sor-lekhuko Eliza, ezkila-dorrea!
Nola zu utzi ahal xara, baratzea,
Ene etxeko landak, oihana, phentzea!
Etzaitut galdu nahi sor-herri maitea!
Bai, bai! izanen zare osoki enea!

XI Orkhaitz egarrituak lehia urera,
Bidean akhituak, oi! bere etxera!
Desterruan dagonak sor-lekhu maitera!
Zertako gu kondena dolu-min berera!
Ez gaiten ez beraz, jua nunbeiko lurrera
Ahaidetarik urrun nigar egitera!

XII Hola eginez ez da Eskuara galduko,
Arbasoen lenguaia ez da ahantziko,
Ondokoek gaituzte bethi laudatuko,
Gure Eskual Herrian zaiku lakhetuko,
Gero ta gehiago guk hau maithatuko.
Horra zer zen, anaiak, zuer erraiteko.

307

Klaudio OTAEGI

MARKINAKO EUSKAL-PESTAI DIOSALA

I Lainu meak urratu ditu eguzkiak:
Urrez jantzi dirade baso ta mendiak;
Intzeko perlaz haratz eder ta zelaiak.
Uzta aberatsez masti eta sagardiak

II Egokiago dute txoriak kantatzen;
Itur txuloak mur mur geiago egiten:
Ardi bildotsak beeka ez dira gelditzen.
Ez ta orriak ere piriarka isiltzen.

III Ote dira alabantzak zeru goietara
Edo bendizioak gure Euskal-errira?
Ez dakit: baino otsamar oen bidez gera
Goizago altxatu ta goaz Markinara.

IV Auzoetatik datoz atso agureak,
Ezkonberriak eta ezkondu gabeak,
Mendi muinotik beera pozkidaz beteak.
Batzuek kantari ta oiuka besteak.

V Aiton gordinen soinak dira antzinakoak.
Burni utsaz gudadzen ziradeneakoak;
Prenda batzuek noski, auskalo noizkoak...
Gernikako aritzen era berekoak.

VI Zeinen politik dauden galai ta neskatxak
Jantzirik ain egoki soin txuri berdinak!
Iruditzen zaizkigu beltzarga bandadak
Aintzirako bagetan arin dabilznanak.

VII Arpegiak etxeai dizkie garbitu:
Atal-aurreak txukin izetsaz posatu:
Leiotik zintzilika eskaiak paratu:
lak eta loreak kaleetan banatu.

VIII Zergatik dute aurten apaindu orrela
Erri maite polita inoiz ez bezela?
Euskarari pestak ah! diote dirala;
Ikusi ez diranak Markinan sekula.

IX Goizetik ari dira dorrean ezkilak
Zeruko Erreginari egiten agurrak:
Koruan organo ta kantore biguinak
Gure Jaungoikoari ematen eskerrak.

X Kalez kale dabilta danbolin txistuak
Jotzen zortziko edo soinu zar neurtuak:
Itxedoten gazteak plazara bilduak
Zoraturik, egoki artzeko puntuak.

XI Begira txerko artan zenbat uso txuri
Jira eta biraka dabilten dantzari,
Onra aundi bat eginaz d'Abbadie jaunari
Euskal-erriko erle argidotarrari!

XII Gogoan izango du gure lur maiteak,
Orrek esnatu ditu euskara zaleak,
Itz larri ta neurtuen izkribatzaileak,
Euskararen onean sari emaileak.

XIII Konparsa egileak eta dantzariak,
Bertsolari egoki ta pilotariak,
Tuntun-txistu jotzaile ta palankariak,
Irrintzigileak ta korrikalariak.

XIV Orri darraikiote napar bizkaitarrak,
Prestatuaz urteero euskal-pesta ederrak,
Alkartu naian zinez menditar azkarrak,
Berririo gozatzeko gure Lege zarrak.

XV Nola parretsu ez da egongo Markina,
Etorri bazaiozka gaur berarengana,
Lau senide prestuak, eta gainera ama,
Besoak zabaldurik bere umengana?

XVI Utzirikan alde bat otin gorrotoak,
Martek biralitako jaiera gaiztoak,
Badituzte moldatu Euskal-elkargoak
Amari txukatzeo ai! negar malkoak?

XVII Berandu bedeik ere, baditu ikusten,
Aitorren denborako dantzak berrituzten,
Usadio zar danak berriro piztuzten,
Euskara maiteari bizia ematen?

XVIII Ez du laino txuri ark, an goian, begira,
Aita Juan Antonio Mogelen itxura,

Etorri nai baluke bezela onera
Itzkuntz-guda onetan parte artutzeraz?

XIX Ez derizkiotzute txaloka dirala
Bere lagun guziak ari eginala,
Jaungoikoak agindu balie bezela
Pesta oen baimena eman dezatela?

XX Korde gabe bezela inoiz geratzean,
Ez dezute aditu jargoiren oinean,
Euskaldun bat zerura egaatzen danean.
Alborada ematen koroatu artean?

XXI Entzun ez dituzute urrezko lirakin
Larramendi da Erro Astarloarekin,
Andre Vicenta Mogel beste askorekin
Euskaraz kantatuzten boz ezitsuakin'

XXII Ez dezute aditu esaten azkenik.
Ez dala inon ere ain izkuntz ederrik
Egin bedi argia esan ezkerotzik?
Asko gizon jakintsu ikusi ditut nik

XXIII Emango lutekenak zer nai diru gauza.
Balezateke euskara ederrean mintza:
Eta ala ere zenbat munduan dabilta.
Euskaraz itz nai ezik, ez da bada au lotsa!

XXIV Naiz parreak erazi, itz egin naiean
Izpirik ez dakiten izkuntz arrotzean!
Jakin arren besteak, mintzatu gaiten
Arriturik mundua daukan izkundean.

XXV Humboldt aundia etzan euskaraz mintzatu'?
Bonaparte Lenenak, ikasi ez ditu
Euskal-izkera denak, eta argitaratu,
Jakintsuak zai zeuden ainbeste liburu?

XXVI Ea bada mutilak! jostatu gaitezen
Soinu zarrak piztuta moduz dantzatuzten:
Ez beinere aspertu euskaraz mintzatzen:
Gure aiton erneak, zeinen maite zuten!

XXVII Gaitzik gabeko oiturak, gorde aztu gabe;
Zeren aingerutxoak sortuak dirade:
Egun txarrak etorri bazaizkigu ere,
Iragoko dira, ez izutu batere:

XXVIII Benturaz dira izango gure onerako;
Egin ditugun utsak ongi garbitzeko;
Euskal-erriko seme onak elkartzeko;
Ama urrikaltsuren osasunerako.

XXIX Pozerazkidak pesta oen egileai.
Euskal-guda au onera ekarri dutenai:
Zorionak, egiaz biotzetikan ai!
Zeruak emen para dituen ibarrai.

308

Joanes OXALDE

KANTU BERRIAK BURDIN-BIDEAREN GAINEAN, AGORRILEAN, 1883AN

I Ohore merezi du Papin jakintsunak,
Orai dela bi mende zentzuz mintzo zenak,
Harrek baitzuen erran, ur bero lanoak
Higitzen zituela kargarik dorphenak.

II Geroztik lothu ziren burdin-bideari,
Zoina ezin moldatuz hanitz baitzen ari,
Azkenekotz abilki baitzuten ezarri,
Atsegin egiten du munduan askori.

III Urak duen indarra zoin den baliosa,
Munduko obretarik ageri da ontsa,
Burdin-bidetan juhan tu hanitz karrosa.
Heien arrabotsak du iduri orzantza.

IV Urrun entzun daitake harren irrirtzina,
Hortaz abisatzen du aiduru dagona:
Hurbil dagonarentzat, zer oihu saminal!
Xoratzen du burua minbera duena.

V Denboraz aditu da erraiten jenderi:
Deus gisaz ez bainuke hortan sarthu nahi,
Noren ganik othe du indar handi hori?
Hortan ez da bertzerik baizik galtxagorri.

VI Iklusirik on dela hortaz gozatzia,
Den lekhu guzietan da bai onetsia.
Piyayan direnentzat zer bozkalentzia!
Gasturik ere ez du oinezko erdia.

VII Laster ditu berriak urrun helarazten.
Saldu erosi gauzak merke eramaiten,
Egun Baionan dena bihar da Parisen,
Negozioa hola baitu emendatzen.

VIII Burdin-bidea dute ordu onez egin.
Har dezagun hortakotz guziek atsegin:
Errextasun handia baiterauko egin,
Juan gitezen ospeka Lurderat pelegirin.

IX Benedikatua da hango ithurria,
Hartaz frangotan baita sendatzen eria,
Ararteko harturik Birjina Maria,
Jendendako hauxe da laguntza handia.

X Bisitatuko dugu Lurdeko harpea:
Han agertu zelakotz Birjina maitea,
Guretako han dago graziaz bethea,
Zabaldu nahi dauku zeruko athea.

309

BONIFAZIO ETXEGARAI

GOAZEN MARKINARA

Martxa honen musika Felix Ortiz y San Pelayok sortu zuen Markinan kantatu zuen Orfeón Eibarrés-entzat.

I Goazen anaiak Markina aldera,
Goazen guztiyok kantatzen,
Begira nola Euskal-Erriyan
Danak diraden poztutzen,
Nola diraden alaitasunez
Eta otsarez betetzen,
Ikusirikan zer fest' ederrak
Markinan diran ospatzen.

II Goazen guztiok Euskal soinuak
Kantaturikan gogotik,
Euskaldun gauzak gure kantuz
Odoieta jasorik,
Bizkaiko zelai, aitz ta mendiak
Arkitzen dira mugirik,
Beren aurrean ikusten diran
Fest ederrakin suturik.

III Goazen agudo Markina aldera
Entzun dezagun sansoa
Ikus dezagun Lekobideren
Semeen izantz osoa,
Goazen guztiyok aditutzero
Bertsolariyen jokoa,
Gure lurrean miragarriri
Gorde dan jolas gozoa.

IV An ikusitzen diran gauz danak
Dirade gure gureak,
Ospatzen diran festa guztiyak
Euskaltasunez beteak,
Lekobideren erri gozoan
Gizaldiyetan gordeak,
Lur onetako seme danentzat
Egiyaz guziz maiteak.

V An entzuten da danbolina ta
Jotzen dituzte txistuak,
An edurturik ile bizarrak,
Dauzkaten gizon prestuak,
Dabiltza dantzan aditurikan
Euskaldun zarren soinuak,
Ikusirikan Euskal oiturak
Feniz antzera piztuak.

VI Ala mendiyen dirurik gabe
Bizi diraden gizonak
Nola jauregi galant batean
Dirudun bizi diranak,
Txit atseginik kantatzen eta
Dantzan dabiltza dan danak
Fest oriyekin azturik beren
Naigabe, pena ta lanak.

1884 SARA

310

Piarres IBARRART

USO SARETAN ATZEMANA

I Sorthu naiz ipharrean, udaren hastean,
Uso ume bakharra ohantze batean;
Ait´amek naute hazi lumatu artean,
Zoriona gozatuz hiruek bakean.

II Mundurat agertzean biluzia nintzen,
Amattok luma pean ninduen berotzen;
Hazkurriaren biltzen aita zen ibiltzen,
Nork erran ni ttipian zonbat gusta naizen?

III Gaztegi nuen egin ohantzetik jauzi,
Lagunen sinhesteak daut eginarazi,
Sasirat erortzea nuen irabazi,
Amaren bihotzmina ordutik zen hasi.

IV Ume zentzu-gabea, zer zautzu gerthatu,
Ongi lumatu gabe nahiz hegaldatu?
Ez da behar mirua gidaritzat hartu,
Ez bertzen erranari sobera fidatu!

V –Zure hegalak aski luzatu orduko,
Osto eror denbora zauku ethorriko,

Ipharretik hegora gare airatuko,
Ni segituz ez zare bidean galduko...

VI Amari eman hitza nuelakotz hautsi,
Eskual-Herrian nintzen saretara jautsi,
Handik hegaldatzea ezin ardietsi,
Ihiztari zaharrak nau kaiolan hetsi.

VII Han nindagon orduan nigar saminetan
Biziaz etsitua, ikara zainetan,
Amarekin beharra aldaxka gainetan,
Sarthua ondikozko presondegietan.

VIII Iguzkia zenean bixtatik aphaldu,
Ihiztariak zuen athea zabaldu,
Lotzera zohalarik nuen enganatu,
Eskuaren azpitik zalhu eskapatu.

IX Zonbat uso oinezko, hegalik gabeko,
Ihiztariak aiher hetaz jabetzeko!
Kasu egin dezaten ez naiz ixilduko,
Bertzela saretara tuztela bilduko...

311

GAETAN

ANDERE LUZIARI

I Andere Luzia,
Ikusi zaitut atzo,
Denbora guzia
Deneri mintzo;
Zure grazia
Haintz ederrez
Naukazun gordea
Nigarrez.

II Jainko-oiloa
Duzu iduri,
Hori biloa,
Larrua xuri,
Ta begi urdinak,
Pullitak oinak,
Gorphutz lerdena,
Ongi egina.

III Frantziatik hasi
 Espainiaraino,
 Ez dut nik ikusi
 Zu bezala batño;
 Eskual herrian ere
 Gixakoena zare,
 Eztia bezen ezti
 Izan zare bethi.

IV Andere Luzia,
 Segur izan zaite
 Bihotz guziaz
 Zaitudala maite;
 Ta hemendik goiti
 Maitaturen bethi
 Ez dut zu baizik
 Gogoan deusik.

312

HARAMBOURE, Ziburukoa

GIZON BURIOPHETSU ETA SINESTE GABE BATEN BIZIA ETA HERIOTZEA

I Munduak badu egun espantua franko,
 Xitxipitxi enetzat gaizki mintzatzeko;
 Hitz bat erran behar dut ene garbitzeko,
 Zauri txarrak ditudan denek jujatzeko.

II Asmu handiak ditut gaindiz duazenak,
 Alaber hitz guziak xuri xuri enak,
 Urratsak ere segur bethi zuzenenak,
 Notarik gabekoak ene obra denak.

III Tronu bathean nago gora altxatua,
 Ez naute ikusiko nihoiz aphaldua,
 Ene botherea da urrun hedatua,
 Bakotxak kentzen deraut bere gaphelua.

IV Belauniko lurrean ez naiz ni ematen,
 Ni baino goragorik ez dut adoratzten,
 Erran zahar guziez aise naiz trufatzen,
 Ni naiz eta ni baizik ez dut ezagutzen.

V Beltzak eta xuriak dauzkat ikaretan,
 Bengantza, gastiguak ditut eskuetan,
 Handi edo ttikiek ene aldaketan,
 Aphal kurritzen dute oren guzietan.

VI Erromesaren ona hitzez dut bilatzen,
 Ematen dudan baino gehiago agintzen;
 Zenbat gizon ez dut nik hola enganatzen,
 Ene alderat nihoiz ez naiz ni trunpatzen.

VII Abilenetarik naiz hartzekoen biltzeko,
 Axolarik gabea zorren pagatzeko,
 Gastosa konpanian alferra laneko,
 Zer nahi egiten dut aise bizitzeko.

VIII Ungi jan hobeki lo daramat bizia
 Nahiz iresten dudan ebatsi ogia,
 Hemen erran behar dut garbiki egia,
 Hauzoko erroak du ene jelosia.

IX Arrosa hixtuenak naute inguratzen,
 Julufrai argailenak nik ditut maitatzen,
 Horrela bizitzea ez naiz ahalkatzen,
 Munduthiarrek naute goraki laudatzen.

X Atsein likitsak dire ene berthuteak,
 Hola pasatzen ditut aiseki urtheak,
 Orai hanitzak gare sineste gabeak,
 Tzarrak izanen dire gure haur gazteak.

XI Ehun urthe bainitu hemen bizitzeko,
 Har nezake oraino atsein tzarra franko,
 Bainan herioa zait lasther ethorriko,
 Sortzeari hiltzeaz zorra pagatzeko.

XII Lahar hori bakotxak dakarke ondolik,
 Orhoitzapen latzena ezin ken burutik,
 Espantuka haiturik bainua mundutik,
 Nere buriopeak arras itsuturik.

XIII Nola bizi hala hil da errankizuna,
 Zorigaitzean ez da segur zoriona,
 Bide makurrenetan maiz dabil gizona,
 Besarkaturik tzarra ustez duen ona.

XIV Ethorkizun bat baden nahi nuke jakin,
 Norbeit heldu balitzait berri segurekin,
 Bainan nik zer bildu dut egin gaizkiekin,
 Bestiaki hiltzen naiz sineste tzarrekin.

Monsieur
 D'iciant donnez cette amica-ai mes pnia basques en
 Vostre je vous prie de me dire si vous conviend qu
 je le donne chez vous. Les frais n'ont pas Echavri en outre
 au plus à cinquante pesetas, les autres étant tous à ma charge.
 Dans le cas où Echavri accepterait je vous prie de me
 répondre en plus tôt afin que je fasse annoncer à vos collègues
 vos pnia alors de me dire la date du jour que vous
 auriez choisi. En cas d'un refus, tout je ne vous demanderais
 pas le motif, je vous prie de me répondre aussi par la
 même des amours afin que je m'adresse ailleurs en Navarre.
 Comme vous n'êtes pas obligé de composer le français je vous
 envoie aussi en basque un mot priant d'y excuser mes fautes de
 langue.
 Je vous prie d'agréer l'assurance de mes meilleurs sentiments
 et de vous en dire adieu.
 30 juillet 15
 Antoine d'Abbadia
 rue de Bac, 120 Paris.



Yama Anzopiza
 Nemin gaincan frantzesez galdogizilen dantzat zure
 berriak nahi dituzte eta berriak aurten errezibituko. Berriak
 gogoriatu eta gaitu.
 Nahi edo ez, atari, ahol bezein laster niri erantzutek
 igorizadaga Parisarat. rue de Bac 120
 Euz goraingotekin
 Anton Abbadiak



Anton Abbadiaren gutuna Etxarriko alkate Zipriano Jauregiri (1885-VII-15) (BNP, naf., 21746, f. 421)

1885 SARA**313****Agustin ETCHEVERRY****MARIA ALEGIAZKOA***Airea: Intxauspeko alaba dendaria*

I Arratsa zen. Negu hasi berrian,
 Maria da kiloa gerrian,
 Bere gelan iruten hari xoilik.
 Kantatzen du boz batek kanpotik:

II –O! Maria, ene maite bakharra,
 Ager zaite aphur bat leihora.
 Zeru-goran usu dire izarrak,
 Haizeari gan zaizko indarrak.

III –Haitz adarren erasiaz bezenbat
 Zure kantaz axola darokat,
 Ezen noha utzirikan leihora
 Itxas-solan arrain bihurtzera.

IV –O! Maria, zu biziz ganbiatzen,
 Arrainera bazare bihurtzen
 Arrantzale banoha ur-handitan,
 Zu bizirik hartzera saretan.

V –Arrantzale gaixoa itsasoko
 Zuk sareak hedatu orduko,
 Ni, xoria, hegastin arin, airez
 Larhez-larhe gan niro hegalez.

VI –O! Maria, zu aireko xoria!
 Eginen naiz, ni, ihiztaria.
 Zainduren ´tut, zure oihan sasiak,
 Pusa-lekhu-aldaxka guziak.

VII –Xori, epher, kaila pasa denboran,
 Zu segaden hedatzen hastean,
 Ni lorea, sorth nindake, bet-betan;
 Gordez hantxet landa sorhoetan.

VIII –O! Maria, sorhoetako lore
 Margarita egiten bazare,
 Idortean, xirripa naiz sorthuko.
 Nik freskatuz ez zan histuko.

IX Ur-xirripa, garbirik zu sortzean,
 Ni, hedoia nindake airean.
 Ihes ganen itsasoz batzaldera,
 Ameriken azken desertura.

X O! Maria, hedoririk ederrena,
 Ikhustean zu gora igana,

Itsasoko haizea naiz eginen
 Nik arinik zaitut eremanen.

XI Itsasoko haizea zu sortzean,
 Jar nindake izarren gainean.
 Iguzkia!... lurrak maite duena,
 Elhur, hormak, hurtzen dituen.

XII O! Maria, zu iguzki ederra,
 Sasi-pean ni aldiz muskerra.
 Ahoz zuri, higa niro bizia,
 Zuri khenduz ene hats guzia.

XIII –Zuk hartzean muskerraren bizia,
 Ilhargira nindake ganbia.
 Nik diotet sorgineri gauen
 Argituko akhelar bidean.

XIV O! Maria, gauaren ilhargia,
 Ikhustean zure aurpegia,
 Ni, lainoa altxa niro lurretik,
 Gau guzian gordeko zaitut nik.

XV Lainopetik ezin badirot argi,
 Ez nindake zuri beha geldi.
 Ni, arrosa, lore bote guzian
 Zabaldua, jar niro sasi.

XVI O! Maria, zu jartzean arrosa,
 Ni, apexa nindake urosa!
 Ethortzean, oi zure aldaxketan
 Pausatu-ta hegalez airetan.

XVII Zoaz hortik, zoaz, aldi huntako,
 Saretara ez nauzu bilduko.
 Lehenago bilhakaturik ni haitz,
 Mendietan bakez biziko naiz.

XVIII O! Maria, arbolarin itxuran
 Sorth bazinte nonbeit mortuetan,
 Ezker-aien bozik niro bilhaka,
 Bizitzeko zurekin besarka.

XIX –Besartean hartu nahi banauzu
 Haitz zahar bat tinkatuko duzu.
 Jauntzi xuri, ni, serora lasterrik
 Komentuan nindake sarturik.

XX –O! Maria, komentu zerratuan
Kaperatik zu kantaz hastean,
Oihartzuna atzar niro bozturik,
Zure boza eneturen dut nik.

XXI –Oihartzuna, komentuko barnetik
Hilen kanta zinuke bakharrrik,
Hedatuko haran urrunetara.
Herioak ni gorphutz zillhora.

XXII O! Maria, zure hil-ezkiletan,
Suntsiturik zu izatekotan
Egin niro zure hobiko lurra.
Han enea zintazke segura.

XXIII –Egiazki orai zaitut sinesten,
Ez nauzula faltsoki bilhatzen.
Erheztun bat, ori ene erhitik,
Beira zazu nitaz orhoiturik.

XXIV O! Maria, bozkariotan nago.
Zu leihorat agertu orduko;
O! Maria, beha zeru-gainari,
Nola diren izarrak itzali.

XXV –Neskatzaren gaztetasun ederrak
Arduratu bidean etsaiak.
Gorde beraz, zure bihotz guzia,
Amodio eta aurpegia.

314

HARAMBOURE

UME-XURTX ERROMES BATEN AUHENAK

I Auhenik minenetan boza dut altxatzen!
Oinaze saminetan nola den aditzen
Ama galdu ondoan *neeka* bildotxa:
Orobat datza nitaz, ni naiz ume-xurtza!

II Gazte eta ezdeusa, indarrrik gabea,
Hemen naiz bakartua haur dohakabea.
Ni bezala dathorke munduan bakhotxa!
Urrikal zaizte nitaz, ni naiz ume-xurtza!

III Eskua luzatzen dut sos bat izateko,
Gose dut hanitz eta ogia jateko.
Ez othe dut balio lurreko mamutxa?
Urrikal zaizte nitaz, ni naiz ume-xurtza!

IV Udan hala neguan, ene janaria
Ogi beltz puxka bat da nigarrez bustia,
Edarizat errekan ithurritxo hotxa.
Urrikal zaizte nitaz, ni naiz ume-xurtza!

V Iz-hotz, elhur, hormekin hotzak gogortua,
Soin eta jauntz-garriez erdi gabetua,
Su tiki bat phizteko eskas dut korbotxa!
Urrikal zaizte nitaz, ni naiz ume-xurtza!

VI Egunaren ondotik ilhuna denean,
Etzatekotzat zer dut?... lastoa lurrean,
Alkitxo apha! batek ordainduz lumatxa.
Urrikal zaizte nitaz, ni naiz ume-xurtza!

VII Bederen argi banu hara han uhartza!...
Ethorkizunak deraut goibeltzen bihotza!
Geroaz eritua, nork naitzake altxa!
Urrikal zaizte nitaz, ni naiz ume-xurtza!

VIII Aita belhar on bat da, ama samurrago,
Eskasa sentitzen da galdu eta gero!...
Aiher ez dut hetarik, naitzakenik goxa!
Urrikal zaizte nitaz, ni naiz ume-xurtza!

IX Aita amen jabe zaizten, haur lagun gazteak,
Bihotzetik ez urrun burhaso maiteak:
Hek aldean banitu zer bizi errex!a!
Urrikal zaizte nitaz, ni naiz ume-xurtza!

X Zoin da hemen barnea ez dena hautsiko,
Nigar hau ikusirik nigar egiteko?
Haurtxoa naiz batetik, bertzetik nexkatxa,
Urrikal zaizte nitaz, ni naiz ume-xurtza!

XI Sehaskatik hobirat, bide luzeena
Gizoneri zaiote maizik laburrena.
Orena bada, Jauna, bethorkit hil-kutxa!
Urrikal zaizte nitaz, ni naiz ume-xurtza!

XII Zeruko ene Aita, guzien nausia,
Xoriñoak zu ganik noiz du eskasia!
Maite duzu usoa, halaber belatxa.
Urrikal zaite nitaz, ni naiz ume-xurtza.

MENDIGAINEN KOFESIOA BAIGORRIKO XANTREARI

Airea: *Ikusten duzu goizean...*

I Eskual-Herri ederrean,
Ait-Ama onen artean,
Haur bakharra naiz etxean.
Giristinoki naute altxatu
Artharik handiengan,
Atxikiz bere menezan,
Bethi erakuspenean,
Zuhurtziaren gainean.

II Haur xumea nintzelarik,
Ez omen nuen parerik,
Maithagarriago zenik.
Bainan arguila ondikozkoan
Nere gogoa emanik,
Ez ginuen zorionik;
Ez bainuen maite lanik,
Ez burhasoen erranik.

III Jarri nintzan hanpatua,
Soinekoz aberastua,
Nere buruaz hartua.
Altza-lilia udan bezala
Nora nahi airatua,
Maite nuen deskantsua,
Bestak eta merkatua,
Hori zen ene gustua.

IV Lore bat nintzan bixtako,
Eder jauregi bateko.
Aberatsen herrunkako,
Iphurdi faltsu zaia bilduan,
Sorthua nintzan orduko,
Ezin phara belhauniko,
Gutiago kokoriko,
Gisa nindagon mendiko.

V Aberats bat zen ohartu,
Niri begira gelditu.
Eta lagunei mintzatu:
"Mendigaineko Maria zauku
Gu bezalaxe beztitu,
Nork ezaguturen gaitu,
Aberats garela sorthu,
Zer behar dugu phentsatu!"

VI Bestetan nintzan ernia,
Lan egunetan nagia,
Ohatzean egoilia.
Amattok oihu egina gatik:

"Hots! jeiki hadi, Maria".
Lo nindagon alegia,
Ezin argituz begia,
Zer etxe altxagarria!

VII Jeiki ondoan deskantsuz,
Bethi mirail bati buruz.
Bilhoak ezin aphainduz.
Gero urhatsa nuen ikhasten
Gibela firurikatuz,
Gerria mehe trinkatuz,
Hatsik ere ezin hartuz,
Bethi nindohan mendratuz.

VIII Zentzuz erromes bainintzen,
Guti nuen ezagutzen
Ongia nondik heldu zen,
Uste bainuen lumaren gatik
Zutela xoria hartzen.
Hortaz nintzen enganatzen,
Nehork etzautan behatzen,
Ni idurikoek baizen.

IX Noizbait ama abiatu,
Behar nintzala sanjatu,
Nik ongia gaizki hartu.
Ba, bainan aita hasten denezan,
Galtzak soinean baititu,
Harek ninduen izitu,
Bortxaz nuen obeditu,
Gero ez zaut urrikitu.

X Ordutik naiz kanbiatu,
Bizitze berri bat hartu
Maithagarri bilhakatu.
Lohirat zohan lili ederra,
Aldaketan da gelditu,
Niri hala zaut gerthatu,
Ait'amek naute salbatu,
Eskerrak deiztet bihurtu.

XI Mendieta zelhaitik,
Garazir'Amikuzetik,
Zuberora Laphurditik,
Urguiluaren arbola zauku
Hedatu den gainetik.
Aski handi da ingoitik,
Pika dezagun errotik,
Bethikotz Eskual-Herritik.

316

Manex HARGINA, Donapaleukoa

NERE LEIHOTIK

I Nere leihotik ikhusten dizit
Andereño bat ederra,
Hari hementik ez palitz izit
Egin nezake gortia.

II Nere leihoak erdi hetsirik
Egoitenako guaitian,
Bainan berinak zabal geroztik
Itzaltzen zata barnian!

III Abendoako egun beltzetan
Sartzen denian ekhia,
Lanho idor bat zoko guzietan
Hedatzen da nola khia.

IV Nere bihotza molde berian
Jartzen zata ilhundurik,
Xarmagarria juaiten denian
Ihesi nere bixtatik.

V Zeren maitiak batu bi begi
Zeluko izarren pare!
Larria xuri, ezpainak gorri!
Hortz perlak herrekan ere!

VI Ederra badu harek itxura
Ederragoa bihotza!
Haren etxetik ez da biharra,
Elki sekulan gosea!

VII Negian xori papo-gorriak
Ez du kanturik emaiten,
Ogi aphurkez, nere maitiak
Xoriñoa du bazkatzen.

VIII Leiho batetik bertze leihorat
Dakot nik ere eskatzen,
Bainan neretzat ez da irri bat
Haren ezpainetan sortzen.

IX Jo eginen dut haren athean
Eskale batek bezala,
Ordian segur, ustegabeen
Zabaldiko du behala!

X Zer nahi duzu? dio maitiak
“-Bihotzaren erdia!”
“-Athea zabal, zerra leihoak,
Ukhanen duzu osoa!”

317

Martin OREGIZ, Oragarrekoa

ALHARGUNTSAK HAURRA LOKHARTZEN

Air: *Neuvième récréation de piano, par M. Ad. Le Carpentier, sauf la 2ème mesure musicale supprimée (dans le couplet)*

Refrain:

Lo! lo! lo-tan!
Egizu lo nere besuetan!
Lo! lo! lorietan!
Amaren besoetan.

I Zertarako da zure zortheta,
Geroko diren denboretan?
Zeru-lurren gizon izaitea,
Aldare-aitzin ederretan?

II Zer izanen da hunen nahia,
Galai gazte atheratzean?
Mundurat othe duke lehia,
Andre maite baten hartzean?

III Erresumak ezartzen badio
Eskuetan bere ezpata,
Odola emanen othe dio?
Deus ederragorik ez baita!

IV Legetiar izan nahi bada,
Makhur direnen xuxentzeko,
Eremanen dute behar-bada
Erregerekin mintzatzeko!

V Nekhezaletarik behar balitz
Aita onena zuen bezala,
Lur, abere, oihan, sorho hainitz
Badugu, denek har ditzala!

VI Eta lur, oihan kanpo barneak,
Aski gobernatzan baditu;
Diru, bihi, andre, haur erneak,
Ohorezki izanen ditu!

VII Apez, gertari, legetan handi,
Edo gizon nekhazalea,
Bethi Jainkotiar izan hadi,
Haur ene kontsolatzailea.

VIII Uzten haut orai aingeruekin!
Ohakotik, oi! ametsetan,
Ikhus'ak ama hirriz hirekin!
Ikhus'ak aita zeruetan!

Refrain pour le dernier couplet.

Lo! lo! lotan!
Lo egin ohako goxo hortan!
Lo! lo! lorietan!
Ohako goxo hortan!

318

AN. "ORHOITZEA"

FRANTZIAREN BANDERA EDERRA

I Guardia dezaun ba gure kuraia,
Horren lakuntzeko, bardin gure bizia,
Segiturik hanix izanen dira lorian,
Etsaia leherturik lurraren beherian.

II Biotzik badea Frantzian dukena ahalea
Erreztan ikusteko nazionean ohorea,
Basakeria bada zenbait arimetan
Bederen dukezu bakarrik orietan.

III Nork ez duke barnean sendiera gozua
Ikhusiaz betikotz garaitzen etsaia,

Gure suia gartua zertan behar dugu
Horrendako salbu biltzeat entsaiatu?

IV Lehen ibiltzen zen Frantzia ohorezki,
Orai zertako da joaten hain trixteki,
Zorikaitza bada munduan edatia,
Fitexko baluke bolborak erraustia.

V Laster ethor bedi banderen librantza
Erresuma guziak emanen du botza,
Ikusteko noizbeit frontierak airatzen,
Orguilu arrotza arratsian galdutzen.

319

AN., "ORHOITZEA"

ADIO!

I Joaten zirea beraz eskergabia
Utziz hola zure sortze tokia!
Uzten gitzu joateko itsasoz
Zuri guziak atxikiak amodioz!
Fortuna zer da munduan besterik
Bizitzia bezik den maitaturik.

II A bazindu falta deusetaz ere
Badukezu zerbait hemen 'e zure,
Diruan amia sartu dea biotzian?
Eskual erritik untziz aruntzian,
Juanen zirea beraz, ahanzkorra!
Begitan ukan gabe nigarra!

III Itsasoan untzia abiatzearekin,
Gogoz norbeit baduzu zurekin,
Egunaz, gauaz, bixtan 'e zitu,
Nun behar othe duzun finkatu:
Lotu zindazkon arimaren erdian
jauz'izazu, bai, zeruko bidian!

IV Bainan oraino, hotz geldi zira,
Hemen berian fidel izan zite,
Han! Beharbada, ha! Jakin 'zazu,
Zenbat lanjer handi ez dukezu:
Adixkide bat hurbil ukaitia
Hun dela bethi badut intzutia.

320

AN.

BIZIO BAT HERRIETAN DA

Airea: Aussitôt que la lumière, etc.

I Bizio bat herrietan da zoriz hedatua,
Familen zorigaitzetan Satanek asmatua,
Lehen emaztea zuen sagar batez beretu,
Oraikoak lillurutzen edari onez ditu.

II Iguzkiaren azpian zer gauza itsusia,
Balentzan nekhez dabilan emakume hordia,
Begia harro leki, biloa hartzitua,
Zaiak abian behiti, mihia loditua.

III Halako amaren haurrak zer bilhaka ditezke?
Ahalke gabe neskakak, mutikoak arlote,
Non ez diren muga dela ama ganik haztantzzen,
Izurripetik bezala, sor-lekhutik urrutzen.

IV Zoin den kaltekor, otsoa ardi-bordan sarthua,
Bai-ta azeri gaiztoa oilotegiratua,
Areago da emazte edailea etxean,
Jauna bera sal lezake hark egarri denean.

V Oi! Zenbat pipota husten den gure herrietan,
Emazteak dire omen bi herenentzat hetan,

Izari hori heientzat soberaxe da naski,
Hargatik ordiarentzat badohazke ausarki.

VI Hoinbertze emakumeak nondik duke egartsu?
Emasabel baforeak dakartza estakuru:
Ahiduraz itzaltzerat barnea dioako,
Agorient hurrupa bat zaio baitezpadako.

VII Askotan gizonak badu berak oben handia,
Emazteak balin badu edatera pendia,
Itzultzen zaio hordia, phesta merkatutarik,
Asteko artho-saria ostatuan utzirik.

VIII Dohatsu gizona laite, andrea eta haurrak,
Arrosorioz balire xoilki hazi beharrak:
Nahi bezain diren tinki bateginak ezkontzaz,
Biak ez daitazke haz, batek iresten duenaz.

IX Jan eskasaz ilhundua emazteak zer egin?
Konkuilu maithe hura hartuko du berekin,
Ikhusten badu andrea nahasia edanak,
Askiko du egitea *mea culpa* gizonak.

1886 URNIETA

321

Karmelo ETXEGARAI

MENDITAR BATEN KANTUA

I Urruti nere menditik
Joan nintzan dirutu nairik;
Urrutiyetan laster biotza
Naigabez erdibiturik,
Gelditu nintzan tristerik,
Pake santua galdurik.

II Nere biotza zegoen
Euskal-Erriyan pensatzen
Egun guztiyan, gaubaz oro-bat
Beti zitzaidan oroitzen,
Zer gozo nintzan bizitzen
Aurtxo nintzanean emen.

III Gogoan nuen etxea,
Gaztain artean gordea:
Mendiska baten agertutzen zan
Eleiza txukun maitea,
Bertako ezkil-dorrea,
Ainbat oroitzez betea.

IV Arkitzen nuen guztiya,
Zan neretzat mingarriya,
Denak gogora ekartzen zidan
Mendiyan nuen biziya,
Ango pake naigarriya,
Ango zorion eztiya.

V O mendi biyotzekoa!
O nere kabixuloa!
Zugan neretzat diz-diz eginik
Dago izate gozoa,
Ala nola intz-tantoa,
Apaindurikan ostoa.

VI Txori bat bere kabiyan,
Dago pozez lertu naiyan,
Ala ni ere akitutzen naiz
Nagoenean mendiyen,
Gaztaina zarren azpiyan,
Aitonon jaiio-tokiyan.

VII Emen igande goizean,
Mezara ezkilak deitzean,
Zenbat oroitza gozagarritzko
Senti ditut biotzean!
A zer poza barrenean
Eleizarako bidean!

VIII Orduan egun-sentiyak
Argi zituen mendiyak,
Ezkiil-soinuaz batera zuten
Gogoz kantatzen txoriyak,
Loreak, intzez bustiyak,
Zabaltzen zeuden orriyak.

IX Dena zegoen ederrik,
Guztiya pozez beterik,
Intza, loreak, txoriyak, dena
Zoriona kantaturik,
Baina guztiyen gainetik,
Ni negoen atsegirik.

X Ez naiz, ez, Jauna geiago,
Nere menditik joango,
Aitzurrak nere lagun dirala
Baserriyan naiz biziko,
Zuri eskerrak emango,
Pakez bete nazulako.

322

Juan Jose ALKAIN

BIBA SAN MIGEL!


(Done Migel Goi-Aingeruaren onran itz neurtuak)

I Bertso berriak jartzera nua
San Migel Aingeruari,
Talentsuak baldin bagina
Gaia badago ugari.
Orretarako laguntasuna
Eskatzen diyot berari
Errespeto edo humildadian
Zerbait itzegin balegi.

II Kaso onetan biharko dana
Espelikaziyo garbia
Doai pixka bat izanagatik
Ez naiz euskaldun trebia.
Liburutik ere ez det baliyo
Estudiatu gabia,
Urtia franko memori txarra
Au ez da modu obia.

III Gure San Migel estimatuba
Da espiritu puruba,
Errespetuan itzegin zadan
Argi zadazu buruba.
Ezpatarekin jarrirek dago
Guardatu dezan Zeruba
Aita Eternuak emana dauka
Merezi duben graduba.

IV Luzifer eta San Migel ere
Biyak lagunak bai ziran
Pentsamentuzko disputa zuten
Askoren zorigailtzian.
Irutatik bi bezela zeuden
San Migel zure itzian
Gainerakuak instante batez
Infernuetara jua ziran.



K. Etxegarai, A. Kanplon, J. Urkixo, Tx. Agirre, S. Mujika eta J. K. Gerra (ezkerretik eskuinera)

V Aingeru onek otsegin ziyon
 Bere ezpata jasorik
 Luzifer orren soberbiari
 Ez egiteko kasorik
 Aita Eternuaren konpainiatik
 Ez emateko pausorik
 Ango gloriyaz kontentu ez danak
 Ez du juizio osorik.

VI Aita Eternuaren justizia da
 Gauza ikaragarriya
 Irutatik bat bezela bazan
 Luziferrena jarriya,
 Ango legia justuba data
 Bete zitzaion neurriya
 Juan ziranak ikusten dute
 Geroz istilu gorriya.

VII Manifestatzen astera nua
 Daukadan sentimentuba
 Berak galduta gu ere galtzeko
 Da oien pensamentuba
 Deskuido gabe gorde dezagun
 Jesusen lege santuba
 Anparatzaile maitagarriya
 Eduki gure kontuba.

VIII Ala gera ta aitortzen degu
 Pekatariyak gerana
 Mantxa au degu Adan ta Ebak
 Egun batian emana
 Sentidu au da sermoietatik
 Inoiz aditu dedana
 Relijiyuaren defensoria
 Izan da izango zerana.

IX Bekatariyen anparatzaile
 Aingeru eder maitia
 Eskusa gabe aitortzen dizut
 Daukadan borondatia,
 Desio degu Jesus onaren
 Konpainiara juatia,
 Peligro aundiyan arkitzen gera
 Gutzaz akorda zaitia.

X Kuidado edo atentziyua
 Iduki zazu gugana
 Asko anima nor bere faltaz
 Infenuetara juana
 Obra guziyak pisatutzera
 Etorri biagu zugana
 Errukarriya geldituko da
 Txarretik asko duana.

XI Obra gaiztuak pisubaguak
 Dirade jeneralian
 Peligro asko nun nai daukagu
 Baserriyan ta kalia,
 Pisu oiekin lagun zaguzu
 Zedorren eginalian,
 Zori onekua izan gaitezen
 Jaunaren tribunalian.

XII Luzifer dauka bere ankapan
 Zerutik igesegina,
 Bera galdu zan gu galtzen ere
 Saiatzen da alegina,
 Pisuban nola disimulatu,
 Obra gaiztuak egina
 Orrek ez luke inor galduko
 Garbi juango bagina.

XIII Beste gauza bat itzegiteko
 Artu det pensamentuba
 Satanasek du leku guziyan
 Naiko persegimentuba,
 Lurrian geren buru jarrik
 Daukagu Aita Santuba
 Eliza ondo guardatu dezan
 Eduki zazu kontuba.

XIV Luzifer orrek mundutarrentzat
 Du asko erremediyo,
 Tentaziyuak pensatzen ditu
 Inork laguntzen badiyo
 Eliza eta gu persegitzen
 Gau eta egun seriyo
 Orko laguntza falta badegu
 Ez degu asko baliyo.

XV San Migel zure presentziara
 Denboraz degu bisita
 Modu oberik ez det espero
 Beste aldetara asita,
 Zure laguntza esperatzen det,
 Ez nago oso etsita,
 Al balitz garbi jua nai nuke,
 Mantxa guziyak utzita.

XVI Ia San Migel aingeru ederra
 Itz ontan egon gaitian
 Aita San Pedrok bere giltzakin
 Dago Zeruko atian
 Pisu eder oiek birtutez bete
 Zure aurrera juatian,
 Orko gloriyak goza ditzagun
 Eternidade batian.

BIZI BEDI JESUS TA IL PEKATUA

I Pertsona asko juaten da
Ameriketara,
Bisita bat eginaz
Bertatik bertara,
Aberastiagatik
Badakit zertara
Relijiorik ez dan
Paraje artara.

II Juaten dira mutil da
Neskaxa gaztiak
Emen trataturikan
Beren ajustiak,
Batzuek gonbituan
Bildurrak bestiak,
Ur orrek beti ditu
Mudantza trisiak.

III Urak pasatu eta
Gero legorrian
Ez dira ailegatzen
Postura ederrian.
Persegimentu asko
Begiyen aurrian
Zenbait gertatzen dira
Estadu txarrian.

IV Inozente daudenak
Juaten dira pozik,
Ez dagolako diruba
Juan da artu baizik.
Batzuek ez dirade
Aberasten kasik,
Aspalditxo juanak
Franko daude utsik.

V Juan da pilatik artu
Balego diruba,
Askok egingo luke
Juateko moduba,
Nekatu biar gorputza
Gainera buruba,
Ala ere aberastia
Ez da seguruba.

VI Biziyuetan egin
Makina bat gastu,
Irabazi bai baina
Sobratzia aztu,

Danian lasai bota
Aitutzian estu,
Milaka dijuaz ta
Gutxi aberastu.

VII Asko izaten dira
Gastatzen trebiak
Irabazteko baino
Artako obiak,
Ondasuna balego
Badira jabiak,
Nun nai du lanik asko
Konduta gabiak.

VIII An ere kondukta au
Gauza prezisua,
Argaitik ematen det
Nere abisua,
Ura da paraje bat
Txit peligosua
Erruki det nik ara
Dijuan gaisua.

IX Emenguak badaude
Komerziantiak,
Gizon deliberatu
Oso prudentiak,
Ematen badiote
Ondo suertiak
Alako zenbait daude
An diruz betiak.

X Tratatzia askori
Oi zaio gustatu,
Lendabizi diruba
Biar da prestatu,
Lenago irabaziyak
Aguro gastatu
An jende azkarra da
Ez asko jostatu.

XI An persona batzuek
Ondo dira bizi,
Familia ederrak,
Egin eta azi,
Edozein aldetara,
Diruba irabazi
Aiek fama txarrikan
Ez dute merezi.

XII Guziz peligrosua
Da ango bizitza,
Ez pensatu au dala
Gezurrezko itza.
Errespetua dago
Konserbatzen gaitza,
Enkargubak ematen
Apropos gabiltza.

XIII Asko izaten dira
Juateko trebe
Egingo diralako
Interesen jabe.
Emen saia gintezke
Ara jua gabe
Bertan enpliatzia
Askoz degu obe.

XIV Arako biajak
Ez bizi poztu,
Pilo samarrak beintzat
Txit dabilta estu.

Jaungoikorik danikan
Geienari aztu
Asko juaten dira ta
Gutxi aberastu.

XV Ura puntu txarra da
Persona askorentzat,
Nik gure probintziya
Naiago neretzat.
Onena eskojitu
Bakoitzak beretzat,
Au dago Amerika
Langilearentzat.

XVI Pasajeruentzako
Amasei bertso berri,
Enkargurikan gabe
Ez ditugu jarri.
Batek diktatu eta
Bestiak ezarri,
Nola gustatzen diran
Jakingo da sarri.

324

Jose AMEZTOI

APHEZAK AURRARI

I Aurra, nola zabil mundu gaixto untan?
Gozamen bakarra nere pen anditan
Bederen zu izanik dena nitzen poztutzen,
Jainkoa zu baitan bainuen bilatzen.

II Arima batentzat Jainko guziz ona
Egin zaiku gizon, maite tuztena.
Zuretako, Erramon, ixuri du odola
Orai nuke zuretatzat egin ark bezala.

III Jesusen aphezek ez dute bakerik
Non ez diren iltzen aurak salbaturik.
Nik ere nere aurra ez zaitut or utziko,
Non ez baitnaiz iltzen zure libratzeko.

IV Bat bertzien alde gu biak bat ginen
Amodio berak banatu gintuen
Baten damuaz biak osoki damutuak,
Elkarren nigarrez ginen nigartuak.

V Pozik balin bazen biotzen pizteko
Oial txuri on bat nigar txukatzeke,
Zure boza entzutuz alegeratzen nintzen
Nere negar minak zintuen garbitzen.

VI Ola bizi ginen Jangoiko aurrean
Jesu maitearen biotzen barnean.
Non baitzauku agertu arrano itsusi bat
Gu biak il gaitu al zuen bezinbat.

VII Neretako zinen aur nere semea,
Zuretako nintzen aita bat maitea,
Aita seme bezala Jainkoaz banatuak,
Elkarren biotzez gu ginen artuak.

VIII Aitatasun bia badire munduan,
Arimaren aita leen da buruan.
Zenbatenez, Erramon, arima andiago,
Anbatenez andi aren aita dago.

IX Zure arim'onak asko du balio
Jesussek bizitza oso eman dio,
Jainko baten neurria beaz arimak daka,
Nola bada aurra ez gan zure xerka?

X Arimaren aita da guziz andia,
Gorputzaren aita ez dago erdia,
Batek ematen digu bizitze bat munduko
Bertziak orduan bizitza zeruko.

XI Aitak eman zaitu gorputzen odola
Nik ordian, aurre, Jainkoak bezala,
Arimaren odola Jesusek ixuria,
Zuri eman zaitut garbi ta txuria.

XII Ortako, Erramon, oso maite zaitut
Zure eskasiak ezin esan ditut.
Gau, egun gelatxoan egoten naiz tristerik
Etsaien beldurraz arima beterik.

XIII Bere biotzaren iltzeko galtea,
Izanen liteke, nere aur maitea.
Zu minez ikustea zoriona galdurik
Nik eman bizitza etsaiak kendurik.

XIV Ortako ni nago beti aitzean
Zure asmu ona biotzen barnean.
Eskatzen dut Jaunari etorri zaitezela
Zure aita ganat lenago bezala.

XV Badakizu aurre zenbat kosta nauzun,
Minez zinenean zer izan ninduzun.
Aldare santuetan emanikan biotza
Goseti eskatu det zuretzat bizitza.

XVI Baratze zain ona galerna denean,
Loretxo pollitak gurtzen direnean,
Arte andi batekin berak ditu estaltzen
Edo adaxkatatz xutik eskatuzten.

XVII Lore baratzean ni nintzen ibiltzen,
Zu zinen erdian goraki altxatzen.
Aize andi gaixtoak etortzen zirenean
Goxoki zintudan gordetzen golkoan.

XVIII Orain zaude, aurre, nitarikan urrun,
Ni nago nigarrez zutarikan alargun,
Ez dakite munduan zer dakagun sofrizten
Arimez alargun gaituztenian iltzen.

XIX Aurre, entzun zazu Jainkoaren boza,
Beti maita zazu ama on Eliza,
Usten balin badezu orain bide xuxena,
Galduko zinduke bizi gozoena.

XX Atoz, atoz aurre, atoz nere ganat
Jaungoikoak nai tu gazteak beretzat.
Naiz izanikan urrun biotz barnean zaude,
Jaungoikoa baitan gu bioak beitgaude.

325

Jose ARTOLA

PATXIKU PILART ETA JUAN JOSE PALART

Patxikuk: Zer ordu ote ziran
orain jo dutenak?

Juan Josek: Zortzienbat kontatu
dizkiat nik denak.

Patxikuk: Zortziyak eta isten
onen goiz tabernak!
geiago eran gabe
ni kontentu ezna.

Patxikuk: *Las once y sereno*
ari dek kantatzen.

Juan Josek: Ez dizkik orain diran
ordubak kontatzen.

Patxikuk: Ire moduban diat
nik ere pensatzen,
apropos ariko dek
jendia tentatzen.

Juan Josek: Tenta dezala, tenta
nai badu amona,
ero bere buruba
betia dagona.

Patxikuk: Badakik gaur zegoala
oso ordo ona.

Juan Josek: Bai ardoa bainan ez
salsaille zegoana.
Goiz bultzaka atera
giotzik barrendik.

Patxikuk: Ala dek pizkatxo bat
eran nai nitek nik.

Juan Josek: Bi pitxer dizkiagu,
eranak oraindik.

Patxikuk: Ez mutil bi erorrek
gaur eran dituk ik.
Mutil ez nazakala,
orrenbeste bultz!

Juan Josek: Zertako tiratzen nak
ik neri onuntza?

Patxikuk: Zuzenago ezin dek
eraman korputza?

Juan Josek: I abil okertuta,
tonto astaputza.

Patxikuk: Pausorik ezin diat
nik irekin eman.

Juan Josek: Zertan abil tiraka
i orlako teman?

Patxikuk: Ala dek... inork preso,
ez gaitzan eraman,
obe diagu sartu
berriro tabernan.

Aurrera mutilak!

326

Agustin ETCHEVERRI

LABORARIA ETA HAREN SEMEAK

Airea: Norat hari zira adiskidea.

I Laborari zaharra alhorren erdian
Hurbildua jaustera, ondikotz! hobian,
Bateratzen tu haur hek bere aitzinean
Eta zaiote mintzo solas huntantxean.

II Sekhulan, ene haurrak, ez sal onthasuna,
Gure arbasotarik ethorri zaikuna,
Eltze-itsu bat urhe baita hartan dena.,
Haitzuraren menean gorderik dagona.

III Nontsu ez dakit, bainan ez har enganioz
Hatzemanen duzue, lanaren medioz,
Higi maiz zuen landa irauliz eta joz,
Ez utz bazterra sasi uzta egin geroz.

IV Aro onari segi, gan mugaz lanetan,
Artha handia hartuz hazi landaretan,
Bethi labora eta bethi lurra harro,
Zer kausi dirozuen jakinen da gero.

V Oraino haur maiteak, erraten diote:
Ostatu plazetarik begira zaitzte.

Mundu peko hauziak utzirik aparte,
Etxolako bakhean gozaturaz zoazte.

VI Aita gan, haurrak landan, erne goiz-goizetik,
Alhorrari lothuak dabilta hazkarrik,
Ez dute largatuko haizurra eskutik
Argitzen ez duteino izarrek zerutik.

VII Lurrarekin borhoka, uda eta negua,
Bazter guzia dute baratze bihurtu,
Uzta ere da gero hainbertze gaiditu,
Non etxola baitute beharko handitu.

VIII Eltze-itsu gorderik landa pean etzen
Bainan aitonak ongi asmatu zioten,
Lanean hariz dela onthasuna biltzen,
Lana baita urhea, orai eta lehen.

IX Zerentzat gan herritik amets urrezkotan,
Nolazpait higatzera mundu berrietan?
Lanean bermaturik urhats zuzenetan,
Urhe franko badaite hemengo lurretan.

327

Piarres IBARRART

BETIRI ITSASUKOAREN BALENTRIA

Airea: Jakintsunen arabera

I Mende bat hurbiltzen da, bainan ez ahantzia,
Nahasmendu handietan sarthu zela Frantzia,
Egun hetan zen Eliza, jabe gabe utzia,
Indar eta onthasunez ondikotz biluzia.

II Gobernuak manaturik Satanen gizon batzu,
Hainitz elizetan ziren hango gauzez jabetu,
Urhe, zilhar eta kobre, zenbat gauza sakratu.
Dirutegiko Etxera zituzten kharraiatu!

III Gurutze, iduzki saildu, bai unti-sakratuak,
Frantziako ederrenak ziren Itsasukoak.
Betirik Eliza-muthil berthute haundikoak
Egin zituen tokiak heien gordetzekoak.

IV Gorde lekuaz Betiri zuhurki zen jokhatu,
Laz-haundi baten gaineko thaula zuen altxatu,
Lazari barnea hustu, untzittoa han sarthu,
Eta bere tokhatzean thaula berriz itzatu.

V Udan egun eder batez goiz jeiki zen Betiri,
Eta egur-zamatto bat Mundarraindik ekharri,
Bipher-berrien frijitzen su-hegian zen hari,
Bat batean etsai beltzak zaizkonean ethorri.

VI Guziek inguraturik, agur, gizon-gaztea,
Legeak manatu dauku zugarat ethortzea,
Elizan ziren gauza hek zureganik hartzea,
Eta manatzen dautzugu hekien agertzea.

VII Jainkoak beira nazala hain flako izaitetik,
Gauza saildu balios hek nehorri agertzetik,
Ez da zuek ez bertzerik mundu huntan gizonik,
Eremanen dituenik gauza hek, nik emanik.

VIII Arneguka hasi ziren etxearen miratzen,
Zokho guzien iraultzen, bazterren inharrosten,
Bainan oro alferretan, nehon deus ez agertzen,
Betiriren gana dire berriz ere bihurtzen.

IX Hasarrean dosteta, burho lazgarrienak,
Lotzen dire Betiriri, hala nola lehoinak,
Su-garretan ziozkaten eman erretzen oinak,
Eta han paira-arazi oinhaze saminenak.

X Batek ziozkatelarik oinak suan erretzen,
Bertzeak xixpa muthurra hortzen artetik sartzen,
Orai duk azken orena, bizia daukat khentzen.
Gauza hek orai berean ez badituk agertzen.

XI Khen zadazue bizia, hola hasiz geroztik,
Bainan ez duzue deusik izan, ene ganik,
Lehenago azken hatsa utziko dut ahotik,
Ezin ez gauza saildu hek goatera Itsasutik.

XII Orenik latzgarriena gisa hortan emanik,
Betiriren berthuteak, heien bihotza jorik.

Utzi zuten laudorior azken hitz hauk erranik.
Bizi ziren gizonetan, etzuela parerik.

XIII Gure aita kantabreak lehenko mendetan
Etziren bihotz gabetzen etsaien hurbiltzetan,
Lehoinaren pare zauden gure mendi gainetan,
Hekien odoletik zen Betiriren zainetan.

XIV Frantzia jarri zenean pausatua bakean,
Untzi hek agertu ziren bazko-egun batean,
Betiriri esker zauden aldareen gainean,
Ederrik daude Itsasun, oraiko egunean.

XV Erakuspen haundi hori Eskualdunei emanik,
Eta bizitze luze bat bakean eremanik,
Betiri gan zen zerurat, bethi prestu izanik,
Martiren lerroan dela ez daukagu dudan.

328

Juan Migel ORKOLAGA

AMA EUSKAL ERRIARI

Sarrera

I Zure seme askotzaz
Urrikaldurikan
Ikusten nazu, ama,
Ontan jarririkan;
Oiei nik nai nuke
Buruak argitu
Gauz onek izateko
Itxurak baditu.

II Zure malko lodiak
Naute gaur bustitzen,
Zergatik jarri naizen
Negarrak aditzen,
Ez ditzazula, arren,
Aunditu begiak,
Bada gaur adituko
Dituzte egiak.

III Orduan laztanduko
Gera bai pozkiro;
Euskaldun zelaietan
Izango da giro;
Orduan Saturnoren
Erreino eztiak
Pozez beteko ditu
Zure semediak.

IV Zuzen zu ibiltzeko
Gazte txit gozoa,
Biotzak ez dezala

Ontan artu asmoa;
Zergatikan zuloan
Eroriko zeran
Berak jarritakoan
Zu galtzeko eran.

V Bada geren biotza
Gurai txarrarekin
Da gure etsai il naia,
Bere aitarekin;
Bada orrela egonik
Guraien azpian
Ez da guretzat onik
Bere itzalpean.

VI Buruz bada ibili
Gauz oek pisatzen,
Zergatik uts aundiak
Zail dira estaltzen;
Burutikan botarik
Asko txorakeri
Sinistu zadazu gaur
Gazte ona neri.

VII Oarkerak eginik
Goazen bai lanera,
Orain ikusiko da
Gauzaren joanera.
Dirade arkituko
Txit gorri lainoak
Oinazkarrez beterik
Dituztela alboan.

I Indiatik datorren

Bati sinisturik
 Ango ugaritasunak
 Dauzka eroturik.
 Uste dute arraiak
 Ilik erreketan
 Usteldurik dirala
 Biurtzen urretan.

II An bada guzirako

Urre ta zilarrak,
 Egiak izateko
 Ez dirade txarrak;
 Diamantezko euriak
 Asko ditu itsutu,
 Bai eta arren soinuak
 Besteak izutu.

III Beste bati tximistak

Ileak suturik
 Ez zuben inguruan
 Ikusi lekurik.
 Ez bada leitza-zulo
 Diamantezkoan,
 Zeina ardi txaboletan
 Oitua zegoan.

IV Burniaren tokian

Leku askoetan
 Urrea ibiltzen dute
 Edozein lanetan;
 Perretxikoak ere
 Jaiorik gabean
 Urre intza dakarte
 Polliki gainean.

V Orrelakoxen aizez

Beterik buruak
 Ikusitzen dituzte
 Emengo zeruak;
 Baina biotzak dio
 Arroki orduan
 Gazte aberatsgaia
 Zoaz itxasoan.

VI Onela ontzirako

Bide irikitzen
 Ekien biotz arroa
 Ez dala gelditzen.
 Gaxoak joaten dira
 Asko ez biurtzeko
 Zergatik diru gabe
 Dauden arkitzeko.

VII Amerikara joanik

Diru egitera,
 Joaten dira lanean
 Irmo ikastera.

Lana eginagatik
 Otzarekin aldiz,
 Diruakin nausia
 Iges joanda zaldiz.

VIII Emendik joan-berrian

Lan irudi txar bat
 Negar egin ez dezan
 Izango du anbat;
 Baina egun batzuek
 Andik igarorik
 Nausiak eukitzeko
 Ez dauka gogorik.

IX Lanak bukatutako

Berri txit saminak,
 Alkar joazten dizka
 Ortz eta aginak.
 Orduan gelditzen da
 Tristuraz galaia
 Baldin bazuen ere
 Arpegi alaia.

X Burua gauz oietan

Lurrean begiak,
 Orain ikusten ditu
 Bere alderdiak
 Karriketan al dabil
 Eroa bezela
 Diru gutxi mendean
 Ezagun duela.

XI Lana topa naiean

Badabil jiraka,
 Gerriak metu eta
 Galtzaudi tiraka;
 Diruak aitu zaizka
 Oraintxen da estu,
 Urrepilik ez zaio
 Inondik aurkeztu.

XII Zaldunen gora bera

Ibili tokian
 Sotildurikan dago
 Eserita alkian;
 Ea bat edo batek
 Lantxoren bat duen
 Zerbait irabazitzen
 Alaxen ote den.

XIII Urrena trenako etxe

Edo estaziora,
 Bide egiteko zaio
 Etortzen asmoa;
 Trenen baten txistua
 Bertan aditurik
 Ez du betarentzako
 Inontxo lekurik.

XIV Aulduak badaude ere
Barautzeakin
Ala ere nai dute
Korrika azkar egin;
Zergatikan nai dute
Iriobi azkarrena
Ateeran ditezen
Egon aurrenena.

XV Auldadiak aitu ta
Ezin anka jaso,
Onelaxen dabilta
Asko gixaaxo;
Aiek emen baleude
Lanarekin jana
Beti izango luteke,
Egia da dana.

XVI Soka zarra lepotik
Zintzilik dutela
Asko ikusten dira
Karrikan daudela;
Oietatikan franko
Emen bizi ziran
Jantzi obearekin
Beren larru-jiran.

XVII Batek kasaka zarra
Besteak lebita,
Beste batek txapela
Zeukan bai jantzita,
Zeina topatu zuen
Gutziz pozturikan
Karkau bateko atean
Oso loiturikan.

XVIII Besteak kanpoetan
Lan txit gogorpean
Diru gutxi eginda
Urteak gainean.
Onera etortzeko
Dina gauza gabe
Sutzen bizi dirade
Makina bat labe.

XIX Urte askok eginak
Egun gutxik jaten,
Egunero ikusten da
Orrela gertatzen;
Bereak aiturikan
Gainera zor egin
Orra zertan diraden
Amerikarekin.

XX Gaitz batek bai alaxen
Arrapatzearekin
Gauz oiek gerta dira
Antxen askorekin;

Zergatikan guziak
Asko du balio
Edozeini ango batek
Tu esango dio.

XXI Denboren bat izan zan
Bai txit aberatsa,
Baina gaur gertatzen da,
Dala gauza latza
Batere dirurikan
Kutxaren ondoan
Ikustea, egon arren
Askoren asmoan.

XXII Gorputzeko ondasunak
Ezin iritxirik
Gelditzen dira asko
Anima galdurik;
Beti arra zulaka
Aririk barrendik
Pozkidarikan gabe
Dijoaz lurretik.

XXIII Gorputz eta anima
Indar da indardunak
Geinetan an dituzte
Bukatzen egunak;
Aiek bada igarorik
Jaunak daki nola
Arduraz gogortutzen
Zaiote odola.

XXIV Nola bada Amerikan
Zure oinak gaztea,
Jartzera joango zera
Ausardiz betea?
Ez dakizu orain bada
Nik esandakotik
Ogirik ez dezula
Izango auzotik?

XXV Ogia emateko
Auzoko txalari
Otxinak bear luke
Ibili ugari;
Baina gaur au urruti
Lur artan izanik
Esteak betetzeko
Ez dute zer janik.

XXVI Batzuek aberastu
Dirade badakit,
Eta au ukatzeko
Ez det nik zergatik;
Baina sinistu zazu
Gazte ez jakina,
Gero an ez dezazun
Izan tripan mina.

XXVII Asko daude astindurik
 Buruko lainoak,
 Onera etortzea
 Nai duten gaxoak;
 Baina ezin erosi
 Ontziko sarrera,
 Orra nola Amerikan
 Dagon biziera.

XXVIII Bertso txar oek bada,
 Jantziak egiaz,
 Iskribatuak daude
 Antxen ikusiaz,
 Besteak aditu ta
 Ango jendeari,
 Ara bi iztxo esan
 Euskal gazteari.

329

Indalezio SARASKETA "Eibarko txikiya"

FAMA AUNDIKO PELOTARI BAT

I Fama aundiko pelotari bat
 Kantuz nai nuke argitu,
 Zeinek ez duben lau modutara
 Kontrariyoric arkitu;
 Ori pelotan ikusi eta
 Zein ez liteke arritu!
 Ematen zaizkan fama guziyak
 Oraindik dina ez ditu.

II Alkandora ta galtza txuriyak
 Buruban boina gorriya,
 Ala plazara sartzen danian
 Guztiz da guztagarriya;
 Buruz abila, anka azkarra,
 Zorrotza berriz begiya,
 Au da blekari danen maisuba
 Au da Eibarko txikiya.

III Bere lekuban jarri ta gero,
 Asten danian jokatzen,
 Gorputz egoki askatu ura
 Zeini etzayo guztatzen;
 Aurrian zorrotz ebaki ero
 Amar kuadrutan luzatzen,
 Askorikanean estutu gabe
 Diruriyela jostatzen.

IV Gorputz liraina, beso libria
 Eta jeniyo z biziya,
 Zatitutzen du arrapatutzen
 Duben pelota guziya;
 Naiz izan bera aundi motel
 Ero naiz izan txikiya,
 Eta kontuban ez dagonari
 Sartuko diyo ziriya.

V Ez da azaldu pelotarako
 Oraindik orlakorikan,
 Lau aldetara onen modura
 Jokatzen jarri danikan;

Pelota non dan bilatuko du
 Zorrozki jua gantikan,
 Au da lan ontan diferentzia,
 Beste guztiyen gandikan.

VI Bere eskuban bildur garriyak
 Dira guantia ta pala,
 Ez da beste bat inon ikusi
 Pelota zatitzen ala;
 Ain bizi eta zorrotz juaten da
 Nola fusilako bala
 Ezagutuba daukate denak
 Maisuba blekan au dala.

VII Xestoz jokatzen asten danian
 Jartzen geranak begira,
 Pozez malkua saltatzen zaigu
 Uste gabian begira;
 Ain da biziya eta ederra
 Aren gorputzen mugira
 Asko baliyo dutenak beti
 Onla guztatzen baitira.

VIII Gazte gaztetik plazaratu zan
 Euskal-erriyan aurrena,
 Famaren otsak eramane zuben
 Andik Madrida urrena;
 Ameriketane ere izan zan
 Itsas zabala barrena,
 Baliyosua beti izanik
 Estimasiyo arrena.

IX Ez da onlako pelotaririk
 Ez da oraindik ikusi,
 Gaurko blekari eder guziyak
 Berekin dute ikasi;
 Baina alare kontra egiten
 Kontu aundiyekin asi,
 Berak bezela ondoren famak
 Nai badira irabazi.



Txikito de Eibar, ezkerrekoa da, Eibarko frontoi zaharrean

330

J.T.D.L. Azkaindarra

ARTZAIN BATEN BIZIA

Airea: Iruten hari nuzu

I Pobrerik sorthu nintzen herri on batean,
Ontasunik ez zuten ait' amek etxean,
Zer nahi gostaia naiz gaztetasunean,
Ama galdu bainuen mundurat heltzean.

II Nolakoa ahal zen aitaren gogoa,
Haurra munduan eta andrea galdua,
Ez dut nik ezagutu ene burhasoa.
Zoin eztia zaitaken amaren gozoa.

III Haurrean eman dauzkit artha hoberenak,
Aitak bere haur bati egin detzokenak,
Kausitu izan ditu adixkide onak,
Neure sokhorritzeko behartu direnak.

IV Trixterik iragan dut ene haurtasuna,
Ikhasi ere gabe zer den atsegina,
Jaunak eman izan daut bethi osasuna,
Hura zen mundu huntan nuen ontasuna.

V Zenbait urthe iragan ondoan karrikan
Gazterik jarri nintzen sehien herrunkan,
Gostu hainitz ez nuen egin beztimentan
Goizik erretiratuz igande bestetan.

VI Egin ditut zenbeit sos soldata ttipitik,
Ardi batzu erosi merkaturat gana,
Karrikan ez delakotz irabaz biderik,
Artzaintzan bizitzeko deserturat ganik.

VII Bizi nintzen bakharrik mendi gain batean,
Etxola bat eginik iduzki aldean,

Kalterik egin gabe lagunuen artean,
Egunak iraganez neure arthaldean.

VIII Artzain alegeraki bizi naiz gorthan,
Kantu batzu emanez ongi albatzean,
Nahi gabe guti dut jasaiten munduan
Bakharrik nagolakotz tranxil bihotzean.

IX Irina ekhartzen dut astean herritik,
Gasna batzu egiten ardien esnetik,
Ez dut deusen eskasik janaren partetik,
Edaria sortzen zaut harroka azpitik.

X Hartzen ditut zenbeit sos bildotsak saldurik,
Ederki bezti nabil hasirik oinetik,
Deus ez dut jasaiteko hotzaren aldetik,
Jauntzi bat egin baitut ardien iletik.

XI Noizian behin jausten naiz bisaia arrairik,
Merkaturat juaiteko untsa aphaindurik,
Xikhiro, ardi, antxo denak alhaturik,
Ederrenak neurekin aitzinian harturik.

XII Eternitiaz ere hasi naiz pentsatzen,
Lan hainitzik ez nuen testament egiten,
Munduan ahaidetik ez dut ezagutzen,
Lagun bati diozkat orai denak uzten.

XIII Jainkoa ez dut bethi untsa zerbitzatu,
Harren manamenduak ez ditut ahanztu
Mezaren entzuterat ez naiz entseiatu,
Hartakotz galdatzen dut orai, barkhatu.

331

Karmelo ETXEGARAI

ABBADIE JAUNA! ZURI

C. Soraluzeren musika

I Abbadie jauna! Zuri
Gatoz kantatzera,
Zure doai aundiyak
Emen azaltzera,
Euskera zenbat maite
Dezun esatera,
Beragatik biyotzez
Zu bedeinkatzera.

II Euskal erriya zaigu
Zugatik apaintzen,
Eta festaz jantzirik
Urniyetan biltzen,
Izkuntza maitagarriya
Zugatik agertzen,
Izarren eran, diz-diz
Eginikan emen.

III Mendi guztiyak daude,
Galaiki jantziyak,
Fest'oeke ikusi zai
Mardulik orriyak,
Beren gainean alai
Kantatzen txoriyak,
Ematen nonbait zuri
Esker ugariyak.

IV Gure biyotzak ere,
Osoro pozturik,
Eskertasunez daude
Zuretzat beterik,
Menditarte oetan
Gogoz zabaldurik,
Zure oroitz maitea
Beti gorde nairik.

1887 AZKAINA

332

Jose ARTOLA

ERBI-INUEA ETA KATUA

I Erbi-inude bat bein
Baserri batera
Sartu zan egaztiak
Arrapatutzero;
Ala begiraturik
Zein zan ederrena
Atzaparrak eatzi
Nai zizkan aurrena,
Eta segiturikan
Beregana zuzen
Berealaxe bertan
Arrapatu zuben.
Abuan zeukarrela
Egastiyak oju
Egiten zuben oso
Larri kukurruku
Norbait etorri zedin
Arri laguntzera,
Bestela bazijoan
Betiko galtzera!
Au aditurik bertan
Zeguan katu batek
Esan zuben: "Or, norbait
Estu arkitzen dek!
Zer gertatzen ote da?
Obeto det nik joan.
Nai ote dute gure
Egaztien bat jan?
Ala joan zan zegiran
Ta erbi-inudea
Ikusi zuben an
Etxeko egastiya
Aboan zeukala,
Zulo batetik igaz

Egin nai zubela.
Onek orduan kolpez
Zarpak eratzirik,
Esan ziyon: Ez diat
Lajako bizirik
Ez badek askar usten
Gure egaztiya.
Lapurretan alabil
Pikaro txerriya?
Aguro utzi zuben
Erbi-inudeak
Bestela an artuko
Zituen beriak.
Ala egazti arrek
Beren katuari
Eman zizkan gustora
Eskerrak ugari.
Gero esan ziyon au:
"Gaur edo bigar nik
Albanezake egin
Zuri mesederik,
Biyotzetik egingo
Dizut al-detana
Etzait astuko zuk gaur
Egin nauzun ona."

Modu onetan guztiyak
Egin bear degu,
Aldan denari beti
Trantzian lagundu.
Egin dezagun bada
Aldan guztiyan on,
Begira gabetarik
Zein, nola, ta non.



Artola familia. Ramon eta Rosario eserita. Zutik eskuinean Jose

333

Grazien ADEMA

BEHARRA ETA AHALA

Airea: *Atharratze jauregian*

I Aitak manatu zion seme bati behin,
Larrerat egurketa goizetik gan zedin:
"Hik ekhartzeko daiat zama bat han egin,
Osorik garraia zak, ez zakala arin".

II Muthikoa larretik deus gabe heldu da
"Aita, nik ez dezaket altxa zama hura.
Ontsa behatu diot, ez zazula duda.
Bakharrik ez naiteke lotzerat mentura.

III Aitak: "Zer! ez hakien hik, behar bezala,
Beharra deitua den gizon bat han zela?
Hail, hots! oihu egiok lagun dakikala.
Beharra, o beharra, haugi berehala".

IV Muthikoa larrera itzultzen da berriz.
Egurriari so dago, hunkitzen du erhiz.

Gero oihuz hasten da bortz edo sei aldiz:
"Beharra, haugi, othoi... Beharra, hots! nun hiz?"

V Nehor ez zaiuela heltzen laguntzera,
Kexuz eta hasarrez hor lotzen da bera.
Bi haitaz altxatzen du zama bizkarrera;
Mila debruka gero derama etxera.

VI "Aita ez zen nehor han; egin diot oihu".
-"Nork lagundu hau bada kargatzen hoin zalhu?"
-"Beharrak nau bortxatu, orai ez dut dolu.
Oxala, bertze hura, debrukak joan balu!"

VII Aitak erraten dio: "Bethi hola egik,
Ontsa bermatzen denak indar handia dik,
Nik errana hoi zuen, ez zuan bertzerik.
Jainkoak laguntzeko ez duk deus hoberik".

334

Gratien ADEMA "OLHARREPE"

MIHIZLARIAK

Airea: *Nere ikhazketako...*

I Gure herri xumetan
Zenbat hitzuntzi!
Zinez nola jostetan,
Oro erasi,
Gezur nahasi,
Erne daude nor zertan
Hobendun kausi,
Nori phitz hautsi,
Ez nahiz deus bertzetan (bis)
Onik ikusi (bis).

II Beren hutsak utzirik,
Khexu bertzenez,
Mihiki xorrotxirik,
Daude auhenez,
Denen hobenez,

Nihor ez da garbirik
Hoierranez,
Kanpoz ez barnez,
Zenbat hoik ausikirik (bis)
Dagozin minez! (bis)

III Izan dadin egia
Edo gezurra,
Bethi hoierran mihia
Doha itsura
Hauts edo urra:
Den mendren iduria,
Edo itxura
Zaie segura
Hain da hoierran loria (bis)
Bertzen malura. (bis)

IV Gabaz Akhelarretik
Mainguka jinak,
Hasten dire goizetik
Gure sorginak,
Moko saminak,
Sist handik, sast hemendik,
Zer listafinak,
Laphar, ausinak!
Sendatzea luze dik (bis)
Hek egin minak. (bis)

V Mihiak du erraten
Zer den barnea,
Bihotza zenbat daiten
Gerla gosea,
Ezin ase:

Hauzo eta ahaiden
Makhurtzailea,
Zer ezkabea!
Jainkoaren ez jenden (bis)
Beldur gabea. (bis)

VI Holakorik ez bedi
Gure artean
Agertzerat atrebi,
Edo lurpean...
Suntsi beite han.
Girixtinoak bethi
Jaingo legean
Eta bakean
Bizi gaiten maiteki (bis)
Batasunean. (bis)

335

Martin ARRUPE

HAUR KAUSITUA

Airea: *Itsasoa zabala, ondoa behera.*

I Zoin othe dut nik Aita, zein othe dut Ama,
Hori jakin nahiak mundutik narama,
Zein higuigarria, hain lotsagarria baita nere fama,
Tristura huntarik nola sendatzerik ez dezaket asma.

II Aditu nuenean seigarren urthean
Kausitu nindutela ur hegi batean,
Sekulan geroztik ez da sosegurik ene bihotzean,
Etzen hain zaila lurpean sartzea memento berean.

III Aita ere bai, bainan Ama gehiago,
Haren bihotz gogorraz harriturik nago,
Hanbat alimale gaiztoenak ere dire hobeago.
Munduan bertzerik ez dute umerik baino maiteago.

IV Aita, zurea othe da edo Amarena
Zoinek izan zinduten falta gehiena,
Ai! Aita tristea, ni beldur zurea zela hastapena,
Beraz zure gatik sofritu behar nik hunenbertze pena.

V Menturaz sorthu gabe ninduzun ukhatu,
Ene Ama ez nahiz emaztetzat hartu,
Denbora berean haren bihotzean etsaia zen sartu,
Harek lagundurik, arima galdurik, ninduen botatu.

VI Biziaren tristea bethi pensaketan,
Dakidalarik segur enetzat kaltetan,
Egun bakhotxean desira berean, gauaz ametsetan,
Jauna, ni baitharat pazientzia bat zure ohoretan.

VII Zareten bezalako ene burhasoak,
Herra zuen gaizkiei zer ondorioak.
Bat edo bertzea, hola gertatzea, hain flako zoroak,
Ama zure gatik ditut gehienik sofrikarioak.

VIII Ahantzia nauzula, nik ez dut sinhesten,
Bainan agertzea ez zare atrebitzen.
Bai etsaien lantzek kolpatu bihotzek lan dute sendatzen,
Ene arabera zuri kolpe bera baitzaitzu gertatzen.

IX Eritasun handia, zer da handiago,
Izanen ez den gauza, pentsatzea baino,
Gaitz horrek hartua, ezin sendatua, nola ni bainago,
Burutik utziak banitu guziak, nuke hobeago.

X Adios, Aita Ama, bihotze gabeak,
Etsaiaren esklabo zareten tristeak,
Azken orenetan nigar marrasketan gure doloreak
Nola harrapatu behar othe gaitu eternitateak.

XI Oraino ere, baldin bizi bazarete,
Aithor humil bat egin, hobe zindukete,
Munduko loriek, atsegin guziek fina hurbil dute,
Zuen huts handiez, oren lazgarriez ikhara zaitzteze.

XII Urrikia sar dadin zuen bihotzetan,
Gomendatzen zaituztet ene othoitzetan,
Denboraz balia, miserikordia ardiestekotan,
Bekhatu gorderik, urriki gaberik ez da zeruetan.

336

J.E. Azkaindarra

ESKUALDUN ERI BATEN KANTUAK

I Eri denak, baxharrik pentsamendu bat du,
Konplitzerat, ahalaz nahi entseiatu.
Zer den ezagaturik behaut deklaratu,
Dударik ez da, nahi duela sendatu.

II Sofritzen hainitz, eta ezin hartu hatsik,
Ote da mundu huntan trixteago denik.
Ez da harrentzat goizik ez eta arratsik,
Bertzetaz pentsatzeko sendatziak baizik.

III Trixtezian bizi da mundurat geroztik,
Eritasunak dauka arraz bentzuturik,
Ez dezake atxeman erremediorik,
Barnean duen gaitza senda dezakenik.

IV Entzutuen duenekoz medikuen boza,
Errezibitzen ditu ahal bezin ontsa,
Ezen diote bozten pixka bat bihotza,
Hobeki hazi erranez hartzak esperantza.

V Entzun zazue denek erien errana:
Nihork ez beza bila sobretan fortuna,
Beraz kanta zazue biba osasuna,
Hura galdu eta deusik ez baita gizona.

VI Alegeratu bedi osasun duena,
Berekin duelakotz beti zoriona,
Hura da egiazko aberastasuna,
Munduan gehienek bilhatzen dutena.

VII Urrundik aditu dut arribatzen fama,
Munduan lehen dela aberastasuna,
Zor' hek erran bezate gogoan dutena,
Eta guk aldiz kanta biba osasuna.

VIII Eskual herri maitea, zuri naiz mintzatzen,
Ikas zazu umeak hemen atxikitzen,
Bertzenaz hari zare indarrez flakatzen,
Osasunaz deusik ez da konparatzen.

IX Zer da gizonarentzat pena handiago,
Dirua izan eta deusik ez balio,
Bethi eri denari gogoratzen zaio,
Osasuna hobea da ontasuna baino.

X Nahi duenarentzat aberastasuna
Berekin balin badu, hark eritasuna,
Gogotik utz lezake trukadan fortuna,
Pobre izanik ere balu osasuna.

XI Zeruko Jainko Jauna! oi pazientzia
Hartu behar dut eta indazu grazia,
Laster galdua gatik lur huntan bizia,
Ah! desiratzen nuke zu ganat heltzea.

XII Akhabantzaz hau nuke zuer erraiteko,
Esperantza ariman entzun izaiteko,
Egin ditudan hutsak hemen barkatzeko,
Hil ondoan ez dezadan izan pagatzeko.

1888 KANBO

337

Karmelo ETXEGARAI

TXISTULARI GAI SOA

Airea: *Nora zoaz, Mariya?*

I Guztiyak pozez daude
Triste ni bakarrik:
Triste, bai! zeren nagon
Ama gabetanik:
Baina josta ditezen
Besteak gogotik
Ai! txistua jo bear
Naiz egon tristerik!

II Txistua jo! ta, nola
Joko det txistua,
Baldin naigabepean
Banago sartua?

Txistu-soinuen ordez
Balitz, ai! lantua,
Litzake neretzako
Gauz errazagua.

III Nola ez? Ilun dago
Neretzat guztiya,
Dena samintasuna,
Dena da antsiya,
Joan da nigandik
Ama maitatiya,
Non arkiko det orain
Munduan argi ya?

IV Ala ere, nai dute
 Nik soinu jotzea,
 Nere txistuarekin
 Berak poztutzea:
 Bainan, bainan il bazait
 Ai! ama maitea,
 Nola joko det ezer,
 Ezpada tristea?

V Penik badu, triste du
 Kantatzen txoriyak,
 Eta izanagatik
 Naigabe biziyak,
 Biotz saminduaren
 Erdiragarriyak,
 Nai dute nik jotzea
 Soinu txit alaiak!

V Penadunak ez bear
 Jo soinu tristerik!
 Noiz, noiz ikusiko dute
 Gabaz eguzkirik?

Noiz doakabearren
 Biotz samindutik
 Ateratzen irrintzi
 T' uju pozezkorik?

VI Geldi bitez ujuak
 Pozdunarentzako.
 Beto, betoz nigana
 Zenbait negar-malko,
 Zeren obeak diran
 Ni sendatutzeko,
 Nere samintasunak
 Zerbait gozatzeko.

VII Agur, ama: begira
 Zadazu Zerutik,
 Nola nagon ni beti
 Zutzaz oroiturik,
 Naiz ari txistu jotzen,
 Naiz egon ixilik,
 Jainkoak daki nola
 Malkoak gorderik!

338

Gregoire HIRIGOYEN "Urruñan"

ALHARGUN TSA ZONBAITEN DOLUA

Airea: Mandataria, zer berri...

I Ene senharra eritu,
 Oilo guziak funditu,
 Azken jan duenean,
 Hil da biharamunean.
 Akabo nere oiloak!
 Sekulan orhoitzekoak!...

II Oiloak ziren hamabi,
 Guziak erroten hari,
 Diruak ere gaztatu,
 Etxe guzia du hustu.
 Ez oilorik, ez dirurik,
 Orai zer eginen dut nik!...

III Arroltzeak saldu eta
 Erosi aguardienta:
 Hola nintzen usatua,
 Orai flaskoa hustua.
 Hau da etxearen hutsa!
 Orotarik alharguntsa!...

IV Arroltzerik ez zenean,
 Bertze leku on batean,
 Bai, banuen ekhartzaile,
 Soilarua pagatzaile,
 Ixil, nehork jakin gabe,
 Orai ez da deus hor ere.

V Ez arthorik, ez ogirik
 Ez ilharrik ez bertzerik.
 Eta ene estomaka,
 Ez ixiltzen kurrukaka,
 Xixariak atakatzen,
 Horra nola bizi naizen.

VI Zoin naizen urrikalgarri,
 Erranen dautzuet sarri,
 Ene sokorria non da,
 Hortaz banuke zer konda!...
 Ez banintz ahalketia,
 Erran nezake egia.

VII Sosak baditu lau ardit,
 Mihiak egin nau tilik,
 Gan ederra eta bertzerik
 Ditut ezin ahantzirik;
 Ez banu damu bat baizik,
 Hori ez litake deusik.

VIII Nik egin dudana ametsa!
 Erdiratu nau bihotza,
 Etzen ez gan denarekin,
 Bainan bai bertze batekin;
 Aldi batez solas egin
 Nahi nuke berarekin.

CAMBOCO PHESTAC

HELDUDEN URRIARREN 1^o ETA 2^o 1888an

PRIMAC

Murde ANTOINE D'ABBADIEC emanac

Astehenean Urriaren lehenean

1^o **Pilota partida bat** Errabotean Eskual-Herriko zortz pilotari aipatuenean artean. — 100 Libera irabazleri; 100 libera pilotari hoberenari.

2^o **Iskiribuz** lan hobe. ena Buruilaren hamaborzeco Bay onat agertu duenari; 80 libera eta makhila bat.

3^o **Koblae.** — 80 Libera partituar koblari hobereneri.

4^o **Dantza jauziac.** — 25 Libera dantzari hoberenari. 20 libera bigarrenari; 10 libera hirugarrenari.

5^o **Irrintzinae.** — 30 Libera irrintzina ederrena eginen duenari; 15 libera bigarrenari.

Asteharteon Urriaren bigan

1^o **Bleka** partida bat esku huts Eskual-Herriko laur blekari aipatuenean artean. — 100 Libera irabazleri; gerrico sedazco bat blekari hoberenari.

2^o **Behi (gorri)** herriko esnaldunentzat. — 80 Libera lehenari. 20 libera bigarrenari.

3^o **Gizon lasterrac.** — 80 Libera lehenari; 20 libera bigarrenari.

4^o **Emazte lasterrac buruan peyor betherehia.** — 10 Libera lehenari; 5 libera bigarrenari.

Phesta eta prima horiec emanac izanen dira Erraboteco plazan: pilota partidac goizeco hamar orenetan eta gaineratecoac arraxaldean hirur orenetarie seguidan.

Baybille, Impr. Lasserre.

339

Piarres IBARRART

PILATUS HIRITARRA ETA PIARRES-TTIPI MENDITARRA

Airea: Ostatu on bat Ezpelet' hortan...

I Eztai ederrak Eskual herrian
Egin ditugu ihauterian,
Bozkariarik haundienian,
Bai, ahaideak gutaratzean,
Adixkidekin bat egitean,
Zoriona zen gure artean.

II Nahiz ez ginen haundietarik,
Espos hekien bi aldetarik
Ginen euskaldun garbietarik,
Jakintsun haundi jaun hiritarrik
Zauku ethorri batto bakharrik,
Itzultzekotan gu xoraturik.

III Udako egun bero garbian
Nola erlea loretegia,
Zagon jaun hura gure erdian,
Gu oro ixil mintzo zenian,
Iduri saindu hastapenian,
Satan-ttipi bat zen azkenian.

IV Jakintsun haren jakitatea,
Da khorodunen laidoztatzea,
Jainkoa-baithan ez sinhestea,
Mundua eta gu egitea
Ezdeusetarik gauzen hastea,
Haren ustean da suertea.

V Erran du ez da botheretsurik,
Gizona baino goragokorik,
Guri gaztigu eman dironik,
Ez da zorion ez zorigaitzik,
Ez arimarik berexten denik,
Akhabo dela hilez geroztik.

VI Zuhurren gisa mintzatu baitzen,
Gazte zoroek sinhesten zuten,
Ustez osoki argitua zen,
Etzen ez gaizki irriz asetzen,
Haren gezurra etzela galtzen,
Toki onean zuela saltzen.

VII Mendi gaineko Pierra ttipi
Lotsarik gabe zitzaion jeiki:
"Ixil zaito hor, ez mintza gaizki,
Arras zoroztat gauzkatzu naski,
Jakintsun zare bainan ez aski,
Tontoak ere zerbait badaki.

VIII Huna oilo bat mahain gainean,
Arroltzea zen amaren pean,
Gero txittoa sorthu zenean,
Arroltzerik ez Mundu hastean,
Oilo lehenak errun artean,
Nork du lehena eman lurrean.

IX Nungo gizonak deraut erranen,
Gairik gabe dut lana eginen,
Deus erain gabe sor-araziren,
Hastapenean hazirik etzen,
Ez deusetarik nork erain zuen,
Ikhusazu hor Jainkoa baden.

X Begira zozu iguzki horri,
Arratsetako ilhargiari,
Gau izarratu garbi denari,
Zoin jakintsunak ditu ezarri,
Jarraik arazten tenoreari,
Hots, erradazu, nor da gidari?

XI Jaun haundi hori hasi zen kantuz,
Bizarra eskuz bihurdikatuz,
Gehiago deus ezin asmatuz,
Behin errana gero ukhatuz,
Bere burua ezin garbituz,
Hura zen hura tonto Pilatus.

XII Pilatus harek badu bai lagun,
Mila batean sei zazpi ehun,
Utz ditzagun hek ahalaz urrun,
Kantabre kasta gauden fededun,
Jainkoa othoitze gau eta egun,
Gero zerua goza dezagun.

HABANARA. GUDARI GAZTEN BATEN AGURRA BERE AMARI*Airea: Il nai eta ezin il.*

I Saminez beterikan
 Zu gandik banua,
 Utz triste bat ukirik
 Nere ama ona;
 Barren guztiya damat
 Ai! minberatua,
 Nautelako bialtzen
 Utzirik lekua,
 Nere jator guziyak,
 Bai! maitetakua.

II Nola biziko gera
 Ni an ta zu emen
 Ez banaiz oraindikan
 Zuregandik irten?
 Itsaso aundi orrek
 Ez nau ikaratzen,
 Baizik zu laja biar
 Ori det sentitzen;
 Negarra darizu, Ai!
 Neri bezelaxen.

III Biyar guazentian
 Danak ontziyan
 Itsas urdin zabalena
 Aundien gainian,
 Egunaz eta gabaz,
 Goiz eta arratsian
 Eta denborak duben
 Ordu guzietan,
 Juango nazu pentsatzen
 Amatxo maitian.

IV Ama! begiranazu
 Beidanazu arren,
 Zure negarra nai det
 Eraman barrenen.
 Neriarekin batu
 Biyak egitezen
 Eta nere gaitz abek
 Sendatu ditezen;
 Neretzat gauza onena
 Izango det auxen.

V Emanazu Birjina
 Jarri det kolkuan,
 Eta arkituko da
 Ni naizen lekuan,
 Onek libratuko nau
 Gerran eta zutan,
 Eta gero berri bat
 Onentxen onduan
 Ama! ekarrikoizut
 Zuri onuzkuan.

VI Agur!...Ama! banua
 Baijoa semia,
 Agur! Biotzetikan!
 Agur! Bai maitia!
 Laztantxo bat eskatzen
 Dizut egitia,
 Eta zerubai eska
 Neretzat argia!
 ...
 Ama! Ara lagunak!
 Ama! ... Ara ontzia.

1889 DONEZTEBE**AMERIKATIK**

I Nere etxe txuri maite maitea
 Zuaitez tartean zaudena,
 Ingurumari guziko lurrak
 Mendean daukazkitzuna,
 Biotz txokoan daukazkit beti,
 Nere sortetxe kutuna!

II Gogoan ditut zure sukalde.
 Larats, gela ta ganbarak,
 Tegi, abere, zakur txitoak,
 Eta lanerako tresnak,
 Pilotan nere aurtasunean
 Aritzen nintzan paretak.

III Etzait aztutzen ezkon-berrien
Leioko gurutz xuria,
Sukal ondoan arkitutzen dan
Gelako nere kabia,
An utzi nuan errosario
Lurdestikan ekarria.

IV Gogoan dauzkit auzoetako
Aitonak nola ziraden
Ipui kontari atal-aurreko
Aritz azpian bildutzen;
Nola oi ziran neska mutilak
Soinua jo ta dantzatzen.

V Etzait antziko etxaburuko
Zumardi eta larrainak,
Non igandero zuten bilera
Etxekoandre zuzenak,
Pozez begira nola jostatzen
Ziran biotzeko aurrak.

VI Eta gero an soro ertzeko
Udare, sagar, maastiak,
Pikuak eta kereiz anpoilak
Txingarra bezin gorriak,
Usai oneko bedarrak eta
Pinpilinpausa txuriak.

VII Zenbat zorigaitz nere etxe txuri
Polita utzi ezkerol!
Nork lezakean egin egaaka,
Itsas zabala igaro,
Eta antzinako kabi txuloan
Egin lo berri berriro!

VIII Fedea epel, Esperantzik ez,
Iskinka Karidadea,
Bene benetan diot esaten,
Nere amatxo maitea,
Orko taloa emengo ogia
Baina dala askoz ohea.
Eskarmenturik ez duten aek
Sinistu nai ez ordea...!

342

Ramon ARTOLA

EGUZKIYAREN SARRERA

I Eguzkiyak makurka
Mendiyen atzean,
Gordetzen du argiya
Ilunabartzean:
Urre disdirak gero
Itsasperatzean,
Eta goiak tinta fin
Politak artzean,
Tristura bat sentitzen
Baita biotzean.

II Egunari indarrak
Zaizkanean iltzen,
Tristoraz dira gauza
Guziyak umiltzen:
Loreak joaten dira
Makurka muiskiltzen,
Mitxeletak urrezko
Egotxoak biltzen,
Eta txori txikien
Kantubak isiltzen.

III Negarti ikusten da
Mugitzen ibaia,
Triste errekatxo
Tristeturik goia:
Mur mur iturtxoloko

Ur kristal garbiya,
Paltatzen zaiolako
Zeruko argiya,
Eta ilun ta triste
Itsaso aundiya.

IV Zabalde igaroak
Ainbeste nazpila,
Galtzen du egunazko
Mur mura ta buila,
Saguxarrak irteten
Dira jaukai bila,
Aitzen da ermitako
Ainari ezkila,
Eta itxura dena
Gelditzen da ila.

V Ontan izar zeruban
Barrenen zeudenak,
Dis dis azpiyan dira
Azaldutzen denak;
Eta sarri, guk aruntz
Begira gaudenak,
Nairik gerenganatu
Indar galdu denak,
Lotan jartzen ditugu
Nekeakin penak.

1890 MAULE

343

Felipe CASAL

GURE EUSKARA MAITA DEZAGUN

I Izkuntz guria maita dezagun
Bear bezela biyotzez.
Ez degu bada ibili bear
Itz egiteko guk lotsez,
Eta arkitu ez dedin ama
Gure gantikan negarrez.
Ipin dezagun apaindurikan
Aritz ederran adarrez.

II Euskara eder maitiagatik
Egingo det alegina,
Naiz nere luma ezin altxatu
Nik nai nezakien dina,
Esaten det nik biyotzetikan
Naizela euskaldun fina:
Nere odola galdu naigo det
Ez utzi euskeran grina.

III Maita dezagun gure izkuntza
Euskaldunak geradenak,
Maita dezagun, anai maitiak,
Biyotz sendoa degunak,
Aurrera bada, galdu ez dedin
Itzegin dezagun danak:
Beso zabalik artuko gaitu
Bere biyotzera amak.

IV Mintsu ote dan iduritzen zait
Amatxo gure euskera.
Gaitza sartuba daukagulako
Euskal erri abetara:
Sartu zitzaigun ondo geundenak
Guztiyak gaizki jartzera,
Eta ginduzen libertadiak
Geienak lurperatzera.

V Non dira gure aita bisabak,
Ote gaituzte ikusten?
Zeru zabala eder ortatik
Nola geraden gertatzen?
Etsaian kontra ibili ziran
Beren odola isurtzen,
Lengo lege on ginduzen aiek
Guri eskuetaratzen.

VI Bai, egin zuten alegin dana
Gizagajuak gugatik.
Beste ainbeste ote genduke
Egingo guk aien gatik?
Oju eginaz esan dezagun
Bai! biyotzaren erditik.
Aien dolaren kutsurika
Ez da galdu oraindik.

344

Jose ARTOLA

VANITAS VANITATUM

I Arkitzen nintzan eleizapean,
Isiltasunen erdian,
Eta bakarrik, bai! ain bakarrik
Ainbeste jende artian!
Dana estaliya (gurutz autsi bat
Nekarren alde batian,
Eta apainduba urrezko letraz
Beste bat zeukan aurrian.

II Arrek zekarren uda berriak
Zabaltzen duben belarra,
Eta onek berriz osto eroridun
Arbol aundien adarra;
Laguntzik gabe bakardadian
Etor zitzaidan negarra,
An zegolako gurutzetxua
Txoko batian bakarra:

II Eta txoriyak egun sentian
Ipintzeko kantaxoak
Bildutzen ziran jatera, bere
Ganean zeuden kardoak.
Bestera nunbait etziran juaten
Ikusirikan gaixoak,
Zinta-orridunak, argiyak eta
Gainera berriz koroak.

IV Zer da lurreko bizi au? niyon
Jasorik gora begiyak,
Eta begiyak itxi zizkidan
Ordubantxen eguzkiyak.
Iluntasunan gelditu nintzan
Itsuturikan argiyak.

.....

Orduan jakin nuen zer ziran
Gure izate guziyak!



Euskal Itz-Jostaldien Batzarra. 1909. Zutik ezkerretik eskuinera: Joakin Baroja, *Frantzisko Lopez*, Pepe Artola, Jose Zapirain, Toribio Alzaga. Eserita ezkerretik eskuinera: Blas Pradere, Alfredo Lafitte, Migel Salaberria.



Euskaldun-Fedea Antzetzaldea. Eserita ezkerretik eskuinera: Rosario Artola, Arrieta, Maria Casal. Zutik eskerretik eskuinera: Etxebeste, Pepe Artola, Larman, Andonegi, Uranga, Gamboa, *Felipe Casal*, Gelbenzu eta Pablo Casal.

345

Bizente ETCHEGARAY "Urruña"

MONTEBIDEOZ

I Montebideoz egin zenean aiphua
Eskualdunei zitzain berotu burua,
Joateko fite herri dohatsu hartara,
Hemen ez zezaketen fortuna egitera.

II Ez bada ez dutelakotz bere etxetan zer jan,
Zer edan, bai eta ere soinean zer eman:
Badute aski artho, badute ogia,
Bai-ta ere jakitzat urdaiki zathia.

III Ez dakit zer daiteken behar gehiago,
Kantabre herrietan urus izateko:
Gure arbasoak lehen gehiago gabe,
Bizi izatu dire dohatsu halere.

IV Baina zoriz ethortzen ikhusi dituzte,
Montebide aldetik bata edo bertze,
Gapeluaren orde txapel finarekin,
Muntra gerriyan urre-gatheekin.

V Bai, bai, eta badoha eskaldun gaztea,
Utziarik hain zoroki bere etxe maithea,
Hartan bizi izan zen urus orduraino,
Egin zukeien berdin aitzinat oraino.

VI Xortea etxatua da: behar da partitu,
Baitezpada hau baita nahi aberastu:
Handi ditu xedeak, esperantzak gizen,
Helas! hauk othe zaizko ongi itzuliren!

Gero ikusiko.

346

Piarres IBARRART

BILDOTS AIT'AMEZ GABETUA

I Sorthu nintzen neguko gaurik hotzenean,
Aita hil berria zen, ni munduratzean,
Amaz gabetu nintzen gau hartan berean,
Ume-zurtza gelditu etxola batean.

II Auhenska ari nintzen iraungia gosez,
Lurrean hedatua ikharetan hotzez,
Jainkoa urrikalduz ene bihotz minez,
Lagundu nau, izeba amatzat emanez.

III Ethorri zen izeba nitaz jabetzera.
Bihotz onez altxatu besoen artera.
Hark eraman ninduen Bizkaiko etxera,
Eta esnea eman nasai edatera.

IV Ume jabe gabea ez hadila lotsa,
Nahiz aita eta amekin ez haiteken goza,
Nik arthaturen baihaut ahal bezain ontsa,
Behar ordu guzietz altxa niri boza.

V Primaderan loreak agertzearekin,
Borturat ginohazin biak ardiekin,
Izebak erran zautan: agokit enekin,
Lanjeretan ni gabe, hi eror ez hadin.

VI Hi baihaiz ederrena bildots guzietan,
Harturen hau otsoak hortaz begietan,

Etxolarat bil hakit ilhun hegietan,
Eta urik ez edan ziphu lohietan.

VII Ene maite lagunak ait'amek arthutzen,
Gomendio guzia nik bezala zuten,
Bainan librotasuna maitegi baitzuten,
Toki debekatuak hautatzen zituzten.

VIII Ait'ametarik ziren behin eskapatu
Oihanik beltzenera elgarrekin heldu,
Han zituzten otsoek itsuski kolpatu.
Bizia utzi, bainan ohorea khendu.

IX Nik ziphu lohitsuan ez dut edan urik,
Ez otsoen menean egon lokharturik,
Hortakotz dut galdea izatu gazterik,
Muthil aberats eta prestu baten ganik.

X Izebak nahi baitu, hura dut utziko,
Zelhai eder batera naiz egun jautsiko,
Aisean bizitzea dut ardietsiko,
Eta otso maltzurak ez nau ausikiko.

XI Ume zurtz prestu hori ekharriz gogora,
Bizi bedi gaztea horren arabera,
Aphal sorthu zuhurra altxa daite gora,
Aberats ergela da jautsiko behera.

347

Joanes OXALDE

KANTU BERRIAK 1890AN

Airea: Ikhusten duzue goizean, argia hasten denean...

- I Lurreko ene bizia nola dudan guzia
Esplikatzen naiz hasia,
Mundu huntara izatu bainaiz gauza tipitik jauntsia,
Han zen jaunaren grazia hartaz izan naiz hasia,
Ait'amer berak utzia.
- II Ene ait'amek hasteko kargua zuten hazteko,
Jainko legean ezartzeko,
Egin ahalak egin dituzte ni gizon atheratzeko,
Hetan etsenplu hartzeko jaidura txarrak uzteko,
Etzautala dolutuko.
- III Bainan nik guziez irri ez nuen behatu nahi,
Heien erran zuhurrari,
Txorien gisa lumatu gabe bainuen airatu nahi,
Trufatzen nintzen orori ohartua munduari
Hartara nahi orori.
- IV Gazterik nintzen airatu, xorikeria maithatu,
Gogoa hartan baratu,
Gaztetasuna behar baitugu, zoin gure aldian jastatu,
Eztut nik hainitz gozatu laster bainuen trenkatu,
Sokak nau lephotik hartu.
- V Gazterik lothu sokari ez nuen bertzerik nahi,
Baizik kargu eder hori,
Handikan hunat nekhe guziak ene gainerat erori,
Lothu nintzan bihotzari eta hobendun neroni,
Ezin mendeka nehori.

- VI Zer egin dudan munduan atxiki ditut buruan,
Emaiteko liburuan,
Hogoi eta hamalau urthez egotu naiz zerbitzuan,
Fidel gobernamentuan arranda nai dut eskuan,
Jin baitzaut behar orduan.
- VII Arranda horren aldetik orai ez duket eskasik,
Gainerako hau eztaikit,
Ethorkizuna eman behar dut begien bixtan lehenik,
Ene adina batetik eritasuna bertzetik
Zahartzeak ez du deus onik.
- VIII Orai ari naiz zahartzen gorputza mendratzen,
Lurra nau bere ganatzen,
Oren guziez ene bizia bethi hobirat hurbiltzen,
Zautanian gogoratzen bihotza zaut erdiratzen,
Azken oren hak lotsatzen.
- IX Ene azken orenian herioa heldu denian,
Justu izanen naiz agian,
Ama Birjina jar dakidala ene arimaren guardian,
Jaun ona bertze aldean kurutzea bien erdian,
Jujatuko naizenian.
- X Orduko jujamendua arima badut justua,
Oi zer kontsolamendua,
Jainko jaunak emaiten badaut guzien barkhamendua,
Gozaturen dut zerua berak hitzeman tronua,
Sekulako deskantsua.

348

Joanes OXALDE

ETCHAHUN BARKOXTARRAK ETA OXALDE BIDARRAITARRAK ELGAR ERREKONTRATU
ZIRENEAN EMAN ZITUZTEN KANTUAK.*Airea: Ziberuan bada muthil ederrik,
Ene semea duzu bat heietarik.*

- I Agur adiskidea, Jainkoak egun on,
Zer berri den errazu zuk, othoi, Xuberon,
Ezagutzen duzuia Barkuxen Etchahun,
Halako koplaririk ez omen da nehon,
Bisitaz joan nindaite ez balitz hain urrun.
- II Jauna, ezagutzen dit Etchehun Barkuxen,
Egun oretan nuzu hurranik ibiltzen,
Bethi gazte ezin egon ari da zahartzen,

Lau hogoi urthe dizi mundin iragaiten,
Orai ez da bertsotan hanitz okupatzen.

III Jauna, behar dautazu gauza hau onhetsi,
Bainan etxautzu behar hargatik ahantzi,
Hortaz egiten dautzut gomendio aski,
Konprenituko duzu hitz laburrez naski,
Ene partez errozu jaun hari goraintzi.

IV Zure komisionea nahi dizit egin,
Konbenitzen zaitazu mila plazerekin,
Egon nahi zira arren jaun harekin,
Huna Etchahun bera hemen da zurekin,
Nik ere ez diota zu nor ziren jakin.

V Jakin ere behauzu dudarikan gabe,
Zeren egin dautazun errespetuz galde,
Entzutea baduzu nitaz lehen ere,
Nor naizen erraitera ez nuzu herabe,
Laphurdin deitzen naute Jean Baptiste Oxalde.

VI Bihotzaren erditik egin dizit irri,
Gure ganik entzunik parabola hori,
Damutzen ez bazaio zeruko jaunari,
Eman behar dizigu zenbait phertset berri,
Eta ber-denboran eskuak elgarri.

VII Amodioz derautzut eskua hedatzen,
Zonbat atsegin dudan ez duzu phentsatzen,
Gizon batzuek naute lazki atakatzen,

Ez dakiala ongi berauen paratzen,
Zu laguntzen banauzu ez naute lotsatzen.

VIII Etchahun Xuberuan Oxalde laphurdin,
Buruz ari girenak kantoren egiten,
Ez baigirade beldur nehondik jin dadin,
Erranen diet nik hotan Eskual herrin
Jokatuko digula hek plazer dutenin.

IX Ez gira sarthu behar hortaz urguluian,
Etsaminatu gabe gure izpirituian,
Irakurtu izan dut lehen liburuian,
Jaunen Jaunak direla jalgitzen munduian,
Erbia lo dagoela uste ezten lekhuiian.

X Lehen zaharretarik entzuna dit hori,
Bethi norbait badela denen buruzagi,
Arren nahi badira gure kontra jarri,
Onheski emaitera zenbait phertset berri,
Lotsa gabe gituzu denen zerbitzari.

349

Adrien & Jean SOUHY

HUNKI JIN, MOUSDE ABBADIA

Hunki jin ziradiela Mous de Abbadia,
Urrustoi herri xipiko arraseme handia!
Hunki jin Uskaldunen zu, adixkidia,
Bethi maite duzulakotz Ziberu-herria.

Maule, 1890.

350

AN.

KALABAZA ETA BARATZURIYA (Ipuia)

I Kalabaza bat zeguen
Lurraren gainian,
Bere pixutasunez
Mugi ezinian.
An inguruan berriz,
Zan baratzuriya,
Tentia ta ernaia
Biziro txuriya.

II Kalabazak bein diyo
Baratzuriyari:
–Zer pithina, ez aiz or
Lurrean ageri,
Beti ago ttattar ta
Oso nak arritzen,
Nik ainbat jan ta nola
Ez aizen aunditzen.

III Onek erantzun ziyon:

–Ah! ustel astua,
Beti aunditutzen dek
Zatar ta bastua,
Or ago tontotua
Lurrean etzinta,
Ere gorputz trakatza
Mugitu ezin ta.

IV Bai, ondo kalabaza
Izan ta izango,
Orren ustela intzanik,
Ez nikan esango.

...

...

V Obea da txikiya
Eta fina izan,
Ta ez aundi bastua,
Kalabazen gisan,
Askoz obe bai da
Apur bat finetik
Eta ez asetzeko
Ainbat usteletik.

1891 YURRETA

351

Frantzisko LOPEZ ALEN

DUVOISIN JAUNAREN OROIMENGARRIARI

I Iltzen danian erri bateko
Seme bat guztiz leiala,
Iltzen danian doaiz beterik.
Astutzen ez da inola!
Baizik goitzen da aren oroitza
Maite maiterikan nola
Amak aurrari nai dion gisa,
Intza soroak bezala,
Txoriyak bere arbola eta
Nekazariyak etxola.

II Nik nai dizutan gauza donkitu
Ez da urrez estalia,
Ez da koroia arri fina dun
Aberats dizdizaria,
Nere gogoak eskeingo dizu
Malkoaren itz eztia,
Saminak senti duben antziya,
Pake santu naigarria,
Ume zurtz batek egingo luken
Bezin kantatxo tristia.

III Baina... ez! zaudel askotan negar
Barrenak eginagatik,
Askotan ere penak berekin
Atsegin dauka nazturik,
Bestela nola mundua igaro?

Begira baga tartetik
Marinel gisa gaixoak nola
Eriotzaren ondotik
Ikusten duben odoi urdina
Bendabalaren atzetik!

IV Ez gininduke penak ainbeste
Menderatuko lurrean,
Gure bizitza balitz loreak
Izaten diran moduan;
A!... zergatikan sartzen danian
Lore bat igarturikan
Badakagu, bai, beste bat ura
Bezin ona sarjindikan,
Bainan gizon bat iltzen danean
Guztiz ernea... Inondikan!

V Gaur edo bigar diyotenean
Euskal erriko kondairak
Adiarazten asirik bere
Seme argien doaiak,
Ta diranenan arkitzen gero
Beste gizaldi berriak,
Ta banaturik lurretik gaurko
Bizirik gauden guziak,
Duvoisin zein zan jakinduko du
Beti euskaldun erriak!

MAITETXOAREN ERIOTZA ETA AITA BATEN NEGARRA

I Uda berrian, ifar aizea
Osto tartean dabilenean
Dardaratuz guztiz polliki
Adar daudenak arbol gainean,
Eguzkiaren atera aldia
Azaldurikan mendi atzean
Dizdizaturik errainu urreak
Errekak berak daukan urean,

II Eta zelaian gainera berriz
Loretxo sortak usaindun finak
Orri tartean intza gorderik,
Jaunak zuretzat bezela eginak,
Nere maitetxo, ez alda egiya
Gure gandikan penak, saminak
Joaten dirala au ikusirik
Etorririkan, ai atseginak?

III Non dezu? non? esan nazazu
Ezpain zureak zeukan irria
Dana gozoro biurtzen zuben
Naitasun ezti txit naigarria?
Bainan, ez nazu entzuten inoiz?
Zabal ditzatzu, maite, begiak,

Atzo zeudenak guztiz erneak
Gabeko izar bezin argiak.

IV Begira, maite, ara aitatxo
Negarrez nola dagon ondoan
Ez dezulako ezagutuzten
Berak zer senti duben kolkloan,
Oii! ... ara, ara, sentitzen dezu
Txituen pi...pi... emen auzoan?
Eta txoriak nola kantari
Dabiltzan egan zure soroan?

V Onela ari zan aita bat, oya zenguen parean,
Onela ari zan menderatuba antsi berean,
Bere alaba mintsu zegona alai nairikan,
Aitak maitatzen duten bezela biotzetikan.
Bainan il zaijo bere alaba uste gabian,
Ez du sinisten bere alaba ila dagola,
Ez du sinisten aurra mundutik joan zaiola.
Aitak laztantzen du besoetan ikusirikan
Ez dubelako entzuten berak dion itzikan,
Ta igarririk aita maiteak gorputzen otza
Urratu nai du antsi malkotan bere biotza.
Gertaturikan aingeru bat geiago zeruan
Eta maitetxo ila bere aitaren besuan!

BIARGIN ALEGERE BAT

I Beti ugazabentzat diardut lanean,
Naizda ez aberastu inoz bearrean;
Lanera jagi arren arduraz goizean,
Alogerak poztzen nau txito arratsean.

II Ene aita izan zan neu legez arotza,
Alogeraz ez eban ak gizendu poltsa,
Pobrezan eukalako kontentuz biotza,
Agaitik gaur zeruan gozetan dau poza.

III Alogerekoak lez ez daukat bildurrik,
Inoz sartuko danik gurean lapurrik,

Baba, arto, urdaia jan arren bakarrik,
Familia ederra azia daukat nik.

IV Irabazia zelan alan dot kastua,
Ez dot nai lebitarrik, brusa dot naikua,
Egin gura dabenak gustora pausua,
Zapatea bear dau oina bestekua.

V Zeinbat etxe direan euren erruz galtzen!
Txikiak izan arren andiai jarraitzen,
Neu beinik-bein enoa orrelan izaten,
Zorrak pagau ezinda tristetu enaiten.

VI Zeinbat gizon munduan enpleo andiak
Jariste arren dabiltz galtzen gaberdiak!
Baina, boteagaitik askok izerdiak
Non dagoz guztientzat goietan aulkiak?

VII Gaur arte, nok jakin dau zer dan uelgea?
Enredo zalez dakust mundu au betea,
Nik nai dot osasuna, lana ta bakea,
Inor engainau бага denpora emotea.

VIII Ardaurik ezin badot edaten dot ura,
Orregaitik gerrarik baina ez dot gura,
Pazientziaz zelan bat doian zerura,
Pizkat sufridu arren ez deusta ardura.

IX Zeinbat galtzen dituzan andinaikeriak,
Luzifer bere galdu eban soberbiak,
San Migel otsein onak jaritxi gloriak,
Umilentzat zeruak dagoz edegiak.

X Andi izate arren enoa inora,
Ez dot estutu gura igo nairik gora,
Nausitasuna baino mendeko dot oba,
Naikoa dot nik banaz guraso bat ona.

XI Ai! balekie askok nor dan aberatsa!
Niretzat igertea ezta orren gatxa,
Euki arren munduan batek asko gauza,
Kontentuz ezpadago bizia da latza.

XII Txori koitau bat baino, nor da pobreago?
Alanbere kantari geienean dago,

Txindurriak naiz euki ondasun geiago,
Nor da mutuagorik beste bat au baino?

XIII Inoz izan ez arren txoria joskina,
Soinekoa darabil ondoen egina,
Sedea eztalako lumea duin fina,
Ain ondo ez da jazten beintzat erregina.

XIV Jaungoikoak badeutsa ardurea artzen,
Zelan sinistuko dot dala gugaz aztzen?
Egaziak baditu ain ederto jazten,
Ni zelan itxiko nau goseagaz ilten?

XV Beraz, ez dau esaten eskatu daigula?
Joteko atea ta entzungo jakula?
Ala, fedea gugan osoro galdu da?
Onenbeste gatx nondik bestelan eldu da?

XVI Egia da kontentu osorik munduan,
Ez dala jauregian, ain gitxi tronuan,
Gure ditxa ez dago lurreko diruan,
Gloria dana dago bakarrik zeruan.

XVII Kantau gura dot baina auxe koplau beti,
Pobrea banaz bere, enaz ni negarti,
Aberats asko dago ene aldean gaizki,
Larrosak dakustaz nik arantzakaz nasi.

XVIII Larratxoria dabil egunen erdian,
Txorrotxioka pozez igoten aidian,
Erroaioa kantau nik oi dot gabean,
Beraz obetoago bizi naz lurrean.

354

Biktoriano IRAOLA

PEDRO MARI

I Ikusten zaitut eta kasikan
Ezin sinistu det nik, ai!
Aitorren seme biursariyak
Eztubela kantatu nai,
Zerubak zuri euskal izkuntzan
Emanik ainbeste doai,
Ama euskara zu entzuteko
Gaisoa or daukazu zai,
Poztu deriyen, esan zaiozu
"Bai, kantatuko dizut, bai!"

II Esan zaiozu bete beterik
Petxu leiala su-garrez,
Kanta zaiozu iruki gabe
Ama maitea negarrez.
Arranoaren egaa moduan
Hoiturikan indarrez.
Estali zazu berdin gabeko
Itz gozo garbi ederrez.
Nola zeruba estalitzen dan
Gau garbiyetan izarrez.

III Txoriyak bere umearentzat
Eztu ainbeste naitasuna,
Nola zuk Pedro mantxa gabeko
Lur santuari diyozun,
Saroi-tarteko txori-egazti
Danak nai zaituzte entzun.
Euskera zarren edertasunak
Nola goititzen dituzun...
Zuk eztakizu izkuntz arrekin
Zenbat poztutzen gaituzun!

III Kantatu zazu saroi berdea,
Kantatu mendi goietan,
Baso beltzean, errekatxoan,
Zelai ta bordatxoetan,
Kantatu zazu ibai ertzean,
Arbol tantaien gainetan.
Usai gozozko baratza loraz
Ederki apaindueta.
Baitare ibar alaitu eta
Atari garbi aietan.

IV Zure itz eder eztsu aiek
Esanaz alako bigun,
Biyotzeraino ailegatutzen
Dira eztiro ta legun;
Eztakit zuri zer Jaungoikozko
Graziyak sartu zaizkizun,
Bethi oparo argiratzeko
Orrenbeste edertasun,
Neurri gabeko doaiak Pedro
Uste det ote dituzun.

V Ondar txe txea milizkatuaz
Goititzen dira ur meak,
Goititzen dira nagirik gabe
Pizti ta beren umeak,
Modu berean astindu eta
Kanporaturik nekeak,
Ala gainduko dituzu gure
Izkera eta legeak,
Esanaz zer dan Euskal lurra ta,
Zer diran bere semeak.

355

G. BERDEKO "baxenabartarra"

GERNIKAKO ARBOLIAREN LAUDORIOTAN

I Gernikako haitza gure bandera da,
Zeluarat dino heltzen du kaskoa,
Lurraren zolarat barnatzen erroa,
Odol gaztienak loraz du hura!

II Odeiak dabilta inguru inguru,
Elhurrak negian estaltzen ahal du,
Udako ekhiak emaiten ahal su,
Arbolak orori eginen du buru.

III Ehun orzantz kolpek jo dute zelutik,
Haizea geutsi da, zafrika, bortutik,
Haitz horren khentzeko bat betan errotik,
Bainan hori bethi egoiten da xutik.

IV Zenbat etsai dire hain motuz erori?
Zenbat bitoria dugu irabazi
Gernikako haitza gure aitzindari?
Indar emaiten du harek besoeri!

V Ez Gernikan dagon haitzaren gainetik,
Mundu huntan ez da arbole bat bezik,
Golgothako zura Krixtok landaturik!
Hek biak ez diren oinon eroririk.

VI Batek du erroan Jesusen odola,
Odol hura dakot lotgarri bat huna,
Bestiak baduke gure maitasuna,
Behar bada ere gure azken hatsa!

VII Gernikako haitzak gintien beirutzen,
Jenderi zuzena bai ere emaiten,
Bere ber ordian Heskualdunak ziren:
Berriz denbora hek ez dira jinen.

VIII Bizi da oraino Heskualdunen mota,
Loak badu bethi, ber' irartzartzia!
Zorrozteko gure ezpaten burdina,
Badugu Rolanen hobiko horena!

IX Lehengoez orhoit! Errege Karloman,
Gure ganat jin zen artzeko borrokan,
Ausarta! badakik zer gostatu zaukan!
Nun dituk lagunak? Nun duk hire Rolan?

X Bai! indar berbera etsaiek oraino,
Gure besoetan dute khausituko,
Zeren, mendez mende bahiz geldituko,
Gernikako haitza, gure beiratzeko!

356

Balbino GARITAONAINDIA

JESUSEN BIOTZARI

I Eguzki-galda legez
Udako egunetan
Ixurtzen xinpar-garrak
Bazter guztietan,
Bardin Jesusek dauka
Biotza erretan,
Su au zabaldu oparik
Biotz dan-danetan.

II Amorezko sua da
Jesusek daukana
Zeruan ixioturik,
Emen gartu zana:
Su onek dauka Jesus
Umil ta otsana,
Arriturik zeruak
Ta mundu dandana.

III Garaingeruen poza
Izanik zeruan,
Justu eta santuen
Alaia munduan,
Dakuzan umil Jesus
Altara santuan,
Gurarik biotz danak
Sutu bere suan.

IV Aingeruak baturik
Arima onakaz
Agurtzen dabe Jesus
Kantu ederrakaz;
Inpernutarrak barriz
Gizon deungenakaz
Azarratuten dabe
Birau esainakaz.

V Bere suaz betoguz
Biotzak berotzen,
Zeru ederra deuzku
Guri ezkititzen.
Nor da nor doilorturik
Dana atzeratzen?
Guazen guztiyok arin
Bertara galdatzen.

VI Guazen gure biotzek
Amorez sutzera,
Guazen mundu guztian
Su au zabaltzera,
Jesus maitetan emen
Gu ilten bagara
Beti-beti Beragaz
Dontzutuko gara.

357

A. RADOY

GAU BEREAN SORTHU BI HAURRER

Airea: Xori berriketaria

I Bi haur pollit, maitagarri behin ditut ezagutu,
Berehala soin orduko bihotzetikan maitatu,
Heien berriak nahiz jakin berer nioten galdatu,
Erran zautaten: gau berean auzoak zirela sorthu.

II Egia da haur horiek biak dire gau bereko,
Izen bera berdin handi hamar urtheren heineko,
Horien aitek hartu zuten egun bera ezkontzeko,
Jokatu ere bazkari bat zoin lehen zen aitakuko.

III Egun berean ezkondu aitatu egun berean
Bi haur eder sorthu ziren bi ametarik batean,
Elgarrekin girstinotu bathei sainduko urean,
Jinkoak zeruan ezarri bien izenak aldean.

IV Biak beltz, bilo luze, gerruntzeetarik lerdanak
Sorthuz geroz badoatzi eskutik esku emanak,
Bata bertzea besarkatuz baderamate egunak,
Ez dakienak uste luzke sabel berean egonak.

V Batean egin zazue lehen komunionea,
Eskuz esku har zazue mahi sailduko bidea,
Egun berean errezebi Jesusen Gorphutz maitea,
Oï, zuenganat nik banauka egun hartako galdea!

VI Lili fresko baten pare garbiki bizi onduan,
Zuen berthute ederrez ezagutuak munduan,
Ezkont zaitzete, ene haurrak, biak aldare berean,
Nun ez duzuen nahi sarthu elgarrekin komentuan.

VII Bizitze luze uros bat lurrean ereman eta
Nola hiltzeko arrasta denentzat emanik baita,
Zuentzat othoizten dut orai zero goreneko Aita,
Heriotzea igortzean, egun bera dezan hauta.

VIII Besoz beso, begiz begi, elgarrekilan biziak
Jinko jaunak ez ditzazke barrea zuen eskuak,
Ez zaituzte separatuko ez eta heriotzeak,
Zeruan jarriko zarezte tronu berean bi-biak.

358

Juan Ignazio URANGA

IPUI BERRIYAK

*Euskaldun jaiotzeak ta
Euskaldun nai det il.*

I

TXAKURRA

Goizero oi zan txakur zuri bat
Ibiltzen kale danetan,
Ezur zikin ta ogi puzketaz
Bete nairik zakarretan.
Bainan ara zer gerta zitzaion,
Gau txit gogozko onetan
Geiegi jan ta puztuturikan
Il zan oinazez batetan.

Gure artean ere askotan,
Gerta litekiena da,
Naiz gogozkua izanagatik,
Ez jan geiegi al bada,
Jan edanan gizona,
Baldin ibiltzen ez bada,
Iltzeko gaitza liteke izan
Geiegizko betekada.

II

BI OILARREN BORROKA

Oilar bi ziran aserreturik
Elkarri asi mokoka,
Non jarri zuten oilotaldean
Izugarrizko borroka,
Eta pakeak egin nairikan
Hartu zan artean kolka
Danak berari eraso eta
An utzi zuten urgunka.

Bada au bera gerta liteke,
Askotan gure artean,
Kolkaren gisa sartzen bagera,
Ezin liteken gauzean.
Makil autsiyak ez du behar,
Bi borrokarin tartean,
Bada askotan oi da izan
Ere guretzat kaltean.

III

ZAPELAITZA

Txori txikiyak atxi nairikan
Zebilela zapelaitza,
Goitikan egan jeisterakuan
Egan jo zuben aritza.
Bada ikaraz sartu zitzaion
Gibelainoko gaitza,
Denbora gutxin barrunbian zan
Ikaratikan il aisa.

Askotan ez da kolpe bearrik
Gizona mendeatzeko
Zuaitz adarran soinu bakarrik
Aski da ikaratzeko.
Bada ikara bera aski da
Gizona azkar galtzeko
Eta ortatik gaisoturikan
Sendatze gabe iltzeko.

359

An.

**AMA EUSKARARI (AKROSTIKOA)
ZAZPIAK BETI BAT**

Zuben anaiak izango gera bizi artian,
Adierazten dizutet gogoz biyotzetikan,
Zazpiak bada lotsaz ez gaiten geldi atzian,
Pozik alegin egin dezagun aman gaitikan,
Izan liteke negar eginaz guregaitikan,
Arkitutzia buru makurka baztar batian,
Korri mutilak jarri gaitian danen gaitikan

Barkaziyua eskatuzteko bere aurrian.
Euskaldun danak ama euskara maita dezagun,
Ta biyotzetik jaungoikoari beti eskatu.
Idukitzeko bere onduan gau eta egun

Bere barrunen gaitzik beinere ez dedin sartu,
Ama betiko izango gora zurekin lagun
Ta guregaitik irudipenik ez inoiz artu.

360

AN.

AMETS BAT

I Amets batek zoraturik nago
Guan den arratse batian
Plazer haundia hartzen dut oraino
Amets hartaz oroitzian,
Aingeru bat agertu zitzaian
Neure begien aintzinian
Iruskia bezain ederra zen
Zerua garbia denian.

II Neure bizian ez dut ikusi
Alako aingeru ederrik,
Lurraren gainean ez da izanen
Hari paretuko denik,
Neure ganat etorri zenian
Urre eta diamantez beterik
Bozkarioak ez zuen geiago
Neure biotzian lekurik.

III Neure ondorat heldu zenian
Lore xuri bat eskuan
Bi egalak ere zabalduak
Korona eder bat buruan
Diamantazko zintura haundi bat
Gorputzaren inguruan,
Uste nuen sartua nintzela
Aingeruen Parabisuan.

IV Tonbako ixiltasuna edo geiago
Bazen gure inguruan,
Mintzatzeko ahala galdurik
Egotu nintzen orduan,
Alako mementorik ez dut pasatu,
Dudalarikan goguan
Ura baino kreatura ederragorik
Ez da izanen Zeruan.

V Mintza zite Aingeru ederra
(Erran nion azkenian)
Zertarat agertu zare bada
Olako edertasunian.
Neure bila etorri bazare
Etorriko nahi lorian
Zurekin hola ibiltzekotan
Aingeru guzieren erdian.

VI Azken itza finitu nuenian
Guan zen usoaren idurian,
Aren agotik solas bat bederen
Aitu gabe azkenian,

Bainan plazer bat gelditu zitzaitan,
Sekulakotz biotzian
Behar bada ikusiko dut oraino
Bertze ametsa batian.

VII Ilusione guziak dirare
Denborarekin finituko,
Gazteko plazer ederrak berriz
Ez baitire itzuliko.
Jinkoari biotzaren erditik
Orai diot galdetuko
Osasuna on bat eman dezala
Ahal bezain luze bizitzeko.

361

An.

ANTZA

I Sinist gentzake dala guztiya
Iduripen bat bizitza,
Zeina inola ezin liteken
Inor egiazki mintza.
Lan bearrian arkitzen danak
Zeruti oi du agintza,
Estalirikan dagon landare
Ark duben bezela intza.

II Gure bizitzak iduritzen du
Dala urrezko baratza,
Ala litzake kendu ezkeru
Lan egin bear garratza,
Egunak nola oi du berekin
Lagungarritzat arratza?
Bizitz gureak ere ala du
Zuzengarrizko ardatza.

III Bizieraren luze laburra
Ezin liteke neurtu,
Bada askotan jakintsuenak
Ditu lan onek bigurtu,

Gure iduri txoro guztiyak
Oi dira amets biurtu,
Jela gogorra oi dan bezela
Aize epelakin urtu.

IV Zergatik gera gure bizitze
Maitearekin jostatzen,
Eta zergatik jarritzen gera
Gauzik onena jokutzen?
Makurtzen gera asten danean
Indarra zerbait ukatzen,
Ikusirikan nola dijuan
Arnase ona bukatzen.

V Gure emengo biziera da
Bestearekiko utsa,
Betikotasun ederrarekin
Ote niteke ni kutsa?
Azaltzen zaigu oso ilunki
Eriotzaren bizutza,
Gorputz il ura biur dediyen
Lendik esan bezela antza.

362

An.

ARITZ GUREARI

I Maitagarrizko arbol gurea
 Arkitzen zera igarra,
 Zure zain oiek aspaldi ontan
 Daukate indar bearra,
 Ustez betiko jarriya zinan
 Ai, au pena ta negarra
 Ikusirikan nola daukazun
 Gaitza sartuba txit txarra.

II Denbora joan da ondoren gora
 Zure gatikan oroitzen,
 Ez genduben guk gaitz egiterik
 Inork munduban pentsatzen,
 Bainan etsaiak zital izanik,
 Ondamua nola zuten,
 Guk uste gabe egun batian
 Gaitz ori sartu zizuten.

III Bai! Egun ura guretzat izan
 Zan guztiz penagarriya,
 Ordu ezkeroz euskal-erriyak
 Dauka lutua jarriya,

Bainan oraindik ez degu etsi,
 Oso zerela eroriya!
 Jaungoikoari eskaturikan
 Emango dezu orriya.

IV Zer egin dezu gisa orretan
 Zu orrela arkitzeko,
 Eta zinduzen orri ederrak
 Lurpera-arazitzeko?
 On besterikan ez dezu egin
 Euskal semearentzako,
 Egin oi zuten bezela aiek
 Espaini danarentzako.

V Guazen mutilak, euskaldun danak,
 Etsaiak purrukatzera,
 Eta betiko euskal-errira
 Pake on bat ekartzera;
 Inor atzian gelditu gabe
 Guazen! biyotzez aurrera,
 Jaunan laguntza izango degu
 Zuzen ibiltzen bagera.

363

AN.

ASTO ALPERRA

Asto koskor bat zuten
 Baserri batian,
 Ustez lagundutzeko
 Zerbaitu lanian,
 Bainan ark izan arren
 Lanerako grina,
 Maiztxo izaten zuben
 Nunbaiteko mina;
 Baldin karga piska bat
 Jartzen baziyyoten,
 Lurrera etzin eta
 Ezin altxa zuten,
 Beti aitzekiz jartzen
 Zuben bere anka,
 Erozer gauzarekin
 Jarritzen zan aika,
 Ala etxeko denak
 Zeuden penatubak
 Jakindu ziran arte

Aren pekatubak,
 Sendakin batek zuben
 Dana txit miratu,
 Bainan gaitzik batere
 Etziyon bilatu,
 Orduan danak ziran
 Golpatutzen asi,
 Juan biar izan zuben
 Andikan igasi.

Onek erakusten du,
 Beti alper danak
 Ekartzen ditubela
 Onelako lanak;
 Banan lanetik bizi
 Diraden guziyak,
 Beti irago dirala
 Ondo ikusiyak.

364

AN.

EKATZUTE SARIYA!

I Ni naiz biursariya
Eta naiz abila,
Orrengatikan nator
Sariyaren bila,
Apustu egingo det
Soineko amila,
Neretzat dirala naiz
Kontra izan mila,
Ontzako urria ta
Gainera makila.

II Naiz bat izan kantari
Ona ta garbiya,
Naiz bestiak famatu
Euskaldun erriya,
Alperrik izango da
Aien lantegiya,
Nik irabaziko det
Emengo sariya,
Eta sartuko diyot
Danari ziriya.

III Onlako bertso gutxi
Dirade aditu,
Orrengatik nai ditut
Emen argiratu,
Jaunak ez baterere
Onekin arritu,
Nola eztan ain onik
Oraindik arkitu
Argatik txunditubak
Zerate gelditu.

IV Ustez daukat makila
Orain aurrez aurre,
Zeini begira nagon,
Keinuka ta farrez,
Eltzetxo bat betia
Emandare urrez,
Ez nuke trukatuko
Sariyori errez,
Naiz sekulako egon
Lurpetuba zorrez.

V Pozik gastatuko det
Nere ontzakua,
Estutxe bat erosten
Gusto onekua,
Gero irukiko det
Txit kontuz jasua,
Zinta finez ederki
Eginda lazua,
Onratzeko oroitza
Eta makiltxua.

VI Orra nik argiratu
Juzgatzaile jauna,
Sei bertso ontarako
Jarri ditudanak,
Bakar bat ezta txarrik,
Denak dira onak,
Eta ez saritzera
Zubek nere lanak...
Kolpez aberastuko
Altzerate danak.

365

AN.

EUSKALDUNEN LORIAK

Airea: Adio, Euskal-herria, edo Gernikako arbola

I Gizon euskaldun guziz ohoragarriak,
Euskara hizkuntzaren goresle handiak,
Bozten dauku bihotza zuen arpegiak,
Agur derautzuegu, oi gure loriak!

II Bizien laudatzeko bethi da denbora,
Aipha dezagun egun hizkuntza euskara,
Jainkoak igorria Tubalen gogora,
Eta Tubalek bere haur guzietara.

III Noeren semea zen Japet deitzen zena,
Eta Japetek Tubal seme bortzgarrena,
Hura da Espainian lehen sarthu zena,
Hartarik da ethorri gure hastapena.

IV Tubalen haurrak ziren Tubaloak deitzen,
Iberak deithuz ere Euskaldunak ziren,
Heiek Banderatzat gurutze bat zuten,
Tubalen izenaren lehen letra baitzen.

V Tubal Euskaldun zela da segurtamena!
Gurutze harrek zuen *lau-buru* izena,
Tubalen haurrek berek eman ziotena,
Romatarrek *Labarum* deitatu zutena.

VI *Lauburu* aintzinean, Iberak ondotik
Muthiri jausten ziren Mendien gainetik,
Tabala joten zuten Tubalek eginik,
Tabala deitzen baita haren izenetik.

VII Jakintsun handienek aithortzen dutena,
Euskal hizkuntza dela mintzai ederrena,
Nihoiz auzokoekin nahasi ez dena,
Hortakotz dei ditake munduko lehena.

VIII Izkribaño batzuen omen da ustea,
Euskarak erdaratik duela hastea,
Gaizoa! iduri du horrek erraitea:
Segur Arranoa da Pikaren umea!

IX Euskaldunek oraino hau dugu loria,
Guzia girixtino da Euskal herria,

Fedearen zaintzeko bethi atzarria,
Nehork ez baitu hautsi gure lokharria.

X Inpiotasunaren erauntsiak ditu
Herrialde orotan jendeak funditu,
Bainan Euskal herria sendo da gelditu,
Gure Mendi gainetan indarrak ez baitu.

XI Munduan ez du izan Satanen semerik,
Pagano, Arriano ez eta Mairurik,
Gure arbasoetan gaitz egin duenik,
Gurek aithortu bethi Jainko bat bakharririk!

XII Oraiko denboretan zer dugu aditzen?
Framazonak orotan direla ibiltzen,
Gur'arterat sartzera direla ausartzen,
Han hemenka dutela zenbeit ergel biltzen.

XIII Euskaldun haur maiteak, zaituztet othoitzten,
Maite izan zazue Euskaraz mintzatzten,
Bai eta fedearen hazkar atxikitzen,
Arbasoen iduri bethi izan gaiten.

366

AN.

NERE MENDIYAK

*Airea: Gernikako arbola
Da bedeinkatua.*

I Jaunak emanik dauzka
Euskaldun erriyak,
Lerden jaikitzen diran
Mendi goiantiyak,
Indartzen dituela
Barrendik burniyak,
Mendi oriyek dira
Umanten mendiyak.

II Benaz maite zaituztet
O mendi santuak!
Seaska ta obitzat
Guretzat sortuak,
Zuentzako ditut nik
Ditudan kantuak,
Zuek ikusirikan
Barrenen jaiuak.

III Mendi goiak dirade
Zerurontz jaikitzen,
Euskal-lurra dutela
Maitaro gordetzen:
Lainoen gainetikan
Zaizkigu agertzen,
Biotza berengana
Gozoro jasotzen.

IV Zuen artean jai
Geraden jendeak
Zuengana nai degu
Joan, mendi maiteak.
Guretzako zaudete
Doaiez beteak,
Poza ematen digu
Zuek ikusteak.

V Euskera entzuten da
Zuen inguruan
Euskera bai ta zuen
Azpiko txokuan.
Oiartzunak esnatzen
Euskera sonuan,
Elkarrekin mintzatzten
Euskera gozuan.

VI Mendi nereak! zutik
Zaudeten artean,
Euskera ez da galduko
Aitorren lurrean,
Eta egun obiak
Lur au alaitzean.

367

AN.

NERE SENTIMENTUA

I Sentimentua esan biar det
Nigarrez edo kantari,
Baldin biotzak laguntzen badit
Nere arbol maiteari,
Igartu zara bada betiko,
Ez da ostorik ageri,
Oroitz tristea gelditzen zaigu
Orain euskaldun daneri.

II Amaika aldiz oroitzen naizen
Zori oneko arbola
Malkoa ere irtentzen zaizkit
Ikustiarekin orla;
Igartu bai bainan nola?
Ez euskaldunak izan bagendu
Antzinatarren odola.

III Amaika aldiz esana zaudez
Bada euskal-erriari,
Aitu nazute seme maiteak,
Ez naien bada erori,
Erortzen banaiz galdu zerate
Esaten dizutet garbi,
Igartu arren oraindik zainak
Ementxen dauzkat nik lori.

IV Amoriozko arbol maitia,
Euskal erriko koroia,
Galdu dirade zure loriak
Eta lengo sasoiá,
Uste gabian zainetan sartu
Zaizu betiko ordeia,
Aspaldikuan orrentxen bila
Zebilen jende pozoia.

V Juan berriak ziran fueruak
Antzinetako legiak,
Aspaldikuan diabru obek
Daukazkitenak gordiak,
Orla lotsetan arkitutzia
Euskal erriko semiak,
Ez dakit bada zer pentsatzenduen
Gure Jangoiko maitiak.

VI Euskal erriko seme ederrak
Zoazte gaur Gernikara,
Zuben arbola antxen dagota
Eta belauniko para;
Zinaturikan bere aurrian
Esan zazute, ai ama!
Zain maitietan muin ematera
Gatoz danok zure gana.

368

IZKINOZUA ETA ZOZUA

GUDUYA EUSKERAGATIK

1 Putzu zuluán zebilelarik
Jostatzen izkinozua,
Azkar zitzaion sasitik jetxi
Bere albora zozua,
Ta ikusirik galdetu ziyon,
Zer zabiltz emen zorua?
Ez nuben uste zinanikan zu
Onen pisti inozua.

II Ni inozua izanagatik
Ez dizut zuri zorrikan,
Izkinozua naiz, ta ez daukat
Zozo txarren bildurrikan
Ez nazazula ni aserretu,
Zoazkit azkar ortikan,
Bestela zure buru txar orrek
Ez du izango otzikan.

III Zozua naiz, ta ez nau beinere
Izkinozuak izutu,
Ez eta ere berriketakin
Ikaratu ta kuskurtu,
Uste al dezu bildur gaitzetik
Naizela inoiz kutsutu?
Bada zozorik izkinozuak
Deusekin ez du mututu.

IV Borrokaturik biyak ziraden
Putzu zulora erori,
Non itorikan bukatu zuten
Beren aserre txar ori.
Ispilu ona agertzen digu
Iputxo onek danori,
Jakín dezagun bear ez dala
Gerrarik jarri inori.

ESKUALDUNA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

PRIX D'ABONNEMENT

Pays Basque.	4 fr. par an.
France.....	8 —
Amérique.....	10 —

SUPPLÉMENT

INSERTIONS

Annonces....	20 c. la ligne.
Réclames....	40 —

Prix à forfait pour les annonces à l'année.

GRANDES FÊTES INTERNATIONALES DU PAYS BASQUE

Les 21, 22, 23 et 24 Aout 1892

ORGANISÉES PAR LA MUNICIPALITÉ DE ST-JEAN-DE-LUZ

SOUS LE PATRONAGE DE

M. Antoine d'ABBADIE (de l'Institut)

DIMANCHE 21 AOUT

A 4 HEURES DE L'APRÈS-MIDI

Bénédiction des Bannières du Pays Basque à l'Église paroissiale. — Cantiques Basques. — Salut Solennel. — Motets de Hélipe Gorriti (de Tolosa). — Après l'office : Cortège, Danse.

A 5 HEURES

Au jeu de Paume. — Concours d'improvisations et d'Irrintzinas. — Danse nationale « Hurescu » par les jeunes garçons d'Andoain (Guipuzcoa).

A 9 HEURES DU SOIR

Musique. — Danses populaires sur la place Louis XIV.

LUNDI 22 AOUT

A 10 HEURES DU MATIN

Grande partie internationale de paume au Rebot.

A 4 HEURES DE L'APRÈS-MIDI

Danses héroïques et traditionnelles du Pays Basque Espagnol par les jeunes danseurs d'Andoain (Guipuzcoa).

A 9 HEURES DU SOIR

Musique. — Danses populaires sur la place Louis XIV.

MARDI 23 AOUT

A 10 HEURES DU MATIN

Grande partie internationale de blaid au Chistera.

A 3 HEURES DE L'APRÈS-MIDI

Pastorale Souletine (mystère d'Abraham), jouée par les jeunes gens de Garcus (Arr' de Mauléon), suivie du concours de la danse nationale du Saut basque.

A 9 HEURES DU SOIR

Musique. — Chansons et Danses populaires sur la place Louis XIV.

MERCREDI 24 AOUT

DE 8 A 10 HEURES DU MATIN

Jeux d'adresse et d'agilité.

A 10 HEURES

Partie internationale de blaid à mains nues.

A 4 HEURES DE L'APRÈS-MIDI

Grande mascarade Souletine.

Le Maire de St-Jean-de-Luz, président du Comité des Fêtes, Dr A. GOYRNECHE



Biktoriano Iraola (Pasaia Donibane, 1840 - Donostia, 1919)

369

AN.

ZARGORIYA

I Eguzkiyaren dizdira gogor ari begira,
Egon ezkeru, nola galtzen da begirakuna?
Ala galtzen du zargori txarrak eri azuna,
Eta itzanik baztartutzen du sasi azpira,
Zakartutzen du pipiturik dago mispira,
Sagartxoari berriz arsisa sortzen zaio,
Bainan sustraiturik orrengatikan galtzen etzaio
Gau intz gozoak diyozka indar denak berritzen,
Landareari ez diyo uzten gainak orritzen,
Baldin sustraira gaitz gogorren bat sortzen bazaio.

II Noizian beinka odoi zuriyak dute estaltzen,
Eguzkiyaren koro indartsu zoragarriya,
Non kiskaldurik utzitzen duben belar saroiya
Eta loretxo txuri pollitak dituben galtzen,
Onezka dauden landaretxoak ditu igartzen,

Zain gorriturik artoak ere ikusten dira,
Zorriyak iges joaten dirade zumardegira,
Zargoriyaren bero zakarrak makaldurikan
Ez dute bada egualdi onez duten kantikan,
Baizik turmoian bildurrez dira sartzen kabira.

III Zargoriyaren ondoreneko turmoi soinuak
Laguntzat ditu tximista eta kaskarabarra,
Ondatutzen du zelaitxoetan dagon belarra,
Lengo antzikan gabe dirade jartzen zoruak,
Topatzen ditu ur indartsuak bada zuluak,
Bai ta idiki ere lengoz gain zulo berriyak,
Ilundu eta zikintzen ditu ere ibaiyak,
Puska aundi ta txikiyak ditu bereganatzen,
Aurrez an digu ixkamildurik adierazten,
Leio gaineko kaiol zarrean dagon txoriyak.

1892 DONIBANE LOHIZUNE

370

Biktoriano IRAOLA

GAISUAK!

Nere adiskide Pedro Sopelarleri eskeinia

I Aize izoztu beldurgarriya
Gailendutzen zan indarrez,
Mendi altuak, kanpo zabalak
Jantziyak zeuden elurrez,
Eguzkiyaren begiratuba
Etzan arpegi ederrez,
Txori alegre kantari aiek
Etziran ikusten errez.
Nonbait gaisuak gordeta zeuden
Elurtiaren beldurrez.

II Zugazti baten adar ertzian
Guztizko kontuz gordiak,
Txoritxo batek zeukan kabiya
Eta kabiyan umiak;
Amak beraren egal azpiyan
Estali arren tristiak.
Ume erbalak arkitzen ziran
Gaisuak otzak pasiak,
Eta txioka dardar ikaraz
Iya ilian gosiak.

III Egaa zabalez eta koajez
Aldendutzen da kabitik,
Kanpo elurrez estali artan
Zerbait bilatzia gatik,
Baina, ai! baratz polit aietan
Etzan arkitzen lorerik.
Ala txoritxo koajetsua
Saiatutzen zan alperrik,
Zeren janari guziyak zeuden
Elur azpiyan gorderik.

IV Ogi apur bat arkitu eta
Tristia guztiz kontentu,
Egaa biziyan umetara
Beriala zan jiratu,
Zer poza senti ote zuben ark
Zitzaionian eratu!
Ala txoriyak mokuen punttan
Ura zubenian artu.
Zugaztiraino iritxi naian
Etzan gaisuak geratu.

V Ama leiala ailegaturik
Arbolen aldamera,
Tunpadako bat ordubantxen zan
Bazter batetik atera;
Egalak oso purrukatu ta
Eroritzen zan gain-bera.
Bere kabiya zeukan arboltxo
Zugaztiyaren oinera,
Nagiyak jua balitz bezela
Ila elurren gainera.

VI Eiztari bat, ai! bere eizari
Kontentu aundiz begira,
Egite eder arren pozian
Kantari dua errira,
Txori txikiyak beti txioka
Artian bizi badira.
Isildu gabe penagarriyak
Aizera ariko dira,
Amari deika, noiz biuruko
Ote zaioten kabira...

VII Egun sentiyen argi berriyak
Kantuz agurtzen diranak,
Etziran entzun goiz triste artan
Lenaz entzuten ziranak,
Kabiyan epel beren amakin
Gutziz kontentu zeudenak.
Ai! Txori txiki ezin egonak
Lenago arren gizenak:
Gau luze artan gosiak eta
Otzak il zituen denak.

VIII Eguzkiyaren indarrak gero
Bultzaturik aize txistuak,
Etziran asko pozkiratutzen
Zugaztiko umetxuak.
Ume zurtzaren gisa lajiak
Ziran eiztari gaistuak.
Nola etzuten zeinek emanik
Lengo atsegin gozuak.
Amarik gabe nola biziko
Ziran umiak?... Gaisuak!

371

Piarres IBARRART

ITSUA ETA SASTREA

Airea: Adio, Euskal Herria

I Euskaldun bat zen itsu eta bertsulari,
Athez-athe zabilan iloba gidari.
Soineko eta diru, janhari edari,
Nasaiki biltzen zuten bertsu eman sari.

II Zuhur gisa baitzuten sos guti gastatzen,
Piko-pean eltze bat gordea zaokaten.
Hiru ehun libera harat bildu zuten,
Bainan gaixtagin batek ebatsi zioten.

III Bere gorde lekhitik galdurik eltzea,
Bat zagon hasperenka, nigarrez bertzea,
Oi hau da bihotz mina, oseba maitea,
Horra zer den kanpoan gauzen gordetzea.

IV Azkeneko aldian hemen ginelarik,
Ikusi gaituztela ez diat dudarik,
Bai sastrea heldu zen pegarra betherik,
Behatu zuen guri bainan urrunetik.

V To! har nezak eskutik sastrearen gana,
Adi dezan bertsu bat Itsuak emana,
Gure eltzea badu harek eremana,
Bazakiat nik hura zer gisaz engana.

VI Ilobak Itsuari aphen beharria,
Sastrearen etxerat orai heltzen gira,
Irri faltsuan dago leihotik begira,
Ez erran hitz gaixtorik zuhurra bazira.

VII Iloba, gida nezak arthoski bidean.
Zerbait daiat utziko azken egunean,
Ehun luis baitiat piko baten pean,
Bertze ehun emanen bihar han berean.

VIII Sastreak bere baithan: Itsuak etzakik
Hartuak ditudala horren sosak handik:
Eltze hau diruekin berriz han emanik
Bertze hiru ehunak bilduko tiat nik.

IX Itsuaren agintza balios izan zen,
Biharamun goizeko eltzea han zuten,
Ilobak erran zion: hemen dugu hemen,
Oi, zein ongi sastrea enganatua den.

X Ene moltsan behar duk dirua ezarri,
Lurpean hola-hola utzak eltze hori,
Eta emok barnean bortz edo sei harri,
Sastreak aski pisu altxa dezan sarri.

XI Itsuak sastreari: To! errak egia,
Atzo bezala dukan arrai arpegia?
Ala trixterik hagon doluan jarria.
Dirua erain eta bildurik harria.

XII Itsu harpagon zikoitz laido emailea,
Habil eta ez kolpa ene ohorea,

Dirudun bahaiz ere, eta ni gabea
Baduk aski zorigaitz hire ilhunbea.

XIII Ni itsu ilhunbean, hi sastre erromes,
Dezagun elgar lagun biek ditugunez.
Nik egiten haut jabe ene onthasunez,
Nahi banauk okhertu hire begi batez.

372

M. URRUTIGOITY

Musde ABADIA JAUNARI

I Egun hun erraiten deizügü Musde Abadia Jauna,
Laphurdirik ützüli gabe Etchehunnen herriala,
Emanen tügü bi kobla,
Milakaz eskerrak deitzügü Uskaldün ororen phartez,
Egin deizkützün hunkiez,
Ukhen dütügün uhurez.

II Pariseko jakintsietan zü lehenetarik zira,
Bilkhura argitienetan badüzü zure kaidera,
Entzünik da zure botza.
Gure mendietan ipharrak zure fama du hedatzen
Zure izena khantatzen,
Bazter orotan aiphatzen.

III Zure bihotz nublia, Jauna, estimatzenago dügü
Uskal herria amoriotan nula düzün begiratü,
Zure hunkiez lagüntü,
Merexi bezala zirade, Jinko hunaz maithatürrik
Praubez benedikatürrik,
Orotzaz uhuratürrik.

IV Huntarzünak, jakitatia largoki zük erabilten,
Buket izan beitzira bethi Uskararen eraikiten,
Galtzerik haren baratzen,
Jokü zaharren baliua erakasten Uskaldüner,
Algar maithatzen güzier,
Zazpi herri ahizper.

V Zure erraner jarraikitez, zuri plazer egiteko,
Gure Uskara ederrari fidel gira izanenko,
Jagoiti ez ahatzeko,
Noizpaizko mendetan bezala, pelota, kobla, phastualak,
Maskarada eta dantzak
Dirate gure solasak.

VI Bihotz bihotzetik deizügü desiratzen, ürhentzian
Ezpirituz ziren bezala, khorpitzez izan zitian
Bethi gazte zahartzian.
Uskaldün besta handietan, Jauna, lüzaz izan zite,
Orano hunki egile,
Berrogei urthez bedere.

ZIBERUAK LAPHURDIRI

Airea: Basoilarrak kantatzen dizu Iratiko soruan

I Egun hun Jinkuak deizula
Musde Antoine d'Abbadia,
Ziberuak salutatzan zutu
Laphurdiko nublia,
Aspaldian entzuten dugu
Zure fama handia,
Egun hun Jinkuak deizula
Musde Antoine d'Abbadia.

II Nahiz ezkiradian kapable
Zure aski laidotzeko,
Khantoriak berririk batugu
Ziberuan zuretako,
Esparantxareki makhurrak
Deizkutzula pharkatuko,
Gure ignoranziaz Laphurdin
Eztirela trufatuko.

III Ziberuan Barkoxe deikuzu
Jauna zuk uhuratzen,
Kartiel huni beiterozue
Amorio markatzen;
Zure obra hunak ditizu
Jinkuak benedikatzen,
Gure aldetik zutugu jauna
Orok ermesiatzen.

IV Laphurtarren orentako,
Zuri gira mintzaturen,
Zeren jauna zu beitzirade
Aita haien orenen,
Gu girade adiskide
Zure familiaren
Hain segur nula beitzirade
Zu aita hun Laphurdiren.

V Bai, Ziberotarrak girade
Laphurtarren adiskide,
Ziberotarren laidoriuak
Ziek merexi tutzie,

Guretako izan zirie
Ezinago afable,
Nula aren guk eginen dugu
Zier aski uhure.

VI Erran dezagun orok biba,
Musde d'Abbadari,
Felizita dezagun
Laphurdi orearki,
Gure Jinkua othoi dezagun
Guk oro bihotzetik,
Eman dizon denboraz orano
Jaunari osagarri.

VII Biba Laphurdin Musde d'Abbadia,
Goyeneche jaun merareki,
Musde d'Andurain Ziberuan
Bere askazi orearki,
Baxanabarren Musde Etcheverry
Gure deputatiareki,
Zuinek jaun horier amorio
Guk beiterokegu bethi.

VIII Laphurdi eta Baxanabarre,
Ziberua oro dena,
Uniturik izan gitian
Bethi azkar algarrenak,
Orai ere lehen bezala
Gu oro Jinkuarenak,
Erran ahal dezagun bethi
Orok biba Eskualdunak.

IX Arren Biba Musde d'Abbadia
Eskual-herriareki,
Desiratzen dutzugu jauna
Guk nahiak oro zuri,
Mundu huntan bizi zitian
Luzaz osagarriareki
Eta bestian sekulakoz
Zeluko gloriaki.

AZPEITIA

LES FÊTES EUSKARIENNES

DE SEPTEMBRE 1893

par Charles Bernadou

suivi de la Marche de saint Ignace
et autres poésies basques avec musique



Se vend au bénéfice des Écoles Chrétiennes libres

BAYONNE

IMPRIMERIE-LIBRAIRIE L. LASSERRE
rue Gambetta, 20

1894

1893 AZPEITIA

374

Frantzisko LOPEZ ALEN

AMA BATEN OTSA SEASKAREN ONDOAN

A

I Zer darabilzu, nere maitia?

Nork du maitetxo esnatu?

Ametsetatik ain ondo zeuden

Nork othe zaitu ernetu?

Norentzat dira far-irri oiek?

Nori bigaltzen dizkatzu?

Zu esnatutzen zeran guztiyan

Ama jartzen da kontentu.

II Zeinenak dira musu gorriyak

Maindiriaren orrian

Diruditenak lorak daudenak

Sardinien ostoa tartian?

Nork zabalduzuten ditu algarak

Orren alaitxo etxian?

Nork jarri zaitu usai gozozko

Seaska txuri-txurian?

III Aitatxo aurki datorrenean

Lanetik zure ondora,

O! zer pozakin laztan-musuka

Zaitun artuko besora,

Ta bitartian gure aurtxoa

Titia artuta gerora

Lo egingo du, amak etxeko

Lanak eginik gustora.

IV A! nik ikusten zaitutanean

Lotan zaudela geldirik

Ile kiskurak darizutela

Kopetetikan jetxirik,

Orduban nere barrenak ez du

Pentsatzen beste gauzarik,

Jaunak zuretzat etorkizunan

Zer ote dauka gorderik!

V Ez! ... etzazula negarrik egin,

Amatxo dago ondoan,

Eta negarrak amatxori gaitz

Egiten diyo kolkoan;

Ez!... Ez!... maitia, atoz nigana

Artuko zaitut besoan

Ikus itzazun mutil txikiak

Jostatzen gure auzoan.

B

I Ilunabarra badator

Gauza guziyak estaltzen

Eguzkiak zitubenak

Ain ederki apaitzen.

II Nere ondoko leiotik

Sentitzen det: zer gozo!

Aurrari nola ari dan

Ama kantari erazo:

III " Nere maitia, lo ta lo,

Egingo degu gozoro...!

Zuk orain eta nik gero

Biyak egingo degu lo...lo...lo...!"



375

Felipe CASAL

AMA EUSKARA ETA BERE UMIAK

UMIAK

I Ama, gaitzen bat aldu
Barrunen sentitzen?
Triste daguela gaur
Zaigu iruditzen.

AMAK

II Ez, umiak, oraindik
Ain gaizki arkitzen
Ez naiz, bainan laguntza
Dizutet eskatzen.

UMIAK

III Umiak emen gaude
Beti laguntzeko,
Eta gure biyotzak
Zuri emateko.

AMAK

IV Ni ere emen nago
Zubek maitatzeko,
Eta beso artian
Danak laztantzeko.

UMIAK

V Zuri gaitz egin naian
Dabiltza etsaiak,
Bainan ernai gaude gu
Zaitutzen guztiyak.

AMAK

VI Elkhartasun onean
Zazpi Probintziyak

Urra bear ditugu
Oien txarkeriyak.

UMIAK

VII Gure aurreko aiek
Denak baturikan,
Ezagutu etzuten
Inoiz bildurrikan.

AMAK

VIII Ala da, eta segi
Aien bidetikan,
Ez dediyen aztutzat
Geldi legerikan.

UMIAK

IX Ama, egingo degu
Alegin guztiyak
Galtzeratu bainan len
Naiz utzi biziya.

AMAK

X Umiak, arrazoiak
Du indar aundiya,
Ta Jainkoak egingo
Digu ekadoiya.

UMIAK

XI Orai erregutzeko
Gure Jainkoari,
Bear degu guztiyak
Belauniko jarri,
Bai ere kontu egin
Ama! euskarari
Gure lege on eta
Oitura zarrari.

GAUDEN ESKUALDUN

Laphurtar kantu berriak, Gipuzkoar eta Bizkaitarrek Gernikako Arbolarenak dituzten gisa berekoak.

Kopartetako guzien errefaua:

Zazpi Eskual herriek bat egin dezagun,
Guziak bethi, bethi, gauden gu Eskualdun.

I Agur eta ohore Eskual herriari,
Laphurdi, Basa-Nabar, Zibero gainari,
Bizkai, Nabar, Gipuzko eta Alabari,
Zazpiak bat besarka loth beitez elgarri.

II Haritz eder bat bada gure mendietan,
Zazpi adarrez dena zabaltzen airetan,
Frantzian, Espainian, bi alderdietan,
Hemen hiru 'ta han lau bat da zazpitan.

III Ekhalde Iberrian, lehenik sorthua,
Lau mila urthe huntan hor da landatua,
Hain handi lur libroan lehen izatua,
Orai gure haritza, zein den murriztua!

IV Hi haiz Eskual herria, haritz hori bera,
Arrotza nausiturik moztua sobera,
Oi, gure arbasoak, hots! othoi ez beha,
Zein goratik garen gu jautsiak behera.

V Eskual herri guzian alaba bakharra,
Ukhoan jarri zaikun, da gure ikhara.
Fueoak galdu eta utzi du Eskuara,
Akhabo eskualduna, hortaratzen bada.

VI Eskualduna jendetan eskuara mintzotan,
Lehenak omen dire jakinen ahotan,
Nahiz orai arrotzak manatzen darokan,
Ago hor Eskualduna, eskualdun herronkan.

VII Eskualduntasunari eta Eskuarari
Balinba ez ginuke ukho egin nahi,
Halakorikan nihor gutarik baladi,
Eskual herri guzian baluke trufari.

VIII Gureak ziren lehen bazter hauk guziak,
Arbasoek utziak, hek irabaziak,
Guri esker Frantziak eta Espainiak,
Dagozkate dituzten eremu handiak.

IX Mairu beltza zelarik Espainian nausi,
Nabasen Eskualdunak egin zion jauzi,
Lau ehun mila mairu zituen herrautsi,
Eta gainerakoak igorri ihesi.

X Orduan gure alde oihuz zauden oro,
"Bere lurrean nausi, eskualduna bego,
Frantziak, Espainiak, bai orai, bai gero,
Deus khendu gabe dute gerizatu gogo".

XI Patu hoviez geroztik gan dire denborak,
Ukhatu diozkate hartzedunei zorrak.
Oi indarraren lege latz eta gogorak!
Zuzendunak galduez alfer heiagorak!

XII Gureez gure lehen hain libro ginenak,
Ezin ahantziz gaude orduko zuzenak,
Zer ametsak ditugun, zer orhoitzapenak,
Jaungoikoak bakharrrik badakizka denak.

XIII Ez bahaiz Eskualduna lehen bezein handi,
Aphaldu gabe xutik bederen egoadi,
Odolez eta Fedez bethi berdin garbi,
Handizki atxikia hire eskuarari.

XIV Zuri gaude othoitzez Jaungoiko maitea,
Lagun zazu zerutik eskualdun jendea,
Bethi begira dezan lehengo Fedea,
Eta libertatean besarka bakea.



377

AN.

BIZI BITEZ EUSKERA TA EUSKALDUNAK

(Azpeitiko Euskal-jostaldietan, gaurko euskaldun obeenen Aita-Jaun on Antonio Abadi-koari)

KANTAURREA

I Euskera bizi-bedi,
Bizi Euskaldunak,
Beren kristautasunaz
Nunai ezagunak,
Ama Erria-ren alde
Umanta zaldunak,
Oitaru gordetzaile
Alkarren lagunak.

KANTALDIYAK

II Agur gure biotzeko
Aita-Jaun aundiya,
Abadi-ko Antoniyo
Aitor-en semia,
Zurekin poztutzen da
Azpeitiko erria,
Zeralako Euskaldunen
Ain maitalaria.

III Badakigu zerala
Euskaldun lenena,
Jakinduri askotan
Jakintsu goiena,
Izar jakintzan ere
Izar argiena,
Gizonak zeruratzen
Saia zeradena.
Euskera bizi &.

IV Aprika-tar beltz eta
Ijito tarretan,

Brasilgo erreinu ta
Europakoetan,
Zure jakinduriya
Egon da loretan,
Maitagarriya zera
Guretzat benetan!

V Alai gaituzu danok
Emen agertzian,
Euskal amore bizi
Anaitasunian,
Euskal gauzak altxarik
Iru egunian
Inazioren Etxe
Eta sorterrian.
Euskera bizi &.

VI Sutuko gera aurrera
Zurekin batera,
Euskaldun seme danok
Alkar maitatzera,
Maitatzera Euskera,
Beltzebutar guziei
Gogor egitera.

VII Maitaturik euskaldun
Oitura dontsuak,
Sortuko dira berriz
Gizon ospatsuak,
Loiola ta Loinazen
Oso antzekuak,
Okendo ta Elkanoren
Parez goitzekuak.

Euskera bizi &



1894 DONIBANE GARAZI

Gaia: *Madalena Larralde Sarako martiraren istorioa*

378

DIHARASARRY & DAGUERRE “Baigurako bi artzain”

SARAKO MARIRA, MADALENA LARRALDE, HAMABORTZ URTEKO NESKATXA

I Duela ehun bat urthe, goibel zagon Frantzia,
Herraustera zaramaten jende Kristau guzia,
Eskual herrian arrotzak hari ziren gogotik,
Bainan Eskualduna tieso... hemen ikus frogatik.

II Beratik eta Sarara, Madalena Larralde,
Beltchareneko alaba heldu da etxe alde,
Lizuniako errekan jadanik da sartua,
Uso xuri, uso gazte, doi doia lumatua.

III Pineten soldado tzarrak, kukuturik sasian,
Belatx usoz gosetuak, erne daude guardian,
Madalena gaixoari zaizko betan oldartzen,
Beren aztapar zorrotzez lau aldetarik lotzen.

IV –“Espainiako lurretan, diote neskatxari,
Zeren ondotik habilan, dena den aithor guri.
–Kofesatzen naiz izatu Berako komentuan,
Jainkoa gabe gozorik ez baitut nik munduan.

V –Neskatxa dohakabea, ixil zan aithor hori,
Xahu haiz heltzen bazaio Pinet jeneralari.
Hoin gaztedanik hiltzea damu zaikun osoki,
Erran hor hindabilala norbeit nahiz ikusi.

VI –Gezurra litake hori, ez da haizu gezurrik,
Hilik ere, erranen dut hala dena garbirik,
Beran kofesatua naiz, horra zer den egia,
Ez dut horren aithortzeko aphalduren begia.”

VII Loturik badaramate, iduri gaxtagina,
Sarako Pineten gana Larralde Madalena,
“–Zerk habilka, enuxenta, gure legez trufatzen?
–Beraraino naiz izatu frailetan kofesatzen”.

VIII Pinetek zuen anaia Donibane hirian,
Hura zen han buruzagi tribunale gorrian,
Hari dio berehala Madalena igortzen,
Otso gaitzaren ahora bildotxa bidaltzen.

IX Saratik Donibanera soldaduek burlaka
Badabilkate gaixoa xizpa zurekin joka
–“Oihu egin zan, ergela: Biba nazioena”.
Madalenak, aldiz, beti: “Bib'erslionea.”

X Zaluki zuen Pinetek hori xuritu,
Lephoa moztuz hiltzera neskatxa kondenatu,
Bainan hortaz Madalena ez batere tantitu,
Bihotza garbi duena zerk behar du izitu?

XI Phestara bezala doha *guillotinari* buruz,
Bertze guziak nigarrez, hura gozoki kantuz,
Begiak zerura beha, dio: *Salve Regina*,
Bidera dohakon deituz Martiren Erregina.

XII Madalena Saratarra, igan zare zerura,
Egia betikoaren betikotz gozatzeraz:
Dezagun zurekin ikas egiaren maitatzen.
Denetan, zer nahi gerta, gezurretik beiratzen.



379

Joanes OXALDE

MADALEN LARRALDE

Airea: Haur prodiguarena, edo Agotana.

I Azken mendean Frantzian bazen asko dolore,
Eztitugu utzi behar zonbeit aipatu gabe,
Gaxtaginak egin ziren erresumaren jabe,
Jainkoaren beldurrikan ez baitzuten batere.

II Orduan lotsaturik egotu zen mundua,
Ikhusirik galdu zela arrunt sendimendua,
Kasatu ere baitzuten erlisione saildua,
Jainkoaren orde zute adoratzten debrua.

III Hainitz aphez Frantziatik terroreak kasatu,
Bertze zenbait aldiz ziren laburzki sumetitu,
Elizak zerratu eta hontasunak beretu,
Ebastea harrendako ez ahal zen bekhatu.

IV Lotsatuak jarri ziren orduan bazterretan,
Espainiarat jendea gaiten zen igandetan,
Madalen ere gerthatzen asko aldiz heietan,
Khartsuena, garbiena hura zuten denetan.

V Alegrentzian bazohan, goiz goizean etxetik,
Lehenago pasatzen zen bere laster bidetik,
Gizon bat jalgi zitzaion thupustan oihanetik,
Ez baitzen han akabatu egin zuen deus gutik.

VI Lehen hitza erran zion, "Nun zabilta neskatxa?
Etxetik heldu zarea edo norat zohaza?"
Erreposta eman nahi, nehondik ezin mintza
Izitua hautua baratu zaion hatsa.

VII "Zertako juaiten zira hola Espainiara?
Ala han kobesaturik orai ethortzen zara?"
Berriz ere jin zitzaion zainetako ikhara,
"Zuk erran duzuna, jauna, egiazki hala da".

VIII Hura nola mintzatu zen han zen aintzindaria,
Bethidanik ageri da gizon bihotz eria,
"Niri baizik ez zazula, othoi, erran egia,
Nahi baduzu luzatu, haurra, zure bizia".

IX "Egiaren erraitera batere ez naiz lotsa,
Bizia galdurik ere arima badut ontsa
Hola irabaziko dut martyr koro airoa,
Eternitate guziko zeruetan egoitza."

X Orduan ereman zuten preso Donibanera,
Soldadoek presentatu gazteluko athera,
Pinet krudela ethorri haur haren jujatzera,
Kondenatu izan zuen lephoaren moztera.

XI Madalenek ikhusirik jiten azken orena,
Goraki khantatu zuen: "Save, Mater Regina,"
Erran nahi baitu horrek: "Agur, oi erregina",
Zure baithan utziko dut garbi dudan arima.

XII Betbetan jautsi zitzaion tresna izigarria!
Aise trenkatu baitzion haren lepho guria!
Populua suspiretan ikharan zen jarria,
Harendako errezzatuz: "Pater, Ave Maria..."

XIII Han zen, han zen akabatu Madalena Larralde,
Jainkoak bidali zion bere arimaz galde,
Bera nahi baitzen izan biktima haren jabe,
Ez baitzaukan deskantsurik aingeru hura gabe.

XIV Oi, zer etsenplu ederra munduan guzientzat,
Bai eta oroz gainetik bekhatorosentzat,
Khantu hok eman ditugu orhoitzapen horentzat,
Ordainez othoitz egizu Madelana guretzat.

380

DUHALDEBEHERE "saratarra"

MADALENA LARRALDE, SARAOKO MARTIRA

I Mende bat badu aurthen egina,
Giriztinoak oroitzeko,
Jinkoaren etsaiak zirela
Frantzian manatzeko,
Gilotina emana zuten
Guzien ikharatzeko,
Martiren odol ederrez
Bazter guziak betetzeko.

II Lau urthe bazuen gure Frantzia
Zagola doluz bethea,
Krima haundia zen orduan
Giriztino izaitea.
Libroan ezin adoratu
Gure Jinko maitea,
Frantziako giriztinoentzat
Hura mende triste!

III Apez batzuek ihes juanak,
Gordeak ziren bertziak,
Hiltzerat kondenatuak
Atzematen ziren guziak,
Elizak ere aberetegizat
Giriztinoen etxiak
Zonbat nahi gabe ez du sufritu
Gure Frantzia maiteak!

IV Hegi-meharko kartierian,
Sarako herrian,
Familia bat bazen orduan
Larrondo-xaharrian,
Aita eta ama seme batekin
Lau alaben erdian,
Nehoren jelsiarik gabe
Jinkoaren legian.

V Madalen Larralde zuten
Gaztena familian,
Jinkoa othoizten zuen
Biotzez egun guzian,
Arima on aren azkurria
Falta zuen herrian,
Espainarat kofesatzeko
Joan zen egun batian.

VI Berako kaputxinetan
Ongi kofesaturik,
Bildotx bat bezala heldu zen
Trankilki biotzetik,
Bainan hurbildu zenean
Lizuniako errekatik,
Soldaduak athera zaizkon
Sasia baten artetik.

VII Soldaduak ikustearekin
Madalen da gelditzen,
Aren humiltasunez
Guziak dire arritzen.
Nondik heldu zirare?
Diate galdatzen,
Egia erranen du eta
Ez da batere ikharatzen.

VIII Beran nintzen kofesatzen
Kaputxinen komentuan,
Jinkotiarra naizen bezala
Hura dut bethi goguan.
Zer etsenplu ederra duen
Guri eman munduan!
Soldaduak aingeru artaz
Urrikaltzen dire orduan.

IX Hemen garen soldaduak
Zutaz gira urrikaltzen,
Xuhur baduzu ez zazula erran
Izan zarela kofesatzen.
Gezur ttipi bat errazu, othoi,
Ez dugu bertzerik galdetzen.
Madalen hitz berean dago,
Ez zaio urrikitzen.

X Ez dut gezurrik erranen,
Egon nahiz neure hitzian,
Gauza bera erranen dut
Neure azken orenian.
Giriztino ona nahi du gelditu,
Bere bizi guzian,
Eternitateaz gozatzeko,
Aingeruen erdian.

XI Pinet jenerala zen orduan
Leku hautan manatzeko,
Soldaduek hartzen dute
Haren ganat juaiteko,
Noren biotz bortitza etzuen
Madalenek eztituko,
Arek ere othoizten du
Gezurra erraiteko.

XII Errazu Espanian zinela
Frantzian iziturik,
Edo bertzenaz heldu zinela
Ahaiden ikustetik.
Nehondik nahi luke bada
Salbatu eriotzetik,
Bainan nehork ez du adituko
Madalenen gezurrik.

XIII Pinet anaiak egortzen du
Donibane-Loizunera,
Kriminel haundi bat bezala
Jujen aintzineran.
Kuraiez bethia juan da
Egiaren erraitera
Bereala kondenatua da
Gilotinean hiltzera...

XIV Salve Regina kantatzen zuen
Azken orenian.
Martira bat bezala hil da,
Aboztuaren ogoita zazpian.
Etsenplu eder haundi ori
Iduki dezagun biotzian,
Zorionez denek gozatzeko
Zeruko lorian.

MADALEN SARAKO MARTIRAREN KANTIA

I Duela ehun urthe Sarako Madalen
Haren fama eman da egun baino lehen,
Etsai phozoindatiak arrabian zauden,
Nunbait zorigaitzeko denbora hala zen,
Krima itsusienak ditugu aditzen.

II Duela ehun urthe orduko gizonak,
Huna edo gaixtuak khonduak emanak,
Madalen alegera hiltzeko orenak,
Hortara ekharri du gaixtuen ordenak,
Kontsola ziten oihuz nigarrez zaudenak.

III Sarako martierrak sofritu duena,
Kontserbatziagatik Jaunaren ordena,
Mihiki ekhartzen duen hitzik ederrena,
Salve Regina kantuz, zer azken orena,
Zeruko hormetan altxatua dena.

IV Bitima ez da inorant egia diona,
Sarako aurhidentzat zer urostatuna,
Bihotzetik arrosa hak utzi korona.
Oihu eginez Jauna guretzat hil dena,
Sarako haurrendako othoitzian dagona.

V Denbora hetan zutena krima itsusiak,
Elizak sinifikatuz kabala tegiak
Pinet Gobernadore xefa aiphatiak,
Luziferren bandera adorazaliak,
Kristauen hil arazten zituen odriak.

VI Kantu hunen sujeta Saratarra baitzen,
Duela ehun urthe izena Madalen,
Gezurra irten bazuen etzutela hilen,
Bainan ez du ametitu lurreko adiskiden,
Pairatu du heriuak zenbat karga duen.

VII Gaixtaginak zituzten orduko nagusi,
Ama katolikua nahiz galarazi,
Jaunaren tabernakletik aphezak ihesi,
Bere bizia galtzen ez nahiz ikhusi,
Uroski ez baitzuten ordenarik utzi.

VIII Madalen Larraldeko saratar alaba,
Ongi kofesaturik Beratik heldu da,
Bidian errekontratu gaixtuen armada,
Gezurrez mintzatzeko bazuen parada,
Hori ez erran nahiz gilotinatu da.

IX Madalen saratarra horra saindu eder,
Oihuka daguena herritar gaixtuer,
Konseilu erautsi du bihotzez guziera,

Armada gaixtuari egon diten fier,
Odola ixuririk hila da martier.

X Oro izan ditela hura bezalako,
Tribunale justuan ez gira galduko,
Mundu hau egina du Jaunak beretako,
Penarik ez desira auzokuendako,
Othoitz egin dezagun halakuendako.

XI Dolu egiten zaien martier hiltzia,
Desesperatua zen gobernadoria,
Madalen aingerua zelakotz gaztia,
Oihu egiten zaien ez erran egia,
Etzuen estimatzen lurreko bizia.

XII Konsidera zezala begira zagonak,
Zer etsenplu ederra hiltzera zohanak,
Populiarendako nagusi gaxtaginak
Beretzat bildu nahiz justuen arimak,
Izpiritu gaixtua hartzen du gizonak.

XIII Othoitz egin dezagun Madalen, Madalen,
Egiazko martierrak gu girela hemen,
Gaixtaginak badira orai eta lehen,
Bakhotzak beretako zer duen egiten,
Bere falta duela ez bada salbatzen.

XIV Heskual herrietan benedikatia,
Sara ekharria den kartier noblia,
Madalen martierra haren sor lekha,
Zahar gazte guzien urhezko alkhia,
Odolaz eresia da guzien grazia.

XV Madalen martierrak hiltzian kantatu,
Zerua eta lurra xoratu ditu,
Azken oren tristian begiak altxatu,
Orduko burreguk etzuten lotsatu,
Jaunari nahi zuen uros errendatu.

XVI Jaunaren Kurutzia hemeretzi mende fite,
Inbidiaz eskas direnak benedika bite,
Lurreko intres guziez izanik ere duke,
Gure bihotzaren baretik othoitzari borondate,
Esklabo diren guzier egin karitate.

XVII Gaixtaginak nahi zuten kurutzia konfonditu,
Hemeretzi mende huntan etzako nehor nausitu,
Ostia konsekratia baita bitima sakratu,
Mundu hau mundu deno beharko dute sofritu,
Jaunak bere odolaz erosiak baigitu.

XVIII Frantziako erresuma Jaunaren tronura,
Uroski hel gitela ene desira da,
Gaixtaginak emaiten du zer nahi parada,
Haren entrada ederraz ez giten agrada,
Gauza hunik ez duela bethi errana da.

XIX Sarako martierra oihuz Frantziari,
Othoitz egin dezagun Ama Birjinari,

Haren bandera ederra guzien gidari,
Zoin gure bihotzak altxa bizi eternalari,
Penitentzia eginez ahuspez lurrari.

XX Ene borondatia Antoine d'Abbadia,
Zeruko tronuetan jauna altxa bedi,
Madalen martierra Sarako sailduari,
Obra hunarendako jinen da gidari,
Zure pareko hanbat ez baita ageri.

382

Jean ERRAMOUSPE, "Bankakoa"

ETSENPLU EDERREK

I Etsenplu ederrek gaituzte bethi guziak xarmatzen,
Eta nahiz askok munduan ez ditugun imitatzen,
Gure barnean ez ditugu gutiago admiratzen
Eta heien emaileak ere ez gutienik prezatzen.

II Hartakotz plazer aditzaile guzieren egiteko,
Ixtorio xarmant bat badut orori khondatzeko,
Othoi, atentzionerekilan duzue adituko,
Eta ongi entzun onduan zarete profitatuko.

III Hau da Heskual herrietan presuna gazte batena,
Hoinak ikharan baitzuen Madalen Larralde izena,
Lurrean ereman ondoan bizitzerik sailduena,
Da Doni-Joane Lohizunen martir hila izan dena.

IV Nextatxa gazte model hori zuzun Saran sorthia,
Eta giristino han aita amez altxatia,
Herrian berean pasatu zuen bere bizi guzia,
Denei ematen zuelarik berthutezko etsenplia.

V Jadanikan ehun bat urthe pasatiak baditu,
Persekuzione handi bat zela Frantzian altxatu,
Erlixioneko zeremoniak zituzten interditu,
Eta Jaunaren ministrak Frantziatikan kasatu.

VI Madalena debozinezko pratiketan usatia,
Lege hoitaz ez zen aurkhitzen sobera satifatia,
Haren bihotzak ardura zuen senideen gutizia,
Aingeruen janhari onaz izaiteko hazia.

VII Desira on horri ez zuen Frantzian satifatzen,
Erlisionia zuelakotz gobernuak debekatzen,
Lekhu hautan nehork ez zuen kofesa komuniatzen,
Madalen heien eitera Espainarat joaiten zen.

VIII Berako komentua zuen debozionario lekhia,
Han kaputxino bati zion egiten kofesioa,
Haren eskutik errezebitzen komunione saildia,
Eta gero kontentu hartzen etxeratzeko bidia.

IX Bainan huna egun batez zer zitzaion gerthatu,
Frantziako soldaduak ziren Espainarat pasatu,
Berako komentuan zuten Madalena aurkhitu,
Eta heien xefak zion han zertan zabilan galdetu.

X Segur bizia galduko du erraiten badu egia,
Bainan gezurra delakotz bethi Jainkoak debekatu,
Deusetan ere ez du nahi hautsi haren mania,
Kofesatzera zela jina emaiten du errepostia.

XI Errepostu horrek zuen soldaduen xefa tristatu,
Madaleni nahi baitzion bizia konserbatu,
Hartakotz desiratzen zuen gezurrez zadien mintzatu,
Bertenez beharko zuela heriotzea pairatu.

XII Madalen heriotzeko penak ez du batere lotsatzen,
Jainkoa ez ofensatzeaz da hobeki kontentatzen,
Badaki dutenak fidelki haren legeezi segitzen
Menderen mendetan direla parabisuaz gozatzen.

XIII Beraz bere egian fermu da Madalena egoiten,
Bainan fermutasun horrek du kapitaina hirritatzen,
Erreposta gaxto bat laster du haren kontra egiten,
Nexka gaixua dute lephoa pikatzerat kondenatzen.

XIV Sententzia horrek ez zuen Madalena ikharatu,
Segurriago martir hiltzeak zuen bozkariatu,
Kristok guretzat zuelakotz heriotzea pairatu,
Ordainez hari gogotik zion bizia sakrifikatu.

XV Heskualdun onak, ikhus dezagun hemen gure modela,
Eta pentsa imitatzeke proposatia ...la,
Jaunaren legea baduzu begiratzen hark bezala,
Segur da egun batez zeruaz gozatu garela.

XVI Orai zuri adresatzen naiz gure martir handia,
Zeruan uste zaituguna gorarikan jarria,
Heskualduneri ardiets zazu Jainkoa ganik grazia,
Segi dezaten zuk erakutsi berthutezko bidia.

XVII Zure laguntzarekin dugu ... kontserbatuko,
Eta zuk eman etsenpluak fidelki imitatuko,
Gero zerura garenean elgarren gana bilduko,
Eternitate guzian dugu Jauna benedikatuko.

GEZUR BAT ERRAN BAINO BILOTINATU NAHIAGO

Airea: Atharratze jauregian, zitroina loratu

I Bortz aurride elgarreki
Bizi ginen Saran,
Jauna zerbitzatuz humilki,
Gure egin bideetan,
Bainan gaixtaginak ibilki
Gure inguruetan,
Nehor ez nahiz ikhusi
Girixtino urhatsetan.

II Egun batez joaten nintzen
Etxera Beratik,
Nun phasatu behar nintzen
Lizuniako errekatik
Han nintzelarik phasatzen
Pena nuen hargatik,
Zeren zauzkit atheratzen
Soldadoak sasitik.

III Soldadoak galdatzen
Nondik heldu zara,
Norat izana zinen,
Errazu zertara?
Berara joana nintzen
Ni kofesatzera
Ene egin bidearen
Ongi bethetzera.

IV Oi, oi! ez holakorik
Erran xuhur baduzu,
Ez da hobe zuk holakorik
Aithortzen baduzu,
Gezurño bat phentsaturik
Erran nahi bazindu,
Bertze gisan aithortutik
Zureak egin du.

V Gezurra erranez banuke
Gehiago pena,
Legea nahi ez nuke
Histu den gutiena,
Bainan aditu duzue
Egia zuzena,
Nitaz egizazue,
Nahi duzuen.

VI Gurekin ethor zaitela
Kapitaina gana
Sujet bat ekhartzen dugula
Pinet zuregana,

Kapitainak ere horrela
Urrikaltzen naiz baina
Errazu ibili zarela
Espainian barna.

VII Orori dut aithortuko
Egia bihotzetik,
Beran kofesatzeko
Joan nintzen etxetik,
Gero etxerat joateko
Han kofesaturik
Gezurrik ez da atherako
Ez ene ahotik.

VIII Orduan buru zagia
Hasten da manatzen,
Gezurrik ez erran nahia
Ereman dezaten.
Madalen nexka gaztia
Soldadoz da inguratzen
Donibane Lohizunera
Gero eremaiten.

IX Bildots ezti maitena
Otsoen artean
Zer pairatzen duena
Hor iragaitean
Biderikan luzena
Hola phasatzean
Oioi, aiei, zer pena
Hartzen bihotzean.

X Bidean iragaiten den
Gure pasionea
Gisa huntan gaizki tratatzen
Nauzue emakumea,
Zuek dautazue erraiten
Biba nazionea,
Nik errephostu emaiten
Biba erlisionea.

XI Bidea hola phasatu,
Donibanen ethorri
Han ere berdin oldartu,
Dama gazte horri.
Gilotina baitugu
Odolen egarri,
Gezurra erran nahi duzu
Ala zuk hartan ezarri.

XII Adios izanen naiz ni
Madalen Larralde,
Bainan izanen bethi
Kontzientziaren alde,
Nahiago dut mundua utzi,
Ondikotz debalde
“Orai, agur ama, zuri
Nago laguntza galde”.

XIII Ez duzu mintzatu nahi
Gehiago mundura,
Bainan dolamenei ari
Khantatzen salverresina,
Gisa hortan begiak goiti
So zaude zerura,
Ikhusten duzula iduri
Zeruko ama on hura.

XIV Etsaiek gaizki harturik
Zu hola izanez,
Eztitasunez betherik
Orobat izanez,
Zu hola ikhusirik
Mundua dago nigarrez
Etsaien eskuetarik
Zu libratu beharrez.

XV Gezurrik ez errateko
Zenduen xedia,
Bai eta horren bethetzeko
Fermuki jarria,
Ikhusirik holako
Tresna lazgarria,

Guzien jasaiteko
Baduzu berthutia.

XVI Orai zure othoitza
Duzu khantatua,
Oioi! aiei! hilhotza
Laster baratua,
Gisa hortan zure gorputza
Etsaiek tratatua,
Bainan zure bihotza
Jainkoak hartua.

XVII Santa Mandalena* ('izan
Sarako martirra'),
Orai zu hemendikan
Norat galdu zira,
Ama onak lagundurikan
Zerurat goan zira,
Heskualdun andre arraza
Ohoratua zira.

XVIII Lurreko pharabizu
Zelarik zuretzat,
Ez nahiz sumetitu
Zuk gezur batentzat,
Mundua utzi izan duzu
Ez nahiz zuretzat
Bainan ardietsi duzu
Zerua saritzat.

*sic.

*Mañex Etchemendy Esterenzubiko semea,
Californian Capistranon eginac, 1894ko
ekhainaren 10an.*

384

HARAMBOURE, Ziburuko xantrea

MADALEN LARRALDE, SARAKO MARTIRA

I Mende bat badu orai oso iragana,
Errepublikak zela Frantzia emana,
Mendietan barnazko soldadua gana,
Madalen han izan zen huntaz atzamana.

II-Haurra, nondik heldu haiz, erragun non hintzen?
-Bera aldean nintzen, jaunak, kofesatzen,
-Zertako ez dun hori apur bat gordetzen?
-Ene agotik ez da gezurrik ilkitzen.

III Dixidu horiekin ez izitzen ibil,
Gezur bat erran bainan nahiago dut hil,
Jaunaren nahiari hemen nago humil,
Zonbeit merezimendu egun dezadan bil.

IV Garbiki mintzatzeko ez zen ez izitzen,
Nahiz heriotzeaz zuten dixidatzen,
Egia horren gatik finki dute lotzen,
Donibanerat joka, zalu errestatzen.

V Haur hunek bide huntan hanitz zuen jasan,
Gorputza zauritua, ondaturia basan,
Martir handi bat zela dezakegu esan,
Zerbait heldu izan zen Lohizungo plazan!

VI Pinet jenerala zen gazte lagunekin,
Gorasko altxatua gaizatakeriekin,
Jendeak izihaziz larderiarekin,
Justizia zuzenik ez zen haukiekin.

VII Jinkoa bera zuten goraki ukatu,
Herritarik aphezak zituzten kasatu,
Gezuraren bidetan barna ziren sartu,
Zorion bilaturik ez zuten aurkitu.

VIII Jende oste handi bat plazan metatua,
Ikustekotzat arren buru hau moztua,
Gizonek jakin gabe hunen bekatua,
Heriotze dorperat zen kondenatua.

IX Tresna latzgarria zen plazaren erditan,
Zorrotz ageri zena dena odoletan,
Jendeak hauenetan eta negarretan,
Han zauden ikaretan, oren triste hartan.

X Utzan, utz hire Salbe, huni hondu emon,
Ardiestekotz egun gu ganik zerbeit on,
Nahi badun lur huntan luze bizi egon,
Egintzan gora oihu: Biba la nazion!

XI Saratarrek diagu maitezko Frantzia,
Emango niozokek izate guzia,
Erlijione sailduan azkar nauk hazia,
Harentzat diat orai ordainez bizia.

XII Gilotina zorrotza gora zen altxatzen,
Buru hunen gainerat zalu da erortzen,
Martir gazte, saildu hau bi alde zatitzen,
Krima zai kolpez zerurat airatzen!

XIII Utzirik haurrideak, aita eta ama,
Harturik soin-gainean oinazezko zama,
Egun urrun badoa haurra zure fama,
Gordea egotea zonbeit zen lastima!

XIV Eskual herri gaxoa duzun urrikari,
Zure othoitzak batuz gure othoitzeri,
Jarreik gaiten lur huntan zure fedeari,
Zeru izateko zuk bezala sari!

385

Jean IRIBARNEGARAY "Xetre, hazpandarra"

MADALEN LARRALDE

I Mila zazpi ehun eta, lau hogoi hamalaeuan,
Erreboluzione bat bazen jenden artean,
Erlisionia nahi zuten sarthu lurraren barnean,
Aintzindariak fede gabeak baitziren gure gorthean.

II Gorthe hartako gizonek Elizak zerraturik,
Apezak ere ezarri zituzten kasaturik,
Ez zuten ikhusi nahi, Jesus maite zutenik,
Gilotinatzen zizuten hatzemanik geroztik.

III Neskatxa bat zen Sarako, Larralde Madalena,
Kofesatzerat juhan zen Espainia behala,
Jesus errezebiturik, etxerat heldu zela,
Soldaduek preso hartu baitzuten berehala.

IV Lizuniako errekan etxerat phasatzean,
Uste gabe hartu zuten soldaduek artean,
Nun zabilan bide hartan galdegin zutenean,
Erran zaien kofesatzen zela gostu onean.

V Neskatxa hura nahi zuten fedean khordokatu,
Gezurra erran zezala, nahi bazen libratu,
Bainan ez ditu sinhetsi, ez eta obeditu,
Sekulako bihotzean egia zuen sarthu.

VI Soro zarren errabia ikhusiz fantasuna,
Ez diotela engana, heskaldun fededuna,
Jelosian bizi dira, hilez beren laguna,
Bake ona galduz geroz, akhabo zoriona.

VII Ehun urthe huntan Saran izan erretor guziak,
Elizatik mintzatu dira erranez haren berriak,
Zer kalte egin derakon Madaleni egiak,
Sekulan orhoitzekua du Sarako herriak.

VIII Zuzentasuna dabila bethi kondenaturik,
Neskatxa hura etsenplu har dezagun bakharrik,
Gilotina kolpe hura behar gabe ukhanik,
Zeruetala igan zen etsaien eskuetarik.

IX Estekaturik ereman izan zuten Sarala,
Beltcharenian baitzauden bere haurridetala,
Handik Donibanerat galdea zen bezala,
Satanez inguratua han zuten tribunala.

X Tribunalean nagusi Pinet jenerala zen,
Nazionia erran dio, ez duenetz maithatzen,
Odoletan gilotina zuelarik ikhusten,
Biba Erlisionea, oihu zuen egiten.

XI Manera hortan hil zuten, Madalena gaixoa,
Ez baitzuen galdu nahi gezur batez Jainkoa,
Oraino ere azkar da gezurren ministroa,
... agolarik ifernuko gakhoa.

XII Lege zarren ondorioa, horra non den egina,
Madalen ezarri dute segurki marthir hila,
Gilotinala iraganzen khantatuz Salve Regina,
Begiez ikhusten zuen gure Ama Birsina.

386

AN. "Lapurtar bat"

SARAKO LARRALDE MADALENAZ

- I Orai ehun urthe Saran zer zen gertatu
Nahi nuke nere moldean esplikatu,
Bainan eskaldun martir bat nola aipatu?
Ene hitzak ez dire gai: othoi, barkhatu.
- II Zutaz orhoit naiz Sarako nexkatxa,
Madalena Larralde zenuien izena,
Etzait urrikaltzeko zu iduri duena,
Gozaturen du zeruan nausi dagona!
- III Frantzian, Jesusen legetarik ez behar
Tzarrek elgar aditurik in zuten indar,
Eliza hesten hasi ziren su eta pindar,
Jende onak lehertuko dittiagu bihar!
- IV Hauxe da lastima! Sakramendurik ez!
Apezak ihes gan edo bizitzen gordez,
Hoiek Madalenarentzat sobera khirets,
Joanen zela Berarat eman zen pentsatzez.
- V Goizian etxea utzirik nigarretan
Badoa Lizuniako erreka beltzetan,
Axolarik gabe nor zuken bazterretan,
Arribatu Berako aita kaputxinetan.
- VI Bainan erne zagon Pinet jenerala,
Zedarrri zain soldadoekin emana,
Espaina lurrian atrebiturik zen gana,
Eta sartu kaputxin komentuan barna.
- VII "—Legeaz arrastatua haiz, Madalen,
Ez badun arrozoin onik ematen!
Beraz, hik Espainian afera zer huen?
—Jauna, nahiz kofesatu jina nintzen."
- VIII "—Beraun, tristea, niri holakorik eras!
Bertzenaz ez huke atsegaberik eskas,
Huna, erran, ikharatu haizela arras,
Frantses tropa heldu zela barranbaz!
- IX Ezen horrela guri mintzatu faltan,
Hire hil arrasta beharko dute eman."
—"Jaun aintzindaria, hori sekulan!
Niholaz aitzakirik ez dirot atxeman.
- X Nere Jainko jauna ofentsaturen baino
Miletan bizia gal, egia ez ukhatzeko!"
Aithortu behar da: Madalen libratzeko,
Jeneralak in zuela enseiu frango.
- XI Ba bainan guziak ordean debalde!
Etzakien gehiago zer nola galde.
Pinetek azkenian sobra dolu gabe,
Desterratua deklaratu zuen Larralde.
- XII Donosthiaratu parthe igorri onduan,
Horra Donibaneke hirirat lerruan,
Madalen zaukatela soldadoek erdian!
Ehun urthe, buruila hunen lehenian.
- XIII Sarako karrikan aphur bat trikaturik,
Aita-ama gaxuek alaba besarkaturik,
Azkaineratu heltzen Larhun hegaletarik,
Etzen batere bihotz alegantzariak!
- XIV Donibanen zagotzin tribunal zorrotzak,
Nunbeitik ethorrikan gizon arrotzak,
Hobenik gabe kondenatzeko ez lotsak!
Nork apazega barbaro horien bozak?
- XV Jujen aintzinean arpegia ezti,
Bihotzaren zola Madaleneke garbi,
Agertu zen bildotsa zuela iduri.
Kondenatua! egia ez nahiz estali.
- XVI Egun hartako inozentaren galera!
Gezur baten eskas harentzat urkadera.
Salve kantatuz, igan zuen eskalera!
Huna lephua mozturik, gazte ederra!
- XVII Ah! goguetetan nago gauzak ikhusiz,
Zer daiten gizonak Jainko lege hautsiz!
Mundu hunetan Madalen asko balitz
Hek aphaintzia merezi lukete liliz!
- XVIII Ohoreak Sarari! Biba Madalena!
Eta Lahetjuzan, hango seme apheza!
Alegia bidian saltzeko gasna pheza,
Gordez kofesatzen, benedikatuz ezkontza.



Pedro Mari Otaño (Zizurkil, 1857 - Santa Fe, 1910)

1895 BERA

387

DUHALDEBEHERE**MADALEN LARRALDE SARAKO MARTIRA**

I Mende bat badu pasaturik
Gure Frantzia maithian
Dolu eta negarrik baizik
Ez zela leku guzian,
Nahi gabe frango ikusi zuten
Bai ere Euskal herrian,
Noren biotza ez da goibelduko
Denbora hetaz oroitizan?

II Bai, egiazki bazen orduan
Nahaskeri hainitz Frantzian,
Gilotina ezarria zuten
Hiriko plazen erdian.
Mundu guzia ikaratua
Tresna aren ikustian,
Hetan hiltzerat kondenatuak
Baziren egun guzian.

III Elizak oro abretegi
Ziren bilakatuak,
Apezak ere Frantziatik
Guziak kasatuak,
Gerla Espainiako frontera
Basten guziak ondatuak
Kapable ziren gizon guziak,
Soldadu altxatuak.

IV Denbora beltz hetan bazen Saran
Hegi-meharko partian
Familia bat jinkotiarra
Beltchaineke etxian,
Madalen zuten prestuena
Alaben artian,
Burasoak maithe zituen
Osoki biotzian.

V Egun batez Berara juaitea
Du deliberatzen
Bere arimaren askurria
Ez du herrian kausitzen,
Hango komenturat juaitea da
Eta apez bat galdatzen
Atsegin aundiarekin da
Arekin kofesatzen.

VI Zorion ori ez du luzez
Madalenek gozatzen
Bere arima osoki trankil
Etxe alderat heldu zen,

Lizuniako errekan zaizko
Soldaduak atheratzen
Arrastatzen dute bainan
Ez da Madalen izitzen.

VII Eremaiten dute kriminel gisa
Nagusiaren aintzineria,
Zer krima egin ahal duen
Ari deklaratzera.
Galdatzen dio: Zertarat juan zare
Espainiako aldera?
Juana othe zinen gure berrien
Etsaieri emaitera?

VIII Ez, jauna, ez dut holako lanik
Egitea pentsatu,
Kofesatzerat juana ninduzun
Jinkoa nuen ofentsatu.
Bide gaberik egin gabe
Naute arrastatu,
Eta gisa hortan etxerat
Juaitea debekatu.

IX Oh! Zer erraiten dautazu
Neskatxa maithia,
Ez zinakien debeku zela
Kofesatzerat juaitea,
Bainan urrikaltzen nuzu
Zeren zaren gaztia,
Aski duzu tribunaletan
Gezur baten erraitia.

X Ez zaitela nitaz urrikal,
Ez dut erranen gezurrik,
Neure ahotik ez da aterako
Beti egia baizik.
Egin dudan lanaz ez dut izan,
Ez izanen urrikirik,
Ez dut bizi nahi mundu huntan
Jinkoaren legean baizik.

XI Zer hitz xarmegarriak
Suzko fedez bethiak,
Arrituak gelditu ziren
Aditzale guziak.
Aingeru bat iduri zuen
Aren arpegiak,
Aita amaz oroiturik ditu
Negarrez begiak bustiak.

XII Donibane Lohintzunat jutzera
Dute eremaiten,
Madalenek ez du kuraia
Memento batez galtzen,
Burasoen kitatzeak du
Biotzian penatzen,
Bere anaiak baizik ez du
Araino segitzen.

XIII Pinet zuten ainzindaria,
Batere biotz gabia,
Hiltzerat kondenatzen du
Gure Madalen maithia,

Gilotinarat juaiten duzu,
Eztitasunez bethia
Munduari uzten duelarik
Etsenplu bat aundia.

XIV Salve Regina kantatzen zuen
Gilotinaren aintzinian,
Iduritzen zaio han dagola
Aingeru guzien erdian,
Etsenplu ori har dezagun,
Ongi gure biotzian,
Zorionaz ongi gozatzeko,
Denek eternitatan.

388

Marianna HARGAIN

EHUN ETA ZENBAIT URTHE

Airea: Kanta dezagun orok ahalik gorena

I Ehun eta zenbait urthe orai tu konplitzen,
Gerla izigarri bat Frantzian izan zen,
Orduan bere fedia zuenak agertzen
Heriotzeaz zuten fite kondenatzen.

II Orai hetari batto aiphatzen duguna,
Madalen Larralde zen Saran bizi zena,
Frantzia kitaturik Espainian barna,
Arimaren sustengu guan izan zena.

III Fede bortitza zuen zelarik gaztia,
Jaunaren eskuetan zuen fidantzia,
Mundu hau etzelakoz luzezko tokia,
Hautatu izan zuen zeruko bidia.

IV Jaunaren ministruen hasi zen bilhatzen,
Espainiala juanik hemeneko baitzen,
Handik gibeleratkuan arrastatu zuten,
Binan haren fedea jeusek ez trublutzen.

V Frantses soldado batzu zazkonian lothu,
Neskaxka fedean ez zuzen zen mintzatu,
Espainian izanik hanisko pesatu,
Jaunaren konpainia nahiz bisitatu.

VI Batek ezaguturik zuzen mintzo zela,
Pena zuen ixurtzia haur baten odola,
Bainan Pinet zelako bihotz gabe hura,
Jinik kondenatu zuen gilotinatza.

VII Hamazazpi urthetan inuzent zelarik,
gisa hartan hiltzeko nun zuen hobenik,

Justu baten odolari hala lothu zenik,
Ez ahal zen balin ba jainkoaren haurrik.

VIII Neskaxka etzuen lotsatzen munduya ustiak
Lorifikatzen zuen bere hagoniak,
Partaliek harturik Jesusen zauriak,
Kantuz galdetzen zituen zeruko grazia.

IX Marthir inuzen horren etsenplu handia,
Gogoan hartuz geroz da hunkigarria,
Munduko urustasun guziak zer dira,
Bethiko zorionaz gabetzen bagira.

X Beraz fededun onak ez izan beldurrik,
Persekutazioniek ez dute indarrik,
Beinan heldu bazaiku jaunaren nahitik
Guziak har ditzagun bihotza la...

XI Marthir horren haurride eskaldunak oro
Izan gaiten berthutos fedia agertzeko,
Eta zuzen goberna lorios hiltzeko,
Azken jujamenduan ez da dolutuko.

XII Sortzez zen saratarra Madalen Larralde,
Orok kanta dezagun marthir harren alde,
Phensamendu onez ein zenbait bihotz galde,
Gutaz orhoituko da zeruko errege.

XIII Huna azken pertsuia sujetetik kanpo,
Mur de Abadia jaunari ohore ´maiteko,
Zeren duen ideei ona probiarendako,
Bethi othoi inen diat luzez bizitzeko.

MADALEN SARAKO MARTIRA

Airea: Lurraren pean sar nindaite

I Ehun urthe du nahasmendutan
Zirela Frantses guziak,
Euskal herria ere jo zuen
Gaixtaginen erauntsiak:
Denbora hartan ziren elizak
Soldadotegi utziak,
Apezak zauden Espainian
Fidel ez zituzten guziak
Urthe haren orhoitzapena
Badu Sarako herriak.

II Bere Larrondo-zaharrear
Bortz ana'arriba ziren,
Bat zen Piarres, bi Grazianak,
Mariana eta Magdalen.
Bortzak prestuak heiek etzuten
Ongia baizik egiten,
Guziz azkenak bihotz guzia
Jainkoarekin baitzuen,
Bere kofesio humilak
Beran egiten zituen.

III Eta goiz batez Madalen bera
Ilki zelarik Beratik,
Bihotza zuen alegera
Arima aberasturik.
Lizuriko erreka hura
Iragaiten zuelarik
Soldado batzu zaizko mintzatzen
Sasi ilhun batetarik:
" Nun hintzen, eta han zer eginik
Heldu haiz alde hartarik?

IV Madalenek erran zioten
Garbiki bere egia,
Badakizue apezik gabe
Dagola Euskal herria,
Ene bihotzak egun baitzuen
Kofesatzeko lehia,
Berako kaputxinoetarat
Goizik nintzen ethorria,
Ez ahal da gaizki hartua
Nik egin dutan ongia.

V Soldado batek erraiten dio:
"Zer nexkatxa, ez dakizu
Kofesioen aiphurik ere
Frantzian ez dela haizu?

Kasu emazu: buruzagi bat
Zuri begira dagozu,
Zer egin duzun hari aithortuz
Bizia gal dezakezu,
Zerbait mandatuz izan zarela
Gezur ttipi bat errozu".

VI Aintzindaria bera ere zen
Han gazteaz urrikaltzen.
Erraiten dio: "Ez dakizua
Bertze gisetan mintzatzen?"
Madalenek: "Ez, jauna, ez dut
Egia baizik erraiten,
Zer nahi gaitzen beldurrez ere
Ez dut gezur bat erranen."

VII Preso hartuen juja lekua,
Donibanen zen egina,
Haren aldean gau eta egun,
Xutik zagon gilotina.
Hura odolez gorrituz baitzen
Gaixtaginen atsegina
Madalen ere laster izan zen
Jujatzerat galdegina,
Egun hura zen agorrilaren
Hogoi' ta zazpigarrena.

VIII Otso zaharren artean gan zen
Bildots amultsu gaztea,
Laidoztatua jo ere zuten,
Gaixo hobenik gabea:
Biba zezala nahi edo ez
Orduko nazioena,
Madalenek bethi goraki:
"Biba Erljioena!"
Guduka hortan iragan zuten
Donibaneko bidea.

IX Sarthu zen etxe dohakabean,
Aingerutto bat bezala,
Hari begira zauden jujeak,
Eta Pinet jenerala,
Aithortu zuen bezain sarri
Kofesatzen izan zela,
Oihu handi bat entzun izan zen:
Bizia khien zezotela!
Ikhusliarrez inguratua
Ereman zuten hiltzera.

X Han entzun zuten kantuz Madalen
Gilotinarat zohana,
Kantatuz: "Agur Erregina,
Urrikalmenduen ama.
Zerurat beha akhabatzean
Kantu horren hitz azkena,
Jautsi zitzaion tresna lazgarri
Lephoa mozten zuena,
Han zen berexi arima saildua
Sarako Martirarena!

XI Gure arbaso Euskaldun hetaz
Ez egon orhoitu gabe,
Bethi fedean hazkar egonik
Zeruko lorian daude.
Izan gaitezen hek bezalako
Odol beretik baikare.
Etsai gezurti enganakorrak
Uzten baitugu debalde,
Zerurat gare airatuko
Nola Madalen Larralde.

390

Frantzisko SANTISTEBAN

1793

I Erri txiki pollit bat bada
Frantziako euskal errian,
Españiako frontierian
Erraiten diotena Sara.

II Zer nai dezu eliz-atian
Ain goizik, Abadiak
Erran bar ziyon, mutila?
Jauna, aur bat sortu da gure etxian.

III Egun gabian ordu batian,
Jakin nai dut zer orenetan,
Jauna, etorriko geran
Bataiatzera ura sailduan.

IV Ongi da abisua neure mutila,
Erran zagozu zure etxian
Oren guziak onak dirala
Bataiatzeko Eliz guzian.

V Arratsaldian agertu ziran
Kalez-kale Sarako errian,
Kantari, dantzari, kontent beterik,
Aingerua eskuetan arturik.

VI Elizatera bataiatzera
Gizonak eta andriak,

Magdalena da, abade jauna,
Gure emaitzikia, begira.

VII Txiki-txikia, gorri-gorria,
Arras argia da onen jabia,
Eman duen ama Maria,
Onen aita da Jose Maria.

VIII Itzuli ziran etxera Magdalenakin
Argiak, soinuakin eta makilakin,
Kantari, dantzari, biolinakin,
Gabon, gabon Juan Martin.

IX Jarri, jarri, Jose Joakin,
Aur ori egun da garbi,
Eraman zaizu bere amari,
Eta berla, berla afari ori.

X Munduan asko dira
Dabiltzanak gora-bera,
Neuk ez dakit zeren bila
Monseñor, abade jauna.

XI Magdalena da gure aur ona,
Arras ederra, guztiz zuria,
Mantxa gabia aren oya,
Arras ona da konfesoría.

XII Jose Joakin, emen dabilta
Zugarramurdin azuri bila,
Asko dantzari sorginakin,
Mutilakin, emaitziakin.

XIII Etorri ziran denboriak lasterrian,
Espainian ta Frantzian...dan, dan
Oren guzian..... dan, dan,
Ate guzian.....dan, dan.

XIV Gizon guziak, nor bizi da
Etxe ontan gabako amaiketan?
Euskalherrian atiak dira
Zabal urte guzian.

XV Amabortz, amasei urte izango zituan,
Bizi zala bere aita eta amaren ondoan,
Ixilik, aingeruak bezela
Zuri, zuri anima ta gorputza.

XVI Zer begiak, arpegia eta biotza!
Badiduri Jesusen ama birjina,
-Nora zuaz, zeren bila?
Sarakoa zara? Jesus ona!

XVII Nola da zure izena? -Magdalena-
Ebili zaitte kontuz enetxoa,
Espainian asko dira
Dabiltzanak gora-bera.

XVIII Gu gera Frantzesak, errepublikanuak,
Zu zera pollita bakarrik ebiltzako,
Zato neurekin, or dira soldaduak,
Jarri zaitte, gauzok dira elizako.

XIX Ar zazu kopatxo bat,
Zure amaren ondasunian,
Eta ekarzu musutxo bat
Jesus ta amaren izenian.

XX Abur! nere biotzeko amatxo maitia,
Zurea beti izango da nere biotz guzia,
Jaungoikoak nai du ni iltzera joaitia,
Ama, zertarako da negar egitia.

XXI Jesus! zer kantu pollita!
Zure begira jartzen dira,
Aingeruak, gizonak eta andriak,
Zu zera emendik aurrera gure etxeko-andria.

XXII -Jauna, goazen lenbailen mendira,
Ekatzu guardia eta konfesoría,
-Goazen, goazen Magdalen,
Soldaduak erran zuten.

XXIII Emen da gure jefia, Pinet:
-Jauna, nik gezurrik ez badet
Baizikan sainduen fedia:
Abur, neure amatxo maitia!

XXIV Goazen, goazen Salve regina Mater,
Goazen, goazen Magdalen lenbailen,
Izarrak zeruan dabilta laster,
Aingeruak asten dira jeisten.

XXV Donejoanen ez dira fiatzen,
Zu emen zabilta ispitzen,
Egunez eta gauez Espainian alde,
Jauna, nik gezurrik ez badet.

XXVI Jesus neure biotzekoa nai det,
Konfessore bat lenbailen,
Eta goazen, "Salve Regina mater
Jendiak izu dira Donejoanen.

XXVII Gabako amaiketan etorri ziran
Atejoka, dan! dan! dan! dan!
Hilargitan, berla, berla, berla,
Damatxori emen dabila.

XXVIII Konfessore bat bear duela
Gu emen gera aur oren bila,
Jauna, erran zaiozu zer nai duan,
Prest gerala bere onduan.

XXIX Kantari dago Ama Birjinari,
Egunez eta gabian, aste guzian,
Zein pozik bizi da gazte ori!
Jarri, jarri eta artu soinian.

XXX Manteliak eta ogia utzi makilia,
Eran arnua Jesusen izenian,
Goizik dabilta Berako jendiak,
Biba! Espania ta Frantzia eta familia.

XXXI Pinet, soldaduan nausia ager zan
Aurpegia estalirik, armaturik,
Garraxika, bear duela Magdalena dantzan
-Amaiketan, hilargitan ez dago dantzarik.

XXXII Burlaturik, itsusturik geldí zan
Soldaduan aurrian atejoka dan! dan!
Egun berian il bear degu gilotinan,
Dabila ispitzen espainolan aldian.

XXXIII Magdalena Larralde gizonik gabe...
Maita zuan arras Berako mutiltxoari
Fabrikante, errotari, hostolari bat
Dana osorik, garbi begira Magdalenari.

XXXIV Kantari, usatxoak eskutan arturik,
"Zeru aundietan kabitu ezinik,
Hostien batian zaude gaur sarturik,
Akzidenten azpian ongi estalirik".

XXXV Oh! Jesus eta Ama maitia!
Goazen laster nik burua emaitia,
Salve Regina! kontsola zaitia,
Iltzera joaitia da nere borondatia.

XXXVI Jauna, zertarako da eskribitzia,
Badakit zenbat diran mandamentuak,
Gizonen pasione eta maliziak,
Pinet, zortzigarrena gezurrik ez esaitia.

XXXVII Prest zera? Goazen bada gilotinara,
Euskalduna da Sarako jendia,
Zertarako da biziya honrarik gabia,
Egun berian itzaliko da zure begia.

XXXVIII Abur! nere biotzeko euskaldun jendia,
Zuria beti izango da Frantzia guzia,
Jaungoikoak berak nai du ni iltzera joaitia,
Jendiak, zertarako da negar egitia.

XXXIX Zeruak iriki ziran zalapartian,
Atabalak soinu zuan trak, trak,
Aingeruak jetxi ziran, zis, zas,
Poliki poliki golpe batian.

XL Burua gelditu zan alde batian,
Eta, mantxari gabe gorbutza bestian,
Anima egazan itzultzen zala
Nola zan minerik gabe eriotzia.

XLI Abur! Abur Kapitan! Donejoango jende guziak,
Lastimaturik biotzak begira gelditu ziran,
Il zan il zan! gure Frantza andre gazte garbia,
Jo zan zerura Sarako alabi txuria.

XLII Arriturik gelditu ziran euskaldun guziak,
Goazen, ar zagun eta eraman zagun eliz-atera,
Abisu bat bial zagun Sarako errira,
Damatxo eder bat il dala Donejoanean.

XLIII Jaunak, akabatzeko gure izketa,
Erri ta Departamentu eta nazionetan,
Asko jende, betiko denboretan,
Makur, gaixo, pikardi eta jolasa.

XLIV Zabaltzen dutela bizitzen dira,
Asko emaitziki eder ta garbiak,
Gelditzen dire begira, aurrean mutilak,
Lotsagabiak, galtza gorriak bear dutela.

XLV Zenbat gazte inozente ta pollitak,
Gizonik gabe gelditzen dira
Amabortz, amasei, amazapi urtetan,
Magdalena Larralde jo zan.

XLVI Aingeruen eskutan, mantxarik gabe,
Salve Regina Mater, penarik gabe
Gorbutza ausirik bi pusketan,
Anima biurturik Jesusen eskutan.

XLVII Betiko sartu zan zero aundietan,
Aingeruan aurrian, Ama Birjinan oinetan,
"Salve Regina Mater Misericorde"
Donejoanetik jo da Magdalena Larralde.

XLVIII Reinu bat, Paradisu bat usatxo orrentzat prest
Aingeruak, gozen lenbailen Magdalen
Larralde, zu izango zera emengo jabe,
Azuria dago, be! be! be! be!.

IL Abur! nere biotzeko euskaldun jendia,
Zuria beti izango da Frantzia guzia,
Ama Birjinak nai zuan ni zerua igoitia,
Jaunak, zertarako da negar egitia.

L Erriak, gizonak eta andriak,
Bakia, bakia neure familiak,
Prest dabilta zeruan izarrak,
Laster joaiten dira orenak eta egunak.

..

*Abur! neure euskaldun maitiak.
(Navarra) Pamplona, 18 junio, 1895,
Francisco Santisteban
Calle de Calderería, nº 42-3º*



391

Pedro Mari OTAÑO

LARRALDEKO MAGDALENA

I Frantzes euskara itzegiten dan
Mendi tantaien artean,
Sara deritzan uri kutuna
Dago ibartxo batean,
Erri leial au edertutzen da
Bere kondaira maitean,
Irakurriaz edo entzunaz
Zer gerta zan jakitean,
Mila zazpireun larogei eta
Amairugarren urtean.

II Erri ontako aingerutxo bat,
Larraldeko Magdalena,
Zan amazapi urte besterik
Oraindik etzitubena,
Guraso onak eska lezaken
Alabarik leialena,
Ikusirikan inguru artan
Apaizik etzeguena,
Konfesatzeagatikan sartu
Zan Espainian barrena.

III Fedeagatik joan ta egondu
Zan Naparroako Beran,
An kofesatu eta gaxoa
Etixerunzko etorreran
Espainia ta Frantzia nola
Zeuden gudan edo gerran,
Katibaturik gelditu zuten
Bere lurreko sarreran,
Ta koitaduak zion: "Ez dakit
Zertan gaizki egin deran!".

IV Arrano tzarren atzaparretan
Mantxa gabeko uxua
Arkitutzen dan bezela zegon
Magdalenatxo gaxua,
Gudari aien agintaria
Izanik errukitsua,
Esaten zion: "Uka ezazu
Gaur eman dezun pausua".
Erantzun zuben : "Ez det egingo
Nik juramentu faltsua".

V Ibili izan balitz bezela
Ixpi edo zelatari
Aur maite ura, gaitzik beinere
Egin gabea inori,
Aurkeztu bear izan zioten
Pinet buruzagiari;
Onek berela agindu zuben
"Gilotina jaso bedi
Eta lepoa kendu bizaio
Magdalena Larralderi".

VI Jesu maiteak guruzpidea
Igaro zuben modura,
Barkazioa ta naitasuna
Banatuaz ingurura,
"Salve regina" kantatuaz ta
Begiratuaz zerura,
Gilotinara igo ta il zan
Zoragarritzko aur ura,
Ta aingeruak eraman zuten
Santuen bizi-lekura.

392

AN.

MAGDALENA LARRALDE 1793AN

I Lore betikoaz koroitu zinala
Txoriyak diyote beren kantetan,
Barkatu nazazu entzunikan ala
Lore bat ipintzen orain bereala
Zure oinetan.

II Erri txiki txuri guztiz alegera
Biyotza goitzen du biltziak ara,
Frantses lur alaietan altxatzen da bera

Ume leial onen seaska gainera
Deitzen da Sara.

III Uri artatikan mirabe gaztea
Apaiz baten bila konfesa zezan
Kontu aundikoa naiz egon bidea,
Ain zeukan petxuan sartuba fedea,
Berara joan zan.

IV Frantses espainolak legoien moduan
Gudatutzen ziran txit gogorrean,
Konfesyotikan biurtzerakuan,
Preso artu zuten frantsesak orduan
Beren lurrean.

V Buruzari arrek ezaguturikan
Birtute aundiko lore garbiya,
Argira azaldu gabe egirikan
Onla mintzatu zan ain kupiturikan
Buruzariya.

VI "Esan zazu, Beran lagun batengana
Izana zerala ikustatzera.
Entzun nazazu au fede aundiz dana,
Ez egitekotan esan dizudana
Galduko zera."

VII Mantxarrik gabeko ume zerutarra,
Juramentaturik fede sutuan,
Laztandurik zinez egiyen indarra

-Ziyon- zergatikan euskal lur naparra
Igaro zuan.

VIII Negarrak malkotan entzun ziyotenak,
Begiyak jasoaz zeruetara,
Salbe Regina ta kanta samurrenak,
Kantatuaz lagun egin ziyen denak,
Gaitzondoara.

IX Anima gabeko Pinet pozoitua,
Odol egarriyan katamotz gisan,
Mendekatu naian koajez sutua,
Aur inozentea gilotinatua
Gero izan zan.

X Birtute aundiko aur zoragarriya,
Urruinduaz gezur traidoriari,
Argitzeagatik garbiro egiya,
Entregatu ziyon anima garbiya
Jaungoikoari.

393

AN.

INGERU MAITIA!

I Kristau Jaungoikozkoak
Bagera munduan
Egon nai gendukenak
Beraren onduan,
Gu bainan geiago bat
Leno bagenduan
Magdalena Larralde
Dagona zeruan.

II Txikitandikan au zan
Elizara asi,
Bainere elizarik
Etzitziaon antzi,
Beti erregututzen
Munduan zan bizi,
Orrelaxen zerua
Zuen irabazi!

III Magdaleni egina
Ez daukat antziya,
Nola kendu ziyoten
Tristiai biziya!
Etsaiyari esanaz
Barrendik egiya
Bat orrela iltzia
Da penagarriya!

IV Gerratia zalarik
Bere erritikan
Frantzitik Espainira
Tristia etorri zan,
Konfesatu zenduen
Berako elizan,
Onen bokaziyua
Ortarako izan.

V Ispizat Magdalentxo
Preso arturikan,
Eta agintariyak
Gogor ekinikan,
Berak nai zutenikan
Ezin eginikan,
Gilotinan il zuten
Orrentxengatikan!!!

VI Nola berez zenduen
Kristau fedetsua,
Eta beti goguan
Zeukan Jaungoikua,
Il zuten ordurako
Magdalen gaxua,
Aingeruak zabaldu
Ziyoten zerua!

394

AN.

LILI GORRIA

Ene arrebari

Geldian
Jainkotiar
Gudian
Gero azkar.

I Erreboluzioeak zuen zafrazten gure lekua
Herriaz tzarrak nagusiturik, zer nahi zuten egiten,
Har ahal har, ondarra fundi, sar ezpata, bota sua,
Han zabiltzan, salbaiak iduri, gauza guzien hondatzen.

II Nahi zuten beren errabian jabetu ere arimez,
Bainan gure aitak eskapatuz hekien aztaparreri,
Elizik gabe, apezik gabe, hargatik azkar bihotzez
Nahasmendu guzien erdian zeuden leialJeinkoari.

III Saran apezik ezin izanez Sakramenduen hartzeko,
Egun hetan Madalen Larralde, neskatxa jainkotiar bat,
Zakielarik piaia hortan bazirela lanjer franko,
Herrian ezin izanen bila gaten zen Espainiarat.

IV Heldu zelarik behin etxerat Espainiako beilatik,
Hara non gure kontrabandixta bi gardek zuten aurkitzen,
Eta lainoki gixagaixoak zertan zabilan erranik,
Donibaneke presondegirat estekaturik ekartzen.

V Madelenek Jaunari zioen presondegian ahuspez,
Huna denbora, lagun nazazu, o ene Jesus leiala,
Gaxtaginekin preso harturik naramate nere ustez,
Eriotze latzgarri baterat zure gatik zu bezala.

VI Belauniko zelarik gaixoa, Jaun bat han zaio etortzen,
"Bozkaria zaitte, haurra, zutaz jujea da urrikaldu,
Errozu Espainian zinela ahide baten ikusten,
Berehala etxerat utziko zaituela hitz eman du."

VII Zer diozu, ene jaun maitea, gezur bat dezadan erran!
Ez zarela gure artekoa ezagutzen dut hortarik.
Bekatua zer den bazintuzte irakutsi katiximan
Ez nindukezu niri eginen,ez, holako gonbidurik.

VIII Jaun harrek bere baitan miretsiz,bai,neskatxaren xedea,
Utzi zuen bere zorteari,gaixoa,biotz minekin,
Madalenek aldiz ikusirik segurki eriotzea
Han zela heldu zen otoitzari eman kar berri batekin.

IX "Ez duk, Jesus nigarrik emaiten nere hogoi urteeri
Zer dudan egin bizi huntako atseginez badakizu.
Badakizu nere biotzean, andre dona Mariari,
Nere bizi guzia dutala botu batez konsekratu.

X Ez naiz ere nere burasoez zuri errenkuratuko,
Fedearen irakaspenetan dira finkatuak barna,
Dakite ez gaitutzula egin mundu huntan egoteko,
Eta martirioa zerurat dela bide laburrena.

XI Dolu min bat nik badut hargatik, dolu min bat biotzean,
Noiz arte herria ikusiko dugu sosegurik gabe,
Xehakatua, ama gaixoa, etsaien aztaparretan?
Oi, noiz arte zaude gureganik urrundua? oi, noiz arte?

XII Gaizkia denek uraren pare edan dugu, Jesus ona,
Eta gizonaren bekatua odolak du ezeztatzen.
Gureztat kalbario gainean odola eman duzuna,
Ai zure odolari nerea, utz nazazu bai juntatzen.

XIII Duela zenbait mende Frantzia etsaien pean zelarik,
Nexkatxa batek, bere odolaz, han omen zuen salbatu.
Ai, saildua zen hura, ni berriz bekatorea! Hargatik,
Gogo onez emaiten dudana, otoi, Jesus onets zazu.

XIV Tribunalean egon zen azkar neskatxa jainkotiarra,
Eta Jainkoak eman legea leialki begiratzeko,
Salve erranez, gilotinarat han egiaren martirra,
Zeruko larrainetan bazuten *Lili gorri* bat geiago.

395

AN.

MAGDALENA LARRALDE SARAKOA

I Neronez nola detan
Memori txikiya,
Jaungoikoari diyot
Eskatzen graziya,
Goitik bigaldutzeko
Zentsura argiya
Argiratu dezatan
Nai detan guziya.

II Ho! zeinen gozotsua
Dan Euskal-erriya,
Zeinan badirudien
Bai, uda berriya,
Zeinen dontsua eta
Zeinen ongariya,
Zer dizdizariya ta
Zer zoragariya.

III Uda berriyan lora
Sortzen dan modura,
Saran lore eder bat
Sortu zan mundura,
Ain dizdizariya zan
Lore eder ura,
Berdintzeko etzala
Besterik ingura.

IV Magdalena Larralde
Da lore ain fina,
Baratz denetan ez dan
Bezela berdina,
Munduko lore eder
Denen erregina,
Usai gozoz betia
Famatu ezina,

V Fediak nola duben
Indarra ugari
Zeruko printzak sortzen
Zitzaizkan berari,
Ta nola Jaunak eman
Ziyon grazi ori,
Beti esker ematen
Ari zan Jaunari.

VI Jaunak ala berian
Goitikan graziya
Banatutzen baiziyon
Berak mereziya
Laguntzen ziyon bada
Arrek nai guziya,
Izan zedin kutsu txar
Gabea jantziya.

VII Mila zazpireun la-
Rogeita amairuan
Frantzes ta Espainolen
Guda zan orduan,
Txit zaila zan bizitzen
Biyen inguruan
Gaxuak naiko lana
Bazeukan orduan.

VIII Apaiz bat nai zuben ark
Benetan bilatu,
Zediyen maiz bezela
Fedez konfesatu,
Bainan nai arren ezin
Zubela arkitu,
Beste buruz bide bat
Zitzaion argitu.

IX Pentsatu zuben bada
Txit goiz jaikitzia,
Eta bere erriya
Sara lajatzia,
Espainiara oinez
Presaz pasatzia,
Naparroako Bera
Erriyan sartzia.

X Esan bezela jaiki
Zan egun sentira,
Eta abisatu zan
Menditik mendira,
Oinez emanik bide
Guztiyari jira
Sartu zan Magdalen
Berako errira.

XI Zer poztasun aundiya,
Berako erriyan,
Arkitzia pake ta
Jaunaren graziyan,
Elizara sartu ta
An egun guziyan
Konfesatzeko pozaz
Gozoko antziyan.

XII Belauniko jarririk
Begiyaq malkotan
Biyotza ernai eta
Burua ez lotan,
Jesus izen gozoa
Zubela frankotan
Egon zan erregutzen
Berako eliz ortan.

XIII Berak ziyon: zer poza!
Zer alaitasuna,
Zer alegranti eta
Zer gozotasuna,
Zer pake eder eta
Zer zorotasuna,
Zer ezin esan leiken
Zoriontasuna!

XIV Zori oneko Bera
Erri gozotsua,
Atseginaz egin det
Onera pausua,
Emen kendu zait neri
Len neukan lausua,
Eta erru txar denak
Neukaten kutsua.

XV Ho jauna! dizkitzut nik
Eskerrak ematen,
Dirazulako goitik
Orrela laguntzen,
Zure aurrez gustora
Naiz belaunikatzen,
Nere biotza dizut
Bertatik eskeintzen.

XVI Birjina Ama ona,
Zeruko izarra,
Eman zaidazu orain
Bezela indarra,
Beti daukat barrenan
Nik zure bearra
Zuk piztutzen dirazu
Nere fede garra.

XVII Miragarriya zan txit
Larralden oroitza,
Jasorikan zerura
Fedezko biotza,
Ain zuben barrendikan
Sentitzen ark poza,
Non ezitasun geigo
Ezin leiken goza.

XVIII Bada desio zuben
Jauna bilaturik,
Eta bere aurrean
Belaunikaturik,
Zentzuak oso emai
Zerurontz jasorik,
Konfesatu zan Jaunak
Goitik lagundurik.

XIX O, zer bildotx mantsoa!
Zer mantxa gabia,
Orrela maitatutzen
Dubena fedia,
Biotzian zeukan ark
(Zer gauza obia)
Zeru eta lurraren
Guztiyen jabia.

XX Ditxa oberik etzan
Arentzako izan,
Nola izan zuben ark
Berako elizan,
Birtutez jabeturik,
Aingeruen gisan,
Jaunaren amoriyoz
Berriro jantzi zan.

XXI Indar berriturikan
Dontsutasunakin
Eta bere barrengo
Kristautasunakin
Sara bidera zuben
Berriz oinez ekin,
Fijaturik Jaunaren
Laguntasunakin.

XXII Bainan ara zer gauza
Zitzaion gertatu,
Frantzes tokiko muga
Oi zanian sartu,
Ispien bat zalako
Zuten gogor artu,
Eta agintariyen
Gana bertaratu.

XXIII Agintari ark zizkan
Gauz asko galdetu,
Ea nondikan ara
Zan orla alderatu,
Obe zubela gezur
Bat bertan asmatu,
Eta beste lekura
Ostera aldatu.

XXIV Gero ziyon : ai, gazte
Dontsu ta umila,
Oker jiran dabilztu
Zuk zure kurpila,
Onuntz etorri zera
Eriotzen bila,
Obea dezu beste
Leku on bat bila.

XXV Amazazpi urteko
Gazte ona zera,
Eta gauza bat nua
Zuri esatera,
Emen leku txarrian
Arkitzen baizera
Lengo lekura jira
Zaite prest ostera.

XXVI Ez al dakizu emen
Atzitu ezkeru
Gauz onik ez dezula
Inola espero?
Zure zelatan ortxen
Dira onezkero
Azkar ibili ez da
Denborikan gero.

XXVII Kupira detalako
Dizut au esaten,
Ixiltxo irakurtza
Bat dizut ematen,
Inork non zinan baldin
Badizu galdetzen
Esan: Beran zinala
Lagun bat ikusten.

XXVIII Bestela badakizu
Ispitzat arturik
Ez dezula izango
Ez, barkaziyorik,
Eta egin dezun lan
Dena ukaturik,
Gezurrarekin libre
Zirade bertatik.

XXIX Estimutzen det asko
 Bedorren esana,
 Eta nereganako
 Kupira zeukana,
 Bainan ezin nezake
 Gezurtu nik, jauna,
 Beran biyotzetikan
 Egin detan lana.

XXX Izan dedila gauza
 Datorren bezela,
 Ez pentsa deusengatik
 Beldurtzen naizela,
 Nai dan oker guziya
 Nigan datorrela,
 Jasotzeko zai nago
 Bere-beriala.

XXXI Aitortuko det denen
 Aurrian egiya,
 Bildurrik gabe daukat
 Txit barren garbiya,
 Jaun onak egingo dit,
 Zeruan tokiya,
 Gozatzeko betiko
 Beraren gloriya.

XXXII Pinet agintariya
 Zan guztiyen buru,
 An zer gertatutzen zan
 Ziyoten kontatu,
 Eta ark beriala
 Baitzuten agindu,
 Ekartzeko argana
 Zediyen bigundu.

XXXIII Jarririkan Magdalen,
 Pineten parean,
 Abiya zan mintzatzen
 Txit modu onean,
 –Zein erritatik zatoz,
 Esan zazu, geran?
 –Egiya esateko
 Izandu naiz Beran.

XXXIV Eta zer egin dezu
 Espaina lurrian?
 –Belaunkaturik egon
 Jaunaren aurrian,
 Eta nola dakartan
 Biyotz samurrian
 Berarekin arki nai
 Oso indarrian.

XXXV Ez det mundu ontako
 Inoren bildurrik,
 Ez da Fedetasun au
 Kenduko diranik,
 Berari otoitz gabe
 Ez det nik egunik
 Ez da deus Beragatik
 Egingo ez nukenic.

XXXVI Ta nola ez maitatu
 (Ta izan fedia)
 Aingeru ta mundutan
 Denen Erregia?
 Berak biyotz barrenan
 Sortu dit labia,
 Ura da gordekari
 Ta nere jabia.

XXXVII Odolak suturikan
 Agintariyari,
 Agindu zuben preso
 Sartzeko dama ori,
 Esanaz: –berotzeko
 Bizkarra berari
 Zigorren kolpiak
 Emateko ugari.

XXXVIII Ea modu ortara
 Ote zan biguntzen,
 Eta ark egin zuben
 Lan dena ukatzen,
 Bainan alaz guztiyaz
 Au etzan izutzen,
 Baizik Jaunari ziyon
 Beti erregutzen.

XXXIX Ikusirikan sendo
 Fedian zegoala,
 Eta ezergatikan
 Beldurtzen etzala,
 Agindu zuben Pinet
 Jaunak beriala
 Erriyan erakusten
 Ibil zezatela.

XL Eskarmentagarritzat
 Beste guztiyari,
 Ta beldurra sartzeko
 Gazte jendeari,
 Lotuta denen aurrez
 Zuten an ibili,
 Gaizkile bat bezela
 Denen parragarri.

XLI Alaz guztiaz etzan
Au fedian ostu,
Baizik naigabe abek
Zuten geigo poztu,
Berak ziyon: –orain naiz
Oso aberastu,
Badakit jauna nitzaz
Etzaitala aztu.

XLII Kalte au da neretzat
Oso gustokua,
Zori onian nabil
Onela lotua,
Zeruaz jabetzeko
Daukat nik asmua
Pozez jarraituko det
Nik azken ordua.

XLIII Eraman zuten bada
Gilotinatзера,
Gorputzetik labanaz
Burua kentzera,
Munduko eginkaien
Zorrak pagatzera,
Pineten agindua
Gogoz kunplitzera.

XLIV Umil, umil gaxua,
Ardiyen modura,
Sartu zan urka mendi
Edo il-lekura,
Begiyak jasorikan
Jaunari zerura,
Kunplitzera sententzi
Penagarri ura.

XLV Otoitz ta erreguak
Zituben goguan,
SALVE REGINA zuben
Aitatzen orduan
Jarririkan umilki
Bear zan lekuan
Laban zorrotza sartu
Zitzaion lepuan!

XLVI Zer eriotza triste
Eta zer gogorra!
Azken pagutzat eman
Ziyotena, orra!
Zikindu nai ezikan
Inozentzi ta honra,
Modu ontara zuben
Pekatu borra.

XLVII Begira jende asko
Zan antxen arkitu,
Onen fedetasunez
Ziraden arritu,
Askori zitzaioten
Biyotza mugitu,
Eta ziran txit asko
Bertan bestegotu.

XLVIII Zer erakusgai ona
Ta ongariya,
Fedia maitatuaz
Galtzia biziya!
Nola zuben beti ark
Zeruko antsiya
Bertaratu zan bada
Birtutez jantziya.

IL Sarako erriyak du
Gutziz onoria,
Izattia orlako
Alaba beria,
Orain ere saiatu
Bertako jendia,
Maitatzen ark bezela
Jaunaren legia.

L Txit borondatez ditut
Itz abek neurritu,
Eta lore on orren
Omenak aitortu,
Inork uts eginikan
Bilatzen baditu,
Biyotz biyotzez diyot:
Meserez barkatu!



1896 MAULE**396****Laurent DIHARASSARRY "Ortzaizeko erretora"****MADALEN LARRALDE SARATARRA****Hamabortz urthetan hila, 1794an**

I Elizak hutsak ziren, aphezak ihesi,
Debruaren muthilak Frantzian nagusi!
Gure Eskual-Herrian, orotan gainetik,
Giristino jendentzat etzen bizitzerik.

II Primadera goiz batez, argi urratzean
Saratar bat heldu zen Berako bidean,
Nexka gazte guria, Madalen Larralde,
Bakharrik, othoitzean, zohan etxe alde.

III Betbetan sasipetik, otsoen pareko,
Soldadu batzu oihuz ateratzen zaizko.
"–Non habila, neskatxa? Zertan hintzen Beran?
Hots, egia dena den, guri laster erran."

IV Badaki Madalenek, egia erranik
Ez dela harendako luzaz bizitzerik.
Hala ere nahi da egiaz mintzatu:
"–Kofesatzeko, dio, naiz Beran izatu.

V –Zer! hoin lili freskoa hoin laster ebaki?
Ez, nahi hindukegu bizirik atxiki,
Ez aithor beraz zertan hindabilan Beran.
Xuri edo beltz, bertze zerbeit asma ezan.

VI –Bertzerik erratea gezurra litake,
Gezur hortaz arima zikhinduko nuke.
Hil behar balin badut, hil nadila garbi,
Garbi bizi dena da egiazko lili."

VII Eta Madalen bethi hitz berean dago.
Nola Saran lehenik, Donibanen gero.
Han dire Donibanen, jujeak bildurik:
Badohakote nexka begia lainorik.

VIII Bai, bai, jaunak, hala da: kofesatzen nintzen,
Ez dut egin dutana batere gordetzen.
–Haizen bezalakoa badinagu aski:
Lephoaren moztea din horrek merezi.

IX –Lephoa dautet beraz sarri pikatuko!
Ez naiz ordutik mihiz mintzaten ahalko,
Bainan hor izanen dut odola lekuko,
Gogotik hil naizela egiarendako."

X Jendez da, Donibanen, estalia plaza,
Plazaren erditsutan gilotina gaitza.
Aingeru bat iduri debruen artetik.
Madalen agertzen da eskuak loturik.

XI Oro nigarrez daude, hura aldiz kantuz.
Lorietan badoha hiltzeari buruz.
"Salve, Regina", dio, "Agur Erregina".
Zutan dut esperantza, Ama guziz ona!"

XII Iganarazten dute tresna lazgarriat;
Burua pikaturik badoha lurrerat,
Bainan arima xuxen altxatzen zerurat,
EGIAK du betikotz hartzen bere ganat.

397**Felipe ARRESE BEITIA****EUSKALDUN MARTIRE, SARATAR NESKATILA LARRALDEKO**

I Gura neuskizuz zuri gloriak
Kantau, neskatxa samurra,
Frantzian igo eben denporan
Gorriak Gobiernura,
Oinperaturik ain gizon gaitzo
Infernutarren bildurra,
Oraindik izan arren amabost
Urteko gazte biguna,
Pinet ta bere lagunak gaitik
Ez eutsulako ardura.

II Alperrik eutsun, lotu zinduzan
Piketearen buruak,
Esan guzurraz estalduteko
Berako zure kontuak,
Jakin etzedin zetara emon

Zenduzan ara pausuak,
Ta gitxiago an zelan artu
Zenduzan sakramentuak,
Zeintzuek gaitik pagau ez eian
Ondotxo zure lepuak.

III Orduan baina fedez sututa
Ain modu miragarrian,
Erantzun zendun: "Naiz il naiela
Ni ilgo nabe Egian,
Jakin begie gura badabe
Agintariak Frantzian
Zelan konfesau eta komulgau
Nazan Berako errian
Jauna iraindu baino len zeren
Il gura dodan grazian".

IV Nor ez da arri egingo oso
 Non nai zu ikusitean
 Mendi bat legez, gogor ta zutik
 Katolikoan fedean,
 Ikara baga, egia beti
 Autortzen tenple batean,
 Naiz soldaduen, zein jeneralen
 Bardin juezen aurrean,
 Jakina gaitik epai gaizto bat
 Zeunkala zeure gainean?

V Baina, Jesus da egia eta
 Zu zinan egi zalea,
 Orretxe gaitik, o! Madalena!
 Kristo zan zure maitea,
 Nogaz zenduan zuk bizi gura.
 Nogaitik bere iltea.

Nogaz guzurraz etzendulako
 Txarto nai geratutea,
 Bere etsaiak emon eutsuen
 Kastiguz eriotzea.

VI O! neskatila Sarako gazte
 Fedez bardinik bagea!
 Il bear eta kantetan dozu
 Birjin-Amaren Salbea.
 Lirio guri zinan denporan
 Ikusgarritzko loria,
 Gilotiniatz gorriak zuri
 Ebagi arren samia,
 Orain zeruan gozetan dozu
 Martiriaren koroia.

398

Frantzisko LOPEZ ALEN

LARRALDEKO MADDALENARI OROITZ BAT

I Nork eta zerk nau gaur erautziko
 Detana senti indarraz esan!
 Nork eta nola neri galazi
 Barrendik irten nai duena joan!
 Pizti txikiak ez du kantatzen
 Erautsi gabe mendi maldetan!
 Arrano aundia odoietatik
 Dijoanian panparroi egan
 Bere marruen otsa legorra
 Ez du zabaltzen lurren gainean!

II Bai! bai nik ere zabalduko det
 Datorkiana nere barrendik,
 Ez arranoen eta piztien
 Deadar utsa bezelakorik!
 Ifar-aizea ari danian
 Arboltegien ostoa tartetik
 Adiarazten ansi gozoak
 Ta baratz-soro aren gainetik,
 Ala nik ere senti detana
 Kantatuko det, ai! biotzetik!

III O! Magdalena Larraldekoa
 Saratar dontzu eta eztia,
 Inoiz ez dana aztuko zure
 Oroimen-doa txit naigarria!
 Zure erritik zinana izan
 Nafarroako Bera etorria!
 Berako eleizan tropa zenuben
 Zeruetako zuzen bidia

Egin eta artu zenubelako
 Konfesioa ta Jaun-aundia!

IV Pinet buruzai agintaria!
 Baldin badezu inon zentzurik,
 Esan gaituzu gure Magdalen
 Zergatik dago kartzelaturik!
 Eta diozu il bear zula!
 Eta gainera penik arturik!
 Neskatx fededun eskalduna da,
 Ta kontu, Pinet! ein orlakorik!
 Zergatik Euskal erriak jartzen
 Dakizki etsaiak dar-daraturik!

V Oi! zer ikaragarritzko gaba.
 O! zer tximistak! o! zer turmoiak!
 Bazirudien dana bat egin
 Nai zutela lur ta zeru-goiak!

.....!
 O! Jaungoikoa!... zer da argi ori
 Azaltzen dana gure gainian...!
 Ta kanta ori mendirik-mendi
 Ibairik-ibai Euskal errian
 Itsas-lurrean aditzen dana
 Nondikan dator!...

Ama Birjinen mantu urdinen
 Orri tartean estalirikan
 Gure Magdalen da zerurutzen
Salve Regina kantaturikan!

399

Hippolyte PIE “Hazpandarra”

KANTORE BERRI BATZU

- I Kantore berri batzu nahi tut paratu,
 Duela ehun urthe zer zaikun gerthatu,
 Erlisionia nahiz bethikotz kasatu,
 Frantses aphez guziak zituzten zerratu,
 Erreboluzionia baitzuten altxatu.
- II Giristino guziak ziren penatuak,
 Zeren aphez guziak ziren kasatuak,
 Berthutezko bideak oro tratatuak,
 Estranjereren pasaiak zauden zerratuak,
 Zohana ere altxatzen laster justiziak.
- III Ziburutik Urruñala da Beltchaenea,
 Orduan han zen Pinet eta Konpainia,
 Hantik egin arazten anhitz desmasia,
 Iguzki sar aldea soldadoz bethia,
 Ikharagarri baitzen orduko bizia.
- IV Etsenplu bat handia badugu Saratik,
 Larrondo-Zaharreko alabaren ganik,
 Aita Michel Larralde, (Beltxa) gain emanik,
 Sorthua zen Gaxina, ama Luc baitharik,
 Burhaso lejitimo elizak eginik.
- V Hamazazpi urtheko neskatxa gaztia,
 Onheski lakhet zaion bethi bizitzia,
 Bai eta kofesatzen usu ibiltzia,
 Frantzian ezin bertzez aphezik izaitia
 Berako komentuan zen abiatia.
- VI Pinet jaun gaztiari zaien gogoratu,
 Bere armada zuen Berara segitu,
 Bai eta mementoan komentuan sarthu,
 Madalena Larralde han zuten kausitu,
 Eta ordu berian presuner altxatu.
- VII “–Zertan zabilta hemen neskatxa gaztia,
 Manua dugu orai zu arrastatzia,
 Frantzia et’Espainia arras nahasia,
 Pasatu othe daikuzun zerbeit malezia,
 Garbiki zaite mintza erranez egia.
- VIII –Afera horietan ez naiz okupatzen,
 Nihoren enganatzen ez bainiz usatzen,
 Zeren gure herrian aphezik ez baitzen,
 Nere kontzientziaz kofesatzen nintzen
 Fededunen legiak hala du manatzen.
- IX Amarratzen zaitugu orai elgarrekin,
 Mintzatu behar zira jeneralarekin.”
- Hura egiaz mintzo bethi kuraiarekin,
 Etzuen deusik nahi hark gizonarekin,
 Fedearen argia baitzuen berekin.
- X Jeneralari zaion bihotza hunkitu,
 Bai eta erran nola behar zen mintzatu,
 Frantses soldadoek zaituztela izitu,
 Heien beldurrez zirela Espainian sarthu,
 Solas hortaz bizia beiraturen duzu.
- XI Ez, ez dut heraberik fedearendako,
 Ez eskas kuraiarik hola mintzatzeko,
 Ez baitut usaiarik gezur erraiteko,
 Nahi duenak sinhets berek jujatzeko
 Aithor hortan bururik ez dut aphalduko.
- XII Donestialat laster erreposta pian zen,
 Pinetak zaharrena han baitzen egoiten,
 Gerlako kontseilurra hark du kondenatzen,
 Zeruaren jujamendua Donibanen baitzen,
 Lekhuaren izena (Chauvin-dragon) deitzen.
- XIII Donibane hirian jujamenduz hartu,
 Jujuk ikhus orduko hiltzera manatu,
 Hamazazpi urthetako hola kondenatu,
 Bainan haren bihotza ez baitzen izitu,
 Kontzientzia garbi nahi zen phartitu.
- XIV Donostia herritik jina da ordena,
 Lephoaren mozteko eni Madalena,
 Donibane hirian nadin gilotina,
 Alegera deramat nik azken orena,
 Zerutik oihuz ari zait ama birjina.
- XV Abian hartzen dute Larralde Madalena,
 Soldadoek artian Donibanen barna,
 Orok aldizka joka hartuz beren harma,
 Gilotinako burrego handiaren gana,
 Kantatzen zuelarik *Salve Regina*.
- XVI Har zazue kuraie heskualdun leialak,
 Eta bihotzez zabal fedezko hegalak,
 Itzalaren pare dire bai munduko penak,
 Fedea galda beza hauen beldur denak
 Oro ahantziren tu bertze erresumak.
- XVII Frantzian izan diren itsuskerietarik,
 Erreboluzione handietarik,
 Giristinoa zaukaten orok ehortzirik,
 Munduan ezarri nahiz fedea lehendurik,
 Hemeretzi mende huntan dagona bizirik.

XVIII Heskualdunek bihotzak altxa Jainkoari,
Guziak bozkaria zeru ederrari,
Neure sor-herria Sara maiteari,
Aita, ama, haur bide, ahaid´adixkideri,
Adios sekulakotz mundu guziari.

XIX Gaztetasunarentzat dugun primadera,
Ethorri naizeneko uroski mundura,
Baliatzeko ez dut nik izan denbora,

Zer den jakin gabarik mundutik banoha,
Heriotzeko tresna gorputz lazgarrira.

XX Gilotinaren tresna ikharagarria,
Milaldiz nahiago dut beiratzu fedia,
Bihotz onez hartzen dut krudelitatia,
Jainkoak emanen daut zeruko loria,
Sainduekin goatzeko eternitatia.

1897 BILLARO

400

Frantzisko LOPEZ ALEN

OROITZ BAT

ANTOINE D'ABBADIE-REN OBIAN

I Ain ongi dakit nere laguntza
Ez nazula ukatuko...
Ain ongi dakit ez dizutala
Zure loa galaziko...
Ain ongi dakit zaudela pozez
Gaur etorri naizelako,
Ez aditua ni naizenikan
Uste ortan nagolako,
Baizik zugana etorri dana
Euskaldun utsa dalako!

II Emen nago ta emen egotez
Ez det izango damurik,
Nere burua makurturikan
Biotza gora jasorik!
Zure ondoan ipiniko naiz
Eta otoitzak barrendik
Euskaraz ariko naiz mintzatzen
Zure obien ganetik,
Euskal-Errien maitetasunak
Igo ditezen baturik!

III Guraso gabe aur zurtzak ala
Nola gelditutzen diran,
Zu gabetanik gure izkuntza
Gelditu da gisa ortan!
Naiz ez bazinan ain jakintsua

Ta gizon ernea izan,
Euskal-fedeak zeukan indarra
Beti zure biotzean
Zure oroitzak argituko du
Euskaldunaren artean!

IV Bainan, zer nago!... Ni zer ari naz
Bakarrikan egon arren!...
Nere izateak senti duena
Zapuztuko det barrenen?
Ez! baldin bada nere aboa
Ezana emen isiltzen,
Nere biotza da ari dana
Eta dubena sentitzen...
Nork eta nola galeraziko
Antsiari, ez, irtetzen!...

V Bai!... Abbadie! Zuregatikan
Nola oroituko ez gera!
Euskal-errian zure izena
Sekulan galduko ez da!
Ta Euskal-Festak gure lurrean
Diranean gaur bezela,
Gaur bezela ni etorriko naiz
Nola diran esatera,
Zure obien gainean bidez
Malko bat isuritzera!! ..